

Arnaud Oihenart

EUSKAL ATSOITIZAK ETA NEURTITZAK

* * *

PROVERBES ET POESIES BASQUES

* * *

PROVERBIOS Y POESÍAS VASCAS

IKER 15



EUSKALTZAINDIA /
Real Academia de la Lengua Vasca /
Académie de la Langue Basque

BILBO

2003

Patxi ALTUNA - Jose Antonio MUJIKAK

* * *

PATXI ALTUNAK eta JOSE ANTONIO MUJIKAK prestatu dute edizio hau. *Hitzaurrea* eta *Atsotitzen* zatia J. A. Mujikak egin ditu, eta harenak dira gaztelaniazko itzulpena eta atsotitzen ondoko argitasun oharrak. *Neurtitzen* zatia, berriz, P. Altunak egin du, eta harenak dira bai gaztelerazko itzulpena bai neurtitz bakoitzeko aurkezpena eta argitasun oharrak; hitz bakanen adigarrian ageri diren hitzen gaztelerazko itzulpena ere harena da. Elkarlanean prestaturiko edizioa izaki, bakoitzak bestearena ere ikusi du, zegozkion oharrak eta iradokizunak elkarrekin trukatu.

LES PROVERBES

BASQUES

RECUEILLIS PAR LE S^r

D'OIHENART,

PLUS LES POESIES

Basques du même Auteur



Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia

Bilbo, 2003



EUSKALZAINDIA

Liburuki honen paratzaileak
Patxi Altuna, SJ
Jose Antonio Mujika

Taiutzaile-Koordinatzailea: Ricardo Badiola Uriarte

© Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

ISBN: 84-95438-14-3
Legezko Gordailua: BI-2798-03

Fotokonposizioa: IKUR, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1º - 48005 BILBO

RONTEGI, S.A.L. inprimategia
Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 ERANDIO (Bizkaia)

AURKIBIDEA

HITZAURREA	15
Bizitza eta lanak	16
Euskalaria	17
Atsotitza eta neurtitzen liburua: Edizioak	21
Lehen partea: Atsotitzak	24
Bigarren partea: Neurtitzak	29
Edizio honi buruzkoak	35

ATSOTITZAK EDO REFRAUAK

Proverbes, ou Adages Basques

Recueillis par le Sieur d'OIHENART

PREFACE	49
De l'Orthographe Basque	50
AITZIN SOLASA	55
Euskal ortografiaz	56
PREFACIO	59
De la Ortografía Vasca	60
ATSOTITZAK edo Refraua	63
1. Ahausia eta ausikia behinkoaz uken tut	63
20. Amak irin balu, opil balaidi	73
40. Arstoa emoiik arbuia zezanak, gero erosi behar uken zuen	81
60. Atsegina bikun da, denean laster egina	90
80. Beharra, eragile handi	99
100. Bihia peitu den etxeko gauza guziak dira saltzeko	106
120. Duenak, azer biper	114
140. Enganazalea enganatu duenari, eman bekio ez pena, bana sari ...	121

160. Ez holla, Usmena, handiki gorapenak soinean diakarken beherapena	128
180. Garaziren gaitza Behorlegik derosa	134
200. Goiz orzadar, arrats iturri	142
220. Haur merda, gurentu denean alfer da	149
240. Hiri zionat, alaba; adi ezan, alabaizuna	156
260. Jaun handien otoia, ezetz errailen zeha-doia	163
280. Irririk eztakien begitartea, bihotz latzaren jakilea	170
300. Lehia gaitza, berantgarri	176
320. Mundu hunek diduri itsasoa, igerika eztakiena ondarrera doa	183
340. Noren ari aiz? Lo datzanaren	189
360. Oina alda, gogoia muta ari da	195
380. Orratzak mundu oro du beztitzen eta da bera biluz gelditzen	202
400. Puteki bizitzea, da ospitalera abiatzea	208
420. Zahar hitzak, zuhur hitzak	214
440. Zor zaharra, minberrizale	221
460. Urean ito edo suan erra, da kalte bera	226
480. Xazkoaren adin, geurzkoaren bardin	232
500. Emak horari ezurra eta emazteari gezurra	237
520. Goiz jaikitea baliatuko etzaik, zoriona ondoti ezpadarraik	244
540. Adiskide zaharra berriagatik eztutzala	252
560. Bertzeren diruaz duenak etxea berritzen, etxe zaharra eta berria ditu bahitzen	258
580. Ergela da gordatzera doena berezenera	264
600. Gaina <i>eder</i> , barrena uher	268
620. Haurrak athean duena erasi, sukaldean zuen ikasi	273
640. Lexanzuko tonborrariari, urre bi joiteko, sei ixilsari	278
660. Orotako gaxtoen ozpina, da arno eztitik egina	284
680. Amaizunari kexua	290
700. Nihori pot egin behar duenak gibelaldean, eztu irabazirik luzatzean	296

O.Ten GAZTAROA NEURTHITZETAN

<i>La Jeunesse d'O. en vers Basques</i>	299
---	-----

AU LECTEUR	301
IRAKURLEARI	302
AL LECTOR	302
Argitasunak (I)	308
Argitasunak (II)	316
Argitasunak (III)	327

Argitasunak (IV)	336
Argitasunak (V)	344
Argitasunak (VI)	356
Argitasunak (VII)	363
Argitasunak (VIII)	369
Argitasunak (IX)	375
Argitasunak (X)	382
Argitasunak (XI)	389
Argitasunak (XII)	393
Argitasunak (XIII)	403
Argitasunak (XIV)	415
Argitasunak (XV)	421
Argitasunak (XVI)	429
Joana (XVII)	433
Argitasunak (XVII)	440
Jainkoazko neurtitzak	447
Argitasunak (XVIII)	448
Argitasunak (XIX)	452
Argitasunak (XX)	462
Argitasunak (XXI)	472
Argitasunak (XXII)	478
Argitasunak (XXIII)	483
Argitasunak (XXIV)	488
Argitasunak (XXV)	493
Argitasunak (XXVI)	502
Argitasunak (XXVII)	509
Argitasunak (XXVIII)	515
Argitasunak (XXIX)	517
NEURTITZ HAUTAKO HITZ	
Bekanen adigarria	519
ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA	531
I. Oihenarten liburuaren edizioak, kronologikoki ordenatuak	531
II. Oihenarti buruzko lanak	532
III. Bestelako lanak	534

HITZAURREA

Badu zerbait Arnaud Oihenart zuberotar idazleak –berriro argitara ematen dugun liburu honen egileak– ikertzaileen interesa pizten eta haien arreta biziki erakartzen duena. Lehen ere hala zen eta denbora pasa ahala interes hori hoztu ez, baina are handiago eta biziago egin dela esan daiteke¹.

Hamazazpigarren mendeko idazlea da Oihenart (1592-1667), hainbeste euskal idazle on eta trebe eman zituen mendekoa, hain zuzen, baina haietako gehienak ez bezalakoa ageri zaigu hura puntu askotan. Herri-gizona izan zen Oihenart, ez elizgizona. Gaztetan abokatu ikasketak eginik, auzi korapilatsu ugaritan eta herriko zeregin handitan aritzea tokatu zitzaion. Baina, hori gutxi ez dela, letren mundura ere zabaldu zuen, oparo, bere zaletasuna. Auziak auzi eta karguak kargu, beti aurkitu zituen astia eta modua hain gogoko zituen letrak eta jakintzagaiak lantzeko. Batetik –eta beharbada batez ere–, historia-laria izan zen, mito errazen lilura alde bat utzi eta historiografia berriaren urratsetan barrena abiatu zena, iraganaren lekukoak artxiboetako dokumentuetan bilatuz. Olerkaria ere izan zen, literatura landuaren arauak zehazten eta praktikan jartzen saiatu zena. Eta paremiologoa, bere garaiko atsotitz zerrenda luzeenaren biltzailea. Hizkuntzalaria ere izan zen, neurri batean, euskal gramatikaren oinarrizko nondik-norakoak argitzen saiatu zena, lexiko kon-

¹ Orain baino lehenagokoez, ikus, besteak beste, Haristoyk egiten dizkion aipamen ohorezkoak (1892: 5), Saroihandyk haren gramatika ideiez egin oharrak (1923), Lafonen lanak (1949, 1955a, 1955b), Mitxelenak hari buruz egin zituen iruzkinak (1953) eta Lafittek *L'Art Poétique Basque* argitaratzean idatzi zituen argitasun biografiko-bibliografikoak (1967: 195-204). Orainagokoez, berriz, ikus haren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko eginiko batzarre eta argitalpen monografikoak: *Bulletin du Musée basque*, 1992, 1. zenbakia; *Hegats*, 1992, 7. zenbakia; *Iker-8: Oihenarten laugarren mendeurrena*, 1994 (Euskaltzaindiak eta CNRSeko URA 1055 delakoak 1992 antolatu biltzarrean aurkezturiko lanak); *Jakin*, 1993, 74. zenbakia.

tuetan Pouvreau-ren laguntzan aritu zena eta euskararen ortografiaz ere iritzi berri eta beregainak plazaratu zituena... Hitz batean esateko, letra-gizona izan zen Oihenart, humanista, gizon ikasia eta, horretarako laguntza txarra ez baita, hizkuntza asko menderatzen zituena.

BIZITZA ETA LANAK

Gauza gutxi zekiten joan den mendean Oihenarten bizitzari buruz, harik eta J. de Jaurgainek *Arnaud d'Oihenart et sa famille* lan monografikoa argitaratu zuen arte (1885). Eta gaur egun lan hori dugu, oraindik ere, Oihenarten berri jakiteko iturri nagusia. Hauek dira haren bizitzaren eta lanen datu aipagarrienak²:

- 1592ko abuztuaren 7an jaio zen Maulen.
- 1617an Bordelen da, abokatu-ikasketak egiten.
- 1623-1629: Heren Ordenako ordezkari Zuberoan.
- 1625ean idatzi bat argitaratzen da, egile-izenik gabe: *Déclaration historique de l'injuste usurpation et rétention de la Navarre par les Espagnols*. Oihenarten lana dela uste da.
- 1627an Joana d'Erdoy andre noblearekin ezkondu eta Donapaleun jar-tzen da bizitzen, bere lanak direla-eta batera eta bestera gelditu gabe ibi-liko bada ere.
- 1629-1636: leku askotan dabil, artxiboetan-eta, lanean: Baionan, Pauen, Tolosan, Iruñean, Tarbesen, Akixen, Perigueux-en, Parisen...
- 1637an *Notitia utriusque Vasconiae* inprimatua Parisen. Lehen liburuko XII. eta XIII. kapituluetan Euskararen historiari buruzko iritziak aurkezten ditu eta XIV.ean, berriz, euskal gramatikaren azalpen oinarri-zkoa eskaintzen.
- 1644an Gramontarren genealogia bat idazten du.
- 1648: Albret etxeari buruzko ikerketak. Galland-en *Mémoires pour l'histoire de la Navarre et de Flandre* liburuan lan bat ageri da honako titulu honekin: *Extrait d'un traité non encore imprimé, intitulé*

² Datu gehiago nahi dituenak ikus bitza Lafitte (1967: 195-198) eta, are beteago, *Bulletin du Musée basque*, 1992, 1. zenbakian Jean-Marie Larrek argitara emaniko *Chronologie sommaire* atala.

'*Navarra iniuste rea, siue de Nauarrae regno contra ius fasque occupato, expostulatio*'. Hau ere Oihenarten lana dela uste da.

- 1653an Oihenarten emaztea hiltzen da.
- 1656an *Notitia utriusque Vasconiae* liburuaren bigarren edizioa, berri-tua eta emendatua. Euskal gramatikaz ari den kapitulua da, beharbada, emendatuenik ageri dena. Javier Gorosterratzuk edizio honen gaztelaniazko itzulpena argitaratu zuen, zatika, *RIEV* aldizkarian 1926-29 urteetan eta gero osorik 1929an Eusko Ikaskuntzaren eskutik. Egunotan Eusko Legebiltzarrak argitaratu ditu, liburuki batean, bigarren edizio haren facsimila eta Gorosterratzuren itzulpena (1992).
- 1657an Parisen da lanean Oihenart. Han argitaratzen du *Les Proverbes basques recueillis par le Sr. D'Oihenart, plus les Poésies basques du mesme auteur*.
- 1661: Sylvain Pouvreau-ri bidaltzeko lexiko-oharrak idazten hasten da. Harekin izan zuen korrespondentzia osorik argitara eman du berriki M. J. Kerejetak *ASJU* aldizkarian (1991, 3. zenbakia).
- 1662: Ablitasko kondeari gutun batean esaten dionez, Euskal Herriari buruzko beste lan bat idaztekotan da.
- 1664: Jussef Eguiateguy-k dioenez, Neurtitzen beste edizio bat argitaratu zuen 1657koan ageri ez ziren batzuk bilduz (Francisque-Michelen edizioan *Autres pièces et fragments* izenpean ageri direnak ote?).
- 1665: *Atsotitzen Urrhenkina* argitaratzen du Pauen, Jean Desbaratz, Marchand Libraire & imprimeur du Roy baitan³. Urte horretan berean literatur prezeptibaren atal nagusiak biltzen dituen *L'Art Poétique Basque* lana idazten du, baina argitaratu gabe geratzen da. P. Lafittek eman zuen argitara *Gure Herria*-n 1967an (195-234).
- 1667an hil zela pentsa daiteke, 1668ko urtarrilaren 14ko idatzi batek hiltzat ematen baitu.

EUSKALARIA

Zerrenda labur horretan antzeman daitekeenez, Historia zuen Oihenartek beharbada jakintzarik eta ikergairik gogozkoena eta jorratuena,

³ Urkizuk (1994: 296) ematen du ale honi buruzko berri.

haren lanik handienak jakintzagai horri buruzkoak baitira. Hitzaurre honetan, hala ere, alderdi hori alde bat utzi eta haren jardueraren bestelako alderdi batzuk aipatzea dagokigu, *Atsotitzen* eta *Neurtitzen* liburu honekin zerikusi estuagoa dutenak. Eta, horretan hasita, Oihenart, besteak beste, *euskalari* argi eta trebea ere izan zela esan behar dugu, euskararen izaera aztertzen eta haren erabilera jasoari bideak irekitzen saiatu zenari titulu hori zor zaiola zalantzarik ez baitago. Euskarari buruzko lan monografiko handirik egin ez zuen arren, bere lanetan maiz aipatu zituen, han eta hemen, euskarari buruzko iritziak.

. *Euskararen historia: Notitia*-ren 1. Liburuko XII. eta XIII. kapituluetan *Euskararen historia*-z duen iritzia ematen du, lexiko konparazioan oinarrituz. Euskarak antzinatean zuen zabalera ez du Euskal Herrira mugatzen, baina ez du, halaz guztiz, Penintsula osora ere zabaltzen, zenbaitek egiten zuten bezala, argi ikusi baitzuen Espainiako iparraldeko hizkuntza eta gainerako espainiarren hizkuntzak ez zirela berdinak, ezaugarri komun batzuk izan bazitzaketen ere.

. *Gramatika*: “Euskal gramatikarien aitzindaria” deitu du B. Oyharçabalek Oihenart¹. Egia da gramatikaz ere ez zuela, dakigularik, obra berezirik idatzi, baina *Notitia*-ren kapitulu bitan jorratzen du gaia, 1. Liburuko XI.ean eta, batez ere, XIV.ean. XI.ean izenen hondarreko *-a* morfema artikulua dela erakusten du, orduko eta are geroagoko idazle askoren iritziaren kontra. Baina XIV. kapitulu da, esan bezala, haren gramatika azterketa funtsezkoenak bilzen dituen. Han ikusten da ehundaka urtez aurreratu zela Oihenart deklinabide mugagabearen analisisan, hitza eta hondarkia *-eta* honen barnean artikulua eta kasu marka bereizten jakin zuela, horrelako bereizketarik inork egiten ez zuen garaian, ergatibitateaz ohartu zela *-latinaren ikuspegia gaindituta-*, kasu gramatikalak eta leku-denborazkoak bereiz eman zituela, artikulua pluraleko hondarkia analizatzen ere asmatu zuela *-deklinatzen dena izen sintagma osoa dela ez zen, hala ere, ohartu-...* Han ikusten da, halaber, aditz laguntzaileen sailkapen aski modernoa egin zuela, gure *izan*, **edun*, **edin* eta **ezan* laguntzaileak *naiz*, *dud*, *adi* eta *ezak* izenekin emanaz. Argia izan zen Oihenart, latinaren menpekotasuna utzi eta euskarari berari zegokion analisisa egin baitzuen XIV. kapitulu horretako 15 orrietan. Formatik abiaturiko haren azterketa printzipio batek gidatzen zuen: forma bati morfema bat dagokio, eta alderantziz. Printzipio horrek asko lagundu zion artean ilun zeuden puntu asko argitzen. Oyharçabalek dioenez,

¹ Oyharçabal 1994: 27-47. Ikus, halaber, Oyharçabal 1993.

“Pondu zenbaitetan kasik 20. mendea igurikatu beharko da hark argi eta garbi finkatu zenbait azterbide onartuak izan daitezen” (1994: 45).

Bestalde, erabilerari dagokionez, euskararentzat zuen ikuspegi beregain eta jasoaren ondorioz, joera *garbizalea*, nolabait esan, erakutsi zuen Oihenartek. Aditz sintetikoen erabileran ikus daiteke hori:

“Auetatik batzu (*donbetsa, duzkizu, dedetezuna, neroske, nigorra*) berak asmatu ote zituelako susmoa ere zabaldu da” (Mitxelena 1953: 459).

. *Lexikoa*: Euskal hitz egokiak erabiltzeari garrantzi handia ematen bazion ere, ez zuen Oihenartek gai honi buruz ere lan berezirik egin, dakigularik behintzat, ez hiztegirik ez bestelakorik. *Notitia*-n, 1. Liburuaren XIII. kapituluan, euskararen eta antzinako espainolaren arteko harremana aztertzen ari dela, alfabetoko lehen hiru letretako zerrenda txikia ematen du, espainolekoak euskaratik datozela erakusteko, garaiko metodo etimologiko erraza erabiliz. Gero, Neurtitzen liburuaren hondarrean hiztegiño bat eransten du “hitz bekan” batzuk argitzeko, euskalki bateko hitzunek beste euskalkietako euskal hitz zaharrak behar bezala uler ditzaten. Hor ikusten da, beraz, euskalkietan gorde diren euskal hitz zaharrei nolako garrantzia ematen dien eta nola berak, bere olerkietan, batenak eta besterenak erabili dituen. Ez da harritzeko, bada, S. Pouvreaux bere hiztegia egiten ari zela Oihenarti –“eta iduriz hari baka-rrik”⁵– laguntza eskatu izana.

Oihenartek bere lanetan, batez ere bere Neurtitzetan, zenbateraino baliatu zuen lexiko sorkuntza erakutsi du berriki Azkaratek⁶. Aberatsa zen horretan Oihenart eta irizpidez, berriz, garbizalea, Mitxelenaren hitzekin esateko. Hark sorturikoak omen dira, besteak beste, honako hitz hauek: *hamalaurkuna, hamarkuna, neurthitz, ilhartitz, ilhots...* Garbizalea zen bai Oihenart, baina ez hartan itsu-itsua.

“Jakiña, Kimika atzeratuxea egoki artean eta ezin atera bere gaiak gaurkoek bezain uts, garbi eta aratz, batere -ustez behintzat- erdal-kutsurik eta gandurik gabeak. Etzuen orrenbeste nai ere noski, ikusiz eta ikasiz eskarmen- turik aski bai baitzuen oraingo zenbaiten antzera bide ortatik abiatzeko. Baiña ordukoek ez bezalako arretaz jasotzen zituen itz zaarrak, gutxi erabilliak, eta maiteago zituen beti euskerak berezko dituenak. Oartzen zen, nonbait, bere kideak geienetan ez bezala, ezuela aski izkuntza batek itzak, bearra sortu-ala, ingurukoetatik artzea, eta ernal-iturria agortu-ala, izkuntza bera ere agortuz doala” (Mitxelena 1953: 459).

⁵ Oyharçabal 1993: 14 .

⁶ Azkarate 1994: 49-77.

. *Ortografia*: Arlo honetan ere interesgarria eta aipatzeko modukoa izan zen Oihenarten ekarria, ikerle gehienak horretaz jabetu ez direla dirudien arren. Harritzekoa ere ez da horrela izatea, ortografia bazterreko gaia izan baita gure artean, nolabait esan. Gainera, haren testuetan ageri den idazkera iluna eta nahasia da oso, atsotitzen liburuko *Preface*-an agertu egitasmo zehatz eta argiak itxuragabe trakestu baitziren moldiztegitik pasatu zirenean, aurre-ago ikusiko dugun bezala. Argi aitortu behar da, ordea, lausoak lauso eta ilunak ilun, bera izan zela –dakigularik, behintzat–, zinezko lehen euskal ortografoa. Izan ere, ordu arteko idazleak, bai eta bere garaikoak ere, inguruko hizkuntzen idazkerak hartu eta egokitze bat edo beste egitera mugatu ziren bitartean, Mauleko idazleak euskal hizkuntzari zegokion idazkera propio eta beregaina eraikitzeari ekin zion.

Berariaz aipatzen ez duen arren, printzipio nagusi bat sumatzen da haren proposamen guztien azpian: fonemen eta grafien artean bana-banako erlazioa lortu behar zen, hau da, fonema bakoitzari bere grafia propioa egokitu behar zitzaion. Fonema bat - grafia bat, alegia. Horretarako, ordea, euskarak zituen fonemen zerrenda zehaztu behar zen eta Oihenartek hala egin zuen, fonema horien deskripzioan eta sailkapenean guztiz asmatu ez bazuen ere. Horrela, esate baterako, *d*, *t*, *l*, *n* eta *s* fonema arrunten “diminutiboak” omen dira *dd*, *tt*, *ll*, *ñ* eta *z* fonemak, non, bistakoa denez, sabaikaritza aipatu behar zen eta, gainera, lekuz kanpo dagoen *s* / *z* bitasuna. Sailkapena gorabehera, ordea, ondo zehaztu zuen zein diren euskal fonemak eta argi ikusi zuen latin alfabetoak ez zuela bere hartan balio fonema horiek guztiak behar bezala irudikatzeke, grafia batzuk soberan eta beste batzuk faltan zirelako. Hori dela eta, euskararako balio zuen ‘alfabetoa’, antolatu zuen, gainean puntua edo alboan espiritua zuten grafia berriak asmatuz –*d*[◦], *t*[◦], *l*[◦], *n*[◦], *z*[◦], *x*[◦] eta *p*[◦], *t*[◦], *k*[◦] bezalakoak– edota *f* eta *s* aldaerei balio bana emanaz... Sistema zehatza zen, ezarritako printzipioari ondo erantzuten ziona, baina, zoritxarrez, praktikara eramaten zaila eta, esan bezala, huts egin zuen neurri batean moldiztegitik pasatu zenean.

. *Literatur prezeptiba*. Literaturaz –zehatzago, olerkigintzaz– zuen teoria ere plazaratu zuen Oihenartek, hiru lekutan bederen, euskal idazleen bertso-gintzari zinezko poesiagintza izatera iristeko falta zuena agerian ipintzeko asmoz. *Notitia*-ko bigarren edizioan, 1656koan, mintzatu zen lehenbizikoz gai honi buruz, 1. Liburuko XIV.en kapituluko “De syllabarum quantitate” ataltxoan, berak nahi zuen bezalako errimarako egokiak diren hitz klaseak aipatuz eta sinalefa beti ere, inoiz hutsik egin gabe, bete behar dela gogoratuz. Gero, 1657an, liburu honen Neurtitzen zatiko atarikoan ere kontu bera aipatu zuen berriro. Baina 1665ean idatzi eta 1967 arte argitaratu gabe egon den *L'Art Poétique Basque*-n agertu zituen luze eta xehetasun gehiagoz olerki-

gintzari buruz zituen ideiak, errimak behar dituen zuzentasun eta aberastasunean indar berezia eginaz.

Honenbestez esan dezakegu, bada, *nori berea* aitortzea omen denez *zuzenbidea*, zuzen osoz zor zaiola Oihenarti ‘euskalari’ titulua, euskararen barne gordeak argitzeaz gain, haren erabilera egoki eta txukunerako eredu jakin bat proposatu ere egin zuelako. Oihenarten lanen atzean badirudi, Oyharçabalek dioenez,

“Leizarragaren eta Axularren izenez baliaturik izendatzen ditugun bi eredu paradigmaticoen artean, beste bat agertzen zaigula, beste bietarik desberdina eta nolabait euskal kulturarentzat haien sintesia ere egiten zuena” (1993: 11).

Sintesiarena eztabaida daiteke, beharbada, baina argi da, hori bai, Oihenarten ereduak besteena ez bezalakoa izan zela, eredu propioa eta beregaina. Eta agerikoa da, halaber, egoera zen bezalakoa izaki, kasik segidarik gabe gelditu zela haren obra, Oyharçabalek berak aitortzen duenez.

ATSOTITZEN ETA NEURTITZEN LIBURUA: EDIZIOAK

Beste zenbait euskalarik bezala, erdaraz idatzi zituen Oihenartek ere bere lanik gehienak, bestelako gai batzuez ari zirenak bezala baita euskara bera mintzagai zutenak ere. Jakintza mailan garai hartan nagusi ziren erdarak –hau da, latina eta frantsesa– erabili zituen berak ere eskuarki. Euskaraz idatzi zuen gauza bakarra atsotitzen eta neurtitzen bilduma hauek izan ziren.

Ikus ditzagun, ezer baino lehen, liburu honek izan dituen edizioak.

A. Lehen edizioak:

- 1657an argitaratu zen lehenbizikoz Parisen *LES PROVERBES BASQUES RECVEILLIS PAR LE S^r D’OIHENART, PLVS LES POESIES Basques du mesme Auteur* titulupean.

Lehen parteak “ATSOTIZAC / EDO / REFRAVAC, / *Proverbes, ou Adages Basques.* / Recueillis par le Sieur d OIHENART / A PARIS / M. DC. LVII.” du titulua eta honako edukia:

- . *PREFACE*, frantsesez idatzia (8 orrialde);
- . 1- 537 atsotitzak (1.- 46. orrialdeak);
- . Atsotitzen frantseseko itzulpen-azalpenak (47. – 80. orrialdeak);
- . *FAVTES DE L’IMPRESSION* izeneko ataltxo bat azken orrian.

Bigarren parteak “O.^{1^o} GASTAROA / NEVRTHIZETAN. / *La Jeunesse d’O. En vers Basques.* / A PARIS / M. DC. LVII.” du titulua eta honako edukia:

- . *AV LECTEVVR*, frantsesez eginiko aitzinsolasa orri bitan;
- . Hogeita bi olerki edo neurtitz. Lehenbiziko hamabostek I – XV zenbaki erromatarra dute –3.ak, 6.ak, 9.ak, 11.ak eta 13.ak izenburua ere bai–; 16.ak ez darama ez zenbakirik ez izenbururik; 17.a, “Ezkontidearen hil-kexua”; eta beste bostak erlijio-gaiak darabiltzate, zeinek bere titulua duelarik (1. – 67. orrialdeak);
- . “NEVRTIZ HAVTACO HIZ / *bekanen adigarria*” izeneko hiztegi-ñoa, aurretik azalpentxo bat duela (67. – 75. orrialdeak);
- . *FAVTES DE L’IMPRESSION* izeneko atalxo bat azken orrian.

Liburua argitaratu bai, baina, dirudienez, Oihenartek ez zuen hura salgai jarri. Lagunen artean banatzera mugatu zela pentsa liteke.

“L’absence de tout nom d’imprimeur ou de libraire indique à mon avis que le livre ne fut point mis en vente et qu’il en fut tiré seulement un très petit nombre d’exemplaires qu’Oihenart distribua à ses amis” (Vinson 1891: 99).

Edizio horretako ale bi ezagutzen ziren Vinsonen garaian. Bat Pariseko Biblioteka Nazionalean zegoena eta bestea Baionako Bibliotekan gordetzen zena. Lehenbizikoak erdian, parte bien artean, orri batzuk erantsirik eta joserik dauzka, hain zuzen ere, lehen edizioan ez zegoen eta 1665ean argitaratu zen *Atsotitzen Urrhenkina* liburuxkaren orriak. Baionako aleak, bestalde, Parisekoan ageri ez diren neurtitz batzuk ditu, gerora Francisque-Michelek argitara eman zituenak. Eta horrez gain, eskuz egindako zuzenketa batzuk ere baditu, Oihenartenak berarenak seguru aski, espirituak erantsiz, bokalak elidituz, f eta s grafiak aldatuz etab.⁷

[• 1664: Jussef Eguiateguy-k dioenez, Olerkien beste edizio bat argitaratu zuen Oihenartek, aurrekoan ageri ez zirenak bilduz (Francisque-Michelek bere edizioaren hondarrean *Autres pièces et fragments* izenpean erantsi zituenak, beharbada)].

• 1665: *Atsotitzen Urrhenkina* argitaratu zuen Pauen Oihenartek, Jean Desbaratz, Marchand Libraire & imprimeur du Roy baitan. Edizio honen ale bat Parisen dago, esan bezala, 1657ko edizioaren aleari josia eta inprimatzeari buruzko inolako daturik gabe. Beste bat, berriz, Madrileko Liburutegi Nazionalean dago, edizio datuez-eta hornitua⁸.

⁷ Vinsonen ezagutu zuen beste ale bat Bagnères-de-Bigorre-n aurkitua, olerkiak bakarrik biltzen zituena eta beste biekiko aldaera txiki batzuk badituena (1891: 101-103).

B. Ondoko edizioak:

- 1847an liburuaren bigarren edizioa argitaratzen da Bordelen, P. Fayeren baitan: *PROVERBES BASQUES recueillis par Arnauld Oihenart, suivis des poésies basques du même auteur. Second édition, revue, corrigée, augmentée d'une traduction française des poésies et d'un appendice, et précédée d'une introduction bibliographique*. Francisque-Michelek egin zuen berrargitalpen hau. Archu-k lagundu zion zuzenketetan eta zenbaitetan aski bitxiak gertatzen zaizkigun oharretan: “c’est M. Archu qui a rédigé les observations souvent fort étranges qu’on peut lire aux pages 277-305 de l’édition de 1847, et c’est lui qui est seul responsable des corrections qu’on est en droit de reprocher à cette jolie reimpression” (Vinson 1891: 105).

- 1859an, 1892an eta 1894an *Atsotitzen Urrhenkina*-ren berredizioak argitaratu ziren:

- . 1859koa beste euskal gai batzuekin batera argitaratu zuen Parisen M. G. Brunet jaunak, A. Aubry-ren baitan, “NOTICE sur les Proverbes basques recueillis par Arnauld d’Oihenart, et sur quelques autres travaux relatifs à la langue euscarienne”.

- . 1892koa Pierre Haristoy-k egin zuen Baionan, A. Lamaignère-ren baitan, *Arnauld Doyhenart et son supplément des Proverbes basques*.

- . 1894koak *Supplément des Proverbes Basques recueillis par Arnauld Oihenart, N^{os} 538-706, avec la traduction française. Nouvelle édition conforme à la première de 1657 (?)* zuen titulua eta Bordelen argitaratu zen, F. Destouesse moldiztegian.

- 1935ean hasi zen J. Urkijo *RIEV* aldizkarian Oihenarten liburuaren edizioa zatika-zatika egiten, baina amaitu gabe geratu zen. Gero, ordea, Pariseko alearen edizio osoa egin zuen Tolosan 1936an, *fac-simile* eran, Lopez Mendizabalenean. Pariseko aleak bezala, *Atsotitzen Urrhenkina* ere ematen du edizio honek, baina ez Francisque-Michelek Baionako alean aurkitutako olerki eta olerki-zatiak.

- 1955ean R. Lafonek Neurtitzen frantses itzulpena argitaratu zuen, berak egina eta Francisque-Michelena ez bezalakoa (*BRSVAP*, 1955a, I, 3-39).

- 1971an, Larresorok argitaratu zuen Donostian, Herri-Gogoa baitan, liburu osoaren edizioa: *Atsotitzak eta Neurtitzak. Oihenarte (1592 – 1675)*. Esan bezala, edizio ‘osoa’ da: horrela, atsotizetan lehen ediziokoak, *Urrhenkina* eta are Oihenarten paperen artean aurkitutako koadernoko⁹ zerrendak ere sartu zituen; eta olerkietan, berriz, bai lehen ediziokoak bai Francisque-Michelek Baionako alean aurkitutakoak ere.

⁹ Ikus Urkizu (1994: 296), gorago aipatua.

- 1992an, Jean Baptiste Orpustanek hiru eletako edizioa argitaratu zuen Baigorriin, Editions Izpegi-ren baitan: *Arnaud d'OYHENART (1592 – 1667) / PROVERBES ET POESIES BASQUES / Edition trilingue intégrale (basque-français-espagnol)*; gaztelaniazko itzulpena Fermintxo Arkotxak egina da. Ondoko urtean, etxe berean *Oihenarten Hiztegia* argitaratu zuen Orpustanek.

LEHEN PARTEA: ATSOTITZAK

Atsotitzek osatzen dute, esan bezala, liburu honen lehen partea. Aitzinsolasean aitortzen duenez, estimu handitan zituen Oihenartek atsotitzak, filosofo eta literaturako jende ezagun askok bezala, baina ez preseski herriaren jakintzaren adierazgarriak direlako, filosofiaren eta jakintza jasoaren aztarnak biltzen dituztelako baizik. Laburrak dira errefrauak eta gauzak esateko molde berezi bat badute, gozoa eta atsegina, solasaren gozagarri egiten dituen. Horregatik, bada, gazte-gaztetan hasi omen zen Oihenart bere Sorterriko erran zaharrak biltzen eta bere denbora guztian ez zuen alde batera utzi langintza hori⁹.

a. *Bildumen bilduma*. Bere etengabeko biltze-lanaren ondorioz, bilduma bat baino gehiago osatzera iritsi zen Oihenart, liburuak berak argi erakusten duen bezala. Hau, izan ere, bilduma bat baino areago 'bildumen bilduma' dela esan daiteke. Oihenartek segida alfabetikoz ordenatu zituen atsotitzak eta, horri erreparatuta, erraz ikusten da haren liburuen barnean bost zerrenda daukela.

Horrela, 1657ko liburuan hiru bilduma bereiz daitezke:

- . A: liburuko bilduma nagusia, 1–482 atsotitzak, alfabetoz ordenatuak, letra bakoitzeko atal bana duena.
- . B: *Atsotitzen emendioa*, 483–509 atsotitzak, alfabetoz ordenatuak berriro A letratik hasita, atal banaketarik gabe.
- . C: *Atsotitzen bertze emendioa*, 510–537 atsotitzak, alfabetoz ordenatuak hauek ere A-tik hasita eta atal banaketarik gabe.

Eta 1665eko *Atsotitzen Urrhenkina*-n beste bi:

⁹ Ikus beherago, 11. oharra.

¹⁰ *Notitia*-n jadanik utzi zituen Oihenartek bere zaletasunaren seinaleak, atsotitz batzuk aipatu baitzituen han bere argudioen oinarri (cf. 1. Liburuko XIII. kapitulua).

. D: *Urrhenkina*-ren bilduma nagusia, 538–679 atsotitzak, alfabetoz eta atalka ordenatuak.

. E: inolako titulurik ez duen azken emendioa, 680 – 706 atsotitzak, berriro A-tik hasita eta segidan emanak.

Zer esan nahi du bilduma aniztasun horrek? Gorago esan duguna: atsotitzak bildu eta bildu aritu izan zela Oihenart etengabe. Bilduma nagusia egina eta alfabetoz ordenatua zuelarik, zerrenda berriak eskuratzeko aukera izango zuen, beharbada, behin eta berriz, eta hartan txertatzea neke izanik, besterik gabe ondoan eransteko erabakia hartuko zuen.

Ez dira, gainera, liburuan agertzen diren bost zerrenda horiek Oihenartek erabili zituen bakarrak. Haren paperen artean agertu da, esate baterako, Zalgizek bildutako 206 erretrauen zerrenda, Oihenarti oso baliagarri izan zitzaiena bere bilduma osatzeko. Eta Zalgizeren zerrenda biltzen duen koaderno horretan berean Oihenartek bere eskuz idatzitako beste zerrenda batzuk ageri dira Zuberoa eta Nafarroa Behereko, Lapurdiko, Nafarroako, Bizkaiko eta, ostera, Zuberoko atsotitzak biltzen dituztenak, ia 200 atsotitz denera¹¹.

Nola egin zuen Oihenartek biltze-lan hori? Bera ibili al zen herriko jendearen ahotik atsotitzak biltzen ala laguntzaileak izan zituen atsotitzak hantzen biltzen zizkietenak? Aspaldikoa da eztabaida: Francisque-Michelek laguntzaileak zituela dio, bere gainerako lan ugariak nekez utziko baitzioten langintza horretan aritzeko astia. Vinsonek bestela uste du; bera izan zela, alegia, biltze-lanean aritu zena. Urkijok, azkenik, laguntzaileen aldeko iritzia plazaratu zuen, koadernoan ageri diren bizkaierazko atsotitzak aipatuz eta Oihenartek berak *Preface*-an Hegoaldeko idazleekin harreman gutxi izan zuela aitortzen duela gogoratuz. Azken iritzi honek dirudi zuzena, kontuan izanda, dena dela, urte askotako lana izaki, bilduma osoa ez zela beti modu batean egina izango. Inoiz egileak berak jasoko zituen jendearen ahotik edo hango eta hemengo idatzietatik atsotitz batzuk. Beste inoiz laguntzailearen batek bidaliko zizkion leku bateko edo besteko atsotitzen zerrenda luze edo laburrak. Zalgizeren zerrenda erabili zuela ez da zalantzarik, Urkijok erakutsi zuen bezala¹². Eta, bestalde, argitaraturiko atsotitz zerrendak ere, *Refranes y Sentencias* bezalakoak, erabiliko zituen seguruenera.

Hori baino interesgarriago da, hala ere, bildutako atsotitz horiek Oihenartek nola argitaratu zituen jakitea. Jaso bezala eman al zituen? Ala nolabait aldatu eta egokituta plazaratu zituen? Itxuraren arabera esan behar da

¹¹ Hau da Urkijo-Mitxelena argitaratu zutena (1967) eta guk geure oharretan *Okoad* laburduraz adierazten duguna.

¹² Urkijo 1908-1909.

Oihenartek ‘landuta eta egokituta’ argitaratu zituela atsotitzak. Bat baino gehiago dira horren aztarnak. Hasteko, bere ortografia berrira egokitu behar izan zituen atsotitzak eta alfabetoz ordenatu. Hautaturiko erdialdeko euskararen eredura egokitu behan izan zituen, gero: Zalgizeren zerrendarekin konparatzen baditugu, ikusiko dugu, esate baterako, haren *-ia-* gehienak, zubereraren ezaugarri direnak, *-ea-* direla Oihenartenean. Badirudi, hirugarren, aldaketa zenbait eragin zituela inoiz, atsotitzetan hain berezko duten errimaren mesedetan¹³. Oihenartek aski usu darabiltzan adizki sintetikoak ere (*donhetsa, dedetzak, derahatza, derosa, berraio...*) berak asmatu ote zituelako susmoa zabaldu dute ikerle batzuek¹⁴.

b. *Atsotitzen jatorria*. Honaino iritsita, atsotitzen jatorriaren kontu zailarekin egiten dugu, ezin bestean, topo. Euskal Herrian berean sortutako atsotitzak ote dira Oihenartenak bezala gainerako euskal zerrendetan ageri diren atsotitzak? Ala beste nonbaitetik hartuak? Eta, horrela izatekotan, non dute jatorria? Erabakitzen erraza ez den auzia da hori, noski, eta, seguruenera, askotariko erantzuna behar duena, atsotitzen multzo osoari ez ezik haietako bakoitzari ere arretaz erreparatzea eskatzen duena. Gehienak ‘mailegatuak’ dira, jakina, besterengandik hartuak eta egokituak.

“Oihenart’enak ez ezen, oso gureak direla ere –euskaldunonak diot– ezin esan, gure izateak beste jaberik ez izatea bearrezko baldin ba’du beinik-bein. Olako zuur-itzen zuurtasuna, ezagun denez, antzekoa izaten da erririk geienetan, bai ingurukoetan, bai urrutiagokoetan ere” (Mitxelena 1953: 448).

Hortik aurrera gauza gutxi esan dezakegu hitzaurre labur honetan, auziak, bistan denez, azterketa patxadatsuagoa eta zehatzagoa eskatzen baitu. Esan dezakegu, hori bai, atsotitz batzuen ibilbidea, atzekoz aurrera bagoaz, latineraino gutxienik iristen dela. Nola uka, esate baterako, 62. atsotitzak *–Badu ere axeriak biloa uzten, bere egitea eztu biluzten–* latineko *vulpes pilum mutat, non mores* esaeran duela aitzindaria? Schuchardtek, hala ere, zein ere den urrutiko jatorria, nahiago du hurbileko iturria inguruko hizkuntzetan aurkitu¹⁵. Urkijok, Oihenarten atsotitzen edizioa prestatzen ari zela utzi zuen

¹³ Horrela, 10. atsotitzeko *Aharra ziten alxoñak, ager ziten gazna oboñak*, esate baterako, errimaren zerbitzuan dago, oso aipatua den atsotitz hau beste zerrenda guztietan *gaznak* edo *gaztak* soilik aipatuta ematen baita, *oboinen* inolako aipamenik gabe.

¹⁴ Cf. Mitxelena 1953: 459. Oihenartek sintetikoa erabiltzeko joera badu ere, behin-edo laguntzailearekin ematen du bestetan sintetikoa dena; konpara, esate baterako, Oihenarten 627.a *–Horeki datzana, jeikiten da kukusoeiki–* eta Okoad 380 *–Horequi dazana / daica cocussoequi–*.

¹⁵ Cf. Schuchardt 1911.

eskuizkribuan maiz aipatzen du frantseseko Le Roux de Lincy errefrau bil-tzailearen liburua...

Batzuek, hala ere, gutxik bada gutxik, Euskal Herrian berean sortuak direlako seinaleak dituzte, Haritschelharrek argi erakutsi duen bezala. Oihenarten bildumako 65. atsotitza, esate baterako –*Baigorriko bizkondea / beldurrak diakarkek ahalgea*– Baigorriko kantu zahar batean omen du sorre-ra¹⁶. Eta, gainera, duten sorrera dutela,

“Mamia euskal-mami garbi ez ba’da ere, euskal-azal ederrez jantziak agertzen zaizkigu” (Mitxelena 1953: 448).

c. *Formari* dagokionez, bi ezaugarri bederen eskatzen zizkien Oihenartek atsotitzei aitzinsolasean egin azalpenean: laburtasuna eta esateko modu gozoa. Atsotitza gustagarri egiteko eta gogoan errazago gordetzeko balio dute ezaugarri horiek, Haritschelharrek atsotitzen egiturari buruz egin azterketan erakusten duen bezala¹⁷. Laburtasunarekin lotuak daude atsotitzetan maiz ageri diren elipsiak. Aditza uzten da maiz isilpean atsotitzetan, entzuleak ez baitu batere haien beharrik izaten. *Beharrak, aharra* atsotitz ezin laburragoan (78), esate baterako,

“le Basque imagine très normalment soit le verbe transitif *ekarri* (porter), soit le verbe *sortu* (naître, engendrer)” (Haritschelhar 1991: 189).

Beste batzuetan laguntzailea falta da eta aditzoina ageri da aipamen generikoan: *Otsoa non aipa, han gerta* (385)¹⁸.

Gustagarri izatea, berriz, egiturak eta errimak egiten dute, esanahiaz beste, jakina. Egitura, gehienetan, bikoa izaten da, idatzian beti islatzen ez bada ere:

. *Halako tupati halako armorik* (207)

. *Handiek nahikara, xipiek ahalara* (209).

Egitura konplexuagoa denean, lerro bitan ematen du inoiz; horrela, esate baterako, perpaus bi direnean, aditz eta guztikoak nahiz aditzikgabeak:

¹⁶ Cf. Haritschelhar 1989: 550-551.

¹⁷ Cf. Haritschelhar 1991.

¹⁸ Laburtasuna galtzen duelako gaitzesten du, hain zuzen, Haritschelharrek 443. atsotitzaren frantses itzulpena –*Zuretik ezpala: Le copeau tient de la nature du bois duquel il est tiré*–. “La traduction littérale ‘du bois le copeau’ rendrait mieux la concision du proverbe basque dont on ne peut nier la parenté avec le proverbe castillan ‘de tal palo tal astilla’” (1991: 189).

. *Aski du hon et' errekeitu,*
etxean deus eztenak peitu (45)

. *Beso minduna, bulharrean;*
zango eria, ohatzean (97)

Zenbaitetan badirudi biko egiturari aitzineko bat ezarri zaiola, mintzagai gisakoa edo, idatzian islatzen ez bada ere:

. *Amoratzea* [/] *gaztearentzat loratzea,*
zahararentzat da zoratzea (25)

. *Domingo*, [/] *egik emazte, atzi lo*, [/] *berak iratzar iro* (119)

Errimak laguntzen digu atsotitz horietan hiruko egitura antzematen. Beste batzuetan, ordea, errima ez da aurrekoraino iristen:

. *Gaitza*, [/] *hunqui ator*, [/] *bakar bahator* (175)

. *Itsasturuaren emaztea*, [/] *goizean senhardun*, [/] *arratsean elhargun* (286).

Bikoa izatea, dena dela, ez da gehienetan aski; horrez gain, nolabaiteko paralelismoa izaten dute atsotitzaren zati biek, beti ez bada bai askotan. Esaldien egituran dago inoiz paralelismo hori:

. *Adiskidea zaharrik, kontua berririk* (2)

. *Herrik bere lege, etxek bere aztura* (229)

Beste batzuetan hitz korrelatiboak izaten dituzte: *Nolako...*, *halako*; *Non...*, *han...*; *Zer...*, *zer...*; *Bata...* *bertzea...*; *...-ago*, *...-ago* eta horrelakoak.

Egituraz gain, hots jokoak ere aipatu behar dira, errima eta aliterazioa batez ere:

. *Eder, auher* (122)

. *Harri erabilik eztu biltzen oroldirik* (211)

Zenbaitetan hitz bereziren bat, adizki sintetiko gutxi erabili bat-edo, sartzen da errimaren zerbitzuan:

. *Gaitza gaitzagoak derahatza* (174)

Bestelako aliterazioak eta errepikatzeak ere ez dira falta:

. *Arstoak arstara* (38)

. *Arrotzak ez lan daidik, ez deraidik* (37)

. *Etxe hutsa, aharra hutsa* (171)

. *Badu ere axeriak biloa uzten, / bere egitea eztu biluzten* (62)

. *Haurrak hazi, nekeak hasi* (214)²⁰.

d. Zer esan, azkenik, atsotitzen *edukiari* buruz? Oihenart konturatu zen, noski, gai asko eta desberdinak ageri direla errefrau hauetan eta zaila dela, ezina ez bada, gaikako sailkapena egitea. Horrexegatik bildu zituen alfabetoz eta ez gaiaren arabera. Seme-alabei buruzkoak daude, heziketari buruzkoak, emaztea aipatzen dutenak, ezkontzaren gainean eginak, lanbidea aipu dutenak, adiskidetasunaz mintzo direnak, diruaz, jokoaz edo eguraldiaz ari direnak... Zernahi gai ageri da esaldi labur baina mamiz beteriko horietan. Gaiari muga bakarra ezarri zion Oihenartek, aitzinsolaseko lerroetan berariaz esaten duen moduan: ez zuen arruntegia izan behar. Gaia arruntegia zuten atsotitzak bildumatik kanpoan utzi zituen. Eta egokiegia izan ez arren bati edo besteri lekua egin zionean, frantseseko azalpenean erantsi zuen argi eta garbi bere kontrako iritzia. Horrela, esate baterako, *Oilar bat aski da oilo hamar baten, hamar gizon ez emazte baten* dioen 356. atsotitzaren itzulpenaren ondoan azalpen hau eransten du: *C'est le dire des médisants des femmes, qui n'est pas vrai, parlant généralement*. Dena dela, hitz batean esateko, atsotitzetan daude islatuak, modu batera edo bestera, garai haietako ohiturak, irizpideak, lan sistematik, giza harremanak etab.

BIGARREN PARTEA: NEURTITZAK

Hogeita zortzi neurtitzek eta beste bi neurtitz-zatik osatzen dute liburuaren 2. partean ageri diren olerkien bilduma. Oihenartek haien atarikoan esaten duena aintzat hartu eta hitzez hitz sinetsi behar bagenu, olerkigintza harentzat joko edo ariketa moduko zerbait baizik ez zela pentsatu beharko genuke. Gaztaroan "itzuritako" ariketa moduko zerbait, alegia, eta ez, inola ere, olerkari prestuek ondu ohi dituzten lan jasoen neurrikoa. Dagoen dagoenean sinetsi behar ote diogu, ordea, Oihenarti aitorten laño hori? Ez dirudi. Erliziozkoak ez beste neurtitzak "gaztaroan" eginak direlako hori ez ote, esate baterako, urruntze-keinu itxurazkoa? Gaztarokoa ez da, noski, agerikoa den bezala, emaztea hil ondoren idatzitako hil-kexua –Oihenartek berak aitortzen du berariaz hori–. Baina gainerako guztiak gaztaroan hasi eta buka egjnikoak ote dira? Neke da hori sinesten. Ez da zaila onartzen neurtitz hauetako asko

²⁰ "Il est évident que la traduction ne peut rendre compte des paronymes *hazi* (nourrir) et *hasi* (commencer). C'est ce qui donne tout le sel à ce proverbe" (Haritschelhar 1991: 196).

gaztaroan egin zituela. Baina ez ote zien gerora, argitaratu baino lehen, berri-kustaldi bat edo beste emango, atsotitzei eman z'ien bezala?²¹.

Zer dela-eta egin zuen, ordea, bere olerkigintzari balioa kentzeko keinu edo imintzio moduko hori? Hara, Oihenart gizon ikasia zen eta bazekien formaz txukuna eta zuzena den neurtitza idaztea horren zaila ez bada ere, asmoz eta edukiz jaso eta arnas poetikoz jantzitakoa ontzea edozeinen esku ez dagoen gauza dela. Arnas poetiko hori dutenak dira, ez beste inor, olerkari-ohorea merezi dutenak. Eta Oihenart zuhurrak ez du berak bere buruarentzat horrelako gradua aldarrikatu nahi. “Bestek erabaki beza hori” dioela dirudi, apaltasun keinu hori eginaz.

Formari dagokionez, ordea, ez du horrelako erreparorik. Badaki horretan eredu eta etsenplu izan daitezkeela bere neurtitzak eta horrexegatik onartu du haiek argitara ematea, idatzirik duen prezeptiba-liburuxkari lagun egin diezaioten eta, haien bitartez, olerkigintzaren oinarrizko arauak betetzen ez dituzten euskal idazleek arau horiek betetzea horren nekeza ez dela ikus dezaten. Argiro P. Altunak:

[...] orduartekoa ez zen poesiagintza haren ustez, bertsoagintza baizik, etxerako eta etxe atarirako egokia, baina European inori erakusteko traketsa. Horregatik nahi izan zuen sortu euskaraz zinezko poesiagintza, ikasia, landua dotorea, Europako hizkuntza trebatuek ontzen zutena bezalakoa, European barrena inongo lotsarik gabe erabiltzeko modukoa (1994: 161).

Bi kontu dira ondo zaindu beharrekoak, neurtitza egoki eta zuzen taxutua izango bada: lerroaren neurriari edo silaben kopuruari dagokion *sinalefa*-rena bata eta *errima*-ri dagokiona bestea.

a. *Sinalefa* beti egin behar da, Oihenarten iritziz. Hitz baten azken bokala ondoko hitzaren lehen bokalarekin elkartzen denean bokal biak silaba bakarrena ekarri behar dira. Bi modutara egin daiteke hori: edo bi bokaletako lehena isilduz eta elidituz –hala nola *et' atera*, hau da, *et(a) atera-*, edo diptongoa eginez –hala nola *niri egin*, hau da, *ni-rye-gin-*.

Salbuespen gutxi batzuk gorabehera, aski zehatz banatuak daude bide biak, elisioarena eta diptongoarena.

- Elisioa egiten da, hasteko, bietan bokal bera denean (*-a a-*, *-e e-* etab.). Hona adibide batzuk:

. *bait' are* (III,6); *neur' etsai* (I,4); *biz' izanik* (VII,1); *nag' orai* (XII,11); *big' ukhena* (XI,3).

²¹ Neurtitzak birmoldatzen aritu zela erakusten dute Bagnères-de-Bigorren aurkitutako alean ageri diren aldaerek (Vinson 1891: 101-103).

Eta, berdin, lehen bokala *a* edo *e* denean:

. *ud' ere* (I,2); *et' ikuslerik* (V,17); *mait' orde* (XI,3); *et' uztazu* (II,17)
 . *zur' aldeti* (I,1); *en' ixil* (III,4); *zur' oldez* (IV,7); *mait' uken* (V,44)

Ikusten den bezala, apostrofoak adierazten du bokalaren elisioa.

• Diptongo gisako ahoskatzea, berriz, bokal bietako lehena *i* edo *u* denean gertatzen da eta baita, inoiz, bokal hori *o* denean ere. Horrelakoetan Oihenartek ez du inolako markarik ipintzen eta irakurleak berak jakin behar du bokal biak silaba batean ahoskatzen direla, lerroaren neurria zuzena izan dadin. Hona adibide zenbait:

. *zureki adiskidetzeko* (I,3); *noreki ere* (I,4); *ezi ordu* (VII,7); *gainti utzia* (XIII,4)
 . *leku agerira* (III,7); *zerbitzu egitez* (VI,2); *jakinzu izan* (VII,7); *baitu ogena* (XV,5)
 . *gero azkenik* (II,18); *edo ilhagin* (II,5); *edo ukoti* (XX,23)

• Aurrekoak ez bezala, ordea, *-o e-* elkarketa bietara egiten da, maiztasuna diptongoaren aldekoa bada ere:

. *ger' ezta dukazu* (V,22), *Egundan' ez* (VI,4), *jai'-eta* (VI,4), *oran' ezta-zaguzua* (XV,6); *ed' ezt'* (XVII,114)
 . *orano eia* (II,4), *gogo egizu* (II,16), *oboro ezina* (X,5), *bezalako ederraren* (XI,3), *gozo ere* (XII,4); *orano ez* (XVII,6); *Egonago eta* (XVII,32); *enbal-dituko et'* (XVII,36); *buruzpiko edo* (XVII,47); *gero, ekarten* (XXVII,3); *gero ere* (XXVII,4); *ikusteko eginik* (XXVII,6)

Harritzekoa dirudien arren, koma bera gaindituz egiten da inoiz sinalefa, are komak bokatiboaren etentxoia irudikatzen duenean ere²²:

. *Maite', otoi* (VII,4); *o laztan', eretxeki* (XIV,4); *bibo', en' artizarra* (XV,8) ...
 . *guretu, et' (-tæe-, XVII,9)*

Bokal bietako lehena diptongoaren bokalardia denean, ez da sinalefarik egiten. Hona adibide batzuk:

. *bai izotzik* (4 silaba, XIV,2); *orai alderdi* (5 silaba, XVII,34); *orai eta* (4 silaba, XV,1); *bai urrikari* (5 silaba, XIV,5); *doi, ezi* (3 silaba, XIII,6); *Gau-cgun* (3 silaba, VI,7)

²² Aldiz, beste zenbait ikurrekin ez du Oihenartek sinalefa markatzen: *duta? abal* (I,1), *jai-kite-etzatean* (VI,7). Galde ikurrak eta marrak galarazten dute, horietan, apostrofoaren agertzea; baina, kontuz, idatzian islatu ez arren, silaba bakarrean ahoskatu behar dira horiek ere, elisioa eginez. Ikus, hala ere, *jai'-eta* (VI,4), non apostrofoa dagoen marraren aurrean.

Gogoan izan behar da, azkenik, *b*-ak aspirazioa adierazten duela eta hura tartean denean ez dela sinalefarik: horrela, esate baterako, *arte hartan* 4 silaba dira. Ikus, hori dela eta, honako forma hauen arteko aldea: *em' ibiliz*, 4 silaba / *eme hatsartuz*, 5 silaba, (V,32)²³.

b. *Errima* da zehatz zaindu beharreko beste alderdia. Aberatsa izan behar du honek, inondik ere –silaba eta erdikoa gutxienez, hain zuzen ere–, eta behar bezala taxutua. *Notitia*-n bezala Neurtitzen atarikoan ere aipatu zuen gai hau Oihenartek eta indartsu aldarrikatu, baina berariaz idatziriko *L'Art poétique Basque* da haren ideien azalpen zehaztua dakarrena²⁴.

Hiru motatako hitzak bereizten ditu Oihenartek –*harrak*, *emeak* eta *irristakorrak*– eta joko desberdina du horietako bakoitzak errimari dagokioenez, bertso *harrak*, *emeak* eta *irristakorrak* sortarazten baitituzte, hurrenez hurren.

- Hitz *harrak* dira azentua azken silaban dutenak, oxitonoak, eta *espondeoak* (- -) nahiz *ianboak* (v -) eratzen dituzte. Gutxi omen dira horrelako hitzak euskaran eta traketsak errimarako. Errima, izan ere, azken azentutik aurrera egiten da eta hau azken silaban baldin badago, silaba batekoa izango da hura gehienaz ere. Horrelakoak, bada, Oihenartek “ez ditu inondik ikusi nahi euskal bertsoaren azken kabuan” (Altuna 1994: 163). Euskaraz hitz har gutxi dela dio, baina gero, arauak zehazterakoan, plural mugatuko *-ék*, *-én*, *-ér* eta *-éz* morfemak dituztenak halakoak direla esaten du eta horiek ez dira hain gutxi ere.

- Hitz *emeak*, berriz, azentua azkenaurreko silaban dutenak dira, paroxitonoak, eta *trokeo* derizten bertsoak sorrarazten dituzte (- v). Horrelakoak dira euskarazko hitz gehienak eta ezin egokiagoak dira errimarako, azentutik aurrera silaba eta erdi baitute eta horixe da, gutxienez, errima egokia osatzeko eskatzen dena. Emeak dira euskal lema gehienak eta baita singularreko *-áren* eta *-ári* formak ere.

- Hitz *irristakorrak*, azkenik, azentua azken hirugarren silaban dutenak dira, proparoxitonoak, *daktiloak* (- v v) edo *tribrakoak* (v v v) sorrarazten dituztenak²⁵. Errima aberatserako aproposak dira hauek, bi silaba eta erdiraino edo hiru silabataraino irits baitaiteke hura. Gauza nekeza da, ordea, horren

²³ Horrek erakusten digu *hal' hilzera* (XVII,92) errata dela, aspirazioa tartean dela ez baita elisiorik. Liburuaren hondarrean zuzendua ageri da errata hori.

²⁴ Azalpen laburra eta orokorra egingo dugu hemen. Xehetasun gehiagotarako, ik. gorago aipatu Altuna 1994.

²⁵ Altunak dioenez, euskal tribrakoak (v v v) azentua azken hirugarren silaban izatean, daktilo (- v v) bihurtzen dira, silaba toniko hori luze egiten baita, eta ez dira gehiago tribrakoak (1994:164).

errima luzea egitea eta, praktikan, azentua non ipini idazlearen esku dagoelako batzuetan, eta horretarako lizentzia erabil dezakeelako beste batzuetan, kontua da Oihenartek hitz irristakorrak ere silaba eta erdiko puntuaz erabili zituela, emeak bezala. Horrelakoak omen dira *-ra*, *-rik*, *-ko* morfemak dituzten hiru silabako hitzak –adibideetan *hártzera*, *hárturik* eta *hártzeko* bezalako aditz izenkiak baizik ez ditu aipatzen–. Hiru silaba baino gehiagokoak, aldiz *-rostera*, *erosirik*, *erosteko* bezalakoak–, bitarikoak dira eta, hortaz, bertso emetan nahiz irristakorretan erabil omen daitezke. Eta gauza bera gertatzen omen da *errea*, *begia* bezalakoekin eta baita *erreaz*, *begiaz* bezalakoekin ere: *érrea* nahiz *erréa*, *bégia* nahiz *begía*, etab.

Zer esan horretaz guztiaz? Silaben neurri-azentuen araberrako euskal hitzen sailkapena egin nahi bazen, hutsune askotxo utzi zituela Oihenartek bete gabe, hau da, hitza zein klasetakoa den esan gabe. Horrela, P. Altunak gogoratzen duenez, deklinabide mugagabe osoa falta da eta berdin inesiboaren forma guztiak. Ematen dituen adibideak, bestalde, ez dira irakurlea ase-betetzeko modukoak. *Hártzera* eta horrelakoak, adibidez, zergatik dira irristakorrak, hiru silabakoak direlako ala azken hirugarren silaba, *har-*, tratatua dutelako? Eta arrazoia lehena bada, berdin balio al du arauak *jatera*, *jaterik*, *jateko*-rentzat eta are aditz izenki ez diren *begira* edo *burutik* bezalakoentzat? Ez da argitzen.

Hori batetik. Eta, bestalde, erabat betetzen al ditu Oihenartek bere prezeptiban emaniko arauak? Bertso harririk erabili behar ez delako araua ez behintzat, *penez* / *laiteenez* (VII,3) bezalako errimak bai baititu inoiz, non *penez* hitz harra baita.

c. Neurtitzen formari dagozkion alderdiei eman diegu behako labur bat orain artekoan, Oihenarten atarikoak horretara eramanez. Ez da pentsatu behar, hala ere, keinuak keinu eta imintzioak imintzio, olerkien muinari eta edukiari ez ziela Oihenartek arretarik eskaintzen. Neurtitzen muinak ere apaina eta ederra izan behar zuen, inongo zalantzarik gabe. Oihenartek egin nahi zuen poesiak “*sabia por los metros, por los ‘conceptos’ y por las alusiones*” izan behar zuen (Mitxelena 1960: 75).

- Pariseko eta Baionako aleetan ageri diren hogeita bederatzi neurtiztetatik²⁶ hogeit amodiozkoak dira. Harritzekoa ere ez da, olerkiez ari garenez, gai hori nagusitzea. Gaia ez du, hala ere, Oihenartek modu arruntean eta nolana hika bezala erabiltzen, irudi jakingarri eta esaldi adierazgarri eta ederren bitartez baizik.

Maitearen isilak eta hoztasunak eragiten dituzten sentimenduak aipatzen dira maiz, bizi eta indartsu. Maitearen erantzuna zein ere den, ordea, maita-

²⁶ XXX. bezala eman dugun zatitxoak ez da kontuan hartzeko modukoa.

tzailearen iraupenak ez du ahulaldirik, oihana lau aldiz lilitu-hostatu den arren eta berak eskearen eskez zintzurra garrastua badu ere (I); erreguka ari zaio etengabe maiteari: egizu, uztazu, emadazu (II); burdin-aitzaren erakarpena du amodioak, baina alferrik (III); maitatzailea hiltzen ari da (IX); amodioak mirakulua eragiten du, maitearen hoztasunak maitatzailea are beroago ahalegintzea baitakar (XIV); elkarren aurka ari dira, bat gori bestea gor (XXIV)... Sententzia gisako esaldiak ere ageri dira inoiz: izango da beharbada maitatzailea baino gizaseme argiago eta buruz jantziagorik, baina ez “zuretarragorik” (IV); ontasuna lagun ez duen edertasuna ez da ezer (V); “Edertza Onaren” neskato egin zuena gaiztagina da (VI); maitatu izanak maitatzea zor du (XI)... Eta maitearen deskripzio fisiko txukun-politak ere ez dira falta (X, XII, XIII).

- “Ezkontidearen hil-kexua” berezia da (XVII), guztiz pertsonala baita. Joana emaztearen heriotzak eragin dizkion sentimendu biziak aitortzen ditu olerkariak, bihotz barnean txertaturik duen poesi zaletasunaren aipamena eginenez, Febo jainkoari eta musei zuzendutako “ilhots” sentituan.

- Erlijiozko bost neurtitzetan (XVIII-XXII) lotuago dago olerkaria, itzulpena edo itzulpen gisakoa baita haren lana, baina maisu ageri da Oihenart langintza horretan ere.

- Erlijiozko horietako batean, “Eguberri-koplak” izenekoan (XX), eta “Laur karbarien eresian” (XXVI) gertarien kontatzaile gisa ageri zaigu olerkaria, kontakizun bizi eta atsegina eskainiz.

- Horiez guztiez gain, azkenik, gorazarre bat (XXVIII) eta epitafio bat (XXIX) ageri dira neurtitzen bildumaren hondarrean.

Kritiko zenbaitek hotzegia eta “bihotzik” gabea irizten diote Oihenarten poesiari. Lafittek, esate baterako:

“Cette versification savante ne peut pas se lire impromptu et l’on est surpris de tout ce qu’Oyhénart a su couler dans ce moule tarabiscoté, à l’imitation des poètes alexandrins et de leurs continuateurs.

Hélas! S’il y a çà et là d’aimables trouvailles et des jolieses, on regrette que l’ensemble, écrit dans une langue de puriste, soit artificiel et plutôt acrobatique que profond: nulle part on ne rencontre l’émotion vraie ni l’expression spontanée, jamais un cri du cœur. On assiste aux jeux d’un esprit délié qui s’échauffe à vaincre des difficultés purement formelles” (1967: 198).

Eta K. Mitxelenak:

“Es lástima que su obra original en vascuence esté en verso, porque Oihenart no era poeta, sino un versificador extraordinariamente hábil y un gran conocedor de la lengua. Incluso cuando le mueve un sentimiento auténtico, como en la elegía por la muerte de su esposa añadida a los versos de juventud, no alcanza a transformarlo y sublimarlo” (1960: 76).

P. Altunak, hala ere, honela amaitzen du Oihenarten prosodiaz eginiko azterketa:

“Oihenartek (...) formaren aldetikako euskal poesigintza berria ez ezik, ederra, zailua, txairoa sortu zuen, ia ondorengorik izan ez zuena damurik” (1994: 174).

EDIZIO HONI BURUZKOAK

Goi mailako ikasleak eta euskal testu zaharren ezagutzan sakondu nahi duten guztiak ditu helburu nagusi gure edizio honek. Haien jakinbeharrak guztiz asetzerara iritsiko ez bada ere –gutzizkoak ezinezkoak baitira kontu hauetan, begiak hantustekak lausoturik ez dituen edozeinek dakien bezala–, gutxienik asebidetan jartzen lagungarri izan nahi luke. Eta helburu horrek, bistan da, ezaugarri jakin batzuez horniturik agertzea eskatzen dio edizioari.

Testua zehatz finkatzea dugu aurren-aurreneko lana, modu nahasian baizik gauzatu ez zen Oihenarten idazkera bereziak eragindako argi-ilun ugariak garbitu eta ahalik zuzenen erabakita. Inprimategitik atera zen testutik abiatuta, Oihenarten eskutik jalgi zena edota hark egin gogo zuena berreskuratzen saiatuko gara, hori gero egungo idazkera moldetara ekartzeko. Testua finkatu eta gero, hura behar bezala ulertzeko lagungarri diren iruzkinak ere emango ditugu, berriaz eginiko argitasun oharretan. Adizki zaharren formaz eta balioaz esan daitekeena, hitz bakan batzuen esanahiari dagokiona, atsotitzen egituraz eta neurtitzen metrikaz-eta ohargarri iruditu zaiguna..., horiek eta horrelakoak dira argitasun ohar horietan emango ditugunak. Eta, hirugarren, atsotitzen eta neurtitzen edukiari eta esanahiari dagozkien iruzkin labur batzuk ere egingo ditugu, han-hemen.

Testuaren finkatzea, idazkeraren gorabehera ugariak kontuan izanik

Aurreneko lana, bada, testua behar bezala finkatzea dugu. Harrigarria gerta dakioke hori bati baino gehiagori, Oihenart izan baitzen, gorago esan dugun moduan, euskarak izan duen zinezko lehen ‘ortografoa’ eta hark zehaztu baitzuen, beste inork ez bezala, grafien eta fonemen arteko lotura. Egitasmoaren gauzatzea, ordea, traketsa eta halamoduzkoa izan zen –esana dugu hori ere– eta, horren ondorioz, grafia berriak batzuetan erabili bai eta beste batzuetan ez, urratsero argibide eske dagoen idazkera nahasia eta iluna aurkitzen dugu moldiztegitik jalgi zen edizioan.

Oihenartek berak huts egin zuen batzuetan, handik eta hemendik hartutako testuak bere sistemara erabat egokitu gabe sartu zituelako inoiz liburuan *-Atsotitzen Urrhenkina*-n, esate baterako— edota zalantzak izan zituelako han-hemen. Nahaspideen arrazoi nagusia, hala ere, beste bat izan zen. Oihenart “teorikoak” moldiztegia betetzen zailak ziren grafia bitxiak asmatu zituen eta hortxe apurtu zen haren sistema. Gainean puntua edo alboan espiritua zuten letrak erabiltzea proposatu zuen $-n^{\circ}$, z° , x° eta p° , t° , k° bezalakoak, alegia²⁷—, baina moldiztegiko kaxetan horrelako letra tiporik ez zutenez, punturik eta espiriturik gabe geratu ziren maiz horrelakoak, n , z , x eta p , t , k soilekin nahasketa sortuz. Hori gutxi ez dela, f eta s aldaerak fonema bana adierazteko bereizi zituen eta, itxuraz, moldiztegia ez ziren bereizketa horretaz jabetu eta behar baino maizago nahastu zituzten, baten lekuan bestea ipiniz...

Bestela ere aski luzatzen ari zaigun hitzaurre hau ez da, jakina, Oihenarten ‘ortografia’ berria erabat eta modu zabalean aurkezteko lekua. Puntu nagusi batzuk aipatuko ditugu, halaz guztiz, labur zurrean bada ere, Oihenarten idazkeraren gorabehera ugariak behar bezala ulertzeko ezinbestekoak iruditu zaizkigunak eta guk proposatuko ditugun zuzenketez jabetzeko beharrezko direnak. Behin baino gehiagotan itzuli beharko du, beharbada, irakurleak aurkezpentxo honetako azalpenetara, testuan eginiko proposamenen zergatikoaz zuzen jabetu nahi badu.

A. *Bokalen idazkeran* honako puntu hauek aipa daitezke:

a.- Dieresia: i eta $ü$ grafietako dieresiak letra horien bokaltasuna adierazten du. Jakinaenez, orduko idazkeran i letra, bokala (*ile*) edo kontsonantea (*ian*) izan zitekeen; u letrak ere—honela idatzia: v - hitz hasieran, $-u$ barruan eta V maiuskulan— u bokala (*vda*, *dute*) edo v kontsonantea (*vide*, *arreu*) adieraz zezakeen. Horra, bada: zalantzazko izan zitezkeen kasuetan, dieresia ipintzen zuten inoiz bokal edo semibokal zirela adierazteko: *deiez*, esate baterako, [dey-ez] irakurri behar da, ez [de-jez]; eta *burüa* [bu-ru-a], ez [bur-ba]. Beste batzuetan, u letra mutua ez dela (*güe*) edo diagrama baten zati izan beharrean bokal beregaina dela (*ai*, *üe*) adierazten du dieresiak. Zeregin desberdinak

²⁷ Ez dakigu zehatz non ipini nahi zuen Oihenartek puntua. Honela dio hitzaurrean: “... charger chacune de ces consonantes d’un point, en la forme ici représentée, d, l, n, t”, baina, ikusten denez, kontua argitu behar zuen azalpenean berean punturik gabe utzi zituzten adibideak moldiztegia. Pentsatzekoa da letraren gainean ipini nahi zuela. Guk, geure tekladotan ere letra gainean puntua duen grafiarik ez dugunez, alboan ipini dugu, Oihenarten asmora nolabait inguratzearren.

betetzen ditu, bada, honek inguruaren arabera, baina beti, modu batera edo bestera, letraren bokaltasuna adieraziz²⁸.

Hona, *i* dieresidunaren egitekoak:

. *ai* eta *oi* grafiak hitz amaieran edo kontsonante baten aurrean ageri direnean, [ɛ] eta [wa] irakurtzen diren digramak ez direla adierazten du dieresiak; *i* hori diptongoaren [y] bokalerdia adierazten duen letra da eta, hortaz, *-ay* eta *-oy* irakurtzen dira grafia horiek, hurrenez hurren: *emaïtea* (83), *otoï* (V,58). Berdin *ereïtea* (83).

. *aï*, *ei*, *oi* eta *ui* grafiak bokalaren aurrean ageri direnean, digrama ez iza-teaz gain *i* hori kontsonante ez dela ere adierazten du dieresiak, diptongoaren bokalerdia baita hor ere. Beraz, *aïa*, *eïa* eta horrelakoak ez dira [a-ja], [e-ja] etab. irakurtzen, [ay-a] [ey-a] etab. baizik: *Mahaïan* (641), *esteïac* (527), *emoïic* (40), *arbuïa* (40).

. Zenbait kontsonanteren ondoan ageri denean, kontsonante ez dela adierazten du *i*-ren dieresiak: *herïoac* (527) ez da, alegia [her-jo-ak] irakurri behar, [he-ri-o-ak] baizik.

Eta hona, berriz, *ü* dieresidunarenak:

. *üa* eta *üe* grafiek (inoiz *uë*, edo are, *Atsotitzen Urrhenkina*-n, *üa*, *üe*, *uë* idatziek²⁹) digramarik ez dela adierazten dute, bokal bi direla, bakoitzak bere zeregina duelarik. Normalean bokal horiek silabagileak ziren biak eta, hortaz, silaba banatan irakurtzekoak, hau da, [u-a], [u-e]³⁰.

. *aüa* eta *aüe* gisako idazkeran, bestalde, *ü* dieresidunak [w] bokal erdia adierazten du, ez [b] kontsonantea: *naiüena* (702), esate baterako [naw-e-na] da eta ez [na-be-na] edo *Refraüac* (tit.) [re-fraw-ak], ez [re-fra-bak].

²⁸ Dieresiak garai hartako frantses ortografian zuen erabileraz eta haren inguruko gorabehera guztiez, ik. Biedermann-Pasques 1992: 77-78 eta 91; eta Beaulieux 1927 II: 31. Ikus, hala-ber, garai hartako ortografiaz ari den Mujika 1997 (IV.1. kapitulua: Oihenarten idazkera).

²⁹ Zalantza berak izaten ziren frantses idazkeran ere.

³⁰ Dieresiak "la disjonction de deux voyelles succesives" edo haien "prononciation disjointe" adierazten zuen, nagusiki, frantses ortografian (ik. Biederman-Pasques eta Beaulieux, aipatu lekuetan). Neurtzizetan, non silaba-kopurua aski zehatz neur daitekeen, hogeitabat kasutan da hiatusa eta lau kasutan bakarrik irakurtzen da [we] diptongo eginda: *ensüerri*, hiru silabakoa (II,6); *estüela*, hiru silabakoa (XII,3); *escüetara*, lau silabakoa (XIII,6); eta *düenaren*, hiru silabakoa (XV,7). Ez dira harritzekoak horrelako salbuespenak, berdin gertatzen baita bestelako hiatusekin ere: ohiko *i-e*, esate baterako, *ye* egiten da inoiz neurriaren aginduz. Olerkiak onartzen dituen salbuespenak dira horiek. Txillardegik *ü* grafia horrek [ü] aurreko eta biribildua adierazten duelako susmoa agertzen du bere edizioan. Arrazoi aski argiak badira, ordea, susmo hori zuzena ez dela erakusten dutenak. Lehengo eta behin, esan bezala, dieresiak ez zuen orduko idazkeran horrelako egitekorik betetzen –Oihenartek berak prologoan Zuberoako [ü] biribila aipatzen duenean ez du *ü* idazten, frantsesen *u* deitzen baitu, dieresia erabili gabe–. Bigarren, Oihenartek ez zuen fonema hori zuten eskualdeetako euskara islatzen, erdialdekoagoa baizik. Hirugarren, fonema hori islatu nahi bazuen, zergatik mugatu zen kasu gutxi horietara –frantsesez bestelako esanahia zuten *üe* eta *üe* kasuetara, hain justu– eta ez zuen gauza bera egin fonemaren agerpen guztietan? Eta,

. Behin agertzen den *güe* grafiak, azkenik, *ü* hori mutua ez dela adierazten du, *guero*, *legue* eta horrelakoetan bezala: *Egüerditara* (III,5), [-gwer-] da ez [-ger-].

b.- Gutxi batzuetan *ou* diagrama ageri da, ohiko *u* bokalaren lekuan, grafia bereizgarria izan daitekeena: *ehun* zenbakia / *ehoun* “inon”, cf. IV, 7; *houna* “ona” (24) / *huna* “hona (hemen)” (XI, 28; XX, 56)¹¹.

B. *Kontsonanteen idazkeran*, berriz, kontu asko aipa daitezke:

- . inoizko *v* kontsonantea (*vide*, *arrena*);
- . *gu* grafia *e* eta *i* bokalen aurrean;
- . *c* leherkariaz gain, *qu* grafia *e* eta *i* bokalen aurrean eta *k* edozein bokalaren aurrean;
- . inoizko *ce*, *ci* eta *ç* grafiak gure *z* adierazteko;
- . inoizko *ch* gure *x* txitxikaria adierazteko;
- . hitz amaierako inoizko *-rr* bikun bereizgarria: *sorr* “ema, iraungiaraz” (618) / *sor* “jaino” XIII, 20; *hurr* jatekoa (631) / *hur* edatekoa (XXVI, 16)...

Aipagarrienak, hala ere, sabaikariei, aspiratuei eta txistukariei dagozkien kontuak dira:

a.- Sabaikariak: gure *dd*, *tt*, *ll* eta *ñ* sabaikariak *d°*, *t°*, *l°* eta *n°* idatziko zituela esan zuen Oihenartek aitzinsolasean, baina moldiztegian horrelako letra tiporik izan ez eta “huts egin” zituzten puntu horiek guztiak –are aitzinsolasean berean, grafia horien berri eman behar zuen azalpenean– eta sabaikari horiek, agertzekotan, batere punturik gabe agertuko dira haren testuetan. Guk, egia esan, *ñ*-ren susmoa baizik ez dugu hartu, zenbaitetan *n* soilak *n°*, hau da, gure *ñ* gordetzen duela iruditu baitzaigu (*ohonac*, esate baterako, *ohoñak* irakurri behar dela pentsatu dugu, hau da, gure *ohoinak*). Albokoa, berriz, (*i*)*ll* idatzita ageri da behin baino gehiagotan.

b. Aspiratuak: gure *ph*, *th* eta *kh* leherkari aspiratuak –eta berdin aspirazioa kontsonantearen ondoan daramaten *lh*, *nh* eta *rh* ere¹²– greziarren espiri-

gainera, *üa*, *üe* bezala, *uë*, *üa*, *üe* eta are *uê* grafiak erabiliko ote zituen [ü] aurreko biribildua adierazteko? Ez dirudi; grafia horiek guztiek argi erakusten dute bokal bien arteko kontua zela hor adierazi nahi zena, esandako “prononciation disjointe”, alegia. Leizarragak ere, frantses ortografiari jarraiki, honela dio: “Letrén berezgarrico merçua uâ uê” (Abc, Aiiir).

¹¹ Idazkeran islarik ez badu ere, zenbaitetan badirudi *o* bokalari *u*-ren pareko gauzatze itxia zor zaiola: *bolhar*, *doëla* (ikus, halaber, *ourdin* / *gordin* errima, II, 1).

¹² Aitzinsolaseko azalpenetan ematen diren adibideetan aspirazio markarik gabe ageri dira leherkariak: *icara*, *ele*, *vne*, *epe*, *ero*, *ate*. Francisque-Michelen edizioan, berriz: *ic'ara*, *el'e*, *vn'e*, *ep'e*, *er'o*, *at'e*. Oihenartek berak egindako zuzenketak dira horiek, beharbada. Gorago esan dugun bezala, Baionako alea eskuz egindako zuzenketez betea dago eta, itxuraz,

tu sendoaren bitartez adieraziko zituela esan zuen Oihenartek: *p`*, *t`*, *c`* eta *l`*, *n`*, *r`*, alegia. Gutxitan ageri da, hala ere, espiritu hori haren testuetan –inoiz, gainera, *ph*, *th*, *kh* eta *lh*, *nh*, *rh* grafia ohikoak ageri dira³³. Uste izatekoa da, hortaz, behin baino gehiagotan “huts egin” zutela aspirazio marka hori ere, edo Oihenartek berak edo moldiztegiko langileek. Horrelakoetan badirudi zuzendu beharrekoa dela hutsa. Ez da erraz, ordea, hori egiten. Literatur tradizioak ez digu erabateko laguntza eskaintzen horretan, zalantza eta bitasun asko izaten baitzen orduko testuetan aspirazioaren kontuan, zenbaitetan are idazle berak hitz bat noiz aspirazioarekin noiz gabe ematen baitzuen. Hori dela eta, testuaren arabera jokatzea erabaki dugu geure transkripzioan: testuan `edo *h* grafiak ageri direnean baizik ez dugu *ph*, *th*, *kh* eta *lh*, *nh*, *rh* idatzi; gainerakoetan aldaketarik egin gabe utzi dugu testua, horrek hitz bera batzuetan batera eta beste batzuetan bestera idaztea badakar ere³⁴.

c. Txistukariaren idazkera da, hala ere, nahaspiderik handienak ematen dituenak. Jakina denez, orduko frantses idazkeran *s* letrak aldaera bi zituen: *f* luzea eta *s* txikia. Kokapenaren arabera erabiltzen zuten bata ala bestea. Horrela, esate baterako, *-f-* idazten zuten bokalarrean eta *-s*, berriz, hitz bukareran. Baina, esan bezala, letra bat eta beraren aldaera baizik ez ziren. Hori ikusita, euskaraz aldaera bi horiek letra diferente bezala hartzea proposatu zuen

Oihenartek berak egindako zuzenketak dira. Vinsonek hala dio, behintzat, Francisque-Michel-ek alderatu zituela zuzenketa hauen letra eta Oihenartek eskuizkribuetan erabiltzen duena eta argi ikusi omen zuela idazle berarenak direla biak. Horra, bada, zuzenketa horietako asko “consistant dans l’addition d’un esprit rude à certains *p, t, c* ou *k* (...)” (Lafon 1955b: 136).

³³ Akasolok dio (1968:185-189) Oihenartek *k* letraren ondoan ez duela inoiz ez espiriturik ez *h*-rik ipintzen. Hori dela-eta batek baino gehiagok pentsa dezakete beharbada *k* soilak leherkari aspiratua adierazten duela Oihenartenean ere, Leizarragarenean bezala. Uste okerra da hori, ordea. Hasteko, Oihenart prologoan leherkari aspiratuez ari denean *c`* espiritudunaz mintzo da eta ez du *k*-rik ezertarako aipatzen; gero, leherkari arruntez ari delarik, *c* eta *qu*-ren lekuan inoiz *k* erabiltzen duela dio, balizko aspirazioaren inolako aipamenik egin gabe. Bestalde, argi da *k* soila ez dela beti eta berez aspiratua, aspiraziorik ez denetan ere erabiltzen baitu, hala nola *aski* hitzean, non leherkaria txistukariaren ondoan delarik ez baita aspiratua. Hirugarren, inoiz markatzen du Oihenartek berak aspirazioa, ohiko *kh* idatziz –Akasolok bestela badio ere– (*ekhia*, 373; eta, *Atsotitzen Urrhenkina*-n, *vkhenago*, 636; *vrkha*, 681; *dekhbarke*, 682), horrek erakusten baitu *k* soila ez duela aspiratutzat hartzen. Eta, azkenik, Baionako alean Oihenartek *k* batzuk “zuzendu” egin zituen ondoan espiritua ipiniz (ik. Francisque-Michelen edizioan *ik`ertu*, 5; *ek`uru*, 54; *ek`i*, 56; *k`ea*, 412 etab.), *k* soilak harentzat aspirazioa adierazten ez zuela erakutsiz.

³⁴ Esan bezala, Francisque-Michelek ikusi zituen Oihenarten zuzenketak eta sartu egin zituen bere edizioan. Guk testua dagoen dagoenean utzi dugu eta argitasun oharretan eman dugu Francisque-Michelen zuzenketa horien berri.

Oihenartek; fonema bi adierazteko erabiltzea, alegia: *f* luzeak gure *s*-a adieraziko zuen eta *s* txikiak gure *z*.

. *f* luzeak, bada, beherago aipatuko ditugun salbuespenetan izan ezik, gure *s* apikaria adierazten du: *falda*. Gogoan izan behar da, hori bai, bokalarlean *-ff-* bikuna idazten zuela Oihenartek gehienetan, euskaraz horren beharrik ez bazen ere: *beffo*, *affe*, *goffe*... Bokalarlean *-f-* bakuna dutenak salbuespen dira: maileguak (*aife*, *vsazen*, *profondegui*...), txistukaria lexema edo morfemaren buruan dutenak (*deufetan*, *ihesari*, *deseguin*...) eta beste batzuk.

. *s* txikiak, berriz, beherago aipatuko ditugun salbuespenetan izan ezik, gure *z* bizkarkaria adierazten du: *seru*, gure *zeru*. Horrek, ordea, *s* hori letra beregaina denean baizik ez du balio. Horrela, *ts* digramak, *tf* digramak bezala, gure *ts* apikaria adierazten du eta ez da pentsatu behar hor *tz* dugunik: *gupidatsu*, esate baterako, gure *gupidatsu* da eta ez da inola ere *gupidatzu* irakurri behar. Bokalarleko *-ss-* bikunak ere gure *s* apikaria adierazten du: *ihessi*, esate baterako, gure *ihesi* da eta ez da *ihazzi* irakurri behar.

. Maiuskulan, azkenik, ez da bereizketarik, *S* idazten baitira biak, bai *f* luzea bai *s* txikia, eta irakurleak berak jakin behar du noiz irakurri *S* eta noiz *Z*: *Senar*, esate baterako, gure *Senar* da eta *Saldi*, berriz, gure *Zaldi*.

Bereizketarena ez zen proposamen txarra, pentsatu bezala bete izan balitz, baina ez zien lan erraza egotzi Oihenartek moldiztegiko langileei bereizketa hori betearazten: frantsesez bezala euskaraz ere grafia biak letra bat eta beraren aldaera soil zirela uste zuten haiek eta, bakoitzak bere balio propioa zuela ohartu gabe, etengabe aldatu zizkioten Oihenarti *f* luzeak eta *s* txikiak, baten lekuan bestea ipiniz. Oihenart bera ere konturatu zen etengabeko nahasketa horretaz eta horrela adierazi zuen Atsotitzen eta Neurtitzen amaieran idatzitako ohar banatan:

“L'on a aussi marqué souvent au texte Basque l'*f* longue au lieu de l'*s* courte, et tout au contraire l'*s* courte au lieu de l'*f* longue; à quoi le lecteur prendra garde, s'il luy plait” (*Atsotitzak*, 81; cf., halaber, *Neurtitzak*, 76)³⁵.

a. Maiz *f* luzea behar zuenean *s* txikia ageri da, gure *s* apikaria adieraziz.

. Hitz amaieran: *deus*, *ihes*...³⁶. Elkarketaren lotura gunean ere gauza bera gertatzen da inoiz: *nahasago*, *desdixatuac*...

³⁵ Baionako aleko beste zuzenketa batzuk, hain zuzen, “consistent (...) dans des substitutions de *s* longue à *s* courte, ou inversement” (Lafon 1955b: 136).

³⁶ Frantses usadioa izan liteke horren eragile, frantsesez ez baitzuten hitz amaieran *-f* idazten.

. -*fk*- inoiz -*sk*- bilakatu zen (edo -*sc*-, -*squ*-): *adiskide, escu, aski*... irakurtzen da batzuetan, beste batzuetan hitz horiek berak ohiko *f*-rekin ageri badira ere.

. -*ft*- ere inoiz -*st*- bilakatu zen: *vste, laster, lasto*... Ez da zer esan hitz horiek berak beste askotan ohiko *f*-rekin idazten direla.

. Aldaketa bera gertatzen da maiz *l*, *n* edo *r* kontsonanteen ondoan ere, *s* txikia agertzen baita inoiz kokagune horretan, *f* luzea “behar” zuenean: *molsa, onsa, arsto*...

. Hitz hasieran ere *s*- txikia ageri da batzuetan *f*-ren lekuan: *sari, sarista, sortu*...

. Bokalarlean, azkenik, ez da ohikoa *f*-ren lekuan -*s*- idaztea. Hala ere, errata gisa edo, ageri dira inoizka horrelakoak: *lausengaria*.

b. Gutxiagotan bada ere, horren alderantzizkoa ere gertatzen da inoiz, *s* txikia behar zuenean, *f* luzea ageri dela, gure z bizkarkaria adierazteko:

. *st* eta *sp* grafien lekuan *ft* eta *fp* grafiak ageri dira inoiz, frantses ohituraren eraginez. Hori gertatu zen batzuetan, esate baterako, ez partikularekin, ondotik adizkia zuenean: gehienetan *esta* ageri da, arauak eskatzen duen bezala, baina batzuetan *esta* ‘okerra’ ageri da. Eta *espere* ere ageri da inoiz, *espere* behar zuenean. Oker bera ageri da inoizko *darraist, emaste, estei, gaste, astura* eta horrelakoetan.

. Bokalarlean gutxitan ageri da -*f*- luzea -*s*-ren lekuan: *amaifun, guifon*...

. Gutxitan bada ere, inoiz-inoiz ageri da *fk* grafia *sk*-ren lekuan: *escon, vstefcoa*...

. Are gutxiagotan gertatzen da nahasketa hori hitz hasieran -*subur*- edo kontsonante aurrean - *esne* - .

Oihenarten aholkuari jarraiki, zuzenduta eman ditugu guk geure transkripzioan huts horiek guztiak, behar diren argitasunak eskainiz.

Ez dira, ordea, hor amaitzen txistukarien nahasketak.

. Igurzkarietan libre geratu zenez, z letra aukeratu zuen Oihenartek gure *tz* afrikatua adierazteko (*azo*, gure *atzo*; *vzi*, gure *utzi*).

. Bestetik, berriz, z^o puntuduna erabiltzea proposatu zuen gure *ts* apikaria adierazteko (*aberaz^o a, arraz^o ean*), baina puntu hau ere “galdu” egin zenez moldiztegian, z soilak inoiz fonema hori adieraz dezake (*aberaza*, gure *aberatsa*; *arrazean*, gure *arratsean*)³⁷. Dena dela, arauak arau, fonema hori ia beti *tf* edo *ts* idatzita ematen du Oihenartek.

³⁷ Aitzinsolasean, kontu hau azaltzeko emandako adibidean, punturik gabe ageri da, ostera ere, letra: *Azo*. Kasu honetan, gainera, Francisque-Michelen edizioan ez da zuzentzen 1657ko edizioako “okerra”.

. Gauza bertsua gertatzen da txitxikariekin: igurzkaria *x* idazten zuen guk bezala (*ixil*, *ximico*) eta gure *tx* afrikatua *x*^{*} idaztea proposatu zuen, letra gaineko puntuaz baliatuz (*ex*^{*}*e*, *dix*^{*}*a*, *borx*^{*}*a*), baina ostera ere puntua “galdu” egin zenez, *x* soilak askotan gure *tx* adierazten du (*exe*, *dixa*, *borxa*... gure *etxe*, *ditxa*, *bortxa* dira).

Egungo transkripziorako erabili ditugun irizpideak

Edizio honetan, bistan da, egungo idazmoldeetara aldatu ditugu Oihenarten testuak. Baina ez nolanahi. Grafiak gaurkotu ditugu, ez hitzen aldaerak edo haien formak. Oihenarten grafien lekuan egun erabiltzen ditugunak ipini ditugu: haren *qu*-ren lekuan gure *k*, haren *v* kontsonantearen lekuan gure *b*, haren *s*-ren lekuan gure *z* etab. Baina ez ditugu, bistan da, hitzen formak eta aldaerak batasunera ekarri. Horrela, esate baterako, *naoque* adizkia *naoke* idatzi dugu, <qu> grafia gaurkotuz, baina ez dugu adizki hori *nagoke* bilakatu; *debila* adizkia ere ez dugu *dabil*-era ekarri edota *adi* agintea *hadi*-ra ere. *Arsto*, esate baterako, *arsto* idatzi dugu, <f> grafia <s> eginaz, baina ez *asto*; *arrea*, noski, *arrea* egin dugu, haren <u> kontsonantea gure -ra ekarriz; baina *biper* ez dugu *piper* bilakatu, hor ez baita jokoan grafia kontua, hitzaren aldaera desberdinei dagokiena baizik.

Hasteko, ohiko idazkera-aldaketak egin ditugu:

- . bokalen gaineko dieresia alde bat utzi dugu (*düen* → *duen*);
- . *ou* digrama *u* soila egin dugu (*ehoun* → *ebun*);
- . *-ey*, *-ay* diptongoetako *y* grekoa *i* transkribitu dugu: *-ei*, *-ai*.
- . *i* kontsonantea *j* bilakatu dugu (*ian* → *jan*);
- . *v* kontsonantea *b* (*valia* → *balia*);
- . *gue*, *gui* grafiak *ge*, *gi* (*eguin* → *egin*);
- . *que*, *qui* grafiak *ke*, *ki* (*toqui* → *toki*); *c* leherkaria ere *k* (*halaco* → *halako*);
- . *mb* eta *mp* grafiak *nb* eta *np* (*campoan* → *kanpoan*).

Oihenarten sistemaren araberrako grafia erregularrak ere automatikoki aldatu ditugu:

- . haren *s* txikia *z* bilakatu dugu (*saldi* → *zaldi*);
- . haren *f* luzea *s* (*sari* → *sari*) eta berdin bokalarterko *-ff*- bikuna ere (*affe* → *ase*);
- . haren *z* soila *tz* (*gaiza* → *gaitza*);
- . *p*^ˈ, *t*^ˈ, *c*^ˈ espiritudunak *ph*, *th*, *kh* bilakatu ditugu...

Aldaketa horiek modu sistematikoan egin ditugu, esan bezala. Horietako batzuen berri eman dugu, hala ere, argitasun oharretan, hitzek jatorrizko testuan nolako idazkera duten hobeto ikus dadin.

“Zuzendu” beharreko grafiak zuzenduta eman ditugu testu transkribituan, bistan da, ondoko oharretan dagokien azalpena eskainiz. Horrela, inoizko *esta* adizkia *ezta* transkribitu dugu, *ez esta*; behingo *aberaza* guk *aberatsa* idatzi dugu testuan –ez Oihenarten sistemari legokiokeen *aberatza*–, oharretan z horrek z^{*} behar lukeela adieraziz.

Hitzak lotuta, marrarekin edo bereiz idazteko ere egungo arauak erabiliko ditugu, oro har. Horrela, Oihenartek maizenik lotuta idazten duen *bat* determinatzailea guk bereiz eman dugu (*haurbat* → *haur bat*); *ezen ez, ezi ez* ere bereiz eman ditugu... Horrelakoak ere adierazi ditugu testuaren ondoko oharretan.

Bizpahiru kontutan, hala ere, zegoen zegoenean utzi dugu Oihenarten testua, egungo arauetara ekarri gabe, hartatik urrunegi aldentzea izango bailitzaiteke bestela, neurtitzetan batez ere hain garrantzitsu den ahoskatze zuzena arriskuan ipiniz:

- . *ph, th, kh* eta *lh, nh, rh* idatzi dugu, aspirazioa islatuz;
- . lotuta utzi dugu *ez + adizkia* segida (*ezta, etzen, enaiz...*);
- . bokalaren elisioa adierazten duen apostrofoa ere bere hartan utzi dugu (*bad' ere, ber' etxean*).

Puntuazio kontuetan, azkenik, libreago ibili gara. Egungo erabileraren arabera ipini ditugu komak, puntuak eta horrelakoak.

Atalen banaketa

Hiru hizkuntzatako edizioa plazaratzen dugu, liburuko testu guztiak hiruretan emanik. Horrela, jatorrizkoan frantsesez dauden *Preface* eta *Au lecteur* aitzinsolasen ondotik euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenak eman ditugu; euskaraz dauden atsotitzen eta neurtitzen ondoan, berriz, gaztelaniazko eta frantseseko bertsioak ipini ditugu; eta, azkenik, euskara-frantseseko hiztegiñoan hitz bakoitzeko gaztelaniazko ordaina erantsi dugu. Geure iruzkinak eta testuen ondoko argitasun oharrak, ordea, euskara hutsean eman ditugu.

Oihenartek multzo banatan ematen ditu atsotitzak: aurrena euskaraz ematen ditu guztiak segidan eta frantsesez ondoren, hauek ere guztiak segidan. Horrela egiten du bilduma nagusian eta berdin *Atsotitzen Urrhenkina*-n ere. Guk atsotitz bakoitzaren ondoan eman ditugu bai itzulpena bai hari buruzko iruzkin eta argitasun oharrak, irakurleak guztia begi kolpe batez ikusteko modua izan dezan.

Honako egitura izango du atsotitz bakoitzak:

- . *Atsotitza euskaraz*, aurrena, esandako irizpideen arabera transkribitua.
- . *Itzulpenak*, gero: frantsesa lehenbizi, Oihenartena berarena egungo grafiara egokitua; eta gaztelaniazkoa ondoren.
- . *Oharrak eta iruzkinak*, azkenik. Lehenbizi hizkuntz iruzkinak ipini ditugu, idazkerari, hitzen formari eta haien esanahiari buruz eman beharreko argibideak eskainiz. Eta iruzkin paremiologikoa, gero, atsotitzak beste bildumetan eta beste hizkuntzetan dituen aldaerak, haren esanahia eta horrelakoak aipatuz.

Argitasun oharretako atal honetan jatorrizkoan duten idazkera berberetan eman ditugu hitzak; eta zuzendu beharrekoak, berriz, bai jatorrizko idazkeran bai Oihenartek bere sistemaren arabera idatziko lituzkeen moduan. Errazago alderatu ahal izango ditu horrela irakurleak hitzek lehen edizioan duten idazkera, Oihenarten sisteman zor zaiena eta egungo transkripzioan eman dieguna (honela, esate baterako: *aberatsa* testu transkribituan, lehen edizioako *aberaza* argitasun oharretan eta, ondolan, *aberaz*^a behar lukeelako azalpena).

Neurtitzak, berriz, inolako itzulpenik gabe argitaratu zituen Oihenartek. Guk neurtitz bakoitzaren alboan gaztelaniazko itzulpena ipini dugu eta ondolan, berriz, frantsesekoa. Horrez gain, aurretik aurkezpen labur bat eta ondokuntuan izan beharreko argitasun oharrak ipini ditugu.

Honako egitura hau izango du neurtitz bakoitzak:

- . *Aurkezpen laburra*, aurrena, neurtitzaren metrika eta gaia zein diren azaltzen duena.
- . *Neurtitza bera euskaraz*, gero, esandako irizpideen arabera transkribitua, alboan gaztelarazko itzulpena duela. Haien ondotik, frantses itzulpena, Lafonena hona aldatuta (1955a: 3-39).
- . *Argitasun oharrak*, azkenik, hitzen idazkeraz, formaz, sintaxiaz, esanahiaz eta horrelakoez behar bezala jabetzeko lagungarri direnak.

Argitasun ohar hauetan ere hitzak jatorrizko idazkeran eman ditugu eta zuzendu beharrekoak, berriz, bai jatorrizkoan bai Oihenarten iritzira behar luketen idazkeran ere. Jatorrizko idazkera diogunean 1657ko edizioan bezala eman ditugula esan nahi dugu. Hori dela eta, gogoan izan behar du irakurleak lerro bakoitzeko lehen hitza maiuskulaz idatzi zuela Oihenartek eta horrelaxe eman dugu guk ere argitasun oharretako aipamenetan.

Iturriak

Testua finkatzeko, lehen edizioak hartu ditugu oinarri: 1657ko *Atsotitzen eta Neurtitzen* liburua eta 1665eko *Atsotitzen Urrhenkina*. Liburu biak, 1657koa eta 1665ekoa, batean josiak daude Pariseko Bibliotekan gordetzen den alean eta, gorago esan dugun bezala, haren *fac-simila* argitaratu zuen J. Urkijok, L. Mendizabalenean, 1936an. Hau izan dugu guk geure laneko ‘iturrri’ nagusia.

Gorago esan dugu, bestalde, ezagutzen dugun beste alean, Baionakoan, zuzenketa zenbait idatzi zituela eskuz Oihenartek berak eta horiek bilduz bigarren edizioa egin zuela Francisque-Michelek 1847an. Edizio hau ere begiratu dugu, leherkari aspiratuen kontuari dagokiona ikusteko batez ere eta hauen berri eman dugu argitasun oharretan. Pariseko alean ageri ez diren olerki eta olerki-zatiak, berriz –XXIII–XXX zenbakietan eman ditugunak, alegia–, Francisque-Michelen ediziotik hartu ditugu.

Iruzkina eta argitasun-oharrak osatzeko erabili ditugun lanak liburuaren hondarreko *Bibliografia*-n aipatzen dira, ohikoa denez. Bi ikerlariren lanek, hala ere, berariazko aipamen berezia merezi dute, besteenak gutxietsi gabe.

J. Urkijo euskal paremiologoaren lanak aipatu behar ditugu, lehenengo eta behin. Zalgizeren bildumaren edizioan eta *Refranes y Sentencias* bildumarenean maiz aipatzen ditu Urkijok Oihenarten atsotitzak, baina hori gutxi ez dela, Oihenarten atsotitzen edizioa ere prestatzen hasi zen, nahiz eta, tamalez, ez zuen lana amaitzerik izan. Gaur egun Donostiako *Koldo Mitxelena* bibliotekako *Julio Urkijo* gordailuan dagoen koaderno batean utzi zituen idatziak edizio hartarako eginiko ohar-zirriborro batzuk. Horiek ere ikusi ahal izan ditugu eta gure iruzkinetarako baliatu, aipamenetan *Urquijo Esk* laburdura erabiliz. Gure iruzkinetan ageri diren gaztelaniazko eta frantseseko atsotitzak, bestalde, eta berdin hizkuntza horietako paremiologo zenbaiten aipamenak –Correas-enak, Mendoza-renak, Le Roux de Lincy-renak eta besterenak– batez ere Urkijoren lanetatik hartu ditugu eta han dauden bezala geure orrietara aldatu.

Lafonen lanei ere aipamen berezia zor zaie. Oihenarten obra barna arakatu dutenen artean Lafon da dudarik gabe “longe princeps”, eta ez denboran bakarrik. Aditzari buruzko tesian egiten dituen aipamenez beste, berariaz aztertu zituen Oihenarten atsotitzetako hizkuntzaren gorabeherak *Notes sur la langue des Proverbs d’Oihenart* izenburuko artikuluan, J. Urkijoren omenezko liburuan argitaratua (1949). Urte batzuk geroago Oihenarten *Neurtitzak* frantsesera itzuli zituen, izenburu honekin: *Traduction française des poésies d’Oihenart* (1955a). Horiek dira guk hemen hitzez hitz aldatuak ematen ditugunak, inprimategian itzuritako hutsarte batzuk ustez egoki zuzenduta. Urte hartan berean beste lan bat argitaratu zuen, *Notes pour une*

PATXI ALTUNA ETA JOSE ANTONIO MUJICA

édition critique et une traduction française des poésies d'Oihenart izenburuarekin (1955b). Guztiz baliagarri izan ditugu hirurak gure edizio honetarako.

Geuk hala eskatuta, bestalde, behako bat eman diote gure lanari Beñat Oyharçabalek eta Miren Azkaratek, Atsotitzen zatiari hark eta Neurtitzenari honek. Eskerrik asko biei.

ATSOTITZAK

EDO

REFRAUAK

Proverbes, ou Adages Basques.

Recueillis par le Sieur d' OIHENART

A PARIS

M. DC. LVII.

P R E F A C E

Ce n'est pas sans raison qu'on a fait état, en tout temps, des Proverbes, non seulement parmi le commun Peuple, en la bouche duquel ils sont si familiers, mais encore entre les Savants³⁹. Car, outre qu'ils servent d'ornement au discours dans la conversation, et d'argument pour persuader, ils contiennent plusieurs enseignements pour la conduite de notre vie. Ce qui a fait dire à Aristote, au rapport de *Sinesius*, en l'Oraison qu'il a faite à la louange de la Chouette, que les Proverbes étaient les restes de l'ancienne Philosophie ruinée par les guerres et calamités publiques, et qu'ils s'étaient conservés par le moyen de leur brièveté, et de l'agréable façon qu'ils ont d'exprimer les choses⁴⁰.

De là est venu que plusieurs grands Personnages n'ont pas dédaigné d'en faire des recueils. Entre autres, le même *Aristote* (selon le témoignage de *Laërtius*) et après lui *Cleareus* son disciple (ainsi que certifie *Athénée*), comme ont fait aussi *Chryssippe*, *Cleanthes*, *Théophraste*, *Zenobius*, *Diogenianus*, *Michaël Apostolius*, et autres.

Au précédent siècle plusieurs Personnages de grande littérature (entre lesquels sont *Erasme* et *Hadrian Junius*) ont travaillé comme à l'envi l'un de l'au-

³⁹ Ez da erraz Oihenarten puntuazioa segitzea. Hark puntu eta komaren edo puntu biren ondoan maiuskula ipintzen zuenean, guk normalean puntua ipini dugu. Bestalde, zati luzeak ematen ditu hark parrafo bakarrean. Guk, irakurlearen mesedetan, parrafo txikiagotan banatu ditugu haren parrafo luze horiek.

⁴⁰ Ez da pentsatu behar Aristotelesen eta gainerako jakintsuen aipamena crudizio erakustaldi edo are harrokeria keinu hutsa denik. Gogoan izan behar da kultura humanista eta modernoaren ingurugiroan kokatzen dela Oihenart, jakintzaren jarraitzailea zela eta, neurri batean bederen, herri xumearen kultur adierazpenak bazter uztearen aldekoa (ikus *Goienetxe* 1993: 58-59). Funtsezkoa zen, bada, atsotitzak herri xumearen ondare soil ez direla erakustea. Jakintza jasoan ere lekua badutela erakustea, alegia.

tre à ramasser ceux qui se trouvaient épars parmi les Auteurs Grecs et Latins. *Josèphe Scaliger* nous a donné les Vers paroemiaques des Grecs; *Andreas Schotus* les Adages des anciens Grecs, et aussi ceux du Nouveau Testament; *Martin Delrio* ceux du Vieil-Testament; *Novarius* ceux des anciens Pères; *Joan Drusus* les Hebraïques. Le même *Scaliger* et *Erpenius* ont traduit en Latin deux Centuries des Arabiques; *Levinus Uvarnerus* une Centurie des Persans; *Boxhornius* a inséré les anciens Britanniques dans son Traité des *Origines Gauloises*; *Hernand Nuñez*⁴¹, appelé vulgairement en Espagne *El Comentador Griego*, n'a pas cru mal employer son temps en ramassant les Espagnols. Ceux qui ont cours en France, en Italie, en Allemagne, en Flandre et en Angleterre ont pareillement eu leurs Compileurs et *Grutere* ne les a pas jugés indignes de tenir compagnie, dans son *Florilegium Ethicopoliticum*, aux Sentences des célèbres Auteurs Grecs et Latins.

J'ai cru aussi que je rendrais service à ma Patrie si, après le soin que j'ai eu, dès mon jeune âge, de recueillir les siens de la bouche du Peuple, je prenais encore celui de les rendre plus familiers et perdurables par le moyen de l'impression. Je veux croire qu'il en reste encore beaucoup qui ne sont pas venus à ma connaissance, particulièrement de ceux qui sont en usage parmi les Basques de delà les monts Pyrénées, avec lesquels je n'ai eu que fort peu de communication. J'en ai omis quelques-uns, qui sont vulgaires, pour n'y avoir pas remarqué le caractère ni les marques des véritables Proverbes.

* * *

Il reste de dire un mot de l'Orthographe que j'ai suivie en ce Recueil.

De l'Orthographe Basque.

La Langue Basque (qui est la même que l'ancienne Espagnole, comme j'ai montré ailleurs) avait sans doute jadis ses lettres et caractères propres pour écrire, dont il nous reste quelques vestiges dans les anciennes Médailles, rapportées par *Antonius Augustinus*⁴² au Dialogue 8 de son Traité des Médailles, et par *Vincentio Juan de Lastanosa* en son Livre intitulé *Museo de las Medallas desconocidas*.

⁴¹ *Nunez* dio testuak, baina moldiztegian ñ letrako tiporik ez zutelako izango da seguruen-
era ere.

⁴² *Augustin* su dio testuak, baina errata da, Neurtitzen hondarreko FAUTES DE
L'IMPRESSION atalean zuzendua.

Mais comme les Romains, après s'être rendus maîtres de la plus grande partie de l'Espagne, s'étaient attachés à ruiner la Langue de ce Pays-là pour y planter la leur, il ne leur fut pas malaisé d'y introduire leur façon d'écrire, à laquelle les Basques (nonobstant qu'ils eussent conservé leur ancienne Langue à la faveur de leurs montagnes) se seraient accommodés peu à peu, à cause de la nécessité qu'ils avaient de communiquer et converser avec les autres Peuples d'Espagne, et auraient laissé perdre la leur à faute d'en user.

Il y a pourtant des Lettres en l'Alphabet Latin qui sont superflues pour la Langue Basque, et d'autres qui y manquent⁴³.

Celles qui manquent sont les diminutives de *D*, *L*, *N*, *S*, et *T*⁴⁴. Ces cinq lettres, combien qu'elles retiennent le son de leurs primitives, c'est néanmoins avec quelque déchet et altération, comme chacun peut remarquer, pour le regard de *L* et de l'*N* diminutives, ès Langues Française, Italienne et Espagnole, auxquelles elles sont en usage, aussi bien qu'en la Basque, et sont figurées, la première en la langue Italienne, par *GL* et l'autre par *GN*, comme en ces mots *Doglia*, *Bisogno*. En la Langue Française, la première s'écrit par *ILL* et l'autre par *GN*, comme ès mots *Faillir* et *Gagner*. Et en l'Espagnole la première par *LL* et l'autre par un *N* chargé d'une ligne, qu'ils appellent *Tilde*, comme ès mots *Hallar* et *Tañer*⁴⁵. Un Auteur moderne⁴⁶ les appelle *demi-lettres*.

L'*S* diminutive est cette lettre que les Français et les Espagnols expriment par un *Z* ou par un *Ç* à queue⁴⁷.

Outre ces trois consonantes diminutives (qui sont communes aux Basques avec les Français, Italiens et Espagnols)⁴⁸ il y en a deux autres qui leur sont propres, à savoir le *D* et le *T*. Pour exemple de la diminutive *T* servira le mot *Tipi*, c'est à dire "petit", auquel la lettre *T* a un son mol et cassé, qui se

⁴³ Oihenartek idazkera arruntez ematen ditu letra eta fonemen aipamenak. Guk letra eta fonemen emango ditugu, irakurlearentzat mesedeko izango delakoan.

⁴⁴ Testuak *r* dio, minuskulaz, baina garbi da *t*-ren ordez itzuritako errata dela. Guk zuzendu eta maiuskulara pasa dugu zerrendako besteen pare. Esan beharra dago, bestalde, Oihenartek darabilen "diminutives" adjektiboa ez dela zuzenegia, hor aipatzen diren fonemen kideko *sabaikariez* ari baita.

⁴⁵ Ostera ere *taner* dio testuak, *n̄*-ren faltaz.

⁴⁶ Alboan hau dago idatzia: *Ramus en sa Grammaire Française*.

⁴⁷ Hemen, berriz, *ç* dio, minuskulaz, artean berria zen letra horren maiuskulako tiporik ez baitzuten moldiztegia. Ohar bedi irakurlea *d*, *t*, *l* eta *n*-ren kide diren *dd*, *tt*, *ll* eta *n̄* sabaikarien zaku berean sartzen duela Oihenartek *z* txistukaria, hau ere "diminutive" delakoan. Azken hau, ordea, ez da besteen pareko, ez baita sabaikaria, artikulazio puntuaz bereizten den txistukari bizkarkaria baizik.

⁴⁸ Hots, aipaturiko *l*, *n* eta *s*-ren pareko *ll*, *n̄* eta *z*.

profère en poussant la langue réfléchie vers les dents, sans la hausser aucunement. L'exemple de la diminutive *D* se peut remarquer au mot *Amandi*, c'est à dire "Roitelet oiseau", auquel la consonne *D* a pareillement un son cassé et imparfait qui se forme, ne plus ne moins, en poussant vers les dents la langue réfléchie, sans la hausser aucunement⁴⁹.

Pour désigner les diminutives de *D*, *L*, *N*, *T* sans forger de nouvelles lettres, je n'ai point trouvé de meilleur expédient que de charger chacune de ces consonantes d'un point, en la forme ici représentée, *d*[•], *l*[•], *n*[•], *t*^{•50}.

Pour le regard du diminutif de l'*S*, d'autant que cette lettre a deux figures aux Langues vulgaires, l'une longue de cette sorte *f* et l'autre courte et ramassée de cette manière *s*, je me suis servi de la dernière pour exprimer le diminutif, et de la première pour représenter le primitif, qui est l'*f* commune des autres Langues⁵¹.

Manquent aussi en l'Alphabet Latin les consonantes aspirées des Basques, qui sont *C*, *L*, *N*, *R*, *P* et *T* avec aspiration: comme en ces mots *icara* "tremblant", *ele* "discours", *une* "las", *epe* "délai", *ero* "fol", *ate* "porte"⁵². L'on pourrait dire que ce défaut se peut suppléer en ajoutant à chacune de ces con-

⁴⁹ Agerikoa da leherkaria sabaikaria duten *Ttipi* eta *Amanddi* hitzez ari dela hemen Oihenart. Ondoko lerroetan azaltzen duen sistemaren arabera, *Ttipi* eta *Amand*[•] idatzi behar ziren horiek. Puntuarekin idatziko zituen beharbada Oihenartek, baina, horrela egin bazuen, moldiztegia aldatu egingo zioten idazkera puntudun letretako tiporik ez baitzuten kaxetan.

⁵⁰ Testuak *d*, *l*, *n*, *t* dio hemen ere, punturik gabe. Ikusten denez, bere idazkeraren berri ematen ari den lekuan berean huts egin zioten moldiztegiko langileek Oihenarti. Nola bete, izan ere, haren nahia, haren letra berriei zegozkien tipoak falta zituzten-eta beren kaxetan?

⁵¹ Ohar bedi irakurlea beste guztientzat letra baten aldaera soil baizik ez ziren *f* eta *s* letrak, bi letra desberdin gisa hartzea proposatzen duela hemen Oihenartek: *f* luzea gure *s* apikaria adierazteko erabiltzea proposatzen du (*feme* = gure *seme*), eta *s* txikia gure *z* bizkarkaria adierazteko (*ser* = gure *zer*). Horrek minuskuletan baizik ez du balio, halere, maiuskuletan *S* bakarra baitago fonema biak irudikatzeke. Gainera, moldiztegiko langileek ez ziren bereizketa horretaz behar bezala jabetu eta, Oihenartek berak liburuaren hondarrean bitan aitortzen duenez, askotan agertzen da *f* luzea *s* txikia behar zuen lekuan eta alderantziz (ik., esate baterako, XIX,14ko oharra, non erakusten den *Jesus* izena lau modutara idatzita ageri dela liburuan zehar). Horrek, jakina, arreta berezia eskatzen die Oihenarten testuen aztertzaileei.

⁵² Ikusten denez, Oihenartek zaku batean sartzen ditu *lh*, *nh* eta *rh*, non bi fonema ditugun -aspirazioa kontsonantearen ondoren baitator-, eta *ph*, *th* eta *kh*, non fonema bakarra, leherkari aspiratua, dagoen. Badirudi, bestalde, Oihenartek ondoko lerroetan azaltzen duenez, *ic`ara*, *el`e*, *un`e*, *ep`e*, *er`o*, *at`e* idatzi beharko lirakeela hitz horiek. Sabaikarien puntua bezala, ordea, aspiratuen espiritu sendoa ere huts egin zuten gehienetan moldiztegiko langileek, hemen bezala liburu guztian zehar.

sonantes une *H* et en écrivant: *elbé, unbé* etc. Mais cela n'est pas vrai à l'égard du *C* et du *P* aspirés. Car *PH* se prononce⁵³ comme *F*; et *CH* en l'écriture Espagnole et Française approche plus du son de l'*S* que de celui du *C*. C'est pourquoi j'ai mieux aimé me servir, pour marque de cette aspiration, de l'esprit âpre des Grecs que de l'*h* des Latins.

Les lettres de l'Alphabet Latin superflues en notre langue sont l'*X* et l'*Y*. J'ai néanmoins, à l'imitation des Espagnols, retenu l'*X* pour désigner une autre lettre qui est fort commune en⁵⁴ la langue Basque, laquelle les Français expriment par *Ch* comme ès mots *Chair* et *Chaste*. Je me sers de la même consonante *X* chargée d'un point⁵⁵, pour désigner une autre lettre que nous avons en notre Langue, qui équipole à *tch* et est celle que les Italiens expriment par *ci*, comme au mot *ciò*, et les Espagnols par *Ch* comme au mot *Mucho*.

Le *K* et le *Q* seraient aussi superflues en notre Langue, s'il était loisible de prononcer le *C* et le *G* devant les voyelles *E* et *I* tout de même que devant les autres voyelles, comme faisaient les anciens Romains, suivant que le montre *Lipse* au Chap. 13 de son Traité de la Prononciation de la langue Latine. Et non seulement les Latins prononçaient ces deux lettres de la sorte, mais aussi nos Basques, ce qui se collige de ces mots *Baké* "paix" (qui vient du Latin *pace*), *doné Vikenti*, qui veut dire "Saint Vincent", *Legue* "Loi", *Erregue* "Roi" (qui viennent du Latin, *Lege* et *Rege*) et de quelques autres mots qui ont été empruntés de la langue Latine. Mais parce que les prononcer de la sorte serait choquer par trop l'usage des Langues voisines de France et d'Espagne, auxquelles la lettre *C* se prononce devant *E* et *I* comme l'*S* diminutive, et le *G* comme l'*I* consonante, je me sers devant ces voyelles *E* et *I* du *K* ou du *Qu* au lieu de *C* et de *Gu* au lieu du *G*.

L'*V* consonante est encore superflue en notre Langue. Car le *B* sert au lieu d'icelle, mais on le prononce plus doucement qu'aux autres Langues, et sans battre les lèvres par le devant, ni les retirer, mais en les faisant seulement toucher légèrement l'une l'autre par les deux côtés. Tellement que notre *B* approche fort du son de l'*V* consonante, comme fait aussi le *B* des Castellans. Voyez *Juan Lopez de Velasco*, en son Traité de la *Ortographia y prononciation Castellana*, page 29.

⁵³ Testuak *prononcer* dio, baina errata da, Neurtitzen hondarreko FAUTES DE L'IMPRESION atalean zuzendua.

⁵⁴ Testuak *dans* dio, baina ikus Neurtitzen hondarreko FAUTES DE L'IMPRESION ataleko zuzenketa: "pour *dans* lisez *en*".

⁵⁵ Beraz, horren arabera *ex*•*e* idatzi beharko litzateke, txitxikaria afrikatua baita. Testuetan, orde, pentsa daitekeen moduan, puntua falta da eta *exe* bezalako grafiak ageri dira.

L'V voyelle se prononce en Basque comme *ou*, tout ainsi qu'ès Langues Italienne et Espagnole, excepté au pays de *Soule*, et en quelques endroits de la *Basse-Navarre*, où il se prononce comme l'*u* Français.

Le Z doit valoir en notre Langue *TS* tout ainsi qu'en la Grecque et en la Latine, vu que l'usage de cette lettre y est fort fréquent, et parce que nous avons double S, c'est à savoir le *long* et le *court*. Je charge le Z d'un point lorsqu'il doit exprimer l'*f* longue jointe au *t*, comme en ce mot *Az^o*⁵⁶, c'est à dire "vieux" ou "vieille", lequel il faut prononcer tout ainsi que s'il était écrit *Atfo*.

⁵⁶ Testuak *Azo* dio, punturik gabe hemen ere, moldiztegian huts egin baitzuten puntua. Ohar bedi irakurlea bitasun honetaz: z letrak gure *tz* adierazten du (*azo = atzo*), eta z^o puntudunak, berriz, gure *ts* (*az^o = atso*). Testuetan, hala ere, punturik gabe ageri da azken letra hau grafia hori erabiltzen denean; gehienetan, ordea, horren ordeaz *ts* edo *tf* grafia erabiltzen dira gure *ts* apikari afrikatua adierazteko.

AITZINSOLASA⁵⁷

Atsotitzak ez dira arrazoirik gabe betidanik aipatuak izan, ez bakarrik jende xumearen artean, zeinen ahoan guztiz ohikoak diren, baina baita jakintsuen artean ere. Zeren, solasetako hitzaldien apaingarri bezala eta zerbaiten sinetsarazteko arrazoibide gisa baliagarri izateaz gain, gure bizitzako jokabidea bideratzeko ere ainitz erakaspen baitute. Eta horrek, hain zuzen, erranarazi dio Aristotelesi –*Sinesio*-ren arabera, Hontzaren gorestekoen egin zuen mintzaldian–, atsotitzak zirela antzinako Filosofiatik gelditu diren herexak, hura gerlek eta ezbehar publikoek hondamendira ekarri ondolan, eta atxikiak izan zirela beren laburtasun eta gauzen adierazteko duten molde atseginagatik.

Horra zergatik, bada, jende ezagutu ainitzek ez duten haien bildumak egitea gutxietsi. Bertzeren artean, *Aristoteles*-ek berak (Laerzio-ren lekukotasunaren arabera) eta gero *Klearko* haren ikasleak (Ateneok egiaztatzen ducnez); eta berdin egin dute, halaber, *Krisipok*, *Kleantesek*, *Teofrastok*, *Zenobiok*, *Diogenianok*, *Michael Apostoliusek* eta bertze batzuek.

Joan den mendean, literatura handiko jende ainitzek (*Erasmok* eta *Hadriano Junius*-ek, bertzeak bertze) lan egin dute, zein gehiagoka bezala, idazle Greziar eta Latinoetan barreiatuak zirenak bilduz. *Josepe Eskaliger*-ek eman dizkigu Greziarren neurtitz paremiakoak; *Andreas Eskoto*-k antzinako Greziarren errefracuak eta baita Testamentu Berrikoak ere; *Martin Delrio*-k Testamentu Zaharrekoak; *Novarino*-k Elizako Gurasoenak; *Joan Druso*-k Hebrerakoak. *Eskaliger*-ek berak eta *Erpenius*-ek latinera itzuli dituzte ara-

⁵⁷ *Preface*-ren euskarazko itzulpen hau gurea da. Behako bat baino gehiago eman diogu, hala ere, Orpustanek egin itzulpenari, Iparraldeko euskalkien itxura nolabait gordetzen lagunduko zigulakoan. *Preface*-ari egin oharrak, bestalde, ez ditugu berrituko, baina kontuan izatekoak dira hemen ere, bistan denez.

biarretarik bi Ehunaldi; *Levinus Uvarnerus*-ek persiarretarik Ehunaldi bat; *Boxhornius*-ek britaniar zaharrak sartu ditu *Origines Gauloises* izeneko liburuan; *Hernan Nuñez*-ek, Espainian arrunki *El Comentador Griego* deituak, ez du uste ukan astia galtzen zuela Espainiakoak bilduz. Frantzian, Italian, Alemanian, Flandrian eta Ingalaterran erabiltzen direnek ere ukan dituzte beren biltzaileak, eta *Grutere*-k ez ditu txikiegi aurkitu, bere “*Florilegium Ethicopoliticum*”-ean, idazle Greziar eta Latinoen esakunen ondoan egoteko.

Uste ukan dut nik ere zerbitzu eginen niola neure Sorterriari, gazte-gaztetandik Jendearen ahotik harenak biltzen hartu dudana lana hartuta gero, orain haiek ezagunago eta iraunkorrago bilakatzekoa ere hartuko banu, inprimatzea dela bide. Ustea badut ainitz badirela oraino ene ezagutzara heldu ez direnak, batez ere Pirinio mendiez haraindiko Euskaldunen artean erabiltzen direnatarik, harreman txikia baizik ez baitut ukan haiekin. Batzuk, arruntegiak izaki, kanpoan utzi ditut, ez baititut haietan egiazko atsotitzen izaera eta ezaugarriak ikusi.

* * *

Hitz bat bada oraino erraiteko Bilduma honetan erabili dudana ortografiaz.

Euskal ortografiaz

Euskarak (Espainiako hizkuntza zahar hura bera baita, bertze nonbait erakutsi dudana bezala) bazituzkeen lehenago bere letra eta zeinu bereziak idazteko, zeinetarik bakar batzuk gelditzen baitzaizkigu medaila zaharretan, *Antonio Augustino*-k bere Medailen liburuko 8. elkarrizketan eta *Vincentio Juan de Lastanosa*-k *Museo de las Madallas desconocidas* izeneko liburuan aipatzen dituztenak.

Baina Erromatarrek, Espainiako zatirik handienaz jabetuta, herri horretako hizkuntza ezeztatu nahi ukan zutelarik, berearen ezartzeko, ez zuten nekerik ukan bere idazmoldearen han sartzeko. Horretara egokitu ziren emeki-emeki Euskaldunak (nahiz-eta bere hizkuntza zaharra atxikia zuten mendiei esker), Espainiako bertze Jendealdeekin behar zutelakotz solastatu eta mintzatu, eta galtzera utzi bide zuten berea, erabiltzearen hutsez.

Badira bizkitartean Latin Alfabetoan Euskararako sobera diren letra batzuk, eta bertze batzuk eskas direnak.

Eskas direnak *D*, *L*, *N*, *S* eta *T*-ren txikitzaileak dira. Bortz letra hauek, bere aitzin-parekoen soinua atxikitzen badute ere, galtze eta aldatze zerbaitekin egiten dute, bakoitza ohar daitekeen bezala frantseseko, italierako eta espainierako *L* eta *N* txikitzaileetan, hauetan erabiltzen baitira euskaraz bezainbat, eta ematen dira italieran lehena *GL*-rekin eta bigarrena *GN*-rekin, hala nola *Doglia*, *Bisogno* hitzetan. Frantsesean, lehena *ILL* idazten da eta bigarrena *GN*, hala nola *Faillir* eta *Gagner* hitzetan. Eta Espainieran lehena *LL* eta bigarrena *N* gainerik marra bat duela, *tilde* deritzotena, hala nola *Hallar* eta *Tañer* hitzetan. Idazle berri batek *letra-erdi* deitzen ditu.

S txikitzailea Frantsesek eta Espainolek *Z* edo *Ç* buztandunarekin emaitzen duten letra da.

Euskaldunek Frantsesekin, Italiarrekin eta Espainolekin batean dituzten hiru kontsonante horietaz bertzalde, badira bertze biga bereak dituztenak: *D*-a eta *T*-a. *T* txikitzailearen adibidetako balio lezake *Tipi* hitzak, erran nahi baita “petit”, zeinetan *T* letrak soinu leun eta hautsi bat baitu, mihia itzulirik hortzetarat aitzinatuz eta batere goititu gabe egiten dena. *D* txikitzailearen adibidea ikus daiteke *Amandi* hitzean, erran nahi baita “Erregetxo” txoria, zeinetan *D* kontsonanteak berdin soinu hautsi eta osagaitz bat baitu, mihia itzulirik hortzetarat bultzatuz eta batere goititu gabe egiten dena, ez gehiago ez gutiago.

D, *L*, *N*, *T* txikitzaileen emateko letra berririk moldatu gabe, ez dut modu hoberik aurkitu kontsonante horietarik bakoitzari gainerik puntu baten emaita baino, hemen erakusten den moldean, *d*^o, *l*^o, *n*^o, *t*^o.

S-aren txikitzaileari dagokionez, letra horrek hizkuntza arruntetan bi itxura dituenez, bat luzea, honela *f*, eta bertzea motza eta bildua, molde honetan *s*, azken honetaz baliatu naiz txikitzailearen emateko, eta lehenaz, berriz, bere aitzin-parekoaren itxuratzeko, bertze hizkuntza guztietako *f* baita.

Eskas dira Latin Alfabetoan, halaber, Euskaldunen kontsonante aspiratuak, hau da, *C*, *L*, *N*, *R*, *P* eta *T* kontsonanteak hatsaz lagunduak, hala nola hitz hauetan: *icara*, *ele*, *une*, *epe*, *ero*, *ate*. Erran liteke huts hori ordain daitekeela kontsonante horietako bakoitzaren ondotik *H* bat emanez eta idatziz: *elhe*, *unhe* etab. Baina hori ez da egia *C* eta *P* aspiratuei dagokienez. Zeren *PH* ahoskatzen baita *F* bezala eta *CH* idazkera hurbilago baita, espainieran eta frantsesean, *S*-aren soinutik, *C*-arenetik baino. Horregatik hautatu dut, aspirazioaren ezaugarri gisa, Greziarren espiritu gogorraren erabiltzea, Latindarren *h*-aren orde.

Gure hizkuntzan sobera diren Latin Alfabetoko letrak *X* eta *Y* dira. Hala ere, Espainolei jarraiki, *X* atxiki dut, euskaraz aintz erabilia den bertze letra

baten emateko, Frantsesek *Ch* idazten dutena, hala nola *Chair* eta *Chaste* hitzetan. *X* kontsonante bera erabiltzen dut gainean puntu bat duela, gure hizkuntzan dugun bertze letra baten emateko, *tch* balio duena eta Italianoek *ci* idazten dutena, hala nola *cio* hitzean, eta Espainolek *Ch*, hala nola *mucho* hitzean.

K eta *Q* ere sobera izango lirateke gure hizkuntzan, *C* eta *G* letrak *E* eta *I* bokalen aitzinean bertze bokalen aitzinean bezala ahoskatzerik balego, Erromatar zaharrek egin ohi zuten bezala, *Lips*-ek Latin hizkuntzaren Ahoskatzeaz egin duen liburuko 13. kapituluan erakusten duenez. Eta ez zituzten Latinoek bakarrik bi letra horiek horrela ahoskatzen, baina baita gure Euskaldunek ere, hitz hauetarik frogatu daitekeenez: *Baké* (latineko *pace*-tik baitator), *doné Vikenti*, “Saint Vincent” erran nahi baitu, *Legue*, *Erregue* (latineko *Lege* eta *Rege*-tik heldu baitira), eta hizkuntza horretarik hartuak izan diren bertze batzuetarik. Baina horien hola ahoskatzea sobera bailihoake Frantzia eta Espainiako hizkuntzen ohituraren aurka, zeinetan *C* letra *E* eta *I*-ren aitzinean ahoskatzen baita *S* txikitzailea bezala, eta *G*, berriz, *I* kontsonantea bezala, *E* eta *I* bokal horien aitzinean *K* edo *Qu* darabilt *C*-ren orde eta *G* *G*-ren orde.

V kontsonantea ere sobera da gure hizkuntzan. Zeren *B* erabiltzen baita horren orde, baina bertze hizkuntzetan baino eztekiago ahoskatzen da eta ezpainak aitzin-aldean elgar jo gabe, eta gibelatu gabe, baina elgar hunkiaraziz bakarrik bi aldetarik arinki. Hainbertzeraino non gure *B*-a biziki hurbiltzen baitzaio *V* kontsonantearen soinuari, Gaztelakoen *B*-ak ere egiten duen bezala. Ikus *Juan Lopez de Velasco*, “Ortographia y prononciation Castellana” liburuan, 29. orrian.

V bokala euskaraz *ou* bezala ahoskatzen da, italieraren eta espainieraren molde berean, salbu *Zuberoako* herrian eta *Nafarroa Behereko* alde zenbaitean, non *u* frantsesa bezala ahoskatzen baita.

Z-k gure hizkuntzan *TS*-ren balioa behar du, Grekoaren eta Latinaren molde berean, ikusirik letra hori biziki usu erabiltzen dela eta *S* bikuna duguenez gero, hau da, *luzea* eta *motza*. *Z*-ren gainetik puntu bat ematen dut, *t* eta *f* luzea eman behar denean, hala nola *Az^o* hitzean, erran nahi baita “zahar”, *Atfo* idatzia balitz bezala.

PREFACIO⁵⁸

No sin razón se ha hecho en todos los tiempos uso de los Proverbios, no sólo en el pueblo sencillo, en boca del cual son tan familiares, sino también entre los sabios. Porque, además de servir de adorno al discurso en la conversación, y de argumento para persuadir, contienen muchas enseñanzas para la conducta de nuestra vida. Eso es lo que llevó a Artístoteles a decir –según el relato da *Sinesio*, en la Oración que hizo en elogio de la Lechuza– que los Proverbios eran los restos de la antigua Filosofía arruinada por las guerras y calamidades públicas, y que se habían conservado gracias a su brevedad y a la agradable manera que tienen de expresar las cosas.

De ahí que grandes personajes no desdeñaran compilar colecciones de ellos. Entre otros, el mismo *Aristóteles* (según el testimonio de Laercio) y después de él *Clearco* su discípulo (como lo certifica Ateneo), al igual que lo hicieron también *Crísipo*, *Cleantes*, *Teofasto*, *Zenobio*, *Diogeniano*, *Miguel Apostolio*, y otros.

En el siglo pasado, grandes Personajes de la literatura (entre los cuales están *Erasmus* y *Adrián Junius*) han trabajado, como a porfía el uno del otro, en recopilar los que se encontraban dispersos entre los Autores Griegos y Latinos. *José Escalígero* nos ha dado los Versos paremiácicos de los Griegos; *Andrés Escoto* los Adagios de los antiguos Griegos y también los del Nuevo Testamento; *Martin Delbrío* los del Antiguo Testamento; *Novarino* los de los antiguos Padres; *Joan Druso* los Hebraicos. El mismo *Escalígero* y *Erpenius* han traducido al Latín dos Centenas de los Árabes; *Levino Uvarnero* una Centena de los Persas; *Boxhorn* ha insertado los antiguos Británicos en su

⁵⁸ Ténganse en cuenta las observaciones hechas al *Preface* francés original, que evitamos repetir aquí.

Tratado de *Los Orígenes Galos*; *Hernán Nuñez*, llamado vulgarmente en España *El comentador Griego*, no ha estimado pérdida de tiempo el recopilar los Españoles. Los que están en uso en Francia, en Italia, en Alemania, en Flandes y en Inglaterra tienen igualmente sus Compiladores y *Gruterus* no los ha juzgado indignos de aparecer junto a las Sentencias de los famosos Autores Griegos y Latinos en su *Florilegium Ethicopoliticum*.

También yo he pensado que prestaría un servicio a mi Patria si, después de haberme ocupado desde mi juventud en recopilar los suyos de la boca del Pueblo, me ocupaba ahora de hacerlos más familiares y perdurables por medio de la imprenta. Quiero creer que aún quedan muchos que no han llegado a mi conocimiento, especialmente de los que están en uso entre los Vascos de allende los Pirineos, con quienes no he tenido más que una pequeña relación. He omitido algunos que son vulgares, porque no he visto en ellos ni el carácter ni las propiedades de los verdaderos proverbios.

* * *

Quedan por decir unas palabras en cuanto a la ortografía que he seguido en este libro.

De la Ortografía Vasca

La lengua Vasca (que es la misma que la antigua Española, como lo he mostrado en otro lugar) tenía antaño sin duda sus letras y caracteres propios para escribir, de los cuales quedan algunos vestigios en las antiguas medallas citadas por *Antonio Augustino* en el Diálogo 8 de su Tratado de las Medallas y por *Vincente Juan de Lastanosa* en su Libro titulado *Museo de las Medallas desconocidas*.

Pero como los Romanos, tras haberse adueñado de la mayor parte de España, se consagraron a arruinar la Lengua de aquel país para implantar la suya, no les fue difícil introducir su forma de escribir, a la cual los Vascos (a pesar de haber conservado su antigua lengua gracias a sus montes) se habrían acomodado poco a poco, a causa de la necesidad que tenían de comunicarse y conversar con los demás Pueblos de España, y habrían dejado que se perdiera la suya por falta de usarla.

Sin embargo, hay letras en el Alfabeto Latino que son superfluas para la Lengua Vasca, y otras que faltan.

Las que faltan son las diminutivas de *D*, *L*, *N*, *S* y *T*. Estas cinco letras, aunque retienen el sonido de sus primitivas, lo hacen sin embargo con alguna pérdida y alteración, como puede observarlo cualquiera respecto a la *L* y *N* diminutivas de las Lenguas Francesa, Italiana, y Española en las cuales están en uso, al igual que en la Vasca, y son representadas, la primera en la lengua Italiana, por *GL* y la segunda por *GN*, como en estas palabras *Doglia*, *Bisogno*. En la Lengua Francesa, la primera se escribe *ILL* y la segunda *GN*, como en las palabras *Faillir* y *Gagner*. Y en la Española la primera se representa por *LL* y la segunda por una *N* con una raya encima, que llaman *tilde*, como en las palabras *Hallar* y *Tañer*. Un autor moderno las llama *medias letras*.

La *S* diminutiva es la letra que los Franceses y los Españoles expresan por medio de una *Z* o por una *Ç* con cola.

Además de esas tres consonantes diminutivas (en las que coinciden los Vascos con los Franceses, Italianos y Españoles) existen dos más que les son propias a aquellos, a saber, la *D* y la *T*. Como ejemplo de la diminutiva *T* puede servir la palabra *Tipi*, es decir “pequeño”, donde la letra *T* tiene un sonido suave y quebrado, que se profiere empujando la lengua torcida hacia los dientes, sin levantarla nada. El ejemplo de la diminutiva *D* puede verse en la palabra *Amandi*, es decir “Reyezuelo”, en la cual la consonante *D* tiene igualmente un sonido quebrado e imperfecto que se forma, ni más ni menos, empujando hacia los dientes la lengua torcida, sin levantarla nada.

Para designar las diminutivas de *D*, *L*, *N*, *T*, sin forjar nuevas letras, no he hallado mejor solución que la de cargar cada consonante de un punto, en la forma aquí representada: *d*•, *l*•, *n*•, *t*•.

En cuanto a la diminutiva de la *S*, dado que esta letra tiene dos figuras en las lenguas vulgares, una larga que es *f* y otra corta y recogida que es *s*, me he servido de la última para expresar la diminutiva, y de la primera para representar la primitiva que es la *f* común de las demás lenguas.

Faltan también en el Alfabeto Latino las consonantes aspiradas de los Vascos, que son *C*, *L*, *N*, *R*, *P*, y *T* con aspiración, como en las palabras *icara* “tembloroso”, *ele* “discurso”, *une* “cansado”, *epe* “plazo”, *ero* “loco”, *ate* “puerta”. Se podría decir que esta falta puede suplirse añadiendo a cada una de esas consonantes una *H* y escribiendo *elhé*, *unhé*, etc. Pero esto no es verdad con respecto a la *C* y la *P* aspiradas. Porque *PH* se pronuncia como *F*, y *CH* en la escritura Española y Francesa se asemeja más al sonido de la *S* que al de la *C*. Por esta razón he preferido servirme, como marca de esta aspiración, del espíritu áspero de los Griegos y no de la *h* de los Latinos.

Las letras del Alfabeto Latino superfluas en nuestra lengua son la *X* y la *Y*. No obstante, a imitación de los Españoles, he conservado la *X* para designar otra letra que es muy común en la lengua Vasca, la cual los Franceses la escriben *Ch* como en las palabras *Chair* y *Chaste*. Me sirvo de la misma consonante *X* con un punto encima para designar otra letra que tenemos en nuestra lengua y que equivale a *tch* y que es la que los Italianos escriben *ci*, como en la palabra *cio* y los Españoles *Ch* como en la palabra *Mucho*.

También la *K* y la *Q* serían superfluas en nuestra Lengua, si se pudieran pronunciar la *C* y la *G* delante de las vocales *E* e *I* igual que delante de las demás vocales, como lo hacían los antiguos Romanos, según lo señala Lipsio en el Cap. 13 de su Tratado sobre la Pronunciación de la lengua Latina. Y no sólo los Latinos pronunciaban estas letras de este modo, sino también nuestros Vascos, cosa que se deduce de estas palabras *Baké* “paz” (que viene del latín *pace*), *doné Vikenti*, que quiere decir “San Vicente”, *Legue* “Ley”, *Erregue* “Rey” (que vienen del Latín, *Lege* y *Rege*) y de algunas otras palabras que han sido tomadas de la lengua Latina. Pero como pronunciarlas de esa manera chocaría demasiado con el uso de las Lenguas vecinas de Francia y de España, en las cuales la letra *C* se pronuncia delante de la *E* y de la *I* como la *S* diminutiva, y la *G* como la *I* consonante, me sirvo delante de estas vocales *E* e *I* de la *K* o de *Qu* en vez de *C* y de *Gü* en vez de la *G*.

La *V* consonante es también superflua en nuestra lengua, ya que en su lugar vale la *B*, pero pronunciada más suavemente que en las demás lenguas, y sin golpear los labios por la parte delantera, ni apartarlos, sino haciéndolos tocar ligeramente el uno contra el otro por ambos lados. De tal forma que nuestra *B* se parece bastante al sonido de la *V* consonante, así como lo hace también la *B* de los Castellanos. Véase Juan López de Velasco, en su Tratado de la Ortografía y pronunciación Castellana, página 29.

La *V* vocal se pronuncia en Vasco como *ou* así como en las Lenguas Italiana y Española, excepto en el país de Zuberoa, y en algunos lugares de la Baja Navarra, donde se pronuncia como la *u* Francesa.

La *Z* debe valer *TS* en nuestra Lengua, al igual que en la Griega y en la Latina, dado que su uso es muy frecuente y ya que tenemos dos *S*-s, a saber, la *larga* y la *corta*. Cargo la *Z* con un punto encima cuando debe expresar la *f* larga tras la *t*, como en esta palabra *Az^o*, es decir, “viejo” o “vieja”, la cual debe de pronunciarse como si estuviera escrita *Atfo*.

ATSOTITZAK edo Refrauk

- PROVERBES BASQUES
- PROVERBIOS o Refranes
 - . *ATSOTIZAC*: Oihenartek berak sortutako neologismoa da *atsotitz*, *atso* eta *hitz* berbak elkartuz; cf. *atsotiz* (373), *atsohiza* (642), azken honetan *hitz*-aren aspirazioa gordeta. Dena dela, irakurleek haren esanahia hobeto uler zezaten, *Refraüac* mailegua erantsi zuen ondoan, sinonimo moduan.
 - . *Refraüac*: dieresiak *u* hori bokala dela adierazten du, eta ez kontsonantea.

A

1. Adausia eta ausikia behinkoaz uken tut.

- J'ai été abbayé et mordu tout à la fois.
- Ladrido y mordisco, a la vez los he recibido.
 - . *vken*: Iparraldeko testuetan maizago ageri da hitz hau leherkaria aspiratua duela. Oihenartek *vken* (1, 40, 373; V, 44; XI, 3; XX, 28), baina behin *vke`n* –hau da, gure *ukhen* (241)– eta beste behin *vkhenago* (636). Pentsa daiteke, bada, haietan ere *k`* idatzi zuela beharbada Oihenartek, aspiratua adieraziz, eta *k*-ren ondoko espiritua moldiztegiari “galdu” zela, baina ez da segurua.

- . *vken-tut*: hau da, “uken ditut”. Laguntzailearen lehen silabaren galteza modu batean baino gehiagotan adierazten du Oihenartek: apostrofoarekin, *iaten’ tu* (35), *iaín’ tu* (43), *hausten’ tu* (134), *galzen’ tu* (357), *arguiratu’ tut* (XVII, 7); marrarekin, *vken-tut* (1); bereiz, *galzen tuste* (525), *gupida tuzula* (XIV, 5); edo lotuta, *eguitentu* (21). Ik. *biga itut* (XVI,7).

2. Adiskidea zaharrik, kontua berririk.

- L’ami vieux, et le compte récent, *sont les meilleurs de tous*.
- El amigo, viejo; la cuenta, nueva.

. *saharrik ... berririk*: aditzik gabeko perpausetako predikatuak dira.
 → Adiskide zaharraz, ikus beherago 540 eta 674. Haritschelhar (1991: 198): “(...) variante du proverbe français ‘Les bons comptes font les bons amis’, basé sur la répétition de l’adjectif *bon* alors que le proverbe basque exalte la vieille amitié et le solde récent des comptes”. Urkijo Esk.: “*A cuentas viejas, barajas nuevas*, ref. que aconseja que cuando las cuentas y negocios están muy embrollados, es preciso tomar un nuevo partido (Acad., *cuenta*)”.

3. Adiskidea gauza xipian behar da porogatu, handian enplegatu.

- Il faut éprouver l’ami aux petites occasions, et l’employer aux grandes.
- Al amigo hay que probarlo en cosa pequeña y emplearlo en *cosa* grande.

. *xipian*: Oihenartek zubereraz idatzi izan balu, hemen beharbada puntua galdutako *x*^o dagoela pentsatuko genuke eta *txi-* irakurriko; erdialdeko euskalkien joera jarraitu zuenez, ordea, grafia dagoen dagoenean utzi eta hartan ohikoa zen afrikatu gabeko *xi-* hobetsi dugu (cf. *FHV*: 190).

. *porogatu*: Francisque-Michel-ek *p`orogatu*, hau da, *phorogatu*.

4. Adiskide egik ez behar duanean, bana behar duaneko.

- Fais des amis non pas lorsque tu en as besoin, mais pour lorsque tu en auras affaire.
- Haz amigos no cuando los necesitas, sino para cuando los necesitas.

. *düanean ... düaneco*: dieresía, *u* eta *a* bokal bi, normalean silaba banatan ahoskatuak.

→ Urkijo Esk: *Au besoin l'amy. A besoing voit l'on qui amis est. Au besoin voit-on son ami* (Le Roux de Lincy, II, 162).

5. Adiskideaz egik urheaz bezala, ikertu gabe har eztezala.

- Fais de l'ami comme de l'or: ne le reçois pas sans l'avoir reconnu, *ou éprouvé plutôt*.
- Con el amigo haz como con el oro, no lo cojas sin haberlo examinado.
 - . *vrheas*: Oihenartek beti *r* bakunaz idazten du hitz hau ondoan aspirazioa duenean, *vrhe-* (5, 464, 465, 466; XII, 7; XIII, 22; XX, 27); baina *vrre-* (66, 275, 640; XXIV, 2). Hitzaurrean, *l*, *n* eta *r* konsonanteen ondoko aspirazioa adierazteko ere espiritua erabiliko zuela esan zuen arren (*l*, *n* eta *r* idatziko zuela, alegia), ez da horrela inoiz ageri; kokagune horretako aspiratua adierazten duenean, *h* idazten du hemen eta bestetan. Bestalde, gutxitan idazten du *-rrh-*: *Urrhenkina* titulua eta *barrhen*, 634.
 - . *ikertu*: Iparraldeko testuetan inoiz *ikbertu* ageri bada ere, leherkaria aspiratua duela, Oihenartek espiritua gabe idazten du beti hitz hori (II, 10; VII, 5; XVII, 111). Francisque-Michelen edizioan, hala ere, *ik`ertu*, hau da, *ikbertu*.
 - . *har estesala*: **ezan* laguntzailea, orainaldia, *hura-hik*, ondoan *-(e)la* atzizkia duela ezezkako agintea adieraziz, “har ez dezaala (hik)”.
→ Adiskidea ezagutu beharraz, cf. 585.

6. Adiskide gabe bizi den aberatsa Pikatuetan lo giten datza.

Pikatuak erraiten diote Bortuko bide hersi eta kanpik bati, zein baita Otsagabiren eta Larrañeren artean, Nafarroa Garaiko eta Zuberoako mugan.

- Le riche qui vit sans se faire des amis est comme un voyageur qui s'endort au bord d'un précipice, où il ne faut qu'un demi-tour à gauche pour le perdre.
Le mot *Picatu*, au texte basque, est le nom propre d'un précipice dans les monts Pyrénées.
- El rico que sin amigos vive en Pikatuak duerme.
Se llama Pikatuak a un camino angosto y peligroso de los Pirineos, que se sitúa entre Ochagavía y Larrau, en la frontera entre la Alta Navarra y Zuberoa.
 - . *bici*: *-ci-* grafia Oihenarten sistemako *-si-*ren lekuan. Beste batzuetan

ere ageri da hitz hori *ci* grafia duela: *bici-* (6, 103, 512, 547; VI, 9; VIII, 6; XVII, 24, 97, 116; XXIV, 2; XXVI, 9; XXVII, 2), *vici-* (365, 400; VII 1, 7; XXIV, 4); ez da falta, hala ere, ohiko *si* grafia: *bisi-* (61, 149, 324, 327, 606; XIII, 1; XV, 9; XXVI, 11), *visi-* (236; X, 6; XIII, 11; XV, 9; XVIII, 10; XIX, 14; XX, 7). Ikus bitasun bera: *baici*, *baicic* / *baisi* (373); *beci* / *besi*, *beisi* (465); *araci* / *arasi* (373); *cedin* / *sedin* (542); *citen* / *siten* (XXVI, 5).

- . *aberaza*: Oihenarten sistemaren arabera *aberatza* irakurri beharko litzateke hitz hori. Grafia horren azpian puntua galdu duen *aberaz^a* dagoela pentsa dezakegu, ordea, eta beraz, *z^o* grafiak *ts* balio duenez, *aberatsa* irakurri behar dela. Gainerako agerpenek, hain zuzen, irakurketa hori iradokitzen dute: *abratf* (9), *aberats-* (333, 430, 494), *abratf-* (598, 681; XIII, 22).
- . *Picatüetan ... Picatüac*: dieresia, *u* eta *e* batean, *u* eta *a* bestean, bokal bi, normalean silaba banatan ahoskatuak.
- . *Bortuco*: ‘Bortu’ hitzak ‘mendi’ esan nahi du; hemen, singularrean, Pirinio mendia adierazten du.
- . *campixbati*: Iparraldeko testuren batean edo bestean *kanpitz* irakurtzen bada ere, gehienetan *kanpix* idazten da, txixtukaria frikaria dela. *Bat* zenbatzailea lotuta idazten du Oihenartek, determinatzaile gisa doanean; salbuespenak gutxi dira (*gui[ç]on bat* 366, *eçcu batac* 157, *Begui-bates* 74).
- . *Larraneren*: “Larrañe” da Zuberoako herri horren izena. Pentsatu behar dugu, bada, Oihenartek *Larran^oeren* idatziko zuela, bere sistemaren arabera, non *n^o* grafiak sabaikaria adierazten duen, baina, ohi bezala, puntua moldiztegian galdu zela. Ikertzaileek ez dute aintzat hartu Oihenarten sistemak iradokitzen duen irakurketa hori, baina, hitzaurrean esan dugun bezala, behin baino gehiagotan sumatzen da *n* soila *n^o*, hau da *ñ*, sabaikari gisa irakurri beharra (6, 10, 76, 82, 665...).
- . *Nafarroa garaico*: bigarrena minuskularekin.
- RS 137: “*Adisquide baco bicicea, / auço baco heriocea*. Vida sin amigos, / muerte sin vezinos”. Gaztelaniaz, berriz: *Vida sin amigo, muerte sin testigo*. “Indica que quien no ayuda á sus semejantes se hallará solo en los momentos de apuro”. Alemanez: *Wer keinen Freund hat, dess Wohnung steht lange leer*.

7. Ago Jainkoareki, Jainko dukek hireki.

- Tiens-toi avec Dieu eta Dieu sera avec toi.
- Estate con Dios y Dios estará contigo.

- . Ago: *h*-rik gabe, ohikoa denez. Aurretik bokalez edo diptongoz amaitzen den aurrizkia dutenean hartzen dute aspirazioa 2. pertsonako adizkiek, *bahator*, adibidez (175) edo *bahabila* (606); cf. Lafon 1949: 440.
- . *dukec*: **edun* aditzaren *KE*-*dun* forma, etorkizuna seinalatzen duena, *dateke*-ren pareko hikako alokutiboa, “izango duk”, hots, “izango da (hiri esaten diat)”.
→ Urkijo Esk: *ayde-toi*, *Dieu te aydera* (Le Roux de Lincy, I, 12-13).

8. Agian zerrana etzadin engana.

- Celui qui parla par “peut-être” ne se trompa pas.
- Quien dijo “quizás” no se equivocó.
 - . *Agüian*, “beharbada”, ez “oxala”. Azken adiera hau XIX. mendearen erdi aldean hasi zen hedatzen lapurterako testuetan (cf. *OEH* s.v.).
 - . *serrana*: *erran* aditzaren iragana, *hura-hark*, erlatiboan; aoristo gnomikoa Lafonen arabera, “erran zuena” (Lafon 1949, 443).
 - . *etzadin engana*: hots, gure *etzadin*; *zadin*, **edin* laguntzailearen iragana, aoristo baliokoa hau ere (Lafon 1944, II 76), “ez zen enganatu”, “ez zuen huts egin”. Hemen *zadin* forma ageri da, baina gainerakoetan *zedin* forma hobesten du Oihenartek: *sedin* (137, 257, 278, 316, 517, 670, 681; XX, 3, 5, 13; XXVI, 21, 23, 24, 26), *cedin* (542), *sedina* (137, 137, 542; XIII, 20; XXII, 4).

9. Ahalgegabeak bitu epher erreak; zer ahalgorrak? ogi-mokorrak.

Hauk dira abrats baten hitzak, ezen handiki balakoei obi zaizte laket abalgegabeak eta lausengariak.

- L’effronté, *dans un festin*, se fait traiter avec des perdrix rôties, au lieu que le honteux, *ou le discret*, n’a que les restes du pain.
- El desvergonzado tenga perdices asadas; y el discreto ¿qué?, mendrugos. *Estas son palabras de un rico, pues a tales personas por lo general les agradan los desvergonzados y los aduladores.*
 - . *Ahalgue-gabeac ... ahalgue gabeac*: lehenbizikoan marrarekin eta bigarreanean bereiz.
 - . *bitu*: **edun* aditzaren aginte aldia, *haiek-hark*, “ukan bitza”, “izan bitza”. Ohar aldea: *bitu* sintetikoa, *bitza* laguntzailea.

- . *ep`er*: leherkari aspiratuen espiritu sendoa ageri den kasu gutxietako bat.
 - . *ahalgorrac*: hots, ahalkegabe ez denak. Elkanoko Lizarragak “modesta”, “erretiratua” eta “juiziosa” adjektiboak erabiltzen ditu *alkekor* adjektiboaren inguruan.
 - . *ogui-mocorrac*: *mokor* hitzaren leherkaria aspiraturik zein aspiratu gabe ageri da testuetan. Francisque-Michelen edizioan *moc`orrac* ageri da, hau da, *mokhorrak*.
 - . *hauc*: minuskulaz testuan, parrafo hasieran egon arren.
 - . *abratfbaten*: *bat* zenbatzailea lotuta (cf. 6); *-ts* txistukari afrikatua bere horretan gordea, beste kontsonante baten aurrean izan arren, elkarketa “lasaiaren” seinale (cf. 370, 563, 648).
 - . *handiqui*: adizlaguna; “gehienetan, normalean, maiz” esan nahi du (ikus, halaber, 160, 210; Lafon 1949: 437 eta *OEH*, s.v.).
 - . *halacoey*: *-y* grekoa, diptongoaren bigarren bokala adierazteko.
 - . *ohi saiste laket*: *zaizte*, *izan* aditzaren orainaldia, *haiek-haiei*; “gustatu ohi zaizkie”, hau da, “atsegin ohi dituzte”.
 - . *lausengariac*: bokal artean *-f-* bakuna duen hitz gutxietako bat, mailagua izaki jatorrizko idazkera *-eta* beharbada hartako ahoskera ozena– gordetzen duena.
- Atsotitz hau RS 263rekin lotzen du Urkijok: “*Lotsaga nindin / oguiz ase nindin*. Sin verguença me hize / y arte me de pan”. Honek, bestalde, RS 66 gogorazten du: “*Losauagueac erria vere*. El desuergôzado, la patria es suya”. Garibay 66k honela dio: “Por los que no tienen verguença alguna, a truco de alcançar lo que dese-an, dicen: *Losa vague-ac, mundua vere*”. Oihenartek atsotitzaren ondoan ematen duen azalpenak helburu kritikoa duela esan daiteke eta haren ikuspegi etikoa agertzen duela beharbada.

10. Aharra ziten alxoñak, ager ziten gazna ohoñak.

- Les valets du pasteur s’entre-querellèrent *et se reprochèrent leurs défauts l’un et l’autre*, et par ce moyen on découvrit ceux qui avaient dérobé les fromages.
 - Riñeron los zagales y se descubrieron los ladrones de los quesos.
- . *Aharra siten ... aguer siten*: *aharratu* eta *agertu*-ren aditzoinak; **edin* laguntzailea, iragana, “liskartu ziren” eta “agertu ziren”, hurrrenez hurren. Adizki honek aldaera asko ditu: *siten* (XX, 18, 25; XXVI, 19), *citen* (XXVI, 5), *siteen* (II, 12), *sitesen* (XX, 16).

- *alxonac*: bi zalantza sorrarazten ditu hitz honek. Bateko, *x* horrek puntua galdutako *x*^o bat gordetzen ote duen erabaki behar da; horrela balitz, *altxo-* irakurri beharko litzateke. Testuetan ez dugu aurkitzen kontua batera edo bestera argitzen lagunduko digun lekukotasunik aski. Bigarren zalantza *n* letrari dagokio: *n*^o sabaikaria ote *n* soil horren azpian? Hoskidetasunak horren alde egiten du, bigarren partean *ohoñak* irakurri behar dela baitirudi. Francisque-Michelek 1847ko edizioan, hain zuzen, hitz biak *ñ*-rekin idazten ditu. Urkijok, hala ere, *alxonac* / *ohoñac* irakurtzen du RS 52ren iruzkinean atsotiz hau aipatzen duenean.
- *gasna ohonac*, hitz elkartua. Pentsa daiteke *ohonac* hitzaren *n* horrek ere galdu egin duela gainean zeraman puntua eta *n*^o, hau da, *ñ* irakurri behar dela (cf. 6). Testu zaharretan begiratzen badugu, kasu bakarra izango litzateke *ohonak* hau; testuetan beti edo *ohoinak* edo *ohoñak* ageri da, salbuespenik gabe. Hortaz, pentsa daiteke hemen ere *ohoñak* irakurri behar dela. Oihenartek berak bestetan *i* bokala daraman forma hobesten du: *ohoin* (657, 697), *ohoin'iduri* (V, 39), *ohoinari* (354).
- Zalgize 99: *Aharra citen artzainac*, / *Aguer citen gaznac*. Garibay 11 ere horren antzekoa da eta argi asko azaltzen du zein den atso-titzaren esanahia: “Por los complices en algun maleficio que después por desauenirse, vienen a descubrirse los vnos los males de los otros, dicen: *Arçaiac aserra çiteçen*. *Gastac aguiri çiteçen*. Los pastores rinieron, y los quesos parecieron”. RS 386k: “*Arzayoc arricitea* / *gaztaeoc aguircitea*. Riñeronse los pastores de ouejas / y parecieron los quesos”. Eta RS 52k, berriz, honela dio: *Vnayoc arri citean*, / *gastaeoc aguir citean*. Isasti 81: *Vnaiac aserra citean*, *gaztac aguer citean*. “Los vaqueros riñieron, los quesos parecieron. (Riñeron las comadres, y descubrieronse las verdades)”. Urkijo Esk: *Artzainak samurtu*, *gasnak agertu* (Azkue, s.v. *samurtu*). *Artzaiak akartu*, *gaztak agertu* (Azkue, s.v. *artzai*). Ohartzekoa da aldaera horietan guztietan “gaztak” direla agertzen direnak eta Oihenartenean, berriz, “gazna ohoñak”. Oihenarten eskua egon daiteke, beharbada, *alxoñak* – *ohoñak* errima dakarren aldaketa honen atzean. Urkijok RS 52ren iruzkinean dioenez, “Es quizá (...) el refrán eúscaro que más formas tiene. Aparece en casi todas las colecciones paremiológicas vascas”. Eta iruzkin horren ondoan, agerpen guztien zerrenda eskaintzen du. Esanahia argia da: onean egonda elkarren sekretuak erraz gordetzen badira ere, liskartzuz gero akabo, ez sekreturik dago ez elkarrenganako begirunerik.

11. Aharrausi usua, gose edo lomezua.

- Le baaillement fréquent est le messenger de la faim ou de sommeil.
- El bostezo frecuente, señal de hambre o de sueño.

. *vffüa*: dieresia, *u* eta *a* bokal bi.

. *goffe edo lo-/mesua*: hitz elkartu bikoitza, *gose(mezua) edo lomezua*.

/ RS 276ak aho zabaltzearen maiztasuna ez, baina haren luzera aipatzen du: *Arrausi luç[e]a / loa edo gosea*. Urkijok dioenez azken hau gaztelaniazko *Bostezo luêgo, hâbre, o sueño* errefrauaren itzulpena da. Cf. Okoad 267: “*Aharrausia abotic ahora*. El bostezo (va) de boca en boca”.

12. Ahateari igerikan erakastea.

- Apprendre à nager à un canard.
- Enseñar a nadar al pato.

. *iguerman*: *-kan* atzizki adberbiala; ikus *iguerman* (320).

→ Zalgize 3: *Ahatiari iguerman*. Zalgizek, Oihenartek ez bezala, zubereraren *ia* gauzatzea islatzen du. Ikusten den bezala, bestalde, Zalgizerenean aditza falta da. Urkijo Esk: *Au poisson à nager ne monstre. Il ne faut pas enseigner les poissons à nager* (Le Roux de Lincy, I, 125).

13. Ahoa debilano, sabela botz.

- Tandis que la bouche est occupée à manger, la panse a de la joie.
- Mientras la boca se mueve, el vientre *está* contento.

. *debilano*: *ibili* aditzaren orainaldia, ondoan *-(e)no* atzizki denborazkoa duela, “*dabilen bitartean*”. Orainaldiko formetan maiz erabiltzen du Oihenartek *-e-* bokala. Hau ere gehienetan *dabilan* den arren (128, 381, 439, 622, 645; V, 10), bitan *debila-* da (13, 89).

→ Zalgize 136: “*Ahoa dabilano sabela boz*. Mientras la boca come, la panza [está] alegre”. Gaztelaniazko hau gogorarazten du Urkijok: *De la panza sale la danza*. Eta Urkijo Esk, berriz: *De la panse vient la danse* (Le Roux de Lincy, II, 61).

14. Ahunz duguneko zubi.

- *Faisons des ponts pour lorsque nous aurons des chèvres.*
- Puente, para cuando tengamos cabras.

15. Aita bilzaleari, seme barreiari.

- A un père qui amasse du bien *succède* un fils qui le dissipe.
- A padre ahorrador, hijo derrochador.

. *bilsaleari*: txistukari igurzkaria *l*-ren ondoan.

→ Larramendik *aitá biltzálle, semé galtzálle* dakar hiztegian “A Padre allegador, hijo expendedor” esaera itzuliz (s.v. *allegador*). Urkijo Esk: *A padre allegador / hijo deperdiciador* (Horozco, *Refranes Glosados*, nº 316).

16. Alaba ezkont ezak nahi denean; semea, ordu denean.

- Marie ta fille lorsqu’elle en a l’envie, et ton fils quand l’occasion s’en présente.
- Casa a tu hija cuando quiera, a tu hijo cuando sea el momento.

. *nahi-denean*: marrarekin; *nahi izan* aditz irangaitza, hots, “(bera) ezkondu nahi denean”, beste euskalki batzuetan “(berak) ezkondu nahi duenean”.

. *Semea*: atzotitz askok zati biko egitura dute; zenbaitetan Oihenartek lerro bitan idazten ditu eta inoiz, hemen bezala, bigarren lerroko lehen hitza maiuskulaz ematen du.

. *ordu-denean*: marrarekin. Zer esan nahi du zehazki esaldi horrek? Hau, beharbada: ezkontzeko adin edo sasoirira iritsi denean. Frantses itzulpenaren arabera, hala ere, “aukera denean”.

→ RS 382 ez da guztiz berdina: “*Ezcôezac semea naydoaneâ / ta alabea aldaguianean*. Casa el hijo cuando quieres, y la hija cuando pudieres”. Hots, semea noiz ezkondu norberak erabaki behar duela; alaba, berriz, berdin dela noiz ezkondu. Haritschelhar (1994: 284): “*La hija a quien lo pidiere; y el hijo se ha de mirar a quien se ha de dar*. Zer nahi gisaz, alaba kanpora doa, aldiz erre-na sartzen da etxean eta kasu eman behar da nor datorren”. Modu bertsuan Urrutia (1994: 345): “Funtsean, hemen jokoan dagoena zera da, semea etxerako (horrexegatik ezkondu behar da

ordu denean) eta alaba kanporako (ezkondu ahal denean), gure gaurko ikuspegitik hain ‘feminista’ ez dena”.

17. Alaba ezkontu ondoan, ezkontgeiak darraizt ondoan.

- Après que j’ai marié ma fille l’on me vient offrir des partis pour elle.
- Después de casar a *mi* hija, me siguen viniendo pretendientes.
 - . *escontu-ondoan*: marrarekin.
 - . *Escontgueiac*: maiuskula, bigarren lerroaren hasieran. Oinarriaren amaierako -t kontsonantea galdu gabe juntura gunean, ahoskera zainduaren isla beharbada.
 - . *darraizt*: -ft- grafia “apikaria”, -st- “bizkarkariaren” lekuan; beste agerpen batean *darraisconac* idazten da, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (116). *Jarraiki* aditzaren orainaldia, *haiek-niri*; -z- da, hain zuzen, subjektu pluralari dagokion morfema; “(haiek) darraizkit”.
 - . *ondoan*: bitan ageri da atsotitz honetan, hitz jokoa eraginez: lehenak denborari egiten dio erreferentzia, bigarrenak tokiari, hots jarraika izateari.
 - Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du, euskarazkoaren errimarik ez badu ere: *A hilhe maridade, / cent partits qu’eü sort* (1911: 455). Urkijo Esk: *A hija casada salen nos yernos* (H. Nuñez), (Horozco, *Refranes Glosados*, nº 85). Haritschelharrek (1994: 286) honako hauek gehitzen ditu: “*La hija casada, cien yernos a la puerta a demandarla. Quand notre fille est mariée, nous trouvons trop de gendres*”.

18. Alaba zorhi denean ezkontzeko, ezta erratz begiratzeko.

- Quand la fille est mûre pour être mariée, la garde n’en est pas aisée.
- Cuando la hija está en sazón de casar, no es fácil de guardar.
 - . *esconzeco*: hemen txistukari afrikatua ageri da *n* kontsonantearen ondoan.
 - . *erraz*: hau da, *erratz* (cf. 150).
 - Urkijo Esk: *Filles sottes à marier sont bien pénibles à garder* (Le Roux de Lincy, I, 153). Haritschelharrek (1994: 285) beste batzuk gehitzen ditu: “*Qui a des filles est toujours berger. C’est un fâcheux troupeau à garder / Que de sottes filles à marier (...). Mozas locas y por casar, mal ganado es de guardar*”.

19. Alzoaz eta baheaz emaita.

Hori erraiten da aseki eta abondoski emaitteagati.

- Bailler avec le tablier et le crible, *c'est-à-dire abondamment.*
- Dar con delantal y criba.
Dícese cuando se da copiosa y abundantemente.
- . *ett:* errata, *eta.*

20. Amak irin balu, opil balaidi.

- Si ma mère avait de la farine, elle ferait des gâteaux.
- Si la madre tuviera harina, haría tortas.
- . *balu ... balaidi:* *ba-* desberdinak, lehena baldintzazkoa eta bigarrena baiezkoa.
- . *laidi:* **idi* erro zaharra –beharbada **egi(di)n* aditzarena–, alegiazkoa, *KE*-dun formen baliokoa, “egingo luke” (cf. II, 1).
- . *opil:* Francisque-Michelen edizioan, *op`il*, hau da, *ophil*.
- Honen antzeko esanahia du RS 15 ezagunak ere: “*Balizco oleac burdiaric* ez. La erreria de si fuesse no aze fierro”. Garibay A 36: “Por los que ofrecen que haran y acontezeran con fundamentos flacos, dicen: *Valizco oleac, burniaric eguin, eçtaroa*. La herreria de Si seria no suele labrar hierro”. Eta berdintsuak dira, halaber, goiko 497 eta Zalgize 23.

21. Ama gupidatsuak egiten tu haur zakarzuak.

- Une mère qui a trop de tendresse pour ses enfants les fait teigneux.
- La madre *demasiado* tierna cría hijos tiñosos.
- . *gupidatsuak:* Francisque-Michelen edizioan *gup`idatsuac*, hau da, *guphidatsuak*.
- . *eguitentu:* hau da, “egiten ditu” (lehen silaba galdua duten laguntzaien idazkeraz, cf. 1).
- Urkijo Esk: *Mère trop piteuse fa sa famille tigneuse. De mère piteuse fille tigneuse* (Le Roux de Lincy, I, 182, 150). Haritschelharrek (1994: 287): “*Madre ardida hace hija tollida. Madre aguciosa hace hija perezosa. Madre aguda cría hija tolluda. Madre acuciosa, hija vaborosa. Las madres hacendosas hacen las hijas perezosas. Madre piadosa cria hija merdosa, La hija de la cabra que ha de ser sino cabrita? (...)*”.

22. Ama sinhets eztezanak, amaizuna.

- Celui qui n'a voulu obéir à sa mère obéira *par force* à sa marâtre.
- Quien no obedece a su madre, *habrá de hacerlo* a su madrastra.
 - . *sinhez estesanac*: dagoen dagoenean, *sinhetz* irakurri beharko litzateke Oihenarten sisteman, baina z horren azpian z° dago seguruenik (cf. 6) eta orduan *sinhets* irakurri behar da; idatzi ere horrela idazten da gainerako agerpen guztietan: *sinets* (233), *sinhets* (373), *sinhetji* (191; XI, 1) eta, hasieran s- duela f-ren lekuan, *sinetsi-* (IV, 3), *sinhet(u)* (XIV, 6), *sinhetsac* (XVIII, 2). Frantses itzulpenak erakusten duen moduan, *sinhetsi*-k, hemen, “obeditu” esan nahi du (cf. Lhande, s. v. *sinhetsi*, 6°): “obeditzen ez duenak”.
 - . *Amaisuna*: maiuskula, bigarren zatiaren hasieran. Aditzaren objektua da, *ama* bezala.

23. Amaizuna, erradan *no*; *ez*, *nahi duna*?

- Marâtre, dis-moi “Tiens!” et non pas “En veux-tu?”
- Madrastra, dime “toma” y no “¿quieres?” .
 - . *no*: emakumeari zerbait ematen zaionean erabiltzen den hitza, “har ezan” (cf. *to* gizonezkoena, RS 40).
 - . *nahi-/duna*: *nahi dun* eta *-a* galderazkoa, “nahi dun?”
 - RS 113: *Ama onac ez dio nazu*. Urkijo Esk: *La bonne mère ne dit pas: veux-tu?* Zerbait benetan eman nahi denean, eman egiten da, eskaintzeko itxuratan ibili gabe. Horrelako zerbait dio RS 40k ere: *Nayago dot to bat, / çe amaui emon deyat*.

24. Amaizuna, eztizkoa ere, ezta huna.

- La marâtre, quoique faite de miel, n'est pas bonne.
- La madrastra, ni de miel es buena.
 - . *estiscoa*: “eztiz egina”, hau da, ezta bezain gozoa.
 - . *ere*: *bada* edo horren antzeko baldintzaren bat ulertzen da isilpean, “eztizkoa bada ere”; beraz, kontzesiboa da.
 - . *houna*: *ou* grafia, gure *u* adierazteko. Oihenartek gutxitan erabiltzen duen grafia bereizgarria da hau: *huna* deiktikoa –“hona (hemen)” (XI, 28; XX, 56)–, *huna* izena –“burmuina” (cf. 338)– eta *houna* adjektiboa –“ona”– bereizteko balio du. Erro honeta-

ko hitzak noiz *o* bokalarekin noiz *u*-rekin idazten ditu Oihenartek: *on*, *ongui* eta *onfa* (*passim*); *hon* (45, 128, 338, 522; VI, 1; IX, 5; XX, 15; XXVI, 5), *hongoa* (V, 45; XXIV, 2), *honqui* (IX, 3), *hontgarri* (XIII, 13), *honzea* (ADIGARRIA), *hontu* (V, 3), *honsale* (XVII, 10); baina *houn-* (24; II, 16; III, 1; VI, 6; XVIII, 4), *hunqui-* (84, 175; VII, 5; XXVII, 8), *vngui* (55, 365, 574, 575, 621, 695), *vnguizea* (52).

→ Amaizunaren izaera aipatzen du Zalgize 127k ere: *Amaïçuna hilic-ere gaitz*. Okoad 331k, berriz, errainari buruz honela dio: *Errana ezta goçoa bada / bere eztizcoa*. Berdintsu RS 460k ere. Urkijok gaztelaniazko hau gogorazten du: *Madrastra, el nombre le basta*.

25. Amoratzea, gaztearentzat loratzea, zaharrarentzat da zoratzea.

- Etre amoureux c'est fleurir à l'égard des jeunes, mais c'est devenir fol à l'égard des vieux.
- Enamorarse, para el joven es florecer, para el viejo enloquecer.

. *gastearentzat ... zaharrarentzat*: *-tzat* atzizkia bi modutara idazten da atсотitз honetan *n-* kontsonantearen ondoan, *gaztearentzat*, txistukaria afrikatua duena, eta *zaharrarentzat*, txistukaria igurzkaria dela. Atzizkia *-tzat* dela dirudi (ikus, bokalaren ondoan, *enezat*, X, 11; *berezat*, 217) eta horrela ageri da maiz elkarketetan ere; inoiz, ordea, igurzkaria ageri da (*Onensat*, 365; *Patroinsat*, XIII, 20; *saharrarentzat*, 25, 230): *n-*ren ondoan *z / tz* oposizioa neutralizatua izanik, batera nahiz bestera ahoskatzen zen.

. *da* aditza isilpean dago atсотitзaren lehen perpausean eta agerian bigarrenean, gehienetan ez bezala.

→ Haritschelharrek (1991: 192) hiru zatitan banatuko luke atсотitз hau, hirurak bat datozelarik amaieran, errima aberatsa eginik (*Amoratzea / ... -oratzea / ...-oratzea*).

26. Anhitz jana eta anhiz edana da hontara nakarrana.

- Le manger beaucoup et le beaucoup boire m'a réduit à ceci, c'est-à-dire à la *pawvreté*.
- El mucho comer y el mucho beber es lo que me pone en este *estado*.

- . *Anbiz ... anbis*: txistukari afrikatu eta igurzkariaren arteko zalantza; dena dela, kasu bakarra da hau igurzkaria duena, gainerako agerpenetan *anhiz*- idazten baita, hau da, gure *anhitz*- (26, 56, 216, 241, 485, 617, 632; IV, 11; XI, 1; XVIII, 10; XXVII, 6; XXVIII, 2); behin *haniz* (692). Kontsonante ondoko aspirazioaz, cf. 5.
- . *hontara*: zer adierazten du deiktiko honek? Testuinguruaren arabera, behartsuaren egoera penagarria iradokitzen duela dirudi. Frantses itzulpenak, hain zuzen, horixe dio erantsitako azalpenean. Gauza bera iradokitzen dute beherago aipatzen diren honen antzeko errefrau guztiek ere.
- . *nacarrana*: *ekarri* aditzaren orainaldia, *ni-bark*, erlatiboan, “ekartzen nauena”. Aditz honen leherkaria aspiraziorik gabe ageri da gehienetan, behin hala ere *dekharque* (682); Francisque-Michelen edizioan *nac`arrana*, hau da, *nakharrana*.
- Asko dira kontu hau aipatzen duten errefrauak. Honen antzekoa da, esate baterako, beheko 50a ere. RS bilduman ere asko dira horrelakoak: *Lar janac eta edanac / guchitara ne[n]carref[n]* (438); *Goffaldu, barazcaldu, aſcaldu ta afaldu, / ta hogafuna galdu* (161); *Iate onac dacar guextoa* (213); *Doguna jan ta chiro yçan* (314); *Doguna jan dogu / ta arlot gara biortu* (329). Eta orokorrago: *Larrac guichitara lecarque* (186). Urkijok, bestalde, Nuñez-en gaztelaniazko hauek aipatzen ditu: *Buen comer, trae mal comer* eta *El mucho comer, trae poco comer*.

27. Anserati ez jan zati.

- De l’oison, il n’en faut pas manger quantité.
- Del ganso no comas *gran* pedazo.
 - . *anserati*: hots, gure *ansera*-; aldaera hori goi nafarrerakoa da (ik. *OEH*, s. v. *antzara*).
 - . *sati*: *sati* (27; I, 5), baina *sathi*- *Atsotitzen Urrhenkina*-n (563, 666). “Puska handia” esan nahi du, frantses itzulpenak argitzen duen moduan.

28. Antxo limosnari, urde ebatsiaren oinak dematza beharrari.

- Ancho (*c’est le nom propre d’un homme*) est un grand faiseur d’aumônes, il donne aux pauvres les pieds du pourceau qu’il a dérobé.
- Antxo el limosnero, del cerdo robado da las patas al pordiosero.

- . *Anxo*: giza deitura, frantses itzulpenak berariaz azaltzen duen moduan, gaztelaniaz *Ancho* idatzia; Oihenartek *Anx^o* idatzi eta moldiztegi *Anxo* bilakatua, beharbada.
- . *demaza*: *eman* aditzaren orainaldia, *haiek-hari-hark*, “ematen dizkio”.
- . *beharrari*: adjektiboa, “behartsuari” (cf. 598).
- Urkijo Esk: *La función de un devoto, hacer limosna con el dinero de otro*.

29. Apezak, azken hitza bere.

- Le prêtre prêche, en fin, pour soi.
- El cura, la última prédica para sí mismo.
 - . *hiza*: jendaurreko predikua esan nahi du, frantses itzulpenak iradokitzen duen moduan.
 - . *bere*: destinatiboa, “beretzat”.
 - Zalgize 118: “*Apheçac azquen hitza bere*. El clérigo, la última palabra para sí”. Frantses esaera hau gogoratzen du Urkijok: *Prêcher pour son saint, pour sa paroisse*. Gaur egun bestela ulertzen da atsotitz hau: zerbait ezatabaidatzen delarik, apezak duela, alegia, azken hitza eta erabakia.

30. Arakina, erhak behia eta indak kornado baten biria.

- Boucher, tue ta vache, et baille-moi pour un denier de fressure.
- Carnicero, mata la vaca y dame un cornado de asadura.
 - . *erhac*: *erho* aditzaren aginte aldia, *hura-hik*, “hil ezak”.
 - . *indac*: euskara zaharreko **i(n)* erroaren aginte aldia, *hura-niri-hik*, “egidak”, hots, “emadak”.
 - . *cornadobaten*: *bat* lotuta idatzia (cf. 6). *Kornado* txanpon txiki baten izena da; beraz, haragi zati txikia adierazten du. Horra kontrastea: behia hil, zati txikia eskatzeko.
 - RS 429: *Ydiac eta veyac yl ezauz / ta loben baten biriac yndauz*. Gaztelaniazko hau aipatzen du Urkijok: *Matad vacas y carneros, da me vn cornado de bofes*. Eta Academia-ren azalpen hau eransuten du: “que reprende á los que, por lograr un corto provecho, pretenden que otros se incomoden mucho”.

31. Ardia ahunzari ile eske.

- La brebis est après la chèvre, en quête de laine.
- La oveja a la cabra, lana demanda.
 - Zalgize 13 berdina da. Hor aipatzen du Urkijok gaztelaniazkoa: *La oveja a la cabra, lana demanda* (G. Correas). RS 498: *Ardia aunçari hule esque*. Gaztelaniazko hau aipatzen du Urkijok: *La oveja loçana, dixo a la cabra dame lana*. Eta Nuñez-en iruzkina eransten: “Contra los que piden a otros, de lo que ellos abundan, y los otros carecen”.

32. Arima onari, euri.

- Le temps pluvieux, *en la mort de quelqu'un*, est le signe d'une bonne âme.
- Al ánima buena, lluvia.
 - . *Arima*: zendu berriaren arima adierazten du.
 - Pertsona onak hiltzen direnean euria egiten omen du, haien ontasunaren seinale.

33. Arraika ahunzari, agozke kaparrari.

- Va après la chèvre, elle te jettera dans le hallier.
- Sigue a la cabra, te echará a la zarza.
 - . *Arraica*: *jarraiki* aditzaren aginte aldia, *hi-hari*, “jarrai hakio” (*b*-rik gabe, cf. 7).
 - . *Agosque*: bigarren lerroaren hasieran maiuskulaz. *Egotzi* aditzaren orainaldi *KE*-duna, geroa adierazten duena (cf. 7), *hi-hark*, adizkiaren erroa *-go(t)z-*; “egotziko hau(ke)”, “botako hau”.
 - . *caparrari*: ikus *caparpeco* (109), baina *gapar* (696), *g-* / *k-* zalantzaren lekuko. Ondoren aipatzen den Zalgizeren erretraua ikusita, pentsa daiteke *cap`arrari* idatzi zuela beharbada hemen ere Oihenartek eta moldiztegiaren espiritua huts egin zutela; hots, *p* hori aspiratua izan zitekeela, baina ez da segurua.
 - Zalgize 14: *Arraica aunçari*, / *Baihagozque gapharrari*. Ironikoa da, noski, atsotitz honen agindua, ahuntzari jarraitzea gauza txarra dela esan nahi baitu. Eta ahuntzari bezala, noski, leku txarrera

daraman beste edozeini. Hori ez bezalako aholkua ematen du RS 183k, ahuntzaren lekuan inurria aipatzen duenak –ikus, halaber, *Gero: 36–: Ynurriari arrayo.*

34. Arraina eta arrotza, heren egunak, karatsez, kanpora deragotza.

- Le poisson et l'hôte deviennent puants, passé trois jours, et les faut jeter hors de la maison.
- Al pescado y al huesped el tercer día, por su hedor, los echa fuera de casa.

. *herê egunak*: subjektua da; “hirugarren egunak botatzen ditu etxetik kanpora”, hots, hirugarren egunean gertatzen da hori.

. *carazes*: Oihenarten sistemaren arabera *karatsez* irakurri beharko litzateke. Hala ere, ikusiz *carats* (173), *karatsago* (323) eta *karatsen* (106) hitzek *-ts-* apikaria dutela, pentsa daiteke hemen ere Oihenartek *caraz^oes*, hots, gure *karatsez*, idatzi zuela eta gero moldiztegian *z^o* grafia hori *z* soila bilakatu zela (cf. 6).

. *deragoza*: *eragotzi* ‘faktitiboaren’ orainaldia, *haiek-hark*, *de-rago(t)z-tza*, “egozten ditu”, “botatzen ditu”.

→ Voltoirek hiru hizkuntzatan idatzitako elkarrizketetan honen antzeko esaera bat dakar, frantseseko *poisson*, “arraina”, eta *poison*, “pozoina” hitzekin joko eginaz: *L’hôte et le poisson en trois jours sont poison*. Euskaraz honela dago itzulia: *Hostalarroua* (sic) *eta arragna, hirour egunez dire pousoyn*. Gaztelaniaz: *El huespe y el pescé ê tres dias hiedé* (169). Mitxelena (1953b: 556): “Plauto (*Miles gloriosus*, 741-2) escribe algo parecido, aunque sin aludir al pescado y al mal olor: *hospes nullus tam in amici hospitium deuorti potest, / quin, ubi triduum continuom fuerit, iam odiosus siet*. O sea: ‘no hay huésped, por amigo que sea, que no se haga odioso, si para en casa tres días seguidos’”. Eta aurrera-erago: “(...) ciertas particularidades estilísticas (como el *deragoza* (...)) no pueden menos de despertar la sospecha de que el historiador mauleonense no se limitó a un papel puramente pasivo, y no parece aventurado suponer que por lo menos llegó a traductor o adaptador”.

35. Arrain handiak jaten tu xipiak.

- Le gros poisson mange le petit.
- El pez grande se come a los pequeños.

. *iaten'tu*: “jaten ditu” (cf. 1).

→ Urkijo Esk: “Calco del francés: *Le grand poisson mange le petit*” (Le Roux de Lincy, I, 126). Euskarazkoan, hala ere, *xipiak* objektua pluralean dago.

36. Arrotza bekaitz arrotzaren.

- Un hôte porte envie à l'autre.
- El huesped envidia al huesped.

. *bekaitz*: *k* leherkaria aspiratua duela ageri da maiz hitz hau Iparraldeko testuetan. Oihenartenean beti *k* soila ageri da, *bekaiz* (36), *bekaistiac* (492), *bekaisteria* (618).

→ Haritschelhar (1991: 193): “(...) est l'équivalent du proverbe ‘L'homme est un loup pour l'homme’ où se trouve la même répétition, ou encore celui de l'adage latin ‘Homo homini lupus’ qui est beaucoup plus comparable à la structure de proverbe basque dans la mesure où le système de la déclinaison se retrouve aussi bien en basque qu'en latin”. Ikusten denez, bisitari edo ostatuz etorritako *arrotzak* izen txar samarra dute esaera zahar hauetan: hiruzpalau egun igarota kirats bilakatzen dira (34), elkarren bekaitz bizi dira (36) eta lanerako traba handi dira (37).

37. Arrotzak ez lan daidik, ez deraidik.

- Un hôte ni ne fera aucun travail pour toi, ni ne te donnera le moyen d'en faire toi-même.
- El huesped ni te hará trabajos ni te dejará hacerlos.

. *daidic*: **idi* erro zaharra –beharbada **egi(di)n* aditzarena (cf. 20)–, orainaldia, *KE*-dunaren baliokoa, hots, geroa adierazten duena, *hura-hiri-hark*, “eginen dik (hiri)” (ik. II,1).

. *es*: *deraidik* adizkitik bereiz ageri da, ohi ez bezala, egiturak hala eskatuta: *ez lan daidik*, *ez (lan) deraidik*.

. *deraidic*: aurrekoaren faktitiboa, “eginaraziko dik”, “egiteko modua emango dik”, “egiten utziko dik”.

→ Zalgize 182 berdina da. Urkijok “el huesped ni trabaja ni te dejará [trabajar]” itzultzen du.

38. Arstoak arstara.

- L’âne *procède* en âne.
- El burro a lo burro.
 - . *arstara*: -*ara* postposizioak “modura” esan nahi du (cf. *harsara*, 39; *aizinara*, *guibelara*, 77; *eufcara*, 208; *nahicara*, *abalara*, 209; *esten-ara*, 219; *g[o]gooncara*, 578; *gureac-ara*, XIII, 16; *hizara*, XXI, 1; *vr-ar’*, XXII, 2; *gast-ara*, XXVI, 24).
- Egitura bertsukoa da Garibay 41, baina hau ez bezalakoa. Izan ere, Garibayrenak, astoak eta astakeriak gabe, pertsona “handiak” eta haien ekintzak aipatzen ditu: “Porque los constituidos en grandes estados y lugares son los que hazen grandes cosas, dicen: *Andiac andiro*”.

39. Arstokumea, harzara.

- L’anôn va à reculons.
- El borriquillo, a reculones.
 - . *Arsto-cumea*: marrarekin.
 - . *harsara*: -*ara* postposizioa, cf. 38; beste euskalki batzuetako *atzera-*rekin izan dezakeen harremanaz, cf. Mitxelena 1961: 162 oh.

40. Arstoa emoiik arbuia zezanak, gero erosi behar uken zuen.

- Celui qui refusa l’âne en don fut obligé, après, de l’acheter.
- Quien rechazó el burro regalado, luego tuvo que comprarlo.
 - . *emoiic*: dieresiak *i* hori diptongoaren bokal erdia dela adierazten du (*emoy-*). Adizlaguna, *emoi* + *ik*; Iparraldeko euskalkietan diptongoz amaitzen diren lexemek kontsonantez amaituak bezala jokutzen dute eta, horregatik, *-ik* forman hartzen dute atzizkia –beste euskalkietan *-rik-*. *Emoi*, *emai*-ren aldaera, “dohain, erre-galu” da (ik. *emoiescoac*, 397). Hortaz, *emoiik* adizlagunak “doan, dohainik, opariz” esan nahi du.

- . *arbuia sesanac*: dieresiak *i* hori diptongoaren bokal erdia dela adierazten du; **ezan* laguntzailea, iragana, erlatiboan; “mespretxatu zuenak”, “uko egin zionak”.
- . *suën*: *u* bokal silabagilea adierazten duen dieresia ondoko bokalaren gainean ipinia, beste zenbaitetan bezala (cf. 73, 114, 279, XXI, 2).

41. Arstoa osinean, irriz irriz, itotzen da.

- L'âne se noie, tout en riant, dans la rivière, c'est-à-dire en montrant les dents.
- El burro, riendo riendo, en el pozo se va ahogando.
 - . *itozen*: *t* soila, aspirazio markarik gabe (41, 460); baina *it`o* (245) eta *itho-nahiari* (583), leherkaria aspiratua delarik. Bitasun hori ahoskeraren beraren zalantzari ez badagokio, idazkera kontu hutsa da ostera ere, Oihenarten *it`o* grafia egon baitaiteke moldiztegian *ito* bilakatuaren azpian.
 - Astoak, itotzeko zorian dagoenean, irribarrez ari delako itxura ematen du, ahoa ireki eta hortzak erakusten baititu. Horra, bada, zer erakusten duen atsotitz honek: itxura eta izana ez datozela beti bat.

42. Artzainaren emaztea, arratsean eder.

- La femme du pasteur se pare sur le soir; *c'est d'autant que c'est à cette heure à laquelle doit revoir son mari*.
- La mujer del pastor se acicala al anochecer.
 - . *Arzainaren*: elkarketetan bere horretan gorde ohi da *-zain* atzizkiaren txistukari igurzkaria (cf. *Sorsainac* XIII, 6; *ADIGARRIA*); hitz honetan, hala ere, oinarrian (*ardi >*) *art-* dago eta horregatik *artzain* ematen du (42, 382; XX, 15).
 - . *arrazean*: Oihenarten sistemaren arabera *arratzean* irakurri beharko litzateke hitz hau. Idazkera horren azpian, ordea, moldiztegian puntua galdu duen *arraz`ean* dagoela pentsa dezakegu eta, hortaz, *z`* grafia *ts* balio duenez, *arratsean* irakurri behar dela (cf. 6). Gainerako agerpen guztietan, hain zuzen, *ts* edo *tf* idazten da: *arrats-* (199, 200, 286; VI, 7), *arratf-* (648, XXIV, 1), *arratfalde* (519, 611).

- . *eder*: aditza isilpean, “eder jartzen da” edo horrelako zerbait ulertu behar da.
- Zalgize 133: *Artzainaren emaztia arratsian eder* (*ea > ia*, cf. 12).
Urkijok gaztelaniazko hau aipatzen du: *La mujer del pastor, á la noche se compón*.

43. Azen peti zopak jain tu.

- Il a mangé la soupe par-dessous le chou qui la couvrait. *Cela se dit quand un domestique ou quelque autre, duquel l'on se fie, fait supercherie*.
- Ha comido la sopa por debajo de la col.
 - . *iain'tu*: “jan ditu”. Laguntzailearen lehen silaba galdua (cf. 1) eta, metatesiaz, haren *i* bokala aurreko silabara, erro barnera, igaroa: *jan (d)itu > jain tu*.
 - Iruzurra eta azpijokoa dira atsotitz honen gaia, besteren konfiantzaz baliaturik gauzak ezkutuka egitea. Zalgize 4: *Acen peti çopac jan ditu*. Eta 5: *Açac bano lehen çopac jan ditu*. Hirutan aipatzen ditu Zalgizek *azak* eta *zopak* (3, 4, 5), eta hiruretan pluralean ageri dira hitz biak.

44. Aziti bihia.

- Le grain *vient tel qu'était* la semence.
- De la semilla el grano.
 - Nolakoa den hazia halakoa izaten dela alea, horra zer esan nahi duen atsotitz honek. Bela 1: *Acitic bihia eta çouretic ezpala*. Bigarren zatiak gaztelaniazko *De tal palo tal astilla* gogorarazten du. Urkijo Esk: *Tel grain tel pain; De mauvais grains jamais bon pain; Qui sème bon grain recueille bon pain* (Le Roux de Lincy, II, 323; I, 50). Cf. 443.

45. Aski du hon et' errekeitu, etxean deus eztenak peitu.

- Celui-là a assez de bien et de provision, à qui rien ne manque en sa maison.
- Bienes y provisiones suficientes tiene, quien en casa de nada carece.

- . *hon*: izena, “ondasun”; hitz honen aldaerez, cf. 24.
- . & *errekeitu*: ohikoa zen frantses idazkeran & grafia erabiltzea *et* juntagailuaren lekuan; ez, ordea, euskarazko *eta* hiru letraduna ordezkatzeko⁵⁹. Beraz, hemen ere *et* adierazteko erabiltzen bide da & grafia, Oihenartek berak hala idatzia edo moldiztegiko langileek haren *et* idazkera hartara ekarria. Olerkietan, hain zuzen, behin ageri da ikur hori ondoan apostrofoa duela: &’ *ontarzunez* (XIII, 3). *Eta*-ren amaierako *a* eliditu dela esan nahi du horrek (cf. 525, non *et’ arno* idazten den). Horrelakoetan, ordea, apostrofoa erabiltzen duenez, pentsatzekoa da hemen ere *et’* edo &’ idatzi zuela Oihenartek eta moldiztegiaren apostrofoa huts egin zutela. Ikus, halaber, & *abere* (114), & *es* (433), & *vr dai* (470), & *irazarri* (V, 12); ikusten denez & erabiltzen den guztietan bokal baten aurrean egiten da, hots, *-a*-ren elisioa iradokitzen den kontestuetan. Ez da bakana horrelakoaren apostrofoa ez agertzea, behin baino gehiagotan gertatzen baita hori Oihenarten testuetan (cf., esate baterako, I, 7, 8; II, 12; IV, 4; V, 22, 44, 50; XI, 4; XVI, 2; XVII, 16, 79). *Errekeitu* (II, 15; XX, 13), *errequeitu* (XVII, 101), “hornidura, hornigaiak”.
- . *exean*: *exe* ageri da beti Oihenarten testuetan, baina ikusirik hitz honek tradizioan izan dituen idazkerak, pentsatzekoa da hark *ex^oe*, hau da, gure *etxe*, idatzi eta moldiztegiaren puntua galdu zela, gainerako agerpen guztietan bezala. Bere koadernoko 338. atso-titzean *etchia* idazten du.
- . *deus*: *-s* txikia hitz amaieran *-f*-ren lekuan. Frantses ortografian *-s* idazten zuten beti kokagune horretan eta horrelaxe idatzi zituzten moldiztegiaren Oihenarten testuak ere, batere kasurik egin gabe haren idazkera bereziari. Horrela ageri da hitz hau beti, txistukaria hitz amaieran denean (316, 497, 598; II, 4; IX, 3; XIV, 2; XXIII, 3; XXVII, 2); hitz barruan, hala ere, *f* idazten da, espero zitekeen bezala, *deufetan* (XV, 2).
- . *estenac peitu*: *peitu izan*, “falta izan”. Beraz, “ezeren faltan edo eskasian ez denak”, “ezer falta ez zaionak” (cf. 100, 193; II, 2; eta, halaber, XVII, 105).

⁵⁹ Voltaire-ren irakurgaietan *pro & choa* ageri da behin (260), *proetchoa* irakurri behar dena, noski. Moldiztegiko langileak *et* hori bereiz zegoela pentsatu eta ohiko & zeinua erabili zuten haren lekuan

46. Atzeak, eskua latz.

- L'étranger a la main âpre ou rude.
- El extranjero, la mano áspera.

. *escüa*: beste zenbaitetan bezala, *-sc-* grafia ageri da *-fc-*ren lekuan. Hitz hau maiz *escu-*, Oihenarten sistemak apikariarentzat eskatzen duen moduan (157, 515, 583, 686, 691), baina beste batzuetan *escu-*, *-s-* txikiarekin, (46, 89, 315, 326). Dieresia, *u* eta *a* bokal bi.

47. Atzearen behiak, erroa handi.

- La vache de l'étranger a le pis gros.
- La vaca del extranjero, la ubre grande.

→ Urkijo Esk: *Vache de loin a assez lait* (Le Roux de Lincy, I, 133). *La cabra de mi vezina, más leche que no la mía* (H. Nuñez, fol 273 v).

48. Atzearen zakua, xilo.

- Le sac de l'étranger est troué.
- El saco del extranjero, agujero.

→ Kanpokoari beti hobeto irizten diogula zioen aurreko atsotitzak. Honek, berriz, horren kontrakoa dioela dirudi.

49. Atzerri, otserri.

- Pays d'étranger, pays de loup.
- País de extranjeros, país de lobos.

. *Otserri*, bigarren zatiaren hasiera maiuskulaz.

→ Zalgize 184: *Atc' erri, ots' erri*. RS 9ren lehen zatiak honela dio: *Açerrian lurra garras*. Urkijok haren iruzkinean luze azaltzen duen moduan, bat dator atsotitz hau, esanahian, H. Nuñez-en honekin: *La tierra agena, quema*. Baina ez beste honekin: *Al buen varón, tierras agenas su patria le son*. Ondoko 61ak ere atzerriaren garratzaz mintzo dela dirudi. Haritschelharrek (1989: 557) Euskal Herrian berean sorturiko atsotitzen sailean sartzen du hau ere: "Labur izanez, *erri* hitz bukaeraren errepikaren

balioa ezagutzen eta *atz* eta *ots*-en arteko jokoa sendituz zinez euskalduntzat jotzen dut atsotitz hau, jadanik aipatu dudan *Orhiko xoria*, *Orhin laket* gogoratuz, bat bertzearen erantzuna delakotz”. Cf., beraz, 372. Haritschelharren iritziari erantzunez Irigoienek (1989: 564) honela dio: “Latinez bazen errefrau politiko bat, zeinen arauera: *Hospes hostis*, ‘atzerritarra etsai’”. Aliterazioak eta horrelakoak aztertzen ditu eta ondorio honetara iristen da: “Latinezko errefraukak eta euskarazkoak elkarren artean zer ikusirik ez dutela pentsatzea zaila dela deritzat, eta, jakina, denborari dagokionez arrazoizko da latinezkoa lehenagokoa dela uste izaita”. Haritschelharren baieztapenak susmoa eta iritzi ditu oinarri, baina Irigoienena ere ez doa askoz urrunago, antza ez baita nahiko oinarri atsotitzaren jatorria erabakitzen. Latineko *hospes*, gainera, ez da “atzerritar” –Oihenarten atsotitzetan beti *atze* gisa aipatzen dena, alegia–, “bisitari” baizik –haren hitzetan *arrotz* dena, alegia–. “Arrotza atze” edo “Arrotza etsai” itzuliko zuen Oihenart jakintsuak latineko esaldia. Eta horrek Oihenarten 34.era edo 36.era garamatza, neurri batean bederen. Antzak antza, bada, ez dago probatua latinezko eta euskarazko atsotitzen artean jatorrizko harremanik dagoenik.

50. Aseak batzutan dakarke gosea.

- Quelquefois pour trop se saouler on vient après à endurer la faim.
- El hartazgo a veces trae hambre.
 - . *dacarke*: *ekarri* aditzaren *KE*-dun orainaldia, “présent intemporel” Lafonen hitzetan (1949: 442), “ekartzen du”. Bitara agertzen da adizki hau: *dacarke* (50, 185) edo *dakarke* (199), orainaldiko *dadutela*, baina *dekarque* (513) eta *dekarque* (682), *dedutela*, beste zenbaitetan bezala. Azken honetan, gainera, leherkaria aspiratua da.
 - Honen antzeko esanahia izan dezake RS 186k: *Larrac guichitara lecarque* (“gehiegiak gutxira lekarke”). Ez dirudi, ordea, Bela 2rekin bat datorrenik: *Assec gosse ezta koussa*. Azken honen antzekoa da Okoad 226: *Asseac gossea estacusq(ue)*. Izan ere, hauen itzulpena hau da: “El hartu no puede ver al hambriento”. Cf., halaber, RS 161, 314, 329.

51. Azken hilak zorrak baka.

- Que le dernier qui mourra *de nous* paie nos dettes.
- El que muera el último pague las deudas.
 - . *hilac*: ez da arrazoirik ikusten dieresia ipintzeko, *i* hori ezin baita silabagilea baizik izan.
 - . *baka*: *bakatu*-ren aditzoina, aginte balioa duena; laguntzailea *bitza* edo *ditzala* izango litzateke. Beste bitan *pagatua* idazten du (98, 293).
 - Zalgize 120 berdina da. Zalgize119 ere honen antzekoa da: *Azquenac bortac cerra*.

52. Astrugaitzaren hiltzea ezta hiltzea, bana ungitzea.

- Le mourir de souffreteux n'est pas mourir, mais guérir.
- El morir del desgraciado no es morir, sino sanar.
 - . *Astrugaizaren*: adjektiboa –beste behin *asturugaiz* idatzia (181)–, *asturu* + *gaitz*, hau da, zori edo fortuna txarrekoa.
 - Bela 4: *Azturugaitzari houna hugu*, hots, zoritxarrekoari hona higuin zaio. Eta Okoad 334: *Cequenaen vician caltea, / oasuna haren heriocea*. Honen berdina da RS 484 ere.

53. Atorrak hunkiten, bana aragia etxekiten.

- La chemise me touche, mais la chair *m'est plus proche, car elle* se tient à moi.
- La camisa *me* toca, pero la carne *me* está adherida.
 - . *Atorrac*: Francisque-Michelen edizioan *At'orrac*, hau da, *Athorrak*.
 - . *exequiten*: hitz honen tradizioa eta testuetako lekukotasuna ikusiz, pentsa daiteke Oihenartek *ex*equiten*, hau da, gure *etxekiten*, idatzi eta moldiztegian puntua galdu zela (cf. 45). Hortaz, *etxe*ki da aditz honek Oihenartenean ere duen forma. Beste agerpenak: *Exekiterago* (V, 30), *axeca* (139), *badaxen* (XI, 2), *daxeconean* (672; XX, 23) eta *banaxeco* (V, 26). Aditz hau, bestalde, *bunkitu* ez bezala, *nor-nori* sailekoa da, iragangaitza, eta, horregatik, *aragia* subjektua absolutiboan dago. *Nor* osagarria dago isilpean lehen zatiko aditzean eta *nori* osagarria bigarrenekoan.
 - Zerbait beste zerbait baino barrenago dagoela edo hura baino axola handiagokoa dela adierazteko erabiltzen da atsotitz hau. Zalgize 61ek gauza bera dio: *Athorra burran [b]ana larrüa / hurranago*.

Eta RS 281ek: “*Atorren baxen vrrago narrua*. El cuero más cerca que la camisa”. Honen iruzkinean beste hizkuntzetako erretrau asko aipatzen ditu Urkijok. Cf., beste alde, Urkijo Esk: *Ma peau (chair) m’est plus proche que ma chemise* eta *Près est ma coste, plus près est ma chemise*. Schuchardtek dioenez, berriz (1911: 453), latinean du euskal atsotitz honek aitzindaria: *tunica propior pallio est*, non bi jantzi konparatzen diren. Euskal bertsoak, hala ere, *aragia* aipatzen du, biarnesak *larrua* egiten duen bezala, *pelhe* “jantzi” eta *pèt* “laru” hitzek duten hoskidetasuna baliatuz.

54. Auko zorigaitzari ekuru eta onari aiduru.

- Souffre en patience la mauvaise fortune, et demeure en attente de la bonne.
- Mantente paciente ante la mala fortuna y esperanzado ante la buena.
 - . *Auco*: egon aditzaren aginte aldia, *hi-hari*, “hagokio”; aditz honen formen idazkeraz, cf. 63. Adizki bera ageri da Okoad 224an: “*Auco bihardrano*. Aguárdale hasta mañana”.
 - . *sori gaizari*: bereiz.
 - . *ekuru*: tradizioan hiz hau bitara ageri da, *ekuru* nahiz *ekburu*, hau da, leherkaria aspiratua nahiz aspiratugabea duela. Francisque-Michelen edizioan *ek`uru*, hau da, *ekburu*. Oihenartek berak beste behin *ec`uru* idazten du (II, 14), baina hemen *ekuru* eta 393an *ekurugaiz*.

55. Aurhide biren alhor artean ungi dago zedarria.

- La borne sied très bien entre les champs de deux frères.
- Está bien *que haya* un mojón entre los campos de dos hermanos.
 - . *alhor-artean*: marrarekin.

56. Aurtendanik geurz dara, anhitz eki eta euri.

- Entre ci et l’année qui vient, il se passera beaucoup de jours sereins et pluvieux, *c’est-à-dire qu’il y arrivera bien de changements*.
- Entre este año y el que viene, muchos *días* de sol y muchos de lluvia.
 - . *Aurtendanik*: Iparraldeko testu zaharretan *th* aspiratua duela ageri da maizenik hitz hau; Oihenartek gabe idazten du beti (56, 57, 301,

478, 479, 517). Francisque-Michelen edizioan *Aurt`endanic* idazten da. *Urte*-ren idazkeraz, cf. 95.

- . *gueurs-dara*: marrarekin; *-dara*, adlatiboaren atzizkia (ikus *bihardara*, *OEH*).
 - . *Eki*: bigarren zatiari hasiera ematen ez badio ere, bigarren lerroaren hasieran gertatu da hitz hau eta horri zor zaio, beharbada, maiuskula. Bestalde, tradizioan *ekhi* forma nagusitzen den arren, hots, leherkaria aspiratua dela, hemen eta beste gehienetan *k* soila ageri da Oihenartenean (56, 373, 669); behin, hala ere, *ekhia* idazten du (373). Pentsa daiteke, bada, haietan ere *k`* idatzi zuela beharbada Oihenartek, Baionako alean egin zuzenketak iradokitzen duen bezala. Francisque-Michelen edizioan, hain zuzen, *ek`i* idazten da.
- Urte batetik bestera gauza asko gertatu eta egoera arras alda daitekeela adierazten du atsotitz honek. Egoera txarrean daudenen kontsolagarri izan daiteke pentsamendu hori.

57. Aurten haurrak haz, geurz ileak ilaz.

- Faut nourrir les enfants cette année, et différer à carder les laines jusques à l'autre, *c'est-à-dire que l'éducation des enfants doit précéder toute autre chose.*
 - Este año a criar los hijos y el que viene a cardar la lana.
- . *Aurten*: Francisque-Michelen edizioan *Aurt`en*, hau da, *Aurthen*.
- . *has ... ilas*: *bazi*-ren eta *ilazi*-ren aditzoinak.
- Haurrak ondo hazteak du lehentasuna, gainerakoak bigarren mailakoak direlarik. Izan ere, lehentasuna duten kontuei kasu egin behar zaie beti arreta bereziz, bigarren mailakoak haien aurretik ipini gabe.

58. Auzilaria, nekeziaren ezkutaria.

- Le plaideur *ordinaire* est l'écuyer de la misère.
 - El pleitista, escudero de la miseria.
- . *escutaria*: tradizion *ezkutari* zein *eskutari* ageri da; hemen, Oihenarten sistemaren arabera, *s*-ri gure *z*-ren balioa eman diogu, baina, hala ere, ez da baztertzekoa beste zenbaitetan bezala, *-sk-* grafia hori *-fk-*aren lekuan egotea eta, hortaz, *eskutari* irakurri beharra.

→ Urkijo Esk: *Trop plaidoyer fait mendier. Trop prendre fait pendre*
(Le Roux de Lincy, II, 329).

59. Auzilaria, sarista ezak onsa barataria, ezpere eure zuzena eztakidik balia.

- Plaideur, salarie bien le notaire ou le greffier, car autrement à ton droit tu ne te dois fier.
- Pleitista, paga bien al notario; *que* si no, no podrás valerte de tu derecho.

. *sarista esac*: tradizioan hitz hau *sarizta-* nahiz *sarista-* idatzia ageri da eta Oihenartek berak ere bietara dakar, *sarista* hemen eta *sarista* (491). Bitasun hori idazleen zalantzaren lekuko izan daiteke edo, bestela, hemengo *-ft-* grafia *-st-*ren lekuan dagoela pentsatu behar dugu (cf. 88). Guk lehen aukera hobetsi dugu eta testua dagoen dagoenean utzi agerpen bietan. Hitz hasierako *s-* letrari dagokionez, berriz, honela idazten dira erro honetako hitzak: *sari-* (59, 136, 140, 640; VI, 1), baina *sari-* (319, 491; IX, 1; XV, 4) eta bietako balio duen *Sari-* (666; XX, 1).

. *estaquidic valia*: *valia*, *v* kontsonantea ageri den kasuetako bat, cf. *vici-* (365, 400; VII 1, 7; XXIV, 4), *visi-* (236; X, 6; XIII, 17; XV, 9; XVIII, 10; XIX, 14; XX, 7), *vide* (291), *vocala* (272, tit.), *venturas* (399), *isena* (509)... *Baliatu*-ren aditzoina; *dakidik*, **edin* laguntzailearen orainaldia, *hura-hiri*; ahalerazko *KE*-dunaren pareko forma, baina *KE* morfema gabe; erroko *-di-*, aldiz, gorde egiten du, *nori* morfemaren aurrean; *dakidik*, beraz, batuan *dakiake* dena (cf. 427; 639; III, 8), “ez dakiake balia”, “ez zaik baliatuko”.

60. Atsegina bikun da, denean laster egina.

- Le plaisir est double lorsqu’il est fait promptement.
- El placer es doble, cuando se consigue rápidamente.

. *laster eguina*: hau da, laster lortua.

→ Schuchardtek dioenez, latinean du euskal atsotitz honek aitzindaria: *bis dat qui cito dat* (1911: 453).

61. Atsoa, lehia duna hiltzera?

Oha atzerrira bizitzera.

- *Vieille, te tarde-t-il de mourir? Va-t-en vivre en pays étranger, et ton souhait ne tardera guère de réussir.*
- *Anciana, ¿estás deseando morir? Vete a vivir a un pueblo extranjero.*

. *lehia*: “presa”, zerbait laster egiteko gogoia.

. *duna*: (hik) *dun* aditz trinkoa eta *-a* galderazkoa; “presa al dun?”.

. *oha*, bigarren zati eta lerroaren hasieran egon arren, minuskulaz. *Joan* aditzaren aginte aldia, *hi*. Erroko silaba bien artean du honek aspirazioa (cf. 349, 561, 606), baina *bahoa* (669), indikati-boko baldintza, aspirazioa, ohi bezala, *ba-* morfemaren ondoan duela (cf. 175).

→ Atsotitz honen esanahiari dagokionez, ikus 49. RS 178: “*Zarrari ajea eguioc aldatu / ta dayc galdu*. Al viejo mudale el ayre / y perder le has”. Gaztelaniazko hau aipatzen du Urkijok: *El viejo muda le el ayre, darte ha el pellejo*: “Quiere dezir morira” (H. Nuñez).

B

62. Badu ere axeriak biloa uzten, bere egitea eztu biluzten.

- *Encore bien que le renard change son poil, il ne change pas son naturel.*
- *Aunque el zorro se quite su pelaje, de su condición no se deshace.*

→ Gaztelaniazko itzulpenak nolabait islatu nahi izan duen hoskidetasunaz gain badu atsotitz honek itzulpenean jasotzen zaila den hitz joko bat ere: *biloa uzten / biluzten*. Esanahia, berriz, argia da: hartzen duten itxura hartzen dutela, izaera bat eta bera gordetzen dute batzuek beti. Garibay 59: “Por los hombres que nunca pierden los vicios y malas mañas pasadas, aunque entren en edad, dicen: *Axeria-ri narrua edegui, baya aztur-ac eç*. Es lo del refrán castellano, que á la zorra pueden quitar el pelejo, y no las condiciones”. RS 220k horren antzeko zerbait esaten du: *Iazquereac parrahua eguite ez du*. Esanahi berdintsua du beheargoko 261ek ere. Schuchardtek dioenez, latinean du euskal atsotitz honek aitzindaria: *vulpes pilum mutat, non mores* (1911: 453).

**63. Badut ere herabe
senarraren hilzale
horri joaitera jorrale,
ezin naoke jan gabe.**

- Quoiqu'il me soit fort fâcheux d'aller sarcler pour le meurtrier de mon mari, si est-ce que je ne puis me passer *de travailler* pour avoir de quoi me nourrir.
- Aunque me repugna
ir a cardarle las tierras
a ese asesino de mi marido,
no puedo estar sin comer.

. *herabe*: izena, *badut* aditzaren objektua. *Herabe ukan ... joaitera* (cf. III, 7).

. *senarrarem*: errata -m > -n. Hemen eta bestetan, *senar-* (63, 386, 406; VI, 5); *Atsotitzen Urrhenkina*-ko atsotitz batean, ordea, *senhar* (705). Hitz hasieran s- txikia duela, *senar-* (VI, 5).

. *horri ioaitera iorrale*: "harengana joatea jorrale", hau da, haren lurrak jorratzera.

. *naoque*: *egon* aditzaren *KE*-dun orainaldia, *ezin* partikula aurrean izanik ahalera balioa duela, "ezin egon naiteke", "ezin naiz egon". *Egon* aditzaren -go- erroko -g- kontsonantea galtzen denean, -o- bokala itxi eta -u- bilakatu ohi da Oihenartean: *dauco* (407), *dautano* (XXIII, 2), *basaude* (VIII, 6), *saudeen* (II, 12), *saustadala* (V, 8), *danke* (228), *baizauten* (XXVI, 23), *elauque* (II, 11), *enendauque* (II, 11), *beud'* (X, 10), *auco* (54, 438). Hemen, ordea, -o- bokala bere horretan uzten da: *naoque*; eta berdin *ezaoqueela* (XVII, tit.). Ahoskera, dena dela, *au* izan dai-teke guztietan.

. *ian-gabe*, marrarekin.

64. Bago erorira, egurkari guziak laster ari dira.

- Tout le monde court sur un arbre abattu pour en tirer du bois.
- Al haya caída, todos los leñadores se abalanzan.

. *laster-ari dira*: marrarekin, "laster-laster doaz" (cf. IV, 6).

→ Isasti 7: "*Aritz eroriari oroc egur*. Al roble caído cualquiera quita la leña". RS 198: *Iauxi din excurra / oroen su egur*. Gaztelerazko hau aipatzen du Urkijok: *Del árbol caído todos hacen leña*; eta

Quitarden iruzkin hau eransten du: “tout le monde cherche à retirer quelque avantage de la disgrâce qui atteint un homme élevé en dignité”. Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du, euskarazkoaren errimarik ez badu ere: *A l’arbe cadut / tout lou mounde que hè legnes* (1911: 455).

**65. Baigorriko Bizkondea,
beldurrak diakarkek ahalgea.**

- Vicomte, c’est la peur qui produit la honte.
- Vizconde de Baigorri, el miedo trae vergüenza.

. *Baigorrico Biscondea: beldurra* eta *ahalgea* aipatuz, gutxiespenezko kutsu bat badu atsotitzak eta horregatik, beharbada, frantses itzulpenak *Baigorriko* aipamena alde bat utzi eta *Vicomte* dio, besterik gabe, hain jaun handi eta ohoragarriari irain ez egiteagatik. Gogoan izan Axularrek *Gero*-ren eskaintzan aipatzen duen Bertrand de Echaus artxapezpiku ezaguna Baigorriko Bizkondearen seme zela. Baigorriko aipamenik gabea da, halaber, Zalgize 60: *Vizcondia, beldurrac diakarquéc / Abalguia*.

. *Beldurrac*: maiuskula, bigarren lerroaren hasieran.

. *diacarquéc*: *ekarri* aditzaren *KE*-dun orainaldia, “présent intemporel”, *hura-hark* alokutiboa, “ekartzen dik”, hots, “ekartzen du (hiri esaten diat)”. Orpustanek *nor-nori-nork* gisako formatzat dauka, hots, *hura-hiri-hark* motakoa, “(hiri) ekartzen dik” (1992: 119); frantses itzulpenak, hala ere, ez du irakurketa hori bultzatzen. Hemen “La forme [...] *diacarquéc* ‘elle le produit’, exprime un procès qui comporte un terme” (Lafon 1949: 441). Ikus aditz bereko *diacarken* alokutibo femeninoa (160) eta ohiko *dacarke* (50, 185, 199, 512, 682).

→ Haritschelharrek (1989: 550-551) Euskal Herrian berean sorturikoen sailean sartzen du, bistan da, atsotitz hau. Honela dio: “Dударик gabe kondaira-atsotitza da, gertakari latz baten ondotik sortu dena. Zer izan zen gertakari hori ez dakigu, nahiz horren oihartzuna agertzen den ziberotar kantu zahar batean”. Kantuaren 5. ahapaldiak honela dio: *Etchauzeco bizkoundia / Beldura duzu ahalkia / Uzten duzu phenaz hiltzera / Zure arreba anderia*. “Hona, beraz –Haritschalharren iruzkina–, non agertzen den Etxauzko alabak bere anaia (neba) bizkondeari oihukatzen dion dei latza. Ez da dudarik orduan sortu zela atsotitz hori, beharbada kantu horretarik”.

**66. Baigorri baxera lurrez;
nik haragei nuenean, urrez.**

- A Baygorri la vaisselle est de terre; lorsqu'on parlait de m'y marier, elle était toute d'or.
- En Baigorri la vajilla es de arcilla; cuando me iba a *casar* a allí, *era* de oro.

. *haragei*: *gei*, *gai*-ren aldaera, Zuberoan eta Nafarroa Beherean erabiltzen dena, aurreko hitzari lotua idazten da maiz, enklitiko gisa, zerbait egiteko asmotan edo zorian dagoena adierazteko. Aurreko hitza aditzoina edo partizipioa izan ohi da; beraz, *haragei* honetan *hara(tu)* aditza dagoela pentsatu behar da, hots, "hara ezkon" (cf. *iinguey* 85, *vrcaquei* 395 eta, bestalde, *escontgueiac* 17, 521; *viciguei* VII, 7). Laguntzailea, berriz, ikusten denez, **edun* iragankorra izaten da.

. *nueneam*: errata, *-m* > *-n*.

. *vrres*: hitz honen idazkeraz, cf. 5.

→ Atsotitz honen antzeko esanahia du aldaera desberdinak dituen beste honek: *Urruneko eltzea urhez*, *hara-orduko lurrez*. Urkijok aipatzen ditu aldaera horiek *Ynsaurrac bano ossac andiago* dioen RS 226ren iruzkinean. Cf., halaber, 473.

67. Barurak hirur ase.

Hirur ase hauk aditzen dira, barur eguneko baraskariak, aitzin eguneko aubariak eta biharamuneko askariak.

- Le jeûne a trois saoulées: c'est à savoir le dîner du jour auquel on jeûne, le souper du soir précédent, et le déjeuner du lendemain.
- El ayuno *tiene* tres hartazgos.
Se trata de estos tres hartazgos: la comida del día de ayuno, la cena de la víspera y el desayuno del día siguiente.

. *barureguneco*: loturik.

. *baraſcarias*: leherkariaren aurreko txistukaria apikaria da, hau da, gure *s* (berdin, VI, 8). Zalgizek eta Pouvreaux bietara idazten dute, *barazk-* eta *barask-*, baina beste autore zaharretan *barazkari* da ohiko forma (cf. *OEH*, s.v. *bazkari*).

. *aizin-/eguneco*: lerro bitan banatua, baina lotura adierazten duen marrarekin.

68. Bata boza, bertzea xila ari da.

- Il ne fait que boucher un trou et en ouvrir un autre. *L'on dit cela d'un qui paie ses dettes en faisant de nouveaux emprunts.*
- Tapa un agujero abriendo otro.
 - . *Bata*: izena isilpean; bigarren zatiko *xila* aditzak iradokitzen du isilpeko izen hori *xilo* dela.
 - . *bosa*: *bozatu*-ren aditzoina, “tapatu”, “estali”, “itxi”. *Bosa* eta *xila* aditzoinak *ari da* aditzaren osagarri dira, “bata tapatzen, bestea zulatzen ari da”.
 - . *berzea*: gehienetan horrela ageri da, txistukaria afrikatua duela, hau da, gure *tz* (50 agerpenetik gora), baina *berse* aldaera ere ageri da inoiz, hau da, gure *z* igurzkaria duena (92, 234, 313, 686; II, 16; IX, 3; X, 13; XV, 3; XXV, 1, 5).

69. Bata mingarri, bertzea sorgarri.

- L'un sert à nous faire le mal et l'autre à nous y endurcir.
- Una *cosa es dolorosa*, la otra calmante.
 - Zalgize 143: *Bata mingarri*, / *Bercia sorgarri*. Eta Urkijoren itzulpena: “El uno [es] punzante, el otro calmante”. Okoad 242: “*Hira bera da sorgarri*. La cólera misma es calmante”. Okoad 256: “*Batac erra, berciac laida*. El uno quema (ofende, censura?), el otro alaba”.

70. Bat ehunen, ehun ez baten.

- Un en vaut cent et cent n'en valent pas un.
- Uno *vale* por cien y cien no *valen* por uno.
 - . *ehunen ... baten*: destinatiboak, “ehunentzat”, “batentzat”.
 - Isasti 13: *Batec milla valio, eta millac bat ere ez*. “Vno vale mil, y mil (no) nada”. Bela 5: *Bat milaren, eta ez mila baten*.

71. Batean ama, bertzean amaizun gertatu zait.

- Elle m'a servi de mère à une *occasion* et de marâtre à une autre.
- Ha sido para mí unas veces madre y otras veces madrastra.

- . *Batean ... berzean*: singularra, balio errepikakorra.
- . *amaifun*: gehienetan *amasun* (22, 23, 24, 533, 680) edo *amasun* (468) idazten du, hots, gure *ama(i)zun*; *f*-rekin, berriz, hemen baizik ez da ageri. Hortaz, Oihenarten beraren aholkuari jarraiki, “zuzendu” beharrekoa dela dirudi.

72. Batzuren gatzonzian ere harrak sortzen dira.

- Il y en a de si malheureux que les vers s’engendrent jusque dans leur salière.
- A algunos les crecen gusanos hasta en el salero.
 - . *gazonsian*: *n* kontsonantearen ondoan txistukari igurzkaria (cf. *onsi* 224, *Vnsi* 453).
 - . *sorzen*: *s*- txikia hitz hasieran, *f*- luzearen lekuan; erro honetako hitzak *for*- idazten dira gehienetan, Oihenarten sistemaren arabera (278, 399, 618, XIII, 20), baina bitan *sor*- (72, 565); maiuskularekin idatzitako *Sor*- grafiak, berriz, bietarako balio du (XX, 19; XIII, 6; *ADIGARRIA*; 410-ean ere horrela ageri da, baina *s*- apikariak hasten diren atsoitzen multzoan).
 - . *Bazuren gazonsian*: harrak batzuen gatzontzian ere sortzen direla dio, hitzez hitz, atsoitzak. Hau esan nahi du: “batzuei gatzontzian ere” sortzen zaizkiela harrak, hau da, hain zorigaiztokoak direla, non gatzontzia bera ere harrez betetzen baitzaie.

73. Beki on eta gaitzaren berri, kargutan duenak zenbait herri.

- Celui qui doit gouverner une province doit avoir connaissance du bien et du mal.
- Debe conocer el bien y el mal, quien un pueblo ha de gobernar.
 - . *Bequi*: *jakin* aditzaren aginte aldia, *hura-hark*, “*jakin beza*”, “*ezagutu beza*”.
 - . *duënac*: *u* bokal silabagilea dela adierazten duen dieresia ondoko bokalaren gainean (cf. 40).
 - . *cargutan duënac sembait herri*: herriren baten agintari denak; fr.: “une prouince”.

**74. Begi batez aski du saltunak,
ehun eztitu sobera erostunak.**

- Un oeil suffit au vendeur, mais l'acheteur n'en a pas trop de cent.
- Un ojo basta al vendedor, cien no le sobran al comprador.
 - . *Begui-bates*: *bat* gehienetan lotua idazten bada ere (cf. 6), hemen marrarekin ageri da.
 - . *aski*: *-sk-* grafia *-fk-*ren lekuan. Hitz hau ere bitara agertzen da: *aski* idazten du zenbaitetan (45, 547, 659; XIII, 15) edo *asqui* (XV, 4, 8), Oihenarten sistemak eskatzen duen bezala; beste batzuetan, ordea, *aski* (74, 145, 356, 470; IV, 3; X, 7) edo *asqui* (531, 547, 569; XXVII, 4).
 - . *Saltunac*: *S* maiuskula ageri da, *f* minuskula espero zen lekuan.
 - . *Ehun*: bigarren lerroaren hasieran maiuskula.

**75. Begira nezak ur emeti,
nihaur niaitec lasterreti.**

- Garde-moi de l'eau douce, car je me garderai bien de la courante moi-même.
- Cúidame del agua tranquila, *que* de la rápida yo mismo me cuidaré.
 - . *Beguirá nesac*: **ezan* laguntzailea, aginte aldia, *ni-bik*, “zaindu nazak”.
 - . *niaitec*: isilpeko aditz nagusia *begira* da, aurreko perpausekoa bera; laguntzailea, berriz, **edin*-en orainaldia, ahalerazko *KE*-dunaren parekoa, *KE* morfema gabe bada ere, *ni*, alokutiboa; *naite* du Oihenartek forma arrunta eta *niaitec* alokutiboa, batuan *naiteke* eta *naitekek* direnak, hurrenez hurren: “neroni zain naiteke (hiri esaten diat)”, hots, “neroni zainduko naiz (hiri esaten diat)”.
 - Zalgize 16: *Beguirá adi vr bareti / Nihaur niaitec lasterreti*. Urkijok gaztelaniazko bi hauek aipatzen ditu: *Del agua mansa libreme Dios, que de la brava me libraré yo* eta *En río manso no metas tu mano*. Okoad 370: “*Beguirá adi oldarbat / aserreti, bethiere / ixilezco etsai gordeti*. Guárdate por un momento del irritado (y) siempre del enemigo oculto y callado”.

**76. Behorraren ustikoak,
eztitu sendi garañoak.**

- L'étalon ne sent pas les coups de pied de la jument.
- Las coces de la yegua, no las siente el garañón.
 - . *estitu sendi*: hots, “ez ditu sentitzen”, “ez ditu nabaritzen”.
 - . *garanoac*: tradizioan *garaino* edo *garaño* ageri da beti; beraz, pentsa dezakegu Oihenartek *garan^oac* idatziko zuela, bere sistemaren arabera, non *n^o* grafiak sabaikaria adierazten duen, baina, ohi bezala, puntua moldiztegiari galdu zela (cf. 6). Orpustanek ere, bestetan ez bezala, *garaño* idazten du bai testuan bai hiztegiari.
 - Urkijo Esk: *La coz de la yegua, no hará mal al potro* (H. Nuñez, fol. 278).

**77. Beha eztagoena aitzinara,
lerra daite gibelara.**

- Celui qui ne prend pas garde en avant est capable de glisser en arrière.
- Quien no mira hacia adelante, puede que caiga hacia atrás.
 - . *aitzinara ... guibelara*: *-ara* postposizioa dutenak, hots, “aitzineko edo gibeledu eran edo jarreran” (cf. 38).
 - . *lerra daite*: **edin* laguntzailearen *KE*-dun orainaldia, gure “daiteke” formaren parekoa, “lerra daiteke”, “eror daiteke”.
 - RS 423: *Aurrera adize ez tana / azaera dago*. Eta RS 456: *Aurrera adizen eztana / azeranz jauxtenda*. Azken honen iruzkinean gaztelaniazko hau aipatzen du Urkijok: *Quien adelante no mira: atrás se cae*. Argia da esanahia: zerbait egin nahi duenak, hartan hasi baino lehen ondo pentsatu behar du.

78. Beharrak, aharra.

- La nécessité engendre noise.
- La necesidad *engendra* querella.
 - . *Beharrac*: izena hemen (80, 81, 82); adjektiboa, berriz (28, 83).
 - . Aditza falta du esaldiak. Haritschelhar (1991: 189): “le Basque imagine très normalment soit le verbe transitif *ekarri* (porter), soit le verbe *sortu* (naître, engendrer)”.
 - Bela 25: *Gabiac, aharra*. Cf. 80.

79. Beha lehenik, minza azkenik.

- Ecoute le premier et parle le dernier.
- Escucha primero y habla postrero.
 - . *minsa*: erro honetako hitzak maiz horrela ageri dira, txistukaria igurzkaria dutela. Ikus, hala ere, *minzazea*, hau da, gure *minzatzea* (XII, 4).
 - . *Beha ... minsa*: aditzoinak, agintea adierazten dutenak; “behatu” aditzak “entzun esan nahi du hemen: “entzun (ezak)” eta “mintza (hadi)”.
- RS 194k honela dio: *Vler ezac lenago / ta yz eguic gueroengo*. Nuñez-en gaztelaniazko hau aipatzen du Urkijok: *Entiende primero, y habla postrero*. Eta beste hizkuntzetako batzuk ere aipatzen ditu.

80. Beharra, eragile handi.

- La nécessité est fort agissante.
- La necesidad, fuerte acicate.
 - / RS 75aren lehen zatiak honela dio: *Oparinac nenguiâ bearguin*; haren iruzkinean Urkijok Nuñezen gaztelaniazko hau aipatzen du: *No hay mejor maestra, que necesidad, y pobreza*. RS 140ek, berriz, honela dio: *Opar(a)yna jaquindun*; Urkijok azken honen antzeko beste erretrau asko aipatzen ditu (*oparina*, “beharra”). Urkijo Esk: *Necessité est mère d’invention* (Le Roux de Lincy, II, 268).

81. Beharrak zaharra merkatura.

- La nécessité fait aller le vieillard au marché.
- La necesidad *lleva* al anciano al mercado.
 - / Aurreko atsotitzaren antzeko esanahia du honek ere: beharrak eraginda egiten ditugu gauza asko. Ondo bidean etxean lasai gertzekoa den gizon edo emakume zaharra, beharrak aginduta merkatura joan beharrean aurkitzen da. Zalgize 139 berdina da. Cf. RS 82.

82. Beharrak izurriaren mañak ditu, askazi-adiskidez gabetzen gitu.

- La nécessité fait comme la peste: elle nous prive de parents et d'amis.
- La necesidad actúa como la peste, nos deja sin parientes ni amigos.

- . *manac*: “mana” aldaerak adiera honetan dituen agerpen biak Oihenartenak dira (cf. *OEH*, s. v. 2 *mana*); pentsatzekoa da, hortaz, tradizioan *maina*, *maña* edo *maiña* idatzita ageri den hitza dugula hemen. Ikerleek ez dute azalpen hori aurkeztu, ez baitituzte Oihenarten idazkera eta idazkera-hutsak aintzat hartu. Pentsatzekoa da, ordea, *man^oac* idatziko zuela seguruenara Oihenartek, sabaikaria adieraziz, baina, ohi bezala, puntua mol-diztegian huts egin zutela (cf. 6). Gauza bera gertatzen da 665. atsoitzean ere, non *mana*-k *hazana*-rekin, hots, *hazaña*-rekin egiten duen errima.
- . *askazi-adiskides*: hitz elkartu kopulatiboa, “askaziz eta adiskidez gabetzen gaitu”; *adiskides*, *-sk-* grafia *-sk-*ren lekuan. Hitz hau *f*-rekin idazten da, Oihenarten sistemak eskatzen duen bezala, 10 testutan: *adiskide* (2, 3, 4, 5, 6, 112, 115) edo *adisquide*- (540, 585, 674); baina beste 9tan *adiskide-*, *s* txikiarekin, apikaria bada ere (82, 111, 325, 375, 455, 522, 539; I, 3; VIII, 7). Elkarketa marra-rekin hemen, baina ik. *Ahaid'*, *adiskides* (VIII,7).

83. Beharrari emaita ezta emaita, baizi ereitea.

- Donner aux nécessaires n'est pas donner, mais semer.
- Dar al necesitado no es dar, sino sembrar.
- . *Beharrari*: “behartsuari”, 28an bezala, hau da, “beharrean denari”.
- . *emaita ... emaita ... ereitea*: azken biotako dieresiak *i*-ren balio bokalikoa adierazten du.
- RS 265ek honela dio: “*Ondo eguioc landerrari / Iayncoac diquec donari*. Haz bien al pobre / dar te ha Dios galardón”. Eta horren iruzkinean Duvoisinek idatzitako beste hau aipatzen du Urkijok: *Egizu ongia, ez dukezu ondotik urrikia*.

84. Behazalea maizago bere gaizkiari ezen ez hunkiari beha dago.

- Celui qui demeure aux écoutes entend plus souvent son mal que son bien.
- El que se dedica a escuchar más a menudo escucha su mal que su bien.

- . *mais-ago*: konparazio-atzizkia lotua idazten du gehienetan Oihenartek; cf., hala ere hemengo *mais-ago* hau, *ascarr-ago* (161), *bozen-ago* (III, 2), *hozen-ago*, *gorzen-ago* (VII, 4) eta *gaiz agoac* (174), *Ian ago* (537); *-egi-ren* eta *-en-en* idazkeraz, cf. 110 eta 131, hurrenez hurren.
- . *esenes*: “baino”; loturik beti (84, 244, 612, 623; XXVIII, 7), *ezi ez ez bezala* (cf. 150).
- . *gaisquiari ... hunquiari*: *gaizki* eta *hunki* izenak dira hemen, “gauza txarrak” eta “gauza onak”, hurrenez hurren. Aldaerei dagokienez, *hunqui-* ageri da atsotitz honetan eta, adizlagun gisa, (175; VII, 5; XXVII, 8); gainerako guztietan *ongui* edo *vngui*.
- RS 38k honela dio: *Celata dagoana vere guachen ençula*. Urkijok beste hizkuntzetako askoren artean, Nuñez-en gaztelaniazko hau aipatzen du: *Quien assecha por agujero, vee su duelo*. Okoad 274: “*Jagoiti behazaliac estu bere honic ençun*. Quien escucha jamás ha oído cosa buena de su persona”. Cf. beste aldaera bat, 429.

85. Belatz duana ez utz hagati, austore jingei denagati.

- Ne laisse pas aller l'épervier que tu tiens sur la perche pour l'espérance d'un autour qui te doit venir.
- El gavián que *ya* es tuyo no lo sueltes de la percha, por un azor que está por venir.
 - . *düana*: dieresia, *u* eta *a* bokal bi. Erlatiboa, ikusten denez, izen ardatzaren eskuinean dago: *belatz duana*, hots, (hik) *duan belatza*.
 - . *Austore*: maiuskula, bigarren lerroaren hasieran. Batuan “aztore”.
 - . *iinguey*: *-y* grekoa diptongoaren bigarren bokala adierazteko; *-gei* atzikiak zerbait egiteko asmotan edo zorian dagoena adierazten du (cf. 66).
- RS 432: *Oba chori bat escuan / çe ez bost ezcurrean*. Eta berdin Okoad 302. Gaztelaniazko hauek aipatzen ditu Urkijok: *Mas vale paxaro en mano, que buytre bolando* eta *Más vale pájaro en mano, que ciento volando*. Eta baita Duvoisinekin jasotako hau: *Aireko choriarentzat eskukoa ez utz*. Esanahiari dagokionez beheragoko 190 gogora daiteke.

86. Beldurra, bera zaldi.

- La peur sert elle-même de coureur.
- El miedo, él es su propio corcel.
 - Zalgize 114 berdina da. Beldurrak berak *bere buruaren* zaldi gisa jokatzeko duela esan nahi du atsotitz honek, hau da, beldurrak berak eragiten duela beldur hori gero eta handiagoa izatea, beste inork edo ezerk akuilatu gabe ere.

87. Beleak, sarratsera.

- Les corbeaux *vont* à la carogne.
- Los cuervos, a la carroña.

88. Bentura dadinak, hartza; eztadinak, ez eta bartza.

- Celui qui s'aventure est capable de prendre l'ours, et celui qui ne s'aventure ne saurait prendre une lende.
- Quien se arriesga *caza* al oso; quien no lo hace, ni una liendre *coge*.
 - . *Bentura dadinac*: *benturatu*-ren aditzoina eta **edin* laguntzailea, "subjuntiboko" orainaldia, erlatiboan, "benturatzen denak", "arriskatzen denak".
 - . *estadinac*: Oihenarten sistemak eskatzen duenez horrelako elkarketa *es-* idazten da gehienetan, hots, gure *ez-*; batzuetan, hala ere, *ef-* ageri da, *-f-* luzearekin, hemen bezala (cf. *eft-* 88, 133; IV, 1; V, 1, 10; XVIII, 15; *esp-* V, 5, 59). Moldiztegikoen aldaketa edo Oihenarten beraren zalantza izan daitezke grafia horren eragile.
 - . Perpaus bietako aditz nagusia isilpean dago; iragankorra izan behar du, subjektua ergatiboan baita bietan: "hartzen du" edo horren antzeko bat izan daiteke.
 - Zalgize 124 berdintsua da: *Ventura çadinac hartza / Etzadinac, ez eta phartza*. Urkijo Esk: *Quien no se aventura no pasa la mar*.

89. Berant debila nehor konseilu bilha, eskukara jinez gero etsaiekila.

- C'est trop tard qu'on va au conseil, après qu'on en est venu aux mains avec l'ennemi.

- Acude tarde en busca de consejo, quien ha llegado ya a las manos con sus enemigos.

- . *debila*: *ibili*-ren orainaldia, orainaldiko morfema *-e*- duela, maiz bezala (cf. 13).
- . *conseillu*: *-ill-* idazten du alboko sabaikaria, bere sisteman *-il**- behar lukeena (cf. 109, 447; XXVIII, tit.); behin, hala ere, *conseilu* (488).
- . *escucara*: *-sc-* grafia *-fk-*ren lekuan, apikaria adierazteko; erro hone-tako hitzen idazkera zalantzatiari buruz, cf. 46. *Eskuka* adizla-gunaren adlatiboa.
- . *etsaiequila*: dieresiak *i* hori bokala dela adierazten du.

90. Berant jina, gaizki etzina.

- Le tard venu est d'ordinaire mal couché.
- Quien llega tarde, mal se acuesta.
- . *jina*: *j-* aldaera, *i-*ren lekuan.

91. Bere ahal dena, ezpiz bertzeren.

- Qui peut être à soi ne soit à autrui.
- Quien puede ser para sí mismo, no sea para otro.
- . *Bere ... bertzeren*: predikatuak, mugagabeak; destinatiboak izan daitezke.
- . *ahal dena*: “izan daitekeena”.
- . *espis*: *biz*, *izan* aditzaren aginte aldia, *hura*. Ez da ohikoa testu zaharretan aginte aldia ezezka ematea; Oihenartenean hemen eta hurrengo atsotitzean ageri da horrela. Ezezko agintea normalean “subjuntiboko” orainaldia + (*e*)*la* egituraren bitartez egiten da: *ez dadila*, *ez dezala...* (Lafon 1949: 444). Ohar aldea: *biz* sintetikoa, *bedi* laguntzailea.
- Zalgize 192: “*Ez bere ez berceren*. Ni suyo, ni de los otros”. Sarasolak gure itzulpenaren pareko aukera proposatzen du, *bere* eta *berceren* destinatibotzat hartuz: “Ni para sí ni para otros” (1983: 186). Ez dirudi gauza bera esaten duenik RS 106k: *Bereçat dena besterençat*.

92. Ber' etxea beirez dadukanak estalirik, ezpeza aurtik berzerenera harririk.

- Celui qui a sa maison couverte de vitre ne doit point jeter de pierre sur le toit d'autrui.
- Quien tiene su casa cubierta de vidrio, no tire piedras a la del vecino.
 - . *Ber' exea*: *x*-ren balioaz, cf. 45. *Bere*, *-e* bokalaren elisioarekin. Neurtitzetan bezala atsotitzetan ere badaki Oihenartek horrelakoak egiten: *hig' aite* (219), *et' arcolas* (262), *et' arno* (525), *erre-gal' adhi* (584), *hal' ere* (184, 561), *bad' ere* (98, 254, 619), *Est, ikaia* (sic, 164), *et' vzac* (584), *ber' exea* (92), *ber' exean* (626), *elgu' escontegueiac*, *dirat' esteiac* (521), *gur' andrea* (281), *bis' isan* (149); ikus, halaber, & *errekeitu* (45), & *abere* (114), & *es* (433)
 - . *da ducanac*: etena moldiztegiari zor zaio, seguruenera; *eduki* aditzaren forma guztietan bokal arteko *-d-* kontsonantea gorde egiten du Oihenartek.
 - . *espesa aurtic*: *aurtiki*-ren aditzoina; **ezan* laguntzailearen aginte aldia, *hura-hark*, ezezka emana (cf. 91).
 - . *berzerenera*: *bertze* / *berze* bitasunaz, cf. 68.
- Gaztelaniazko errefrau batek honela dio: *Quien tiene tejado de vidrio, no tire piedras al de su vecino*. Urkijok errefrau hau aipatzen du RS 18ren iruzkinean: *çagoquez exilic, ta ençun eztayçu guextoric*.

93. Bere nahizko gaitzik eztu nehork.

- On n'a guère de mal volontaire.
- Nadie sufre males deseados.

94. Bere nahiz eri denari nork bilha dezakeio osagarri?

- Qui se voudra mettre en peine de procurer la santé à celui qui est malade pour son plaisir?
- ¿Al enfermo a voluntad quién va a intentar curar?
 - . *bilha desaqueio*: **ezan* aditzaren *KE*-dun orainaldia, *hura-hari-hark*; “bila diezaioke”, “nor saia daiteke hari osasuna ematen?”. Ahalera izan arren, “nork egingo ote du?” gisako galdera enfati-koa adierazten du.

→ RS 514: “*Etorri vadaquic billaetà doan gacha gondu daquiala. Si te viene el daño que buscas prouecho te haga*”. Urkijok gaztelaniazko hau aipatzen du: *Iusto es el mal que viene, si lo busca el que lo tiene*.

95. Bere onak eztituena urrikari, gomenda bedi urte gaitzari.

- Celui qui ne plaint pas son bien se peut bien recommander au mauvais temps.
- Quien no tiene piedad con sus bienes, al mal año se encomiende.
 - . *estituena vrricari*: “arretaz zaintzen ez dituena”.
 - . *vrte*: hitz hau *vrte* idatzia ageri da maiz, “aspiraziorik” gabe (95, 308, 309, 468, 469, 470, 471, 524; IV, 7; VI, 2; XIX, 9), baina *vrthe* beti *Atsotitzen Urrhenkina*-n (674, 677, 678, 681, 681, 688) –behin *Vrthaur, urt + haur* (467)–. *Aurten*-en idazkeraz, cf. 56.

96. Bertzeren buruko zorria dakusa, eta ez bere lepoko xerria.

- Il voit un pou sur la tête d’autrui, et non pas les écrouelles de son cou.
- Ve el piojo en cabeza ajena y no las escrófulas de su propio cuello.
 - / Okoad 246: *Berzeren buruco barza agueri / guria [ç]orris igueri*. Azkuek (s. v. *bertze*) Zaraitzuko hau aipatzen du: *Bertzen barztzak ikusten ta bere zorriak ez*. “Ve las liendres de otros y no los propios piojos”.

97. Beso minduna, bulharrean; zango eria, ohatzean.

- Le bras malade, il le faut reposer sur la poitrine, et la jambe dans le lit.
- El brazo lastimado, en el pecho; la pierna enferma, en la cama.
 - . *Sango*: bigarren lerroaren hasieran maiuskulaz.

98. Beti zerbitzari leiala eta prestua hartzedun da, bad’ ere pagatua.

- Toujours un serviteur fidèle et diligent est créancier, encore que payé de sa solde.

- El servidor leal y diligente, aunque se le haya pagado, acreedor sigue siempre.
 - . *Beti*: *t* leherkaria aspiratua duela ageri da hitz hau maiz, *th* idatzia (322; XXV, 4) eta *Urrhenkina*-n (569, 570, 593, 599, 653, 692; IV, 6); beste askotan, ordea, *beti* idazten da (98, 426; I, 1, 6, 8; II, 5, 14; III, 3, 6; IV, 2, 3, 4; V, 7, 24; VI, 2; VII, 3; IX, 2; XV, 1; XVI, 2; XVII, 55, 98; XXI, 3). Bitasun hori ahoskerari berari dagokion zalantzari zor zaio beharbada edo, bestela, idazkera kontua da, hots, Oihenarten *bet*'i egon daiteke moldiztegian *beti* bilakatuaren azpian. *Beti ... da*, “izaten jarraitzen du”.
 - . *preftüa*: dieresia, *u* eta *a* bokal bi.
 - . *bad' ere*: hots, *bada ere*, *-a* bokalaren elisioa eginik (cf. 92).

99. Bide luzean, lastoa ere sorta soinean.

- En un long voyage, la paille même est à charge.
- En un viaje largo, hasta la paja es carga al hombro.
 - . *forta*: “zama”, “pisua”.

100. Bihia peitu den etzeko gauza guziak dira saltzeko.

- Tout est à vendre en la maison où la provision du grain manque.
- En la casa donde el grano falta, todas las cosas están en venta.
 - . *execo*: *x*-ren balioaz, cf. 45.
 - RS 287: *Hurunic estan esea / ezin liçate asea, ta vay gosea*. Urkijok *Donde no hay harina, todo es mohina* eta gaztelaniazko beste batzuk aipatzen ditu. Ondoko 171 ere “etxe hutsaz” mintzo da.

101. Bihotzaren behargile, mihia.

- La langue est l'ouvrière du cœur.
- Obrero del corazón *es* la lengua.
 - . *beharguile*: bihotzaren “beharra” edo “lana” egiten duena, hots, haren “interpretea”.
 - *Ex abundantia cordis os loquitur* esaera latinekoa gogorarazten du atsotitz honek, bihotzean eta gogoan zer darabilgun hartaz mintzo baikara gehienetan.

102. Bi jaberren horak, zarea gora.

- Le chien qui est à deux maîtres a sa mangeaille haut placée.
- Perro de dos amos, la escudilla en alto.

/ Bela 9: *Bi etchetaco horac, çaria gora.*

**103. Bizi adi ongi onareki,
eta ezadila alborota gaxtoareki.**

- Vis bien avec les gens de bien et ne te brouille pas avec les méchants.
- Vive bien con la gente buena, y no te enzarces con la mala.

. *Bizi adi*: -*ci*- grafiaz eta *bizi* erroko hitzen idazkeraz, cf. 6.

. *esadila alborota*: *alborotatu*-ren aditzoina; *adila*, **edin* laguntzailearen subjunktiboa, -(e)*la* atzizkiarekin, aginte balioa duela (cf. 91).

. *gaxtoarequi*: horrela ia beti, baina bitan *gaixto*- (121, 644; IX, 4). Erro horretako beste hitzak, berriz, *gaitz*- (*gaitz*, *gaitzetsi*, *gaitzi*, *gaitzkide*) edo *gaiz*- (*gaizki*, *gaizkintze*, *gaizkitze*) dira.

104. Bortxaz, eztuena zer jan, barurzale.

- Celui-là jeûne par force qui n'a rien à manger.
- A la fuerza, quien no tiene qué comer, es ayunador.

. *Bortxaz*: tradizioan *bortxa* da maizenik ageri den aldaera, baina ez dira falta *borxa*-ren agerpenak ere. Baliteke Oihenartek *borxa* idatzi izana, *Pouvreauk* eta beste zenbaitek inoiz egiten duten bezala, baina ez da baztertzekoa hark *borx**a idatzi eta moldiztegiaren puntua huts egin izana. Uste horri laguntzen diote tradizioko idazkera nagusiak eta ondoko Zalgizeren grafiak. Horixe hobetsi dugu guk ere (cf. 296; VI,3; VIII,5; XV,3; XXVI,1).

. *jan*: *j*- aldaera, *i*-ren lekuan.

→ Zalgize 39: *Bortchaz barurçale*. Urkijok gaztelaniazko hau aipatzen du: *Harto ayuna quien mal come.*

**105. Burua guriz duenari
eztagoka izatea labekari.**

- Il ne convient pas d'être fournier à celui qui a la tête faite de beurre.

- A quien tiene la cabeza de mantequilla, no le conviene ser fogonero.
 - . *Burüa*: dieresiak *u* hori bokala dela adierazten du; ez dela, alegia, [burba] irakurri behar, [bu-ru-a] baizik.
 - . *estagoca*: *dagoca*, *egon* aditzaren orainaldia, *hura-hari*, “ez dagokio”, “ez zaio komeni”.

106. Buruti hasten da arraina karatsen.

- C'est de la tête que le poisson commence à pourrir: *cela veut dire que la corruption vient d'ordinaire des chefs.*
- Por la cabeza empieza a pudrirse el pescado.
 - . *karatsen*: aditzoinaren buruan *-ts* edo *-tz* duten aditzen izenak eratzeko Oihenartek ez du beti *s-* + *-te* edo *z-* + *-te* egiten, zenbaitetan *ts-* + *-tze* edo *tz-* + *-tze* egiten du, Zuberoako eta inguruko jokabide bati jarraiki: *pitzera* (257), *pitzen* (401); ikus, halaber, *edertarazten* (650). Bestalde, *ts* + *tz* elkarketan, *ts* nagusitzen da (cf. *FHV* 350-351). Hortaz, bada, *karats-* + *-tzen* > *karatsen*. Ikus, halaber, *eracutsu* (XIV, 5; XV, 8), *sinhetsu* (XIV, 6).
 - Gizartearen usteltzea buruzagietan hasten dela ematen du aditzera atsotitz honek, frantses itzulpenean argi adierazten den moduan.

C et K ou QU

- . *C Et K ou qu*: *Et* maiuskualaz eta *qu* minuskulaz. Beste batzuetan euskaraz ematen du atalburuko oharra (*I consonanta*, 254; *I vocala*, 272; *S* edo *ç*, 417); hemen, ordea, frantsesez egiten du, liburuaren hasierako hitzaurrea eta hondarreko oharrak bezala.

107. Kanpoan urzo, etxean bele

- Il est gai comme une colombe hors de la maison, et triste comme un corbeau dans la maison.
- Fuera, paloma; en casa, cuervo.
 - . *vrso*: gure *urzo*. Tradizioan erabiliena den aldaera *uso* da, baina txistukariaren aurrean *-r-* dutenetan erabiliago da *urzo* (Arambillaga, Goyhetche, Archu, Belapeyre...) *vrso* baino.

- . *Exean*: maiuskula, bigarren zatiaren hasieran; x-ren balioaz, cf. 45.
- Kanpoan beti alai eta etxean, berriz, beti triste eta gogo txarrez dabilenaz mintzo da atsotitz hau. Guztiz ezaguna da eta aldaera asko ditu. RS 133, esate baterako: “*Atean vso echean ocsho / ala viciquidea gaso*. Fuera de casa paloma en casa lobo / tal manera de vivir malo”. Eta Isasti 10, horren berdina. Edo *Kanpoan uso, etxean otso* dioena. *Etsian otso kanpoan goso* dio Urkijoren ustez aurrekoaren azalpen denak. Duvoisinen hau era aipatzen du Urkijok: *Axegina kampoan utzi, Axekabea barnerat ekarri*, honako biarnotar honen parekoa dena: “*Gau de carrère, doulou d’oustau, joie sur la rue, douleur à la maison*”. Zalgize 142: *Campoan lilirita, / Etchian marguerita*. Gaztelaniazko errefracu judutar hau ere aipatzen du: *Alegría de plaza, nublina de casa*. Okoad 254: *Exian coroca, campoan / kordoca*. Hau da, “En casa clueca; fuera, movediza”. Esanahi bertsua du, azkenik, gaztelaniazko “*panderico de casa ajena*” esaerak ere.

108. Kastaz du erbiak lotsor izana

- C’est de race que la lièvre est peureux.
 - De raza le viene a la liebre ser miedosa.
- . *lozor*: dagoen dagoenean *lotsor* litzateke. Pentsa daiteke, ordea, z soila dagoen lekuan Oihenartek z* idatzi baina moldiztegian puntua huts egin zutela eta, hortaz, gure *ts* apikariari dagokiola. *Lotsa* + (*k*)*or* da hitz eratorri honen erabidea, “lotsa duena”, eta oinarrizko hitza *lotsa-* (304; VIII, 4) edo *lotsa-* (539; XXVI, 14) idazten du bestetan Oihenartek.
- Urkijo Esk: *De casta le viene al galgo...*

109. Koseilu kaparpeko, ager daite azkeneko.

- Un secret qu’on confie derrière le buisson ne laisse pas enfin de devenir public.
 - Secreto tras el zarzal, se hace público al final.
- . *Coseillu*: *konseilu*-k ez bezala, *koseilu* hitzak “sekretu” esan nahi du (cf. OEH, s.v. *kuxelu*). Ikusten denez, alboko palatala *ill* idazten da.
- . *caparpeco*: cf. 33.

- . *aguer daite*: **edin* laguntzailea, *KE*-dun orainaldia, gure “daiteke” formaren parekoa, “ager daiteke”, hau da, “agertzen da”.
- Bela 14: *Conseillua sappharpeco, guero ere aguerrizco*.

110. Kozina gizenegiak jabea du ahultzen, eta etxea aurritzen.

- La cuisine trop grasse amaigrit le maître et fait dépérir sa maison.
- La cocina demasiado abundante debilita al dueño y arruina la casa.
- . *guisen-eguiac*: modu desberdinetan idazten du Oihenartek -*egi* graduatzailea, lotuta (*goregui*, 202; *betheguis*, 511; *goisegui*, 519; *Ederreguia*, 571; *Onegui*, 659), marrarekin (*guisen-eguiac*, 110; *egon-egui*, 129) edo, bokalaren galera dela eta, apostrofoarekin (*gaiz'eguiqui*, VII, 6; ikus, halaber, *egui*’, XIII, 13); -*ago* eta -*en-en* idazkeraz, cf. 84 eta 131, hurrenez hurren.
- . *exea*: *x*-ren balioaz, cf. 45.
- . *aurritzen*: *aurri*, barnea pobrea duen etxea, gela-banaketarik gabea; hortaz, *aurritu*, ahuldu, pobretu, funditu (ik. *OEH*).

D

111. Desdixatuak eztu adiskiderik bere molsaz bertzerik.

- Le malheureux n’a point d’autre ami que sa bourse.
- El desdichado no tiene más amigos que su bolsa.
- . *Desdixatuac*: -*s*- txikiak gure *z* adierazten du Oihenarten sisteman eta, horren arabera, *dez*- irakurri beharko genuke; hemen, ordea, -*f*- luzearen lekuan dagoela dirudi. Leherkari baten aurrean dagoelako gertatu da aldaketa hori, beharbada, edo, bestela, *des*-morfemaren amaieran dagoelako. Beste agerpen batean, “behar bezala”, *desdixac* (115). Bestalde, *x* soila dagoen lekuan Oihenartek *x** idatzi baina moldiztegian puntua huts egin zutela pentsa daiteke eta, hortaz, *desdixatuak* irakurri behar dela. Hori iradokitzen du tradizioko idazkerak. Cf. *dixa* (113, 114, 115, 116; VII, 6).
- . *adiskideric*: *s* txikia *f* luzearen lekuan (cf. 82).

- . *molsas*: -s- txikia -f- luzearen lekuan kontsonantearen ondoan. Behin baino gehiagotan gertatzen da aldaketa hori txistukaria *l*, *n* edo *r* kontsonanteen ondoan dagoelarik: *onfa* (59) / *onsa* (251, 446, 504; IV, 11; XXVII, 2); *conseillu* (89, 447) / *conseilu* (488); *orstatu* (I, 2) / *orstatu* (XXVII, 3, 5); *es-ansia* (284), *pensazes* (I, 4).

**112. Dituen ontarzunegati
onhetsak adiskidea,
eta ez utz opho gutigati,
zeren dik nork berea.**

- Chéris ton ami par les bonnes qualités qu'il a, et ne l'abandonne pas pour quelque petit défaut, car chacun a le sien.
- Quiere a *tu* amigo
por sus cualidades,
y no lo abandones por un simple defecto,
que, *defecto*, cada cual tiene el suyo.

- . *Dituen*: dieresiak *u* hori bokal silabagilea dela ziurtatzen du.
- . *ontarsunegati*: *on(h)arzun* / *ontarzun* bitasunaz, cf. 364.
- . *onhetsak*: *onhetsi* aditzaren aginte aldia, *hura- hik*, “maita ezak”.
- . *op`o*: *ph* aspiratua, Oihenarten sistemako espiritu sendoa ageri den kasuetako bat.

113. Ditzak bila nezatela ziotsak.

- La fortune veut qu'on la recherche.
- La fortuna dice: “que me busquen”.
- . *Dixac*: Oihenartek *x** idatzi eta moldiztegian puntua huts egin zute-la pentsa daiteke (cf. 111).
- . *bila nesatela*: *bila-* erroko hitzak aspirazioarekin ageri dira 9 aldiz, *bilha-* idatzita (89, 94, 133, 352, 439, 606, 645; IV, 8; XXVI, 25), *bila-*, berriz, hirutan (113; XII, 1; XX, 20). Idazlearen zalantza islatzen du, beharbada, bitasun horrek. Ez da baztertzekoa, ordea, *bil`a* idazkera izatea azpian azken hiru kasuetako batean edo bestean. Eta *nesatela*, **ezan* laguntzailearen orainaldia -e-morfema duelarik, Oihenartenean maiz ohi den bezala, “bila nazatela”.

. *siotsac*: *io erroko orainaldia, *hura-bark*, *dio* soilaren pareko hikako alokutiboa “esaten dik”.

**114. Ditxa duenak alga et’ abere,
eztuenak ez lasto ere.**

- Celui qui a bon heur a fourrage et bétail, et à celui qui n’en a point la paille même manque.
- Quien tiene fortuna *tiene* forraje y ganado; quien no la tiene, ni paja *posee*.

. *Dixa*: *x*-ren balioaz, cf. 113.

. *duënac ... estuënac*: *u* bokal silabagilea adierazten duen dieresia ondo-ko bokalaren gainean ipinia, beste zenbaitetan bezala (cf. 40).

. & *abere*: *et* adierazteko erabiltzen bide da & grafia hori (cf. 45). Horrela izanik, ikusten da *eta*-ren amaierako *a* eliditu duela Oihenartek *eta* horrelakoetan apostrofoa erabiltzen duenez (cf. 92), pentsatzekoa da hemen ere *et’ abere* irakurri behar dela.

→ Zalgize 97: “*Ditcha duianac Albera, / Eztuinac beguira / edo / Ditcha duianac abere / Eztuianac ez batere*. El afortunado posee ganado (?); el desdichado le mira, o El que tiene dicha [tiene] ganado; el que no la tiene, no tiene nada”.

**115. Ditzak bi aurhide,
on eta adiskide;
desditzak oboro,
diren gaitzak oro.**

- La bonne fortune a deux sœurs, l’abondance de biens et la multitude d’amis; mais la mauvaise en a beaucoup plus, c’est à savoir toutes les calamités imaginables.
- La buena fortuna *tiene* dos hermanas: *la abundancia* de bienes y *la multitud* de amistades; la mala fortuna *tiene* aún más: todos los males que *en el mundo* existen.

. *Dixac ... desdixac*: *x*-ren balioaz, cf. 111 eta 113.

. *on eta adiskide*: mugagabea, “on” eta “adiskideen” ugaritasuna adieraziz.

**116. Ditxa onak, nola baita bera itsu,
hari darraizkonak itsutzen ditu.**

- La bonne fortune, comme elle est aveugle elle-même, rend aveugles tous ceux qui la suivent.
- La buena fortuna, como ella misma es ciega, vuelve ciegos a los que la persiguen.

. *Dixa*: x-ren balioaz, cf. 113.

. *darraisconac*: *jarraitu* aditzaren orainaldia, *baiek-hari*, -z- pluralgilea duelarik (ik. 16); erlatiboan, “jarrai(ki)tzen zaizkionak”.

117. Dohakaitzdunak Zizurren iluna.

- Le malheureux est surpris de la nuit à Zizur. *Zizur est un petit village à trois-quarts de lieue de Pampelune, cité principale du royaume de Navarre.*
- Al desgraciado la noche *le pillá* en Zizur.

. *Dohacaiz-dunac*: hemen eta *capaxar-duna* (265) marrarekin, baina *eskerdunari* (154), *oihaldun* (281), *senhardun* (286) lotua.

. *illuna*: *illuna* hemen, baina *ilhu[netan]* (439); eta *ilumbeco* (276), baina *ilhumbe-* (X, 7; XVII, 7).

→ Ez da erraz asmatzen atsotitz honen esanahia. Haritschelhar (1989: 552): “Zer esan nahi du atsotitz honek? Jalgi dela Iruñetik ibil-karia, hobe zuela hirian egonik eta ez kanpoan izan, bideak ez zirelaketz segurak bereziki gauaz?...” Frantses itzulpenaren arabera, ordea, pentsa daiteke Iruñetik jalgi den bidaztiz ez, baina Iruñera doanaz ari dela atsotitza: helmugara iristear dagoela harrapatzen du gauak! Zoritzarrekoari ere horrelatsu gertatzen zaio beti: zorionaren ateetan geratzen dela.

118. Dohain emana zerbait hoberen eske dago.

- Un présent donné attend quelque chose de meilleur *en récompense*.
- Cosa regalada espera mejor recompensa.

. *Dohain-emana*: hitz elkartutzat duenez, marrarekin idatzi du Oihenartek.

. *serbait hoberen*: *zerbait*-en ondoan denez, *hobe* adjektiboa mugagabea da (*zerbait hobe*, alegia, ez *zerbait hobe*).

119. Domingo, egik emazte, atzi lo, berak iratzar iro.

- Dominique, prends une femme, et après dors tant que tu voudras, car elle aura assez de soin de t'éveiller.
- Domingo, cástate y échate a dormir, que tu mujer se encargará de despertarte.
 - . *emafste*: -ft- grafia -st-ren lekuan. Hitz hau s txikiarekin ageri da maiz, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan: *emaste*- (42, 136, 137, 165, 193, 225, 286, 356, 357, 465, 484, 500, 525, 561, 579; XVII, 27, 87; XVIII, 16); baina f luzearekin ere ageri da batzuetan: *emafste*- (119, 135, 184).
 - . *azi*: *etzin* (*etzan*) aditzaren aginte aldia, *hi*, “etzan hadi”.
 - . *iratzar iro*: **iro* ahalezkoa, orainaldia, etorkizuneko esanahiaz, *hihark*, ohikoa denez *h*-rik gabe, “iratzar hazake”, hots, “iratzarriko hau”.
 - Berdintsua Zalgize 158, baina honek *hiro* dio, aspirazioa erantsiz bigarren pertsonako adizkiari (cf. 7).

120. Duenak, azer biper.

- Il n’y a que celui qui en a qui mette du poivre sur les choux *de son potage*.
- El que la tiene *echa* pimienta a las berzas.
 - Zalgize 8: *Duianac hacer*, / *Bipher*. Urkijok oker itzultzen du: “El que tiene berza, pimienta”. Aipatzen du, hala ere, Azkuek bestela ulertzen duela, *duenak* hitzaren ondoan koma ipiniz. Komarena gorabehera, zuzenago da Azkueren itzulpena: “el que lo tiene, echa pimienta a las berzas”. Honen antzekoa omen da gaztelaniazko hau: *Quien tiene lo gasta*.

121. Dupina, emendatuz gaixtotzen da.

- L’augment d’eau gâte le potage.
- El cocido, añadiéndole *agua* se estropea.
 - . *Dupina*: “eltzea” da, baina hemen, frantses itzulpenak erakusten duenez, tupinaren barnean dagoena adierazten da, hots, “eltzekaria”.
 - . *gaixtozen*: *gaixto*- (121, 644; IX, 4); gainerako agerpen guztietan *gaxto*-.

E

122. Eder, auher.

- La belle est *d'ordinaire* fainéante.

- La hermosa, perezosa.

. *Eder*: euskal adjektiboak ez du generorik eta, hortaz, *eder* berdin da “el hermoso / la hermosa / lo hermoso”. Gaztelaniazko itzulpenarako Oihenarten frantses bertsioa izan dugu gidari, “la belle” baitio hark, femeninoan.

. *auher*: gainerako agerpen guztietan *alfer* aldaera erabiltzen du Oihenartek (185, 189, 194, 200, 281, 297, 301, 544, 552, 623) eta *alferretan* (XVIII, 5).

→ Zalgize 140: “*Eder, Auher*. [La] hermosa perezosa”. Eta Garibay B 4: “Porque los hombres muy galanos, y joyosos en sus personas, son comunmente ociosos, dizen: Hombre muy mucho hermoso, Por la mayor parte valdio y ocioso. *Guiçon utra ederra. Gueiaenean alperra*”.

123. Edozein xoriri eder bere habia.

- A chaque oiseau son nid paraît beau.
- A todo pájaro su nido *le parece* hermoso.

→ Urkijo Esk: *A chacun oiseau son nid semble beau* (Le Roux de Lincy, I, 122). Cf. 372.

124. Egik bathi, goitzeagati.

- *Souffre* et aie patience, afin de vaincre.
- Ten paciencia, para ganar.

. *bat`i: t`* espirituduna ageri den kasu gutxietako bat. *Bathi egin*, “decidirse, resolverse; perseverar, tener paciencia” (OEH). Beraz, izan daiteke “decídet” edo “decídelo” ere (ik. Etxep. I,285).

. *goizeagati*: “*Goizea, S. Vaincre, moderer vne douleur ou passion*” (ADIGARRIA).

125. Eginak eztu eginkizunik.

- Ce qui est fait n'a plus besoin d'être fait.
- Lo hecho no está por hacer.

**126. Egurra dagienak leku gaitzean,
ekarri beharko du soinean.**

- Celui qui a fait son bois de chauffage en un mauvais endroit est obligé de le charrier sur ses épaules.
- Quien hace leña en ruin lugar, a cuestras la habrá de llevar.

. *leku*: hitz honen leherkaria aspiraziorik gabe ageri da beti Oihenartenean.

. *Ekarri*: bigarren lerroaren hasieran maiuskula; -*k*- leherkariaren aspirazioaz, cf. 26.

→ Zalgize 152: "*Leku gaitcian egur daguianac / soinez ekarri behar*. El que hace leña en lugar escabroso deberá llevarla á cuestras".
Gaztelaniazko bi atsotitz hauek aipatzen ditu Urkijok: *Quien hace leña en ruin lugar, á cuestras la ha de sacar* eta *Quien en ruin lugar planta viña, á cuestras saca la vendimia*.

127. Ehun zaldik ehun zaltoki behar.

- A cent chevaux il faut cent selles.
- Cien caballos cien monturas necesitan.

. *saltoqui*: "selles" (cf. 422).

→ Zalgize 43: "*Ehun çaldic ehun cela behar du*. Cien caballos, necesitan cien sillas".

128. Eihera hon da dabileno, eta ez geldirik dagoeno.

- Le moulin est bon tandis que la meule se remue, et non tandis qu'elle ne bouge.
- El molino es bueno mientras funciona, no mientras está parado.

. *hon*: erro honetako hitzen aldaerez, cf. 24.

. *dabileno*: orainaldiko formak noiz *da*- noiz *de*- ageri dira (cf. 13).

**129. Eiheran dadinak egonegi
bidean laster begi.**

- Celui qui a trop tardé au moulin doit courir en chemin.
- Quien se demora en el molino, corra en el camino.
 - . *dadinak egon-egui*: -egi graduatzailea marrarekin (cf. 110). Hemen, egon aditzoinari erantsia: *egon dadinak > egonegi dadinak*, “gehiegi luzatzen denak”. Adizkiaz, cf. 88.
 - . *begui*: *egin* aditzaren aginte aldia, *hura-hark*, “egin beza laster”.
 - Zalgize 93: “*Eyheran berant deçanac vidian / laster*. El que se ha retrasado en el molino, deprisa en el camino”.

**130. Elhurra, bere aroan, asegarri;
hanti kanpoan gosegarri.**

- La neige qui tombe en sa saison est capable de nous saouler de grain, et si c’est hors de saison de nous donner la faim.
- La nieve, en su tiempo, satisface; fuera de él, trae hambre.

**131. Elizaren hurrenena,
aldarearen urrunena.**

- Le plus proche de l’église est le plus éloigné de l’autel.
- El más cercano a la iglesia, es el más alejado del altar.
 - . *hurren-ena ... urrun-ena*: -en graduatzailea, marrarekin (cf., lotuta, 311); -ago eta -egi graduatzaileen idazkeraz, cf. 84 eta 110, hurrenez hurren.
 - . *Aldarearen*: bigarren lerroaren hasieran maiuskulaz.
 - Bela 19: *Eliçatic hurranena, pharadusutic urrunena*. Urkijo Esk: *Qui est près de l’église est loing de Dieu* (Le Roux de Lincy, I, 15).

132. Emak buruti, dukek errada.

- Baille comble, tu ne recouvreras que ras.
- Da sobrado, recibirás lo justo.
 - . *duquec*: **edun* aditzaren *KE*-dun forma, geroa adierazten duena, *hura-bik*, “izango duk” (cf. 7, forma bera, baina alokutiboa).

. *errada*: “Estado del contenido de una cosa bien llena pero sin colmar, al ras; justa medida” (*OEH*, s.v. *arrada*).

133. Emak zaretaz, bilha eztirok ahurretaz.

- Baille à plein panier, et tu ne pourras recouvrer qu’à poignées.
- Da a cestos y no recogerás a puñados.

. *bilha estiroc*: -*ft*- grafia -*st*-ren lekuan (cf. 88); *dirok*, **iro* ahalezkoa-ren orainaldia, etorkizuneko esanahiaz, *hura-hik*, “ez duk bilduko”. Frantses itzulpena ez dator bat, itxuraz, euskarazko testuarekin.

→ Okoad 237: “*Eman eçac bi escuez / bilha estiroc bi belhañez*. Da con las dos manos y no recogerás con las dos rodillas”.

134. Emaitzak hausten tu haitzak.

- Les présents brisent les rocs.
- La dádiva quebranta peñas.

. *hausten tu*: cf. 1.

135. Emaztea har dezana handitarik eztate etxean grina gabetarik.

- Celui qui prend femme de grande maison ne sera pas sans noise dans sa maison.
- A quien tome mujer de gente principal, inquietudes en casa no le han de faltar.

. *Emaztea*: -*ft*- grafia -*st*-ren lekuan (cf. 119).

. *har desana*: **ezan* laguntzailea, “subjuntiboko” orainaldia, erlatiboa, “hartzten duena”.

. *han ditarik*: bereiz, errata.

. *estate*: *date*, *izan* aditzaren forma, batuko *dateke*-ren parekoa (cf. 524), geroa adierazten duena, “ez da izango”.

. *exean*: *x*-ren balioaz, cf. 45.

. *grina*: pentsa daiteke *n* letrak galdu egin duela, beharbada, gaineko puntua eta *n*°, hau da, *ñ* irakurri behar dela; ez da, ordea, seguru, tradizioan bietako adibideak ageri baitira.

- Garibay B 14: “Por las mugeres hermosas, que comunmente son rixosas, dicen: Muger hermosa, Casa en guerra. *Andre ederra, Ese-an guerra*”. RS 131 ere berdintu. Honen iruzkinean Urkijok: “Es el primer término del refrán castellano: *Al que tiene muger hermosa, o castillo en frontera, o viña en carrera, nunca le falta guerra*”. Cf. 579.

136. Emaztea hartzen duenak ezkontsari hutsagati, biharamuna du dolu eguna, gaitz darraikonagati.

- Celui qui choisit sa femme par la seule considération de sa dot, s'en repent dès le lendemain à cause du mal qui lui en revient.
- Quien toma mujer sólo por la dote, al día siguiente se arrepiente, por el mal que le viene.

. *escont-/sari*: marra lerroaren amaieran dago eta ez dirudi elkarketa-
ren hitzak bereizteko ipinia denik. Esanahiari dagokionez,
Txillardegik “sexo-eskubideak” dela dio, baina frantses itzulpe-
nak “dot” dio eta “dote de matrimonio” *OEH*-k.

. *dolu-eguna*: marrarekin.

. *darraiconagati*: *jarraitu*-ren orainaldia, *hura-hari*; *-(e) nagati*, erlati-
boa motibatiboko postposizioarekin, *gaitz* izen ardatzaren
eskuinean, “gaitz jarraitzen zaionagatik”, hots, “jarraitzen zaion
gaitzagatik”.

- Urkijo Esk: *Fol et hors de sens, qui femme prend pour son argent*
(Le Roux de Lincy, I, 155).

137. Emaztearen gaitzez xikira zedina adarreki ehortz zedin.

Refrau haur athera da Ilhartitz edo Epitafio bontaric:

**Heben dago, ber' adarreki, etzina,
emaztearen gaitzez xikira zedina.**

- Celui qui se fit châtrer par dépit de sa femme fut enterré avec les cornes.
Ce proverbe est tiré de cet Epitaphe:
Ci gît avec ses cornes le pauvre corps sans âme
D'un qui se fit châtrer pour déplaire à sa femme.
- Quien se hizo castrar por despecho de su mujer, con cuernos fue ente-
rrado.
Este refrán se ha sacado de esta inscripción funeraria o epitafio:
Aquí yace con sus cuernos, enterrado,
quien por despecho de su mujer se hizo castrar.

- . *Emastearen gaizes*: genitiboa bitara uler daiteke, “emazteak hura gaitzesten duelako” edo “hark emaztea gaitzesten duelako”. Itzulpenean bitasuna gordetzen saiatu gara.
- . *xikira sedina*: **edin* laguntzailea, iragana (cf. 8), erlatiboan, “zikiratu zena”.
- . *ehorz sedin*: *ehortzi*-ren aditzoina eta **edin* laguntzailea, aurrekoa bezala, “ehortzi zen”, hots, “ehortzia izan zen”.
- . *at`era*: leherkari aspiratua espirituaren bidez adierazia, Oihenarten sistemak eskatzen duen bezala; bestetan *atera* (366, 373; XVII, 8) edo, *Atsotitzen Urrhenkina*-n, *athera* (686, 701).
- . *Ilhartiz: ilarri + hitz*, “hilarriko hitza” (cf. XXIX, tit.).
- . *ber` adarequi*: apostrofoak *e*-ren elisioa adierazten du; *-r*- bakunarekin, *-rr-* / *-r-* zalantzaren lekuko, baina *rr* azkarra zor zaiola dirudi, aurreko esaldian bezala.
- . *emastearen*: *-st-* grafia *-st-*ren lekuan (cf. 135).
→ Haritschelhar (1994: 280): “Epitafioak, bere errimarekin, erakusten du frantsesetik datorrela”.

138. Emerdi oro, zoro.

- Toute accouchée est vaine⁶⁰.
- Todas las recién paridas están entontecidas.
→ Zalgize 37: *Ema erdi oro*, / *Çoro*. Urkijok, oker, *Ama erdi* irakurtzen du eta honela itzultzen: “Todas las madrastras, locas”.

139. Eneko, atxeka hi hartzari, nik demadan ihesari.

- Eneko, saisis-toi de l’ours, afin que j’aie moyen de fuir.
- Eneko, agarra tú al oso, para que yo pueda escapar.
. *axeca*: *etxe*ki aditzaren tradizioa eta testuetako lekukotasuna ikusiz, pentsa daiteke hemen ere Oihenartek *ax`eca*, hau da, gure *atxeka*, idatzi eta moldiztegian puntua galdu zela (cf. 53). *Atxiki* aditzaren aginte aldia, *hari-bi*, “atxik hakio”, “eutsi iezaiok”.
- . *demadan*: *eman* aditzaren “subjuntiboko” orainaldia, *hura-nik*, *ibesari* datiboarekiko komuntzadura egin gabe, “eman dezadan”.

⁶⁰ Zenbakia oker frantses itzulpenean: 158.

→ RS 422: “*Ausso Chordon arz orri / ta nic yñes dayda*. Ten Hordoño a esse Osso / y yo hare huyda”. Urkijoren ustez, “estos dos refranes se dijeron para censurar a quien, en casos peligrosos o difíciles trata de ponerse a salvo, actuando de capitán Araña”. Garibay A26: “Por los que en las cosas de riesgo y afrenta quieren hurtar el cuerpo salvo, metiendo a otros en ellas, dicen: *Ausbo* (sic) *Perucho Vrdeorri, eta neuc iesdaguidan*. Tenta Perucho el Puerco e yo huyere”. Txinako ipuin batekin lotzen ditu Urkijok atsotitz hauek guztiak (1916: 260).

**140. Enganazalea enganatu duenari,
eman bekio ez pena, bana sari.**

- Celui qui trompe le trompeur mérite plutôt salaire que peine.
- A quien ha engañado al engañador, désele no pena, sino premio.

→ Urkijo Esk: *Qui trompe le trompeur et robbe le larron / Gaigne cent jours de vrai perdon* (Le Roux de Lincy, II, 312). *Quien roba al ladrón, cien años de perdón*. Cf. 354.

**141. Erakuts itzatak eure lagunak,
nik gero hiri eure atunak.**

- Montre-mois tes camarades, et je te dirai tes habitudes *ou mœurs*.
- Muéstrame tus compañeros, yo *te mostraré* luego tus costumbres.
 - . *Eracuts izatac*: **ezan* laguntzailea, aginte aldia, *haiek-niri-bik*, “erakutsiezazkidak”.
 - . *eure*: izenordain bihurkaria, *h*-rik gabe, baina *hiri h*-rekin, ohi bezala.
 - . *atu nac* (sic): Francisque-Michelen edizioan *atu`nac*, hau da, *athunak*. Beraz, Oihenartek beharbada *atu`nac* idatzi zuen, leherkaria aspiratua duena. Gainerako agerpenetan espiriturik eta *h*-rik gabe ageri da hitza (II, 16; XVII, 5; ADIGARRIA).

→ Urkijo Esk: *Dime con quién andas y te diré quién eres*. Cf. 149.

**142. Ergela maiz engana daite,
zuhurra behin beizi eztaite.**

- Il n’appartient qu’à un sot d’être trompé plusieurs fois; le sage ne peut l’êt[r]e qu’une fois.

- Al necio muchas veces se le puede engañar, al prudente una vez nada más.
 - . *Erguela*: *ergel-* (hemen eta 580), *ergeltarzun* (143), baina *elger-* (194).
 - . *engana daite*: **edin* laguntzailea, orainaldia, *KE*-duna, “engaina daiteke”.
 - . *Suburra*: bigarren lerroaren hasieran maiuzkulaz. *S-* maiuskula *z-* irakurri dugu, hori baita hitz horren ohiko idazkera: *subur-* (145, 205, 350, 420, 524, 537, 581, 597, 617, 626; XIII, 4; XX, 7, 18; eta *Subur*, *Z-z* hasten diren atsotitzen multzoan, 534), nahiz behin *subur-* (144).
 - . *beisi*: hemen eta V, 1; gainerakoetan *bai-* (cf. 6).
 - . *estaite*: aurreko perpauseko aditzoin bera, “ez daiteke (engaina)”.

143. Ergeltarzuna da sendo eztaiteen elharzuna.

- La sottise est un mal incurable.
- La necedad es enfermedad incurable.
 - . *sendo estaiteen*: **edin* laguntzailea, orainaldia, *KE*-duna, erlatiboan, “senda ez daitekeen”; *sendo-* (143, 614; IX, 33; XIV, 4; XVII, 112) eta *senda-* (XXI, 1) edo *senta-* (XVII, 38) aldaerak darabil-tza Oihenartek.
 - . *elharsuna* hemen, baina *eri-* (94, 97, 237, 614; XVI, 3; XVII, 61; XXIV, 1).

144. Erhoaren sinestea, zuhur ustea.

- Le fol croit être sage.
- La creencia del necio: considerarse sabio.
 - . *finestea*: *n* kontsonantearen ondoko aspiraziorik gabe. Bitara idazten dira erro honetako hitzak: *sinhestea* (389), *finhez* (22), *sinhets* (373), *sinhetji* (191; XI, 1), *sinhetju* (XIV, 6) eta *sinhetsac* (XVIII, 2), aspirazioa adierazten duen *h-*arekin; baina *finestea* (144, 205, 523), *finets* (233) eta *sinetsiric* (IV, 3), horrelako adierazpenik gabe. Azken hauetan Oihenartek aspirazioa markatzeko proposatu zuen `espirtua moldiztegian “galdu zela” pentsatu behar ote da? Litekeena da, noski, baina ez da seguru, bestela ere zalantza ugari baitago tradizioan aspirazioaren gorabehera honetan.
 - . *subur*: *f-* luzea hitz hasieran, *s-* txikiaren lekuan (cf. 142).

. *vstea*: -*st*- grafia -*ft*-ren lekuan. Hitz hau normalean *vste*- idazten da, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (190, 475, 523, 705, 705; XV, 2, 6; XVI, 6; XVII, 13, 17, 39; XX, 22; XXII, 6; XXIII, 2; XXVI, 16), baina *vste*-, *s* txikiarekin (144, 241; IV, 4; VI, 6; VIII,4).

145. Erho bat aski da harri kantoin baten putzura egozteko, bana sei zuhur behar dira haren hantik itoiteko.

- Il ne faut q'un fol pour faire choir un quartier de pierre dans un puits; mais il faut six sages pour l'en tirer.
- Basta un loco para echar un bloque de piedra al pozo, pero se necesitan seis cuerdos para sacarlo de allí.

. *Erbobat*: *bat* loturik (cf. 6).

. *aski*: -*sk*- grafia -*fk*-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 74).

. *harricantoin*-/*baten*: dena loturik, baita *bat* determinatzailea ere.

. *itoiteco*: *idoki*-ren aditz izena *itoite* forma hartuta hemen (cf. X, 14; ADIGARRIA: “*Itoitea*, S. Tirer de quelque lieu, *extrahere*, en Latin”), baina *idokiten* (XI, 4) eta *idoki*- (IX, 5; XIII, 10); *zedokan* forma jokatua (172) (cf. OEH, s.v. *idoki*).

146. Erle joan-nahiak, ez ezti, ez breska.

- L'abeille qui a envie de quitter sa ruche ne fait ni miel ni bournal.
- La abeja deseosa de partir, ni miel ni panal.

. *ioan-nahiac*: adjektiboa.

. *bresca*: *abaraska*-ren aldaera (cf. OEH).

→ Berdina da Zalgize 100, Urkijok honela itzultzen duena: “La abeja aficionada a pasarse, ni miel, ni panal”. Isasti 31: “*Erle joanac eztiric ez*. La aueja ida, la miel perdida”. RS 5en bigarren zatia ere hauen antzekoa da: “*Arri ebil oquiac oroldiric ez / erle vçatnac abaaric ez*. No tiene moho la piedra mouediza / ni haze panal la aueja espātadiza”.

147. Eroria, borrokara.

- Celui qui est abattu *demande encore* à lutter.
- El caído, a la pelea.

- Zalgize 177 berdin. Urkijok itzultzen du: “El caído, luchador”.
Haritschelhar (1991: 190): “(...) qui met, semble-t-il, en relief la ténacité de l’homme qui a perdu une bataille mais n’a pas perdu la guerre”.

148. Errak egia, urka aite.

- Dis la vérité, et tu seras pendu.
- Dí la verdad y serás ahorcado.

. *vrka aite*: **edin* laguntzailearen *KE*-dun orainaldia, gure “haiteke” formaren parekoa, etorkizuneko esanahiaz, “urkatuko haiz”.
Urka- erroko hitzak leherkaria aspiratua dutela ageri dira maiz Iparraldeko tradizioan, baina ez beti. Oihenartek *vrka*- (148, 181, 644, 644, 657; XXII, 5), *vrca*- (395, 459, 478), baina behin, *Atsotitzen Urrhenkina*-n, *vrkha* (681). Pentsa daiteke, bada, haietako batzuetan ere *k`* edo *c`* idatzi zuela beharbada Oihenartek, aspiratua adieraziz, eta espiritua moldiztegian “galdu” zela, baina ez da segurua (cf. 1).

149. Erradak noreki biz’ izan; nik hiri, gero, nolako izan.

- Dis-moi avec qui tu te plais, et je te dirai, après, qui tu es.
- Dime con quién vives; yo te *diré*, luego, cómo eres.

. *bis’ isan*: *bizi*-ren amaierako *-i* eliditua (cf. 92); *bizi* erroko hitzen idazkeraz, cf. 6; *bizi iz*, ondotik zehargalderetako *-(e)n* atzizkia duela, “(noreki) *bizi* haizen”.

. *isan*: zehargaldera, aurrekoa bezala, “(nolako) haizen”.

→ Partez gogorarazten du atsotitz honek RS 200: *Iaquindunen artean dabilena / jaquindun*. Cf. 141.

150. Erratzago da hartua uzteko, ezi ez utzia berriz hartzeko.

- Il est plus aisé de quitter ce qu’on tient, que de reprendre ce qu’on a quitté.
- Es más fácil dejar lo tomado que recuperar lo dejado.

. *Errazago*: cf. 18.

. *esies* lotua idazten da maiz: *esies* (150, 243, 245, 292, 362, 397, 523, 649), *ecies* (625, 626); baina bereiz: *esi es* (161, 246) *eci ez* (624), *eci es* (IX, 3). *Ezen ez*, aldiz, lotua idazten du beti (cf. 84).

151. Erroiak beleari burubelz.

- Le corbeau reproche à la corneille la noirceur de la tête.
- El cuervo a la corneja: “cabeza-negra”.

. *Erroiac beleari*: biak mota bertsuokoak izan arren, *erroia* baino txikia-goia bide da *belea*.

→ RS 464: “*Erroyac miqueari vz pelça*. El cuervo a la picaça del todo negra”. Hauen antzeko errefrau asko aipatzen ditu Urkijok: *Zozoak beleari burubels*. *Zozuak beliari ipur-baltz*. *Zorok beleari ipur beltza: üntzak bilagarroari burubandi*. *Astoac esan leio mandoari, quen aquit ortic belarri*. *Topinac galdariari, ipur baltz...* Ikus Zalgize 129: *Norc nori*, / *Hunçac biligarroari*.

152. Erroia haz ezak, begiak dedetzak.

- Nourris le corbeau, il te crèvera les yeux.
- Cría un cuervo y te arrancará los ojos.

. *dedezac*: *edeki* aditzaren orainaldia, *haiek-hiri-hark* (-*d*)e- orainaldiko morfema; -*de(k)*-, erroa; -*tza*-, “haiek” pluralgilea; -*k*, hiri; Ø, “hark”); formaz orainaldikoa izan arren, inguruak etorkizuneko esanahia ematen dio, frantses itzulpenak erakusten duen moduan, “kentzen dizkik”, hau da, “kenduko dizkik” (Lafon 1949: 443). Ikus aditz bereko *dedetezu*, “kentzen diezu” (XX, 6).

→ *Notitia*-n aipatua zuen jadanik atsotitz hau Oihenartek, espainol “itzulpenarekin” batera: *Cria, coruo, sacar te ha el ojo*. Euskarazkoa “poëticus numeris cum singulari quodam lepore & venustate concepta” omen da eta espainolez, berriz, “soluta oratione non multum eleganti” itzulia (cf. 1. Liburua, XIII. kapitulu). RS 136: “*Az ezac eroya, diratan beguia / ta mutil guextoac / quendu deyque arguia*. Cría al cuervo, sacarteha el ojo, / y quitar te ha la luz / el mal moço”. Urkijoren ustez, errefrau bi daude hemen loturik. Eta eransten du: “En H. Nuñez se encuentra el correspondiente castellano: *Cria corvo y sacar te ha el ojo*.”

Explica que los beneficios hechos á ingratos les sirven de armas para pagar con el mal el bien”. Oko id 283: “*Otsoa haz eçac berac / jan ezan*. Al(ite)r. *Otsoa haz neçan berac jan nen[ç]an*. Cría el lobo, para que él te coma; Crié el lobo, (y) él me comió”. Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du, euskarazkoaren errimari ez badu ere: *Neurit courbax, / que-b'tireran los oueilhs* (1911: 455).

153. Ezakusan begik nigar eztegitik.

- L'œil qui ne te voit pas ne te pleurera pas.
- Ojo que no te ve, no te llorará.
 - . *Esacuffan*: *akusa, ikusi* aditzaren orainaldia, *hi-hark, h-rik* gabe, ohi bezala, erlatiboan, “ikusten ez hauen”.
 - . *esteguiç*: *degik, egin* aditzaren orainaldia, *hura-hiri-hark*; orainaldia da formaz, baina inguruak etorkizuneko esanahia eransten dio, frantses itzulpenak erakusten duen moduan, “ez dik egiten”, hau da, “ez dik egingo” (Lafon 1949: 443).
 - › Zalgize 57: “*Eztacussan beguiç, ez nigarric*. Ojo que no ve no llora”. Urkijok gaztelaniazko hau aipatzen du: *Ojos que no ven, corazón que no llora, quiebra, ó siente*. Nigarraren lekuan ahalgea aipatzen du Okoad 209k: *Begui hersiac abalgueric* ez. Eta berdin Zalgize 59k ere: *Eztacussan beguiç, ez abalgue[r]ic*.

154. Eskerdunari, mukurru izari.

- A celui qui est reconnaissant, faut donner la mesure comble.
- Para el agradecido, la medida *ha de ser* abundante.

155. Ezkonteguna, aise izanaren biharamuna.

- Le jour auquel on se marie est le lendemain du bon temps.
- El día de la boda es el ‘día después’ de la buena vida.
 - . *Escont-eguna*: marrarekin eta -fc- grafia -sc-ren lekuan, bizkarkaria adierazteko. Erro honetako hitzak normalean *escon-*, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (16, 17, 17, 18, 136,

350, 351, 467, 675; VI, 5, 5; XVII, tit.; *ADIGARRIA*; XXVI, 25),
baina *efcon-* (155, 156)⁶¹.

→ Haritschelhar (1994: 276): “Lehenago ez ziren ezkontzak egiten elgar maitatzen zutelakoan. Ez ziren hain usu amodiozko ezkontzak eta gehienetan ez zeukaten biharamun goxorik”. Cf. 467.

156. Ezkontze zaharraz eztei berri egitea.

- Faire nouvelles noces d’un vieux mariage.
 - Hacer nueva boda de un viejo matrimonio.
 - . *Efconze*: *-fc-* grafia *-sc-*ren lekuan (cf. 155).
 - . *estei*: *-ft-* grafia *-st-*ren lekuan, bizkarkaria adierazteko. Hemen horrela, baina besteetan *estei-*, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (521, 530).
- Cf. 368.

157. Esku batak dikhuzke bertzea, biek begitartea.

- L’une main lave l’autre, et les deux lavent le visage.
 - Una mano lava la otra; ambas, la cara.
 - . *dicu`ske*: *ikuzi* aditzaren *KE-*dun orainaldia, “ikuzten du”; ez da ohi-koa aspirazioa agertzea forma jokatu hauetan, baina hemen hala ageri da, espiritua kontsonantearen ondoko bokalaren segidan delarik. Bitan ageri da aditz hau forma jokatu gabeetan eta bietan aspirazioa adierazi gabe: *ikus* (556; XXII, 2).
- Urkijo Esk: *Une main lave l’autre* (Le Roux de Lincy, I, 175). *La una mano a la otra lava, y las dos a la cara* (H. Nuñez, fol 273).

158. Ez eztupa itxindien aldean, ez neskatoxea motil gazteen artean.

- Ni l’étoupe près de tisons, ni la jeune fille près des garçons.

⁶¹ Txillardegik atsoitzen segida alfabetikoan oinarrituz *eskonteguna* irakurtzea proposatzen du, ez *ezkonteguna*, *Efcon-* duten atsoitiz biak *Eskekdunari* eta *Efscu* hitzez hasten diren artean baitira. Atsoitzen segida ortografikoa ez da, ordea, hemen esanguratsua, bereizi gabe hartzen baititu hor Oihenartek *f* luzea eta *s* txikia (153-161): *Esa-*, *Efke-*, *Efsc-*, *Efco-*, *Efscu-*, *Es es-*, *Es ga-*, *Es ho-*, *Esi-* (*f* / *s*-ren ondoko letrek agintzen dute segida: *a*, *c*, *e*, *g*, *b*, *i*...).

- Ni la estopa junto a tizones, ni la moza entre chicos jóvenes.
 - . *ixindien*: hitz honek tradizioan izan duen idazkera ikusirik, pentsatzekoa da Oihenartek -x^{*}-, hau da, gure -tx-, idatzi eta moldiztegian puntua galdu zela.
 - . *Es nefcatoxea*: maiuskula, bigarren lerroaren hasieran.
 - . *motil*: leherkariaren aspiraziorik adierazi gabe; horrela ia beti (158, 319, 321, 333; II, 13; XVIII, 17; XXI, 1; XXX, 1), baina behin, *Atsotitzen Urrhenkina*-n, *mothil* (648).
 - Okoad 222: *Suiaren aldian eztupa acaba*. Urkijok gaztelaniazko hau aipatzen du: *La estopa cabe el mâcebo, digole fuego*. Urkijo Esk: *On ne doit pas mettre les estoupes près le feu* (Le Roux de Lincy, II, 274). Haritschelharrek (1994: 285): “*Ny les estoupes proches aux tisons / Ny moins les filles pres les barons. Hija después de varon quema como tizon*”.

159. Ez gari herrutzekorik, ez egur itzalbekorik.

- Ni grain de lieu marécageux, ni bois de lieu ombrageux.
- Ni trigo de lugar pantanoso, ni leña de sitio sombrío.
 - . *gari herruzecoric ... egur izalbecoric*: *herrutzeko* eta *itzalbeko* izenlagunak, izenaren eskuinean.

160. Ez holla, Usmena, handiki gorapenak soinean diakarken beharpena.

- Ne prends point vanité, Usmène (*c'est le nom d'une femme*), de ta fortune; car souvent le croissant porte le déclin sur ses épaules.
- No te envanezcás, Usmena, *que* con frecuencia la prosperidad lleva consigo la decadencia.
 - . *holla*: *hollatu*-ren aditzoina, laguntzailerik gabe, agintea, “ez harro”. Albokoa sabaikaria da hemen, baina ez *hol^a* idatzia, Oihenarten sistemak eskatuko lukeen bezala; beste behin *hoila* (303).
 - . *Vfmena*: emakume izena.
 - . *handiqui*: “gehienetan, normalean, maiz”, cf. 9, 210.
 - . *diacarken*: *ekarri* aditzaren *KE*-dun orainaldia, *hura-bark*, *dakarke* soilaren pareko nokako alokutiboa; Lafon: “le suffixe *-ke* indique que le procès ne comporte pas de terme (“porter”, par opposition à “apporter”)” (1949: 441); “ekartzen din”, hots, “ekartzen du (hiri, emakume, esaten dinat)”. Cf., alokutibo maskulinoa, *diacarquec* (65).

161. Ezina azkarrago da ezi ez zina.

- L'impossible a plus de force que le serment.
- El no poder es más fuerte que el juramento.
 - . *ascarr-ago*: marrarekin; *-ago* konparazio atzizkiaren idazkeraz, cf. 84.
 - . *esi es*: bereiz, cf. 150.

162. Ezin gaitzez da on.

- Il paraît bon pour n'avoir pas le moyen de faire le mauvais.
- Es bueno porque no puede *obrar* mal.
 - . *Esin-gaises*: marrarekin. Dagoen dagoenean, *gaizez* irakurri beharko litzateke. Normalean, ordea, *gaiz-* da, hots, gure *gaitz-* (54, 73, 93, 115, 126, 136, 137, 174, 175, 176, 177, 180, 233, 238, 239, 300, 323, 330, 361, 370, 438, 461, 469, 485, 499, 506, 516, 519, 526, 601, 621, 653, 664; II, 4; IV, 8; V, 43; VII, 6; VIII, 1; XIII, 27; XV, 2, 4; XVII, 31; XX, 6; XXII, 1, 7; XXIV, 3, 4). Bitan bakarrik da *gais-*, hots, gure *gaiz-*: hemen eta 470. Pentsatzekoa da, bada, azken kasu bi hauek errata direla eta, hortaz, zuzendu beharrak.

163. Ezta eman oin orori oski gorri.

- Il n'appartient pas à tous pieds de porter de rouges souliers.
- No corresponde a todo pie *calzar* zapatos rojos.
 - . *oskigorri*: loturik.
 - Zalgize 19: “*Ezta eman hoin orori, / Osqui gorri. No es dado a todos los pies zapatos rojos*”.

164. Ezt' ikaia non eztuen bere iztaia.

- Il n'y a point de montée qui n'ait sa dévallée.
- No hay cuesta arriba que no tenga su cuesta abajo.
 - . *Est, ikaia*: da adizkiaren *a*-ren elisioa, ohiko apostrofoaren lekuan koma baten bitartez adierazia (cf. 92).
 - . *Istaia*: maiuskula lekuz kanpo eta dieresiak *i*-ren bokaltasuna adierazteko, *iztai* + *a*.

- RS 262: “*Ezta aldasic ybar vacoric*. No ay cuesta sin valle”. Urkijok: “El castellano correspondiente es: *Arribáos, torgado, que tras la cuesta está lo llano*. Exorta –escribe la Academia– a sufrir la fatiga y trabajo con la esperanza del descanso”. Honako frantseseko hauek ere aipatzen ditu: *Après la mountade, La debarade eta Chaque mont a son vallon*.

165. Ezta zer fida, ez zeru izarzuan ez emazte nigarzuan.

- Il ne faut point se fier ni à l’air serein ni à une femme qui pleure.
- No hay que fiarse ni del cielo estrellado ni de la mujer llorona.
 - . *isarsuan ... nigarsuan*: -su, hau da, gure -zu; baina ikus *nigarzu*, hots, gure *nigartzu* (IV, 9).
 - Haritschelhar (1994: 281): “Nigar egiten duela nahi duenean, hona emaztearen itxura, aski ezagutua, armarik hoberena duelarik nigarra”. Eta eransten du gogorragoak direla errefrau frantsesak eta espainolak: “*Mujer se queja, mujer se duel[e], mujer enferma cuando ella quiere. Las mujeres sin maestro saben llorar, mentir y bailar. Lágrimas de mujer, lo que no quieren no alcanzan y acaban*. Frantesesez: *A toute heure / Chien pisse et femme pleure. Femme rit quant elle peut / et pleure quand elle veut. Pleur de femme crocodile semble*”.

166. Eztoela latsara, gatzetz duena oinzolara.

- N’aille à laver la lessive qui a les pieds faits de sel.
- Que no vaya al lavadero quien de sal tiene la planta del pie.
 - . *Estoëla*: dieresiak *o* bokala silabagilea dela adierazten du, hau da, *we* diptongorik ez dagoela. Idazkera horrek, berriro, *o* bokalaren gauzatez itxia iradokitzen du; *doela*, joan aditzaren “subjuntiboa”, orainaldia, -(e)la atzizkia duela, aginte baliokoa, “ez dadila joan”.
 - . *latsara*: *latsa*, “erreka” da eta, hortik, “lixiba jotzen den harria”.
 - . *oin-/solara*: absolutiboa, -a + -a > -ra (Lafon 1949: 439). Bi lerrotan banatua dago, lerroaren azkenean marra duela; batzuek elkarretaren adierazgarri dute marra eta *oin-zolara* transkribitzen dute; ikus, ordea, *oinsolala* (XIII, 2), non hitza loturik ageri den.

→ Uraren irudiaren lekuan suarena erabiltzen du esanahi berttua duen Isasti 18k: *Buztana lastozcoa duena suaren bildur*.

167. Eztu nehork zer zingiten ari, egia laket etzaionari.

- Il ne sert à rien d'affirmer avec serment à celui qui n'est pas bien aise d'entendre la vérité.
- No hay por qué ir con juramentos a quien no le agrada la verdad.
. *singuiten*: "zin egiten".

168. Eure gelaria ez potikeia, hant eztakia alegia hura andregeia.

- Ne baisotte pas ta chambrière, de peur qu'elle ne prenne vanité croyant devenir la maîtresse de maison.
- No besuquees a tu ama de llaves, no se te vaya a envanecer creyéndose la futura ama de casa.
. *potikeia*: *potikeiatu*-ren aditzoina, aginte aldia, laguntzailerik gabea, "ez musu eman".
. *hant estaquia*: *hantu*-ren aditzoina; *dakia*, **edin* laguntzailea, orainaldia, *hura-hiri*, ez *-(e)n* ez *-(e)la* atzizkirik gabe (cf. 169; XIX, 9), "harrotu ez dakian".
. *alegia*: adizlaguna, "ustea hartuz, itxura eginaz".
→ Esanahiari dagokionez, cf. 695. Eta, halaber, RS 525 ere: "*Eshseco mirabeari echi, / çe daquia andra andi*. A la siruienta de casa dexalla, / porque no se haga gran señora".

169. Eure haurra, haur deno ezak gastiga; eztakia, gero, esteiari higa.

- Châtie ton enfant pendant son bas âge, afin qu'après il ne vienne à se perdre et devenir misérable.
- A tu hijo, castígalo mientras es niño; no se te vaya a perder, luego, *hecho* un miserable.
. *gastiga*: hemen *-j*-rekin, baina *gastigazen* (605). Tradizioan bietara ageri da hitz hau, *gastiga*- bezala *gastiga*- ere; hori dela-eta, bere hartan utzi dugu kasu bakoitzean testuak dakarren kontsonantea.
. *estaquia ... higa*: cf. 168; "ez dakian higatu", "ez dakian hondatu".

170. Etxeko sua etxeko hautsaz estal.

- Il faut couvrir le feu de la maison avec les cendres de la maison.
- El fuego de casa *hay que* cubrirlo con la ceniza de casa.
 - . *Execo ... Execo*: x-ren balioaz, cf. 45. Bigarren *Execo* ere maiuskulaz.
 - . *hautsaz*: dagoen dagoenean *hautzaz* irakurri beharko litzateke. Pentsatzekoa da, ordea, Oihenartek z^o idatzi eta moldiztegian puntua galdu zutela eta, hortaz, *ts* apikaria irakurri behar dela; hitzaren beste agerpen bietan *hautf*- idazten da (196; XVI, 11).
 - Zalgize 202: “*Etcheco sua etcheco hautsaz estal*. Cubre el fuego de casa, con la ceniza de casa”. Haritschelharri (1991: 170) frantse-seko “(le) lavage de linge sale en famille” esaldia gogorarazten dio atsotitz honek.

171. Etxe hutsa, aharra hutsa.

- La maison vide est plein de noise
- *En casa vacía todo es riña*.
 - . *Exe*: x-ren balioaz, cf. 45.
 - . *aharra*: “Querelle de paroles, bruit” (S. Pouvreau, Oihenartetik hartua, cf. *OEH*).
 - Etxe hutsak ez du adierazten bizilagunik gabeko etxea edo bizitokia, etxe pobrea baizik, janaritan-eta eskas dabilena. Eta, jakina, beharrezkoa falta denean, burruka eta liskarra omen da dena. RS 442: “*Eshse vshsa errierta vshja*. La casa vazia todo pendencia”. Eta RS 443: “*Ese vsa ergarri / ta betea pozcarri*. La casa vazia causa de riña, / y la llena causa de regozijo”. Honako beste hauek ere aipatzen ditu Urkijok: *Etxe utsa, atrakala utsa. Eche utsa guerra utsa. Etse utsa arra utsa, chacur argala ardi utsa...* Isasti 47 ere berdintsua da: “*Izan bagueak guerra vts*. El no tener todo guerra”. Eta Bela 25: *Gabiak, aharra*. Gaztelaniaz, berriz, *Donde no hay harina todo es mohina*.

172. Etxoiloak basoiloa zedokan.

- La poule domestique chasse la sauvage.
- La gallina doméstica echó fuera a la silvestre.

- . *Exoilloac basoilloa*: *x*-ren balioaz, cf. 45; *-ill-* idazkeraz, berriz, cf. 89, 109.
- . *sedocan*: *idoki* aditzaren iragana, aoristo gnomikoa Lafonen arabera, “*idoki zuen*”, “*uxatu zuen*” (Lafon 1949: 443). Aditz honetaz, cf. 145.

G

173. Gabeak, hatsa karats.

- Le pauvre a l’haleine puante.
- El pobre *tiene* el aliento apestoso.
 - . *Gabeak*: adjektiboa. Bela 25ek ere aipatzen du *gabia*, baina errieta-rekin lotzeko (cf. 171).

174. Gaitza gaitzagoak derahatza.

- Ce qui est pire fait oublier ce qui est mauvais.
- Lo peor hace olvidar lo malo.
 - . *Gaïza*: ez da ikusten zein den dieresaren egitekoa hemen.
 - . *gaiz agoac*: bereiz; *-ago* atzizkiaren idazkeraz, cf. 84.
 - . *derabaza*: *ahatzi* aditzetik eratorritako *erabatzi* faktitiboaren orainaldia, *hura-hark*, “ahantzarazten du”.

175. Gaitza, hunqui ator, bakar bahator.

- Malheur, sois le bienvenu, pourvu que tu sois seul.
- Desgracia, bienvenida seas, si vienes sola.
 - . *bahator*: indikatiboaren orainaldia, *ba-* aurrizkiaren ondoan *b-* duela (cf. 7).

176. Gaitz deritzanak irri deraidik, on deritzanak hasperren.

- Celui qui te hait te fera rire eta celui qui t’aime te fera soupirer.
- Quien te odia te hará reir y quien te quiere *te hará* suspirar.

- . *Gaiz-derizanac*: *gaitz iritzi* aditzaren orainaldia, *hura-hiri-hark*, *gaitz-derizk*, *-k > -a* aldaketa eragiten duen erlatiboko atzizkia ondoan duena, “gorroto hauenak”.
 - . *deraidic*: **idi* erro zaharraren –beharbada **egi(di)n* aditzarena (cf. 20; II,1)– faktitiboa, orainaldiko *KE*-dunaren baliokoa, baina geroa adierazten duena, *hura-hiri-hark*, “egin araziko dik” (cf. 37).
 - . *on-/derizanac*: lerro bitan banatua, baina marrak elkarketa ere adierazten duela, beharbada; *on iritzi* aditzaren forma, goiko *gaitz deritzanak* formaren parekoa.
- Urkijo Esk: *Quien bien te quiere te hará llorar.*

177. Gaitz orok du bere gaitzagoa.

- Tout mal a son pire.
- Para todo mal hay un mal mayor.

178. Ganderalu hotz, negua botz; Ganderalu bero, negua Pazkoz gero.

- La Chandeleur froide marque un bon hiver; la Chandeleur chaude menace d’un hiver après Pâques.
- Candelaria fría, invierno con alegría;
Candelaria caliente, el invierno tras la Pascua *viene*.

179. Ganibet berbatek debaka ogia eta erhia.

- Un même couteau sert à couper le pain et à se blesser la main.
 - Un mismo cuchillo corta el pan y el dedo.
- . *berbatec*: lotua, “berberak”.
- . *debaka*: *ebaki* aditzaren orainaldia, *hura-hark*, “ebakitzen du”.

180. Garaziren gaitza Behorlegik derosa.

- Un chétif village porte la peine de la faute de tout un pays. *Le mot Garacy, au texte, est le nom propre d’une province en Basques; et le mot Behorleguy le nom d’un village de la même province.*
 - La falta de Garazi la paga Behorlegi.
- . *derofsa*: *erosi* aditzaren orainaldia, *hura-hark*, “erosten du”, hots, “pagatzen du”.

→ *Garazi* eskualde osoaren izena da eta *Behorlegi* eskualde hartako herri txiki batena. Txikiak handiaren okerrak pagatzen dituela esan nahi du atsotitzak, frantses itzulpenak argiro erakusten duen moduan.

181. Garizuma eta urkabea, asturugaitzentzat.

- Le Carême et la potence sont faits pour les misérables.
- La cuaresma y la horca, para los desdichados.
 - . *a|sturugaizentzat*: *a|sturu* “zoria, bentura” da (IV, 11), *a|sturutsu*, “zoriontsu” (331) eta *a|sturugaitz* “zoritxarreko” (cf. *a|strugaitz*, 52); *-tzat / -zat* aldaerez, cf. 25.
 - Urkijo Esk: *La carcel, y la quaresma, para los pobres es hecha* (H. Nuñez, fol. 273v).

182. Garzea, gaxto batak diezaguk bertzea.

- Un méchant connaît l'autre.
- García, un malvado conoce a otro.
 - . *gaxtobatac*: loturik.
 - . *diesaguc*: *ezagutu* aditzaren orainaldia, *bura-bark*, hikako alokutiboban, “ezagutzen dik”, hau da, “ezagutzen du (hiri esaten diat)”.
 - Bela 26: *Garcia, Garcia. Gaixto batac diaçaguc bercia*. Berdin Zalgize 130, *Garcia* errepikatu gabe. Ikusten denez, bai Belak eta bai Zalgizek *-ea-* > *-ia-* egiten dute, Oihenartek ez bezala.

183. Gatua, oinik busti gabe, arrainkari.

- Le chat fait sa pêche sans mouiller les pieds.
- El gato, sin mojarse las patas, pescador.
 - . *busti-gabe*: marrarekin.
 - . *arraincari*: “arrantzale (da)”, hots, “arrantzan egiten du”.
 - Zalgize 174: “*Gathua hoinic busti gabe, arrainçale*. El gato, sin mojarse los pies, cazador”.

184. Gauherdirano, bertzeren emazteareki; hal' ere beldurreki.

- On ne peut jouir de la femme d'autrui sinon jusqu'à la minuit, et encore avec crainte, *ou danger*.
 - Con mujer ajena, *sólo* hasta la medianoche; y, aun eso, con miedo.
 - . *Gauherdirano*: lotura gunean aspirazioa, silaba banaketa markatuz. Muga murriztatea seinatzen du gauerdiak, frantses itzulpenak erakusten duen bezala.
 - . *emaztearequi*: dagoen dagoenean *emazteareki* transkribitu beharko genuke, baina cf. 119.
 - . *hal'ere*: cf. 92.
- Zalgize 33: *Berceren emaztia gauherdirano*. Urkijo Esk: *Qui aime femme mariée / sa vie tient empruntée* (Le Roux de Lincy, I, 150). *Quien ama la casada, la vida trae emprastada* (H. Nuñez, fol. 398v). Cf. 561.

185. Gaztaro alferrak dakarke zahartze landerra.

- Une jeunesse oiseuse produit une vieilleuse nécessaireuse.
- La juventud ociosa trae una vejez lastimosa.
 - . *dakarke*: *ekarri* aditzaren orainaldia, *KE*-duna, “présent intemporel”, “ekartzen du” (cf. 50).

186. Gauza onhetsirik ezta onhetslearentzat itxusirik.

- Il n'y a point de laides amours pour celui qui aime.
- Para el que ama, nada de lo amado es feo.
 - . *onhestiric*: liburuaren hondarreko *FAVRES DE L'IMPRESSION* sailean oharrarazitako hutsetako bat, *-ts-* > *-st-*: “lisez, *Onhet[s]iric*”.
 - . *onhezlearentzat*: dagoen dagoenean *onhetzle-* irakurri beharko litzateke Oihenarten sistemaren arabera; badirudi, bada, zuzendu beharra dagoela. Zuzenketa bi dira posible: z dagoen lekuan [ipintzea, *onhesle-* irakurriz –eta orduan horren errata bitxiaren zergatikoa azaldu beharko litzateke– edota z-ren lekuan z* zegoela pentsatzea, *onhez* le*, hau da, *onhetsle* irakurriz (cf. 6). Bigarrena da azaltzen errazena eta, hortaz, hobestekoa. Honen antzeko elkarketak, lehen osagaiaren amaierako afrikatua bere

horretan uzten dutenak: *Berzguin* (563), *bihozgabeas* (515), *dohacaiz-dunac* (117), *eracat[garri* (601), *gaizkide* (526), (XII, 10); *-tzat / -zat* alderez, cf. 25.

- . *ixu[ssiric*: Txillardegiren ustez, *x* grafia honek gure *ts* apikaria adieraz dezake (Larresoro 1971: 112), horrela erabiltzen omen baitu inoiz Oihenartek *x* letra. Ez dirudi, ordea, horrela denik. Beste autore askok horrela erabiltzen dute letra hori, noski, baina ez Oihenartek. Horrela balitz, hau izango litzateke kasu bakarra edo bakarretako bat. Zuzenago da, bada, hemen ere, beste zenbaitetan bezala, *x* letrak azpian *x*^o, hau da, gure *tx* gordetzen duela pentsatzea (cf. 45). Hortaz, hemengo aldaera *itxusi* da, ez *itsusi*, nahiz beste agerpen batean *it[ussiac* idazten den (650).
- RS 242: *Onerechien beguietan / gauça ezayryc eztan* (sic). Urkijok honako gaztelaniazko hau aipatzen du: *Quien feo ama, hermoso le paresce*. Atsotitz horren iturria, Teokritoren esaldi hau omen da: *Quae minimè sunt pulchra, ea pulchra videntur amanti*. Haritschelhar (1994: 292): “Frantsesez: *Il n’est nulle laide amour ni belle prison*”. Cf. 650.

187. Gauza sorta da Erretate, hura gaberik eninzate.

w La Royauté est une chose pesante; néanmoins je ne saurais vivre sans elle.

w Cosa pesada es la Realeza, *pero* no podría vivir sin ella.

- . *Gausa [orta*: gauza astuna, cf. 99.
- . *eninsate*: *ninzate*, *izan* aditzaren alegiazko *KE*-dunen baliokoa, gure *nintzateke*-ren parekoa, “ez nintzateke”, hau da, “ezin *biziko* nintzateke”.

188. Geroa, alderdi.

w L’avenir est perclus de la moitié de ses membres.

w El futuro, tullido.

- . *alderdi*: gorputz erdia elbarri duena.
- Geroa erabat aske eta irekia ez dela esan nahi du atsotitz honek. Haritschelharrek (1991: 188): “la traduction ‘l’avenir est boiteux’ rend mieux compte du sens”.

189. Geroa, alferraren leloa.

- A demain: c'est du fainéant le refrain.
- “Luego” es el estribillo del vago.
 - Badira beste atsoitz batzuk egitekoak gerorako ez uzteko aholkatzen dutenak. Horrela, esate baterako, bilduma honetako 527a. Halaber, RS 530: “*Eyngo doana / ez biarco echi*. Lo que has de hazer / no dexes para mañana”. Isasti 43: “*Guero dionac bego dio*. El que dice despues, dice que se quede”. Edo Zalgize 47: “*Gueroac, bego: guerora nehorc / utciten duiana, seculacotz vtciten d[u]*”. Lo de después quédese; lo que cualquiera deja para después, se deja para siempre”. Cf. 527.

190. Gerokoa, hobe ustezkoa, nahiago dut on oraikoa.

- J'aime mieux un bien présent qu'un meilleur qui est à venir, et gît en espérance.
- Prefiero el bien presente a uno futuro supuestamente mejor.
 - . *v[te]scoa*: -[c]- grafia -sc-aren lekuan, bizkarkaria adierazteko (cf. 155).
 - Esanahiari dagokionez, goiko 85aren antzekoa da hau.

191. Gezurtiak zer du meritatu?

Egia derranean, gezurtatu.

Bertzela:

Gezurtiak zer du merezi?

Egia erraiten ez sinhetsi.

- Que mérite le menteur? C'est d'être démenti, ou bien de n'être pas cru quand il dit vrai.
- ¿Qué merece el mentiroso?
 - Que le tomen por mentira, cuando diga la verdad.
 - O también:*
 - ¿Qué merece el mentiroso?
 - Que no le crean cuando diga la verdad.
 - . *eguia*: minuskularekin, bietan.
 - . *derranean*: *erran* aditzaren orainaldia, *hura-hark*, formaz indikatibore izan daitekeen arren, normalean “subjuntibo” gisa ulertzen dena, “erraiten duenean” baino areago “erran dezanean”; beraz, “cuando diga”.

- . *mere]ci*: oso grafia bitxia, Oihenarten sistemarekin bat ez datorrena; beste autore batzuen idazkera ikusiz *x* txitxikariaren parekotzat har daiteke beharbada -]c- hori eta *merexi* irakurri (cf. *OEH*), baina beste agerpen guztietan (VI, 5; XIII, 28; XV, 5), *meresi* idazten denez, hots, gure *merezi*, horrela irakurri dugu hemen ere, txitxikariaren aukera erabat baztertzekoa ez bada ere.

192. Gibel egiok ekaitzari.

- Tourne le dos au mauvais temps.
- Da la espalda a la tormenta.

. *ekaitzari*: “Ekaiza, Orage, tempe]te” (*Adigarria*).

- RS 466: “*Quibel eguioc ecachari*. Hazle espaldas a la tempestad”.
Urkijok honako gaztelaniazko hau aipatzen du: *Al mal viento, boluelle el capiello*. “Refrán –dice el Diccionario de *Autoridades* (t. II, p. 143)– que enseña que para resisitir á los contratiempos y adversidades es menester valerse de toda prevención y reparo”. Horren antzekoa da RS 239 ere: “*Quibel ecachari / bular aldiolari*. Espaldas a la tempestad / pecho a la buena sazon”.

193. Gizon bizar peituti eta emazte bizarzuti, ihes egik nola khozuti.

- Donne-toi de garde d’une femme barbue et d’un homme qui n’a point de barbe, comme de la peste.
- De hombre imberbe y de mujer barbuda, huye como de la peste.

. *bisar peituti*: “bizarra falta duenetik” (cf. 45, 100; II,2; XVII, 105).

. *ihes-eguioc*: marrarekin; -s txikia -] luzearen lekuan hitz amaieran; hitz hau] luzearekin idazten du beti hitz barruan, *ihel]sari* (139), *ihel]ari* (XV, 7), baina bietara hitz-amaieran: *ihel]* (515, 706; XVII, 46), *ihes* (193, 366).

. *ko`suti*: *kh* aspiratua adierazten duen `espirtua bokalaren ondotik; *ko`*, alegia, *k`o*-ren lekuan; erro honetako hitzen gainerako agerpenetan ez da aspiraziorik markatzen; agerpen guztietan, bestalde, *s* txikia erabiltzen da, hots, gure z: *Kosa* (604), *kosatu* (XXVI, 10), *kosuti* (XXII, 10).

- RS 455: “*Ez ardao viesbfz dunic* (bitzdunik) / *ez andra bizarsuric*. Ni vino espumoso / ni muger barbuda”. Urkijok gaztelaniazko hauek aipatzen ditu: *Ala mujer barbuda, de lejos me la saluda*,

con dos piedras, que no con una; Hombre rojo y hembra barbuda, de lejos la saluda eta Ni à picaro descalzo, ni à hombre callado, ni a MUGER BARBADA, no les des posada. Urkijo Esk: “*Femme barbue de loing la salue, un baston à la main.* Ce proverbe fait allusion à la croyance admise pendant le moyen âge, qu’une femme vieille et barbue était une sorcière” (Le Roux de Lincy, I, 145).

194. Gizon erribera, edo elgerra edo alferra.

- Un rieur ordinaire est ou sot ou fainéant.
 - El hombre de risa fácil, o tonto o perezoso.
 - . *Guijon*: -j- luzea -s- txikiaren lekuan; gainerako agerpenetan -s- txikiarekin, hau da, gure z-rekin (193, 195, 196, 197, 356, 488, 525, 610; XX, 214, 15; XXIX, 1), *guicon* (366).
 - . *erri-bera*: marrarekin; hemen *erri-* aldaera, bestetan *irri-* (41, 176, 204, 280).
 - . *elguerra*: *elger-* aldaera hemen eta XVII, 18; beste bitan *ergel-* (142, 580).
- Ikus beheragoko 204 eta han aipatzen den Zalgize 166. Honen iruzkinean gaztelaniazko hauek aipatzen ditu Urkijok: *Moça risueña, ó loca, ó parlera* eta *La moza loca, la risa en la boca*.

195. Gizon gaztea, andrekari, higa daite esteiari.

- Un jeune homme qui s’adonne aux femmes tient le chemin de la misère.
- El hombre joven, mujeriego, se consumirá *hecho* un miserable.
 - . *higa daite*: *higatu* aditzaren aditzoina eta **edin* aditzaren orainaldia, *KE*-dunen baliokoa, (cf. 77), “honda daiteke”, beraz, zabal uler-tuta, “hondatuko da”.
 - . *esteiari*: -st- grafia -[t]-ren lekuan, apikaria adierazteko. Erro honetako hitzak *esteia-* idazten dira, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (169, 367, 591, 692, *Adigarria*), baina *esteia-* (195, 301; VI, 2, 9; XVII, 79).

196. Gizon hebainak gazna nahi errerik, hautsera erori eta egonen gaberik.

- L'homme perclus de ses membres voulut manger son fromage rôti: il lui chut sur les cendres et n'en sut chevir.
- El paralítico el queso lo quería asado, *pero* se le ha caído a las cenizas y se quedará sin probarlo.

. *hebainac*: “*Hebain*, Impotente, perclus des membres” (*Adigarria*).

197. Gizon jainkotiarrari *Biriatu* eta *Donostia* bardin laketgia.

- A l'homme dévôt le séjour du village est aussi agréable que celui de la cité. *Donostia*, c'est le nom de la cité de Saint-Sébastien en Guipuskoa et *Biriato* le nom d'un village à trois ou quatre lieues de là.
- Para el hombre devoto *son* lugar agradable tanto *Biriatu* como *Donostia*.

. *Iaincotarrari*: zuzendua liburuaren hondarreko FAVTES DE L'IMPRESSION sailean: *Iaincotiarrari*.

. *Donostia*: -st- grafia -[t]-ren lekuan, baina *Donostia* frantses itzulpeneko iruzkinean.

. *bardin*: adjektibo edo adizlaguna “igual(mente)” (197, 271, 418, 480, 552; X, 5; XX, 6; XXIV, 3), baina *berdin* lokailu, “d’ailleurs”, “de toute manière”, “de todos modos” (XV, 3) (cf. *OEH*).

. *laketguia*: -gia atzizkiarekin, “leku atsegina” (cf. XII, 12).

→ Frantses itzulpenak iradokitzen duenez, *Biriatu* herri txikiaren irudi da eta *Donostia*, berriz, hiri handiarena; eta biak, handia bezala txikia, leku atseginak izan daitezkeela adierazten du atso-titzak. Horren alderantzizko esanahia eta azalpena ematen du Garibay A 49-k: “Quando algunos por poco conocimiento de las cosas que platican quieren ygualar vna cosa pequena con otra grande de mucha desigualdad, dicen: *Bardin Burgos eta Marquina*. Iguales son Burgos, cabeça de Castilla y Marquina villa pequena de Vizcaya”. Haritschelharrek (1992: 196) atso-titz hau Euskal Herrian sortua dela dio eta, gainera, sortu zenean ez zutela mugaren ideiarik ere. Eta honela segitzen du: “Sendi deza-kegu errefrau horretan ezagutua den eztabaida hiria eta herriaren artean. Bereziki XVI. mendean gai horrek ukan zuen arrakasta handia Fray Antonio de Guevara-ren ‘Menosprecio de Corte y alabanza de aldea’ liburuarekin, 1539-an argitaratua”.

198. Gogorra gogorrareki nekez dait' eretxeki.

- Il est malaisé de joindre le dur avec le dur.
- Dificilmente se puede unir lo duro con lo duro.

. *dait' erexequi: daite eretxeki*, azken *-e*-ren elisioarekin (cf. 92); erro honetako hitzek tradizioan duten idazkera ikusita, pentsa daiteke Oihenartek *erex^oequi*, hau da, gure *eretxeki* idatzi eta moldiztegian puntua galdu zutela (cf. 53). *Eretxeki*-ren aditzoina; **edin* aditzaren orainaldia, *KE*-dunen baliokoa (cf. 77), “lot daiteke”.

199. Goiz gorriak dakarke uri, arrats gorriak eguraldi.

- La matinée rouge est présage de pluie; la soirée rouge *promet* beau temps.
- La mañana roja trae lluvia; la tarde roja, buen tiempo.

. *dakarke: ekarri* aditzaren *KE*-dun orainaldia, “présent intemporel”, “ekartzen du” (cf. 50).

. *eguraldi: hau da*, “eguraldi on”.

→ Isasti 41: “*Goiz gorri, euri daidi; arrats gorri, eguraldi*. Arreboles de mañana, aguas; y arreboles de la tarde, buen tiempo”. Horren antzera dio Garibay B 48k: “Porque en aquella tierra las nubes (nubes) coloradas por la mañana significan agua, y por la tarde, sol, dicen: Mañana colorada llubia hera, Tarde colorada sol. *Gox gorric euri daidi, Arras gorric eguzqui*”. Okoad 364 ez da erraz ulertzen: *Goizean ekizeti / dagoenean ozcorri*.

200. Goiz orzadar, arrats iturri.

- L'arc-en-ciel du matin, présage de pluie pour le soir.
- Mañana con arco iris, tarde con lluvia.

→ Cf. Garibay B 48, aurreko atsotitzean aipatua. Okoad 223: *Arrats or[ç]adar biharamun / eki*. Voltaire XXXI: *Holçadarrag ceruan arratçian dembora ouna iracusten du; baignan estecaçula signez dembora issaratoary (...)*. Urkijo Esk: “En cambio el francés dice: *L'arc en ciel du soir / Fait beau temps pasoir*” (Le Roux de Lincy, I, 62).

201. Goldearen amorekati pot nabarrari.

- On baise le soc pour l'amour de la charrue.
- Por amor del arado se besa la reja.
 - . *Goldearen ... nabarrari*: honela dio Haritschelharrek (1989: 557).
 “Bere itzulpenean ez du Oihenart-ek emaiten nola egina zen iraultzeko tresna hori, bi tresna berezi baitziren *goldea* alde bate-tik eta *nabarra* bestetik”.
 - Honen antzekoa izan daiteke, esanahiari dagokionez, RS 55:
 “*Ynudea laztan dauenac / seyari beçuza*. A la ama quien tiene voluntad / al niño regala”. Urkijok gaztelaniako hau aipatzen du:
 “*Por la peana se adora al santo*, expresión figurada y familiar –dice la Academia Española– con que se denota que uno hace la corte ú obsequia á una persona por ganarse la voluntad de otra que tiene con ella íntima relación ó dependencia”. Hauen antze-ko beste asko aipatzen ditu Urkijok, hizkuntza desberdinetako-ak.

202. Goregi igan dadina ahalegabeki, behera jeuts daite ahaleizuneki.

- Celui qui monte plus haut qu'il ne doit avec effronterie, est capable de descendre avec infamie.
- Quien sube demasiado alto con descaro, puede caer abajo avergonzado.
 - . *igan dadina*: **edin* laguntzailearen “subjuntiboko” orainaldia, erlati-boan, “igotzen dena”.
 - . *ieuts daite*: *jeutsi*-ren aditzoina; **edin* laguntzailearen “*KE*-dun” orainaldia, gure “daiteke” formaren parekoa, “jautsi, eror daite-ke” (cf. 77).

203. Gosea, bera jaki.

- La faim sert de pitance.
- El hambre, ella misma es alimento.
 - Bela 27: *Gossia bera jaqui*. Eta berdin Zalgize 113. Urkijok honela itzultzen du azken hau: “El hambre [sirve] ella misma de comi-da”. Eta Azkueri hartutako aipamen hau eransten du: “kau errai-ten da, bat goseak argilatuk dagolarik, ogi utsa jatan dugunean

(...) se dice cuando, estando muertos de hambre, comemos solo pan". Eta gaineratzen du: "En castellano suele decirse: *No hay salsa que dé mejor sabor á la comida que el hambre*".

204. Gure andrea irrikor, izartean gilikor.

- La femme rieuse a la cuisse chatouilleuse.
- Nuestra mujer, risueña, cosquillas *siente* en la entrepierna.
 - . *gilikor*: ez da ikusten zein den hor dieresiaren egitekoa.
 - Zalgize 166 antzekoa da: "*Nescatochia irrioi, / Peticora ciri koi*. Muchacha reidora, de abajo arriba liviana". Ikus, halaber, gora-goko 194.

205. Gutu edatea eta guti sinestea da zuhurraren egitea.

- Boire peu eta croire peu est le fait d'un homme sage.
- Beber poco y creer poco es lo que hace el sabio.
 - . *sinestea*: cf. 144.

H

206. Habia egin deneko, xoria hil.

- Pour lors que que la cage a été faite, l'oiseau est venu à mourir.
- Para cuando se ha hecho el nido, el pájaro *estaba* muerto.
 - Zalgize 157: "*Caiola eguin denian, choria hil*. Cuando se ha hecho la jaula, muere el pájaro". Aldaera bien aldeak erabilitako izenean eta denborazko perpausea. dago: *habia / kaiola* eta *egin deneko / egin denean*.

207. Halako tupati halako arnorik.

- De tel tonneau tel vin.
- De tal tonel tal vino.

- . *tupati*, aspiraziorik gabe hemen eta 449an; Okoad 214an, berriz, *Dup`a*.
- Honen antzekoa da beheragoko 449. Okoad 214: *Dup`a gaxtotic ezta arno honic ialguiten*. Eta RS 46: “*Vstrall onac ardao ona*. La buena vasija, buen mosto”. Urkijok azaltzen duenez, atsoitz honek aldaera asko ditu bai euskaraz bai beste hizkuntzetan. Orozkon, esate baterako: *Barrika onak ardao ona*. Gaztelaniaz: *Cada cuba huele al vino que tiene*, “el cual explica, según la Real Academia, que por las acciones exteriores se suelen conocer las cualidades internas de las personas”. *A la vasija nueva, dura el resabio de lo que se echa en ella*. Alemanez: *Das Fass schmeckt nach dem (ersten) Wein*. Italianoz: *La botte se (da) del vino ch`ella ha*. Cf. Okoad 24[4]: *Halacoz halaco*.

208 Handurreria, ezpada *Tusuria*, da hura iduria.

Tusuria, diabruari erraten zioten euskara zabarrean, eta orano hitz haur usatzen da Zuberoan.

- L’arrogance, si elle n’est pas une diablerie, elle en a du moins l’apparence.
 - La arrogancia, si no es *Tusuria*, tiene su apariencia.
Tusuria era el nombre que daban al diablo en el euskera antiguo y aun hoy emplean dicha palabra en Zuberoa.
- . *Iduria*: maiuskulaz. Izena beti *iduri* eta aditza *diduri* (320; XII, 9), baina *Zirudien* (XIII, 16).
- . *diabruari*: hemen *-ia-*, ohi ez bezala.
- . *u{s}azen*: -{ bakuna bokalartean, ohi ez bezala, jatorrizkoaren arabera idatzitako mailegua.

209. Handiek nahikara, xipiek ahalara.

- Les grands font ce qu’ils veulent, et les petits ce qu’ils peuvent.
 - Los grandes como quieren, los pequeños como pueden.
- . *nahicara ... ahalara*: *-(k)ara* atzizki adberbiala, neurria edo modua adierazten duena, “nahiaren eta ahalaren neurrian”, hurrenez hurren (cf. 38).
- Esanahiari dagokionez, cf. 588.

210. Handiki, hor ona otsoen.

- *D'ordinaire* un bon chien est pour les loups.
- Por lo general, el perro bueno *es* para los lobos.
 - . *Handiqui*: “gehienetan, normalean, maiz”, cf. 9, 160.
 - . *hor-ona*: marrarekin.
 - . *Ot[soen]*: maiuskula lekuz kanpo; *-en* destinatiboa, “otsoentzat” (cf. 70, 91).

211. Harri erabilik eztu biltzen oroldirik.

- Une pierre souvent remuée n’engendre point de mousse.
- Piedra que se mueve no se cubre de musgo.
 - Ezaguna da atsotitz hau hizkuntza askotan eta aldaera ugari ditu. RS 5: *Arri ebil oquiac oroldiric ez / erle vçatnac abaaric ez*. Gaztelaniazko hau aipatzen du Urkijok: *Piedra mouediza, nunca moho la cubija*. Eta Y. L. de Mendoza-ren iruzkina erantsen du: “Los que son mudables ê su biuir, pocas vezes enriquezen”. Eta gauza bera iradokitzen du Real Academia-ren iruzkinak ere, arrakasta iraupenak ematen duela baitio, ez aldi oro aldatzen ibiltzeak. Zenbaiten ustez, hala ere, ez da zuzena konparazioa, “goroldioa” ez baita gauza atsegina. Aldaeren artean, erromatarren hau aipa daiteke: *Lapis saepe provolutus non obducitur cespite*. Axularrek, bestalde, honako hauek aipatzen ditu (Guero: 38): *Dabillan harriari, etçaica goroldioric lotcen. Vr iraquinean eztu vliac pausatcen. Arduraco arropari, etçaica cerrenic eguiten. Çuhaitz bethacorra, eztu nehorc ebaquitcen*. Haritschelhar (1989: 550): “Frantsesek (...): ‘Pierre qui roule n’a-masse pas mousse’”.

212. Hartzen duena, zorduntzen da.

- Qui prend, s’engage.
- El que recibe, se hace deudor.

213. Haz nezak egunko aragiaz, atzoko ogiaz eta xazko arnoaz, eta atxeterrak bihoaz.

- Nourris-moi de la chair d'aujourd'hui, du pain d'hier, et du vin de l'année passée, et je dirai adieu aux médecins.
- Nútreme con carne de hoy, pan de ayer y vino del año pasado, y váyanse los médicos.

. *Has nesac*: **ezan* laguntzailea, aginte aldia, *ni-hik*, “haz nazak”.
 . *Axeterrac*, maiuskularekin; gainerako agerpenetan minuskulaz (258, 589; XVII, 107), 488-n izan ezik, baina hemen perpaus hasieran dago. Hitz honek tradizioan izan duen idazkera ikusita, pentsatzekoa da Oihenartek *Ax^oeterrac* idatzi zuela, hau da, gure *Atxeterrak*, eta moldiztegian puntua huts egin zutela.

214. Haurrak hazi, nekeak hasi.

- Au moment que les enfants sont achevés de nourrir, nos peines et soucis commencent à venir.
- Criados los hijos, comienzan las penas.

. *hasi ... hasi*: lehenbizikoa gure *hazi*; bigarrean -ss- txiki bikuna dago -ʃʃ- luze bikunaren lekuan (-ss- beti da gure -s-, inoiz ez -zz-, cf. 288, 293, 295...). Haritschelhar (1991: 196): “Il est évident que la traduction ne peut rendre compte des paronymes *hazi* (nourrir) et *hasi* (commencer). C’est ce qui donne tout le sel à ce proverbe”.

→ Zalgize 104 berdina da. Urkijok Ustaritzeko hau aipatzen du:
Haurrac handituago eta lanian gehiago (sic).

215. Haur bat jan nezan, haur-jalea enzun nezan.

- Je ne mangeai qu’un seul enfant et on m’appela mangeur d’enfants.
- Comí un niño y me llamaron comeniños.

. *Haurbat*: loturik; *bat* zenbatzailea da hemen eta “bat bakarra” esan nahi du.

. *jan nesan*: **ezan* laguntzailea, iragana, *hura-nik*, “jan nuen”.

. *haur-jalea*: behin *jan* eta bestean *ialea*, *j-* eta *i-* grafiak letra beraren aldaera huts direlarik.

- . *ensun nesan*: **ezan* laguntzailea, goikoa bezala, “entzun nuen”, hau da, “esan zidaten”.
- Zalgize 161: “*Haur bat jan nesan, / Haur jale deitha nençan*. Comí un niño, me llamaron come-niños”. Gaztelaniazko hau aipatzen du Urkijok: *Maté un perro y me llamaron mataperros*.

216. Haur duenak, anhitz behar; eztuenak, gogoanbehar.

- Celui qui a des enfants a besoin de beaucoup de choses; mais aussi celui qui n'en pas a l'esprit en souci.
- Quien tiene hijos *está* lleno de necesidades; y quien no los tiene, de inquietudes.
 - . *düenac*: dieresia, *u* eta *e* bokal bi.
 - . *gogoan-behar*: marrarekin.

217. Haur duenak eztitu beretzat boxirik hobenak.

- Celui qui a des enfants, ne mange pas les meilleurs morceaux lui-même.
- Quien tiene hijos no coge para sí los mejores bocados.
 - . *düenac*: cf. 216.
 - . *boxiric*: hau da, “poxirik”.
 - . *hobenac*: *hoberenak* laburtua (cf. 270, 277; XXVI, 8).

218. Haurrik eztuenak ez haur-minik ere.

- Celui qui n'a point d'enfants est exempt des soins qu'on a pour les enfants.
- Quien no tiene hijos tampoco *tiene* penas de hijos.
 - Zalgize 58: “*Haurric eztuanac, ez haur abeguiric*. Quien no tiene niños, tampoco (tiene) acogida (es decir, cariño) de niños”. Eta beste bizkaierazko aldaera hau aipatzen du: *Umerik eztaukanak, ume minik ez*. Cf. aurreragoko 312 eta 486.

219. Haur maite haz aite, eztenara hig' aite.

- Un enfant élevé tendrement vient souvent à périr misérablement.
- Críate niño mimado y te consumirás en la miseria.

- . *has-aite*: marrarekin, bestetan ez bezala; **edin* laguntzailea, aginte aldia, “haz hadi”, hau da, “haz hazatela”.
 - . *esten-ara*: marrarekin; *ez den* erlatiboari *-ara* atzizki adberbiala erantsi zaio *ez den-ara* hitz eratorria sortzeko, “ez denaren, hau da, ezerezaren moduan, neurrian eta arabera” (cf. 38).
 - . *hig'aite*: *higa*-ren amaierako *a*-ren elisioa (cf. 92); *higatu*-ren aditzoina; **edin* laguntzailea, aginte aldia, “higa hadi”, hau da, “higatuko haiz”, “hondatuko haiz” (cf. 169).
- Zalgize 193 berdina da, baina *Ezten ara* bereiz eta *higa aite* elisiorik gabe. Urkijok, harrigarriri, itzulpenik gabe ematen du atso-titz hau. Arzamendi-Azkaratek lehen zatia itzultzen dute, ez oso zuzen: “querido niño, críate”. Ondoko lexikoan ikusten denez, *ezten ara* hori gertatzen zaie ulergaitz.

220. Haur merda, gurentu denean alfer da.

- Un enfant nourri trop délicatement est fainéant quand il est devenu grand.
 - Niño melindroso, de mayor perezoso.
- . *gurentu denean*: “handitu denean”, “heldutasunera iritsi denean” (cf. *OEH*, s.v. *gurendu*).

221. Haur nigar egin-nahiak, aitari bizarra thira.

- Un enfant qui cherche occasion de pleurer se met à tirer la barbe à son père.
 - El niño deseoso de llorar tira de la barba a su padre.
- . *eguin-nahiac*: adjektiboa (cf. 146).
 . *Aitari*, maiuskulaz.
 . *tì'ra*: *th* aspiratua adierazten duen `espiritua, ondoko bokalaren segidan; baina *tira*, aspiraziorik gabe (432; III, 6).
 → Zalgize 50 berdina da.

222. Haurreki dena etziten, ezta bethi mantharra xahurik jeikiten.

- Celle qui couche avec les enfants, n'a pas toujours sa chemise nette, quand elle se lève.
- La que con niños se acuesta no siempre se levanta con la camisa limpia.

- . *dena eziten*: euskaraz ez dago generorik eta, hortaz, gizonetzkoa nahiz emakumezkoa izan daiteke “haurrekin etzaten dena”, hau da, “quien con niños se acuesta”. Dena dela, Oihenartek berak dakarren frantses itzulpenari jarraiki femeninoa hobetsi duguk ere gaztelaniazko itzulpenerako.
- . *bethi*: testuak *bere* dio, baina liburuaren hondarrean, *FAVTES DE L'IMPRESSION* sailean, honela dio: “*Bere*, lisez, *Bethi*”.
- . *manta`rra*: aspirazioa adierazten duen espiritua ondoko bokalaren segidan, ostera ere.
- . *ieiquiten*: *ieiki-* (222, 627), baina *iaiki-* (257, 520; IV, 2).
- RS 560 (TAV: 175): “*Seyacaz echun dina, ucuzca jaigui d<o>a*. Quien con niños se acuesta, sucio se levanta”. Esanahiari dagokionez, cf. 627. Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du, euskarazkoaren errimarik ez badu ere: *Qui dab canalhe es couche, / merdous que'es lhèbe* (1911: 455).

223. Haurzaroko orbaina, ezaba daite gaztaroko.

- La cicatrice reçue en l'enfance s'efface pour le temps de la jeunesse. *Cela veut dire que les fautes commises en l'enfance ne sont point considérées en l'âge viril.*
- La cicatriz de la infancia para la juventud ya está borrada.
 - . *es aba* (sic) *daite*: *ezabatu*-ren aditzoina; **edin* laguntzailea, “*KE-dun*” oraina (cf. 50, 109), “ezaba daiteke”, hots, “ezabatzen da”.

224. Hauzea eta gredalea emaithea.

Hori nabi da erran, bothere guzia emuiteda. Hauzea da ganibet zorrotz bi ahotako bat; eta gredalea, jakien errekeitatze onzi bat.

- Bailler le couteau et le bassin, c'est-à-dire bailler tout pouvoir.
- Dar el cuchillo y el cazo.
 - Quiere decir: dar todo el poder. Hauzea es un cuchillo agudo de doble filo; y gredalea un recipiente para tener los alimentos.*
 - . *bote`re*: aspirazioa adierazten duen espiritua ondoko bokalaren segidan hemen ere; beste agerpenetan *botere* idazten da, aspirazio markarik gabe (II, 17; X, 13).

- . *emuitea*: eman-en aldaera da *emun*, idazle bizkaitar batzuek erabiltzen dutena; Oihenarten agerpen hau bakarra da haren lanetan (cf. *OEH*).
- . *bi ahotacobat ... onsibat*: bat determinatzailea, loturik (cf. 6).

225. Hegoa iduri da emazten gogoa.

- L'esprit des femmes est léger, comme le vent de midi.
- El espíritu de las mujeres es como el viento sur.
 - RS 458: “*Egazitric ezta arinago / Andreen gogoabaño*. Volatil no ay mas ligera / que el pensamiento de la muger”. Urkijok beste aldaera hauek ere aipatzen ditu: *Aize egoa, andrearen gogoa. Egoa, andren gogoa. Andik iparra, emetik egoa / ala kanbiatzen da andreen gogoa*. Frantseseko hau aipatzen du H. Nuñez-i hartua: *Il nest rien plus legier, que pensee de femme*. Beste batzuetan emakumeen soineko luzea eta haien gogo laburra konparatzen dira: *Weiber haben lange Kleyder vnd Kurtz Sinn. Le donne hanno vesti lunghe, ma corto intelletto. Sub longis tunicis, brevis est animus muliebris*. Edo ile luzea: *Weiber haben langes Haar, aber kurzen Sinn*. Haritschelharrek (1989: 558) atsotitz honen antzeko asko direla dio: “*Adibidez: Comme la lune est variable / Pensée de femme est variable. C'est grand miracle si une femme meurt sans faire folie. Femme est un cochet à vent / qui se change et mue souvent*”. *Rigoletto* operarena ere aipatzen du (*La donna e mobile* hura, alegia). Eta segitzen du: “*Berdin espainolez aurki daitezke: Mujer, viento y ventura presto se muda. Mujer, viento, tiempo y fortuna presto se muda*”. Eta ondorio gisa, berriz, honela dio: “*Emaztearen itxura hori, hain unibertsa-la izana gatik, osoki euskalduntzen da hegoa hitzarekin, hegoa baita Euskal Herrian haize bero, basa eta jauzkorra*”. Dena dela frantseseko hauek aipatu zituen Haritschelharrek berak urte batzuk geroago (1994: 279), (hego) haizearen aipamena egiten dutenak: “*L'esprit des femmes est léger comme le vent de midy. Temps, vent, femme, fortune / Tourment et changent comme lune*”.

226. Helgaitz herenagati ezazela ordeinatzeaz axolati.

- Pour la fièvre tierce, ne te mets pas en soin de faire ton testament.
- Por las fiebres tercianas no te ocupes de hacer el testamento.

- . *Helgaiz herenagati*: sukar mota berezi bati esaten zaio *helgaitz heren*.
- . *esaisela*: *izan* aditzaren aginte balioko “subjuntiboa”, *-(e)la* atzizkia duena, “ez hadila izan”.
- . *ordeinazeas*: hau da, “testamentu egiteaz”.
- . *axolati*: “axolati izan”, zerbait egiteko kezka edo ardura hartu.

227. Helgaitz laurdena, osagarri gaztena, herio zaharrena.

- La fièvre quarte c’est la santé des jeunes gens, et la mort des vieillards.
- Fiebre cuartana, salud de los jóvenes, muerte de los viejos.
- . *Helgaitz laurdena*: sukar mota bat.
- . *gaštena*: *-jt-* grafia *-st-*ren lekuan, bizkarkaria adierazteko. Erro honetako hitzak gainerako agerpen guztietan *gast-*, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (25, 158, 185, 195, 223, 602; *Po* tit; XVII, tit, 40, 88; XXVI, 24; XXX, tit); hemen bakarrik *gašt-* (227). Uler “gazteena”.

228. Her-jauna otoiez dagoenean botoiari, keinuz dauke uheari.

- Quand le seigneur use de prières envers son sujet, il guigne le bâton.
- Cuando el señor pide al súbdito “por favor”, hace guiños a su bastón.
- . *Her-iauna*: “Herri-jauna”.
- . *oto ies* (sic): Francisque-Michelen edizioan *oto`ies*, hau da, *othoiez*. *Otoi-* (228, 256, 260; V, 58; VII, 4; XIV, 5; XX, 24; XXIV, 5); behin *othoi*, *Atsotützen Urrhenkina*-n (662); cf., halaber 663. *Otoiez egon*, “arren eskatu”.
- . *botoiari*: Jauretxe baten mendean zegoen etxeko jaunari *botoi* esaten zioten (cf. Orpustan, *Oihenarten Hiztegia* s. v.).
- . *dauke*: *egon* aditzaren *KE-*dun orainaldia, “dagoke”, hau da, “dago”; *-go-* / *-u-* aldaerez, cf. 63. Aditzak ez du komunztadurarik ondoko datiboarekin.

229. Herrik bere lege, etxek bere aztura.

- Chaque pays a sa loi, et chaque maison a sa coutume.
- Cada país su ley, cada casa su costumbre.

- . *exec*: *x*-ren balioaz, cf. 45.
- . *astura*: -[t]- grafia -*st*-ren lekuan, bizkarkaria adierazteko; gainerako agerpenetan *astura* –gure *aztura*–, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (431, 548; XVII, 5; *Adigarria*: “*Astura, Habitude*”).
- Zalgize 189 berdina da. Isasti 32: “*Erric bere legue, ycheac bere aztura*. Cada tierra su ley, cada casa su costumbre. (En cada villa su maravilla)”. Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du, euskarazkoak horrelako errimarik ez badu ere: *Cade bilatye, / Qu’a soun lengatye; / Cade mayson, / Qu’a sa sayssou* (1911: 455).

230. Herriz aldatzea, zaharrarenzat da heriotzea.

- Changement de pays, c’est une mort pour les vieilles gens.
- Cambiar de país, para el viejo es morir.
- . *sabarrarensat*: -*zat* / -*tzat* aldaerez, cf. 25.

231. Hi arraza handiko, ni seme jauregiko, egur hori nork drauku hautsiko?

- *Tu ne daignerás fendre ce bois, comme étant issu de grande race, ni moi, pour être le fils du gentilhomme de ce lieu: qui sera-ce donc qui le nous fendra?*
- Tú de raza noble, yo hijo de palacio, ¿quién nos partirá esa leña?
- . *draucu hautsiko*: **edun* laguntzailearen orainaldia, *hura-guri-bark*, morfologikoki **era(d)un* faktitiboari dagokiona, *derauku* > *drauku* laburtua –cf., halaber, *draukat* (X, 12), baina *baderaukat* (VII, 2) eta *baderauka* (XX, 4)–; “hautsiko digu”.
- Zalgize 147: “*Hi handi, ni handi, / Norc erranen du, gure astoari harri?* Tu grande, yo grande, quién dirá á nuestro burro arre?”. Gaztelaniazko hau aipatzen du Urkijok: *Yo bueno, tú bueno, ¿quién llevará el gato al agua?* (G. Correas). RS 328: “*Ylacoa jayo ta suac andi*. Naçer tal como tu, y los fuegos grandes”. Gaztelaniaz: *Yo dueña y vos donzella, quien barrera la casa?*. Gailegoz: *Vos dona, yo dona, quem boitara a porca fora?*.

232. Hik maka, nik saka.

- Tu fais le semblant de frapper, et moi je frappe effectivement
- Tú amagas, yo golpeo.
 - . *maka* ... *ſaka*: *makatu* eta *sakatu*-ren aditzoinak. Francisque-Michelen edizioan *maka`* eta *ſaka`*, hau da, *makha* eta *sakha*.

**233. Higu dudanz gaitz diostana
sinets ziroiat, nahiz barhana.**

- Le mal que tu me diras de celui que je n'aime pas je le croirai *volontiers*, quoiqu'il soit étrange et éloigné d'apparence.
- Lo malo que me cuentes de aquel a quien odio yo lo creeré, aunque *sea* extraño.
 - . *Higu*: “higuin” (VII, 5; XI, 3).
 - . *diostana*: **io* erroko aditzaren orainaldia, *hura-niri-hik*, “diostak”, erlatiboan, “diostaana”, hau da, “esaten didaana”.
 - . *ſinets ziroiat*: **iro* ahalezko laguntzailearen orainaldia, etorkizuneko esanahiaz, *hura-nik*, *dirot* arruntaren pareko hikako alokutiboa, “sinets dezaket (hiri esaten diat)”, hots, “sinetsiko diat”.
 - . *barhana*: “kontu harrigarria, sinestekoa ez dena”. Azkueren ustez “parece errata por *bakhan*”, baina ez dirudi horrela denik, Oihenartek *becan* (507; XII, 3) –eta *bekankui* (347)– erabiltzen baitu, ez *bakan* (cf. *OEH*, s.v. *baran*).

234. Hihaurk lan egin-ahala, berzek degiten eztutzala.

- Le travail que tu peux faire toi-même, ne le renvoie pas à d'autres.
- El trabajo que tú mismo puedes hacer, no dejes que lo hagan otros.
 - . *Hihaurc*: aspirazio bikoitzarekin.
 - . *lan eguin-ahala*: “lan egin dezakeana” (cf. VIII, 6).
 - . *bersec*: *bertze* / *berze* aldaerez, cf. 68.
 - . *deguiten*: *egin* aditzaren “subjuntiboa”, sintetikoa, orainaldia, *hura-haiek*, “egin dezaten”.
 - . *estuzala*: *dutzala*, *utzi* aditzaren “subjuntiboa”, aginte baliokoa, *hura-hik*, ondoan *-(e)la* atzizkia duela, “ez dezaala utz” (cf. 540).

235. Hil adi, alaba aite.

- Meurs, et après tu pourras être loué: *d'ordinaire on n'est loué qu'après la mort.*
- Muérete y serás alabado.
 - . *alaba aite*: **edin* laguntzailearen “KE-dun” orainaldia, futuro balio-koa, “alaba haiteke”, hau da, “alabatua izango haiz”.
 - Bela 29: *Hiladi, laydadi.*

236. Hila lupera, biziak asera.

- Le mort à la fosse, les vivants à la saoulée. [Cela se dit à cause des banquets qu'on fait parmi les Basques, aux parents et amis du défunt le jour de son enterrement].
- El muerto a la tumba, los vivos a la panzada.
 - . *lupera*: “hilobira” (cf. XVII, 127).
 - . *visiac*: hau da inoiz *v*-rekin idazten den hitz bakanetakoa. Askotan *b*-rekin, noski, espero zen bezala: *bisi-* (61, 149, 324, 327, 606; XIII, 1; XV, 9; XXVI, 11) eta *bici-* (6, 103, 512, 547; VI, 9; VIII, 6; XVII, 24, 97, 116; XXIV, 2; XXVI, 9; XXVII, 2); beste batzuetan, ordea, *v*-rekin: *visi-* (236; X, 6; XIII, 11; XV, 9; XVIII, 10; XIX, 14; XX, 7) eta *vici-* (365, 400; VII 1, 7; XXIV, 4); *-si-* / *-ci-* aldaeraz, cf. 6.
 - Zalgize 42: “*Hila hobira, / vicia çarera*. El muerto á la tumba, el vivo al pesebre”. Sarasolaren ustez, *çare* horrek “pesebre” baino areago “cesta” gogorazten digu. Urkijok honekin lotzen du nolabait RS 199: “*Yla vsteldu ta zurça açi*. El muerto podre ce y el huerfano crece”. Eta gaztelaniazko hauek aipatzen ditu: *El muerto, al hoyo, y el vivo, al bollo; A los muertos la mortaja, à los vivos la hogaza* –eta, Zalgizerena iruzkinduz, *Váyase el muerto á la sepultura, y el vivo á la hogaza* (Cervantes, en el *Quijote*)–. Academiaren iruzkin hau aipatzen du: “que, á pesar del sentimiento de la muerte de las personas más amadas, es preciso alimentarse y volver a los afanes de la vida. Usase también para censurar á los que olvidan demasiado pronto al *muerto*, y piensan en propios”.

237. Hileko erdia, hileko eria.

- L'accouchée de ce mois fait la malade durant tout le mois.
- La parturienta del mes, enferma todo el mes.
 - . *erdia*: erditu dena.
 - / Zalgize 38: “*Urteco erdia, / urteco eria (emaztez errana)*. La parida en el año, enferma para el año (dícese de las mujeres)”.

238. Hilordu gabe bere onaz emaitza zeginak, kausit zezan zahartze gaitza.

- Celui qui donna son bien avant que d'être prêt à mourir passa fort à malaise le temps de sa vieillesse.
- El que legó sus bienes antes de *que le llegara* la hora de morir, tuvo una vejez dura.
 - . *Hil-ordugabe*: *gabe* postposizioa *hil-ordu* izen elkartuari lotua; “hil-ordua iritsi baino lehen”.
 - . *seguinac*: *egin* aditzaren iragana, aoristo baliokoa (cf. 8), erlatiboan, “egin zuenak”.
 - . *kau[̣]it sesan*: **ezan* laguntzailea, iragana, aoristo baliokoa (cf. 8), “kausitu zuen”, “izan zuen”.

239. Hire gaitza eztuk net gaitza, hire auzoaren beharrira ezpadaitsa.

- Ton mal n'est pas un mal formé, tandis qu'il ne vient pas aux oreilles *ou à la connaissance* de ton voisin.
- Tu mal no es mal del todo, si no llega a oídos de tu vecino.
 - . *net gaiza*: gaitz erabatekoa.
 - . *espadait[a]*: *badaitsa, jautsi / jaitsi* aditzaren orainaldia, “jaisten ez bada”.
 - RS 431: “*Yre auçoac eztaquiâ gacha / onada*. Daño que no te sabe tu vezino / bueno es”.

240. Hiri zionat, alaba; adi ezan, alabaizuna.

- C'est à toi que je parle ma fille, entends-moi ma fillâtre.
- A tí te lo digo, hija; *pero* óyelo tú, hijastra.

. *sionat*: **io* erroko aditzaren orainaldia, *hura-nik*, hikako alokutiboa fem., *diot* arruntaren parekoa, “esaten dinat”, hots, “esaten dut (hirekin ari naun)”. Ohar ez dela *nor-nori-nork* forma, hots, *hura-hiri-nik*, hau *diosnat* edo horrelakoren bat izango bailizta-teke. Hortaz, esan behar da hemen ere, beste askotan bezala, aditzak ez duela komunztadurarik egiten datiborekin (Lafon 1949: 442). *Hari erraiten dut / Hari erraiten diot* bezalatsuko aldea dago *Hiri zionat / Hiri diosnat* formen artean.

. *Alaba ... Alabaisuna*: maiuskularekin.

→ Zalgize 131: “*Hiri cionat allaua, / Ençun neçan allauaiçuna*. A ti te lo dije hija, para que lo oyera mi nuera”. Eta gaztelaniazko hau aipatzen du: *A ti lo digo hijuela; entiéndelo, mi nuera* (G. Correas).

241. Hirur *gutik* eta hirur *anhitzek* galtzen dute nehor:

guti ukhen eta *anhitz* gastatzeak,

guti jakin eta *anhitz* edasteak,

guti izan eta *anhitz* izan usteak.

- *Trois peu, et trois beaucoup, gâtent le monde; c’est à savoir: avoir peu et dépenser beaucoup, savoir peu et parler beaucoup, être peu de chose et présumer d’être beaucoup.*

- *Tres pocos y tres muchos pierden a la gente:*

tener *poco* y gastar *mucho*,

saber *poco* y hablar *mucho*,

ser *poco* y presumir ser *mucho*.

. *Guti*: maiuskulaz hiruretan.

. *vke`n*: aspirazioa adierazten duen espiritua, ondoko bokalaren segidan (hitz honetaz, cf. 1).

. *edasteac*: hitz honek tradizioan duen idazkera ikusita, pentsatu behar da -*ʃt*- grafia ren lekuan dagoela -*st*- grafia; berdin *edasle* (570). *Adigarria*-k, berriz, *edaste / eraste* bai, baina *ereʃsi*: “*Erastea*, ou *edastea*; S. Discourir, faire quelque recit, ou narration; c’ est de la qu’ on appelle *ereʃsiac*, les vieilles chansons qui contiennent quelque histoire, ou narration”.

. *vsteac*: -*st*- grafia osterera ere -*ʃt*-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 144). “Izan uste”, hitz elkartua.

242. Hitz ezetik mihia zaurtzen ezetik.

- Une parole douce ne blesse pas la langue.
- Una palabra dulce no hiera la lengua.
→ Esanahiari dagokionez, cf. 291, 318, 576, 632.

243. Hobe da bakeareki arraulzia, ezi ez aharrareki bilarrauzia.

- Il vaut mieux un œuf avec paix qu'un veau avec guerre ou dissension.
- Más vale huevo con paz que ternero con guerra.
. *esies*: lotuta (cf. 150).
. *arraulsia*: besteetan ez bezala, $-e + a > -ia$ (XII, 10: *Arraulse*), *bilarrausia*-rekin rima egiteagatik-edo.

244. Hobe da ixil egoitea, ezen ez gaizki minzatzea.

- Il vaut mieux se taire que mal parler.
- Más vale callarse que hablar mal.
. *esenes*: loturik beti (cf. 84).
→ Urkijo Esk: *Mieux vault soy taire que folie dire* (Le Roux de Lincy, I, 107).

245. Hobe da on guti eta izan kito, ezi ez on tusto eta zorrez itho.

- Il vaut mieux peu de bien et ne devoir rien que d'avoir beaucoup de bien, et être accablé de dettes.
- Más vale *tener* pocos bienes y no deber nada que *tener* muchos bienes y estar abrumado de deudas.
. *esies*: lotuta (cf. 150).
. *tusto*: $-st-$ grafia $-[t-]$ ren lekuan, apikaria adierazteko; beste bi agerpenetan, *tusto* (448) eta *thu]to* (584).
. *it̪*: espirituak *th* aspiratua adierazten du; hitz honen idazkeraz, cf. 41.

246. Hobe da zahi hutsa, ezi ez aho hutsa.

- Il vaut mieux manger du pain de son que de n'en manger pas de tout.
- Más vale sólo salvado que boca vacía.

. *hutsa ... hut*ʃa: balio berekoak biak: gure *ts* adierazteko *ts*, *tʃ* zein *z*[•] grafiatik “eratorritako” *z* soila erabiltzen ditu Oihenartek (cf. hitzaurrea).

. *esi es*: hemen bereiz, cf. 150.

→ Okoad 218 berdina da. Okoad 236: “*Irina joanez gueroz [ç]abia çalez*. Después de ida la harina, el salvado (se come) con ganas”. Urkijo Esk: *A falta de pan ...* [buenas son tortas].

247. Hora ezta harrukaldiz amontzen.

- Le chien ne s’apprivoise pas avec des coups de pierre.
- El perro no se amansa con pedradas.

. *harrukaldis*: “harrika”.

248. Horak, ez berak zahia jan, ez oiloer utzi.

- Le chien ne mange pas du son lui-même, ni ne veut souffrir que les poules en mangent.
- El perro, ni come él mismo salvado ni deja que las gallinas *lo coman*.

. *ian ... vzi*: laguntzailerik gabeko partizipioak, “jaten du”, “uzten die”.

. *oiloer*: -*ill*- grafia, alboko sabaikaria adierazteko; ikus *oillo* (248, 510, 551, 685), *oillarra*ʃisiqui (XXVI, 4), baina *oilo* (356, 357, 358, 359), *oilar* (356).

→ Zalgize 25: “*Horac ez çahia jan, ez oiloer utci*. El perro no come salvado ni deja [comer] á las pollas”. Bela 22: *Ez horac çahia jan, ez oilloer utzi*. Urkijo Esk: *Come le chien du jardinier qui ne mange pas et ne veut pas que persone en mange* (Le Roux de Lincy, I, 107). Eta: *El perro del hortelano ...* [que ni come las berzas ni las deja comer].

249. Horak, non mina han mihia.

- Le chien porte sa langue là où il sent son mal.
- El perro, donde le duele allí se lame.

→ Haritschlhar (1991: 195): “(...) en traduction littérale, donnerait: ‘le chien où le mal, là la langue’”. Garibay A53: “Por los hombres

que perpetuamente tratan y hablan de sus intereses sin querer oír de los otros, diçen: *Aguinean mindabenac miia ara. El que le duele el diente, lleva la lengua a el*". Zalgize 32: [Horac] *Non mina, Han mihia*.

250. Hor gose, loz ase.

- Un chien affamé se saoule de dormir.
- Perro hambriento, de dormir harto.

251. Hori da onsa errana, bana erakarrak egin dezana.

- Cela est bien dit, mais amène-nous quelqu'un qui le fasse.
- Eso está bien dicho, pero haz venir *a alguien* que lo pase a hecho.
 - . *onsa*: -s- txikia, -f- luzearen lekuan *n-* kontsonantearen ondoan, apikaria adierazteko. Hitz hau behin *onja* idazten da, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (59), baina besteetan *onsa* (251, 446, 504; IV, 11; XXVII, 2).
 - . *eracarrac*: *erakarri* faktitiboaren aginte aldia, *hura-hik*, "ekarraraz ezak".
 - . *eguin desana*: **ezan* laguntzailea, "subjuntiboko" orainaldia, erlatiboan, "egingo duena".
- Honen antzekoa da Zalgize 173: "*Erranac eder, / Eguinac lander*. Los dichos hermosos, los hechos miserables". Garibay B15: "Por los que tienen palabras hermosas, y las obras no tales, dicen: Palabras las hermosas, cosas las no. *Yç-oc ederr, guei-oc eç*". Gaztelaniaz: *Del dicho al hecho hay mucho trecho*.

252. Hotzak eztu axol betatxuaren, ez goseak zetatxuaren.

- Le froid ne dédaigne pas un habit rapetassé, ni la faim le pain mal sassé.
- El frío no hace ascos al petacho, ni el hambre al pan malo.
 - . *betaxuaren ... setaxuaren*: pentsatzekoa da Oihenartek *x**, hau da, gure *tx*, idatzi eta moldiztegian puntua galdu zela eta, hortaz, *betatxuaren* eta *zetatxuaren* irakurri behar direla, hurrenez hurren.

253. Hotzak maiatza hil zezan, eta ni ase nenzan.

- Le froid fit mourir le mois de mai, et à moi il me rassasia.
- El frío mató al mes de mayo y a mí me hartó.

. *hil sesan*: **ezan* laguntzailea, iragana, *hura-hark*, (cf. 8), “hil zuen”.

. *asse nensan*: **ezan* laguntzailea, iragana, *ni-hark*, “ase ninduen”.

→ RS 535: “*Oçac yl eguia Mayaça / ta ni asenenza*. El frío matole al Mayo / y me harto a mí”.

I konsonanta

254. Jainkoa, luzakor bad' ere, ezta ahanzkor.

- Encore bien que Dieu soit lent à *pu[n]ir le pécheur*, si est[-]ce qu'il n'est pas oublieux.
- Dios, aunque es lento, no es olvidadizo.

. *ahalcor* dio testuak, baina Atsotitzen ondoko FAUTES DE L'IMPRESSION atalean honako zuzenketa dator: “pour *ahalcor*, lisez, *lusacor*”.

. *bad'ere*: apostrofoak *-a* bokalaren elisioa adierazten du (cf. 92).

→ Haritschelar (1992: 200): “Erran nahi bertsukoak dira segidan emaiten ditudan frantses atsotitzak: *Dieu n'oublie pas les siens (...). Dieu qui est juste payera selon que chacun fera*”.

255. Jainkoak, bera langile on izanagati, nahi du lankide.

- Encore bien que Dieu soit bon ouvrier, si est-ce qu'il veut qu'on l'aide.
- Dios, aunque él solo es buen obrero, quiere ayudantes.

. *bera*: bakarrik izanik ere, hau da, laguntzailerik gabe ere, aski langile on da Jainkoa.

256. Jainkoari, otoi eginez; eta beharrari, eginez.

- Il faut gagner Dieu à force de le prier, et *pourvoir* à la nécessité à force de travailler.
- A Dios *se le gana* rezando; y a la necesidad, trabajando.

. *otoi*: hitz honen idazkeraz, cf. 228.

→ Urkijo Esk: *A Dios rogando y con el mazo dando*. Haritschelhar (1992: 198): “Holako errefrauak –edo bederen idurikoak– aurkitzen dira, bai frantsesez, bai espainolez, hala nola, *Aide-toi, le ciel t’aidera* (...), *Dios dixo: ‘Aiúdate, ke io te aiudaré’*”.

257. Jaiki zedin nagia suaren pitzera, ezar zezan etxea erratzera.

- Le paresseux se leva pour allumer le feu, et il mit le feu à la maison et la brûla.
- Se levantó el vago a encender el fuego, y puso la casa en llamas.

. *Jaiki zedin*: **edin* laguntzailea, iragana (cf. 8), “jaiki zen”. *Jaiki-* (257, 520; IV, 2), baina *jeikiten* (222, 627).

. *suaren*: *s-*hitz hasieran \int -ren lekuan, apikaria adierazteko. Erro hone-tako hitzak $\int u$ - idazten dira maiz, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (170, 342, 633; XIV, 3); baina beste batzuetan *su-* idazten dira, *s-* txikiarekin (257, 298, 381, 536); eta beste batzue-tan bietarako balio duen maiuskularekin, *Su-* (411, 412, 415, 672, *S* apikariz hasten diren atsotitzen multzoan; XIV, 4; XVI, 9, 9).

. *pizera*: *pitz-* + *-tzera*; ez, alegia, *piz-* + *-tera* (cf. 106).

. *esar sesan*: **ezan* laguntzailea, iragana, “ezarri zuen”.

. *exea*: *x-*ren balioaz. cf. 45.

. *errazera*: *erre* partizipioa (9, 631), *erra* aditzoina (460), *erratze* aditz izena (257).

→ Garibay A 2: “Por los perezosos en comenzar las cosas y despues de comenzadas, las quieren atropellar con muchas prisas, dicen: *Jaqui çidin naguia erra çizan vria. Leuantose el perezoso, quemo la villa*”. RS 294: *Iayguicidi naguia / erracizan vria*. Urkijok azken honen iruzkinean dioenez, Azkuek honako hau bildu zuen Markinan: *Nagiak erre eieban erria*. Azkuek izentzat hartu zuen “nagiak” eta “la pereza” itzuli zuen. Atsotitz portugez hau ere gogoratzen du Urkijok: *Leuanto se o pegriçoso, e meteo fogo a o palleyro*.

258. Jan eta hotz, ezta atxeterra botz.

- Avoir froid après avoir mangé n’est pas ce qu’il faut au médecin, *d’au-tant que c’est signe de santé*.

- Sentir frío después de comer, no le da al médico placer.

. *axeterra*: cf. 213.

259. Jaunetan zein da latzena?

Ezdeuseti jauntzera heldu dena.

- Quel est le plus rude entre tous les seigneurs? C'est celui que est parvenu de rien à être seigneur.
- ¿De los señores, cuál es el más duro?
El que de la nada ha llegado a señor.

. *esdeu]seti*: minuskulaz, bigarren lerroaren hasieran egon arren; -]-bakuna bokal artean, lexemaren buruan dagoelako, beharbada.

260. Jaun handien otoia, ezetz errailen zeha-doia.

- La prière des grands, c'est le lieu [là] où les refusants trouvent les coups de bâton.
- A la súplica de los grandes señores se ajusta el castigo de sus detractores.

. *otoia*: Francisque-Michelen edizioan *ot`oia*, hau da, *othoia*; cf. 228.

. *seha-doia*: "zigorraren neurri egokia". "Doizea, Adjuster, proportionner, de *doi*, iuste, proportionné" (*Adigarria*).

→ Okoad 317 eta RS 550 (*TAV*): *Jaunen hotua oy da aguindua*.

261. Jaunztekoak eztiro eder ximinoa, baliz ere zetazkoa.

- L'habit ne rend pas le singe beau, quoiqu'il soit fait de soie.
- El vestido no hace hermoso al mono, ni aun siendo de seda.

. *estiro eder*: *edertu*-ren aditzoia; *diro*, **iro* ahalezko laguntzailea, orainaldia, "ez dezake eder", hots, "ez du edertzen".

. *baliz ere*: baldintza hipotetikoa, "aunque fuera", aditz nagusia *lir*o bada ere (cf. 704).

→ Antzeko zerbait dio RS 220k: "*Iazquereac parrahua / eguite ez du*. El vestido al hermitaño / no le haze". Gaztelaniazko hauek aipatzen ditu Urkijok: *El hábito no hace al monje; Aunque se vista de seda, la mona, mona se queda*. Latinez: *Cucullus non facit monachum*. Urkijo Esk: *Le singe est toujours singe, et fust-il desguisé en prince* (Le Roux de Lincy, I, 131).

262. Jauregik jaka bete xingolaz, barnea eztupa et' arkolaz.

- Jauregi (*c'est le nom d'un homme*) a son pourpoint tout couvert de galons, mais le dedans n'est qu'étoupe.
- Jauregi *tiene* la chaqueta llena de galones, *pero* el interior es de estopa y arpillera.
 - . *bete*: Francisque-Michelen edizioan *bet'e*, hau da, *bethe*. *Bete-*, aspiraziorren markarik gabe (262; XX, 17; XXVIII, 5), baina *bethe-* (486, 511, 593; X, 2; XIII, tit.; XXVI, 20; *Adigarria*); aditzoina *beta* (XX, 12).
 - . *et'arcolaz*: apostrofoak *-a*-ren elisioa adierazten du (cf. 92).
 - RS 168: "*Chamaratilla andia / ta atorra chancharduna*. Cabeçon grande / y camisa con arrapiezos".

263. Jauregik, berak ardiesten ezin duena du gutiesten.

- Jauregi méprise ce qu'il ne peut comprendre.
- Jauregi, lo que él no puede comprender lo desprecia.
 - . *ardiesten*: *-st-* grafia *-[t]-ren* lekuan, apikaria adierazteko. Hitz hau beti horrela: *ardiesten* (263, 527), *ardiresten* (II, 6). Aditz honen esanahietako bat "entender, comprender" da (cf. *OEH*, s.v. *erdietsi* eta Lafon 1949: 437) eta horixe da frantses itzulpenak atsotitz honetarako hobetsi duena. Bestela, ohiko "lo que no puede conseguir" izango litzateke.
 - . *gutiesten*: *-st-* grafia *-[t]-ren* lekuan, ostera ere; cf. *gutiet[sac]*, apikaria-rekin (618).
 - Esnahiari dagokionez, cf. 483.

264. Jauregiko emaitzak, eskea ondoan.

- Le présent du gentilhomme est bientôt suivi de quelque demande.
- Al regalo de palacio sigue *siempre* una petición.
 - . *eskea*: *-sk-* grafia *-[k]-ren* lekuan, apikaria adierazteko. Erro honetako hitzak *-[k]-rekin* idazten dira maiz, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan: *e[sk]-* (31, 118, 398, 514, 694, 702; I, 6), *e[ca]-* (398, 514, 694; I, 6), *e[calea]* (487); baina inoiz *-s-* txikiarekin, *eske-* (264, 319, 381, 455; XVII, 123).
 - Zalgize 28: "*Jauregüico presenta, cerbait esque*. Regalo de palacio

pide algo”. Bela 34: *Jaurico presentac escua ondoan, non escua-
-ren lekuan esquea irakurri behar den, beharbada* (cf. TAV: 186).
Ikus, halaber, RS 497: “*Esa jaunen saria / ezta ayn coycari / çeyn
dirudi. La dadiua del duende / no es tan sobradissima / como
pareçe*”.

265. Jauzkari ona, kapatxarduna.

- Sous une méchante cape se trouve souvent le bon sauteur.
- Buen saltarín, el de la capa vieja.
 - . *capaxar-duna*: marrarekin (cf. 117). Baliteke *x*-ren azpian *x*^o egotea, afrikatuarekin erabiltzen baitzen *txar* hitza Oihenartek segitzen zuen euskara ereduan, batez ere elkarketaren bigarren zatia denean (cf. FHV: 190). Horrela bada, *kapatxarduna* irakurri behar da, guk egin dugun bezala. OEhk ere horrela ulertzeko bide ematen du, *kapa* (*t*)*xarduna* idazten baitu (s.v. *kapa*).
 - / *Notitia*-n beste era honetara emana zuen Oihenartek berak: *Edale huna / Capella-duna*. Eta espainolez, ez hain egoki: *Debaxo de mala capa ay buen beuedor* (cf. 1. Liburua, XIII. kapitulua. Berdintsu Zalgize 180: “*Edale ona capela-pian. Buen bebedor, bajo [un] sombrero*”.

266. Jentainen oihana hurren, bana behar karreiari egurren.

- A Jentein le bois est proche de la maison, mais il le faut charrier.
- En Jentain el bosque *está* cerca, pero hace falta *alguien* que traiga la leña.
 - . *oihana*: testuak *egurra* dio, baina Atsotitzen ondoko FAVTES DE L'IMPRESSION atalean zuzendua dago: “au lieu de *egurra*, lisez, *oihana*”.
 - . *carreiari egurren*: hots, “*egurra* ekarriko duena”.
 - Zalgize 151: “*Itzalçun egurra hurran; / baina ez bera giten etchera. En Itzaltzu (?) la leña cerca, pero no viene sola á casa*”.

267. Jainua azkarrari garhait.

- L'industrie surpasse la force.
- El talento supera a la fuerza.

- . *Iinua* dio testuak, baina Atsotitzen ondoko FAVTES DE L'IMPRESSION atalean zuzendua dago: "au lieu de *iinua*, lisez, *iei-nua*".
- Zalgize 1: *Artia azcarrari garhait (Hobe liçate venturaz indarrari, substantiuoac inhardets deçan berçeari)*. Zalgizek zalantzan jar-tzen badu ere, "azkar" hitza izena da hemen, Oihenartenean bezala, "fuerza" alegia, ez "fuerte", eta ez da zer aldatu "indar" ipiniz. Isasti 80: "*Trauajua, mañac garay. Mas vale maña que fuerzas*". RS 27: "*Aceriac buztana jauso eçin / ta vay gabia. / andidanarren yndarra / nagusi jaquiteria*. El raposo la cola no puede sostener / y si el mazo / por ser en si grande la fuerça / mayor es la sabiduria". Urkijok gaztelaniazko hauek aipatzen ditu: *Más vale maña que fuerza; La fuerza es vencida del arte (Quijote)*.

268. *Joanetac* zaia oihal mehez, jakia ekosariz, salda ehez.

- Jeannette a sa robe de drap fin, sa pitance c'est de la fève, son potage *maigre et tanné* comme l'eau de lessive.
- Joaneta *tiene* la saya de paño fino, *pero* su comida *es* de habas y su caldo de lejía.
 - Haritschelhar (1994: 277): "Oihal lodiz egiten ziren jauntziak lehenago eta ez du behar den bezala irun eta ez du denbora haundirik iragaiten sukaldaritzan: alferraren seinalea. Gordinagoak dira espainol erran zaharrak: *Mujer ociosa no puede ser virtuosa. Mujer no hacendosa, o puta o golosa. La mujer que poco hila siempre trae mala camisa*. Azken honen parekoa frantsesez: *Femme qui enuy file porte chemise vile*".

269. *Jokariaren lasterra*, gora behera; goratzea hegi erdirano, beheratzea ondarrerano.

- La course d'un joueur est tantôt en haut, tantôt en bas: celle d'en haut va jusqu'au milieu de la montagne, celle d'en bas jusqu'au fond.
- La carrera del jugador sube y baja; la subida *es* hasta media ladera, la bajada hasta el fondo.
 - . *Iocariaren*: Francisque-Michelen edizioan *Ioc`ariaren*, hau da, *Jokhariaren*.

- . *gora behera*: hau da, “noiz gora, noiz behera”.
- . *hegui*: aldapa edo muino (cf. *OEH*, s.v. *hegi*).
- . *ondarrerano*: *h-* gabe beti (ikus 320, 581).

270. Jokorik hobena, gutien dirauena.

- Le meilleur jeu c’est celui qui dure le moins.
 - El mejor juego, el que menos dura.
- . *hobena*: cf. 217.
. *diraiüena*: dieresiak *u-*ren bokaltasuna adierazten du; [b] ez dela, alegia.
→ Urkijo Esk: *El mejor de los dados es no jugarlos* (o algo así).

271. Jorraia aitzurraren bardin nahi.

- Le sarcelet veut aller de pair avec la bêche.
 - El escardillo quiere ser como la azada.
- . *bardin*: cf. 197.

I bokala

- . *I vocala*: *v* kontsonantearen agerpen bakanetakoa.

272. Idia geinha dezanak uztar diro.

- Celui qui nourrit le bœuf pourra bien l’accoupler.
 - El que da de comer al buey lo puede uncir.
- . *geinha desanac*: *geinatu*-ren aditzoina; **ezan* laguntzailea, “subjuntiboko” orainaldia (cf. 88), erlatiboan, “geinatzen duenak”, “jaten ematen dionak” (22, 135...).
- . *vstar diro*: **iro* ahalezko laguntzailea, orainaldia, “uztar dezake”, “uztartzen du”.

273. Idiak erasi beharrean, gurdiak.

- Au lieu que ce serait au bœuf de se plaindre, c’est la char[r]ette qui fait de bruit.

- En lugar de quejarse el buey, *lo hace* el carro.
 - Isasti 49: “*Idiac erausi bearrean, gurdiac inno*. El buey hauia de mugir, y el carro gruñe”. RS 305: “*Ydiac oñon bidean gurdiac*. Ê lugar degruñir los bueges el carro”. *Gaztelaniaz: Lo que ha de cantar el buey, canta el carro. Lo que había de cantar el carro, cantan los bueyes. Lo que ha de cantar el carro, canta la carreta*. Akademiaren arabera, “Se dice del que se anticipa á reñir ó á quejarse, teniendo menos motivo que otro”.

274. Ihabaliaren ezpatak, punta motz, ahoa lanputs.

- L'épée de l'homme qui n'a point de cœur est toujours sans pointe et a le tranchant émoussé.
- La espada del cobarde, la punta roma y el filo embotado.
 - . *Ihabaliaren*: ohi ez bezala -ea- > -ia- (cf. 208).
 - Urkijo Esk: *A vaillant homme courte épée* (Le Roux de Lincy, II, 52).

275. Ikus nezan orratz-ohoina azotaturik, urre molzoarena alkateturik.

- Je vis celui qui avait dérobé des épingles fustigé, et celui qui avait volé le trésor, devenu *Bailli* ou *Iuge de la province*.
- Vi al ladrón de alfileres azotado y al de lingotes de oro hecho magistra-do.
 - . *Ikus nesan*: Francisque-Michelen edizioan *Ik`us*, hau da, *Ikbus*. Hitz amaierako -s txikia -j luzearen lekuan, frantses ortografian ohikoa zen bezala (cf. 688; V, 14; VI, 6; XXVII, 8); **ezan* laguntzailea iragana, aoristo baliokoa (cf. 8), “ikusi nuen”.
 - . *urte molsoarena*: urre multzoak lapurtu zituena.
 - . *alkateturik*: “alkate edo epaile eginik”. Francisque-Michelen edizioan *alc`ateturik*, hau da, *alkbateturik*.

276. Ilunbeko lana, eguargiz ageri.

- Le travail fait de nuit se fait connaître le jour.
- El trabajo *hecho* de noche se descubre a la luz del día.
 - Zalgize 163 berdina da, baina *egu-arguiz* marrarekin idatzia. Urkijok dioenez, gaur egun Ustaritzen: *Ilhuneko lana argitu ta*

ageri. Isasti 52: “*Illunbeco jostea, arguitaco lotsea*. Lo cosido a oscuras, a la luz confundido”. Urkijok gaztelaniazko hau aipatzen du Lopez de Mendoza-ren bildumatik hartua: “*Lo que de noche se haze, de dia se parece*. El mal o biê que êcubre la escuridad o ygnorâcia manifiesta la verdad o sciencia”.

277. Inhardesterik hobena, egite lan manatuarena.

- La meilleure réponse *qu'on saurait faire*, c'est de faire ce qu'on est commandé.
- La mejor respuesta, hacer el trabajo ordenado.
 - . *Inhardesteric*: -st- txikia -[t]-ren lekuan, apikaria adierazteko. Gainerako agerpenak -[t]-rekin, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan: *inhardeste*a (529), *ihardesp*ena (373).
 - . *hobena*: cf. 217.
 - . *eguite lan manatuarena*: izenlaguna izenaren eskuinean, “lan manatuaren egitea”. Dieresia, *u* eta *a* bokal bi.

278. Inhurria sarri hiltzekotan, hegaldun egin zedin, eta ez hegasti gertatzekotan.

Bertzela:

Bere zorigaitzean inhurriari hegalak sortu zitzaizkan.

- C'est pour mourir bientôt que la fourmi recouvra des ailes, et non pas pour oiseau devenir. [Autrement] C'est pour son malheur, que les ailes sont venues à la fourmi.
- La hormiga se hizo alada para morir pronto, y no para convertirse en ave. *O también*:
Para su desgracia le salieron alas a la hormiga.
 - . *hiltzekotan* ... *guertazekotan*: -*tzekotan* atzizkiak ondorioa adierazten duela dirudi, helburua edo asmoa baino areago. Alegia, hori da lortu zuena.
 - . *egin zedin*: **edin* laguntzailea, “subjuntiboko” iragana (cf. 8), “egin zen”.
 - . *hega[ti]*: tradizioan biak aurkitzen dira, *hegazti* eta *hegasti*, baita inoiz autore berak erabiliak (cf. *OEH*); Oihenartek ere *hega[ti]* hemen, baina *hegasti*ac, hots, gure *hegazti*ak (373). Dagoen dagoenean utzi dugu hitza leku bakoitzean. Ez da ahaztekoa, hala ere, behin

baino gehiagotan ageri dela -/t- grafia -st-ren lekuan eta, hortaz, *hegazti*-ra zuzendu beharrekoa izan daitekeela hau ere.

. *guertazecotan*: normalean *guerta*- idazten du Oihenartek, leherkariaren aspirazioa adierazi gabe (278, 321, 385, 471; III, 2; VI, 2; XX, 8; XXII, 3); batzuetan, ordea, *guertha*- idazten du (653; I, 2; XVI, 11)

. *sori gaizean*: bereiz.

. *sortu sizaiscan*: “sortu zitzaizkion”.

→ RS 526: “*Vere gachean / ynurriari egoac jayo jacazâ*. Por su mal a la hormiga / las alas se le nacieron”. Eta Isasti 21: “*Chindurriari daquitzeanean egoac, galdu oi ditu gorputza eta bessoac*. A la hormiga quando le nacen alas, perder suele el cuerpo y los brazos”. Gaztelaniaz: *Por su mal crió alas la hormiga*. Edo: *Dá Dios alas á la hormiga para morir mas aina*. Latinez: *Malo suo didicit volare formica*. Eta honako iruzkin hau aipatzen du Urkijok: “Refr. que enseña, que como la hormiga en teniendo álas, vuela y se pierde, ó se la comen las aves: assi los que se desvanecen con el caudál, ú honor adquirido se quieren elevar de modo, que perecen por no usar bien de su buena fortuna”.

279. Inzaur duenak jateko, aurkit diro harri hausteko.

• Celui qui a des noix à manger, trouvera assez de pierres pour les casser.

• Quien tiene nueces para comer, encontrará piedras para cascarlas.

. *duënac*: dieresia *u*-ren ondoko bokalaren gainean, *u* eta *e* bokal bi direla adieraziz, normalean silaba banatan ahoskatuak.

. *aurkit diro*: *aurkitu*-ren aditzoina; **iro* laguntzailea (cf. 119, 261, 272).

→ Zalgize 48: “*Inçaurduianac jateco, / Baduque harri hausteco*. El que tiene nueces para comer, tendrá piedra para romperlas”.

280. Irririk eztakien begitartea, bihotz latzaren jakilea.

• Un visage qui ne rit jamais est le témoin d’un cœur fier et *mauvais*.

• Rostro que no sabe reir *es* testigo de un corazón duro.

281. Irunez oihaldun da gur’ andrea, ez alfer egonez.

• C’est à force de filer que notre maîtresse a provision de linge, et non pas pour avoir demeuré sans travailler.

- A fuerza de hilar se ha hecho con paños nuestra señora; no, estando ociosa.

. *oihaldum*: errata.

. *gur'andrea*: *gure*-ren amaierako *e*-ren elisioa (cf. 92).

→ Haritschelhar (1994: 291): “Aurkako atsotitzek eskaintzen dute langilearen balioa: *La mujer que poco hila tarde hace luenga tela. La mujer que poco hila siempre trae mala camisa*”.

282. Izana, izen gaitza.

- C'est un mauvais nom que celui d'avoir été, *et ne l'être plus*.
- “Haber sido” *es* un mal nombre.

. *Isana*: hots, “ohia”, “izan dena”.

→ Atsotitz hau gogorarazten diote Mitxelenari (1953b: 556), “(...) acaso más por la semejanza de tono afectivo que por la correspondencia literal (...)”, honako Zizeronen hitz hauek: “*triste nomen ipsum carendi, quia subicitur haec uis: habuit, non habet*. ‘La misma palabra ‘carecer’ (lit. ‘el mismo nombre’) produce tristeza, porque supone esta idea: ha tenido, ya no tiene’”.

283. Isiz fraide sar nendin, eta ahalgez jalgi enendin.

- Je me fis moine par dépit, et ai demeuré de honte sans en sortir.
- Por despecho me metí fraile y por vergüenza no salí.

. *sar nendin*: *s-* hitz hasieran *ʃ*-ren lekuan, apikaria adierazteko (berdin V,31); gainerako agerpenetan *ʃar-* (608; XIII,1; XXVI, 17) edo bietarako balio duen *Sar-* (667; IX, 5; X, 14; XXVI, 5); **edin* laguntzailea, iragana (cf. 8), “sartu nintzen”.

. *ialgui enendin*: *nendin*, aurrekoa bera, “ez nintzen jalgi”.

284. Itaxura ezansia zezanak bere etxea gal zezan.

- Celui qui négligea de faire réparer la gouttière, perdit sa maison.
- El que no se ocupó de la gotera perdió su casa.

. *es-ansia sesanac*: marrarekin; *-s-* txikia *-ʃ-* luzearen lekuan, *n*-ren ondoan. *Ezansiatu*-ren aditzoina, **ezan* laguntzailea, iragana (cf. 8), erlatiboan, “ezantsiatu zuenak”, hots, “hartaz axolatu eta arduratu ez zenak”.

. *exea*: cf. 45

. *gal sesan*: aurreko laguntzaile bera, “galdu zuen”.

→ Urkijo Esk: *Wer das Dach nicht ausbessert, dem fällt das Haus ein (über den Kopft)* (Wander, palabra *Dach*, nº 18). *Quien no adóba ó quita gotera, hace casa entera*. Refr. que enseña el cuidado que se debe tener en evitar prontamente los inconvenientes, aunque parezcan pequeños, porque de semejante descuido resultan comunmente gravísimos daños. Lat.: *Principijs obsta nam morbi damna gravescunt / tempore: de minimis magna subire solent*.

285. Itsasoak adarrik ez.

- La mer n’a point de branches, à quoi on se puisse prendre quand on se noie.
- El mar no tiene ramas.

→ Urkijo Esk: *Das Meer hat keine Balken* (Wander, palabra *Meer*, nº 9).

286. Itsasturuaren emaztea, goizean senhardun, arratsean elhargun.

- La femme du marinier est bien souvent mariée le matin, et veuve le soir.
- La mujer del marinero, a la mañana casada y a la tarde viuda.

. *Itsasturuaren*: -st- grafia -ſt-ren lekuan, apikaria adierazteko.

. *senhardun*: s- txikia hitz hasieran ſ-ren lekuan, apikaria adierazteko.

Erro honetako hitzak ſ-rekin idazten dira maiz, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan: *ſenar-* (63, 386) *ſenhar* (705) eta *Senar*, S apikariz hasten diren atsotitzen multzoan (406); baina bitan s- txikiarekin idazten dira: *senhar-* (286) eta *senar-* (VI, 5). Bestalde, n-ren ondoko aspirazioa bitan baizik ez da ageri (286, 705).

287. Itsuak nahi luke bertzeak ere itsu liren.

- L’aveugle voudrait que les autres le fussent aussi.
- El ciego querría que los demás también fuesen ciegos.

. *liren*: *izan* aditzaren alegiazkoa, aspektugabea, “izan litezen”.

288. Itsua da baheti eztakusana.

- Celui-là est aveugle qui ne voit pas au travers d'un crible.
- Es ciego el que no ve a través de la criba.

. *estacussana*: -ss- txiki bikuna -ff- ren lekuan; ez da, noski, -zz- bikuna (cf. 214, 293, 295).

→ RS 426: “*Yssuada baeti ez dacusena*. Ciego es quien no ve por çedaço”. Atsotiz hauen parekoak dira Urkijok aipatzen dituen gaztelaniazko hauek: *Harto soy ciego, si por çaranda no veo*, “ref. con que se nota á los que quieren engañarse, ó disimularse, en cosas evidentes ó claras” (Academia). *Harto es ciego, quiê no vee por tela de çedaço*, “Phrase vulgár con que se explica la poca perspicácia, ó comprehension del sugêto, que ha menester le digan las cosas como ellas son en si, por no bastar, para que las entienda, el que se le propongan los medios por donde las podia comprehender”. Latinez: *Cribo videt qui pessime, nil perspicit*. Alemanez: *Der müsste sehr blind sein, der nicht durch ein Sieb sehen könnte* edo *Wer nicht durch ein Sieb sehen kann, muss blind sein*.

289. Itsu bano hobe da oker izatea.

- Il vaut mieux être borgne, qu’aveugle.
- Más vale ser tuerto que ciego.

. *oker*: bitan ageri da eta bietan aspirazio-markarik gabe (289; IV 4).

→ Isasti 55: “*Itsuen errrian, oquerroc erregue*. En tierras de ciegos, los tuertos reyes”. Eta Zalgize 49: “*Itsuen artian, okerra Regue*. Entre ciegos, el tuerto es rey”. Gaztelaniaz: *En la tierra de los ciegos, el tuerto es rey*. Frantsesez: *Au pays des aveugles, les borgnes sont rois*. Latinez: *Inter cæcos regnat strabus*. Urkijo Esk: *Mieux vault monocle ou borgne qu’aveugle* (Le Roux de Lincy, II, 263).

290. Itsutu behar duenak, begiti.

- Celui qui doit devenir aveugle, c’est par les yeux.
- El que ha de volverse ciego, es por los ojos.

L

291. Lagun elhatari, bideko zamari.

- Un compagnon de voyage qui est beau parleur sert de monture en chemin.
- Compañero conversador *es acémila* para el camino.

. *videco*: *v-* kontsonantea (cf. 236, 272 tit, 509).

→ Esanahiari dagokionez, cf. 242, 318, 576, 632. Urkijo Esk: *Compagnon bien parlant / Vaut en chemin chariot branlant* (Le Roux de Lincy, II, 205).

292. Lanak hobe ditu ezi ez erranak.

- Il fait mieux qu'il ne dit.
- Sus obras son mejores que sus palabras.

. *esies*: lotuta (cf. 150).

→ Itxuraz, honen alderantzikoa dio Zalgizek 173k: *Erranac eder, / Eguinac lander*.

293. Lan aitzineti pagatua ihesi doa.

- Le travail payé par avance s'enfuit.
- El trabajo pagado por adelantado, huye.

. *ihessi*: *-ss-* txiki bikuna, *-ff-* luze bikunaren lekuan; ez da, noski, *-zz-* (cf. 214, 288, 295).

. *doa*: *h-*rik gabe (293, 320, 332, 565; XXII, 1), baina *doha*, *Atsotitzen Urrhenkina*-n (555, 675); *doas* (466, 602).

→ Urkijo Esk: "*Danbolin ordainduak zonu txarra*" decimos los guipuzcoanos. G. de M.

294. Lan baratza, lan aratza.

- Le travail fait lentement est d'ordinaire beau.
- Trabajo lento, trabajo bueno.

→ Zalgize 162 berdina da. RS 173: "*Hoa laster baracheje*. Vete de presto pasito". Gaztelaniaz: *A mas prisa, gran ó más vagar*. Honen

esanahia Academiaiak azaltzen du argi: “se da á entender que no se deben atropellar las cosas ni sacarlas de su curso regular, porque, procediendo atropelladamente, se tarda más en ejecutarlas”. Ideia bera honako hauetan: *Schnell und gut sind nicht beisammen. Presto e bene, non si conviene. Vitement, et bien ne s'accordent pas. Visteme despacio, que tengo prisa*. Voltoirek honako hau dakar bere I. elkarrizketan: “*Barache barache, badua ourrun*. Pas à pas on va bien loing”. Cf. 300.

295. Lan-ihesi *Crastora*, han ere jakia bera eztator ahora.

- Il va à Castro, pour fuir le travail; néanmoins là aussi la viande ne lui viendra pas d'elle-même dans la bouche.
- *Va* a Castro huyendo del trabajo, *pero* tampoco allí la comida viene sola a la boca.

. *Lan-ihessi*: marrarekin; -ss- bikunari buruz, cf. 214, 288 eta 293.
 . *Crastora*: hots, “Castro” herrira.
 . *bera*: “bera bakarrik”, hau da, “norbaitek ekarri gabe”.
 . *estator*: orainaldia, baina futuroko balioa duena (Lafon 1949: 443).
 → Isasti 15: “*Bear iguesi Castrora, an ere bearric (asco da)*. De la obra *huir a Castro, allí tambien (hay harto) trauajo*”.

296. Lan gaxtoa, bortxazkoa.

- C’est un méchant travail que celui qui est fait par force.
- Mal trabajo, el hecho a la fuerza.

. *bortexcoa*: x-ren balioaz, cf. 104.

297. Lan lasterra, lan alferra.

- Un travail fait à la hâte est un travail inutile.
- Trabajo presuroso, trabajo inútil.

. *lasterra*: -st- grafia -st-ren lekuan, apikaria adierazteko. Normalean *laster* (60, 75, 129, 269, 638; IV, 6; XVI, 10; XXVI, 14), *lasterca* (622), Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan, baina bitan *laster* (297, 298).

298. Lasto-su, laster-su.

- Le feu de paille est un feu qui passe vite.
- Fuego de paja, fuego rápido.
 - . *Lasto-su*: marrarekin; -st- grafia -ʃt-ren lekuan. Erro honetako hitzak hirutan *laʃto-* idazten dira, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (99, 114; XXIV, 2), baina bitan *lasto-* (298, 306).
 - . *laster-su*: marrarekin; -st- grafia -ʃt-ren lekuan; *laster* hitzaren idazkeraz, cf. 297.
 - . *su*: s- hitz hasieran ʃ-ren lekuan bietan, apikaria adierazteko; hitz honen idazkeraz, cf. 257.

299. Lausengaria, traidorearen hurren askazia.

- Le flatteur est proche parent du traître.
- El adulador, pariente próximo del traidor.
 - . *Lausengaria*: hitz honen tradizioa ikusita eta aurreko agerpen batean *lauʃengariac* idazten dela ikusita (9), pentsatu behar da oker dagoela -s- txikia, -ʃ- luzearen lekuan; gure *lausengari* dela, alegia, ez *lauzengari*. Mailegu izateari zor zaio, beharbada, bokal artean -s- bakuna izatea.
 - . *ascasia*: dagoen dagoenean *azkazia* irakurri beharko genuke hitz hau eta egia da horrela ere ageri dela inoiz testuetan, biak bizkarkariak dituela (cf. *OEH*); dena dela, Oihenartek beste behin *aʃkasi* idazten duela ikusita (82) -nahiz *ascaki* (VIII, 3)- eta -ʃk- > -sk- nahasketa maiz gertatzen dela gogoan izanik, hemen ere apikarizat hartu dugu lehenbiziko -s- hori eta *askazia* irakurri.

300. Lehia gaitza, berantgarri.

- Une hâte trop précipitée est cause de retardement.
- La prisa exagerada causa retraso.
 - . *gaiza*: adjektiboa, “handiegia”.
 - Zalgize 22a berdina da. Cf. 294 eta han aipatzen diren atsotitzak.

301. Lekaio alfer, xaz esteiari, aurten haur eder, geurz jaun, han hara lander.

- Laquais fainéant, il n’y a qu’un an qu’il était misérable: le voilà à présent leste *et bien vêtu*; l’année qui vient il fera le monsieur, et en fin deviendra gueux.
- Lacayo holgazán, el año pasado miserable, este año buen galán, el que viene *será* señor y luego *otra vez* pobre.

. *esteiari*: -st- berriro, -It-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 195).

. *han hara*: “harrezkero” (cf. III, 5).

- RS 292: “*Esean jopua ta ollaarra / vrte vetean ascoda*. El sudito y el gallo / en casa en año lleno harto es”. Esanahiari dagokionez, cf. 688.

302. Leku urrunetiko berria, lehen jina da egia.

- Des nouvelles qui viennent de loin, la première venue est la plus naïve.
- Noticia de lugar lejano, la que primero llega *suele* ser la verdadera.

. *iina*: lehen *i*-a kontsonantea eta bigarrena bokala.

- Isasti 83: “*Vrrutico berria lenena eguia*. Las malas nuevas, las primeras”. RS 120: “*Barri ertunac vidarienic ez*. La mala nueva sin porte”. RS 408: “*Bari ertuna lelengo ençuna*. La nueva desdichada la primera oyda”. Nuñezen hau aipatzen du Urkijok: *De la mala nueva, la primera*. “Porque no cuenta tan por menudo el mal como las otras”. Berri txarrak berehala zabaltzen direlako hori atsotitz askoren gaia da: *El bien suena y el mal vuela. Cative nuove presto corrono. Le cative nuove sono le prime. Infausta semper volant...*

303. Loila, ezadila hoila, ondotik darraik barandaila.

- Janvier, ne te glorifie pas *pour tes beaux jours*, car le Février te suit de près.
- No te envanezcas, enero, *que* de cerca te sigue febrero.

. *esadila hoila*: hemen *hoila*, beste behin *holla* (160), *hoilatu*-ren aditzoina; *adila*, aginte balioko “subjuntiboa”, “ez hadila harrotu”.

. *darraic*: *jarraitu* aditzaren orainaldia, *hura-hiri*, “jarraitzen zaik”.

304. Lotsa ninzan eznea zen isuri, bana aita da hil, Jainkoa esker zuri.

- J'ai été effrayé craignant que le lait fût versé; mais, Dieu merci, cela n'est pas, c'est mon père qui est mort. *C'est le discours d'un pastoureau niais qui avait plus d'affection pour son lait, que pour son père.*
- Me temí que se había derramado la leche, pero *lo que ha pasado es que ha muerto mi padre; gracias a tí, Dios.*
 - . *esnea: esne-* normalean (304, 455, 701; V, 50; XIII, 14; XXVI, 17), nahiz behin *eſne* (V, 50).
 - . *sen iſſuri*: perpaus osagarria da, "beldur nintzen esnea isuri ote zen", hau da, "uste nuen esnea isuri zela".
 - . *aita da hil*: *aita* da galdegaia, "aita hiltzea da gertatu dena".
 - . *iainoa*: minuskularekin.
 - . *esker*: *-sk-* grafia *-ſk-*ren lekuan. Hitz hau gehienetan *eſker* idazten da (690; X, 11; XX, 12; XXVII, 7), Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan, baina bitan *esker* (304, 496).

305. Luzatzen duenak eztu epatzen.

- Qui délaie, n'achève pas.
- El que aplaza no remata.

M

**306. Makur izanagatik egiteia,
xuxen epaiten du lastogetia.**

- Ores que la faucille soit tordue, elle ne laisse pas de scier droit le chaume.
- Aunque la hoz es curva, corta derecho la paja.
- . *lastogetia*: *-st-* grafia *-ſt-*ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 298).

307. Mahatsarno doiak ditu flakoak azkartzen; soberak azkarrak flakatzen.

- Le vin bu avec mesure fortifie les faibles, et⁶² pris outre mesure il affaiblit les forts et les gaillards.

⁶² "Et" balio duen & ikurra bikoiztua ageri da testu frantsesean, bat lerro amaieran eta beste hurrengo lerroaren hasieran. Errata da, noski.

- El vino justo fortalece a los débiles; el excesivo debilita a los fuertes.
 - . *doiac ... soberac: mahats-arno* izenari laguntzen dioten adjektiboak dira.
 - . *soberac: s-* txikia hitz hasieran, [- luzearen lekuan, apikaria adierazteko. Hitz hau zenbaitetan *sobera* idazten da, Oihenarten sistemaren arabera (74, 317, 416), baina *sobera* beste zenbaitetan, hitz hasieran *s-* txikia duela (307, 349, 357, 455, 528; V, 56; XII, 5) eta *Sobera, S-* apikariaz hasten diren atsotitzen multzoan (531, 670).

308. Maiatz eurite, urte ogite.

- Mai pluvieux, l'année abondante en grains.
- Mayo lluvioso, año de trigo.
 - . *vrte: -t-* leherkariaren aspirazioa dela-eta, cf. 95.
 - *Notitia*-n, euskararen eta antzinako espainolaren arteko harremanen berri ematen ari zelarik aipatua zuen Oihenartek jadanik atsotitz hau, espainol "itzulpenari" traketsago iritiziz: *Agua de Mayo pan para todo el año* (cf. 1. Liburua, XIII. kapitulua). Asko dira maiatzeko eguraldia aipu duten atsotitzak bai euskaraz bai beste hizkuntzetan ere. Ikus, esate baterako, RS 43: "*Mayaz yluna ta baguil arguia / hurte gustico oguia*. Mayo escuro, y Iunio claro / pan para todo el año". Eta Urkijok aipatzen dituen beste hauek: *Maiatza uritsu, ekbaina erhautsu, orduan da laboraria urgulutsu*. Eta Azkuek Nafarroa Beheran bildutako hau, ondoko 309 ere gogorarazten duena: *Maiatz pardo ogitan ardo; Maiatza otz ez gari ta ez agotz*. Eta Amaiurko hauek: *Maietza fardo, erearoa klaro, urte hartan ogie ta artua franko. Apirile uritsu, urte ure ogitsu. Maietz luze artuaren leze*. Eta gaztelaniaz: *Agua de Mayo, pan para todo el año. Mayo pardo, señal de buen año. Mayo le haze reluzir, y Iunio le pone en astil. Mayo hortelano, mucha paja y poco grano. Abril y Mayo llave de todo el año...*

309. Maiatza hotz, urtea botz.

- Mai froid, l'année gaie.
- Mayo frío, año alegre.
 - . *hoz ... boz: predikatuak, horregatik izenak artikulua eta guzti ageri dira, "hotz (bada) maiatza, botz (da) urtea".*

. *vrte*: -*t*- leherkariaren aspirazioa dela-eta, cf. 95.

→ Urkijok RS 43-ren iruzkinean aipatzen du Azkuek Erronkarin bildutako atsotitz hau: *Maiatz otz, ez autz ez biotz*. Eta Azkuek berak Nafarroa Beherean bildutakoa, 308ren iruzkinean aipatu duguna: *Maiatz pardo ogitan ardo; Maiatza otz ez gari ta ez agotz*. Okoad 319 (TAV-en RS 552 bezala aipatua): *Maiaz onac dacaz pozac*. Cf. 381

310. Maitatzeak maitatze du hartze.

- L'amour se paie par amour.
- Amor con amor se paga.

. *harze*: zerbait bereganatzeko eskubidea, “maite duenari maitatua izatea zor zaio”.

→ Haritschelharrek (1994: 292) frantseseko hau aipatzen du: “*Aymer est doux, non pas amer / Quand est suivi de contre aimer*”.

311. Mandoa, nor duk aita? Bortuko behorrik ederrena, ama.

- Mulet, qui est ton père? La plus belle jument qui soit en tous les monts Pyrénées est ma mère.
- ¿Mulo, quién es tu padre? La yegua más hermosa de los Pirineos es mi madre.

. *duc*: “(hik) duk”, ez alokutiboa.

. *Bortuco*, cf. 6.

→ Zalgize 101, erabat berdin, *behorr eder-ena* sintagma izan ezik.

312. Mandoak, ezpadu potrorik, ez potro-minik ere.

- Si la mule ne porte pas de poulains, aussi est-elle exempte des soins qui travaillent les bêtes qui en ont.
- La mula, si no tiene potros, tampoco *tiene* penas de potros.

. *espadu*: baldintza “erretorikoa” da hau, ez benetakoa; “ez du potrorik eta, hori horrela bada, hots, horrela izanik, ezta potro-minik ere”.

. *potroric*: Pouvreauk hiztegian, atsotitz hau aipatuz, “*potroa*, poulain”.

→ Cf. 218.

313. Mainata etxeoari, berzegatik galdo ari bada, hire diruti edo bihiti, emok ilhindiaz uzkiti.

- Si ton domestique te demande de ton argent ou de ton grain pour autrui, baille-lui d'un tison par le cul.
- Al criado de casa, si te pide, de tu dinero o de tu trigo, para otros, méte-le un tizón por el culo.

. *Mainata execoari*: *x*-ren balioaz, cf. 45. Sintagma hau *emok* aditzari dagokion datiboa da.
 . *bersegatic*: *bertze* / *berze* bitasunaz, cf. 68.
 . *emoc*: *eman* aditzaren aginte aldia, *hura-hari-hik*, “emaioak”, “eman iezaioak”.

314. Marteilu zilarrezkoak, hauts detzake ate burdinazkoak.

- Un marteau d'argent est capable de rompre les portes de fer.
- Un martillo de plata puede romper puertas de hierro.

. *Marteillu*: *-ill-* grafia alboko sabaikaria adierazteko.
 . *sillarescoac*: *-ill-* grafia, osterera ere; *-r-* bakuna, *-rr-* / *-r-* zalantzaren lekuko, baina *rr* azkarra zor zaiola dirudi (cf. 137); ikus *silarra* (XII, 8).
 . *hauts dezaque*: **ezan* laguntzailea, ahalerazko *KE*-dun orainaldia, *haiek-hark*, “hautsi ditzake”.
 . *ate*: horrela, *ate*, leherkaria aspiraziorik ez duela (314, 438, 466, 487; XXVI, 15), baina *athe-* *Atsotitzen Urrhenkina*-n (573, 620).
 → Esanahiari dagokionez, cf. 466.

315. Mehatxu poruzuak, gupida ditu eskuak.

- Celui qui menace avec grand bruit veut épargner ses mains, *c'est-à-dire qu'il n'a pas envie de frapper*.
- La amenaza chillona evita las manos.

. *Mehaxu*: hitz honek tradizioan izan duen idazkera ikusita, pentsatzekoa da Oihenartek *mehax^ou*, hau da, gure *mehatxu*, idatzi eta moldiztegian puntua galdu zela, (cf. XV, 8).
 . *porusuac*: cf. XV, 6.

316. Mezu egin nezan herabea, berant joan zedin, eta baratx, eta itzul deus gabea.

- J'employai pour messenger le paresseux; il partit tard et marcha lentement, et s'en retourna les mains vides.
- Envié como mensajero a un desganado: partió tarde, y lento, y volvió sin nada.

. *Mesu eguin*: “mezulari hautatu”.

. *eguin nesan*: **ezan* laguntzailea, iragana, “egin nuen”.

. *ioan sedin*: **edin* laguntzailea, iragana, “joan zen”.

. *barax*: tradizioa ikusita, uste dugu *barax**, hau da, gure *baratx*, irakurri behar dela (cf. 642).

. *deus*: -s txikia hitz amaieran -]-ren lekuan (cf. 45).

→ Horren antzeko zerbait dio RS 332k: “*Adiunça onean nentorre / vava ezer ez necarre. En buena sazón vine / mas no truxe nada*”. RS 412: “*Ebili pozean ta biortu vSean. Andar en regozijo y boluer vazio*”. Gaztelaniaz: *Mêsagero frio tarda mucho, y buelue vazio*. Cf. 642.

317. Minzatzeak sobera, nerakarke galtzera.

- Le trop parler me mène à perdition.
- Hablar demasiado me lleva a la perdición.

. *nerakarke*: *erakarri* faktitiboaren *KE*-dun orainaldia (cf. 7), *ni-bark*, “erakar nazake”, “erakartzen nau”.

→ Urkijo Esk: *Moult parler nuit, moult grater cuit* (Le Roux de Lincy, II, 266).

318. Minzo emeak bihotz gogorra bera diro.

- Un parler doux est capable d’amollir un cœur dur.
- El hablar dulce ablanda el corazón duro.

. *bera diro*: **iro* laguntzailea (cf. 119, 261, 272, 279..), “bera dezake”, “beratzen du”.

→ Esanahiari dagokionez, cf. 242, 291, 576, 632.

319. Motil ona sari eske dago, ixilik ere badago.

- Un serviteur qui sert bien demande salaire encore qu'il ne dise rien.
- El buen criado pide salario, aunque esté callado.

. *sari*: s- txikia hitz hasieran , j- luzearen lekuan, apikaria adierazteko (cf. 59).

. *eske*: -sk- grafia -j- ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 264).

. *ere badago*: “badago ere”; errimaren zerbitzuan, beharbada.

320. Mundu hunek diduri itsasoa, igerika eztakiena ondarrera doa.

- Le monde ressemble la mer, on y voit noyer ceux qui ne savent pas nager.
- Este mundo se parece al mar: el que no sabe nadar se va al fondo.

. *diduri*: *iduri* aditzaren orainaldia, *hura-hark*; cf. 208.

. *igerika*: cf. *iguerican* (12).

N

321. Nabusitarik gertatzen da zerbitzari, bere sekretua agertzen duena motilari.

- Celui-là devient de maître valet, qui à son serviteur découvre son secret.
- De amo pasa a siervo, quien confía su secreto a su criado.

. *secretua*: s- hitz hasieran j- ren lekuan, apikaria adierazteko.

→ Okoad 350: *Naboussitaric muthil da / egiten / bere gordiza muthilari / duena eraquiten*. Urkijok dioenez, “Tanto *gordiza* (= *gorditza*) como *eraquin* “hacer saber” son *hapax legomena*, al parecer”.

322. Nagia, bethi lanzu.

- Le⁶³ paresseux fait toujours l'occupé.
- El vago, siempre *está* ocupado.

. *bethi*: *beti* / *bethi* bitasunaz, cf. 98.

⁶³ “La paresseux” dio testuak, baina “Le paresseux” behar duela dirudi.

323. Nahasago, karatsago.

Hori erraiten da gauza satsu eta urrin gaitzekoaz.

- Tant plus on la remue et tant plus mauvais elle sent [cela se dit de l'ordure des personnes].
- Cuanto más se remueve, peor huele.
Dícese de las cosas sucias y de mal olor.

. *Nahasago*: -ago atzizkiaren idazkeraz, cf. 84; hemen loturik, baina lotura gunea markatua dago, *nahas*-ek gorde egin baitu -f luzearen lekuan hitz amaieran maiz idatzi ohi den -s txikia, apikaria adierazteko.

. *satsu*: hitz honen tradizioa ikusita, pentsatzekoa da f- luzearen lekuan dagoela hemen ere hitz hasierako s- txikia; berdin, *satsukeria* (353).

→ Zalgize 90: *Salda nahas-ago, / vrrina caratsago*. Urkijo Esk: *Peor es meneallo*. (Equivalentes, Sacristán II, p. 135).

324. Nahi baduk bizi minik gabe, ezadila alha gose gabe.

- Si tu veux vivre sans incommodité de ta santé, ne mange jamais sans appétit.
- Si quieres vivir sin dolores, no comas cuando *no tienes* hambre.

. *minic-gabe*: marrarekin.

. *esadila alha*: *alhatu*-ren aditzoina (batuan ere *alhatu*); **edin* laguntzailea, aginte balioko "subjuntiboa" (cf. 103).

325. Nahikide ezta adiskide.

- Ton compétiteur n'est pas ton ami.
- El competidor no es amigo.

. *adiskide*: -sk- grafia -f-*k*-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 82).

326. Nahi duenean doake bakhura, arstoa eta arbaldia dituena eskura.

- Quand il lui plaira, ira à la foire celui qui a le bât et l'âne en sa mangeoire.
- Cuando quiere va al mercado, quien tiene asno y albarda a mano.

- . *doaque*: *joan* aditzaren *KE*-dun orainaldia, “joan daiteke”, “joaten da”.
- . *bacu`ra*: leherkaria aspiratua dela adierazten duen espiritua ondoko bokalaren ostean.
- . *arstoa*: *-st-* grafia *-ʃt-*ren lekuan. Hitz hau maiz *arʃto-* idazten da, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (38, 39, 40, 41, 649); baina inoiz *arsto-*, *-s-* txikiarekin (326, 479; XX, 13).
- . *escura*: *-sk-* grafia *-ʃk-*ren lekuan, cf. 46.

327. Neke gaberik, ezta bizitzerik.

- Il n’y a point de vie sans peine.
- No hay vida, sin fatiga.
 - . *bisizeric*: izen arrunta (“bizitzarik”) nahiz aditz izena (“bizi izate-rik”) izan daiteke. Frantses itzulpenak lehen aukera hobesten du (“vie”).

328. Nekez denean egina, atsekabetzen da atsegina.

- Bienfait se convertit en méfait, lorsqu’il est fait lentement et à contre-cœur.
- Cuando se hace a desgana, el placer se amarga.

329. Nekez irabazteak derakuske ongi begiratzea.

- En gagnant avec peine on apprend à bien garder ce qu’on a.
- Ganar con trabajo enseña a guardar con cuidado.
 - . *deracuske*: *-sk-* grafia *-ʃk-*ren lekuan, apikaria adierazteko. Aditz honetako formak *ʃ-*rekin idazten dira maiz, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan, *eracuʃtera* (XI, 1), *Deracuʃtano* (XVII, 128), *Deracuʃquegu* (XXIV, 3), *Eracuʃtasu* (XXIV, 6); baina *-s-* txikiarekin, *deracuske* (329), *Deracusque* (498). *Erakutsi* faktitibo, orainaldia, *KE*-duna (cf. 50, 65), “erakuts dezake”, “erakusten du”.

330. Nehork bere barrena, du ezagutzeko gaitzena.

- Ce qu'un chacun connaît le moins, c'est son intérieur.
- Lo más difícil de conocer es el propio interior.

331. Neska erabilia, asturutsu.

- []⁶⁴.
- La muchacha usada es afortunada.
 - . *Nesca*: -sc- grafia -/c-aren lekuan. Erro honetako hitzak batzuetan *ne/sca-* idazten dira, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (158; XIII, 10; *Adigarria*), baina maiz *nesca-*, -s- txikiarekin (331, 332, 333, 352, 368, 473; II, 13; VI, 4; VIII, 1; XVIII, 17; XX, 4).
 - . *asturutsu*: Francisque-Michelek "(est souvent) un ciseau" itzultzen du. Azkuek, berriz, "(es) afortunada" eta Harrietek "capable de beaucoup d'actions coupables, ou semblable sens" (cf. *OEH* s. v. *asturutsu*). Schuchardtek, bere aldetik, "geschickt" itzultzen du, hots, "trebe", "eskarmentudun", biarneseko *astruc*, "adroit", hitzean oin hartuta, beharbada *asturatsu* irakurri behar dela iradokiz (Schuchardt 1911: 451-452). Dena dela, *asturugaitz* hitzaren esanahia ikusita (cf. 52, 181), badirudi Azkuek proposatu itzulpena dela zuzena. Dena dela, cf. Urkijo Esk: "Creo haber encontrado otro refrán castellano ó francés que confirma la interpretación de Schuchardt".
 - Haritschelharrek (1994: 331) bestelako esanahia duten erretrauak aipatzen ditu: "*Moza ventanera o puta o pederica. Mujer en ventana o puta o enamorada. La mujer que a la ventana se pone de rato en rato quiere venderse barato*".

332. Neska hartzen ari dena saldu doa, galdatzen ari dena da galdua.

- Fille qui prend, elle se vend; fille qui demande est perdue.
- La muchacha que toma se vende, la que pide está perdida.

⁶⁴ Oihenartek ez du ematen atsotitz honen itzulpena: "La fille usagée est chanceuse"

- . *Nesca*: -sc- grafia -[c]-aren lekuan (cf. 331). Frantses itzulpenaren araberan, *neska* da erlatiboaren izen ardatza, “hartzen ari den neska”. Berdin, *galdatzen ari dena*.
- . *saldu*: s- txikia hitz hasieran [s]-ren lekuan, apikaria adierazteko. Erro honetako hitzak, [s]alzeco (100), [s]al (658), [s]alzea (VI, 5) eta, bietarako balio duen maiuskularekin, *Saltunac* (74).
- . *doa*: *galdua*-rekin errima egiten dutela; horrek o-ren gauzatze itxia iradokitzen du.
- RS 274: “*Nesqa ta esquea nequea ta caltea*. Moça y demanda trabajo y daño”. Katalanez: *La dona que pren, son cos ven*. Frantsesez: *Fille qui prend, se vend; fille qui donne, s'abandonne*. Italiano: *Dona, che dona di rado è buona: dona che piglia, è nell'altrui artiglieria...* “Estos refranes –dio Urkijok– advierten que quien acepta un beneficio, pierde su libertad. Por eso decían los romanos: *Beneficium accipere libertatem vendere est*”.

333. Neskatoa ez motila, ez aberatsa ez kiskila.

- *Il ne faut point prendre de serviteur ni de servante qui soient ou riches ou trop chétifs*.
- Ni criada ni criado, *que sea rico o mezquino*.
 - . *Nescatoa*: -sc- grafia -[c]-aren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 331).
 - . *kiskila*: hitz honen tradizioa ikusita (cf. *OEH*), pentsa daiteke -sk- grafia hori -[k]-ren lekuan dagoela, beste askotan bezala, hau da, apikaria adierazten duela.
 - RS 435: *Iopua ta adisquidea / ez chiro ez aberas*. Eta gaztelaniaz: *El mozo y el amigo, ni pobre ni rico*.

334. Nik hora mana, horak bere buztana.

- J'ai commandé le chien *de faire cela*, et le chien l'a commandé à sa queue. *L'on dit cela lorsque celui qui est chargé d'une affaire s'en décharge sur autrui*.
- Yo le he ordenado al perro y el perro *lo ha hecho* a su cola.
 - Zalgize 170: *Nic gathua mana, / Gatnac bere buztana*. Urkijo Esk: *Le chat commande à sa coe (queu)* (Le Roux de Lincy, I, 101).

335. Nik xoriak otseman, hik atzeman.

- J'ai chassé les oiseaux et tu les as pris.
- Yo he levantado los pájaros y tú los has cazado.
→ Cf. 482.

336. Nihaur ninzan gelari, ene uzkiari bazekion nabari.

- J'étais moi-même la clavière, et il paraît bien à mon derrière, *car il est bien gras*. [*Les clavières, ou gouvernantes ont bien autant de soin de se bien traiter que leurs maîtres*].
- Yo era la camarera, bien lo notaron mis posaderas.
 - . *Nihaur*: "ni bakarrik" adieraz dezake. Gelari bera zela, alegia, ez beste inor; eta hori dela-eta, ondo bizitzeko modua zuela.
 - . *basequion nabari*: **edin* laguntzailea, iragana, *hura-hari*, "nabari ziztaion", hots, "(ene uzkiak) nabari zuen". Gogoan izan horrelako aditzak garai batean *zer-nori* gisakoak zirela, egun *zer-nork* badira ere: "(hari) *nabari zaio*" = "(hark) *nabari du*" (cf. Schuchardt 1911: 452). Gaztelaniako itzulpenak hobeto islatzen du hori frantsesak baino. Ikus, bestalde, *nabaritu* "sentir, ressentir, s'apercevoir" (Lafon 1949:438). *Ba-* aurrizkia enfatikoa da. Haritschelharrek (1994: 280) ez du horrela ulertu, honelako iruzkina egiten baitu: "Itxuraz ikus zitekeen on egiten ziola jana-riak".

337. Non fida, han gal.

- On se perd *souvent* par celui duquel on se fie.
- Donde *uno* se fía, allí se pierde.
 - Batzuek Ebanjelioko esaldiarekin lotzen dute atsotitz hau: *Quien ama el peligro, perecerá en él*. Bestela ere uler daiteke. Cf., esate baterako, RS 249: "*Asto dina zordun*. El que se haze fiador deudor". Gaztelaniako hau aipatzen du, bestea beste, Urkijok: *Quien fía o promete, en deuda se mete*, "Refr. que explica la fuerza que tiene la promesa de alguna cosa, pues por ella queda obligado el que la hace á cumplir lo que prometió".

338. Non hona, han huna.

- Là où il a son bien il a son cerveau, *c'est à dire son sens et entendement.*
- Donde uno tiene sus bienes, allí tiene su cerebro.
 - . *huna*: “burmuina”; beharbada *hun^oa*, hau da, gure *huña*, dago grafia honen azpian, baina tradizioak ez du lekukotasunik aski ematen horren alde.

339. Non salda, han zopa.

- Là où il trouve du potage il trempe sa soupe.
- Donde *hay* caldo, allí *se hacen* sopas.
 - . *salda*: *s-* hitz hasieran *[-ren* lekuan, apikaria adierazteko. Hemen *salda* idazten bada ere, beste agerpen bietan *[-alda* idazten da, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (268, 359).

340. Noren ari aiz? Lo datzanaren.

- Pour qui travailles-tu? C'est pour celui qui dort. *On dit cela quand quelqu'un se donne beaucoup de peine à acquérir du bien et que celui qui lui doit succéder est une personne fainéante qui ne se donne peine de rien.*
- ¿Para quién trabajas? Para el que duerme.
 - . *Noren ... dazanaren*: destinatiboak.
 - . *lo*: minuskulaz.

341. Nori berea, da zuzenbidea.

- C'est chose légitime que chacun ait le sien.
- A cada uno lo suyo, *eso* es lo correcto.
 - . *susen-bidea*: marrarekin. Hitz honen orduko eta egungo erabileraz, cf. Urrutia (1994: 340).
 - RS 312: “*Gach çeerexqueoc yñori, / ta emac vereá edoçeyni. No quieras mal a nadie / y da a cada vno lo suyo*”. Urkijok latineko esaldi hau gogoratzen du: *Suum quique*.

O

342. Odolak su gabe diraki.

- Le sang bouillit sans feu, *c'est lorsqu'on a du ressentiment de l'injure faite à quelqu'un de son sang ou parents.*
- La sangre hierve sin fuego.
 - RS 146: *Hodolac [u baga diraqui.* XV. mendekoa omen da gaztele-razko hau: *La sangre sin fuego fierve.* Alemanez: *Junges Blut kocht bald über.*

343. Ogen bat paira, bertzea gaira.

- Une injure soufferte en appelle aussitôt une autre.
- Sufrida una injuria, ya está llamando la siguiente.
 - . *Oguenbat*: loturik (cf. 6).
 - . *gaira*: *gairatu*-ren aditzoina, “deika ari”.

344. Ogia laberatzean motz edo adardun egiten da.

- A l'enfourner se fait le pain ras ou cornu.
- Cuando se mete el pan en el horno, se hace corto o cornudo.
 - . *adar / dun*: lerro bitan banatua eta marrarik gabe.
 - Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du: *Al'enhourna / que-s'hèn lous paàs cournaluts* (1911: 456). Eta beste hizkuntza erro-manikoetako aldaera asko aipatzen ditu. Ogiaren laberatzearen ondorioa batzuetan ona eta beste batzuetan txarra izaten da. Euskarazkoa *motz* aukera eranstean du *adardun*-aren ondoan. Urkijo Esk: *Al enhornar se hazen los panes tuertos* (Horozco, *Refranes glosados*, nº 156).

345. Ogiz asetzeareki tregoauxe naiz neure minareki.

- En me saoulant de pain j'ai eu un peu de trêve avec mon mal.
- Hartándome de pan doy una pequeña tregua a mi dolor.
 - RS 500: *Oguiagaz gachac chipiago.* Urkijok beste hauek aipatzen ditu: *Zoricharrac guichiago, oguia echean badago* (Zamarripa);

Illa obira, vicia sarera, proguac oguiaz ez dira proguac (Manterola; lehen zatiaz, cf. goiko 236). Gaztelaniaz: *Todos los duelos, con pan son buenos*. Eta latinez: *Levius ærumnæ gravant, si adjicias panem*.

346. Ogi bezanbat gazna nahi luke.

- Il voudrait autant de fromage que de pain.
- Querría tanto queso como pan.
 - Ez da guztiz berdina RS 502: “*Ez veti gazta ta ogui*. No siempre queso y pan”, hau gehiago baitago gaztelaniazko honen pare: *Cada día gallina amarga la cocina*.

347. Ogi pulua, bekanki da irakaz xahua.

- Rarement un monceau de froment est exempt d’ivraie.
- Una porción de trigo rara vez está limpia de cizaña.
 - . *pulua*: hemen baizik ez da ageri aldaera hau, “piloa”.
 - . *bekanki*: aspiraziorik gabe eta berdin *becana* (507; XII, 3).

348. Ogi gogorrari, hagin zorrotza.

- A pain dur, des dents aiguës.
- A pan duro, diente agudo.
 - RS 539: *Ogui gogorrari aguinzorroça*. Urkijok Mendozaren iruzkin hau aipatzen du: “Para passar grâdes trabajos necesario es tener generoso y esforzado coraçon”.

**349. Oha eure izebaren etxera,
bana ez maiz sobera.**

- Va t’en chez ta tante, mais pas trop souvent.
- Ve a casa de tu tía, pero no con demasiada frecuencia.
 - . *Oha*: joan aditzaren aginte aldia, *hi*, aspirazioa silaba bien artean duela (cf. 61).
 - . *exera*: x-ren balioaz, cf. 45.

. *sobera*: s- txikia hitz hasieran , f- luzearen lekuan, apikaria adierazteko (cf. 307).

→ Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du: *Bèn bede tante, / mes pas trop souben* (1911: 455). Urkijok *Uso, pero no abuso* izeneko artikulu batean (1916: 330) gaztelaniazko hauek aipatzen ditu: *A casa de tu tía, / mas no cada día* (H. Nuñez, fol. 4 vto); *A casa de tu hermano, / no irás cada serano*. Eta eranstean du "(...) la explicación que trae de los mismos el diccionario de Autoridades: 'Refranes que enseñan no deben ser los hombres molestos en disfrutar los favores, porque, aun siendo de los más cercanos y amigos, enfada la demasía: *Amitae ad domum pergito; sed observa, / Non in diebus singulis oportere*'".

**350. Ohaidea eder-ariaz,
ezkontidea zuhur-ariaz**

- Choisis ta fille de joi par sa beauté, et ton épouse pour sa bonté.
 - La concubina, por *su* belleza; la esposa, por *su* prudencia.
- . *escont-idea*: marrarekin.

**351. Ohaidea onhetsak eder denagati,
ezkontidea bere ontarzunagati.**

- Aime ta garce pour l'amour de sa beauté, et ton épouse par sa vertu ou bonté.
 - Quiere a la concubina por ser bella, a la esposa por ser buena.
- . *onhetsac*: *onhetsi* aditzaren aginte aldia, *bura- hik*: "maita ezak".
. *escont-idea*: marrarekin.
. *ontarsunagati*: *on(h)arzun / ontarzun* bitasunaz, cf. 364.

352. Ohapean nago gorderik, enirozu ediren.

Inhardetsia: Etzitzaket, ezi enaiz bilha ebiliren.

Hauk dira neska baten eta morroin baten arteko hitzak.

- Je me tiens cachée sous le lit, vous ne sauriez me trouver.
[Réponse]: Je n'ai garde de vous trouver, car je ne vous irai pas chercher.
[C'est un dialogue entre une jeune fille et un garçon].

- Estoy escondida bajo la cama, no me encontrarás.

Respuesta: No te encontraré, porque no te buscaré.

Son palabras que se cruzan una chica y un mozo.

. *eniroso ediren: nirozu*, **iro* ahalezko laguntzailearen orainaldia, *ni-zuk*, “ezin nazakezu aurkitu”, “ez nauzu aurkituko”.

. *In hardetsia:* bereiz idatzia, errata.

. *Ezizaket:* gure *etzizaket*. *Ediren* aditzoina isilpean, aurreko perpau-setik berreskuratzen dena; *zitzaket*, **ezan* laguntzailea, *KE*-dun orainaldia, *zu-nik*, “ez zaitzaket aurkitu”, “ez zaitut aurkituko”.

. *nescabaten ... morroinbaten:* loturik; *-sc-* grafia *-f-*ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 331).

353. Ohean egin zuenak [*satsukeria*], porua handienik.

- Celui qui fit l’ordure au lit faisait encore du bruit.

- El que la hizo en la cama [la cochinada] es el que gritó más fuerte.

. *satsukeria:* *s-* grafia hitz hasieran, *f-*ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 323).

→ Schuchardtek erakutsi zuen bezala (1911: 452), frantses itzulpena ez da zuzena, *encore* baitio euskarazko *handienik* ordaintzeko. Atsotitzaren bigarren zatiaz, cf. 445.

354. Ohoinari ebastea da perdonanzen irabaztea.

- Dérober aux larrons c’est gagner les pardons.

- Robar al ladrón es ganar indulgencias de perdón.

. *ebastea:* hitz honen tradizioa ikusita eta *ebatsi* agerpena (28) gogoan izanik, pentsatzekoa da *-st-* grafia *-f-*ren lekuan dagoela. Beste zenbaitetan bezala, *-stea* / *-ztea* errima dugu.

→ Okoad 311: *Huhuñenera hoxtuac / bulea*. Hau da, “Lo robado a (lit. de) un ladrón, (tiene) bula”. Urkijok dioenez, *huhuñerean* irakurri behar da, “con la antigua desinencia de ablativo”. Horrelaxe RS 544 (*TAV*). Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du: *Qui pane layrou / Que gagne perdou* (1911: 454). Urkijo Esk: “Parece basarse en el castellano *Quien roba al ladrón, cien años de perdón*”. Cf. 140.

355. Oihaneko haziak, oihaneko berri.

- Celui qui est nourri dans le bois, ne parle que du bois.
- El que se ha criado en el bosque habla *siempre* del bosque.

**356. Oilar bat aski da oilo hamar baten,
hamar gizon ez emazte baten.**

- Un coq suffit à dix poules, mais dix hommes ne suffisent pas à une femme. *C'est le dire des médisants des femmes, qui n'est pas vrai, parlant généralement.*
- Un gallo basta para diez gallinas, diez hombres no bastan para una mujer.
 - . *Oilarbat*: loturik (cf. 6); *oilar* eta *oilo* hitzen idazkeraz, cf. 248.
 - . *aski*: -*sk-* grafia -*ʃk-*ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 74).
 - . *hamar baten*: loturik (cf. 6); *hamar baten* zenbatzailea *oilo* izenaren ondoan (cf. 522, 678; XVII, 52).
 - Haritschelharrek dioenez (1991: 196), azalpenarekin “Oihenart veut tempérer la crudité de ce proverbe”. Aitzinsolasean berariaz aitortzen duenez, Oihenartek ez zituen maite atsotitz arruntegiak.

357. Oiloak eta emazteak galtzen tu sobera ebilteak.

- Les trop longues promenades perdent les poules et les femmes.
- El excesivo pasear pierde a las gallinas y a las mujeres.
 - . *galzen'tu*: hau da, *galtzen ditu* (cf. 1).
 - . *sobera*: s- txikia hitz hasieran , ʃ- luzearen lekuan, aapikaria adierazteko (cf. 307).
 - Haritschelhar (1994: 278): “Emazte ibiltariaren kontrako atsotitzak nasaike agertzen dira. *La mujer en la casa y el hombre en la plaza. La mujer, la pierna quebrada y en casa.* Frantsesez dio errefrau batek: *Fille fenestrière ou trottière / Rarement bonne ménagère*”. Eta euskal atsotitzaren parekoagoak: “*La mujer y la gallina por andar se pierde aina. Fille qui trotte et géline qui vole de légier sont admirées. Fille qui trotte et poule qui vole sont facilement enlevées*”

358. Oilo ebildari, axeriaren janhari.

- Poule promeneuse devient la proie du renard.
- Gallina andarina, comida de zorro.
 - Zalgize 9: *Oilo ebildaria, achiariac jaten du [acheriaren ianharia]*. Sarasolak esaten duenez, “Tanto el testimonio de Oih. 358 (...), como razones de metro y rima, parecen indicar que la forma original de la segunda parte del refrán es la que se consigna entre corchetes”. Haritschelhar (1994: 278): “Ez da dudarik oilo eta azeri hitzen pean edozein euskaldunek badakiela emazte eta gizon ulertu behar dela ere”.

359. Oilo zaharrak salda ona du egiten.

- Vieille poule fait bon bouillon.
- La gallina vieja hace buen caldo.

360. Oina alda, gogoa muta ari da.

- Il change d’avis ou de résolution chaque fois qu’il remue le pied.
- A cada paso que va dando, de opinión va cambiando.
 - . *alda ... muta: aldatu eta mutatu*-ren aditzoinak.

361. Ona bere gaitzareki.

- *Il faut recevoir* le bien avec son mal.
- El bien, con su mal.
 - Zalgize 52: *Hona bere gaitzarequi*. Bela 33: *Hona bere gaitzarequi*. Urkijo Esk: *Hay que estar a las duras ... [y a las maduras]*.

362. Onak nekezago bat diro onkidea, ezi ez gaxtoak gaxtokidea.

- Un homme de bien a plus de peine de trouver son pareil que n’a le méchant à rencontrer le sien.
- Al bueno le cuesta más encontrar a un igual en la bondad, que al malo un compañero en la maldad.

- . *nekesago*: -ago atzizkiaren idazkeraz, cf. 84.
- . *bat diro*: **iro* ahalezko laguntzailearen orainaldia, “batu dezake”, “aurki dezake”.
- . *esies*: cf. 150.

363. Onak onari, gorainzi.

- Un homme de bien fait de bons souhaits pour un autre homme de bien.
- El bueno al bueno, recuerdos.
 - Zalgize 75: *Hunac hunari gorainci*. Garibay B 23: “Por los que no andan en buenos tratos, y se entienden los unos á los otros, dizen: Bueno el bueno al encomiendas. *On-ac ona-ri gorainci*”.

364. Onarzunak, galduz geroz dira ezagunak.

- On ne reconnaît les biens qu’après qu’ils sont perdus.
- Los bienes se conocen cuando se pierden.
 - . *Onarsunac*: ohar *onarzun* (364; VI, 5), *onharzun* (572), “bien” / *ontarzun* (112, 351, 592; IX 4; XIII, 3), “bondad”.
 - RS 297: “*Galdu azquero ondasuna / da eçauna*. Después del bien perdido / es conocido”. RS 433: “*Ondasunac galdu azquero / diraezaun*. Después de perdidos los aueres / son conocidos”. *Gaztelaniaz*: *El bien no es conocido hasta que es perdido* edo *El bien hasta que se pierde no se conoce*. *Frantsesez*: *Bien perdu, bien connu*. *Eta latinez*: *Quam cara sint bona homines carendo intelligunt* edo *Quid boni habeat sanitas, languor ostendit*.

365. Onenzat da gauza nekea, gaxto-herrian ungi bizitzea.

- C’est une chose fort malaisée à un homme de bien de bien vivre au pays des méchants.
- A los buenos les es difícil vivir bien en un país de malos.
 - . *Onensat*: -zat / -tzat bitasunaz, cf. 25.
 - . *gaxto-/herrian*: marra lerro-buruan.
 - . *vngui*: bi atsoitiz beherago *ongui*; *on-* erroko hitzen aldaerez, cf. 24.
 - . *vicizea*: *v-* eta *-ci-* grafiak, cf. 6 eta 236.

366. On-goseak, gizon bat hilik ihes zegin eliza barnera, eta ezta geroz hantik atera.

- L'avarice, ayant tué un homme, se réfugia dans l'église, et elle n'en est pas sortie depuis.
- La avaricia, habiendo matado a un hombre, se refugió en la iglesia; y ya no ha salido de allí.

. *On-gosseac**: orri alboan **L'avarice* dio.

. *guicon*: errata. Oihenarten sisteman *guison* izango litzateke, baina ondoko *elica* ikusita, zeinek *eliça* irakurketa iradokitzen duen, pentsa daiteke honen azpian ezohikoa den -ç- grafia dagoela; ikus, halaber, aurreko atsotitzean *vici* grafia *bisi*-ren lekuan. Esan daiteke, bada, atsotitz hauetan pilatu egin direla beste idazleen idazkeran ohikoak ziren *ci*, *ça*, *ço* grafiak, Oihenarten s letraren lekuan.

. *bat*: hemen bereiz (cf. 6).

. *ihes seguin*: -s hitz amaieran, -j-*ren* lekuan, apikaria adierazteko (cf. 193); *ihes egin* aditzaren iragana, aoristo baliokoa, "ihes egin zuen" (Lafon 1949: 443).

. *elica-barnera*: marrarekin; errata, *eliça*-ren lekuan, cf. gorago.

. *atera*: leherkariaren aspirazio markarik gabe; erro honetako hitzen idazkeraz, cf. 137.

→ Haritschelhar (1992: 203): "Elizaren eta eliz-gizonaren salaketa bortitza (...). Apezaren zikoizkeria agertzen da frantses atsotitz batzuetan. Hala nola: *Avarisce de provoivre* frantses zaharrearan *provoivre* apeza baita. *C'est un pauvre prestre s'il n'a point d'argent caché*. Bortitzagoa da, halere, euskal erretraua aipatzen baitu gizon baten hiltzea".

367. Ongi egiten duenak bilaunari, bere ongia du esteialtzen, eta eskarnio egiten kapareari.

Kapare da bilaun eztena, ez eta xoil aitoren seme, bana bien arteko, Españan hidalgoa den bezala.

- Celui qui fait du bien au vilain dissipe son bienfait, et fait injure aux honnêtes gens.
- Quien beneficia a un villano, despilfarra su bien y escarnece al hidalgo. *El kapare es el que no es ni villano ni tampoco propiamente noble, sino algo intermedio, como es el hidalgo en España.*

- . *escarnio*: hitz honen tradizioa ikusita, pentsatu behar da -{c}-ren lekuan dagoela -sc- grafia, apikaria adierazteko; berdin 532.
- . *capareari* ... *Kapare*: batean c-, bestean K-.
- . *Ejpagnan*: -gn- grafia etimologikoa, alboko sabaikaria adierazteko.

368. Onhets nezan gure atsoa, iduri zekidan neskaxoa.

- J'eus de l'amour pour notre vieille, et je la pris pour une jeune pucelle.
- Amé a nuestra vieja y me pareció jovencita.
 - . *Onhets nesan*: **ezan* laguntzailearen iragana, *hura-nik*, "maitatu nuen".
 - . *iduri sequidan*: **edin* laguntzailearen iragana, *hura-niri*, "iruditu zitzaidan".
 - . *nescaxoa*: -sc- grafia -{c}-ren lekuan (cf. 331). Beste alde batetik pentsa daiteke, beharbada, *x* soil hori *x*^o grafiaren lekuan dagoela eta *ne{cax}oa* irakurri behar dela, hau da, gure *neskatxoa*; beste bi agerpenetan, ordea, -{j}- grafia ageri da: *nesca{ss}o* (XX, 4), *ne{cass}o* (*Adigarria*) eta, hortaz, nahiago izan dugu bere horretan uztea txitxikari igurzkaria.
- Zalgize 12: *Onhets neçan troncoa, / Iduri cequidan Jaincoa*. Okoad. 216: "*Onhets necan hariza / iduri çaquidan goruiza*. Tuve cariño al roble y me pareció madroño". Haritschelhar (1994: 292): "*Vieilles amours et vieux tisons / s'allument en toutes saisons*". Cf. 156.

369. Oreina larrean, bertza laratzean.

- Tandis que le chauderon *pour faire cuire le cerf* est pendu à la crémaillère, le cerf court parmi le désert.
- El ciervo en el campo, la caldera en las llares.

370. Oren gaitz bati itzur dadina, ehuni.

- Qui échappe à une mauvaise heure *en esquive cent autres*..
- Quien escapa de una mala situación, escapa de cien.
 - . *gaizbati*: lotuta.
 - . *itur dadina*: *itzuri*-ren aditzoina; **edin* laguntzailearen orainaldia, erlatiboan, "itzurtzen dena", "eskapatzen dena"; ez du komuntadurarik aurreko datiboarekin.

371. Orga txarrago-eta, karranka handiago.

- Tant plus la charrette est usée et chétive, tant plus elle fait de bruit.
 - Quanto más destartalado el carro, mayor *es su* chirrido.
 - . *Orgâ*: Oihenartek ez du normalean azentu grafikorik ipintzen; hemen, ordea, *orga* lexemari artikulua erantsita *orgaa* sortzen da, hots, *orgaa* > *orga*, azken *-a* horrek azentua duelarik. Hori adierazten bide du *â* grafiak.
 - . *xarrago-eta*: besteetan bezala, erabaki behar dugu *xa-* ala *x*a-*, hots, gure *txa-*, irakurri behar den. Oihenartek segitzen duen euskalki ereduaren arabera (cf. 265), badirudi bigarren aukera zuzenagoa dela, *OEH*-k ere hobetsi duen bezala (s.v. *karranka*). Konparaziozko *-ago* atzizkiaren idazkeraz, cf. 84. Marrak, bestalde, *eta* hori enklitikoa dela adierazten du.
- Zalgize 115: *Orgac char ago, / Carranca handiago*. Bela 41: *Orga gaiztoenac carrancaric handiena*.

372. Orbiko xoria Orhin laket.

Orhi da Bortuetan mendi gora bat, Nafarroa elgatako eta Zuberoako muga.

- L'oiseau qui s'est nourri à la montagne d'Orhi, ne se plaît que là. [Orhi est le nom d'une haute montagne dans les Pyrénées, *laquelle est presque toujours couverte de neige*].
 - El pájaro del Orhi, a gusto en el Orhi.
Orhi es una montaña elevada de los Pirineos, en la frontera entre las dos Navarras y Zuberoa.
 - . *gorabat*: loturik (cf. 6).
 - . *elgataco*: hitz honek adiera bi izan ditzake, "bietako" (cf. *OEH*, s.v. *elga*) edo "garaiko" (cf. *BAP* 1955: 294). Ikus 6, non *Naffarroa garaiko* dioen.
- Idazkera gorabehera, Zalgize 96 eta Bela 42 berdinak dira. Ikus, bestalde, Isasti 1: "*Aitzean jaioc aitzera nai*. El nacido en la peña quiere volver a la peña". Urkijo Esk: *Oriko txoriak Orira nai* (Azk., *Col. Ronc.* 149). Cf. 49, 123 eta 355.

373. Orhin ekhia bero.

Ihardespena: Han izanik hona niz.

Noizpait atsotitz hau osorik erraiten zen, bana orai ezta ibardespena

baizi erraiten; eta haren erran-lekua da noiz ere norbait obartzan baita bertze batek, enganatzekotzat, zerbait eragin nahi diola. Zeren atsoen errana da: behiala, hegaztiak minzo zirenean, xori bat neguan hotzez hila habia bati arrimatu zela eta, hura bertze xori batez hartua edirenik, haren hantik ateratzeko, sinhetsarazi nahi uken ziola Orhin ekia bero zela; ordea bertzeak, haren mina ezaguturik, inhardetsi ziola bazekiela Orhiko berri, ezi hantik etorri berri zela.

- Le soleil est bien chaud à Orhi.

[Réponse:] J’y ai été et ne fais qu’en venir.

[On ne récite plus ce proverbe en entier, mais seulement *la fin*, qui est *la réponse*, et on s’en sert lorsque quelqu’un s’aperçoit qu’un autre exige de lui quelque chose, à dessein de le tromper. Car le conte de vieille porte que jadis, au temps que les oiseaux parlaient, un oiseau en hiver étant tout gelé de froid aborda un nid, et l’ayant trouvé occupé par un autre oiseau, désirant l’en faire sortir, il lui voulut persuader que le soleil était bien chaud en la montagne d’Orhi; mais l’autre, connaissant la fourbe, lui répartit qu’il ne faisait qu’en venir et qu’il savait bien quel temps il y faisait].

- En Orhi calienta el sol.

Respuesta: Allí he estado y *acabo* de venir.

En otros tiempos este refrán se decía entero, pero ahora no se dice más que la respuesta; y la ocasión en la que se usa es cuando alguien se da cuenta de que otro, para engañarle, quiere hacerle hacer algo. Porque el dicho de vieja dice así: que antiguamente, cuando las aves hablaban, un pájaro en invierno, muerto de frío, se acercó a un nido y, viendo que estaba ocupado por otro pájaro, para echarle de allí le quiso hacer creer que en Orhi calentaba el sol; pero que el otro, habiendo adivinado su mala intención, le contestó que ya conocía *lo que pasaba* en Orhi, puesto que acababa de llegar de allí.

- . *ekhia*: leherkaria aspiratua hemen, baina beste batzuetan aspiraziorik gabea (56an eta hemen berean, beherago).
- . *Ihardelspena* bitan: aspirazioaren aurreko *n*-rik gabe; baina ikus, hala ere, erro horretako beste hitzak, bat hemen berean, *n*-rekin: *inhardesteric* (277), *inhardeste*a (529), *inhardet*] (XX, 8), *inhhardetsi*- (352, 373), *inhardet*]i (632), *sinhardet*]ana (XXVI, 22).
- . *hona nis*: *hona(tu)* aditzaren orainaldi burutua, *-tu* atzizkirik gabe erabilia, “hona etorri naiz”; cf. *hara(tu)*, “ir, llegar ... allá” (OEH, s.v.).
- . *baici*: noizbehinkako *-ci*- grafia Oihenarten sistemako *-si*-ren lekuan. Hitz hau bitara idazten da: *baisi* (83; II, 11), baina *baici* (373;

XVII, 124; XXVII, 6), *baicic* (XIII, 9, 27; XVII, 100); eta *beisi* (142; V, 1), *besi* (I, 1; V, 16); baina *beci* (465, 564; VII, 2, 7; XVII, 34).

- . *erran-lekua*: marrarekin.
- . *berzebateg* ... *xoribat* ... *habiabati* ... *xoribates*: loturik.
- . *hegastiatic*: hemen bizkarkariarekin, cf. 278.
- . *hozes-bila*: marrarekin.
- . *sinhets araci*: bereiz; -*ci*- grafia, ostera ere, Oihenarten sistemako -*si*-ren lekuan; baina *arasi* (X, 6), *erasiten* (644)
- . *ekia*: leherkaria aspiraziorik gabea (cf. 56), goikoa ez bezala.
- . *Orhico-berri*: marrarekin.
- . *etorri-berri*: marrarekin

**374. Oro, bere buruaz bertzeak,
dezaguzke gaizki erraileak.**

- Le médisant connaît tout le monde, fors soi-même.
- A todos, menos a sí mismo, conoce el murmurador.
 - . *desaguske*: *ezagutu* aditzaren *KE*-dun orainaldia, *haiiek-hark*, -z-pluralgilea, “ezagutu ditzake”, “ezagutzen ditu”.

375. Ororen adiskide dena, ezta nehoren.

- Qui est ami d’un chacun ne l’est d’aucun.
- El que es amigo de todos, no lo es de nadie.
 - . *adiskide*: -*sk*- grafia, -*sk*-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 82).

**376. Ororen gogara egitea,
da gauza nekea.**

- C’est une tâche fort malaisée de faire chose qui à tous agréée.
- Complacer a todos es cosa difícil.
 - . *gogara*: adizlaguna nahiz izena izan daiteke (cf. *OEH*); “norbaiten gogara egin”, “norbaiten gogoa bete” da, edo “norbaiten gogoaren arabera egin”.
 - . *nekea*: adjektiboa, “nekeza”, “zaila”.
 - Urkijo Esk: *On ne peut pas contenter tout le monde et son père.*

377. Orok dioitena, edo da edo izanen da.

- Ce que tous disent être, ou est, ou sera.
- Lo que todos dicen, o es o será.
 - . *dioitena*: **io* erroko aditzaren orainaldia, *hura-haiek*, erlatiboan, “diotena”, “esaten dutena”; orainaldian *dioite* (377, XXVI, 2, 7), *-i*-rekin, baina iraganean *sioten* (208), *siostela* (XXII, 3).

378. Ororen nahiz, oro gal.

- En voulant avoir tout, on perd tout.
- Queriéndolo todo, se pierde todo.
 - Urkijo Esk: Cf. *Quien todo lo quiere todo lo pierde*.

379. Orotan fida adi, orotarik begira adi.

- Fie-toi de tous, et donne-toi garde de tous.
- Fíate de todos y cuidate de todos.

380. Orratzak mundu oro du beztitzen eta da bera biluz gelditzen.

- L'aiguille habille tout le monde et demeure elle-même toute nue.
- La aguja viste a todo el mundo y ella se queda desnuda.

381. Otorde dabila maiatza su eske.

- Le mois de mai est en quête de feu, en troc de pain; *cela veut dire que quand il fait froid en mai il y aura abondance de grain*.
- Mayo busca fuego a cambio de pan.
 - . *su*: *s-* hitz hasieran *ʃ*-ren lekuan (cf. 257).
 - . *eske*: *-sk-* grafia *-ʃk-*ren lekuan (cf. 31).
 - RS 534: *Otorde dabil Mayaça su esqe*. Gaztelaniaz: *Mayo frío / Abundancia de trigo*. Cf. 309.

382. Otsoa, artzain.

- Le loup est le gardien des brebis.
- El lobo, pastor.
 - Zalgize 11 berdina da. RS 346: “*Ora osoen lagun. El mastin compañero de los lobos*”. Gaztelaniaz: *Encomendar las ovejas al lobo*.

383. Otsoa ezta otso aragiti alha, ordea bai bertze orotarik.

- Le loup mange de toute sorte de chair, hors de la sienne.
- El lobo no se alimenta de carne de lobo, pero sí de todas las demás.
 - RS 345: “*Osoac vere araguirean / jan ezeuan. El lobo de su carne / no comio*”. Aldaera asko aipatzen ditu Urkijok: *Otsoak ezdu bere araguirik šaten; Otsoak eztau otsakirik jaten; Otsoak otsoakirik jan ez ta lapurrak lapurrari laztan; Otsuac otsuari gachic ez, ta lapurrari lapurrak laztan...* Frantsesez: *Loup ne mange chair de loup; Les loups ne se mangent pas entre eux; Ung loup ne mange point l'autre...* Alemanez: *Der Wolf frisst jedes Fleisch, das seine lect er nur; Ein Wolf frisst dem andern nicht.* Italianoz: *Ogni carne mangia il lupo, e la sua lecca; Il lupo non mangia della carne di lupo.* Latinez: *Lupus non mordit lupum...* “Se usan estos refranes –dio Urkijok–, por lo menos la mayor parte de ellos, contra los que son duros para los demás e indulgentes para consigo mismos”. Alderantziz gaztelaniaz esaten da *De sus carnes come* “del que se hace daño a sí mismo en sus diligencias”.

384. Otsoa lagun duanean, albaihu hora saihetsean.

- Quand tu auras le loup en ta compagnie, aie le chien à ton coté.
- Cuando tengas a un lobo por compañero, ten un perro a tu lado.
 - . *albaihu*: *albai-* aurrizkiak agintea adierazten du, *-hu*, alegiazkoa, *hura-hik*, “izan ezak”; cf. *albaihesa* (XIX, 4).

385. Otsoa non aipa, han gerta.

- Là où on parle du loup on le rencontre.
- Donde se habla del lobo, allí aparece.

→ Haritschelhar (1991: 195): "(...) est l'équivalent de 'Lorsque l'on parle du loup la queue paraît'". Zalgize 55: *Otso non aipha, / Han guertha (han hel?)*. Schuchardtek dioenez, berriz, latinez bada atsoititz honen aitzindaria: *lupus in fabula* (1911: 453).

386. Otsoa senar duenak, oihanera beha.

- Qui a le loup pour mari jette souvent la vue vers le bois.
- La casada con un lobo hacia el bosque mira.

. *senar*: cf. 63.

→ RS 338: *Oshoa senar daguianac / veti ojanera beguira*. Otsoa, eta ez haren emaztea, aipatzen dute ondoko aleman eta frantses atsotitzek: *Der Wolf sieht nur nach dem Walde* eta *Le loup a l'oeil au bois*. Azken hau gizon zuhurraren irudi omen da, ez baita inoiz babesleku eta geriza dituen basoetatik urruntzen.

387. Otsoak eztu kausitzen mandataririk bera iduririk.

- Le loup ne trouve point de procureur qui le vaille.
- El lobo no encuentra mensajero que se le parezca.

→ Zalgize 11^{bu}: "*Otsoac eztu bera iduri meçuric*. El lobo no tiene reca-dista á su semejanza. Azkue dice: *Otsoak eztu bera bezalako mandataririk*".

388. Otsoak eta horak, ahunzaren aragiaz bake.

- Le loup et le chien s'accordent aus dépens de la chèvre, qu'ils mangent ensemble.
- El lobo y el perro *hacen* las paces a cuenta de la carne de la cabra.

→ Zalgize 169: *Otsoac eta horac ahunçaren buruian baque*. Urkijo Esk: *La amistad del lobo y el mal perro, la paga el cordero* (Sacristán, *Doctrinal de Juan del Pueblo*, I, p. 230).

389. Otsoak, nola irestea hala sinhestea.

- Le loup ne croit tenir que ce qu'il sent à la gorge, en l'avalant.
- El lobo, lo que traga eso cree.

- . *sinhe*stea: *s-* hitz hasieran *]-ren* lekuan, apikaria adierazteko. Erro honetako hitzek *]-dute* maiz, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan: *sinets* (233), *sinhets* (373), *sinhet*si (191; XI, 1), *sineste*a (144, 205, 523); baina batzuetan *s-*: *sinhe*stea (389), *sine*tsi- (IV, 3), *sinhet*su (XIV, 6), *sinhetsac* (XVIII, 2).
- Haritschelhar (1991: 195): “la traduction d’Oihenart ne rend pas compte du parallélisme et du jeu entre *nola* et *hala*. Une traduction littérale donnerait. ‘Le loup comme il avale, ainsi il croit’”. Zalgize 123: *Otsoac nola irestia, / Hala sinhestia*.

390. Otsoak zer baitetsa, otsemak donhetsa.

- Ce que le loup fait à la louve plaît.
- Lo que el lobo quiere, a la loba place.
 - . *baitet*sa: *bait-* aurrizkia eta *detsa* adizkia, *etsi* aditzaren orainaldia, *hura-hark*, “deritza”, “irizten dio”.
 - . *Ot*semac: maiuskula, bigarren lerroaren hasieran; “otso emeak”.
 - . *donhetsa*: *onhetsi*-ren orainaldia, *hura-hark*, “onesten du”⁶⁵.
 - Cf. Okoad 269: “*Otsoac daguiena erroiyari laquet*. Lo que el lobo hace, le agrada al cuervo”.

391. Otsoaren ahotik ixtar bat ere on.

- De la bouche du loup, il est bon de sauver même une cuisse, *si l’on ne peut* davantage.
- De la boca del lobo, incluso un muslo *es* bueno.
 - . *ixtarbat*: lotuta (cf. 6); *ixtar*, sabaikariarekin, cf. *il*ter (474, frantses itzulpenean) eta *istarte-* (204).
 - RS 337: “*Osoen aorean oq[ue]lea bereon*. Tâbiê es buena la tajada de la boca del lobo”. Azkueren hau aipatzen du Urkijok: “*Otsoaren ahotik ahamen bat ere on*. De la boca del lobo un solo bocado es bueno”. Eta gaztelaniazko bi hauek: “*Esperar del lobo carne*. Phrase que enseña no se debe esperar largueza ni cosa

⁶⁵ “Azkue interpreta erróneamente en su dicc. *donhetsa* (OPr 390, ‘le agrada’, forma conjugada de *onhetsi*) como perteneciente a un inexistente verbo *donhetsi*, que traduce ‘sancionar’; rectifica sin embargo en *Morf* 738” (OEH, s. v. *donetsi*).

buena de quien, por sus ruines costumbres ó perverso genio, está acostumbrado á executar lo contrario”; *Del lobo un pelo, y esse de la frente*. Refr. que enseña, que del sugéto de quien no se puede esperar beneficio ú dádiva, por su genio escasso, se ha de tomar lo que primero diere, aunque sea de poco precio y valor”.

392. Otsoaren ihesi nenbilela, bat nendin hartzareki.

- En fuyant le loup j’ai fait rencontre de l’ours.
- Huyendo del lobo, topé con el oso.

. *nenbibela*: errata, -l- > -b-.

. *bat nendin*: *batu*-ren aditzoia; **edin* laguntzailea, iragana, “batu nintzen”, “topo egin nuen”.

393. Otso gosea, ekurugaitz.

- Un loup affamé est inquiet.
- El lobo hambriento *está* inquieto.

. *ekurugaiz*: cf. 54.

→ RS 471: “*Oshso gosea ebiloqui*. Lobo hambriento andador”.
Gaztelaniaz: *Lobo hambriento, no tiene asiento*. Frantsesez: *Loup affamé nulle part applacé* edo *Loup affamé brise le loquet*.
Alemanez: *Ein hungriger Wolf hat scharpe Zähne*.

394. Otso larrurik jaunz eztezala, enzun nahi ezpaduk otso izala.

- Ne te couvre pas de la peau du loup, si tu ne veux être réputé loup.
- No te vistas con piel de lobo, si no quieres oir que eres lobo.

. *iauns estesala*: *jauntzi*-ren aditzoia; *dezala*, **ezan* laguntzailea, agin-te balioko “subjuntiboa”, *hura-hik*, “jantzi ez dezaala”.

. *isala*: iz adizkia, ohi bezala *h*-rik gabe, ondotik -(e)la atzizkia duela, “haizela”.

P

395. Pazkoz urkagei duenak,
garizumaren laburrez ditu penak.

- Celui qui doit être pendu à Pâques trouve le Carême bien court.
- Al que va a ser ahorcado por Pascua le duele que la Cuaresma sea corta.
 - . *urcaguei*: leherkariaren idazkeraz, cf. 148; aditzoina + *gei* egituraz, berriz, cf. 66.
 - Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du, euskarazkoaren errimarik ez badu ere: *Lou qui deu paga ta Pasques, / trobe lou coaresme court* (1911: 455).

396. Pika nolako, umea halako.

- Quelle est la pie, tel est son petit.
- Como es la picaza, así es el polluelo.
 - Zalgize 144: *Pica nolaco, / Humia halaco*. Eta 111: *Picac gara gara, / Humiac hala hala*. Bela 44: “*Phicac gara gara, umiac hala hala*. (La race tire plus que cent paires de boeufs... Et l’on dit vulgairement: *Saepe solet filius similis esse patri, / Et sequitur leviter filia matris iter*. Et en basque *Otso...* ou *Phicac...*, et en gascon: *De nature put lou bouc*)”.

397. Pitar emoiezkoak gozo hobeia du ezi ez arno erosizkoak.

- Le cidre qu’on a eu en don a meilleur goût que le vin qu’on a acheté.
- La sidra regalada sabe mejor que el vino comprado.
 - . *Pitar*: sagardo ahula, “sidra aguada”.
 - . *esies*: lotuta (cf. 150).

398. Prestatzen ezadila ari, gero burhasik eskatu behar itzaukeonari.

- Ne t’amuse pas à prêter *ton argent* à celui à qui tu serais obligé après de le demander le chapeau au poing: *c’est-à-dire à plus grand que toi*.
- No andes prestando *dinero* a quien luego se lo hayas de pedir quitándote el sombrero.

- . *Prestazen*: -st- grafia -jt-ren lekuan, apikaria adierazteko.
- . *esadila ari*: ezezkako agintea **edin* laguntzaile “subjuntibozkoaren” bidez.
- . *burhaffic*: adizlaguna, “con la cabeza descubierta”, “nu-tête”, hots, errespetua eta mendekotasuna erakutsiz.
- . *escatu behar izaukeonari*: zalantza sorraraz dezake *izaukeonari* laguntzaileak; Orpustanek, hain zuzen, **edun* aditzekoa dela dio (1993: 132) eta Txillardegik, berriz, **izan* aditzekoa dela (Larresoro 1971: 76). Txillardegi dabil zuzen, iragangaitza baita *eskatu* aditza (cf. 514) eta berak erabakitzen du laguntzailea, *behar* modala tartean egon arren. Beraz, laguntzailea *izan* aditzekoa da, *KE*-dun orainaldia, *hi-hari*, beste askotan bezala, datibo aurreko bokala -u- duena: *i-tza-u-ke-o*, hots, gure *ha-tza-i-o-ke*; ondotik erlatiboa darama, datiboan; “eskatu behar hatzaiokeenari”, hots, “eskatu behar dioanari”.

**399. Puta semea, on bada, benturaz;
gaxto bada, sorkuraz.**

- Le fils de putain, s’il est bon, c’est par aventure, s’il est mauvais c’est par nature.
- El hijo de puta, si es bueno, por casualidad; si es malo, de nacimiento.
- . *venturas*: v- kontsonanatea, baina *bentura* (88).
- Zalgize 44: *Hon bada venturaz, / Hon ezpada azturaz.* Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du, euskarazkoaren aitzindari bezala: *Si renard put, qu’èy de nature, / Mes si sen bon, qu’èy d’abenture* (1911: 454).

400. Puteki bizitzea, da ospitalera abiatzea.

- La conversation des putains, c’est le chemin de l’hôpital.
- Tratar con putas es ponerse en camino del hospital.
- . *vicizea*: cf. 6 eta 236.
- . *ospitalera*: hitz honen tradizioa ikusita, pentsatzekoa da -j- luzearen lekuan dagoela hemen ere -s- txikia eta, hortaz, *ospitalera* irakurri behar dela, ez *ospitalera*.

401. Putzak pitzen du bela, eta bai hiltzen ere.

- En soufflant on allume la chandelle et on l'éteint aussi; *c'est pour dire qu'une même action produit deux effets contraires.*
- El soplo enciende la vela, pero también la apaga.
. *pizen: pitz- + -tzen; ez, alegia, piz- + -ten (cf. 106, 257).*

S

402. Saiheskia lauda ezak, ordokia eure ezak.

- Loue le champ qui est sis sur le coteau, mais acquiers pour toi celui qui est en plaine.
- Alaba el terreno de la ladera, pero hazte dueño del *que está en el llano.*
. *Saihesquia*: Oihenartek hitz hau hemen baizik erabiltzen ez duen arren, tradizioko idazkera kontuan hartuta eta *[aihetsean* (386), *[aihet]eti* (XVII, 56) hitzak ikusita pentsa dezakegu *-squ-* grafia hori *-[qu-* grafiaren lekuan dagoela eta, hortaz, ez dela *saiheskia* irakurri behar, *saiheskia* baizik.
. *lauda esac ... eure esac: laudatu* eta *euretu*-ren aditzoinak; **ezan* laguntzailea, agintealdia, *hura-hik*.

403. Sapar edozeinek du bere itzala.

- Chaque buisson a son ombre.
- Toda zarza tiene su sombra.
. *Sapar*: cf. *gapar* (696) eta *capar* (33).
. *edoceinec*: *-ce-* grafia, Oihenarten sistemako *-se-* grafiaren lekuan.
→ RS 495: “*Edo çeyn hulec veregerueriza. Cada qual pelo su sombra*”.
Urkijok Duvoisinek bildutako hau aipatzen du: *Arbola guziek beren itzala*. Cf. 696.

404 Saparrondok, beharrondo.

- Derrière le buisson il y a souvent quelque oreille, *qui écoute ce qu'on croit dire en secret.*

- *Tras el zarzal hay siempre una oreja.*
 - . *Sapar-ondoc ... behar-ondo*: marrarekin biak.
 - Zalgize 112: *Saphar vndoc, behar vndo*. Mitxelenak uste zuen *vndo-*ren *v* horren lekuan *o* behar zuela eta, beharbada, Urkijok gaizki irakurri zuela testua (FHV 54n).

405. Sapar zailari, aiotz zorrotza.

- A un rude buisson il faut une serpe bien tranchante.
- A zarza dura, machete afilado.
 - . *saillari*: *-ill-* grafia alboko sabaikaria adierazteko.

406. Senar duenak jaun du.

- Qui a mari a seigneur.
- La que tiene marido tiene señor.
 - . *Senar*: cf. 63.
 - Haritschelhar (1994: 274): “Aspaldidanik heldu zaigu jende ezkonduen artean gizona dela nagusi eta bere menpean daukala emaztea”. Jaun Done Paulok epistoletan emazteei buruz esandakoak aipatzen ditu, gero, eta ondorio honetara iristen: “Hortik dator, giro horretan biziz, euskal erran zaharra”.

407. So eztagoena geroari, deiez dauko goseari.

- Qui ne prend garde à l'avenir invite la faim à venir.
- Quien del futuro no se ocupa, al hambre llama.
 - . *deies*: dieresiak *i*-ren bokaltasuna adierazten du; *dei-~~ez~~* dela, alegia, ez *de-~~jez~~*.
 - . *dauco*: *egon* aditzaren orainaldia, *hura-hari*, “dagokio” (cf. 63).

408. Sokarraria, xotila bada, da gozogarri; toldea bada, erdeinagarri.

- Un railleur subtil donne du plaisir, mais s'il est grossier il est dégoûtant.
- El bromista, si es fino, es agradable; si es grosero, es fastidioso.
 - . *toldea*: Francisque-Michelen edizioan *t`oldea*, hau da, *tholdea*.

409. Sonulariaren etxean, oro danzari.

- En la maison du ménestrier tous sont danseurs.

- En casa del músico, todos bailarines.

. *exean*: x-ren balioaz, cf. 45.

→ Zalgize 165: *Soinugui-liaren etchian oro / dançari*. Urkijok gaztelaniako bi aipatzen ditu: *En casa del tamborilero, los hijos son bailadores* eta *En casa del tañedor, cada cual es danzador*.

410. Sortzeti du axeriak malzurkeria.

- C'est de nature que le renard est caut et rusé.

- De nacimiento le viene al zorro la astucia.

→ Cf. 108.

**411. Sua, Eguberriz sunpurreki;
Pazkoz, aldiz, adarreki.**

- *Il faut faire* le feu à Noël avec de grosses souches, et à Pâques avec des branches.

- El fuego, en Navidad con troncos; en Pascua, en cambio, con ramas.

. *eguberris*: minuskularekin.

. *sumpurrequi*: Oihenartek hitz hau hemen baizik erabiltzen ez badu ere, badirudi hitz hasierako s- hori j-ren lekuan dagoela (cf. Azkue, s.v. *sunpur*). Francisque-Michelen edizioan *sumpurrequi*, hau da, *sunphurreki*.

**412. Sua ezta hain barna egiten
non ezten kea kanpora jalgiten.**

- Le feu ne se peut faire en un lieu si creux que la fumée n'en sorte.

- El fuego *nunca* se hace tan dentro que el humo no salga al exterior.

. *kea*: Francisque-Michelen edizioan *k'ea*, hau da, *khea*.

→ Berdintsua da Zalgize 176; bigarren zatian honela dio: *Non kea ezten jalgiten*. RS 360: "*Surean quehea jayo doa*. Del fuego el humo nacer suele". Eta RS 364: "*Suadan lecrean queheac*. Del lugar do ay fuego salio el humo". Urkijok Peru Abarkatik jaso-

riko hau aipatzen du: *Suba dagan lecuti queia*. Eta beste Azkueren hau: *Keia dagoan lekuan sua, sua dagoan lekuan keia*. Gaztelaniaz, *Donde huego se hace, humo sale*, “que –H. Nuñez-en iritziz– dá á entender que por mas ocultas que se hagan las obras ilícitas, nunca falta rastro por donde se descubran”. Okoad 276: *Sua den lecuti kea dator*. Cf. 415.

413. Sukaldera, hotzez hiltzera.

- On va a mourir de froid auprès du feu. *Cela se dit quand il y a un méchant feu, ou que le remède de quelque autre incon vénient se trouve faible ou impuissant.*
- A la cocina, a morir de frío.
 - . *Sucaldera*: Francisque-Michelen edizioan *Suc`aldera*, hau da, *Sukhaldera*.

414. Sudurra ebaki, muturra odolzu.

- Le nez coupé ensanglante *la bouche* ou le museau; *c'est quand on ne peut faire du mal à quelque autre sans s'en faire à soi-même.*
- Corte en la nariz, morro ensangrentado.
 - . *muturra*: Francisque-Michelen edizioan *mut`urra*, hau da, *muthurra*.
→ Okoad 384 berdina da.

415. Su gaberik ezta kerik.

- Il n'y a point de fumée sans feu [c'est-à-dire de mauvais bruit sans quelque fondement].
- Sin fuego no hay humo.
 - . *keric*: Francisque-Michelen edizioan *k`eric*, hau da, *kherik*.
→ Berdina da Zalgize 153. RS 53: *Suric ezta lecuán qheric ez*. Honen iruzkinean Urkijok beste asko aipatzen ditu: *Surik eztagoan lekuen kerik ez. Non sua dan quea bada an...* Eta baita beste hizkuntzetako hauek ere: *Cerca le anda el humo tras la llama. Il n'est jamais feu sans fumée. Kein Feuer ohne Rauch, keine Tugend ohne Neid. No somoke without some fire. Non est fumus absque igne...* Eta honela amaitzen du iruzkina: “De lo dicho se infiere, que el adagio que comento da á entender que todo rumor

tiene algún fundamento. Puede por tanto considerársele equivalente al castellano: *Cuando el río suena, agua lleva*. Cf. 412.

416. Surda tinkatuz sobera, datorke etentzera.

- La corde d'une mandore ou d'un violon se rompt en la tirant trop.
- Tensando con exceso la cuerda, termina por romperse.
- . *Sourda*: [u] bokala adierazteko -ou- grafia erabiltzen den kasu gutxietako bat (cf. 24). Ez da dudarik horrela dela, atsotitzen segida alfabetikoak salatzen baitu ou horrek u balio duela, bestela 410.aren ondoan joango bailitzateke. Bestalde, egia bada ere tradizioan hitz hau *zurda* idatzi izan dela beti, hemen S apikariak hasten diren atsotitzen multzoaren barnean dago eta horrek argi salatzen du Oihenartek letra hori gure s apikarizat daukala. Bestela, gure z bizkarkariaren pareko izan balu, 417-445 multzoaren barnean sartuko zuen.
- . *datorque*: *etorri* aditzaren KE-dun orainaldia, “etor daiteke”, “etortzen da”.
- . *etenzera*: “etentze” da aditz izena, nahiz partizipioa *ethena* (XXII, 4). Francisque-Michelen edizioan *et`enzera*, hau da, *ethentzera*.
→ Cf. 511.

Z edo Ç

- . *S edo ç*: hitzaurrean esan dugun bezala, Oihenartek gure s eta gure z adierazteko minuskuletan j luzea eta s txikia bereizten baditu ere, hurrenez hurren, maiuskuletan S bakarra du balio bietarako. Hori dela-eta, atsotitz multzo honen buruan S *edo ç* ipini du, aurrekoan ez bezala, gure Z bizkarkariak ari dela ziurtatzeko; ç hori, bestalde, minuskulaz dago, orduko moldiztegietan ez baitzuten artean Ç maiuskulako letra-tiporik.

417. Zakua betatxuaren alde.

- Le sac est favorable à la pièce qui peut servir à le rapetasser.
- El saco a favor del remiendo.

. *betaxuaren*: cf. 252.

→ Zalgize 178 berdina da, idazkera gorabehera.

418. Zakuti bihia gal, edo zorroti irina, da galtze bardina.

- Perdre le grain de dedans le sac ou la farine de la poche, tout revient à un.
- Perder el grano del saco o la harina del costal, es pérdida igual.

. *bardina*: cf. 197.

419. Zaharrago, zoroago.

- Plus il est vieux et plus il est fol.
- Cuanto más viejo, más loco.

. *Saharrago, soroago*: -ago atzizkiaren idazkeraz, cf. 84.

→ Bela 11: *Çahar nendin, çora nendin*. Berdin Okoad 210 ere. RS 289: “*Hule luzea ta cêçun chaburra*. Cabello largo, y seso corto”. RS 166, berriz, honela hasten da: “*Hurdinetan assiazquero / pres-tuesta seyzaroa* (...) . Despues de comêçado a encanecer / no es prouecho el niñear (...)”. Honen aurkakoa dio, ordea, RS 22k: *çarrago ycascurago*.

420. Zahar hitzak, zuhur hitzak.

- Les dits des vieux sont les dits des sages.
- Palabras de viejo, palabras de sabio.

. *subur-hizac*: marrarekin, nahiz aurreko *Sahar hizac* bereiz idazten den.

→ Isasti 9: “*Asco daqui zarrac, eracusi bearrac*. Mucho saue el viejo, enseñole el menester”. RS 479: “*Zaarrada liburu aen esana dagu*. El viejo es libro, su dicho hagamos”. Cf., halaber, RS 465.

421. Zaharo zeno zeren etzen xuxentu da zuhatza makur azkentu.

- L’arbre est devenu tortu pour n’avoir été redressé lorsque ce n’était qu’un scion.

- Por no haberse enderazado mientras era retoño ha acabado torcido el árbol.

→ Guztiz berdina ez bada ere, honen antzeko zerbait dio RS 396k:

“Choria gazteteguiâ ezpadaguic abia / zaarza gachen eldudoc hire biçia. Paxaro si no hizieres ê mocedad nido, / en mala vejez ha llegado tu vida”. Edo Axularren honek: Azquen gaisto eguingo doc choria, gatzetaric eguiten ezpadoc abia. Gaztelaniaz: A mocedad ociosa, vejez trabajosa.

422. Zaldi duenak behar zaltoki.

- [...]⁶⁶.
- Quien tiene caballo necesita montura.

. *saltoqui*: Francisque-Michelen edizioan *salt`oqui*, hau da, *zalthoki*.

→ Atsotitz honen antzekoa da goiko 127a ere.

423. Zaldi maradikatuak biloa leun.

- Un cheval malin a le poil doux à toucher. *C’est pour dire que parfois sous une apparence de douceur est caché un mauvais naturel.*
- El caballo maldito tiene el pelo suave.

. *maradicatuac*: “gaiztoak” esan nahi du, frantses itzulpenak erakusten duen bezala.

→ Zalgize 69: *Çaldi madaricatuc biloa le[un]*. Bela 12: *Çaldi maradicatuc bilhoa lein*. Belaren *lein* hori zubererako forma da. Sarasolak dio: “(...) *leun*, que es la forma que seguramente empleó Sauguis, visto su deseo de evitar ciertas diferencias fonéticas de su dialecto”. Hori bera eta gehiago esan daiteke Oihenarti buruz. Urkijo Esk: *A la bestia mala / el pelo le reluce* (Horozco, *Refranes Glosados*, nº 213).

⁶⁶ Honen itzulpena ere ez du ematen Oihenartek: “Qui a cheval a besoin de selle”. Francisque-Michelek *Saldi duenac behar salt`oqui* irakurtzen du eta “Qui a des chevaux, se creve avec” itzultzen; 1657ko edizioan, ordea, *behar* irakurtzen da garbi-garbi (cf. Schuchardt 1911: 451).

424. Zalduna, egik semea Duke, ezezaguke.

- Chevalier, fais ton fils Duc, il ne te connaîtra plus.
- Caballero, haz a tu hijo Duque, y no te conocerá.
 - . *eguiç*: *egin* aditzaren aginte aldia, *hura-hik*, “egin ezak”.
 - . *semea*: *s-* txikia hitz hasieran *ʃ*-ren lekuan. Ikus, Oihenarten sistema-
ren arabera, *ʃeme-* (15, 231, 399), baina *s-* txikiarekin *seme-* (424;
XXI, 3), eta bietarako balio duen *Seme-* (16; XX, 1).
 - . *esesaguke*: *ezagun* aditzaren *KE*-dun orainaldia, *hi-hark*, “ez heza-
guke”, “ez hau ezagutuko”.

425. Zaurin gainen pikoa.

- Un coup de taille sur la *vieille* plaie, *c'est mal sur mal*.
- *Hacer* un corte sobre la herida.
 - . *Saurin gainen*: hots, “zauriaren gainean”.

426. Zekena, beti on gose.

- L'avaricieux est toujours affamé de bien.
- El avaro, siempre hambriento de bienes.
 - . *on-gosse*: marra dagoela dirudi.
 - RS 164: “*Naya euguiarren / gurari gueyago dogu arrê*. Por tener lo
que queremos / mas desseo entonces tenemos”. Urkijok dio,
honen iruzkinean, “reprende la codicia”. Eta beste egungo hauek
aipatzen ditu: *Aunitz duenak geyago nai. Anitz izan ta yago nai*.
Baita gaztelerazko hau ere: *Quien mas tiene, mas quiere*.
Antzekoa da RS 124: *Asco badoc, asco beardoc*. Eta RS 85:
“*Jaunuc asco daude, / gueyago behardaude*. Mucho tienen los
señores, / Mas an menester”.

**427. Zeha ezak ona, hoba dakidik;
zeha ezak gaxtoa, hont eztakidik.**

- Châtie le bon, il deviendra meilleur; châtie la mauvais, il n'en amendera point.
- Castiga al bueno, se te mejorará; castiga al malo, no se te corregirá.

- . *hoba daquidic*: *hobetu*-ren aditzoina; *dakidik*, **edin* laguntzailearen orainaldia, *hura-hiri*; *KE*-dunen pareko forma, baina *KE* morfema gabe; erroaren *-di-*, aldiz, gorde egiten du, *nori* adierazten duen *-k* morfemaren aurrean; *dakidik*, bada, batuan *dakiake* dena (cf. 59, 639; III, 8), “*hobetu dakiake*”, “*hobetuko zaik*”.
- . *hont estaquidic*: *hontu*-ren aditzoina eta aurreko aditzaren laguntzailer bera.

428. Zela nahi eztuenari eman bekio arbaldia.

- A celui qui ne veut pas de selle qu'on lui charge le bât.
- Al que no quiera silla que le den albarda.

. *eman bequio*: **edin* laguntzailea, aginte aldia, *hura-hari*.

→ Zalgize 132: “*Celaric nahi eztuianari / eman bequio basto*. Al que no quiere silla, pónganle albarda”. Sarasolak (1983: 185): “Posiblemente *basto*, por *basto*, se deba a una mala lectura”. Gaztelaniako hau aipatzen du Urkijok: *Al que no quiere caldo, la taza llena, ó taza y media, ó tres tazas*. Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du: *Au qui nou boü porta la sère, / que ha pourta lou bast* (1911: 455).

429. Zelhatan dagoenak, bere gaizkia hain sarri enzun dezake zein ongia.

- Celui qui demeure aux écoutes pourra aussi tôt entendre son mal que son bien.
- El que se dedica a escuchar puede oír su mal tan pronto como su bien.

. *sarri*: *s-* txikia hitz hasieran *ʃ*-ren lekuan, apikaria adierazteko. Hitz hau horrela beti (429, V, 11; IX, 4; XXVI, 2).

→ Honen antzekoa da goiko 84 ere. Han aipatzen dira esanahi bereko beste atsotitz batzuk. Okoad 293: *Celhatan dagoenac adi / deça-que nehi duenic eta / estuenic*.

430. Zein da orotako aberatsena?

Bere doiaz gogobetatzten dena.

- Lequel est le plus riche de tous? C'est celui qui se contente de ce qui lui faut justement.

- ¿Quién es el más rico de todos?

El que se contenta con lo que le es suficiente.

. *bere*: minuskulaz.

. *gogobetazen*: Francisque-Michelen edizioan *gogobet`azen*, hau da, *gogobethatzen*.

431. Zeinek bere itxura, herrik bere aztura.

- Chacun a sa contenance, et chaque pays ou communauté sa coutume.
- Cada uno su aspecto, *cada* pueblo su costumbre.

. *ixura*: *x* ageri da hemen, baina ikusirik hitz honek tradizioan izan dituen idazkerak, pentsatzekoa da Oihenartek *ix`ura* –hau da, gure *ixura*– idatzi eta moldiztegian puntua galdu zela; berdin X, 8.

. *astura*: cf. 229.

432. Zeinua enzun nahi eztuenak ez soka tira.

- Celui qui ne veut entendre le son de la cloche n'en doit point tirer la corde.
- Quien no quiere oír la campana, que no tire de la cuerda.

. *tira*: cf. 221.

→ Zalgize 108: *Ceinua ençun nahi eztuianac ez corda / tira*.

433. Zeinuak deraunsano,

zinzarrotsa joralterano.

(*Adi ezak enzun daiteela joralterano et' ez urrunago*).

- Tandis que la cloche sonne, la sonnette ne s'entend point plus loin que de l'étendu du collier qui la soutient.
- Mientras la campana suena, el sonido del cencerro hasta el collar *llega*. (*Es decir que puede oírse hasta el collar y no más lejos*)

. *deraunsano*: -s- txikia, -ʃ- luzearen lekuan *n-* kontsonantearen ondoran; hemen *deraunsano*, baina *deraun[sano]* “behar” bezala (662); *deraunsa*: *eraunsi*-ren orainaldia, ondotik denborazko -(e)*no* atzizkia duela.

- . *adi esac*: minuskularekin, parrafo hasieran egon arren.
- . *ensun daiteela*: **edin* laguntzailearen KE-dun orainaldia, gure “dai-teke” formaren parekoa, ondotik *-ela* atzizkia duela, “entzun daitekeela”, “entzuten dela”.
- . *& es*: & grafiak *et* adierazten du, *ez eta* juntagailu osoa; pentsatzekoa da Oihenartek *et’ es* idatzi eta moldiztegian horren lekuan & ipini zutela *a*-ren elisioa adierazten duen apostrofoa gabe (ikus 45).
- . *urrunago*: *-ago* atzizkiaren idazkeraz, cf. 84.

434. Zer dio sutondokoak?

Zer baitio sutaitzinekoak.

- Que dit celui qui se tient au coin du foyer? Ce que dit celui qui est assis audevant du feu. [*D’ordinaire, les maîtres et maîtresses de la maison occupent la meilleure place du foyer, qui est celle de devant le feu; et les enfants et les seviteurs se tiennent au coin, et ceux-ci ont accoutumé de dire les choses qu’ils entendent dire aux premiers*].
- ¿Qué dice el que está a un lado del fuego?
Lo que dice el que está delante del fuego.
 - . *sutondocoac* ... *sut-aizinecoac*: *s-* txikia hitz hasieran]- luzearen lekuan, apikaria adierazteko (cf. 170); bigarreanean marra. Francisque-Michelek *sut`ondocoac* eta *sut`aizinecoac*, hau da, *suthondokoak* eta *suthaitzinekoak*.
 - . *ser*: minuskulaz, bigarren lerroaren hasieran egon arren.
 - Zalgize 116: “*Cer dio suthundocoac? / Cer baitio suth’aitcinecoac*. Suiaren aitcinian daude etsian gehienac eta suaren aldian chipienac hoc erraiten ohi dute, hoie[r] ençuten dutena”. RS 238: “*Seyac danzuana escarazean / esan daroa ataartean*. Lo que oye el niño en el fogar / suele dezir en el portal”. Alemanez: *Die Kinder reden, was sie von den Alten hören*. Cf. 620.

435. Zetabea, berri deno, holtzeko; gero ere saguaren hortzeko.

- Un sas neuf est tenu en réserve en la paroi pour servir au besoin, mais cependant la souris l’entame.
- El cedazo, mientras es nuevo, para la pared; *pero* al final *termina siendo* para el diente del ratón.

. *hortzeco*: errata, *horzeco*-ren lekuan (cf. X, 6; XII, 9; XIII, 14).

→ Zalgize 68: “*Cethachua berrideno holceco, / Guero ere sagüaren hortceco*. El cedazo mientras es bueno para el tabique, después para el diente del ratón”.

436. Zinzarri mihigabea, holtzean higa.

- La sonnette qui n’a point de battant vient à s’user demeurant toujours accrochée contre la paroi. [C’est pour dire que qui n’a point de langue pour se faire connaître demeurera toujours sans emploi].

- El cencerro sin badajo, en el tabique se consume.

. *mihigabea*: marrarekin.

. *hi / ga*: lerro bitan banatua eta marrarik gabe.

→ Zalgize 107 berdina da. Urkijo Esk: Cf. *Tšintširri min bagea sasian usteldu* (Ms. Ochandiano). “Cencerrito sin badajo se pudre en el zarzal”.

437. Zordun gaxtoaganik olo, hura ere ez oro.

- D’un mauvais débiteur faut prendre de l’avoine en paiement quand même il n’y en aurait pas assez pour acquitter toute la dette.

- Del mal pagador se cobra avena, aunque ni ella cubra la deuda entera.

→ Zalgize 74: *Çor gaitçaganic olo, / Hura ere ez oro*. Okoad 371: “*Çor hueneti deus ere / hon duc cornadubat ere. / Al(ite)r. / Emoyc on da cornadua ere*. De quien te debe algo, hasta un cornado es bueno. De balde, hasta el cornado es bueno”.

438. Zorionari irekok atea, eta gaitzari auko beha.

- Ouvre la porte au bonheur lorsqu’il se présente, et attends à pied ferme le malheur qui te doit arriver.

- Abre la puerta a la buena fortuna, y estate en guardia ante la mala.

. *Sori onari*: bereiz.

. *irecoc*: *ireki* aditzaren aginte aldia, *hura-hari-hik*, “ireki iezaio”.

. *atea*: Francisque-Michelen edizioan *at`ea*, hau da, *athea*; cf. 314.

. *auco*: *egon* aditzaren aginte aldia, *hi-hari, a(g)oko > auko*, “hagokio” (cf. 63).

**439. Zorua da, bere kaltetan
argi bilha dabilena gauza ilhu[netan].**

- Celui-là a perdu le sens, qui cherche des éclaircissements aux choses obscures et embrouillées, à son dommage.
- Es loco el que, en perjuicio propio, busca luz en cosas oscuras.
. *gausa ilhu-*: horrela bukatzen da lerroa eta orria; bistan denez, lerro bat falta da: *netan* (cf. 117).

440. Zor zaharra, minberrizale.

- Une dette vieille cause de nouvelles douleurs.
- La deuda vieja es causa de nuevos dolores.
→ Okoad 336: *Çor çaarra goiz gaxtoen / beguira*. RS 475: “Zorçaarra goyz gayztoenbeguira. Deuda vieja aguarda mala mañana”. *Peru Abarca-n*: *Zor zaarra, zor çaarra*. Beste hizkuntzetakoak orokorrigoak dira: *Duerme á quien duele, y no duerme quien algo deue. El que algo deue, no reposa como quiere*. Alemanez: *Schulden lassen nicht schlafen*. Italiano: *Dorme chi a dolore, non dorme chi e debitore*.

**441. Zunharrak eder du adarra,
bana fruturik eztekarra.**

- L'ormeau a le branchage fort beau, mais il ne porte point de fruit.
- El olmo tiene el ramaje hermoso, pero no da fruto.
. *estecarra*: *dekarra, ekarri* aditzaren orainaldia, -e- bokalarekin, “dakar”.

442. Zura berago, harra barnago.

- Tant plus le bois est mol, tant plus le ver s’y enfonce. [*Cela veut dire que tant plus qu’un homme est mol ou facile, tant plus on abuse de lui, et il est exposé à la persécution des méchants*].
- Cuanto más tierna es la madera, más adentro entra el gusano.
. *berago ... barnago*: -ago atzizkiaren idazkeraz, cf. 84.

→ Idazkera gorabehera, berdin Zalgize 20. Isasti 22: “*Çura beraago, arra barrenago*. La madera quanto mas blanda, el gusano mas adentro”. RS 400: “*Lurra bigunago / haarra barrunago*. Quanto mas blanda la tierra / el gusano mas adentro”.

443. Zuretik ezpala.

- Le copeau tient de la nature du bois duquel il est tiré.

- Del palo la astilla.

→ Haritschelhar (1991: 189): “La traduction littéral ‘du bois le copeau’ rendrait mieux la concision du proverbe basque dont on ne peut nier la parenté avec le proverbe castillan ‘de tal palo tal astilla’”. RS 483: “*çozpolac dirudi vere egura, / ta egurac vere ezcura*. La astilla pareçe a la leña, / y la leña al arbol”. Bela 1: *Acitic bibia eta çouretic ezpala*. Honen lehen zatiaz, cf. 44. Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du: *Que cau que l'estève qu'es / semble au hus* (1911: 456). Okoad 3[7]4: “*Çurac espa[la] bera bezala*. La madera tiene la astilla como ella misma”. Eta Haritschelhar (1989: 550): “frantsesak aldiz (...): ‘Tel père, tel fils’”.

444. Zurginaren etxea zotzez, zotzez ere motzez.

- La maison du charpentier est faite de tronçons, et encore de tronçons courts et rognés [*Ceux qui ne travaillent que pour le gain sont plus soigneux de bien travailler pour autrui que pour eux-mêmes*].

- La casa del carpintero está hecha de ramas, de ramas y además cortas.

. *exea*: x-ren balioaz, cf. 45.

→ RS 417: “*Arozaren esea zozes / zozez vere gaiches*. La casa del carpintero, de palillos, / y los palillos tambien los peores”. Gaztelaniaz: *En casa del herrero, cuchillo de palo*.

445. Zuzen gaxtoak, porua handi.

- Celui qui a le plus mauvais droit fait le plus grand bruit.

- El que tiene mal derecho, a voz en grito.

→ Zalgize 203 berdina da, baina *phorua*, leherkaria aspiratua duela.
Urkijo traduce: “el de peor derecho más ruido mete”.

T

**446. Tontoak zer daki egiten?
Onsa eginaren desegiten.**

- Que sait faire le lourdaud? Il sait défaire ce qui est bien fait.
- ¿Qué sabe hacer el tonto?
Deshacer lo que está bien hecho.

. *onsa*: minuskulaz, bigarren leerroaren lehen buruan egon arren; -s-
txikia, -f- luzearen lekuan *n-* kontsonantearen ondoan, apikaria
adierazteko (cf. 251).

. *deseguiten*: -f- bakuna bokalaratean, aurrizkiaren amaieran, lotura
gunean, *de*f- (cf. 602).

→ Cf. 504.

**447. Traidore da bere buruaren,
konseiluari gordatzen ari dena egiaren.**

- Celui-là est traître à soi-même qui cache la vérité à son conseil.
- Es traidor para consigo mismo el que esconde la verdad al consejero.

. *bere buruaren*: destinatiboa, “bere buruarentzat”, “bere buruareki-
ko”.

. *con*seilluari: -ill- grafia alboko sabaikaria adierazteko. Hemen “kont-
seilari” esan nahi du (cf. *OEH*, s, v. *kontseilu*, 3).

**448. Tusto du irabazten,
jokoa eta putak dituenak ahazten.**

- Celui-là gagne beaucoup, qui oublie le jeu et les putains.
- Gana mucho el que del juego y de las putas se olvida.

. *Tusto*: Francisque-Michelen edizioan *Tusto*, hau da, *Thusto*; cf. 245.

. *ahasten*: -st- grafia -st-ren lekuan, bizkarkaria adierazteko; hemen
*aha*sten, baina “behar” bezala *ahasten* (655).

449. Tupa nolako, arnoa halako.

- Tel qu'est le tonneau, tel est le vin, ou le cidre qui est dedans.
- Como es el tonel, así es el vino.
 - . *Tupa*: Francisque-Michelen edizioan *Tupa*, hau da, *Thupa*.
 - Cf. 207.

U

450. Uhalde, nola aiz horla aberastu kolpe batez? Traidore izatez.

- Uhalde [*c'est le nom d'un homme*], comment es-tu ainsi devenu riche tout en un coup? C'est en faisant des trahisons. [*Le métier de traître est parfois bien lucratif, mais toujours odieux et détestable*].
- Uhalde, ¿cómo te has enriquecido así, de repente? Siendo traidor.
 - . *aberastu*: -st- grafia -[t]-ren lekuan, apikaria adierazteko (*aberats* hitzaren idazkeraz, cf. 6).
 - . *traidore*: minuskulaz.

451. Unhaia aiher unhaiari.

- Un vacher veut mal à l'autre.
- Un vaquero odia al otro.
 - . *aiher*: bi erabilera eta bi adiera ditu hitz honek, Oihenartek berak azaltzen duenez (cf. *Adigarria*). Atsotitz honi dagokiona: “*Aiher* izatea norbaiti: c'est avoir desir de faire du mal à quelqu'un”.
 - RS 493: “*Chiroac arlotea yguy*. El pobre al pobre aborrece”. Cf. 36.

**452. Unzia zenbatez hutsago,
hanbatez da ozenago.**

- De tant plus qu'un vaisseau est vide, d'autant plus il retentit.
- La vasija cuanto más vacía tanto más sonora es.
 - . *hutsago ... ozenago*: -ago atzizkiaren idazkeraz, cf. 84.

453. Unzi gaxtoa da, galtzen duena arnoa.

- C'est une mauvaise vaisselle que celle qui corrompt le vin.
- Mala vasija es la que echa a perder el vino.

454. Urak ezteramana, uharreak.

- Ce que la pluie n'a su emporter, le torrent l'emporte.
- Lo que no se lleva la lluvia, *se lo lleva* el torrente.
→ Zalgize 92 berdin, baina *vharriac*. Ikus Okoad 24[5]: "*Vlhainac esteramana / vrdainac*. Lo que no se lleva el vaquero (se lo lleva) el porquero". Cf. RS 472: *Hurac dacarrena / hurac daroa*.

455. Urak eznea galtzen du, eske soberak adiskidea.

- L'eau perd le lait, et trop d'importunité les amis.
- El agua echa a perder la leche, el demasiado pedir al amigo.
. *eske, adiskidea*: -sk- grafia -ʃk-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 264 eta 82).
. *soberac*: s- grafia hitz hasieran ʃ-ren lekuan, apikaria hau ere (cf. 307).
→ Bela 34: "*Esqueac jolasa galdu*. El pedir pierde la conversación".

456. Urde goseak, ezkur amets.

- Le pourceau affamé songe au gland.
- El cerdo hambriento sueña con bellotas.
→ Zalgize 51 berdina da.

457. Ur garbizura, iturburura.

- Pour avoir de l'eau claire, il faut en aller quérir à la source de la fontaine.
- A por agua limpia, al manantial.
. *Vr-garbisura*: marrarekin.
→ Zalgize 15: "*Ura ithurrira* sub. ekarten du".

458. Urliaz gaizki erraiterakoan, ezarzik eure faltak golkoan.

- Quand tu voudras dire du mal de quelqu'un, mets tes propres fautes en ton sein, *afin de les pouvoir voir et considérer.*
- Al hablar mal de alguien, coloca tus faltas en tu seno.
 - . *esarsquic*: ezarri aditzaren aginte aldia, *haiek-bik*, "ezar itzak".
 - . *golcoan*: Francisque-Michelen edizioan *golcoan*, hau da, *golkhoan*.

459. Urkatu baten hobian ehun gaxtagin ehorzten dira.

- Cent malfaiteurs trouvent leur sépulture dans la fosse d'un pendu; *c'est-à-dire que le supplice d'un malfaiteur rend sages cent autres.*
- En la fosa de un ahorcado se sepultan cien malhechores.
 - . *Vrkatu*: Francisque-Michelen edizioan *Vrcatu*, hau da *Urkhatu*; cf. 148.

460. Urean ito edo suan erra, da kalte bera.

- Etre noyé dans l'eau ou brûlé dans le feu, tout revient à un.
- Ahogarse en el agua o quemarse en el fuego, es el mismo daño.
 - . *ito ... erra*: aditzoinak. Francisque-Michelen edizioan *it'o*, hau da, *itho*, cf. 41. *Erre* aditzaren formez, cf. 257.

461. Urgoi gaitza, hastangarri.

- Un fâcheux reproche est capable de rebuter *celui qui fait quelque travail plutôt que de le faire avancer.*
- Un reproche mal hecho provoca rechazo.
 - . *hastangarri*: Oihenartenean hemen baizik ageri ez den hitz honen tradizioa ikusirik pentsatu beharra da -*It*-ren lekuan dagoela -*st*-grafia hori eta, beraz, ez dela *haztangarri* irakurri behar, *hastangarri* baizik.

462. Urguluak zerura abia-eta, jo zegin ifernura.

- L'orgueil ayant pris le vol vers le ciel alla fondre aux enfers.
- El orgullo, habiéndose encaminado hacia el cielo fue a parar al infierno.

. *abia-eta*: abiaturik.

. *jo seguin*: *jo egin* aditza, iragana, (*hura*)-*hark*, “jo zuen”, “joan zen”.

**463. Urgulutsua da beteritsu
bertzen alderat; bererat, itsu.**

- L'orgueilleux regarde les autres avec des yeux chassieux et soi-même sans yeux, en aveugle.
- El orgulloso es de ojos legañosos para los demás, para sí mismo es ciego.

. *beteritsu*: Francisque-Michelen edizioan *bet`eritsu*, hau da, *betheritsu*.

464. Urhea, bere ondora.

- L'or va toujours aboutir à sa manière, c'est-à-dire à la bourse des riches.
- El oro, a su mina.

. *Vrhea*: cf. 5.

→ Zalgize 53: “*Urhia bere ondora*. El oro á su mina”.

**465. Urhea, emaztea eta oihala,
eguarigiz bezi har eztitzala.**

- L'or, la femme et les étoffes, ne les choisis qu'en plein jour.
- El oro, la mujer y el paño, no los escojas sino a la luz del día.

. *egu-arguis*: marrarekin.

. *beci*: noizbehinkako -*ci*- grafia Oihenarten sistemako -*si*-ren lekuan (cf. 373).

. *har estizala*: *ditzala*, **ezan* laguntzailea, aginte balioko “subjuntibo” ezezka, *haiek-hik*, “ez ditzaala har”.

→ Haritschelhar (1994: 275): “Atsotitz honen oihartzunak badira frantsesez edo espainolez: *La mujer y la tela no la cates a la candela*. *La mujer y la tela no se ha de escoger a la candela*” (...). *La mujer y la tela a la candela* (...). Bertze batek parekatzen ditu emaztea arnoa eta zaldia: *Mujer, vino y caballo, mercaderías de engaño*. Frantsesez, espainolaren parekoa, oihala eta emaztea biltzen dira atsotitz batean: *Toile, femme layde ny belle / Prendre*

ne doit à la chandelle". Ondorio gisa, honela dio Haritschelharrek: "Euskal erran zaharrak aipatzen du urrea, bertzek egiten ez dutena. Horrek salatzen ote du balio haundia-gokoa dela emaztea euskaldunarentzat, frantses edo espainolentzat baino?".

466. Urhe-gakoaz, ate guziak ireki doaz.

- Une clef d'or ouvre quelque porte que ce soit.
- Con llave de oro todas las puertas se abren.
 - . *Vrhe-gacoas*: marrarekin. Francisque-Michelen edizioan *gac`oas*, hau da, *gakhoaz*.
 - . *ate*: Francisque-Michelen edizioan *at`e*, hau da, *athe*; cf. 314.
 - Esanahiari dagokionez ere, cf. 314.

467. Urthaur dira amorez ezkontzea eta urrikitzea.

- Le mariage fait par amourettes et le repentir naissent *tous deux* en une même année.
- Criaturas de un mismo año son casarse por amoríos y arrepentirse.
 - . *Vrthaur*: *urte* / *urthe* idazkeraz, cf. 95. Hemen, *urt* + *haur* elkarketari zor zaio aspirazioa.
 - . *amores*: Pouvreauren arabera, "Amorea en Labourt c'est à dire amour, *amorioa*, *amudioa*. Amorea en Basse Navarre, c'est à dire concubine, *amorantea*" (cf. *OEH*, s.v. *amore*). Oihenarten itzulpenak iradokitzen duenez, horrelako konnotazioa du atsotitz honetako *amore* hitzak.
 - Okoad 207: *Escont nedin amorez / viciren niz dolorez*. RS 102: "Ezcondu ta garbatu. Casar y arrepentir". Isasti 5: "Amorezco ezconcea, dolorezco vicitzea. Por amores casamiento, con dolores el vivir". Haritschelhar (1994: 276): "Horrelako zerbait pentsatzen zen Frantzian: *Qui en haste se marie, à loisir se repend. De jeune marié ménage malotru* (...). Holakoak badira ere Correas-ek dakartzanak: *Casar y mal día, todo en un día. Casarte has, y gozarás / de los tres meses primeros / y después desearás / la vida de los solteros. Casado por amores, casado con dolores*".

468. Urte bata da ama; bertzea, amaizun.

- Une année sert de mère et une autre de marâtre.
- Un año es madre, el otro madrastra.
 - . *ama-/sun*: lerro bitan banatua eta *-i-rik* gabe; errata da, seguruenera, *-i-rekin* idazten baita hitz hau normalean, *amaizun* (22, 23, 24, 533, 680), *amaijun* (71).

469. Urte gaitza, aldirano; izen gaitza, hobirano.

- Une mauvaise année se change en meilleure; mais une mauvaise renommée dure jusqu’au tombeau.
- El mal año, mientras dura; la mala fama, hasta la tumba.

470. Urte gaitzari bihur daite belazki, arto et’ urdai etxen duena aski.

- Celui-là résistera gaillardement à la mauvaise année, qui a du pain de mil et du lard en suffisance en sa maison.
- El mal año lo afrontará con alegría, el que en casa maíz y tocino suficiente tiene.
 - . *gaisari*: hots, gure *gaizari*, baina cf. 162.
 - . *bihur daite*: **edin* laguntzailea, *KE*-dun orainaldia, gure “daiteke” formaren parekoa, aurreko datiboarekin komunztadura egin gabe, “bihur daiteke”, hau da, “bihurtuko da”.
 - . & *urdai*: & grafiak *et* adierazten du, ez *eta* juntagailu osoa; pentsatzekoa da, bada, Oihenartek *et’ urdai* idatzi eta moldiztegian horren lekuan & ipini zutela *a*-ren elisioa adierazten duen apostrofoa gabe (ikus 45).
 - . *exen*: *x*-ren balioaz, cf. 45. Ohar inesiboa *etxen* dela.
 - . *aski*: *sk*- grafia *-{k}*-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 74).

471. Urte guzian gerta etzedina, bethirekian.

- Ce qui n’arrivera durant toute l’année arrive *parfois* en un clin d’oeil.
- Lo que no ocurrió en todo el año, *ocurre* en un abrir y cerrar de ojos.

- . *guerta ezedina*: *gertatu*-ren idazkeraz, cf. 278; *zedina*, **edin* laguntzailea, iragana (cf. 8), “gertatu ez zena”.
- . *bethirequian*: “begi-irekian”; leherkariaren aspirazioa elkarketa gunean, *th* idatzia.

472. Urrunago, berriak handiago.

- On fait la nouvelle d’autant plus grande que le lieu d’où elle vient est éloigné.
- Cuanto más lejanas, más grandes *se hacen* las noticias.
 - . *Vrrunago ... handiago*: *-ago* atzizkiaren idazkeraz, cf. 84.

473. Urruneko neskek, anderauren hots.

- Une servante de pays lointain a bruit de damoiselle.
- La moza lejana, fama de dama.
 - . *nescac*: *sk-* grafia *-ĭk-*ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 331).
 - Zalgize 188 berdina da. Okoad 473: “*Vrrineric ospea erricoa obea*. La fama (viene) de lejos; mejor (es) la del país”. Haritschelhar (1994: 275): “Ezkontza, gauza seriosa da gizonarentzat. Orduan, ez du balio urrunegi joatea; hobe da herrian berean edo auzotegian hautatzea neska ezagun bat, espainol errefrau batek dioenez: *Mujer y rocino, tómalo del vecino*”. Cf. 66.

474. Uzki maite, higunt elaita.

- Un cul *une fois* chéri ne saurait *jamais* être haï. *C’est pour dire que depuis qu’on a pris le plaisir de la chair avec une femme, on ne saurait plus la haïr. Aucuns au lieu de Uzki, c’est-à-dire “cul”, au Basque, disent Izter, c’est-à-dire “cuisse”*.
- Culo *una vez* querido, no se puede odiar.
 - . *higunt elaita*: *higundu*-ren aditzoina; *laite*, **edin* laguntzailea, *KE-*dun alegiazkoa, “ezin gorrota liteke”.
 - . Frantses itzulpenean, *Vĭqui* eta *Iĭter* idazten da, non *-ĭqu-* eta *-ĭt-* grafiak ageri diren, hurrenez hurren, *-squ-* eta *-st-* grafien lekuan. Baina cf. *uski* (313, 336, 474, 481, 536) eta *istarte* (204).
 - *Notitia*-n, euskararen eta antzinako espainolaren arteko harremana aztertzen ari zela aipatua zuen jadanik Oihenartek atsotitz hau,

honela idatzia: *U[qui Maite / Higung Elaite*. Espainolezko “itzulpena” ez zaio hain egokia eta dotorea iruditzen: *Culos conocidos à cabo de cient años Jon amigos* (cf. 1. Liburua, XIII. kapitulua).

475 Ustea ezta jakitea.

- Opinion n’est pas science.
- El creer no es saber.

476. Utzak ona hobeagati.

- Laisse le bon pour le meilleur.
- Deja lo bueno por lo mejor.
. *Vzac: utzi* aditzaren aginte aldia, *hura-hik*, “utz ezak”.
→ Zalgize 91 berdina da.

477. Utz zezanak bere alhorra ereiteko xoriegati, bere burua gosez hil zezan xorier barur eragiteagati.

- Celui qui laissa son champ sans semer de peur des oiseaux, se fit mourir de faim voulant faire jeûner les oiseaux.
- El que dejó de sembrar su campo por los pájaros, se dejó a sí mismo morir de hambre por hacer ayunar a los pájaros.
. *Vz sesanac ... hil sesan: *ezan* laguntzailea, iragana, “utzi zuenak”, “hil zuen”.

X edo CH

- . *X edo ch*: bigarrena minuskularekin. Atalburu horrek iradokitzen duenez, ondoko atsotitz guztien hasierako *X*- letrak txitxikari igurzakaria adierazten du, ez afrikatua; hots, gure *x*, ez gure *tx*.

478. Xazko epaslea, aurtengoen urkazalea.

- Le larron de l’année passée est celui qui fait pendre ceux de la présente année.
- El ladrón del pasado año, verdugo de los de hogaño.

- . *epaslea*: dagoen dagoenean *epazlea* irakurri beharko litzateke eta Tartasek ere behin *epazlia* du, baina, hala ere, hitzaren erroa *ebatsi* izanik, -j- luzea behar duela dirudi eta, hortaz, apikaria irakurri behar dela, *OEH*-k ere egiten duen moduan (s.v. *ebasle*). Francisque-Michelen edizioan *ep`aslea*, hau da, *ephaslea*.
- . *vrkasalea*: cf. 148.
- Zalgize 41: *Chazco ohoina, aurthengoen vrkhazale*. RS 80: “Ygazco lapurroc / aurthengoen vrcaçalla. Ladrones de antaño / verdugos de los de ogaño”. Bela 13: *Chazco onhouñac (diren) aurthencoen urkaçale. Peru Abarca-n Igazco chacurra aurtenguaren urcatzalle* irakurtzen da, baina *chacurra*-ren ordez *lapurra* behar lukeela dirudi. Esanahiari dagokionez, cf. 657.

479. Xazko arstoak, aurten orroa.

- L'âne de l'an passé commence maintenant à braire.
- El burro del año pasado empieza a rebuznar este año.
 - . *arstoac*: -st- grafia -j-t-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 326).
 - . *aurten*: Francisque-Michelen edizioan *aurt`en*, hau da, *aurthen*.

480. Xazkoaren adin, geurzkoaren bardin.

- Il est de l'âge de celui qui est né il y a un an et de la taille de celui qui naîtra d'ici un an.
- Edad la del del año pasado y *tamaño* igual al del del año que viene.
 - . *bardin*: cf. 197; “bardin” hitzaren adieraz, cf. frantses itzulpena.

481. Ximinoak, gora iganago-eta uzkia ageriago.

- Le singe, tant plus il monte en haut, tant plus il montre son cul.
- El mono, cuanto más arriba *está*, más a la vista *tiene* el culo.
 - . *iganago-eta*: marrarekin, *eta* enklitiko; *ago*-ren idazkeraz, cf. 84.

482. Xoriak, nik ohil bertzek hil.

- J'ai fait lever les oiseaux de dedans le buisson et un autre les a pris.
- Los pájaros, yo los espanté y otro los mató.

. *obil: obildu*, “haizatu, hegaldarazi”.
→ Cf. 335.

Atsotitzen emendioa

- Addition de Proverbes
- Suplemento de los Proverbios
 - . *Atso-tizen*: marrarekin; beste agerpen guztietan lotua, *ATSOTIZ*- (1 tit, 538 tit) *at[otizen* (510 tit) , *atsotiz* (373) eta *at[othiza* (642).

483. Aditzen eztuan gauza eztezala putza ez nausa.

- La chose que tu n’entends pas, ne la vilipende ni ne t’en gausse.
- De lo que no entiendes, ni muestres desprecio ni te burles.
 - . *estesala*: **ezan* laguntzailea, aginte balioko “subjuntiboa” ezezka, *hura-hik*, “ez dezaala ...”.
 - . *pusta*: *pustatu*-ren aditzoina. Leherkaria aspiraziorik gabe, eta berdin *Pu[stazea* (*Adigarria*), baina *p`ustazes*, hots, gure *phuztatzez* (II, 8). Eta Francisque-Michelen edizioan ere *p`usta*.
 - . *naus[]a*: *nausatu*-ren aditzoina.
 - Esanahiari dagokionez, cf. 263.

484. Ama, aitzint zaskio puta deitzera.

Hori erraiten zion puta alaba batek bere amari, ama bertze emazte bateki aharratzean.

- Ma mère, avancez-vous à l’appeler putain. [C’est ce que disait une fille de putain à sa mère tandis que la mère était aux prises avec une autre femme].
- Madre, adelántate tú a llamarle puta.
 - Eso le decía una hija de puta a su madre, cuando su madre reñía con otra mujer.*
 - . *aizint sasquio*: *aitzindu*-ren aditzoina, **edin* laguntzailea, agintea, *zu-hari*, “aitzin zakizkio”.
 - . *puta alababatec ... emastebatequi*: mugatzailea loturik bietan.

**485. Anhitz daki on eta gaitzen berri,
inguratu dituenak anhitz herri.**

- Celui qui a couru beaucoup de pays a connaissance de beaucoup de bien et de beaucoup de mal.
- Sabe mucho del bien y del mal el que muchos países ha recorrido.

486. Arreba biz, etxea bethe.

- De deux sœurs, la famille est trop chargée.
- Con dos hijas, la casa *está* llena.

. *Arreua*: v kontsonantea (cf. 236, 272 tit, 291, 486, 509).

. *exea*: x-ren balioaz, cf. 45.

. *bethe*: cf. 262.

→ RS 108: “*Adinonda bost hume / Alaba bi, ta yru seme*. Acomodadas son cinco criaturas / dos hijas, y tres hijos”. RS 235: “*Semez elliric ez*. De hijos no rebaño”. Gaztelaniaz esaten omen da *Quien tiene hijos y ovejas, nunca le faltan quejas*. Cf. 218.

487. Ate bati zegoen eskalea, goseak hil zezan.

- Le pauvre qui s’attacha à mendier à une seule porte mourut de faim.
- El pobre que pedía en una sola puerta, se murió de hambre.

. *Atebati*: lotua. Francisque-Michelen edizioan *At`ebati*, hau da, *Ate bati*; cf. 314.

. *hil sesan*: **ezan* laguntzailea, iragana, aoristo gnomikoa, Lafonen arabera (cf. 8), “hil zuen”. Gaztelaniaz hitzez hitz: “lo mató el hambre”.

488. Atxeter zekeneti, abokatu goseti eta partida bien konseilu deneti, begira adi nola asaieti.

Hiru gizon mota hauek, asaiak bezala, gutika gutika, nehor galtzen dute.

- Garde-toi, comme du mal de phtisie, d’un médecin chiche eta avare, d’un avocat affamé et de celui qui donne conseil à toutes les deux parties. Ces trois genres d’hommes consomment peu à peu les commodités des personnes tout ainsi que la phtisie consume les corps.

- Del médico avaro, del abogado hambriento y del que es asesor de las dos partes, cuídate como de la tisis.

Esas tres clases de hombres, al igual que la tisis, van poco a poco consumiendo a la gente.

. *Axeter*: *x*-ren balioaz, cf. 213.

. *Abocatu gosseti*: maiuskularekin; *gose*, adjektiboa da hemen.

. *conseilu*: *s*- txikia *n*- kontsonantearen ondoan *ʃ*- luzearen lekuan eta *-il-* grafia; gainerako guztietan *con[seillu-* (89, 447), *con[seillari* (XXVIII, tit) eta berdin *co[seillu* (109).

489. Baladrea, sendoen hilgarri, erhoen sendogarri.

- L'ellébore c'est du poison pour les personnes saines et la guérison des fols.
- El eléboro, veneno para los sanos y remedio para los locos.

. *sendoen ... sendogarri*: bigarreanean, *s*- hitz hasieran *ʃ*-ren lekuan, apikaria adierazteko. Erro honetako hitzak: *sendo-* (143, 489, 613; XVII, 112; XXIV, 1), *ʃenta-* (XVII, 38), baina *sendogarri* (489), *senda-* (XXI, 1), eta bietarako balio duen *Sendo-* (668; XIV, 24; IX, 5, XVII, 62).

→ Cf. RS 141: "*Guibeleco on dana / areco gasso*. Lo que es bueno para el hígado / dañoso para el baço". Isasti 44: *Guibeleco ondena bareco gaizto*.

490. Barnea harro duen alkateak aztaparretan ditu legeak.

- Le juge qui a l'âme tachée tient les lois entre ses griffes. [*C'est-à-dire qu'il les renverse et les déchire selon qu'il lui plaît*].
- El juez de interior orgulloso tiene las leyes en sus garras.

. *Alcateac*: maiuskularekin hirutan (490, 539, 644), baina minuskularekin (VIII, 5) eta berdin *alcateturic* (275).

491. Begik ez begizta, ez gogok sarizta.

- Ce que l'œil n'aperçoit, le cœur n'enchérit point.
- *Lo que* el ojo no percibe la mente no lo aprecia.

. *beguista ... sarista*: aditzoinak; s- hitz hasieran]-ren lekuan, apikaria adierazteko; *sarista*-ren idazkeraz, cf. 59.

→ Esanahiari dagokionez, cf. 153 eta han aipatzen direnak.

492. Bekaiztiak bertzetan eztena dakusa, berartan dena eztakusa, zeren ditu bihurri begiak.

- L'envieux aperçoit en autrui ce qui n'y est pas et ne voit pas en soi-même ce qui y est, car il a les yeux faits de travers.
- El envidioso ve en los demás lo que no hay y en sí mismo no ve lo que hay, pues tiene los ojos torcidos.

493. Bere kaltetan zorigaitzekoa merkatura doa.

- C'est à son dam que le malheureux va au marché.
- En su perjuicio va el desdichado al mercado.

. *sori gaizecoa*: bereiz.

→ Cf. 81.

494. Bertze indar du elheak aberatsak erranik, bertze datorrenean gaxoaganik.

- Le discours a bien autre efficace quand il sort de la bouche d'un homme riche que quand il sort de la bouche d'un pauvre misérable.
- Distinta fuerza tienen las palabras dichas por un rico y distinta cuando vienen de un miserable.

495. Bidaide, gogaide.

- Les compagnons de voyage s'entre-communiquent leurs pensées.
- Compañero de viaje, compañero de pensamientos.

→ Frantses itzulpenari buruz honela dio Haritschelharrek (1991: 188):
“la traduction ne rend pas compte de la concision basque qui signifie littéralement: compagnon (*ide*) de voyage (*bide*), compagnon (*ide*) de pensée (*gogo*)”. Zalgize 35ek ere atsotitz trinkoari azalpena eranstean dio: *Vidaidec gogaide; vidaide erran nahi da, vidian kide: elgarreki vidian joaile. Gogaide halaber gogokide*

bethi hurran gerthatzen da, vidian dohaçanec, elgarri bere gogo-coac erraiten baitituzte. Cf. 291.

496. Bilaunaren eskerra, pokerra.

- Le “grand-merci” du vilain, c’est un rot.
- El “gracias” de un villano *es* un eructo.
. *eskerra*: -sk- grafia -[k]-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 304).

497. Deus eztuena, balu, emaile handi.

- Celui qui n’a rien à donner donnerait tout, à *son dire*, s’il en avait.
- El que no tiene nada, si tuviera, *sería* totalmente generoso.
. *Deus*: -s txikia hitz amaieran -[ʃ]-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 45).
→ Zalgize 23: *Eztuan oro emaile hon*. Urkijok Correas-en hau aipatzen du: “*Los pobres son muy liberales* (de palabras)”. Cf. 20.

498. Egiteak egiten derakuske.

- En faisant on apprend à faire. *C’est-à-dire en s’exerçant*.
- El hacer enseña a hacer.
. *deracusque*: -squ- grafia -[ʃqu]-ren lekuan; *erakutsi* faktitiboaren *KE*-dun orainaldia, *hura-hark*, “erakusten du” (cf. 329).
→ Haritschelhar: “(...) qui traduit littéralment, donne la formule: ‘Le faire enseigne à faire’. Eta “(...) beaucoup plus abstrait que son équivalent français: ‘C’est en forgeant le fer qu’on devient forgeron’” (1991: 191 eta 193).

499. Elzoz ere elhia gaitz.

- Les mouchérons même sont fâcheux lorsqu’ils sont attroupés.
- Hasta las pequeñas moscas *se hacen* pesadas, *cuando son* muchas.

500. Emak horari ezurra eta emazteari gezurra.

- Amuse le chien avec un os, et la femme avec un mensonge.
- Dale al perro un hueso y a la mujer una mentira.

- Haritschelhar (1994: 274): “Euskal erretrauetan mespretxuz betea hatzeman dudana bakarra hauze da” [emakumearen mespretxuz betea esan nahi du].

501. Erkida berho, xoriendako.

- D'un champ semé qui a plusieurs possesseurs, les oiseaux tirent tout le profit. *C'est d'autant qu'il est mal gardé, les possesseurs s'en déchargeant l'un sur l'autre.*
- Campo de varios, para los pájaros.
 - . *Elkida*: liburuaren hondarreko FAUTES DE L'IMPRESSION sailean honela dio: “pour *elkida* lisez [er]*kida*. Hitzaren hasierako letra bi horiek argi ageri ez badira ere, frantses itzulpenak ez du zalantzarako biderik uzten: “qui a plusieurs possesseurs”.
 - . *berho*: cf. *berro* (686).
- Berdintsu Zalgize 67, baina honek *Erguida*. Urkijok honela itzultzen du: “Campo á medias para los pájaros”. RS 54: “*Iaube bat daude asco / baraçeac eta emazteac / çe gueyago leuquee gasso. A la guerta y la casada / un dueño tienen arto, / que mas tendrían malo*”. Gaztelaniazko hau aipatzen du Urkijok: *La muger y el huerto, no quiere mas de un dueño*. Bela 8: *Biden ber<h>o, choriendaco*. Honen antzekoak dira, bestalde, goiko 102a eta Isasti 72: *Ororen ardia otsoac jan*.

502. Ertikarea du luzakorra bertzeren hil nahiaz denak izorra.

- Les frissons du mal d'accoucher durent longtemps à celle qui est grosse du désir de la mort d'autrui.
- Mucho le duran los dolores de parto a la que está embarazada de ganas de muerte ajena.
 - . *Erticarea*: Francisque-Michelen edizioan *Ert'icarea*, hau da, *Ert'hikarea*.
 - . *hil-nahias*: marrarekin.
- Urkijo Esk: “Tiene, indudablemente, el mismo sentido que los dos franceses siguientes, de los que se diferencia algo en la forma: *A longue corde tire / qui d'altrui mort désire; Qui court après les ouliers d'un mort risque souvent d'aller nu-pieds* (Le Roux de

Lincy, II, 164). Este mismo refrán se encuentra en alemán, danés, holandés, sueco e italiano: *A lunga corda tira chi la morte altrui desira; Chi l'altrui morte aspetta spesso s'ingana; Wer auf eines andern Tod wartet, zieht an einem langen Strick* (Wander, t. IV, palabra *Tod*). El castellano correspondiente es: *Quien muerte agena dessea, la suya se le allega*. 'Quiere dezir, mire que tambien el ha de morir, y mientras mas va, mas cerca esta de muerte' (H. Nuñez, fol. 413v).

**503. Ez bere eskasa ez bertzen bortitza,
eztazki urguluak, senti ezpaditza.**

- L'orgueilleux ne connaît ni son faible ni le fort d'autrui, jusques à ce qu'il les sente ou expérimente.
- Ni su propia debilidad ni la fuerza ajena las conoce el orgulloso, si no las siente.

. *e[scasa]*: -s txikia lexemaren amaieran -[j]-ren lekuan, *e[scas-* + -a; horrela, *e[scas]* (546), eta berdin ondoan atzizkia duela, *e[scasgoaren]* (XIII, 28), *escasic* (XXVIII, 7).

. *estasqui*: *dazki, jakin* aditzaren orainaldia, "dakizki".

. *senti espadiza*: s- txikia hitz hasieran [j]-ren lekuan. Hitz hau [j]-rekin idazten da behin, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan, *[endi]* (76), baina s- txikiarekin beste agerpen batzuetan, *[sendi]* (XIV, 1), *[senti]* (503; XX, 11) eta bietarako balio duen *[Sendi]* (XXV, 1); *[baditza]*, **ezan* laguntzailearen baldintza orainaldikoa, "sentitzen ez baditu".

**504. Ezjakinaren jakitea,
onsa erranaren hutseriztea.**

- La science de l'ignorant, c'est de reprendre les choses bien dites.
- El saber del ignorante, corregir lo que está bien dicho.

. *onsa*: s- txikia n- kontsonantearen ondoan [j]- luzearen lekuan (cf. 251).

. *huts-eriztea*: marrarekin; hitzaren tradizioa ikusita, pentsa daiteke -st- grafiaren lekuan dagoela -[j]- eta, hortaz, bizkarkaria dela.

→ Cf. 446.

**505. Gabearen mindegia, apur;
dena ere, makur.**

- Le complant du pauvre est clair et mal fourni de plantes, et encore celles qui y sont se trouvent tortues.
- El semillero del pobre *es poca cosa*; y aun lo *poco* que hay *está* torcido.

**506. Gaitz da Arradoian artzea borroka;
eror daite ehor, eta burua porroka.
*Arradoia da Garaziko mendi xut eta harrizu bat.***

- Il fait mauvais lutter en un précipice, car il y a danger de choir et de se casser la tête. [*Le mot Arradoi, au texte basque, est le nom propre d'un précipice*].
- Es malo pelearse en *Arradoi*; puede uno caerse y romperse la crisma. *Arradoi es el nombre de una montaña empinada y pedregosa de Garazi.*
 - . *eror daite*: **edin* laguntzailearen *KE*-dun orainaldia, gure “daiteke” formaren parekoa, “eror daiteke”.
 - . *porroca*: *porrokatu*-ren aditzoina. Isilpeko laguntzailea “dezake” da: “hautsi (dezake)”.
 - . *harrisubat*: lotuta (cf. 6).

507. Gauza bekana da axeriaren lazoan atzamana.

- C'est rarement que le renard se laisse prendre au lacet.
- Es raro que el zorro sea cogido en el lazo.

508. Gure sabelak, gure jabeak.

- Nos estomacs sont nos maîtres.
- Nuestros vientres son nuestros dueños.
 - . *sabelac*: *s-* txikia hitz hasieran, *]-* luzearen lekuan, apikaria adierazteko; behin *]-* *sabel-*, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (13), baina *sabel-* (508; XIII, 19) eta bietarako balio duen *Sabel-* (XXIV, 6).

**509. Izeba, enea nihaurentzat;
zurea elgarentzat.**

- Ma tante, mon bien sera pour moi seul; le vôtre sera pour nous deux.
- Tía, lo mío para mí; lo tuyo para los dos.

. *Iseua*: v kontsonantea (cf. 236, 272 tit, 291, 486), baina *isebaren* (349).

. *nihaurentzat ... elgarentzat*: -tzat / -zat bitasunaz, cf. 25; *elgar-* (509; XXVI, 2, 19), baina *elcar-* (XXIV, 3).

→ RS 445: “*Enea neureçat / çurea bioençat*. Lo mio para mi, / lo vuestro para entrambos”. Larramendik: *Nerea nere Ta zurea gure*. Gaztelaniaz: *Lo mio, mio, y lo tuyo de antrambos*. Latinez: *Quae mea sunt mihi, quae tua nostra simul*.

Atsotitzen bertze emendioa

- *Autre supplément de proverbes*
- Otro suplemento de los proverbios

510. Axeria, nehork borhoztago eta hura oilo-jaleago.

- Tant plus qu'on maudit le renard, d'autant plus il s'acharne aux poules.
- El zorro, cuanto más se le maldice, más *se vuelve* él depredador de gallinas.

. *borhoztago*: behin bakarrik ageri da hitz hau Oihenartean, baina testuetan duen lekukotasuna ikusiz *-biraoztatu, burhoztatu, borhoztatu*, nahiz inoiz *burhaustatu-*, pentsa daiteke *-[t-]* grafia “oker” dagoela *-st-*ren lekuan eta, hortaz, *borhoztago* irakurri behar dela, *OEH*-k egiten duen moduan (s. v. *biraoztatu*). *Borhoztatu*-ren aditzoina da *borhozt*, ondoan *-ago* konparaziozko atzizkia daramana.

. *eta*: marrarik ez badu ere, enklitikoa da beharbada, konparatiboa duten beste zenbait bezala: *xarrago-eta* (371), *iganago-eta* (481). Hortaz, “nehork borhoztago-eta”.

. *oillo-ialeago*: *-ill-* grafia alboko sabaikaria adierazteko.

511. Bethegiz, zorroa lehertu doa.

- Par trop remplir, le sac vient à crever.
- Llenándolo en exceso, el saco termina rompiéndose.

. *Betheguis*: hau da, “beteegiz”. Leherkariaren aspirazioaz, cf. 262.

→ Neurritz jokatzearen ideia maiz ageri da atsotitzetan. Zalgize 179:

Çacua sobera bethez lehertcen da. RS 30: “*Adinona larrabaño obeda*. Lo acomodado es mejor que lo demasiado”. RS 31: “*Ax adinhon ta axa hon*. Se acomodado, y seras bueno”. RS 45:

“*Laarric ez onic*. Lo demasiado no es bueno”. RS 186: “*Larrac guichitara lecarque*. Lo demasiado podria traer a poco”. RS 260:

“*Larrac larriçen / guichiac arbincen*. Lo demasiado congoxa, / lo poco estrecha”. Euskarazkoaren parekoa da gaztelaniatzko eza-gun hau: *La codicia rompe el saco*. Cf. 416

512. Biziro agintzeak, dekarke astiro urrikitzea.

- Qui tôt promet à loisir s’en repent.
- Prometer con rapidez trae luego el arrepentirse poco a poco.

. *Biciro*: inoizko -ci- grafia ohiko -si- ren lekuan (cf. 6).

. *dekarque*: *ekarri* aditzaren KE-dun orainaldia, -e- bokala duena, “présent intemporel”, “ekartzen du” (cf. 50).

→ RS 521: “*Berâquetan jacanari emaitê agundua / dago agunduez damutua ta garvatua*. Al que se le tarda en dar lo prometido / esta pesaroso y arrepêtido de averlo mandado”. Gaztelaniako hau aipatzen du Urkijok: *El que tarda en dar lo que promete, de lo prometido se arrepiente*.

513. Buhurriak auzikan, Kortelariak azikan.

- *Tandis* que les opiniâtres s’amusent à plaider, les gens de justice font leur semaille.
- *Mientras* los obstinados pleitean, los agentes de la justicia hacen su labor.

514. Emok arlotteari egositi, eska dakidik errekiti.

- Baille au gueux du bouilli, il te demandera du rôti.
- Dale del cocido al miserable, te pedirá del asado.

- . *Emoc*: eman aditzaren aginte aldia, *hura-hari-bik*, “eman iezaioak”.
- . *arlotteari*: ez da argi zer adierazten duen *-tt-* bikun horrek; errata ez bada, Oihenarten sistemaren arabera *t** idatzi behar zen horzkarri sabaikaria adierazten du; hitzaren esanahiak lagundu egiten dio hipotesi horri.
- . *esca daquidic*: **edin* laguntzailea, *eskatu* iragangaitza baita, geroaldia adierazten duten *KE*-dunen pareko forma, baina *KE* morfema gabe eta, aldiz, erroaren *-di-* gorde egiten duena (cf. 59, 427; III, 8), *hura-hiri*, batuan *dakiake*; “eska dakiake”, “eskatuko zaik”, hau da, gure “eskatuko dik”.
- Honen antzeko esanahia du RS 25ek: “*Arloteari emayoc arauça, / escatuco dic zoça*. Al mendigo dale el huevo, / pedir te ha el pali-llo escarbador”. Eta baita gaztelaniazko hauek ere: *Al villano, dad le el pie, tomara la mano* eta *Al ruyn dalde un palmo / y tomará quatro*. “Todos ellos aconsejan –dio Urkijok– que no se tengan familiaridades con gente ruin, para que no se tomen más confianza de la debida”.

515. Eskuak ditu oinetan eta bihotza zangoetan.

Hori erraiten da bihotzgabeaz eta eskukara behar denean ihes ari denaz.

- Il a les mains aux pieds et le cœur aux jambes [On dit cela d’un poltron qui s’enfuit lorsqu’il faut se battre].
- Tiene las manos en los pies y el corazón en las piernas.
Eso se dice del cobarde y del que huye cuando hay que pelear.
- . *escucara*: *-sc-* grafia *-[c-]*ren lekuan (cf. 46). Hemen bertan *e[scuac]*, baina *escucara*.

516. Ezta sentheria bano min gaitzagorik.

- Il n’y a de pire mal que celui de ne pouvoir pas durer dans l’aise ou la prospérité.
- No hay peor añoranza que la de la prosperidad.
- . *sentheria*: gutxitan ageri da hitz hau, baina ikus *sentherietara* (Bp II, 23); beraz, pentsa dezakegu *[-]* luzearen lekuan dagoela hitz hasierako *s-* hori. Cf. *OEH*, s.v. *sentheria*.

**517. Etxea urra zezana egur egiteko,
xaz bero zedin, aurten hotzez hiltzeko.**

- Celui qui défait sa maison pour en tirer du bois à chauffer se chauffa l'année passée, pour mourir de froid cette année-ci.
- El que destrozó la casa para hacer leña, se calentó el año pasado, para morir de frío éste.

. *Exea*: x-ren balioaz, cf. 45.

. *urra sesana*: **ezan* laguntzailea, iragana, "urratu zuena".

. *bero sedin*: **edin* laguntzailea, iragana, "berotu zen".

→ Cf. Okoad 338: "*Bere etchia errazen / cecussana, berozen / iar cedin*". El que vio arder su casa, se puso a calentarse".

**518. Gasturekiko hankortarzunak,
oinezko egiten ditu zaldunak.**

- La vanité accompagnée de dépense rend les cavaliers piétons.
- La arrogancia dispendiosa reduce a peones a los caballeros.

**519. Goizegi bereaz zeginak emaitza,
aurkit zezan arratsalde gaitza.**

- Celui qui donna son bien de trop bonne heure rencontra une mauvaise soirée. *Ce proverbe est le même que le 238 ci-dessus.*
- El que donó sus bienes demasiado pronto tuvo un atardecer duro.

. *seguinac*: *egin* aditzaren iragana, aoristo baliokoa, erlatiboan, "egin zuenak" (cf. 238).

. *aurkit sesan*: *aurkitu*-ren aditzoina, **ezan* laguntzailea, iragana, "aurkitu zuen".

**520. Goiz jaikitea baliatuko etzaik,
zoriona ondoti ezpadarraik.**

- Il ne te servira de rien de te lever matin, si avec cela tu n'est suivi du bonheur.
- De nada te servirá levantarte temprano, si no tienes luego la suerte de tu lado.

- . *sori ona*: bereiz.
- . *espadarraic*: *badarraik*, *ba-* baldintzazkoa eta *jarraitu* aditzaren orainaldia, *hura-hiri*, “jarraitzen ez bazaik”.

**521. Hasak direnean elg’ ezkontgeiak,
nekearenak dirat’ ezteiak.**

- On fait les noces du travail, ou de la nécessité, lorsque tous deux les mariés sont sans commodité.
- Cuando ambos novios son pobres, es boda de necesidades.
 - . *elgu’ escontgueiac*: *elgue*, *e-*ren elisioarekin.
 - . *Nequearenac*: maiuskularekin.
 - . *dirat’*: *e-*ren elisioa; *izan* aditzaren *KE*-dun orainaldia da, *dirateke* formaren parekoa.
 - . *esteiac*: dieresiak *i-*ren bokaltasuna adierazten du; ez dela *ezte-jak*, alegia.

**522. Hobe da adiskide hon bat
ezen ez ahaide ehun bat.**

- Il vaut mieux un bon ami, que cent parents.
- Más vale un buen amigo que un centenar de parientes.
 - . *adiskide*: *-sk-* grafia *-jk-*ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 82).
 - . *honbat ... ehunbat*: lotuta (cf. 6); *ehun bat* zenbatzailea *ahaide* izenaren ondoan (cf. 356, 678; XVII, 52).
 - . *esenes*: lotuta (cf. 84)

523. Hobe da zuhur baten ustea, ezi ez ehun bertzeren sinestea.

- L’opinion d’un sage vaut mieux que la croyance ou l’assurance de cent autres qui ne le sont point.
- Más vale la opinión de un sabio que la creencia de cien que no lo son.
 - . *suburbaten*: lotuta (cf. 6).
 - . *esies*: lotuta (cf. 150).

524. Hogei urtetan eztena, hogei eta hamarretan eztakiena, eta berrogeietan eztuena, da jagoiti eztatena, eztakikena eta eztukeena.

- Celui qui à vingt ans n'est, à trente ne sait, et à quarante n'a, jamais ne sera, ne saura ni n'aura.
- El que a los veinte años no es, a los treinta no sabe y a los cuarenta no tiene, es alguien que ya nunca será, ni sabrá, ni tendrá.
 - . *estena*: Francisque-Michelek *deus* eransten du: *Hogei urtetan deus estena, Celuy qu à vingt ans rien n'est*. Ez da, ordea, beharrezkoa zuzenketa hori egitea.
 - . *estiüena*: dieresia, *u* eta *e* bokal bi, normalean silaba banatan.
 - . *estatena, estaquiquena eta estuqueena*: *izan, jakin* eta **edun* aditzen KE-dun orainaldia, baina geroa adierazten duena –lehena *dateke*-ren parekoa–, erlatiboan, “izango ez dena”, “jakingo ez duena” eta “izango ez duena”. Adizkien segida honek erakusten du *date* forma KE-dunen parekoa dela.
- Urkizuk (1994: 303) Hernán Nuñez-en hau aipatzen du: *Quien a veynte nô es galan, ni a treynta tiene fuerça no a quarenta riqueza, ni a cinquêta esperiencia, ni sera galan, ni fuerte, ni rico, ni prudente*. Atsotitz berorri aipatzen omen du Julian de Medrano XVI. mendeko nafar zaldunak, *La Silva Curriosa*-n.

525. Jokoak, emaztek et' arno onak, dostatzez, galtzen tuzte gizonak.

- Le jeu, les femmes et le bon vin perdent les hommes en se jouant.
- El juego, las mujeres y el buen vino, con su diversión, pierden a los hombres.
 - . *emastec*: hots, “emazteek”.
 - . *et' arno*: *a*-ren elisioa, hemen *et'* idatzia, 262an bezala; beste inoiz & idatzia ageri da (45, 114, 433, 470).
 - . *dostazes*: *-st-* grafia *-lt-*ren lekuan; beste bietan, “zuzen”, *doſtatu* (695), *doſtazen* (III, 3).
 - . *galzen tuste*: cf. 1.
 - . *guïsonac*: ez da argi ikusten zein den dieresiaren egitekoa.
- Haritschelhar (1994: 282): “Jokoa eta arnoa doatzi emaztearekin gizonaren galtzeko edozein errefracuetan eta hizkuntza gehienguetan (...). *L'on dit par bourgs, villes eta villages / Vin et femmes attrapent les plus sages. Qui hante la femme et le dé / Mourra en pauvreté. Juegos, pendencias y amores / igualan a los hombres*”.

526. Lankide, gaitzkide.

- Un compagnon de métier porte *toujours* envie à l'autre.
- Compañero de trabajo, compañero envidioso.
 - . *gaitzkide*: badirudi hitz honek “gaiztakerian lagun” esan nahi duela; guk, ordea, Oihenarten beraren frantses itzulpenari jarraitu gaitzaizkio eta “bekaizkide”-edo esan nahi duela pentsatu dugu.
 - RS 493 –eta berdin Okoad 333 ere–: “*Chiroac arlotea yguy*. El pobre al pobre aborrece”. Gaztelaniaz: *Quien es tu enemigo? Hombre de tu officio*, “que enseña, que la emulación difícilmente consiente compañía”. Cf. 325 eta 451.

527. Luzatzez geroti gerora egitekoak, ardiesten du nehor herioak.

- En remettant les affaires de jour à autre, la mort nous surprend.
- Aplazando los quehaceres de un día para otro, le sorprende a uno la muerte.
 - . *ardiesten*: -st- grafia -ʃt-ren lekuan (cf. 263). Esanahiari dagokionez, cf. Lafon 1949: 437.
 - . *herioac*: dieresiak *i*-ren bokaltasuna adierazten du; ez dela *her-joak*, alegia.
 - RS 530: “*Eyngo doana / ez biarco echi*. Lo que has de hazer / no dexes para mañana”. Haritschelharrek (1992: 195) gogoratzen du Axularrek lehen kapituluaren hastepenean *gerotik gerora* esaldi hau darabilela. Gainera esaten du haren *Gero dioenak bego dio* esaerak ere erretrau itxura baduela. Cf. 189.

528. Nehortan dadina sobera fida, gero heiagor' ari da.

- Qui trop se fie, par après crie.
- El que se fía demasiado de alguien, luego se lamenta.
 - . *sobera*: s- grafia hitz hasieran ʃ-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 307).
 - . *dadina ... fida*: **edin* laguntzailearen “subjuntiboko” orainaldia, “fidatzen dena”.
 - . *heiagor' ari*: -a-ren elisioa.

**529. Nol' apezaren kantatzea,
hala bereterraren inhardestea.**

- Comme chante le chapelain, ainsi répond le clerc *ou le sacristain*.
- Como canta el sacerdote, así contesta el ayudante.

. *Nol' Apesaren*: -a-ren elisioa; *Apesaren*, maiuskularekin.

→ Haritschelhar (1991: 195): “Fort joli proverbe faisant allusion à ‘la voix de son maître’”. Okoad 339: *Nolaco apezaren / cantazia, halaco bereterraren ihardestia*. Haritschelhar (1992: 203): “Laburragoa, bainan ideia berekoa da *Tel chapelain, tel sacristain*”.

**530. Seroretara zautan gogoa,
ezteietara aizeak naroa.**

- J'avais mon inclination aux religieuses, mais le vent m'emporte à noces. *C'est le discours d'une fille qui feint d'être violentée pour le mariage*.
- Tenía inclinación hacia las monjas, pero el viento me lleva a la boda.

. *sautan*: *izan* aditzaren iragana, *hura-niri*, “zitzaidan”.

. *naroa*: *eroan* aditzaren orainaldia, *ni-hark*, “eroaten nau”, “eramaten nau”.

→ RS 419: “*Perrau neuen gogoa / axeac bestera naroa*. Hermitaño tuue el pensamiento / a otra parte me lleva el viento”.

**531. Sobera on dena bertzentako,
ezta on aski beretako.**

- Qui est trop bon pour autrui, ne l'est pas assez pour soi.
- El que es demasiado bueno para los demás, no lo es lo bastante para sí mismo.

. *asqui*: s txikia ∫ luzearen lekuan, apikaria adierazteko (cf. 74).

→ “Berea” eta “besterena” aipatzen dute ondoko atsotitzek ere, baina alderantzizko ikuspegitik begiratuta. RS 106: “*Bereçat dena besterençat*. Quien es para sí, lo es para otro”. RS 139: “*Naydoana eurezat / besteençat*. Lo que quieres para ti / para otro”. Okoad 296: “*Beretaco eztena atzentaco*. Lo que no es para sí mismo, para los extraños”. Cf. 659.

**532. Zangoak behar ditu xuxenak
makurren eskarniatzen ari denak.**

- Il faut que celui qui se moque des jambes tortues ait les siennes droites.
- Debe tener las piernas rectas el que de los patizambos se burla.
. *escarniatzen*: -[c]-ren lekuan dago -sc- grafia, apikaria adierazteko (cf. 367). Pouvreau: “*escarniatcea*, echarner, huer, moquer”.

**533. Zortzi egunez ama ditu lurrak,
hantik harat amaizun, elhurak.**

- La neige, pendant huit jours, sert de mère à la terre; passé ce temps-là, elle tient lieu de marâtre.
- Las nieves, durante ocho días son madre para la tierra; a partir de entonces, madrastra.

534. Zuhur arditaren, erho dugataren.

- Il ménage le liard et prodigue le ducat. [Autrement]: Chiche pour le liard et large pour le ducat.
- Mirado con los arditas, manirroto con los ducados.
. *arditaren ... dugataren*: destinatiboak. *Ardit* diru txikia da; *dugat*, diru handiagoa.

535. Zurzai orok, adar eihar.

- Il n’y a arbre qui n’ait quelque branche sèche.
- Todo árbol *tiene alguna* rama seca.
→ Zalgize 56: “*Çuhain oroc adar eyhar*. Todos los árboles, rama seca”.

536. Uzkia arkolaz duena, suaren beldur.

- Celui qui a le derrière fait d’étoupe craint le feu.
- El que tiene el trasero de estopa, teme el fuego.
. *süaren*: dieresia, *u* eta *a* bokal bi, normalean silaba banatan; *s-* hitz hasieran [c]-aren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 257).

→ Zalgize 167: *Vzqui iztupaz duiana, suiaren beldur*. RS 202: “*Lastozco buztana dauenac / açera beguira*. Quien tiene rabo de paja / azia-tras mira”. RS 324: “*Amucozco buztana dauenac / suen bildur*. Quien tiene cola de estopa / al fuego teme”. Beste hizkuntzetan: *Ein Schwanz von Stroh fängt leicht Feuer*. *Chi a coda di paglia, ha sempre paura, che gli pigli fuoco*. Isasti 18: “*Buztana lastozkoa duena suaren bildur*. La cola de paja quien tiene, del fuego teme”. En castellano suelen decir: *Quien tiene el rabo de paja, hacia atrás mira y cata que pasa, no sea llama* (G. Correas). Cf. 158.

**537. Uztaren arau, zuhurraren jatea;
janago dezanak arrotz duke gosea.**

- Le sage mange selon la portée de sa récolte; qui mange plus aura la faim pour hôte.
- El prudente come conforme a la cosecha; al que coma más el hambre le visitará.

. *Vstaren-arau*: marrarekin.

. *Ian ago desanac*: maiuskularekin eta -ago konparazio atzizkia jan aditzoinetik bereiz (cf. 84).

. *duque*: **edun* aditzaren *KE*-dun orainaldia, baina geroa adierazten duena, “ukanen du”, “izango du”.

→ RS 191: “*Hurtealango murcoa*. Qual el año tal el jarro”. Urkijok Akademiaren iruzkin hau aipatzen du: “(...) advierte que el jarro con que se dé de beber, sea chico ó grande, según haya sido abundante ó escasa la cosecha de vino. Usase también para expresar la necesidad que hay de que los gastos no excedan los medios de cubrirlos”. Okoad 235: “*Urthearen arau bahia*. Según el año, la prenda”.

Urhentzea⁶⁷

- Fin

⁶⁷ Atsotitzen lehen bilduma edo zerrenda honek 1-46 orriak betetzen ditu. Ondoren, 47-80 orrietan atsotitz horien frantses itzulpena ematen da. Honako izenburu-azalpenak ageri dira sail horren buruan:

“INTERPRETATION DES PROVERBES BASQUES.

Ce qui se trouvera en cette interprétation écrit en lettre italique, sont des ajouts faits au texte basque, pour une plus ample explication d'icelui”.

Guk itzulpen horiek eta letra etzanez emaniko azalpenak atsotitz bakoitzaren segidan eman ditugu, idazkera gaurkotuta.

FAUTES DE L'IMPRESSION

Page 16. ligne 21. lisez, *Onhet[s]iric*.

P. 17. l. 21. lisez *Iaincotiarrari*.

P. 20. l. 5. *Bete*, lisez, *Bethi*.

P. 23. l. 2 pour *abalcor*, lisez, *lusacor*.

P. 24. l. 2. au lieu de *egurra*, lisez, *oihana*. ligne 4. au lieu de *iinua*, lisez, *ieinua*.

P. 44. l. 7. pour *elkida*, lisez, *[er]kida*.

L'on a aussi marqué souvent au texte basque l' *longue* au lieu de l' *courte*, et tout au contraire l' *courte* au lieu de l' *longue*; à quoi le lecteur prendra garde, s'il lui plaît.

Page 48. l. 10. au lieu de *cela*, lisez, *celuy*.

ATSOTITZEN URRHENKINA⁶⁸

- SUPPLEMENT DES PROVERBES BASQUES
- SUPLEMENTO DE LOS PROVERBIOS

. Hemendik gorako atsotitzek aurrekoari erantsitako beste bilduma bat osatzen dute, alfabetoaren arabera ordenatua (*A – X*: 538-679) eta orrialde-zenbatze berria duena (1-8); gero, inolako titulurik ipintzen ez badu ere, bi orriko (1-2) beste “emendio” bat dator (680-706). Oihenart bere atsotitzen bilduma etengabe emendatuz aritu zela erakusten du horrek⁶⁹. Bigarren bilduma honek baditu zenbait ezaugarri berezi:
. *th* eta *kh* aspiratuak aurrekoan baino maizago ageri dira;

⁶⁸ Pauen argitaratua, 1665ean. Cf. hitzaurrea eta Urkizu (1994:296).

⁶⁹ Ikus, gainera, edizio honetan sartu ez ziren atsotitzak eta Oihenarten eskuizkribu edo “koaderno” batean bildurik daudenak (*ASJU I*, 1967, 3-44).

- . *ü* eta *ë* dieresidunen lekuan *û* eta *ê* idazten du maiz (*dûenaren*, *duênari*) –moldiztegiko kaxetan *ü* eta *ë* grafietako tipo nahikorik ez zutelako beharbada–;
- . *ç* eta *ce / ci* grafiak maizago ageri dira Oihenarten sistemako *s*-ren lekuan;
- . hitz amaierako *-z* adierazteko inoiz *-z* grafia darabil, sistema-ko-*s* amaieraren ordeztu, eta horrelakoetan *-z* hori ez da *-tz* irakurri behar, noski;
- . *-ki* atzizkia inoiz *-kin* aldaeran ageri da.

538. Adausi degidala, bana ausik enezala.

- Qu'il aboie contre moi, mais qu'il ne me morde pas.
 - Que me ladre, pero que no me muerda.
 - . *degnidala*: egin aditzaren orainaldi “subjuntibokoa”, *hura-niri-hark*, “egin diezadala”.
 - . *ausfic enesala*: *ausiki*-ren aditzoia, **ezan* laguntzailea, “subjuntibokoa” orainaldia, *-e-* bokalarekin (cf. 13), ezezkako agintea adieraziz, “ez nazala ausiki”, “ez diezadala kosk egin”.
- Bilduma nagusiko 1. atsotitzak ere *adausia* eta *ausikia* aipatzen ditu.

539. Adiskide eta diru duenaren bihotza ezta alkatearen lotsa.

- Le cœur de celui qui a amis et argent ne craint pas le magistrat.
- El corazón del que tiene amigos y dinero no teme al juez.
 - . *Adisquide*: *-squ-* grafia *-[qu-*ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 82).
 - . *dûenaren*: dieresaren ordeztu azentuak *u* hori eta ondoko *e* bokal bi direla adierazten du, normalean silaba banatan ahoskatuak.
 - . *Alkatearen*: maiuskularekin. Garai haietan “epaile” esan nahi zuen *alkate* hitzak (cf. 275, 490 eta *OEH*).

540. Adiskide zaharra berriagatik eztutzala.

- Ne quitte pas l'ancien ami pour le nouveau.
- No dejes al viejo amigo por el nuevo.
 - . *estutzala*: *-[t-* grafia *-st-*ren lekuan, bizkarkaria adierazteko; adizki honetaz, cf. 234.

→ Berdin Okoad 360. RS 510: “ *Adisquide baria gayti / zara vcatu validi / edo len edo güero / calta artu leydi*. Si por el nuevo amigo / el viejo se negasse / o antes o despues / tomaría daño”. Bela 3: “*Aurthen amore berriagatic eztut utciren çaharra*. (L’amitié ancienne ne doit estre altérée par la nouveauté...)”. Adiskide zaharraz, cf. 2 eta 674.

541. Ahoan min duenari, ezta karmin.

- Le miel est amer à celui qui a mal à la bouche.
- La miel *es* amarga para el que tiene dolor de boca.
 - . *duênari*: dieresia “ordezkutzen” duen azentua (cf. 539) *u*-aren ondo-ko bokalaren gainean; *u* eta *e* bokal bi direla adierazten du, normalean silaba banatan ahoskatuak.
 - Okoad 383: *ahoan duenari / min estia çauco samin*. Ikus, halaber, Okoad 219: *Pica assiari guerecia mingar*. Hau da, “A la urraca harta (le sabe) amarga la cereza”.

542. Aizez izorra zedina putzez erdi zedin.

- Celle qui s’engrossa de vent s’accoucha de vesses.
- La que concibió aire parió pedos.
 - . *isorra sedina*: **edin* laguntzailea, “subjuntiboko” iragana, erlatiboan, “izorratu zena”.
 - . *erdi cedin*: -*ce*- grafia *se*-ren lekuan (cf. 8); *erditu*-ren aditzoina eta **edin* laguntzailea, “subjuntiboko” iragana, “erditu zen”.
 - Haritschelhar (1994: 280): “Hemen, metaforaren bitartez aditzera ematen du zer den urgulutsua, gizon ala emazte, baina *izorra* eta *erdi* hitzez apaindurik, emazteaz mintzo dela dirudi”.

543. Aiz kortes guziekin, eta nabasi gutirekin.

- Sois courtois avec tous et familier avec peu.
- Ten cortesía con todos y familiaridad con pocos.
 - . *Ais*: *izan* aditzaren aginte aldia, “izan hadi”. Ohar aldea: *aiz* sintetiko-koa, *adi* laguntzailea.
 - . *cortes*: -*s* hitz amaieran -*ɟ* izan beharrean; beste agerpenean *Cortel* (XIII, 29).

544. Alfer egonez gaizki egiten nehork ikas diro.

- En demeurant oisif on peut apprendre à mal faire.
- Estando ocioso se aprende a obrar mal.
 - . *egonez*: dagoen dagoenean *egonetz* irakurri behar litzateke Oihenarten sistemaren arabera, baina hutsa dela dirudi, -s behar baitu, hots, gure -z.
 - . *ikas diro*: -s hitz amaieran -f izan beharrean, apikaria adierazteko; **iro* laguntzailea, orainaldia, “ikas dezake”, hots, “ikasten du”.
→ Berdina da Okaod 378.

545. Ardi bilha adi, nahiz bake, otsoak jan ezake.

- Fais-toi brebis pour l’amour du repos: le loup te mangera.
- Hazte oveja, buscando la paz, y el lobo te comerá.
 - . *bilha adi*: *bilhatu*-ren aditzoina, “bilaka hadi”, “bihur hadi”.
 - . *ian esaque*: **ezan* laguntzailea, *KE*-dun orainaldia, -e- bokala duena, *hi-bark*, *h-rik* gabe, ohi bezala; “jan hazake”, hau da, “jango hau”.

546. Aro emearen beha dagoena uda-neguetan, eskas date bere gauzetan.

Bertzela:

Neguan hotzari eta udan beroari beldur zaiona, ezta ez zaldun ez merkatari ona.

- Celui qui attend le temps doux en été et en hiver, pour marcher, sera court en ses affaires.
D’autre façon:
Celui qui appréhende le froid en hiver et le chaud en été, n’est ni bon cavalier ni bon mercier.
- El que espera tiempo suave en verano y en invierno andará corto en sus negocios.
O también:
El que teme al frío en invierno y al calor en verano no es ni buen caballero ni buen comerciante.
 - . *elcas*: -s hitz amaieran -f izan beharrean, apikaria adierazteko (cf. 503).
 - . *date*: *izan* aditzaren orainaldi *KE*-duna, *dateke*-ren parekoa, geroaldia adierazten duena, “izango da” (cf. 135).

547. Aski dakik, bizitzen badakik.

- Tu sais assez su tu sais vivre.
- Sabes bastante, si sabes vivir.
- . *bicizen*: -*ci*- grafia -*si*-ren lekuan (cf. 6).

548. Azti bi jin dira gure okolura; batak du izen zohegi, bertzeak aztura.

- Deux devins sont arrivés aux avenues de notre maison: l'un a nom *prudence* et l'autre *expérience*.
- Dos adivinos han venido al prado de nuestra casa; uno se llama "prudencia" y el otro "experiencia".
- . *okolura*: *okolu* "avenues d'une maison", cf. XXV, 3 (Lafon 1949: 439).

549. Aurki guziak du bere inpertzia.

- Tout drap a son envers⁷⁰.
- Todo anverso tiene su reverso.
- Atsotitzaren egiturari dagokionez, cf. 611.

550. Ausartki akometatzea da erdi garhaitzea.

- Attaquer hardiment c'est vaincre à demi.
- Atacar con decisión es media victoria .
- . *Ausartqui*: -*ʃ*- bakuna bokal artean.

551. Axeria predikatzen denean ari, gogo emak eure oiloari.

- Quand le renard se met à prêcher, prends garde à tes poules.
- Cuando el zorro se pone a predicar, ten cuidado con tus gallinas.
- . *emac*: *eman* aditzaren agintea, *hura-hik*, "eman ezak"; komuntadurarik ez datiboarekin.
- . *oilloari*: -*ill*- grafia alboko palatala adierazteko (cf. 248).

⁷⁰ Ez da hitzez hitzeko itzulpena, testuak "aurki" baitio eta, horren arabera, "Tout *avers* a son envers" itzuli behar litzateke.

B

552. Bardin da alfer egoitea eta alfer lan egitea.

- C'est chose équipolente de demeurer oisif ou bien de faire une besogne inutile.
- Da lo mismo estar ocioso que hacer un trabajo inútil.
 - Isasti 4: "*Alferric necatu baño obe da gueldiric egon*. Mas vale estar quedo que trabajar en vano". Esanahiari dagokionez, cf. 623.

553. Bata ezpada nahi, ezkitakek guduka ni eta hi.

- Si l'un de nous ne le veut, toi et moi ne nous battons pas.
- Si uno *de los dos* no lo quiere, no nos pelearemos yo y tú.
 - . *espada nahi*: *nahi izan* iragangaitza; *nahi / ta hi* errima.
 - . *esquitaquec guduca*: *gudukatu*-ren aditzoina, **edin* laguntzailea, *KE*-dun orainaldia, alokutiboa, "ez gaitzkek gudukatu", hau da, "ez gaituk gudukatuko".

554. Behar eztena erraiten duenak, adi dezake nahi eztuena.

- Celui qui dit ce qu'il faudrait taire pourra entendre ce qui ne lui saurait plaire.
- El que dice lo que *decir* no se debe, puede que oiga lo que no quiere.
 - . *duênac ... estûena*: cf. 539 eta 541.
 - RS 18: "*çagoquez exilic / ta ençun eztayçu guextoric*. Callando esta-reys / y mal no oyreys".

555. Behiari darraikala doha gaizkintzetara xahala.

- En suivant la vache entre le veau dans le pré ou dans le jardinage⁷¹.
- Siguiendo a la vaca va el ternero a las malicias.

⁷¹ Horrela itzultzen du Oihenartek, itzulpen libre samarrean edo, bestela, oker ulerturen bat tarteko dela (cf. *OEH* s. v. *gaizkintza*). Izan ere, "gaizkintza" hitzak "mala acción, maldad, fechoría" esan nahi du.

. *doba*: bilduma honetako agerpen bietan *b*-rekin (555, 675); gainera koetan *doa*, aspiraziorik gabe (293, 320, 332, 565; XXII, 1); *dobena* behin (645, 675), baina *doena* (580).

556. Belea ikuz daite, xurrit eztaite.

- Le corbeau peut bien se laver mais non pas devenir blanc.
- El cuervo puede lavarse, *pero* no hacerse blanco.

. *daite*: cf. 77, 109, 195...

557. Bere egitekoen egiten eztakienak, nekez daidizke bertzerenak.

- Celui qui ne sait pas faire ses affaires faira malaisément celles des autres.
- El que no sabe hacer sus trabajos difícilmente hará los de otros.

. *daidisque*: **idi* erro zaharraren –beharbada **egi(di)n* aditzarena–, *KE* morfema duena, beste agerpen guztietan ez bezala (20, 30, 37; II, 1...), *haiek-hark*, “egin ditzake”, “egingo ditu”, hots, “(bertzerenak) egiten jakingo du”.

→ Ikus Isasti 23: “*Daquienac lan daidi, eztaquienac ler daidi*. El que saue obra hara, y el que no saue reuentar puede”.

558. Bere onsa, gaizki jarteko, du uzten, bere onaz hiltzera gabe denak biluzten.

- Celui-là quitte son aise pour se mettre à malaise, lequel se dépouille de son bien avant qu’il vienne à mourir.
- Deja su bienestar, para ponerse en mala situación, quien sin venir a morir se despoja de sus bienes.

. *onza*: Oihenarten sistemaren arabera *ontza* irakurri beharko genuke. Puntua galdutako *onz^a* izan daiteke eta, orduan, *ontsa* irakurri beharko genuke. Bestetan *onja* (59) edo *onsa* (251, 446, 504; IV, 11; XXVII, 2) idazten da, baina horietan adizlaguna den bitartean atsoitz honetakoa izena da. Beraz, *ontsa* edo *onsa* irakurri behar dela dirudi.

559. Bere zehatzeko makila darabila.

- Il porte la bâton pour se faire battre.
- Lleva el bastón con el que será zurrado.

/ Okoad 342 berdina da.

560. Bertzeren diruaz duenak etxea berritzen, etxe zaharra eta berria ditu bahitzen.

- Celui qui refait sa maison avec l'argent d'autrui hypothèque tant la vieille maison que la neuve.
- El que con dinero ajeno *su* casa renueva, empeña la casa vieja y la nueva.

. *exea ... exe*: *x*-ren balioaz, cf. 45.

561. Bertzeren emazte duanagana maite, oha zeiharbideaz, hal' ere lerra aite.

- Quand tu voudras aller traiter d'amours avec la femme d'autrui, marche par des sentiers écartés, avec cela encore seras-tu sujet à glisser.
- A donde la mujer ajena que amas, vete por caminos apartados, y aun así puede que caigas.

. *duana-gana*: marrarekin. Ordena bitxia du erlatibo honek; batetik, izen ardatzaren eskuinean dago eta, bestetik, aditz nagusia laguntzailearen ondoan ematen da. "Maite duan bertzeren emazteagana" > "Bertzeren emazte maite duanagana" > "Bertzeren emazte duanagana maite".

. *oha*: cf. 61.

. *hal'ere*: *-a*-ren elisioa, cf. 92.

. *lerra aite*: **edin* laguntzailearen *KE*-dun orainaldia, gure "haiteke" formaren parekoa, "eror haiteke".

→ Besteren emaztearekin ibiltzeaz, cf. 184.

562. Bertzez gaizki minzo denak adi ditzake bere ogenak.

- Celui qui parlera mal des autres sera sujet à entendre ses fautes.
- El que habla mal de otros, se expone a oír sus propios fallos.

→ RS 446: “*Esalea ençula*. El dezidor oydor”. Gaztelaniaz: *En el azó-gue, quin mal dice mal oye* “Refr. que dá à entender, que el que murmúra y habla mal del próximo, y en parte pública, como es en la plaza, permite Dios que sea injuriado y castigado por los mismos filos”. Beste batek: *Quien dice lo que quiere, oye lo que no quiere*.

563. Bertzgin gaxtoak, xilo baten thapatzeko, altxatzen diotza bertzari zathikoak.

- Un mauvais chaudronnier, pour boucher un trou, enlève de grosses pièces de son chaudron.
 - El mal calderero, para tapar un agujero, quita grandes trozos al caldero.
 - . *Bertzguin*: lexemaren buruko -tz afrikatua ez da igurzkari bilakatzen -g leherkariaren aurrean (cf. 9).
 - . *xilobaten*: loturik.
 - . *thapazeco*: *th-* grafia lekerkari aspiratua adierazteko. Gutxitan ageri da fonema hori adierazten duen grafia hitz hasieran: *ti`ra* (221) –nahiz *tira* (432)–, *thu`sto* (584) –nahiz *tusto* (245), *tu`sto* (448)– eta *thu* (673).
 - . *alxazen dioza*: hitz honen tradizioa eta testuetako lekukotasuna ikusiz, pentsa daiteke Oihenartek *alx`azen*, hau da, gure *altxatzen*, idatzi eta moldiztegian puntua galdu zela (cf. 45 eta Lafon 1949: 437); berdin beste agerpenetan ere (603; VI, 6; XIV, 6; XXII, 5). **Edun* laguntzailearen orainaldia, *haiek-hari-hark*, “kentzen dizkio”.
 - . *sathicoac*: leherkari aspiratua -*th-* idatzia hemen ere; *sathi-* (563, 666), baina *sati-* (27; I, 5).
- Urkijo Esk: *La llana del mal herrero, rompe toda la caldera para sanar un agujero* (H. Nuñez, fol. 278v).

564. Bihikor da nagiaeren alhorra, bana belharzar bezi hanti eztathorra.

- Le champ du paresseux est fertile, mais il n’en sort que de méchantes herbes.
- El campo del vago es fértil, pero de allí no salen más que malas hierbas.

- . *belhar-/sar*: lerro bitan banatua, baina lotura adierazten duen marra duela.
- . *beci*: inoizko *-ci-* grafia (cf. 373).
- . *estathorra*: gutxitan ageri dira aditz honetako formak leherkari aspiratuarekin, *ethor* (XX, 5), *ethorri* (621), *estathorra* (564) eta *ezenhoske* (I, 7); gainerako agerpen guztietan *-t-* soila idazten da.

565. Burla gaxtoa, bere sorlekura itzuli doa.

- Une méchante raillerie retourne vers le lieu d'où elle est sortie.
- La burla mala vuelve a su origen.
 - . *sor-lekura*: marrarekin; *s-* hitz hasieran [j]-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 72).
 - Okoad 355: *Burl'ahula jalgui / lek'ura dizula*. Al(ite)r. *Burl'erhoa jalgui / lekura izuli doa*. Hau da, “La burla débil vuelve al sitio de donde ha salido” edo “La burla loca suele volver al sitio de donde ha salido”.

566. Burlarik gaxtoena, egia dioena.

- La plus méchante raillerie, c'est celle qui dit vrai.
- La peor burla, la que dice la verdad.

567. Buru bezanbat aburu.

- Autant de visions ou imaginations que de têtes.
- Tantas opiniones como cabezas.
 - RS 381: “*Eun sauel bateco / ta bacocho bere gogoco*. Ciento de vn vientre / y cada uno de su mente”. Latinez: *Quot homines tot sententiae* edo *Quot capita, tot sensus*. Beste hizkuntzetan ere badira hori bera adierazten duten atsotitzak.

_____72

⁷² “B” multzoko atsotitzen hondarrean ageri da ondoko atsotitza, zegokion “C” letra (edo “K”) ipini gabe.

568. Kokodatzez dago eta eztu erruten.

- Cette poule cocodaque et ne pond pas.
- Cacarea, *pero* no pone huevos.
 - . *Cocodazes*: kokodatze izenaren instrumentala, “en cacareo”, “caca-reando”.
 - Haritschelhar (1994: 280): “(...) erran nahi baita: dena espantu eta ezer ez”.

D

569. Dakian guzia ezterralla, ez jan bethi eure ahala.

- Ne dis pas tout ce que tu sais, ni ne mange tout ce que tu peux manger.
- No digas todo lo que sabes, ni comas siempre *todo* lo que puedes.
 - . *esterralla*: erran aditzaren “subjuntiboa” ezezka, aginte balioarekin, *hura-hik*, “ez derraala”, “erran ez dezaala”.
 - . *bethi*: *beti* / *bethi* bitasunaz, cf. 98.
 - RS 340: “*Gueyago dio daquiana baño*. Mas dize de lo que sabe”.
Urkijok, zalantza artean bada ere, frantseseko hau aipatzen du: *Il vaut (mieux?) savoir plus qu'on ne dit, que de dire plus qu'on ne sait*.

E

570. Edasle handia ezta bethi minzo egia.

- Un grand parleur ne dit pas toujours vrai.
- El gran hablador no siempre dice la verdad.
 - . *Edasle*: cf. 241.

571. Ederregia, itsusgarri.

- Ce qui est trop beau tient du laid.
- Lo demasiado hermoso *hace* feo.

572. Edertarzuna, iraute gutitako onharzuna.

- La beauté est un bien de peu de durée.
- La hermosura es un bien que poco dura.
. *onharsuna*: *on(h)arzun / ontarzun* bitasunaz, cf. 364.

573. Edukan eure athea hersirik eta ez erran eure auzoaz gaizkirik.

- Tiens ta porte fermée et ne dis pas mal de ton voisin.
- *Mujer*, ten tu puerta cerrada y no hables mal de tu vecino.
. *Edukan*: *eduki* aditzaren aginte aldia, *hura-bik* femeninoa, “eduki ezan”. Horregatik erantsi dugu “mujer” bokatiboa geure itzulpenean.
. *athea*: cf. 314.
. *gaizquirric*: *-rr-* bikuna, errata.

574. Egik ungi behin eurei, eta gero, ahal badagik, atzei.

- Fais du bien premièrement aux tiens eta après, si tu peux, aux étrangers.
- Procura el bien en primer lugar a los tuyos y luego, si puedes, a los extranjeros.
. *behin*: “lehenbizi”.
. *eurey ... azey*: *-y* letra diptongoan; “eureei”, “atzeei”.

575. Egik ungi nik diodana, eta ez gaizki nik degidana.

- Fais le bien que je te dis et non pas le mal que je fais.
- Haz el bien que yo predico y no el mal que yo practico.
. *vngui nic diodana ... gaisqui nic deguidana*: erlatiboak dira, izen ardatzaren eskuinean emanak; uler bedi, beraz, “nik diodan ungia”, “nik degidan gaizkia”.
. *deguidana*: *egin* aditzaren orainaldia, *-e-* bokala duena, *hura-nik*, erlatiboan, “dagidana”, “egiten dudana”.

576. Elhe ederra, egunaren laburgarri.

- Un beau discours fait trouver court le jour.

- Palabras bonitas acortan el día.
→ Esanahiari dagokionez, cf. 242, 291, 318, 632.

577. Emak atherbe gaxtaginari, bera dukek salhatari.

- Baille le couvert au méchant, il te décèlera.
- Da albergue al malvado y será él tu delator.
. *atherbe*: cf. XVII, 16.
. *gaxta-guinari*: marrarekin.
. *duquec*: adizki honetaz, cf. 7.

578. Emak eure xahala gogo onkara, gora ahal dezaianari azkarrara.

- Baille ton veau de bonne grâce à celui qui pût te l'enlever par force.
- Da tu ternero de buen grado a quien a la fuerza puede quitártelo.
. *gegooncara ... ascarrara*: ge- errata; -(k)ara atzizkiaz, cf. 38.
. *gora ahal dezaianari*: goratu-ren aditzoina, *ezan laguntzailearen orainaldia, *hura-hiri-bark*, erlatiboan, “kentzen ahal diezaanari”, “kentzen ahal dianari”.

579. Emazte ederra duena etxean, etxea etsai-lurrean, eta mahastia karrikaldean, ezta koeinta gabe bihotzean.

- Celui qui a une belle femme en sa maison, sa maison en la terre de l'ennemi et sa vigne auprès du grand chemin, n'est pas *sans souci*.
- Al que tiene mujer hermosa en casa, la casa en tierra enemiga y la viña junto al camino, no le faltan preocupaciones en su corazón.
. *duêna*: dieresia “ordezkatzen” duen azentuarekin (cf. 541).
. *exean ... exea*: x-ren balioaz, cf. 45.
. *Karricaldean, Koeinta*: K maiuskula, k minuskularen letra tiporik ez zutelako, beharbada. *Koeinta*-ri buruz, cf. Lafon 1949: 436.
→ Okoad 349: *Emazt'ederra duenac / exean, bere exea etsaien / artian, edo mahastia / carricaldean eztago arregura gabe / biozean [sic]*. Urkijok RS 131en iruzkinean aipatzen duen gaztelaniazko honen itzulpena da: *Al que tiene muger hermosa, o castillo en frontera, o viña en carrera, nunca le falta guerra*. RS 131ek, berriz honela dio: *Andra edera etsean guerra*. Beste hizkuntze-

tan era badituzte atsotitz honen antzekoak: *Wer ein junges Weib und ein altes Haus hat, hat genug zu flicken. Chi tiene moglie bella, vigna in strada e castello in frontiera mai guerra gli marca (sic).*

580. Ergela da gordatzera doena berezenera.

- C'est être sot que de s'aller cacher dans le retouble.
- Tonto es el que va a esconderse en los rastrojos.
 - . *Erguela*: *ergel* (142, 580), *ergeltarzun* (143), *baina elger* (194), *elgerki* (XVII, 18).
 - . *gordatzera*: *gorde* aditzaren izena *gordatze*.
 - . *doena*: *baina dohena* (645, 675); *doa / doha* bitasunaz, cf. 293.
 - . *berezenera*: inoizko *-ce-* grafia. *Berezen*, "campo del que ya se ha recogido la cosecha; tierra en barbecho" (cf. *OEH* s. v. *berazain*).

581. Erhoak egiten duena ondarrean, zuhurrak egiten du hatsarrean.

- Ce que le fol fait à l'extrémité, le sage le fait dès le commencement.
- Lo que el necio hace al final, el cuerdo lo hace al principio.

582. Erhoa da hasten duena lan urhent eztezakeena.

- Celui-là est fol qui commence un travail qu'il ne saurait achever.
- Necio es el que empieza un trabajo que no puede terminar.
 - . *dûena*: dieresia "ordezkatzen" duen azentuarekin, cf. 539.
 - . *lan urhent estezakeena*: *urhent*, *urhentu*-ren aditzoina; ç grafia, Oihenarten sistemako *s*-ren lekuan. Erlatiboa izenaren eskuinean, "amaitu ez dezakeen lana".

583. Erhogoia da itho nahiari hedatzea eskua.

- C'est folie de tendre la main à celui qui se veut noyer.
- Es tontería tender la mano a quien quiere ahogarse.
 - . *itho-nahiari*: marrarekin, adjektiboa. *Ito*-ren idazkeraz, cf. 41.
 - . *e[ç]üa*: dieresia, *u* eta *a* bokal bi, normalean silaba banatan. Hitz honen idazkeraz, cf. 46.

584. Erregal' adi eure doiareki, et' utzak nekatzera zoroa bere thusto nahiareki.

- Régale-toi avec ta médiocrité, et laisse le fol se peiner avec la convoitise qu'il a d'amasser beaucoup de bien.
- Disfruta con lo que te basta y deja fatigarse al loco con su ansia de tener mucho.

. *Erregal' ad hi*: errata; badirudi *erregal' adi* behar duela, *adi* aginte adizkia *h*-rik gabe idazten baitu beti (235, 379, 488, 545; XIX, 13).

. *thusto nahiarequi*: “asko (eduki) nahiarekin”. *Tusto* hitzaren idazkeraz, cf. 245.

585. Ezagutu nahi ut hobeki, adiskidetu bano lehen hireki.

- Je te veux mieux connaître avant que de faire amitié avec toi.
- Quiero conocerte mejor, antes de hacerme tu amigo.

. *vt*: “haut”.

→ Adiskidea ezagutu beharraz, cf. 5.

586. Ezezagunik ez har lagunik.

- Ne prends pas de gens inconnus pour compagnons.
- No tomes por amigos a desconocidos.

587. Ez har bertzerena, ez galtzera utz ihaurrena.

- Ne prends pas du bien d'autrui, ni ne laisse rien perdre du tien.
- Ni cojas tú lo de los demás, ni dejes que lo tuyo se pierda.

. *es ... ez*: bigarrena hutsa da, hor ere *es* behar baitu.

. *ihaurrena*: hemen *ihaur-*, bestetan *bihaur-* (234; XXII, 7; XXVI, 22).

588. Ezin daidienak nahi bezala, begi egin ahala.

- Celui qui ne peut faire ce qu'il voudrait, qu'il fasse ce qu'il pourra.
- El que no puede hacer lo que quiere, haga lo que puede.

. *Esin daidienac*: **idi* erro zaharra –beharbada **egi(di)n* aditzarena (cf. 20; II,1)–, orainaldia, *KE*-dunaren baliokoa, erlatiboan, “ezin egin dezakeenak”.

→ RS 127: “*Aldaygunlegez / ta ez naydegunlegez*. Como podemos / y no como queremos”. Gaztelaniaz: *Si no como queremos, passamos como podemos. Si pudieras lo que quieres, si no haz lo que pudieras*. Ikus Bela 45: “*Ez nahi ahal dudana; ez ahal nai dudana*. Nada puedo de lo que quiero, y nada quiero de lo que puedo. Je ne veux pas ce que je peux; je ne paux pas ce que je veux”. Cf. 209.

589. Ez min guziegatik atxeterretara, ez iharduki orogatik auzitara.

- Ni pour tous les maux aux médecins, ni pour toutes les contestations à la plaiderie.
 - Ni por cualquier dolencia al médico, ni por cualquier disputa a pleito.
- . *axeterretara*: *x*-ren baliioaz eta hitz honen idazkeraz, cf. 213.

590. Ez orratzagatik, bana zuzenagatik, bebar du nebork porfiatu.

- Non pour l'épingle, mais pour le droit. *C'est-à-dire qu'il faut s'opiniâtrer non pour l'intérêt, mais pour le droit.*
- No por la aguja, sino por el derecho *debe uno porfiar.*

591. Esperanza, esteiariaren othoranza.

- L'espérance est la pitance de ceux qui sont en souffrance.
- La esperanza es la comida del miserable.

592. Ezta deuskai edertarzuna, lagun eypadu ontartzuna.

- La beauté n'est rien si elle n'a pour compagne la vertu.
 - De nada vale la hermosura, si no tiene a la bondad por compañera.
- . *deuſcai*: ezezkako esaldietan bakarrik erabilia; *ez da deusgai*, “no sirve para nada” (cf. *OEH*, s.v. *deusgai*).

- . *ontarsuna*: *on(h)arzun / ontarzun* bitasunaz, cf. 364.
→ Hitzez hitz errepikatzen da atsotitz hau V. olerkian (V, 47).

593. Eztago ilhargia bethi bere bethean.

- La lune n'est pas toujours en son plein.
- La luna no siempre está llena.

. *bethi*: cf. 98.
. *bethean*: cf. 262.

594. Ezta orduz etxeraten, bidean ari dena pusken batzen.

- Celui-là n'arrivera pas d'heure à sa maison, qui s'amuse à amasser les fétus par les chemins.
- No llega a tiempo a casa el que se dedica a recoger menudencias por el camino.

. *exerazen*: *x*-ren balioaz, cf. 45.
. *pusken*: hitz honen tradizioa ikusita pentsatu beharra dago *-[k]-* grafiaren lekuan dagoela *-sk-* grafia eta, hortaz, *pusken* irakurri behar dela, ez *puzken*.

595. Eztaki prezatzen bakearen, eztakienak berri gerlaren.

- Celui-là ne sait pas ce que vaut la paix, qui ne sait pas nouvelle de la guerre.
- No conoce el valor de la paz quien no conoce cómo es la guerra.

. *baquearen*: *prezatzen*-en objektua.

596. Ezta zaharra duena zaldarra.

- Celui-là ne passe pas pour vieillard, qui a des clous ou des furoncles.
- No es viejo el que tiene diviesos.

→ Berdina RS 503. Gaztelaniaz: *No es viejo quien tiene divieso*, hau da, "vicio de mocedad".

597. Ezta zuhur eztena erhoaren beldur.

- N'est pas sage qui n'a peur du fol.
- No es cuerdo el que no teme al loco.

598. Eztemala deus handi aberatsari, ez arbuia eure ahala beharrari.

- Ne fais pas de don considérable au riche et ne refuse rien du tien au misérable.
- No regales cosa grande al rico ni niegues lo que esté en tu mano al pobre.
 - . *Estemala*: *demala*, *eman* aditzaren “subjuntiboa” ezezka, agente baliokoa, *hura-hik*, datiboarekin komunztadurarik ez duena, “ez dezaala eman” (cf. 599, 612).
 - . *deus*: -s hitz amaieran, j-ren lekuan, apikaria adierazteko (cf. 45).
 - . *arbuia*: y grekoarekin.
 - . *beharrari*: adjektiboa, “behartsuari” (cf. 28).

599. Eztemala eure molsa begiratzera, bethi so dagoenari lurrera.

- Ne baille pas ta bourse à garder à celui qui a toujours les yeux fichés en terre.
- No encargues la custodia de tu bolsa a quien está siempre mirando al suelo.
 - . *Estemala*: cf. 598.
 - Okoad 372: *Bethi soz dagoenari / lurrera, estemoala / eure dirua beguirazera.*

G

600. Gaina eder, barrena uher.

- L'extérieur clair et serein, l'intérieur ou le dedans trouble.
- El exterior hermoso, el interior turbio.
 - . *Eder*: maiuskularekin eta letra etzanez.

→ Zalgize 141: *Gainian eder, / Barnian lander*. Çüberoan: *Gagnian gaillo / Barnian harro*. Horko *gaillo* = “arrogante”; eta *harro* = “carcomido” (cf. Sarasola 1983: 185).

601. Gaitz hartua, erakatsgarri.

- Le mal qu'on a souffert sert d'instruction.
- El mal sufrido sirve de lección.
- . *eracat*{garri: leherkariaren aurrean txistukari afrikatua, cf. 9.

602. Gazteak ezjakinez eta zaharrak ezinez, doaz egitekoak deseginez.

- Par le peu de savoir du jeune et par l'impuissance du vieillard, les affaires se ruinent.
- El joven porque no sabe y el viejo porque no puede, los trabajos van yéndose al traste.
- . *es iaquines*: bereiz.
- . *de*{egüines: -[- bakuna bokal artean (cf. 446).

603. Gathuak altxatura jan.

Hori erraiten da edozeinek bere on guzia irion duenean.

- Le chat a mangé le levain. *Cela se dit quand quelqu'un a dissipé son fonds ou tout son bien.*
- El gato ha comido la levadura.
- . *Eso se dice cuando alguien ha disipado todos sus bienes.*
- . *Gathuac*: *gathu-*, leherkaria aspiratua duela *Urrhenkina*-n (603, 697, 704), baina *gatua* (183).
- . *alxatura*: *x*-ren balioaz, cf. 563.
- . *hori*: minuskularekin, puntuaren ondoan bada ere.
- . *edo-/ceinec*: *-ce-* grafia, Oihenarten sistemako *-se-* grafiaren lekuan.
- . *duênean*: dieresia “ordezkatzen” duen azentuarekin (cf. 541).

604. Gaxtoak ona koza diro.

- Le méchant est capable d'infecter l'homme de bien.
- El malo puede contagiar al bueno.

- . *Kosa diro*: K maiuskula, cf. 579; erro honetako hitzen idazkeraz, cf. 193. *Diro*, **iro* ahalezko laguntzailea, orainaldia, “kutsa dezake”.

605. Gaxto bat gaztigatzen duenak, ehun zitutzen.

- Qui châtie un méchant, en cite cent.
- El que castiga a un malo, cita a cien.
 - . *Gaxtobat*: lotuta.
 - . *gastigazen*: hitz honen idazkeraz, cf. 169.
 - . *duênac*: dieresiaren ordezeko azentuarekin (cf. 541).

606. Gaxtoen artean ezin biziz bahabila, oha bertze mundu baten bilha.

- Si tu ne peux vivre parmi les méchants, va chercher un autre monde.
- Si te resulta imposible vivir entre los malos, vete a buscar otro mundo.
 - . *bahabila*: cf. 7.
 - . *mundu baten*: bestetan ez bezala, hemen bereiz.

607. Gaxtoen artean da gaxtoena, bere gaizki egiteaz kukatzen dena.

- Entre les méchants, celui-là est le pire de tous, qui fait gloire de son mal faire.
- El peor de todos los malos es el que se jacta de sus malos actos.
 - . *gai]qui*: normalean *gaiski* /*gaisqui* idazten da, hots, bizkarkariarekin (84, 90, 244, 374, 429, 458, 544, 558, 573, 575, 623...) eta, hortaz, pentsatu behar da *-squ-*ren lekuan dagoela hemen *-]qu-* hori.

608. Gelak ekortu enituen egunean, sarthu zaitzat arrotzak etxean.

- Le jour que j'ai laissé les chambres sans balayer, les hôtes sont venus chez moi loger.
- El día que dejé las habitaciones sin barrer se me presentan en casa los huéspedes.
 - . *sarthu saizat*: *sartu*-ren beste agerpenetan leherkaria aspirazio markarik gabe ageri da (V, 31; X, 14 ; XIII, 1); *saizat*, *izan* laguntzailearen orainaldia, *haiek-niri*, “sartu zaizkit”. Mendeko perpausa iraganean eta nagusia orainaldian.
 - . *exean*: *x*-ren balioaz, cf. 45.

609. Giltzak gerrian, horak suthegian.

- Les clefs à la ceinture, les chiens au foyer ou à la cuisine.
 - Las llaves en la cintura, los perros junto al hogar.
- . *[suthegian: -th-* grafia berriro leherkari aspiratua adierazteko.

610. Gizon prestuaren errana, mugarri.

- La parole d'un homme de bien est ferme comme une borne.
 - La palabra del hombre recto *es* un mojón.
- . *pre[stüaren:* dieresia, *u* eta *a* bokal bi, normalean silaba banatan.
/ Okoad 279 berdina da.

611. Goiz guziak du bere arratsaldia.

- Chaque matinée a sa soirée.
 - Toda mañana tiene su atardecer.
- . *arrat[saldia:* bestetan ez bezala, zubererako *ea > ia* aldaketa islatua.
→ Atsotitzaren egiturari dagokionez, cf. 549.

612. Goizerria denean gorriago ezen ez hori, eure euritakoa eztemala nehuri.

- Quand l'orient est plus rouge que jaune, ne prête point ton manteau de pluie ou ton capuchon à personne.
 - Cuando por el este más que amarillo está rojo, no des a nadie tu capuchón.
- . *esenes:* lotuta, cf. 84.
. *estemala:* adizki honetaz, cf. 598. Hemen ere ez du komunztadurarik datiboarekin.
→ Ikus Okoad 365: *Eure euritacoa / eztemala nehuri.*

613. Gordinak jaten dituenak, jan ditzake lirinak.

- Celui qui mangera les vertes mangera bien les mûres.
 - Quien come las verdes puede comer las maduras.
- . *dituênac:* dieresia “ordezkatzen” duen azentuarekin (cf. 541).

614. Gorputz eria, arimaren sendozale.

- La maladie du corps est la guérison de l'âme, *parce qu'elle fait songer à Dieu.*
- El cuerpo enfermo, remedio para el alma.

615. Goseak bano gehiago galtzen ditu aseak.

- Le trop saouler en perd plus que la faim ou le jeûner.
- Los atracones pierden a más *gente* que el hambre.

616. Gure horak buztanaz daki balaku egiten, eta ahoaz ausikiten.

- Notre chien sait flatter avec la queue et mordre avec la bouche.
- Nuestro perro sabe hacer zalamerías con la cola y morder con la boca.
. *ausiquiten*: -/ bakuna bokalaratean; beste agerpen bietan -/ (1, 538).
→ RS 372: “*Leussindu buztanaz / ta esugui haboaz*. Alagar con la cola / y morder con la boca”. RS 205: “*Laztana ta apea? / leussindu ta caltea*. Beso y abraso? Alago y daño?”. Cf. 667.

617. Guti erran eta anhitz egina, da zuhurraren atsegina.

- Dire peu et faire beaucoup, c'est le contentement du sage.
- Poco dicho y mucho hecho, es lo que agrada al sensato.

618. Gutietsak handikeria, sor dezakek bekaizteria.

- Méprise la vanité, tu apprivoiseras Pénurie.
- Desprecia la vanidad, y aplacarás la envidia.
. *Gutietlac*: *gutietsi* aditzaren aginte aldia, *hura-hik*.
. *sorr desaquec*: *rr* hitz amaieran, ohi ez bezala (cf. 631). Beharbada balio bereizgarria du: *sor* [“jaio” (XIII, 20) / *sorr* [“ema(tu), indargabe(tu)”].

H

619. Handikeria, lilitzen bad' ere ezta bihitzen.

- La vanité, encore qu'elle fleurisse, elle ne graine pas.
- La vanidad, aunque dé flor no da grano.
. *bad'ere*: -a-ren elisioa, cf. 45.

620. Haurrak athean duena erasi, sukaldean zuen ikasi.

- Ce que l'enfant a raconté hors la porte, il l'avait appris au foyer.
- Lo que el niño ha contado fuera de casa lo aprendió en la cocina.
. *athean*: cf. 314.
. *duêna ... suên*: cf. 541.
. *eraʃi ... ikaʃi*: -ʃ- bakuna bokal artean, bestetan -ʃʃ- bikuna dena (273, *Adigarria, eraʃʃi*; XXVI, 17, *ica(siric)*.
→ Esanahiari dagokionez, cf. 434 eta han aipatuak.

621. Hire nahiz gaitz jin zaikan horri, errakok "Sancho, ungi ethorri".

- Au mal qui t'est venu par ton souhait, dis-lui qu'il soit le bienvenu.
- Al mal que te ha venido por tu deseo, dile "Bien venido, Sancho".
. *ün saican*: laguntzailea *izan*-en orainaldia, *hura-hiri*, erlatiboan, "etorri zaian". Erlatiboa izenaren eskuinean, "gaitz jin zaikan horri", hau da, "jin zaikan gaitz horri".
. *erracoc*: *erran* aditzaren aginte aldia, *hura-hari-bik*, "erran iezaio".
. *Sancho*: gaztelerazko idazkera.
. *ethorri*: cf. 564.
→ Okoad 368: *Gaitz eure nahiz duan / horri / erracoc vngui etorri*.

622. Hitz ixila, hirur beharritan iraganez geroz, orotan lasterka dabila.

- Le secret, après qu'il s'est promené en trois oreilles, va courant partout.
- El secreto, una vez que ha pasado por tres oídos va corriendo por todos los sitios.
. *Hiz-ixila*: oso garbi ikusten ez bada ere, badirudi marra dagoela hitz bien artean.

623. Hobe da alfer egoitea, ezen ez gaizki egitea.

- Il vaut mieux demeurer sans rien faire que faire du mal.
- Más vale estar ocioso que obrar mal.
 - . *esenes*: lotua, cf. 84.
 - Esanahiari dagokionez, 552.

624. Hobe da berant, ezi ez jagoiti.

- Il vaut mieux tard que jamais.
- Más vale tarde que nunca.
 - . *eci ez*: *-ci-* grafia eta bereiz, cf. 150; *-z amaieraz*, cf. 544 eta 587.

625. Hobe da galdu, ezi ez galduago.

- Il vaut mieux perdre que surperdre, ou perdre davantage.
- Más vale perder que perder más.
 - . *ecies*: *-ci-* grafia eta lotuta, cf. 150.
 - . *galdüago*: dieresia, *u* eta *a* bokal bi, normalean silaba banatan.

626. Hoboro daki erhoak ber' etxean, ezi ez zuhurrak bertzerenean.

- Le fol en sait plus en sa maison que le sage en celle d'autrui.
- Más sabe el loco en su casa que el cuerdo en la ajena.
 - . *ber' exean*: *e*-ren elisioa (cf. 92); *x*-ren balioaz, cf. 45.
 - . *ecies*: *-ci-* grafia eta lotuta, cf. 150.
 - Okoad 373: *Oboro daqui erhoac bere / exean ecenes çuhurrac / bertzerenean*.

627. Horeki datzana, jeikiten da kukusoeki.

- Celui qui se couche avec les chiens se lève chargé de puces.
- El que con perros se acuesta con pulgas se levanta.
 - Okoad 380: *Horequi dazana / daica cocussoequi*. Ikusten denez, koadernoan *daika* sintetikoa erabiltzen da eta argitaraturiko bilduman *jeikiten da* perifrastikoa. Esanahiari dagokionez, cf. 222.

628. Huts eginean tink egoitea da berritan huts egitea.

- Demeurer ferme en l'erreur c'est errer deux fois.
 - Empecinarse en el error es errar dos veces.
- . *Hut*]-*eginean*: marrarekin.
 . *hut*] / *eguitea*: lerro bitan bereiz eta marrarik gabe.

I⁷³

629. Ihabalia noiz ere ihabaliarekin liskartzen baita, aitzinjoileak duke garhaita.

- Le poltron lorsqu'il prend querelle contre un autre poltron, celui qui frappe le premier a l'avantage.
 - Cuando un cobarde se pelea con otro cobarde, el que primero pega lleva las de ganar.
- . *ihabalia*: cf. 274.
 . *duque*: "izango du", cf. 537.

630. Ixilik dagoenak eztió gezurrik.

- Celui qui se tait ne ment point.
 - El que está callado no miente.
- . *dagoênac*: dieresia "ordezkatzén" duen azentua *o*-ren ondoko bokalaren gainean; diptongoa ez, baina silaba bi direla adierazten du honek ere; *go*-e dela, alegia, ez *gwe* (cf. 541).

631. Indargabearen aserrea, hur errea.

- La colère d'une personne faible c'est comme une noisette rôtie, *c'est-à-dire une chose qui ne fait ni mal ni bien*.

⁷³ Liburuaren zati nagusian multzo bat eskaini zien Oihenartek "I" kontsonantez hasten ziren atsotitzei eta beste bat "I" bokalaz hasten zirenei, segida horretan. Hemen batera ematen ditu biak, "I" atal orokorraren pean. Atalaren barnean, hala ere, aurrena *I*- bokalaz hasten direnak ematen ditu (629-634) eta ondoren *I*- kontsonantez -hau da, gure *J*-z- hasten direnak (635-637). Ikusten denez, zati nagusikoa ez bezalako segida: han *J*-*I*, hemen *I*-*J*.

- La cólera del débil *es como* una avellana asada.

. *aferrea*: -/ bakuna bokal artean.

. *hurr*: -rr hitz amaieran, ohi ez bezala (cf. 618). Hemen beharbada balio bereizgarria du: *hurr* [“ur” jatekoa] / *hur* [“ur” edatekoa (XXVI, 16)]; lehenak -rr azkarra du (> *urra*) eta bigarrenak -r leuna (> *ura*). Azken hau, hala ere, *ur* idazten du normalean, *h*-rik gabe (75, 457, 643; I, 6; XVII, 105; XXII, 2).

632. Inhardetsi on bat erran gaxto bati, guti da gusta anhitz balio duenagati.

- Une bonne réponse à un mauvais discours coûte peu et vaut beaucoup.
- Una buena respuesta a una mala palabra poco cuesta para lo mucho que vale.

. *onbat ... gaxtobati*: *bat* loturik.

. *gosta*: hitzen tradizioa ikusita, pentsatzekoa da -/t- grafiaren lekuan dagoela -st- grafia eta, hortaz, *gosta* irakurri behar dela, ez *gozta*.

. *duênagati*: dieresia “ordezkutzen” duen azentuaz, cf. 541.

→ Cf. 242, 291, 318, 576.

633. Inhar batetarik su handi jalgi daite.

- D’une bluette peut sortir un grand feu.
- De una chispa puede surgir un gran fuego.

. *Inharbatetarik*: lotuta.

. *ialgui daite*: **edin* laguntzailea, orainaldi *KE*-duna, “jalgi daiteke”, “atera daiteke”.

634. Ibia duenak igaren, daki osina zein den barrhen.

- Celui qui a passé le gué sait combien la rivière est profonde.
- El que ha pasado el vado sabe cuán profundo es el pozo.

. *duênac*: dieresia “ordezkutzen” duen azentuaz, cf. 541.

. *igaren*: besteetan *iragan*- (662, 677; I, 5; II, 13; V, 34; XVI, 4; XVIII, 8; XX, 12); *igaren* aldaera, berriz, bitan baizik ez (634 eta XXII, 1).

. *barrhen*: gainerako agerpenetan *barren*-, aspiraziorik gabe (cf. 330, 600). *H*-ren aurrean *rh* idazten du normalean *rr* azkarra, *r* leuna

bezala: *aurbide* (55, 115), *urbe* (5, 464, 465, 466), *urhats* (648), *berho* (501); hemen eta *Urrhenkina* tituluak bakarrik idazten du *rrh*.

635. Jainkoak didala behazale bezala adizale.

- Dieu me donne des gens qui m'entendent aussi bien que des gens qui m'écotent.
- Que Dios me de al igual que gente que me oiga también gente que me entienda.

. *didala*: euskara zaharreko **i(n)* errotik sortutako adizkia, “subjuntiboko” orainaldia, *hura-niri-bark*, ondotik *-(e)la* atzizkia duela, “eman diezadala” (cf. 30, 690; V, 21; IX, 4).

. *behasale ... adisale*: Haritschelharrek (1992: 199): “Lehenak aipatzen du beha dagoen jendea, entzuten ari dena, bigarrenak ez du bakarrik aipatzen entzulea, entzulea baita fisikoki entzuten duena, bainan adizalea, bere adimenduan kokatzen duela entzunikakoa. Aditzen duenak du entzuten, ulertzen, konprenitzen”.

636. Jainkoagana, ukhenago duena da zordunago.

- Qui plus a reçu du bien de Dieu lui est plus redevable.
- A Dios, quien más ha recibido más le debe.

. *vkhenago ... sordunago*: *kh* aspiratuaz, cf. 1; *-ago* atzizkiaren idazkeraz, berriz, cf. 84. Lehenbizikoan konparazio atzizkia partizipioari lotzen zaio.

. *duêna*: cf. 541.

→ Haritschelhar (1992: 199): “Atsotitz honen idurikoa aurkitzen dugu frantses paremiologian: *A qui Dieu plus a donné / Plus est à lui obligé*”.

637. Jokatzea oro gal, da mando hilarekin ehorztea arbalda.

- C'est jouer à tout perdre que d'enterrer le bât avec la mule morte.
- Jugárselo todo, es enterrar la albarda con la mula muerta.

L

638. Laster bildua, laster urratua.

- Ce qui est tôt amassé est tôt dissipé.
- Lo rápidamente recogido, rápidamente disipado.

. *bildüa ... urratüa*: dieresia, *u* eta *a* bokal bi, normalean silaba banatan.

639. Latsari onari, eztakidio falta latsarri.

- A une bonne lavandière ne saurait manquer la pierre pour y battre la lessive.
- A la buena lavandera no le faltará piedra lavadera.

. *estaquidio falta: dakidio*, **edin* laguntzailearen orainaldia, *hura-hari*; *KE*-dunen pareko forma, baina *KE* morfema gabe eta erroaren *-di-* gordeta, *nori* adierazten duen *-o* morfemaren aurrean kokatua; batuan *dakioke* (cf. 59, 427, 514; III, 8).

640. Lexanzuko tonborrariari, urre bi joiteko, sei ixilsari.

- Au ménestrier de *Lichans* il faut deux pièces de dix-huit deniers pour le faire sonner et six pour le faire taire.
- Al tamborilero de Lexanzu, dos monedas de oro para que se ponga a tocar y seis para hacerle callar.

. *ſey*: -y grekoa diptongoaren bigarren silaba adierazteko.

→ Haritschelhar (1989: 554): “Dakigularik zein maite duten Ziberotarrek soinua eta dantza, hobeki ulertzen da atsotitz honek daukan metafora, erakusteko nola ezin ixilarazizkoak diren jende batzu, nardagarriak bilakatzen direla”.

M

641. Mahaian errana bego gorderik dahailan.

- Que ce qui est dit à table demeure caché dans la nappe.
- Lo dicho en la mesa quede escondido bajo el mantel.

- . *Mahaian*: dieresiak *i* bokala dela adierazten du.
- . *dahaillan*: -ill- grafia alboko sabaikaria adierazteko.

642. Mandatari hotza, berant abia, baratx joan eta itzuli hutsa.

Ikusak 316garren atsohitza.

- Le messenger froid s'en part tard, marche lentement et revient tout vide.
Voyez le proverbe 316.
 - El mensajero frío parte tarde, va lento y vuelve vacío.
Ve el proverbio 316.
 - . *barax*: *x*-ren balioaz, cf. 316.
 - . *316 garren*: bereiz.
 - . *atsohitza*: beste agerpen guztietan *atsotitz*, aspiraziorik gabe (cf. izenburu eta atalburuak eta 373); hemen gorde egin du *hitz*-ek duen aspirazioa.
- Ikus 316 eta han aipatuak.

643. Mandoak, osinari.

Adi ezak ur emaiten duela, gernu egitean.

- Le mulet donne de l'eau à la rivière, quand il y rend son urine. *Il donne à la rivière ce dont elle abonde.*
 - El mulo, al pozo.
Entiende que le da agua cuando orina.
 - . *emaiten duela*: komunztadurarik ez isilpean ulertzen den *ossinari* datiboarekin.
- Okoad 35[3]: *Mandoac ossinari / dienac dienari*. Bigarren zati bat eransten du honek, "quien tiene a quien tiene".

644. Mihi gaixtoari, alkatea urkari.

Zeren gaxtoak urkaeraziten baititu.

- Le médisant traite le magistrat de bourreau sous prétexte de ce qu'il fait mourir les malfaiteurs.
- Para el difamador, el juez es verdugo.
Porque manda a la horca a los malvados.
 - . *Gaixtoari*: *gaixto*- (121, 644; IX, 4); *atsotitz* honen bigarren esaldian eta gainerako agerpen guztietan *gaxto*-.

. *Alkatea*: maiuskularekin, cf. 490.

. *vrka erasiten*: bereiz.

645. Min bilha dabila, gudukara dohena azkarragoarekila.

- Celui-là cherche son mal qui va faire querelle à un plus fort que lui.
- Busca *su propio* mal quien va a pelearse con alguien más fuerte *que él*.

. *Min-bilha*: marrarekin.

. *dohena*: cf. 555.

646. Minik handienak, burutik heldu direnak.

- Les plus grands maux sont ceux qui viennent de la tête, *c'est-à-dire de nos chefs ou maîtres*.
- Los peores males, los que vienen de la cabeza.

647. Minza bite guzaz zeihar, eta bira gure behar.

- Qu'ils parlent mal de nous et qu'ils aient besoin de nous.
- Que hablen mal de nosotros y que nos necesiten.

. *Minsa bite*: *bite*, **edin* laguntzailea, agintealdia, "mintza bitez".

. *bira*: *izan* aditz sintetikoa, agintealdia, "izan bitez". Ohar aldea: *bite* laguntzailea (**edin*) / *bira* sintetikoa (*izan*).

648. Mothil nagiak, urhats baten gupidaz goizean, hamar beharko ditu egin arratsean.

- Un serviteur nonchalant, pour ne pas faire un pas le matin, sera obligé d'en faire dix le soir.
- El siervo vago, por ahorrarse un paso a la mañana tendrá que dar diez por la tarde.

. *vrhat[baten]*: lotuta.

N

649. Nahiago dut arsto jasan nezan bat, ezi ez zaldi egotz nezan bat.

- J'aime mieux un âne qui me porte qu'un cheval qui me jette par terre.
- Prefiero un burro que me lleve que un caballo que me eche.

. ar[st]o ia[ss]an nesanbat ... saldi egoz nesanbat: bietan erlatiboa izen ardatzaren eskuinean eta bat mugatzailea adizkiari lotua; jasan eta egotzi-ren aditzoinak eta *ezan laguntzailea, "subjuntiboko" orainaldia, -e- bokala duela, ni-hark, "jasan nazan" eta "egotz nazan".

. esies: cf. 150.

650. Nahikariak edertarutzen ditu gauza itsusiak.

- L'affection fait paraître belles les choses laides.
- El afecto hace bellas las cosas feas.

. edertarazen, gure edertarutzen: -araz + tzen > -aratzen (cf. 106).

. it[us]siac: hitz honen idazkeraz, cf. 186.

→ Esanahiari dagokionez, cf. 186 eta han aipatzen diren beste hizkuntzetako atsotitzak. Urkijok RS 242ren iruzkinean aipatzen dituen frantseseko hauek erantsi daitezke: *L'affection aveugle la raison. Le cœur a ses raisons que la raison ignore. On voit toujours par les yeux de son affection.*

651. Nahi du jakin zein zen lehen egina, ala zorroa ala irina.

- Il veut savoir lequel fut fait plus tôt, ou le sac ou la farine. *On dit cela de ceux qui ont de curiosités vaines.*
- Quiere saber qué se hizo antes, el saco o la harina.

652. Neke da beleaz auztore egitea.

- Il est difficile de faire d'un corbeau un autour.
- Es difícil hacer de un cuervo un azor.

. au[st]ore: tradizioko erabilera eta 85. atsotitzeko idazkera ikusita, pentsatzekoa da -st-ren lekuan dagoela -[t]- grafia eta, hortaz, gure -zt- irakurri behar dela (ikus OEH s.v. *aztore*).

653. Noizik behin gertha daiteen gaitzeti, on da begiratzea bethi.

- Il est bon de se garder toujours du mal qui peut arriver une fois ou autre.
- Del mal que puede suceder de vez en cuando es bueno estar siempre vigilando.
 - . *guertha daiteen*: “*edin* laguntzailea, *KE*-dun orainaldia, gure “daiteke” formaren parekoa, erlatiboan, “gerta daitekeen”.
 - . *bethi*: cf. 98. Ohartzekoa da *-eti* / *-ethi* errima, aspirazioa gorabehera.



654. Ogen egiten du onei, barkatzen duenak gaxtoei.

- Celui-là fait tort aux bons qui pardonne aux méchants.
- Ofende a los buenos quien perdona a los malos.
 - . *oney ... gaxtoey*: *-y* diptongoaren bigarren bokala adierazteko. Datiboarekin komunztadurarik gabeak adizki biak.

655. Ohakoan dena ikasten, nekez da gero ahazten.

- Ce qui s'apprend au berceau s'oublie après malaisément.
- Lo que se aprende en la cuna es difícil luego de olvidar.
 - . *nequez*: *-z* ageri da hitz amaieran, baina errata dela dirudi, ez baita gure *-tz* irakurri behar, gure *-z* baizik; gainerako agerpenetan, hain zuzen, *neques* idazten da (198, 557).
 - RS 420: “*Hugazean edaten dana / çerraldo etan essuro*. Lo que en la teta se beue / en las andas se vierte”. Gaztelaniaz: *Lo que en la leche se mama, en la mortaja se derrama*. Akademiak dioenez, “se denota que todo cuanto se infunde é imprime en los primeros años, suele arraigar de manera que se retiene toda la vida”.

656. Ohetik mahaira, mahaitik zuzulura, korrongaz paradusura. Zuzulluan egiten obi da eguerdi-loa.

- Du lit à la table, de la table à l'archibanc, et de là en ronflant au paradis. *Ceci se dit des fainéants et voluptueux; l'archibanc est le lieu où l'on fait le sommeil de midi.*

- De la cama a la mesa, de la mesa a la banqueta y roncando al paraíso.
En la banqueta se hace la siesta.
 - . *susulura* ... *Suçulluan*: bitan ageri da hitz hau atsotitz honetan eta badira aldeak bien artean; batean *-su-* eta bestean *-çu-*, batean *-lu-* eta bestean *-llu-*.
 - . *Korrongas*: *K* maiuskula, cf. 579.
 - . *paradusura*: hitz honen tradizioa ikusita, pentsatu behar da *-j-* luze bakunaren lekuan dagoela *-s-* txikia, apikaria adierazteko.
 - Okoad 358: *Oheti mahaira, mahaitic / ohera, / korrongas / p`aradusura*. Haritschelharrek (1989: 560) honela azaltzen du zer den *zuzulua*: “Supazter xokoan den aulki haundia da züzülia, muble euskaldunik balinbada züzülia da, ez baita holakorik ikusten bertze herrialdetan. Ohe, mahai, züzülü, alferraren bizi eder baten amentsa”.

657. Ohoin handiak urkaerazten ditu xipiak.

- Le gran larron fait pendre les petits.
- El ladrón grande manda a la horca a los pequeños.
- . *vrka erasten*: bereiz.
- Esanahiari dagokionez, cf. 478.

658. Oihal ona kutxan dagoela sal daite.

- Un bon drap se pourra vendre sans le sortir du coffre.
- El buen paño en el cofre se vende.
- . *kuxan*: hitz honen tradizioa ikusita, pentsatzekoa da Oihenartek *kux*an*, hau da, gure *kutxan*, idatzi eta moldiztegian puntua galdu zela (cf. 45).
- . *sal daite*: **edin* laguntzailearen *KE*-dun orainaldia, gure “daiteke” formaren parekoa, “sal daiteke”.
- Okoad 308: *Ojal ona hutchan saldu / doa*. Honen berdina da RS 541 (*TAV*).

659. Onegi dena beretako ezta aski bertzentako.

- Celui qui est trop bon pour soi ne l’est pas assez pour les autres.
- El que es demasiado bueno para sí mismo no lo es lo bastante para los demás.
- . Cf. 531.

660. Orotako gaxtoen ospina, da arno ezitik egina.

- Le plus méchant vinaigre c'est celui qui se fait du vin doux.
- El peor de todos los vinagres es el hecho con vino dulce.

. *gaxtoê ospina*: ohar izen-adjektiboen ordena “gaixtoen ospina”, hots, “ozpin gaixtoena”.

661. Orritsetan du erhoak ona gastatzen, eta zuhurrak berea goitiatzen.

- Aux festins le fol dissipe son bien et le sage épargne le sien.
- En los festines el necio gasta sus bienes y el prudente los ahorra.

662. Othoi sainduari, deraunsano ekaitzari.

- Il prie le saint tandis qu'il y a orage.
- Reza al santo mientras azota la tormenta.

. *Othoi*: hitz honen idazkeraz, cf. 228.

. *deraun[sano]*: *deraunsa*, *erauntsi* aditzaren orainaldia, ondotik denborazko *-(e)no* atzizkia duela, 433 bezala (cf. *OEH*, s.v. *erauntsi* 5).

→ Okoad 312 eta RS 545 (*TAV*): *Otu doneari ygarartean / nequea*. Hau da, “Ruega al santo mientras pasa el trabajo”.

663. Othoitzen eztakiena Jainkoari, berraio itsasoari.

- Celui qui ne sait prier Dieu qu'il s'adonne à la mer pour l'apprendre.
- Quien no sabe a Dios rezar, que se dedique a la mar.

. *Othoizen*: hemen *-th-*, baina *otoitu-* (V, 19; XVII, 113); cf., halaber, 228.

. *berraio*: batzuek *jarraiki* aditzaren aginte alditzat daukate, *nor-nori* sailekoa “*jarraiki* bekio”; beste batzuek, berriz, *erran* aditzarena dela diote, *nor-nori-nork* sailekoa, “*erran* biezaio”. Subjektoa –“*eztakiena*”– absolutiboan egoteak aditz irangangaitzaren alde egiten du, beharbada. Badu, gainera, *jarraiki* aditzak adiera bat atsoitiz honi ondo doakiona: “ocuparse de, dedicarse a (una actividad, trabajo, oficio...)” (*OEH*, s. v. *jarraiki*)⁷⁴. Esanahia, hortaz,

⁷⁴ Cf. “...ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarrei qui içan gaitzaitza” (Leizarraga, *Heuscalduney*).

argia dela dirudi: otoitz egiten ez dakienak edo egin nahi ez duenak har dezala itsasoko lanbidea. Laster ikasiko du otoitz egiten, ekaitza denean!

S⁷⁵

664. Sabeldurak gaitz ditu urak.

- Au flux de ventre l'eau est malsaine.
- Las aguas son malas para el flujo del vientre.

665. Saindu maña, otso hazaña.

- Il a la contenance d'un saint et les actions d'un loup.
- Aspecto de santo, acciones de lobo.

. *mana ... hazana*: pentsatzekoa da Oihenartek *n*[•] idatziko zuela bi hitz hauetan, bere sistemaren arabera, non *n*[•] grafiak gure *ñ* sabaikaria adierazten duen, baina, ohi bezala, puntua moldizte-gian galdu zela. *Mana*-ri dagokionez, cf. 82. *Hazana*-ri dagokio-
nez ere egokiena da pentsatzea *hazaña* dela azpian, hitza argitu-
ko duen beste azalpenik aurkitzen erraz ez baita eta horixe bai-
tator, gainera, ondoen frantses itzulpenarekin (“les actions”).
Oihenarten aztertzaileek ez dute azalpen hau aurkitu, haren
idazkeraren eta idazkera hutsen berezitasunak aintzat hartu ez
dituztelako (cf. 6). Hori beste zuzenketarik egiten ez badugu,
bestalde, *hatzaña* irakurri beharko genuke bigarren hitza,
Oihenarten -z- letrak gure -tz- balio baitu. Hitz hau
Hegoaldekoa izanik, ordea, pentsa daiteke -z- hori Oihenarten
sistemako -s- ren lekuan dagoela eta, hortaz, ez dela *hatzaña* ira-
kurri behar, *hazaña* baizik. Ikusten denez, bada, azalpen hauek
zuzenak badira, atsoitz honek Hegoaldean izango luke jatorria.

⁷⁵ Hemen ez dira liburuaren lehen zatiko bilduma nagusian bezala S letrako multzo bi bereizten (bata gure S-ri eta bestea gure Z-ri dagozkionak, hurrenez hurren). Hemen mul-
tzo bakarra da (664-672) eta denak gure S- apikariari dagozkionak.

666. Sariak zathitu ondoan, ageriko da zer den hirerik urpoan.

- Après que les salaires auront été partagés, il paraîtra ce qu'il y aura du tien dans le monceau de grain. *Parmi les laboureurs du Pays de Basques, on paie en grain ceux qui travaillent à battre les blés.*
- Después de repartir los salarios se verá qué hay tuyo en el montón de grano.

. *sathitu-ondoan*: marrarekin; *-tb-* aspiratuari buruz, cf. 563.

667. Sar zekidan limikatuz, jalgiten zait hortzkatuz.

- Il s'introduit auprès de moi en léchant et il s'en retire en mordant.
- Se me acercó lamiendo, se me va mordiendo.

. *Sar sequidan*: **edin* laguntzailearen iragana, *hura-niri*, "sartu zitzaidan".

. *horzcatuz*: lexemaren buruko *-tz* afrikatua ez da igurzkari bilakatzen *-k* leherkariaren aurrean (cf. 9).

→ Esanahiari dagokionez, cf. 616.

668. Sendo nahi dituka begiak? Lot itzak eure erhiak.

- Veux-tu avoir les yeux sains? Lie tes doigts *ou* tes mains.
- ¿Quieres tener sanos los ojos? Átate los dedos.

. *dituca*: *dituk* adizkia + *-a* galde atzizkia.

. *lot*: minuskularekin.

669. Sentona, agorrilan bidez bahoia, uk eureki ekitakoa.

- Vieillard, si tu voyages en août, aie avec toi ton parasol.
- Anciano, si te pones en camino en agosto, lleva contigo la sombrilla.

. *bahoa*: cf. 61.

. *uk*: **edun* aditz sintetikoaren aginte aldia, *hura-hik*, ohi bezala *h-rik* gabe, "ukan ezak". Ohar aldea: *ezak* laguntzailea (**ezan*) / *uk* sintetikoa (**edun*).

→ Berdintsua da Okoad 363: *agorriletan* eta *escuetan* dio honek haren *agorrilan* eta *eurequi* hitzen lekuan.

670. Sobera jakinsu izanez, gabe zedin axeria buztanez.

- Pour avoir été trop savant, le renard perdit sa queue.
- Por ser demasiado astuto perdió su cola el zorro.

. *iaquin*su: hemen ∫ luze apikariarekin, baina *iakinsu* (VII, 7).

. *gabe sedin*: *gabetu*-ren aditzoina eta **edin* laguntzailea, iragana, *hura*, “gabetu zen”.

671. Soska soska, biltzen da franka.

- Sou à sou s’amasse le franc.
- Céntimo a céntimo, se hace el franco.

. *franca*: *frank* izena + *-a* mugatzailea, bestek ‘frankoa’ esango lukeena.

→ Gutxika biltzearen ideia hori atsotitz askotan ageri da. RS 61: “*Guichia guichia asco eguin doa*. Poco a poco se haze mucho”. RS 94: “*Dindica murcoabetatu doa*. Gota a gota se hinche el cantaro”. Biltzea ez, baina galtzea adierazten duen gaztelaniazko hau aipatzen du Urkijok: *Gota a gota, el mar se apoca*. RS 350: “*Guichia guichia urrinlioque*. Poco a poco se podria yr lexos”.

672. Sua datxekonean auzoko etxeari, gogoa emak eureari.

- Lorsque le feu brûle la maison de ton voisin, prends garde à la tienne.
- Cuando se declara fuego en la casa de al lado, mira a la tuya con cuidado.

. *daxeconean*: hemen ere pentsa daiteke Oihenartek *dax***econean*, hau da, gure *datxekonean*, idatzi eta moldiztegian puntua galdu zela (cf. 53 eta 139). *Datxeko*, *atxiki* aditzaren orainaldia, *hari-hura*, “atxikitzen zaio”.

. *auçoco*: ç grafia, Oihenarten sistemako *s*-ren lekuan.

. *exeari*: *x*-ren balioaz, cf. 45.

. *gogoa emac*: beste behin *gogo emac* (551).

T

673. **Thu etxatua zeruan gora, begithartera derora.**

- Le crachat que tu jettes contre le ciel retombe sur ta face.
- El salivazo escupido hacia arriba cae a la cara.
 - . *Thu*: leherkari aspiratua *th* idatzia.
 - . *exatua*: hitz honen tradizioa ikusita, pentsatzekoa da Oihenartek *ex^{*}atua*, hau da, gure *etxatua*, idatzi eta moldiztegian puntua galdu zela.
 - . *ceruan*: *ce-* grafia, *Urrhenkina*-n behin baino gehiagotan ageri dena.
 - . *beguithartera*: hemen *-th*-rekin, baina *begitarte-* (157, 280; V, 53; X, 5; XII, 6; XXI, 2; XXVI, 15)
 - . *derora*: *erori* aditzaren orainaldia, “erortzen da”.

U

674. **Urdaia eta arnoa, urthekoa; adiskidea, urthetakoa.**

- Le lard et le vin de l’année courante, l’ami de plusieurs années *sont les meilleurs*.
- El tocino y el vino, del año; el amigo, de años.
 - . *vrthecoa* ... *vrthetacoa*: *Urrhenkina*-n *urthe-* (674, 677, 678, 681, 688), bestetan *urte-* (95, 308, 309, 468, 469, 470, 471, 524; IV, 7; VI, 2; XIX, 9).
 - Adiskide zaharraz, cf. 2 eta 540. Urkijo Esk. 2. atsotitzaren iruzki-nean: “*Amigo, viejo; tocino y vino, añejo*, ref. que advierte que de estas tres cosas la antigua es la mejor (Acad., *amigo*)”.

675. **Urrunera dohena ezkontzera, edo da enganatu edo doha enganatzera.**

- Qui loin se va marier, ou il est trompé, ou il va tromper.
- El que se va lejos a casar, o va engañado o va a engañar.
 - . *dohena* ... *doha*: cf. 580.
 - Schuchardtek biarnesezko hau aipatzen du: *Lou qui ba louenh maridat, / Si nou troumpe qu’ey troumpat* (1911: 454).

Haritschelhar (1994: 675): “Gauza bera edo bertsoa (*sic*) errepi-
katzen delarik hala espainolez nola frantsesez: *Moza hermosa y
con dinero, yo forastero / y a mí me la dan: trápala. Tranpalán.*
Hurbilagoa da frantses errefraua: *Qui loing se va marier / Sera
trompé ou veut tromper*”.

676. Urrun hiriti, urrun osagarriti.

- Loin de la ville, loin de la santé. *C’est d’autant qu’en la ville l’on trouve des médecins et autres choses nécessaires au malade, mieux qu’à la campagne.*
- Lejos de la ciudad, lejos de la salud.

677. Urthearekila, iragan dateeno, kexa ezadila.

- Ne te plains pas de l’année jusques à ce qu’elle soit passée.
- Del año, hasta que haya pasado no te quejes.

. *Vrthearequila*: cf. 674.

. *iragan dateeno*: *date*, *izan* laguntzailearen orainaldi *KE*-duna, *KE* morfema gabe bada ere (cf. 524), ondotik *-(e)no* denborazko atzizkia duelarik, “iragan datekeeno”, “iragaten deno”.

→ RS 231: “*Digaran artean / ez hurtea gati gasoric essan*. Hasta que sea pasado / no digas mal del año”. “Advierte –según la Academia– que hasta ver las cosas del todo, no se puede hacer juicio cabal de ellas”. Beste hizkuntzetan ere ezaguna da atsoitiz hau: *Man soll ein Jahr weder loben noch schelten, ehe es nicht vorüber ist. Non diz mal dell’ anno finchè passato non sia....*

678. Urthe ehunez gudukan, eta behin ere ez kolpukan.

- Ils se querellent depuis cent ans et ils ne se battent jamais.
- Cien años en pelea y nunca se golpean.

. *Vrthe ehunes*: *-th-* idazkeraz, cf. 674. *Ehun* zenbatzailea izenaren eskuinean (cf. 356, 522; XVII, 52).

. *behin ere es*: bereiz.

X

679. Xekenak onik eztu, urrazaleak eztuke.

- Le chiche n'a point de bien, le prodigue n'en aura pas.
- El avaro no tiene bienes, el derrochador no los tendrá.
 - . *estuque*: *duke*, **edun* aditzaren *KE*-dun orainaldia, baina geroaldia adierazten duena, "ukanen du", "izango du".

—⁷⁶

680. Amaizunari kexua.

- Porter la plainte à la marâtre. *C'est se plaindre en vain, parce que la marâtre n'a pas coutume de faire justice à son fillâtre.*
- Quejarse a la madrastra.
 - . *kexüa*: dieresia, *u* eta *a* bokal bi, normalean silaba banatan.
 - / Haritschelhar (1991: 190): "C'est un diction qui équivaut à 'donner un coup d'épée dans l'eau'". Izan ere (*ib.* 1994: 289), "amaizunari kexua agertzen diona debaldetan ari" da.

**681. Aberatsi nahi zena urthe bitan,
urkha zedin urtherditan.**

- Celui qui voulait devenir riche dans deux ans se fit pendre dans demian, *parce qu'il volait pour s'enrichir.*
- El que quiso enriquecerse en dos años terminó en la horca en medio año.
 - . *Aberatji*: partizipioa.
 - . *nahi sena*: *nahi izan* iragangaitza.
 - . *vrthe ... vrtherditan*: cf. 674.

⁷⁶ Ezer adierazten ez bada ere, aurreko atsoitzarekin amaitu da hurrenkera alfabetikoz bil-duriko "Atsoitzen urrhenkina". Hemendik aurrera beste atsoitz multzo bat ageri da, hau ere alfabetoaren arabera ordenatua, baina azpimultzotan banatu gabea, hau da, dena segidan emana eta letra bakoitzaren aipamenik egiten ez duena. Emendioka ibili zen, bada, hemen ere Oihenart, liburuaren zati nagusian bezala.

. *vrkha sedin*: *vrkha* hemen, baina *vrka-* / *vrca-* (148, 181, 459, 478, 644, 644, 657; XXII, 5); **edin* laguntzailea, iragana, “urkatu zen”, hau da, “urkatua izan zen”.

682. Atseginak atsegin dekharke.

- Le plaisir produit plaisir.
- El placer produce placer.

. *Atsegin*: maiuskularekin esaldi barnean.

. *dekharque*: hemen *-khar-*, gainerakoetan *-kar-* / *-car-*. *Ekarri* aditzaren *KE*-dun orainaldia, *-e-* bokala duena, “présent intemporel”, “ekartzen du” (cf. 50).

683. Atsoak zerzaz eros duenean, ezta' aragirik arakintzean.

- Quand la vieille a de quoi acheter, il n'y a pas de chair chez le boucher.
- Cuando la anciana tiene con qué comprar no hay carne en la carnicería.

. *serzas erof*: hitz amaieran *-f*, “zuzen” bestetan ez bezala. *Erosi*-ren aditsoinarekin eginiko esaldia, “zerekin eros” izan.

. *est' aragiric*: apostrofoak *-a* bokalaren elisioa adierazten du (cf. 92).

→ Berdin Okoad 386, baina *atsoa*, absolutiboan, eta *duênean*, dieresiaren ordezkotzat azentuekin.

684. Bere burua ezagutea, da jakitea.

- Se connaître soi-même est la *vraie* science.
- Conocerse a sí mismo es el saber.

. *burüa*: dieresiak *u* hori bokala dela adierazten du, hau da, [bu-ru-a] dela, ez [bur-ba].

. *esagutea*: *ezagun* aditzaren izena *ezagute-*; ikus, hala ere, *ezagutze*- (330 eta XXV, 1).

→ Berdinak dira Okoad 321 eta RS 554 (*TAV*), non *bere burhua ezagutea*... idazten den. RS 158: “*Ezavn adi / ta ajate ondo bici*. Conocete, / y seras de bien biuir”.

**685. Berberak jaten duenak bere oiloa,
berberak errekeita beza bere oloa.**

- Celui qui seul mange sa poule, que seul il cueille son avoine *ou son orge*.
- El que se come él solo su gallina, que coja él solo su avena.
 - . *jaten*: *j-* aldaera hitz hasieran.
 - . *oilloa*: *-ill-* grafia alboko sabaikaria adierazteko, cf. 248.
 - . *beça*: *ç* grafia osterera ere, cf. 582, 654, 672.

686. Berzeren eskuz sugea berrotik athera nahi du.

- Il veut tirer le serpent du buisson avec la patte d'autrui.
- Con la mano de otro quiere sacar la serpiente del zarzal.
 - . *Berceren*: *-ce-* grafia; *bertze* / *berze* bitasunaz, cf. 68.
 - . *berrotic*: cf. *berho* (501).
 - . *athera*: *-th-* aspiratuarekin hemen, cf. 137.
 - Okoad 275 eta 390 berdinak dira. Ikus Zalgize 72: *Berceren larruiaz correiac luce*.

**687. Konderanak eztu erlerik,
eta dago eztiz betherik.**

- Conderane (*c'est le nom propre d'une femme*) n'a point d'abeilles et elle a beaucoup de miel. *C'est pour dire que son miel procède de larcin*.
- Conderana no tiene abejas y rebosa en miel.
 - . *betheric*: *-th-* aspiratuarekin, cf. 262.

688. Ehun urtetan ikhus dirok jauna bilaunturik, eta bilauna jaunturik.

- Pendant cent ans, tu pourra voir un seigneur devenu roturier et un roturier devenu seigneur.
- En cien años puedes ver a un señor hecho villano y a un villano hecho señor.
 - . *vrthetan*: cf. 674.
 - . *ikhus diroc*: *-khu-* grafia hemen, leherkaria aspiratua dela adieraziz, gainerakoetan *-ku-* / *-cu-*. Hitz amaieran *-s* txikia *-j* luzearen

lekuan, apikaria adierazteko (cf. 275); **iro* ahalezkoaren orainaldia, “ikus dezakek”.

. *jaunturic*: *j-* aldaera hitz hasieran.

→ Okoad 377: *Ehun vrt`etan ikus / ditçaquec vılauna jaunzen / eta jauna vılaunzen*. Esanahiari dagokionez, cf. 301.

689. Emazurtzari lurra ere alha.

- A une veuve ou orpheline, la terre même à nuire s’obstine.
- Al huérfano hasta la tierra le come.

. *Ema surzari*: bereiz.

. *alha*: *alha izan*-en aditzoina.

→ Okoad 285 eta 389 berdinak dira.

690. Eskerrak iztadan, zeren neure haziendari on daritzadan.

- Sens-moi bon gré de ce que j’ai soin de mon bien.
- Dame las gracias, porque cuido mis bienes.

. *istadan*: euskara zaharreko **i(n)* erroitik sortutako adizkia, aginte aldia, *haiek-niri-bik* fem., *idan*-en plurala, “eman iezazkidan” (cf. 30, 690; V, 21; IX, 4). Datiboari dagokion morfema bitan ageri da forma honetan: *ta-da* (Lafon 1949: 441).

. *on-/daritzadan*: lerro bitan banatua, baina marraz elkarketa ere adierazten duela beharbada (cf. 176); *on daritzat*, *on iritzi* aditzaren orainaldia, *-a-* bokalarekin (176 ez bezala), *-(e)n* menderatzailea ondoan duela.

→ Okoad 323: *Esquerrac yndanz ce / onderexta ene gau[ç]ary*. Berdin RS 556 (TAV).

691. Esku orotako makila da.

- Il est bâton à toutes mains. *C’est-à-dire, il s’accommode avec toute sorte de gens*.
- Es bastón de todas las manos.

→ Okoad 259 eta 341 berdinak dira.

**692. Esteiari izan denari bethiere,
on derorkona hanitz zaio, apur badere.**

- A celui qui a été toujours misérable, le bien qui lui arrive lui paraît grand, pour petit qu'il soit.
- Al que siempre ha sido miserable el bien que le cae, por poco que sea, le parece mucho.

- . *bethiere*: -th- grafia, leherkariaren aspirazioa adieraziz, cf. 98.
- . *derorkona*: *derorko*, *erori* aditzaren orainaldia, *hura-hari*, erlatiboan, "erortzen zaiona" (cf. 673). Aditza izen ardatzaren eskuinean: "on derorkona", "derorkon ona".
- . *haniz*: kasu bakarra aldaera honetan; bestetan *anhiz* –behin *anhis*– (cf. 92).
- . *çai*: ç grafia Oihenarten sistemako s-ren lekuan.
- . *badere*: bestetan *bad' ere*, apostrofoarekin (cf. 98, 254, 619). Hemen ere forma horretara aldatu beharko litzateke beharbada.

693. Eztagidala ximiko, nahi ezpaduk xarramiko.

- Ne me pince pas si tu ne veux que je t'égratigne.
- No me pellizques, si no quieres que te arañe.

- . *Estaguidala*: *dagidak*, *egin* aditzaren "subjuntiboko" orainaldia, ezezkako agintea, *hura-niri-hik*, "ez dagidaala", "ez diezadaala egin".
- / Okoad 356: *Estaguiela ximico / nahi estienac / xarramico*.

694. Ezta zer eska gari zuharrari.

- L'on n'a que faire de demander du froment à l'ormeau, *parce qu'il n'en saurait produire*.
- No hay que pedir trigo al olmo.

**695. Eztate ungi zerbitzatu
bere mainatareki nahi duena dostatu.**

- Celui-là ne sera pas bien servi qui folâtre ou se joue avec son serviteur ou avec sa servante.
- No será bien servido el que quiera jugar con su criado.

- . *Estate ... serbizatu: date, izan* laguntzailearen orinaldi KE-dunaren baliokoa (cf. 524), baina geroaldia adierazten duena, “ez da zerbitzatuko”, hots, “ez da zerbitzatua izango”.
→ Esanahiari dagokionez, cf. 168 eta han aipatuak.

696. Gaparrak itzala begizu, bera bezala.

- Le buisson rend son ombre pleine de trous, selon ce qu’il est lui-même.
- La zarza, a su semejanza, *hace* la sombra con agujeros.
. *Gaparrac*: cf. *kapar* (33, 109).
. *beguisu*: ugaritasuna adierazten duen -zu atzizkia.
→ Okoad 248: *Gaparrac itzala bera / bezala*. Cf. 403.

697. Gathua ohoin izanagati, eztezala ohil eure gelati.

- Encore bien que que ton chat soit larron, ne le chasse pas de ta maison.
Il faut souffrir quelque incommodité pour une plus grande commodité.
- Aunque el gato sea ladrón, no lo echas de tu habitación.
. *Gathua*: cf. 603.
. *ohoin*: dieresiak *i*-ren bokaltasuna adierazten du, beharrezkoa ez bada ere.
. *estesala ohil*: *ohildu*-ren aditzoina (cf. 482); *dezala*, **ezan* laguntzailea, ezezakako agintea adierazteko, “bota ez dezaala (hik)”.

698. Guk uri badugu, izanen duzue ihitz.

- Si nous avons pluie vous aurez de la rosée.
- Si nosotros tenemos lluvia, vosotros tendréis rocío.
/ Okoad 346: *Guc euri badugu / uk`enen du[ç]ue ihitz*.

699. Mina nuen lepoan, lot nenzaten zangoan.

- J’avais mon mal au cou et l’on m’a pansé la jambe.
- Me dolía el cuello y me vendaron la pierna.
. *nüen*: dieresia, *u* eta *e* bokal bi, normalean silaba banatan.
. *lot nenzaten*: *lotu*-ren aditzoina; **ezan* laguntzailea, iragana, *ni-haiek*, “lotu ninduten”.

**700. Nihori pot egin behar duenak gibelaldean,
eztu irabazirik luzatzean.**

- Celui qui doit baiser quelqu'un au derrière, à délayer ne gagne guère.
- Quien haya de besar a alguien en el trasero, nada gana con dejarlo para luego.

. *poteguin*: lotuta.

. *duenac*: *nihori* datiboarekin komunztadurarik ez.

→ Cf. 305.

701. Neure behiti ezne, guri eta gazna athera nezan, eta neure xahala gal nezan.

- J'ai tiré lait, beurre et fromage de ma vache, et j'ai perdu mon veau.
- De mi vaca saqué leche, mantequilla y queso, y perdí a mi ternero.

. *gazna*: -z- grafia, Oihenarten sistemako -s-ren lekuan; bestetan *gasna*-, haren sistemak eskatzen duen moduan (10, 196, 346, XX, 17).

. *athera nesan ... gal nesan*: -th- grafiaz, cf. 137; **ezan* laguntzailea, iragana (cf. 8), "atera nuen", "galdu nuen".

→ Okoad 366 berdintsua da, ordena gorabehera: *Ezne, guri eta gazna / neure behitic / at`era nezan* (...). RS 513: "Eznea guria ta odola / errorean atera neban / ta ezer yrabaci ez neçan / ta ene beychua galnezan. Leche, manteca y sangre / saque de la teta, / y nada no gane / y perdi mi vaquilla".

**702. Ohi bano nauena akatatzenago,
zerbaiten eske dago.**

- Celui qui me caresse plus que de coutume me veut demander quelque chose.
- El que me acaricia más de lo habitual algo me quiere pedir.

. *naiüena*: dieresiak *u*-ren bokaltasuna adierazten du, ez dela [na-bena], alegia.

. *acata zenago*: bereiz, errata.

. *cerbaiten*: ce- grafia.

→ RS 68: "Laztanez ta apaca? Sin ser querido y con besos?". Urkijok italierako hau aipatzen du: *Chi ti fa piu carezze che non vuole, o ti ha ingannato, o ingannar ti vuole*. Eta, halaber, Itun Zaharreko

hau: “ (Prov, XXVII-6) (...) *Maite duenak egin uspela hobe da herradunaren musu maltzurra baino*. Mejores son las heridas del que ama que los ósculos fraudulentos del que aborrece”.

703. Orratzak bano hariak luzeago behar du izan.

- Il faut que le fil soit plus long que l’aiguille.
- El hilo ha de ser más largo que la aguja.

. *luzeago*: -ce- grafia ostera ere.

→ Zalgize 149: *Orratzac bano hariac luciago behardu*. Eta berdin, idazkera gorabahera, Okoad 287. Urkijo Esk: “Es usual”.

704. Saguak jan liroena, jan beza gathuak.

- Ce que la souris mangerait, que le chat le mange. *Il vaut mieux laisser prendre notre bien à celui de qui nous tirons quelque profit qu’à celui qui ne nous fait que du mal*.
- Lo que el ratón comería, que lo coma el gato.

. *Sagüac*: dieresia, *u* eta *a* bokal bi, normalean silaba banatan; beraz, *u* ez da mutua, hau da, ez da [sagak] irakurri behar.

. *jan liroena*: *j-* aldaera hitz hasieran; **iro* ahalezko laguntzailea, alegiazko orainaldia, *hura-hark*, erlatiboan, “jan lezakeena”, “jango lukeena”.

. *beça*: ç grafia.

. *gathuac*: cf. 603.

‣ RS 532 –eta Okoad 335–: “*saguac jango dauena / cartuac jandeçala*. Lo que ha de comer el rato / que lo coma el gato”.
Gaztelaniaz: *Lo que has de dar al rato daselo al gato*. “Refr. que aconseja se gaste de una vez con utilidad, y no se exponga al desperdicio ó hurto”.

705. Zalduna senhar ustean, zahar nendin ezustean.

- Dans l’espérance que j’ai eue d’épouser un chevalier, je suis devenue vieille sans y penser.
- Pensando casarme con un caballero me he hecho vieja sin darme cuenta.

. *senhar*: cf. 63.

. *es-vestean*: marrarekin.

→ Okoad 369: *Zalduna senharzat / kaussitu vstean (iguriquizean), çabar / (bilha) nendin, es vstean*. Urkijo Esk: *Oñezkorik nai ez, zaldizkorik etorri ez*. G. de Mujica.

706. Zer da mira, ardiak otsoari ihes ari badira?

- Quelle merveille, si la brebis fuit le loup?
- ¿Qué tiene de extraño que las ovejas huyan del lobo?

. *ihel*: cf. 193.

→ Okoad 385 berdina da.

URHENTZA⁷⁷

- FIN

⁷⁷ Ondoko orrian hasten da *Urrhenkina*-ko atsotitzen frantses izulpena, atalak honako titulu hau duelarik "TRADUCTION DU SUPPLEMENT DES PROVERBES BASQUES". Guk atsotitz bakoitzaren ondoan eman dugu itzulpen hori, grafia gaurkotuta.

O.^{Ten} GAZTAROA
NEURTHITZETAN.

La Jeunesse d'O. en vers Basques.

A PARIS.

M. DC. LVII.

A U L E C T E U R

Combien que les Basques aient assez d'inclination à la Poésie, si est-ce qu'ils ont fait si peu d'état jusqu'ici d'en observer les Règles, et même de les connaître, qu'en tout ce que nous avons soit d'imprimé ou de manuscrit de leurs ouvrages poétiques, il y a fort peu de Vers qui soient réguliers. Car ordinairement, croyant faire des Vers masculins avec des mots féminins (c'est-à-dire avec des mots qui ont la dernière syllabe brève et la pénultième longue), ils se contentent d'une syllabe ou de demi-syllabe de rime, au lieu qu'il y faudrait pour le moins une syllabe et demie, tout ainsi qu'aux Vers féminins français, italiens et espagnols. Et il y a même des Vers auxquels il en faut davantage, comme sont ceux que les Italiens appellent *sdrucchioli* et autres, qui finissent par des mots qui ont les deux dernières syllabes brèves. Avec cela ils ne sont guère exacts pour les césures et ils n'observent presque aucune élision ni synaerèse, quoique tant l'une que l'autre doivent être étroitement gardées en cette Langue, aussi bien qu'en celles des Espagnols et des Italiens, qui ne s'en dispensent jamais.

C'est ce qui m'a obligé, après avoir parlé de ces Règles en un autre ouvrage, à souffrir que ce peu de Vers, qui m'étaient échappés en mon jeune âge, voie le jour, afin qu'il apparaisse que la pratique de ces Règles n'est pas si malaisée en notre Langue qu'aucuns se sont persuadés, et non point pour autre sujet. Car comme en les composant je n'avais cherché que mon divertissement, aussi ne prétends-je pas, par la publication qui s'en fera, participer à l'honneur qui accompagne les ouvrages des bons Poètes. J'ai fait ajouter à la fin quelques rimes pies, pour exciter ceux qui ont plus d'affection et d'aptitude que moi à la Poésie à en faire de meilleurs et en plus grand nombre.

I R A K U R L E A R I

Nahiz Euskaldunak olerkigintzara aski emanak diren, hain arreta gutxi izan dute gaurdaino haren erregelak gordetzen eta are ezagutzen, non inprimaturik edo eskuz idatzirik ditugun haien olerki lan guztietan oso bertso gutxi baitira zuzenak. Zeren komunzki bertso arrak egin ustez hitz emeeekin, (esan nahi baita, azken silaba laburra eta azkenurrekoa luzea dutenekin), askitzat daukate silaba bat edo are silaba erdia errimarako, beharko litzateke elarik silaba eta erdi gutxienez, neurtitz eme frantses, italiano eta espainoletan bezalaxe. Eta badira gehiago behar duten neurtitz batzuk ere, hala nola italianoek *sdrucchioli* (esdrújuloak) deriztenak, bai eta bi azken silabak laburrak dituzten hitzez amaitzen direnak. Horrez gain ez dira guztiz zehatzak zSUREtan, eta ez dute ia batere elisiorik ez eta sineresiarik egiten, nahiz eta hizkuntza honetan behar diren bata eta bestea hertsiki atxiki espainolen eta italianoenetan bezalaxe, salbuespenik egin gabe.

Horrek bortxatu nau, erregela hauetaz beste liburu batean mintzatu ondoren, hau ontzat ematera, gaztaroan itzuri zitzaidan neurtitz multzo txipi honek argia ikus dezan; eta hori arrazoi honegatik eta ez bestegatik, garbi ager dadin, erregela horien betetzea ez dela gure hizkuntzan zenbaitek uste izan duten bezain zaila. Zeren nola hauek moldatzean neure olgeta baizik bilatu ez nuen, hala hauen argitalpena egitean ere, egingo baita, ez dut olerkari prestuek bere liburuekin irabazi ohi duten ohorean partzuer izan nahi. Azkenean erlijiozko neurtitz batzuk ezarrarazi ditut, olerkaritzarako nik baino grina eta antze gehiago dutenak hobeak eta gehiago egitera akuilatzeke.

A L L E C T O R

Aunque es cierto que los Vascos tienen bastante inclinación a la poesía, lo es también que hasta ahora han puesto tan poco interés en observar sus reglas y aun en conocerlas, que en todo lo que guardamos de sus obras poéticas, sea impreso sea manuscrito, hay muy pocos versos que sean regulares; porque ordinariamente creyendo componer versos masculinos con palabras femeninas (es decir, con palabras que tienen la última sílaba breve y la penúltima larga) se conforman con una sílaba o con media de rima, cuando sería necesario por lo menos una sílaba y media, exactamente igual que en los versos femeninos franceses, italianos y españoles. Y hay también versos en los que hace falta más, como son los que los italianos llaman *sdrucchioli* y otros que termi-

nan por palabras que tienen las dos últimas sílabas breves. Además de esto no son enteramente exactos en las cesuras y no observan casi ninguna elisión ni sinéresis, cuando tanto la una como la otra deben ser rigurosamente observadas en esta lengua, como en las de los españoles e italianos, que jamás se eximen.

Es esto lo que me ha forzado, después de haber hablado de estas reglas en otra obra, a tolerar que estos pocos versos que se me habían deslizado en mi juventud vean la luz, a fin de que quede claro –y no por otra razón– que la práctica de estas reglas en nuestra lengua no es tan difícil como algunos se han imaginado. Porque así como al componerlos no he buscado más que mi diversión, así en la publicación de los mismos, que se hará, no aspiro a participar del honor que acompaña a las obras de los buenos poetas. Al final he hecho que añadan algunas poesías piadosas, para incentivar a los que tienen más afición y destreza que yo a la poesía a componer más y mejores.

I

Bertsogintzarako lege berriak eman ez ezik -ematea da errazena– bete ere egin zituen. Bi eman eta bi bete. Sekula huts egin gabe. Hala neurtitz honen zazpi bertsoetako bakoitzaren lau lerroek silaba eta erdiko errima dute –lehen legea-: lehenak hirugarrenarekin, bigarrenak laugarrenarekin. Bigarren legea ere, elisio edo sinalefarekikoa, ahal duenoro egiten du, lehen eta laugarren lerroek erakusten digutenez. Hartara 9-8-9-8 silabako lerroak ateratzen zaizkio poetari. Hori bertsoetan. Bertsoaren buruko eta bukaerako errepikan aldiz 9 silabakoak dira lau lerroak.

Gaia, ondoko neurtitz gehienena bezala, amodiozkoa da: mutila aspaldidanik dabil –duela lau uda-negu– neskaren atzetik, nola adiskidatuko, baina alferrik; ur-tantak zula dezakeen harria baino gogorrago. Hiltzear egon eta, halere ez ote zaio hurbilduko? Neskatxaren izena ez dakigu.

Baina zuka ari zaio bere lantuak eginez. Poliki landua da neurtitza, oiha-naren lau alditako lilitze-hostatzeaz eta uda-neguen aldatzeaz adieraziz neskatxa maite duenez gerozko denbora, bai eta elkarri kontrajarriz ur-xortaren harri zulatzea eta bere eske jardunaren ondorioko zintzur garratza.

I,1.

Erranen duta? ahal dezaket,
egia dena bezala,
zu begizatuz geroz laket
zu bezi ehor etzautala.

Bana zer hobe, zuk gorreti
badagidazu zur´ aldeti?

¿Lo diré? Lo puedo,
pues es verdad:
desde que te conocí
nadie me agrada como tú.

Pero ¿y qué gano con ello,
si tú te haces la sorda?

Bana zer hobe, zuk gorreti
badagidazu horla beti?

¿Qué gano con ello, si tú
te haces la sorda siempre igual?

I,2.

Geroz oihana lilitu da
bait´ ar´ orstatu lauretan
ud´ ere negu, negi´ uda
gerthatu da hainberzetan

Desde entonces el bosque ha
florecido y se ha cubierto de
hojas cuatro veces, y otras
tantas se ha transformado
el invierno en verano
y el verano en invierno.

Bana zer hobe... etc.?

Pero ¿y qué gano... etc.?

I,3.

Arte hartan, zer eztut egin
zureki adiskidetzeko?
zuk nizaz, nik zuzaz atsegin
biek orozbat hartzeko?

Entretanto ¿qué no he hecho yo
para reconciliarme contigo?
¿para que tú conmigo y yo contigo
nos sintiéramos ambos a gusto?

Bana zer hobe... etc.?

Pero ¿y qué gano... etc.?

I,4.

Non ere, noreki ere bainiz,
pena dut zutan pensatzez;
hal´ ere hanbat neur´ etsai niz,
laket niz hortan penatzez.

Dondequiera y con quienquiera
esté, sufro de pensar en ti;
y sin embargo, soy tan cruel
conmigo mismo, que gozo en
sufrir por ello.

Bana zer hobe... etc.?

Pero ¿y qué gano... etc.?

I.5.

Noiz ere batzen baitzitzautzat
bidean iragaitean,
minak zatiz arhintzen zautzat
zuri bi hitz erraitean.

Siempre que me encuentro contigo
al ir de camino, se mitiga
en parte mi dolor con sólo
dirigirte dos palabras.

Bana zer hobe... etc.?

Pero ¿y qué gano... etc.?

I,6.

Ur xortak ardur´ arduratuz
harria xila zirozu,
ni zuri beti bet´ eskatuz
zinzurr´ arhetsik niagozu.
Bana zer hobe... etc?

La gota de agua en su continuo
gotear, puede perforar una
piedra; en cambio yo de tanto
pedir, tengo ronca la garganta.
Pero ¿y qué gano... etc?

I,7.

Niri bai baten erraitera
etzenthozke´ ehoiz ere,
orai zure minez hiltzera
nohela ikusiz berere?

¿Nunca vendrás
a decirme que sí,
ni aun ahora que me ves
morir de amor por ti?

Zeren berhetuz zuk gorreti
baitagidazu zur´ aldeti;
zeren berhetuz zuk gorreti
baitagidazu horla beti.

Porque tú vas a más
haciéndoteme la sorda por tu
parte;
porque tú vas a más,
haciéndoteme la sorda siempre
igual.

I,1. Le dirai-je? Je peux dire comme l'entière vérité que depuis que je vous ai aperçue, personne d'autre que vous ne me plait.

Mais quel avantage, si, de votre côté vous faites la sourde à mon égard?
Mais quel avantage, si vous faites ainsi toujours la sourde à mon égard?

I,2. Depuis, le bois s'est rempli de fleurs, ainsi que de feuilles, quatre fois.
L'été est devenu hiver, et l'hiver été, autant de fois.

Mais quel avantage, etc.

I,3. Pendant ce temps, que n'ai-je pas fait pour lier amitié avec vous, pour que vous de moi, et moi de vous, nous puissions prendre tous deux également plaisir?

Mais quel avantage, etc.

I,4. Où que je sois, avec qui que je sois, penser à vous me cause de la peine.
Cependant, tant que je suis mon propre ennemi, je me plais à éprouver cette peine.

Mais quel avantage, etc.

I,5. A quelque moment que je vous rencontre en passant sur le chemin, mes peines deviennent beaucoup plus légères quand je vous dis deux mots.

Mais quel avantage, etc.

I,6. La goutte d'eau, à force de se répéter, peut trouer la pierre. Moi, de vous solliciter sans répit et sans cesse, j'ai le gosier enroué.

Mais quel avantage, etc.

I,7. Vous ne viendriez jamais me dire un oui, même pas en voyant que je vais mourir du mal que vous me faites?

Car de plus en plus vous faites, de votre côté, la sourde à mon égard; car de plus en plus vous faites ainsi toujours la sourde à mon égard.

ARGITASUNAK

I,1.

. *duta?*: alegia, 'al dut?'

. *duta? ahal*: -a + a- sinalefa egiten du beti Oihenartek edozein bokal bikotek elkar jotzean. Beraz, 'dut' ahal' ahoskatu behar.

. *desaquet* (ahoska 'dezaket'): hor ere lehen esana, gure z; bai eta *besala*, *su*, *begui*status, *gueros* etab. ere.

. *Eguia dena*: edo 'egia den gauza'.

. *begui*status: -[t]- grafia, Oihenarten sisteman arabera -st- behar lukeena, gure -zt- adierazteko; ikus *beguista* (491).

. -s *gueros* (ahoska '-z geroz'): denborazkoa, 'orduz geroztik'.

. *laquet* (ahoska, 'laket'): latinezko 'placet', atsegin. Irakur ezazu: 'etzaut laket ehor zu bezi'.

. *besi* (ahoska 'bezi'): alegia, *bezi* < *beizi* < *baizi* < *baizik* < *baiezik* < *baiezila*.

. *ezautala* (ahoska 'etzautala'): alegia, afrikatua; (ez)zaut = zait, eta -(e)la atzizkia.

. *ser hobe?* (ahoska 'zer hobe'): hemen *hobe* izena da; ikus *ser profeyitu* (II,2)

- . *gorreti* egin: ‘gorrarena egin’.
- . *sur´aldeti* (ahoska, ‘zur´aldeti’): beti ez baina askotan sinalefa markatua ematen du poetak, hemen bezala.
- . *(ba)daguidasu*: ‘egin’-en orainaldi sintetikoa; hots, ‘zuk niri zer bait egiten badidazu’.

I.2.

- . *Gueros*: ‘geroztik, harrezkero’.
- . *bait´ar´*: ‘bait(a) ar(e)’, ez *ere*.
- . *lauretan*: alegia, ‘lau bider’.
- . *negui´*: ‘negi(a)’; alegia, ‘negia < negua’.
- . *hain bersetan* (ahoska, ‘berzetan’). Guk ‘beste hainbestetan’, hots, *lauretan*. Baina badaki *berze* ere idazten.

I.3.

- . *Arte*: alegia, lau urteko ‘tarte’.
- . *adiskidezeco*: *-sk-* grafia *s* txikiarekin, \int luzea behar lukeena apikaria adierazteko; hitz honen idazkeraz, cf. 82.
- . *biec*: edo ‘biok’.
- . *orosbat*: edo ‘orozbat, orobat’.

I.4.

- . *Non ere ... bainis*: alegia, ‘edonon naizelarik’. *Nais* ere badarabil batzuetan.
- . *pensazes*: *-s-* txikia *n*-ren ondoan, \int luzearen lekuan; cf. *Pens´* (XXV,5), baina *penšaketa*, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (III, 4).
- . *hambat ... Laket nis*: graduatzaileaz beste markarik, *non* edo *bestetik*, ez duen kontsekutiboa. *Laket*: lehen, *laquet* (I.1.).

I.5.

- . *Nois ere bazen* (ahoska ‘noiz ere batzen’): lehen *non ere* (I.4); ‘batzen’, hots, elkartzen.

- .(bai)zizauzat (ahoska ‘baitzitzautzat’): *-zai-* / *-zau-* bi formak erabiltzen ditu poetak: *guk* ‘(bait)zatzazkit’.
- . *arhinzen* (ahoska, ‘arhintzen’): Etxeparegan eta Leizarragagan ez bezala hemen *-n-*ren ondoan afrikatuaren irudi den *-z-* dugu.
- . *sauzat* (ahoska ‘zautzat’): hura *zaut* / haiek *zautzat*, hots gure *zazkit* (ik. goiko *etzautala*, *baitzitzautzat*).

I,6.

- . *Vr-xortac*: marrarekin.
- . *ardur’ arduratus*: hots, ‘maiz maiztuz’, ‘sarri sarrituz’.
- . *xila*: zubereraz ‘xilatu’, besteok ‘zulatu’.
- . *sirosu* (ahoska ‘zirozu’): **iro* erro zaharraren *diro* (= ‘dezake’) formaren alokutibo zutanozkoa, etorkizuneko esanahia duena.
- . *bet’, e[catu]*: *-i-*ren elisioa, koma egonik ere (cf. I.1.).
- . *Sinsurr’* (ahoska ‘zinzurr’): *-n-*ren ondoren frikaria eta ez hor goian (ik. ‘arhintzen’) bezala.
- . *arhetsic*: hots, lakaturik (eztarria) (ik. hiztegiñoa).
- . *niagosu* (ahoska ‘nyagozu’, 3 silabaz): hor goiko *sirosu diro*-rena bezala hau *nago*-ren alokutiboa.

I,7.

- . *baibaten*: lotua.
- . *Ezenthoske* (ahoska ‘etzenthozke’): *etorri* aditzaren forma sintetikoa, ‘ez zinateke etorriko’. Legezko den sinalefa egiten badugu, zazpi silaba ditugu zortziren orde. Ez egin behar, ordea, zeren egina baitago eta apostrofoaren markatxoa ezarri gabe; honela behar zukeen: *ezenthoske’* = *ezenthoskea*, galde perpausa baita. Francisque-Michelen edizioan badago apostrofoa.
- . *ehois-ere*: marrarekin.
- . *hiltzera* (ahoska ‘hiltzera’).
- . *berhetus*: liburuaren azken hiztegiñoan honela dio: “... de *Berrhezea*, *augmenter*” esan nahi duela.
- . *sur*: 1. eta 3. lerroetako *sur* horiek oker daude, *suc* dira, gure *zuk*, alegia; 2. bertsokoak apostrofoa falta du.

II

Hemen hamabi bertsoak sei lerrokoak dira eta 4-4-7-4-4-7 silabakoak lerroak. Etxepareren hamabost silabako lerroak nork ez ditu gogoratzen? Bada haietako bat hartu, hiru zatitan (4-4-7) banatu eta hirurak, Etxeparek ez bezala, bere errima eta guzti lerro egin, eta bertso erdia egina dauka. Hartu gero Etxepareren beste bertsoa, egin gauza bera eta hortxe dauka beste bertso erdia (4-4-7). Bi erdiak batu eta hor bere bertso berria. Hori bai!, errima Etxeparek baino hobekixeago zaindu beharko du, hemen ere silaba eta erdi-koa izango bada, eta hala da. Hona egitura osoa: 4A-4A-7B-4C-4C-7B.

Egin daiteke apustu galtzeko beldurrik gabe eskema edo egitura hau Oihenartek asmatua dela, haren aurretik ez zela; eta asmatua, hain gutxi maite zituen 15 silabatako lerroak erditik puskaturik.

Honen gaia ere amodiozkoa da. Dituen hamazortzi bertsoak sei multzotan bil daitezke; 1-3: Ni zure zerbitzari. 4-5: Zu beti gotor. 6-8: Ni eta zu, nigandik ihes zu beti. 9-11: Kondiziozko hitzak adiskidetzeko. 12-15: Ea egin dizkizudan onarteen ordaina ematen didazun. 16-19: Hiru otoi, aditzak agintetan dituztela.

Neskatxaren izenaz hasten du poetak olerkia eta ez zaio isiltzen, zu eta zu, azken hiru bertsoetaraino, non otoi bana egiten baitu hiru adizkerak agintetan ezarririk: “egizu”, “uztazu”, “emadazu”.

Sei zatien lehen lerroko hitzek salatzen dute zati berriaren hasiera. Hona: 1. *Margarita*. 2. *Alabana*. 3. *Haur hal' ezten*. 4. *Horiegatik*. 5. *Eia bada*. 6. *Horik harren*.

- II,1. Margarita,
badaidita
othe huts zin egitez,
begiz urdin
bezain gordin
zarela zur´ egitez?
- Margarita,
¿me equivocaré
si juro
que son
tan azules tus ojos
como crueles tus acciones?
- II,2. Nik supertuz
badut gertuz
maitazarre zugana,
zer profoitu
balin peitu
bazara zu nigana?
- Yo ciertamente
siento afecto
a rebosar por ti,
y ¿qué gano con ello
si tú eres mezquina
conmigo?
- II,3. Bertze lanik
baduta nik
diela hanbat denbora
zure artatzez,
zerbitzatzez
et´ onhestez kanpora?
- ¿Tengo yo acaso
desde hace tiempo
otra tarea
que la de cuidarte,
servirte
y amarte?
- II,4. Alabana,
enegana
orano eia zurerik
heldu denez
deus ogenez
eta gaitzez bertzerik?
- No obstante, dime
si algo tuyo
me ha correspondido,
que no fueran
desdenes
y males.
- II,5. Hanbat beti
gotorreti
egiten derautazu,
baninz bezain
zenbait betzain
edo ilhagin zarpazu.
- Conmigo te comportas
siempre
tan altiva,
como si yo fuera
tan andrajoso,
como ciertos vaqueros y laneros.
- II,6. Haur hal´ ezten
ardiresten
baitzituket batzutan
ez agerri,
ez enzuerri
eztateien lekutan,
- Si, para que esto
no sea así,
te doy alguna vez
alcance en un lugar
que no sea
visible ni perceptible,
- II,7. han erasten
zerik hasten
bainaiz ene gaizkiaz
eta nure
- y empiezo allí
a contarte
mis penas
y a decirte

- | | | |
|--------|---|--|
| | bezain zure
nola nizan egiaz, | que soy de verdad
tan tuyo como mio, |
| II,8. | zu bertarik
artetarik
ez trostaz, ez urhatsez,
bana zoaz
laurherroaz
en´ erranak phuztatzez. | tú al instante
desapareces de en medio
no al trote,
no a pasos,
sino a zancadas
mofándote de mis palabras. |
| II,9. | Horiegatik
orogatik
etzinzuzket ehula
baninz fida
zuk gupida
noizbait nindukezula. | Pese a todo ello
yo no te abandonarí
en modo alguno,
si confiara
en que tú un día
te apiadarías de mí; |
| II,10. | Bana bertze
ez ikertze
gaurgoitik ukeiteko
oradrano
duzun bano
ongi niri egiteko. | pero a condición de que
en adelante
no tengas otro desvelo
y de que me hagas
más bien del que me has hecho
hasta el presente. |
| II,11. | Enendauke
ez elauke
bertze bat hunl´ oboro,
net bilaizi
baliz baizi
zenzuz edo burzoro. | Ni yo ni ningún otro
estaría por más tiempo
de este modo,
a menos que fuera
totalmente insensato
o necio. |
| II,12. | Eia bada
ordua da
zurretan has ziteen
ene hartzen
et´ ohartzen
zeren zordun zaudeen, | ¡Ea, pues! Es ya hora
de que empieces
a tomarme por cosa tuya
y a percartarte
de la deuda
que conmigo tienes, |
| II,13. | nola nizaz
motil gisaz
ziren iraganean
zerbitzatu
et´ ohatu
neska ororen gainean, | de que en el pasado
te he servido
como un criado
y te he considerado
por encima
de todas las otras chicas, |

- | | |
|--|---|
| <p>II,14. zenbat nizan
zutan izan
beti tink eta ekhuru,
zein manura
er' ardura
erpai, ern' et' aiduru,</p> | <p>de hasta qué punto siempre
he estado firme y constante
en ti,
cuán cuidadoso,
solícito y atento
a tus órdenes,</p> |
| <p>II,15. gero zuzaz
zeinen luzaz
ukaturik nagoan
eta halaz
hanbat, alaz!,
errekeitu gaxtoan.</p> | <p>de cuánto tiempo llevo
después siendo rechazado
por ti y por ello
en qué mal trato
¡ay!
me tienes.</p> |
| <p>II,16. Horik harren
oro barren
galkatuz bihotzera
berz' atunik
bana hunik
gogo egizu hartzera</p> | <p>Por ello
oprimiendo en tu corazón
lo dicho,
proponte adoptar conmigo
otra conducta,
pero que sea mejor.</p> |
| <p>II,17. Et' uztazu
gutiziazu
nizan horri berere
amerstera,
pot-gitera
dudan zuri botere.</p> | <p>Y déjame
satisfacer
siquiera esto
que tanto deseo:
dame permiso
para besarte.</p> |
| <p>II,18. Gero azkenik
beharrenik
emadazu dudana,
Margarita,
jin-konjita
gauan behin zugana.</p> | <p>Finalmente otórgame,
Margarita,
lo que más necesito:
permiso
para venir donde ti
de noche una vez.</p> |

II, 1. Marguerite, commettrais-je une erreur en jurant que votre air est aussi dur que vos yeux sont bleus?

II, 2. Moi, j'ai pour vous, certainement, un amour excessif. A quoi bon, si vous en manquez pour moi?

II, 3. Est-ce que j'ai d'autre occupation, depuis bien longtemps, que d'avoir soin de vous, de vous servir et de vous aimer?

II, 4. Cependant je me demande si j'ai reçu de vous jusqu'à présent rien d'autre que des torts et des méchancetés.

II, 5. Vous vous montrez toujours aussi fière envers moi, comme si j'étais quelque vacher ou cardeur de laine déguenillé.

II, 6. Pour qu'il n'en soit pas ainsi, je vous surprends parfois dans des endroits où l'on ne peut être ni vu ni entendu.

II, 7. Là, comme je me mets à vous parler du mal qui m'est fait et à vous exposer que je vous appartiens, en vérité, autant qu'à moi,

II, 8. Vous, aussitôt, vous vous en allez, et non au pas ni au trot, mais au galop, par mépris pour mes paroles.

II, 9. Malgré tout cela, je ne vous laisserais point, si j'avais la conviction que vous auriez un jour égard à moi.

II, 10. Mais si vous ne devez pas à l'avenir prendre soin de me faire du bien autrement que vous ne le faites jusqu'à présent,

II, 11. Je ne saurais rester davantage dans cette situation, et aucun autre ne le saurait, à moins qu'il ne fût complètement dépourvu de bon sens ou fou.

II, 12. Eh bien donc il est temps que vous commenciez à me traiter comme vôtre et à considérer que vous avez une dette envers moi,

II, 13. Que vous avez été par moi, dans le passé, servie comme par un domestique et placée au dessus de toutes les jeunes filles,

II, 14. Combien j'ai toujours été fermement et patiemment attaché à vous, comment j'ai été sans cesse en longue attente, en éveil et en expectative,

II, 15. Enfin depuis combien de temps vous vous refusez à moi, qui suis ainsi, hélas! si méchamment traité.

II, 16. Donc refoulez tout cela au fond de votre coeur, et prenez la résolution d'adopter d'autres manières, mais des bonnes.

II, 17. Et laissez-moi satisfaire au moins le désir que j'ai: accordez-moi la permission de vous embrasser.

II, 18. Et puis enfin donnez-moi ce dont j'ai le plus besoin, Marguerite, la permission de venir vous trouver chaque nuit.

ARGITASUNAK

II,1.

- . *Margarita*: neurtitz batzuetan emaztekiaren izena ematen digu poetak.
- . *Badaidita*: galderazko atzizki *-a* kenduz, *daidit* gelditzen zaigu, **idi* erro zaharraren orainaldi sintetikoa, eta **idi* bere aldetik, zenbaiten ustez, **egi(di)n* zatekeen baten etorkia. Baina forma orainaldikoa badu ere, esanahia gerokoa du. Esan nahi baita, *egin*-ek autore zaharretan ez duela *-ke-* artizki-atzizkia duen formarik. Hau da, euskara zaharretan ez dela sekula agertzen *dagiket*, *negike*, *negikeen* edo antzeko formarik, eta horien ordez *daidit*, *naidi*, *naidien* etab. agertzen direla. Beraz *huts daidit* = *huts eginen dut*.
- . *Othe*: Hegoaldeko euskalkietan ez dira *-a* (= *al*) eta *othe*, biak batera erabiltzen; ezin da esan, alegia, “etorri al ote da?”. Ik. aitzitik VI,1.
- . *ourdin*: *-ou-* grafia *u* bokala adierazteko, *gordin*-ekin errima eginez, azken hitz honen *-o-* bokalaren gauzatze itxia iradokiz.
- . *sur' eguites*: azken *-e-* bakar honen azpian bi izkutatzen dira, baina bi silaba egin gabe, *egite-* izenaren plurala baita < *egiteez*. Hori horrela ez izateko beste hipotesia izan daiteke, *izate* singularra izatea: “el obrar”. Ik. VII,3.

II,2.

- . *supertus* (ahoska ‘supertuz’): *s-* txikia hitz hasieran *ʃ-* luzearen lekuan, apikaria adierazteko. Bere hiztegiñoan honela dio: “Par excès, de *superzea*, rester” (ez “tester”, testuak dioen bezala). Francisque-Michelek *sup'ertus*; hau da, *suphertuz*.
- . *guertus*: Francisque-Michelek *guert'us*, hau da, *gerthuz*.
- . *Ser profeytu*: lehen (ik.I,1) ‘zer hobe’.
- . *peitu*: eskas, urri. Ik. *ubrent-peiturik*, azkeneko *hamalaurkunean* (XXVIII). Cf., halaber, 100, 193; II,2 eta XVII,105.

II,3.

- . *Berze*: lehen (ik. I,2) *berse*; hitz honen idazkeraz, cf. 68.
- . *Baduta*: ik. I,1.

- . *Diela*: = *duela*; zubereraz *-ue-* > *-ie-*; *-ua-* > *-ia-*.
- . *artazes* (ahoska ‘artatzez’): Ik. hiztegiñoa; = *arretatzez*, *arta arreta* baita. Hori eta ondoko *Serbizazez*, *onhestez* aditz-izen mugagabeak dira. Honela dio poetak: “hiru gauza horiek egite(a)z kanpo ez dut beste zereginik”.
- . *Et onhestes*: hitzen arteko tartean apostrofoa ipini behar dela agerikoa da; *-st-* grafia *-jt-*ren lekuan, apikaria adierazteko; ik. *Onhestea* (XXIV,4), baina, Oihenarten sistemak eskatzen duen bezala, *onhestes* (XV, 3).
- . *campora*: hitz hau prosaz ez zatekeen beharrezko. Hori honela esan zitekeen: “Zure artatzes, zerbitzatzez eta onhestez *bertze* lanik baduta nik...?”. Errimak erabilarazi dio gainera *campora*: ik. IV,1.

II.4.

- . *sureric*: lotu hitz hau ondoko *deus-i*, alegia *deus sureric*, eta hobeki ulertzen da. Eta guztia honela: “eia heldu denez enegana deus zureric, ogenez eta gaitzez bertzerik”. Ostera ‘-z *beste*’; arrunta da.
- . *eia*: guk *ea* dioguna. Ipin ezazu bertso horretan *esadazu*, ongi ulertzeko. Ongi dio Lafonek: “Interrogation indirecte, sans verbe principal” (“Notes...”, 63 or.).
- . *eia ... / Heldu denes*: askok “ea heldu den” dioguna, euskara batuan “denetz” dena.
- . *Deus*: *-s* hitz amaieran *-j-*ren lekuan, gure *s* apikaria adierazteko (ik. 45).

II,5.

- . *Hambat... / Gotorreti / Eguiten*: Ik. I,1: *gorreti egin*. “*Hain gotorreti*” zuzenago litzateke.
- . *Hambat ... / Banins* (ahoska ‘baninz’). Ulertzeko irakur honela: “hain gotor aritzen zara enekin, baninz ... zenbait ... bezain zarpazu”. Beraz “ba(ninz)” bera soilik (= “bai(ninz)”) gure “ba(nintz) bezala” litzateke. Gazteleraz “tan... como si...”, gonbarazio eta baldintza batean.
- . *Banins ... / ... sarpasu* (ahoska ‘baninz ... zarpazu’). Osoa irakur honela: “... zenbait betzain edo ilhagin bezain zarpazu baninz”. Bereiz, arren: *besain* (= bezain) eta *bezain* (= betzain).

II,6.

- . *esten* (ahoska ‘ezten’). Euskalkirik gehienetan “ez dadin”. Alegia, “hala biz” eta “hala izan bedi” bezala. Eta hori euskara zaharrea **ezan* eta **edin* erroak beti laguntzaileak direlako.
- . *Ardiresten*: -*st*- grafia -[*t*-ren lekuan, gure *st* adierazteko; berdin *ardiesten* (263, 527).
- . *Ardiresten* / *Baizituquet* (ahoska ‘baitzituket’). Hori eta “topatzen (bait)duquet” azken batean gauza bera dira, bata ‘nik zu’ izatea eta bestea ‘nik hura’. Osterantzean Lafonek esaten du “topatzen dut” eta “topatzen duket” honetan bereizten direla: biek ‘orain’ eta ‘maiz’ esan nahi dute, baina “duket”-ek orainaldia ez du zehazten, ez noiz den esaten; “presente intemporal” deitzen du. Horrez gain dio adizkera honen balioak *bait*-ekin “en proposition principale” (ik. “Notes..” 64, or.) ez duela ongi ematen. Baina zergatik ez hartu bata helburuzkotzat (*ezten*), eta bestea baldintzazkotzat (*ba(i)zituquet*), hurrengo bertsoko perpaus kausal “zerik hasten bainaiz”-i lotua eta perpaus nagusia “Zu bertarik”-eraino atzeratu?
- . *ensüerri* (ahoska ‘enzwerri’): dieresiak *u*-ren bokaltasuna adierazten du, baina, gehienetan ez bezala, ez du bokal hori silabagilea dela adierazten, *we* irakurri behar baita, ez *u-e*. Oihenartek asmatu hitza dirudi *aguerri*-ren antzera; hau ikusten den lekua, hura entzuten dena.
- . *Estateien*, alegia “ez dateen”, “datekeen” bezala. Hau eta lehengo “zituket” aldien egokiera ezin hobea.

II,7.

- . *Seric*: edo *zeren*, parekoak dira; *baizik/baizen*, *ezik/ezen*, *bederik/bederen* etab. bezala.
- . *era[st]en* / *ene gaisquias* / *Eta...* / *Nola nisan*: “erasi”-ren bi konplementu arras ezberdin: izen sintagma kasu instrumentalean bata eta zehar galdezko konpletiboa bestea. Hau dio poetak: “zeren han hasten bainaiz neure gaizkiaz mintzatzan eta (kontatzen) nola naizen egiaz neure bezain zure,...”. Hor dago segurki protasiaren azkena eta ondoren perpaus nagusia.

II,8.

- . *bertaric*, / *Artetaric* /... *soas* (ahoska ‘zoaz’). “Bertarik” edo bertantxe; “artertarik” edo erditik. Noiz eta nondik. Azken hau Lafonek “par moments” itzultzen du, “est obscur” esanez (ik. “Notes...”, 64. or.).

- . *trostas*: -st- grafia -/t-ren lekuan, gure *st* adierazteko.
- . *p`ustazes* (ahoska, ‘phuz-’ edo ‘puz-’), zeren hiztegiñoak *Pu|stazea* dakar, ez *P`u|statzea*. Mitxelenak dio: “Transcribo ph, kh lo que Oihenart escribió p, k más espíritu áspero” (“Descubrimientos...”, p. 153, nota 6). Baina hiztegiñoakoak “espíritu áspero” edo delakoa eskas du. Berdin *pusta* (483), baina Francisque-Michelek *p`usta* (483).

II,9.

- . *Ezinsusquet* (ahoska ‘etzinzuzket’). Aurreko *ez-* kenduz gero, *sinsusquet* geldituko litzaziguke, gure ‘zinzuzket’. Dударik gabe *zu-nik* formako adizkia da; kendu hasierako *zin-* eta azken kabuko *-ke-t* eta *-zuz-* gelditzen da. Objektua *zu* plurala duenez gero, pluralgilea behar du izan bere baitan. Zein da hiru letra horietarik? Eta zein aditz erroa? Testu inguruaren zentzuak eskatzen du aditza *utzi* izan dadin; alegia, forma perifrastikoak “ez zintuzket utziko” behar luke izan. Lehen *-z-* ote pluralgilea eta *-uz-* aditz erroa? Hartara forma perifrastikoko laguntzaile den *zintuzket* bezalaxe taxutua legoke. Lafonek ez du ordea hala uste eta *-sus-* gabe *-tus-* behar lukeela dio; hutsartea dela (Ik. “Notes...”. 64, or.).
- . *ehoula*: -ou- grafia *u* bokala adierazteko. Cf. *ehoun* (IV,7), baina *ehon* (VIII,2).
- . *gupida* / ... *nindunquesula*: baldintzazko “baninz fida”-ren konpletiboa. Gure “kupida”-ren aldakia dugu “gupida” eta “erruki zaitut”-en antzeko esapidea: “hura gupida dut”.

II,10.

- . *Bana...* / *Es...* / ... *vkeiteco*, / ... *eguiteco*. Lafonen interpretazioa eta gurea aski ezberdinak dira. Harena, aski luzea (ik “Notes...”, 64-65 or.). Guretzat irakurketa aski sinplea da. Hona: “Halaz ere, baldin fida banintz erruki nindukezula, ez zintuzket utziko; baina(bi kondizioekin): bertze ikerterik ez ukeitekotan eta niri ongi gehiago egitekotan”. Beraz, *-teko* = *-tekotan*. Baldintzazko balio hau aitortzen dio Lafonek *ukeiteko*-ri, ez besteari.
- . *ikerze* (ahoska ‘ikertze’). Hiztegiñoan honela dio: “*Ikerze*, soin, bon traitement”; “ardura, arreta, axola”, alegia. Irakur ezazu honela: “Bana gaurgoitik ez ukeiteko bertze ikertze...”.

- . *bano*: maila konparatiboko hitza falta zaio. Ez da beharrezko: “*bano sert à lui seul à exprimer le comparatif de supériorité*” (Lafon, “La langue de Bernard Dechepare”, 323 or.). Irakur honela: “Bana niri oradrano (egin) duzun bano ongi (gehiago) egiteko”; alegia, “egitekotan”.

II,11.

- . *Enendauque, /... elauque*: aurreko *e(z)*- kenduz gero, adizki biluziak gelditzen zaizkigu, *nendauque* eta *lauque*, biak “egon”-etikoak, lehen eta hirugarren pertsonak: *nendauque* < *nenda(g)oque* (gogora ezazu “nindoake”) eta *lauque* < *la(g)oque*. Gure *nengoke* eta *legoke*.
- . *E-... / Es e-...* (hau da, ez..., ez ez...): hirurak beharrak; ikus, esate baterako: “ezdator ez (eta) ezdatorque”. Bi adizki sintetiko ezezko lotzen ditu erdiko ez-ek.
- . *Berzebat*: loturik.
- . *oboro, / Net bilaisi /... bursoro*: gure *gehiago*, *guztiz*, *biluzi*, *buru-zoro*-ren errankideak. Hemen *baisi*, lehen (ik. I,1) *besi*. Entzun esaldi hau: “garaiz etorriko balitz baizik ez nuke etxean hartuko”. Horrelakoxea da 11. bertsoa: “Ez nengoke ni eta ez legoke beste inor gehiago horrela, arras zentuz biluzi edo buru-zoro balitz baizik”. Baldintzazko perpausa.

II,12.

- . Bertso honek eta ondoko hirurek frase bat osatzen dute.
- . *Ordüa*: dieresiak *u* hori bokal silabagilea dela adierazten du; *du-a* dela, alegia.
- . *bas*: -s hitz amaieran, *ɰ*-ren lekuan, gure *s* apikaria adierazteko.
- . *siteen* (ahoska ‘ziteen’): gure ‘zaitezen’ da, orainaldiaren -a- gabe eta -z- pluralgile gabe. Halere ikus *gaitesen*, ez *gitesen*: XXIII. neurtitza. Perpaus nagusi “Ordua da”-ren kompletiboa da.
- . *Suretan...* / *Ene harzen* (ahoska, ‘zuretan ... hartzen’): *ene hartzen* (genit. objekt.) *zuretan*. Zer esan nahi du honek? Hori eta *zutan* (ikus bi bertso behegaro) ongi bereizten ditu. Bestalde ik. “Iaincoasco Nevrtizac”, XVIII: “Iaincotan bat huts iauretsac”, edo are argiago Leizarragak, Math. XXI, 26: “Guziek dadukate Joanes profetatan”. Beraz, norbait gaixtotan, zintzotan, tontotan... hartu, eduki, sinetsi, etab.; aurrizki prolatiboa deritzana. Besteok -t^zat dioguna. Frantsesez “il m’a pris EN ami”.

- . *Et oharzen* (ahoska ‘ohartzen’): hitzen arteko tartean apostrofoa ipini behar dela agerikoa da; “...has ziteen, alegia, ene zuretan hartzen eta ohartzen” gauza guzti hauetaz: 1. Zeren zordun zaudeen; 2. Nola... ziren zerbitzatu eta ohatu...; 3. Zenbat izan nizan...; 4. Zein... erpai, erne eta aiduru ere; 5. Zeinen luzaz nagoan... Alegia, bost perpaus konpletibo zehar galdera gisa emanak “ohartu”-ren mendean; horregatik adizkiak beti *-n-z* bukatzen dira.
- . *Seren sordun saudeen* (ahoska ‘zeren zordun zaudeen’). Azpian esamolde hau dago: “nor bait zerbaiten zordun egon”.

II,13.

- . *Nola nisas / Siren ... / Serbizatu* (ahoska ‘nola nizaz ziren zerbitzatu’); aktiban esanez gero ‘nola nik zerbitzatu zaitudan’. Izan ere instrumental ‘nisas’ ablatibo agentea da eta ‘serbizatu sira’ euskal pasiba zaharra, gero ‘-a izan’ parafraasi az esan izan dena. Etxeparek: “nola izan redemitu haren odol sainduiaz”(I,42), alegia, ‘hi redimitu (ha)iz’, baina ez ‘hik heure burua redemitu duk’ adieraziz, baizik oraingo ‘redemitua izan haiz’.
- . *Motil-guisas*: marrarekin; *-s-* bokal artean, *ʃ*-ren lekuan, gure *s* adierazteko, baina ikus *guila-* (XV,1; XXVI,15); Francisque-Michelek *Mot`il*, hau da, *Mothil*.
- . *Et` ohatu*: hots, ‘eta (nola) ohatu ziren’, aurrekoa bezala pasibaz emana. Hiztegiñoan honela dio: “*Ohazea*, placer, ranger..”; gure ‘kokatu’.
- . *Nesca ororen*: hala dio testuak, baina poetak egin gabe utzi duen sinalefa egin behar da (*nesk` ororen*), lerroa zazpi silabakoa izango bada; *s* grafia ageri da *c*-ren aurrean, Oihenarten sistemako *ʃ*-ren lekuan (hitz honen idazkeraz, cf. 331).

II,14.

- . *Sembat nisan / Sutan isan / ... e`curu* (ahoska ‘zenbat izan nizan zutan... ekuru’). Hau esan nahi du: “zuga beti zenbatetaraino izan naizen ... ekhuru”.
- . *Beti*: Francisque-Michelek *Bet`i*, hau da, *Bethi*.
- . *eta ec`uru*: hala dio testuak, baina poetak egin gabe utzi duen sinalefa egin behar da (*et` ekhuru*), lerroak zazpi silaba izango baditu.
- . *Cein ... / Erpai, ern` et` aiduru* (ahoska ‘zein erpai, ern(e) et(a) aiduru’)... izan

ere naizen, alegia. Hiru izenondo horiek oso errankideak dira; hirurak ageri dira Hiztegiñoan eta hirurek ‘erne’-ren antzeko zentzua dute.

- . *manura* / ... *ardura*: “zure manura egon naiz ardura”, esan nahi du. *Manu* izen arrunta da; hortik datoz *manamendu*, *manatu*... *Ardura* berriz ‘sarri’, ‘maiz’ esan nahi duen aditzondoa. Ikus lehen Neurtitzean (I,6) “ardura arduratus”.
- . *Er’*, *ardura*: *e*-ren elisioa, koma gaindituz, cf. I,1.

II,15.

- . *Seinen lusas* (ahoska ‘zeinen luzaz’); zein denbora luzean, alegia.
- . *susas* ... / *Vkaturic* (ahoska ‘zuzaz ukaturik’). Lehenxeago bezala (13), “susas” ablatibo agentea.
- . *halas*, / ... *alaz* (ahoska ‘halaz’, ‘alaz’). Lehena gure ‘hala’, moduzko aditzondoa da, 3. graduako erakusletik sortua. Bigarrena frantsesezko ‘hélas!’ mailebatua, “ai ene!” edo “damurik” adierazten duena.
- . *Errekeitu gaxtoan*: izen horrek hemen “ardura, kontu, tratu” esan nahi du.

II,16.

- . *barren*: formaz 3. mailako erakusle ‘hura’-ren antzineko formaren, **ba(r)*-omen zenaren, genitiboa da; balioz kausatiboa edo: “hargatik”, alegia.
- . *Galcatús* (ahoska ‘galkatuz’). Hiztegiñoak honela dio: “*Galcazea*, ou *calcazea*. Coigner ou enfoncer à force de pousser”. Guk “zanpatu, zapaldu, istikatu”. Francisque-Michelek *Galcatús*, hau da, *Galkhatuz*.
- . *Bers’ atunic*: honela dio azken hiztegiñoan: “*Atun*, accoustumance, façon de faire ou moeurs”. Gure “aztura, ekandua, usarioa”. Francisque-Michelek *at’unic*, hau da, *athunik*.
- . *hounic*: -ou- grafia *u* bokala adierazteko (cf. 24)
- . *Gogo eguisu*: zerbaitetara, alegia: “-ra gogo egin” edo “erabakia hartu”.

II,17.

- . *Guticiasu* / *Nisan horri* (ahoska ‘gutiziazu nizan horri’). Hots, zerbaiten “gutiziazu niz” eta “horri berere amerstera uztazu”. Zer gutizia du hori? Ondoren dio,

- . *ustasu* / ... *horri* ... / *Amerstera* (ahoska ‘*uztazu...*’ etab.): honela dio Hiztegiñoak: “*Amer|tea*, se satisfaire, ou contenter en quelque chose, se venger”. Hemen *Amerstea*, -*st-* grafia duela, Oihenarten sistemak eskatzen duen -*št-*ren lekuan, baina ikus *Amer|tea* hiztegiñoan.
- . *Dudan*: hau da gauza, dirudienez, zeren den gutiziatsu: botere izatea Margaritari pot egiteko. Onartzen du, halere, beste irakurketa bat, ‘*dudan*’ konpletiboa denekoa: “Uztazu *dudan* botere gutiziatsu nizan horri berere amerstera, (hots) zuri pot-gitera”.
- . *botere*: Francisque-Michelek *bot`ere*, hau da, *bothere*.

II,18.

- . *Beharrenic* / ... *dudana*, edo beharrena *dudan* gauza; alegia, “*gauan* behin *zugana jin-konjita*”, *zugana* etortzeko eskua.
- . *Gaüan*: dieresiak *u* hori bokala dela adierazten du, *gau-an* dela, alegia, ez *ga-ban*; -*au* diptongoz amaituriko hitza bokalez bukatzen direnekin parekatua: inesiboan -*an* kasu marka, ez -*ean*.

III

Aurreko neurtitzean hamabost silabako lerroekin egin duena egiten du orain zortziko nagusiarenekin: hartu hamar silabako bat eta bi zati eginez bost silabako bi lerro txiki sorrerazi eta horri ondoko zortzikoa gehitu (5-5-8). Eta beste hamar silabako bat harturik gauza bera egin, sei lerroko bertsoa sortzeko. Sinalefa-elisioei buruz ez da zer berri esan hemendik aurrera: beti egiten ditu. Errima ere silaba eta erdikoa, “gutxienez”, irakasten du Oihenartek. Hemen dugu exenplua: lerro luzeek, hirugarren-seigarrenek, bi silaba eta erdikoa dute.

Horrek besteak beste erakusten digu Oihenartek zortziko handiak eza gutzen zituela eta ez dakit horren probarik beste inondik dugun, lehenagoko literaturan ez baita zortziko nagusirik inon agertzen.

Gaia betikoa: Gure mutila baldin ARGIA deritzan neskarekin ez badago, mutu dago, ez da dostatzen ez mintzatzen, ez baitu biderik bere arrenkurak kontatzeko; burdin-aitzak erakartzen balu bezala harenganako jaidura du, baina ezin joan harengana!

A R G I A DARITZANARI

A UNA DE NOMBRE A R G I A ('Clara')

III,1. Gauik, egunik
eztinat hunik
hireki ezpaniz, Argia;
hireki ezpaniz
itsu hutsa niz
zeren bai hiz en´ argia.

No tengo una noche
ni un día bueno
si no estoy contigo, Argia;
si no estoy contigo
soy ciego total,
pues tú eres mi luz.

- | | |
|--|---|
| <p>III,2. Hirekil' aldiz
bederak' aldiz
bazter lekutan baturik
nonbait banago,
nun botzenago
ezi errege gertaturik.</p> | <p>Si en cambio estoy alguna vez
reunido contigo
en algún lugar
en un sitio apartado,
soy más feliz
que si me hicieran rey.</p> |
| <p>III,3. Lagun-artean
hel nadinean
elhaketan, erhogoan,
eznun dostatzen
eznun minzatzen
hi beti, beti aut gogoan.</p> | <p>Cuando estoy entre amigos
conversando, tonteando,
no disfruto,
no hablo,
te tengo siempre a ti
en la mente.</p> |
| <p>III,4. Nik dudan lana
ezin errana
zer kocinta dudan higati,
en' ixil eta
maiz pensaketa
egonak ziotsan nigati.</p> | <p>Mi angustia, o sea, el no poder
declararte qué ansiedad
siento por ti,
la expresan en mi lugar
mi actitud silenciosa
y a menudo pensativa.</p> |
| <p>III,5. Kadran-orratzak
burdin-aitz latzak
hunki-eta buztan mehea,
xuxen han-hara
eguerditara
diadukan punta xehea.</p> | <p>La aguja de la esfera,
nada más tocar
su delgada cola
la rugosa piedra de hierro,
mantiene recta su fina punta
hacia el sur.</p> |
| <p>III,6. Ni hala-hala
tiraz bezala
hik joz geroz bihotzean,
hiri gorpitzez
beti, ed' orhitzez
narrain, bait' are lotzean.</p> | <p>Así yo desde que me heriste
en el corazón,
te sigo siempre a ti
como a rastras, con el cuerpo
o con el recuerdo,
aun estando dormido.</p> |
| <p>III,7. Bana herabe
stakuru gabe
dinat, Argia, jitera
hir' etx' irira,
leku agerira,
jinten minz' erazitera.</p> | <p>Pero me sonrojo
de acercarme sin motivo
a tu casa,
Argia,
a un lugar público,
dando pábulo a la gente.</p> |
| <p>III,8. Beraz higanik
egin jadanik</p> | <p>Por tanto haz que yo sepa
pronto de ti</p> |

noiz nakidina dakidan	cuándo puedo acudir
jin, eta nura,	y a dónde, un lugar secreto,
gorde-lekura,	y que allí
eta hi han bat akidan.	tú te me juntes.

A celle qui s'appelle Claire

III,1. La nuit, le jour, je n'ai pas de satisfaction si je ne suis pas avec toi, Claire. Si je ne suis pas avec toi, je suis tout à fait aveugle, parce que tu es ma clarté.

III,2. Au, contraire, chaque fois que je te rencontre dans des endroits écartés et que je me trouve avec toi quelque part, j'éprouve plus de joie que si j'étais devenu roi.

III,3. S'il m'arrive d'être en compagnie, au milieu des bavardages et des folies, je ne m'amuse pas, je ne parle pas; c'est à toi que toujours, toujours, je pense.

III,4. Le tracas que j'ai ne peut se dire, ni le souci que j'éprouve à cause de toi. Mon silence et mon attitude souvent pensive parlent de toi⁷⁸.

III,5. L'aiguille du cadran, une fois que la rugueuse pierre de fer a touché sa min queue, tient désormais sa pointe fin exactement dans la direction du sud.

III,6. Moi, je suis tout à fait ainsi: comme par l'effet d'une attraction, depuis que tu m'as frappé au coeur, je te suis toujours, par le corps ou par la pensée, même quand je dors.

III,7. Mais je n'ose pas, Claire, venir sans aucun prétexte aux environs de ta maison, dans un endroit découverte, pour faire parler les gens.

III,8. Donc fais-moi savoir quand je pourrai désormais venir te voir, et où, dans un endroit secret, pour que je puisse t'y rencontrer.

ARGITASUNAK

III,1.

. Neurtitz honen egitura ere, lehen esan bezala, Oihenartek berak asmatua du inondik ere. Hemen neskatzaren izena badakigu: ARGIA.

⁷⁸ Gure itzulpena honetatik pixka bat bereizten da.

- . *Gaiïc*: dieresiak *u*-ren bokaltasuna adierazten du, [gabik] ez dela, alegia; hor goian ez bezala hemen *gau*- kontsonantez amaituriko hitzekin parekatua: *-ik* partitibo atzizkia, ez *-rik*.
- . *Estinat* (ahoska ‘eztinat’): lehen Margaritari ez bezala, Argiari hemen *hika* mintzo zaio poeta.
- . *hounic*: II,16-en bezala, *ou*- grafia *u* bokala adierazteko (cf. 24).
- . *Hirequi espanis* (ahoska ‘ezpaniz’): ez ahantz silaba bat sinalefaz gutxitzea; ostera bederatzi silaba genituzke 3. bertsoan eta sei 4garrenean.
- . *It[su hut]a nis* (ahoska ‘niz’): hika ari zen eta *n(a)un* esan behar zukeen, baina horrek errima hausten zion.

III,2.

- . *Hirequil*: ‘hirekila’ behenafarreraz eta zubereraz bestetako ‘hirekin’.
- . *aldis* / ... *aldis* (ahoska ‘aldiz’): ez da potoa; lehena lokailua da, bigarrena izena, kasu instrumentalean.
- . *Bederac’ aldis*: ‘bederak(a)’, bakanka, alegia.
- . *Nun*: lehen faltan eman dugun forma alokutibo femeninoa: *naun*, alegia.
- . *bozen-ago* (ahoska ‘botzenago’): *egiten-ago*, *etortzen-ago*, etab. bezalakoa, aditzizena maila konparatiboan: alegia, *gehiago egiten*, *gehiago etortzen*, etab. *Botzen*, berriz, *bozten*-etik (edo *pozten*-etik) dator; izan ere, euskarra zaharrean xixtukariaz amaitu aditzerroa, *-ten* hartzean, afrikatua bilakatzen zen: alegia, *poz-ten* > *potzen*, *piz-ten* > *pitzen*, etab.”
- . *Esi*: (ahoska ‘ezi’): ikusi dugu *bezi* (I,1); orain *ezi* lapurterazko *ezen* / *ezik*-en aldaera da.
- . *Erregue*: maiuskularekin.

III,3.

- . *Lagun-artean* / *Hel*...: hiruzpalau zentzu ezberdinez agertuko zaigu ‘heldu’, beti iragangaitzez; ik. II,4, “-rengana zerbait heldu”; hemen “inor inon zertan heldu” da esapidea.

” Ikus VII,4; eta Etxepare: “...erho *bocen* vadaquiçu” (IX,29).

- . *minsazen* (ahoska ‘minzatzen’). Frikaria eta afrikatua, esan bezala.
- . *aut*: euskara zaharrean ‘hi’ pertsonaren ‘nor’ markak ez du *b*-rik. Bestalde ‘nau, gaitu, zaitu’ formek maiz *-a-* galtzen dute, ez beti, ‘nu, gitu, zitu’ emateko; *aut*-ek inoiz ez.

III,4.

- . *Esin errana* (ahoska ‘ezin’): hori da ‘nik dudan lana’. Bestela esan, “lana”-ren aposizioa da “ezin errana”. Hau eta hor bertako ‘egonak’ biak dira lehen partizipio izen bilakatuak.
- . *Cer koeinta dudan higati* (ahoska, ‘zer...’): ohar *Ce-* grafia Oihenartenean espero zitekeen *Se-*ren lekuan. Hau da ezin esan omen duena; hots, zer kezka edo arrenkura duen.
- . *siot[san]* (ahoska ‘ziotsan’): ‘diotsa’-ren alokutibo femeninoa. Hau da perpaus iragankor baten adizki nagusia; bertsoaren 1. zatia objektua (lana, ezin errana) eta 2. zatia perpausaren subjektua (egonak). Lafonen (“Notes...”, 66. or.) eta Orpustanen (“Proverbes et...”, 144. or.) pasarte honen irakurketa eta gurea ez datoz guztiz bat.

III,5.

- . *Kadran-orrazac* (ahoska ‘orrazak’): bertso honen gauzarik zailena hiperbatona da. Ordena ditzagun hitzak: Kadran-orrazak, (haren) buztan mehea burdin-aitz latzak hunki-eta, han-hara eguerditara diadukan xuxen punta xehea.
- . *han hara*: edo hantik harat. Harrezkero, alegia. Marrarik gabe.
- . *Egüerditara*: dieresiak *-gwe-* irakurri behar dela adierazten du, ez *ge*.
- . *diaducan*: ‘daduka’-ren adizkera alokutibo femeninoa.

III,6.

- . *hala hala*: halaxe, berdin-berdin. Marrarik gabe hemen ere.
- . *bait’ are*: ikus, I,2.
- . *lozean* (ahoska ‘lotzean’), hau da, lo egitean. Zubereraz hala da.

III,7.

- . Hemen ere hiperbatonak iluntzen du testua. Ikus: Bana herabe dinat, Argia, hire etxe irira, leku agerira, jitera estakuru gabe, jenteen minza erazitera.
- . *herabe* /... / *Dinat*: edo lotsa dinat; ez zertarako lotsa, baizik zertara.
- . *Stacuru*: hiru silaba.
- . *iitera*: ‘jin’, etorri. “Unki jin” = ongi etorri.
- . *Hire ex´irira*: hots, hire etxe ondora. Horko *ex(e)* hori *ex´e* izango litzateke Oihenarten idazkeran, hau da, gure *etxe* (cf. 45). ‘Iri’ eta ‘hiri’ bi dira.
- . *Genten mins´erasitera* (ahoska ‘minz(a) erazitera’): Ge- grafia gure *Je-* adierazteko. ‘Nor bait’ mintzarazi, baina hemen ‘jenten’ genitibo objektiboa da.

III,8.

- . Hitz lauuko hizkeran hau litzateke hitz horien hurrenkera: Beraz egin (ezan) (nik) dakidan jadanik higanik noiz jin nakidina, eta nura, gorde-lekura, eta hi han bat hakidan. Hitzak banaka zehazturik:
- . *Eguin*: agintekera sintetiko femeninoa, gizasemeari ‘egik’ bezala.
- . *daquidan*: ‘jakin’-en orainaldiko ‘dakit’ formak subjuntibo-konpletibo balioa ematen dion *-(e)n* atzizkia hartu du. Alegia: “egin ezan nik jadanik higanik dakidan”.
- . *Nois naquidina ... / Iin*: hau da mutilak jakin nahi duena, noiz etor dakioketen neskari. Hori estilo indirektoan. Estilo direktoan eta euskara batuan: “noiz etor nakinake?”
- . *naquidina*: euskara zaharrea aditz laguntzaile iragangaitzaren subjuntiboko “nor-nori” formak eta euskara batukoak ia berberak diren bezala –“nakion, dakion, dakigun, nakizun” etab.–, aldiz ahalerara igarotzean gauzak pixka bat aldatzen dira. Izan ere, *-ke-* ez da agertzen, baina *-di-* (“nadin, hadin”) bai, eta predatiboaren *-ki-* rekin trukaturaz –“nadiki-” gabe “nakidi-”. Beraz euskara batuko “nakinake” (ni hiri, emakume!) “naquidina” bihurtzen zaigu, *-ke-* galtzean, esan bezala. Hemen beste gauza bat gertatzen da gainera: zehar-galdera delakoaren azken *-(e)n* ere erori egin da. Lafon: “l’n final est tombé, comme il arrive parfois en souletin” (ikus. “Notes...”, or. 67). Ikus ‘lakidita’ (XIII,15), forma bereko adizkia.

- . *noura*: -ou- grafia *u* bokala adierazteko. *Noiz* etorri bakarrik ez dio jakinara-zi behar, *nora* (=noura) ere bai, eta ez dadila edozein leku izan, baizik gorde-lekua.
- . *bat aquidan*: ‘nor nori batu’, alegia. Ikus hori bera I,5: “noiz ere batzen baitzitzautzat”. Goiko aginterazko ‘egin’ (ezan) haren mende bi perpaus konpletibo daude, izan ere: “egin dakidan” eta “egin bat akidan”.

IV

Aurrekoa bezalakoxea da ia denean, bertso bakoitzaren silaben kopuruan eta hauen erriman. Batean ez ordea: hemen ez dago bi silaba eta erdiko errimarik. Neskatxari ari zaio denbora guztian zuka, bere zoritxarrak konta eta konta, eta bukatzen du esanez munduan badatekeela gizaseme argiago eta buruz jantziagorik, baina ez “zuretarragorik”.

- | | | |
|-------|--|--|
| IV,1. | Zuzaz bertzerik
nehor maiterik
eztudalarik herrian,
zu bezain gorrik
ez hain gogorrik
eztudala d' agerrian. | A pesar de que en el país
a nadie quiero
sino a ti,
es notorio que conmigo
nadie es tan sordo y tan esquivo
como tú. |
| IV,2. | Zu gabetarik
dohatararik
aspaldi hontan denbora,
banaiz jaikiten,
banaiz etziten
zu zatozt beti gogora. | Como últimamente para mí
el tiempo transcurre
sin ti,
así al levantarme como al acostarme
vienes tú siempre
a mi mente. |
| IV,3. | Bana nabaski
zuretako aski
enaizela sinetsirik,
zuk ni zureti
(aiher naiz) beti
nadukazu berezirik. | De la tuya, en cambio,
sospecho que me tienes siempre
excluído,
persuadida
de que no basto
para ti. |
| IV,4. | Atsegin ustez
har zur' ikustez
beti zu zaren lekura | Esperando
disfrutar
de tu mirada, |

- | | | |
|--------|---|---|
| | so xuxen ari
naiz senalkari
okerraren eredura. | miro siempre
como un falso indicador
al lugar en que estás. |
| IV,5. | Zuk zenbat usu
haur baitakusu
begi bazterraz, laztana,
alabadere
soz behin ere
etzindezke jar nigana. | Por mucho que tú ves esto,
querida,
con el rabillo del ojo,
sin embargo nunca eres
capaz de ponerte
a mirarme a mí. |
| IV,6. | Zu nahiz batu
eta minzatu
hora nol' erbiratzean,
bazterrez bazter
bethiere laster
ari naiz zure hatzean. | Yo queriendo juntarme
y hablar contigo
voy siempre presuroso tras de ti,
por un lado y por otro,
como el perro
tras la liebre. |
| IV,7. | Bana jagoiti,
beheiti, goiti
zenbat ere bainabila,
zur' oldez ehun
bat enaint' ehun
urtez behin zurekila. | Pero por mucho que de tiempo atrás
ando arriba y abajo,
no podré juntarme contigo
por deseo tuyo
en ningún sitio
ni una vez en cien años. |
| IV,8. | Aldiz naiz latzen
bilhatuz batzen
ban' ez ber zaitudanean,
zer gaitz jasaiten
dudan erraiten
ezin derauzudanean. | A veces me exaspero,
como cuando a fuerza de buscarte
te encuentro,
pero no sola, sino en un lugar
en que no te puedo contar
el mal que padezco; |
| IV,9. | Edo zoriak
nonbait bi-biak
noiz ere heltzen baikitu,
han ni nigartzu
ikusiz, hark zu
gogoritzen ezpazitu. | o, como cuando la suerte nos hace
a los dos encontrados
en algún lugar,
sin que allí
el verme llorar
te lastime el corazón. |
| IV,10. | Ni honen bero
nakusun gero
zure gogoz maitatzera,
zu zerk hain haitu
egiten zaitu
nizaz ez gogaratzera | Puesto que a mí me ves
tan encendido a quererte
de corazón,
¿qué te hace a ti tan altiva
para no conformarte
conmigo? |

IV,11. Hel dait´ asturuz	Puede ser que existan
bertz´ anhitz buruz	por ventura personas
norbait ons´ eginagorik,	de mejor hechura que la mia,
bana ni bano	pero jamás nadie
ez egundano	que sea
nehor zuretarragorik.	más tuyo que yo.

IV,1. Alors que je n'aime dans le pays personne d'autre que vous, il est clair que je ne trouve personne d'aussi sourd que vous, ni d'aussi dur.

IV,2. Alors que depuis longtemps mon existence se passe sans vous, soit que je me lève, soit que je me couche, vous venez sans cesse à ma pensée.

IV,3. Mais comme, sans doute, vous croyez que je ne suis pas un parti suffisant pour vous, vous me tenez toujours (je le soupçonne) à l'écart de vous.

IV,4. Dans l'espoir que j'aurai le plaisir de vous voir, je ne cesse de fixer l'endroit où vous êtes, en faisant signe d'un oeil, à la manière d'un borgne.

IV,5. Si souvent que vous voyiez du coin de l'oeil ce manège, mon aimée, jamais pourtant vous ne dirigeriez vos regards pour moi.

IV,6. Afin de vous rencontrer et de vous parler, je ne cesse, comme un chien à la poursuite du lièvre, de courir d'un côté à l'autre sur vos traces.

IV,7. Mais j'ai beau aller en toutes directions, jamais, par votre volonté, nulle part, pas une fois en cent ans, je ne saurais vous rentrer.

IV,8. Au contraire, j'éprouve une impression pénible quand, à force de vous chercher, je vous rencontre, mais pas seul, et que je ne puis vous dire quel mal j'endure,

IV,9. Ou si, quand le hasard nous réunit tous deux quelque part, de me voir là en larmes, cela ne rend pas votre coeur malade.

IV, 10. Puisque vous me voyez si ardent, qu'est-ce qui vous rend si hautaine que vous ne vous accommodiez pas de moi?

IV,11. Il peut se rencontrer beaucoup d'autres hommes mieux faits de leur personne; mais il n'y en a eu encore aucun qui soit plus que moi attaché à vous.

ARGITASUNAK

IV,1.

- . *Susas berzeric* (ahoska ‘zuzaz bertzerik’): ‘-z beste’ delako moldea ezaguna dugu (ikus II,4), bai eta *berze* / *berse* grafia bikoitza ere.
- . *Estudalaric*: -*ŷt*- grafia -*st*-ren lekuan, gure -*zt*- adierazteko. Hortxe berean, beherago, *Estudala*, Oihenarten sistemak eskatzen duen bezala.

IV,2.

- . *Dohataric*: euskara batuko -*ki*- gabe: ‘dohat-dohakit’. “Zu gabe dohakit denbora” dio poetak.
- . *demboria*: neurriak eta errimak erakusten duten bezala, errata da: *dembora*.
- . *Banais...* / *Banais* (ahoska ‘banaiz’): banakariak dira, ‘dela han, dela hemen’ esaten dugunean bezala.
- . *satost* (ahoska ‘zatozt’): hau ere euskara batuko -*ki*- gabea = *zatozkit*.

IV,3.

- . *nabaski* /... *aski*: bietan -*sk*- grafia, Oihenarten sistemako -*ŷk*- grafiaren lekuan, txistukaria apikaria baita, hots, gure -*sk*-.
- . *sinetsiric*: *s*- hitz hasieran *ŷ*-ren lekuan, gure *s*- apikaria adierazteko (hitz honen idazkeraz, cf. 22).
- . *sureti...* /.../ *beresiric* (ahoska ‘zureti... berezirik’). Lafon: “ablatif du possessif zure, équivaut ici à l’ablatif du pronom personnel”. Orpustanek: “à l’écart de ce qui vous touche”. “Ni zuretan hartu” ikusi dugu (ikus II,12). ‘Zure’ kontzeptua oso maitea du Oihenartek eta inorenak diren gauzen zirkulua adierazten du. Azalduko da gehiagotan.
- . *Aiher nais*: hiztegiñoak dio zubereraz “je me doute ou je soupçonne” esan nahi duela.

IV,4.

- . *vstes* / *Har*: tolesta honela hitz horiek: “zure ikustez atsegin har ustez”, edo hartzeko ustez. Bestalde, -*st*- berriro -*ŷt*-ren lekuan, gure -*st*- adierazteko.
- . *sur ikuŷtes*: agerikoa da hitzen tarte horretan apostrofoa ipini behar dela.

- . *So ... ari / Nais*: ‘so egon’ esaten dugu komunzki. Ik. ‘soz jarri’ ere, IV,5.
- . *senalcari / Okerraren*: Lafonek: “en faisant signe d’un oeil, à la manière d’un borgne” (“Traduction...”, 8). Orpustanek: “faisant signe (d’un oeil), à la manière d’un borgne” (“Proverbes et...”, 145). Txillardegik: “senalkari okerraren eredura” (“Atsotitzak eta...”, 141). Ohar *s-* txikia dagoela hitz hasieran, *ʃ*-ren lekuan, gure *s-* apikaria adierazteko.

IV,5.

- . *sembat ussu* (ahoska ‘zenbat usu’): balio kontzesiboa ematen dio perpausari ‘zenbat’ horrek; ondoko ‘alabadere’-k frogatzen du hori ondoena (‘hala ere’ esan nahi baitu).
- . *Baʃterras laʃtana*: bietan *ʃ* luzea *s* txikia behar zuenean, gure *z* bizkarkaria adierazteko. Ikus *baster-* (III,2; IV,6) eta *lastan-* (XII,1; XIV,1, 4).
- . *Sos ... /... iar nigana*: ‘soz jarri –gana’, ‘begira jarri norbaitengana’.

IV,6.

- . *Su nahis batu* (ahoska ‘zu nahiz’): ‘nor nork batu’ dugu hemen; ‘nor nori batu’ atera zaigu lehen (III,8).
- . *Hora nol’ erbirazean, /.../... laʃter / Ari nais*: alegia, zakurra erbitara doanean bezala lasterka nabil, ari naiz. ‘Nais’, baina ‘nis’ ere atera zaigu.
- . *Basterres baʃter*: cf. IV,5.

IV,7.

- . *Beheiti, goiti*; hots, ‘gora, behera’, adlatiboak baitira.
- . *Sembat ere bainabila*: (ahoska ‘zenbat...’): hortxe goian (ikus IV,5) agertu zaigu kontzesibo balioa duen ‘zenbat... bait’; hemen hura bera ‘ere’-k indartua.
- . *ehoun*: ‘ehon, inon’. Lehen (ik. III,8) ‘noura’ esan duenak eta orain ‘ehoun’, bidezko da **no-* erroan bokal luzea ikustea, Oihenartek *L’Art poétique...-n* (ik. 36, or.) dakusan bezala. Bereiz *ehoun* hau eta ondoko *ehun* zerbakia.
- . *Bat ... / ... surequila* (ahoska ‘zurekila’): hemen ‘inor inorekin batu’, lehen (ik. IV,6) ‘inor inork batu’ bezala.

- . *enaint*: hots, *enainte*; adizki soila ‘nainte’ da, noski, euskara batuko ‘ninteke’, Etxepareren ‘nainde’ (ik. V,20) eta Leizarragaren ‘neinde’ (Erreginari egin kartan). Aldaerak dira eta forma zaharra **nandite* dateke.

IV,8.

- . *nais lazen* (ahoska ‘naiz latzen’). Irakur honela: Aldiz latzen naiz, bilhatuz batzen zaitudanean, baina ez ber. Lafonek ez du aurkitzen hiztegitan ‘lazu’-ren bere beteko esanahirik eta “je suis impressionné” ou “j’ai la chaire de poule” proposatzen du (“Notes...”, 68. or.). Esanahi juxtua ez ote da “me ex-*aspero*” (< latz=, asper (lat.), áspero)?
- . *bazen* / ... *saitudanean* (ahoska ‘batzen ... zaitudanean’): ‘nor nork batu’ hemen ere, lehen bezala (ik. IV,6)
- . *erraiten* / *Esin derausudanean* (ahoska ‘ezin derauzudanean’): ‘jaten ezin dut’ bezalako moldea da hau, aurrekoaren aposizioa.

IV,9.

- . *Edo ... /... / Gogoerizen espasitu* (ahoska ‘gogoeritzen ezpazitu’): berdintasuna adierazten duen lokailu honek, *edo*-k, hemen “erraiten ezin derauzudanean” eta “gogoeritzen ezpazitu” berdintzen ditu; hots, bata edo bestea gertatzean latzen naiz. Ederki Lafonek: “Le verbe principal est toujours *nais lazen*. A ce verbe sont donc rattachées deux subordonnées de nature différente, unies par *edo*: une temporelle et une suppositive” (ik. “Notes...”, p. 68).
- . *Non-bait*: hitz hau hemen marrarekin, behin bereiz (V,23) eta gainerako guztietan loturik (III,2; V,13; X,15; XX,18; XXVI,2).
- . *Nois ere baiquitu*: ‘noiz ere ...bait-’, ik. I,5. (Bai)kitu eta (ezba)zitu: ik. *niz* (III,1), baina hurrengo bertsoan *zaitu*.
- . *helzen baiquitu* (ahoska ‘heltzen baikitu’); ‘zoriak gu heldu’, alegia. Beraz ‘nor nork’. Ik. aldiz II,4 eta III,3: bietan ‘nor’ soila.

IV,10.

- . *bero* / *Nacu|sun guero* / *Sure ... maitazera* (ahoska ‘zure ... maitatzera’): bata-*ez* gabeko kausala eta bestea gure *-tze*-ren ordezkoi *-tzera*; ‘zure’, gainera, genitibo objektiboa.

- . *gogarazera* (ahoska ‘gogaratzera’). Ez ‘gogoratzera’: “inortaz gogAratu”. Lafonek ere “vous ne vous accommodiez pas de moi” itzultzen du (“Traduction”, 9, or.). Ik. “gogarako”, X,8.

IV,11.

- . *Hel dait*: hel daite = gerta daiteke; ‘nor’ aditza da hemen ‘heldu’; ik. IV,9, bestelakoa.
- . *asturus* (ahoska ‘asturuz’): benturaz.
- . *ons’ eguinagoric*: = hobeki egina; konparazioko atzizkia ez du aditzondoak hartu. Ez dio, alegia, ‘hobeki eginik’. Ikus, bestalde, *s* txikia ∫ luzearen lekuan, gure *s* apikaria adierazteko, *n*- kontsonatearen ondoan (hitz honen idazkeraz, cf. 251).
- . *Bana*: irakur honela: “bana egundano ez nehor ni bano zuretarragorik”.

V

Hona neurtitz luzea, lerro eta bertso askotakoa, zeren bi lerro aski baitira bertsoa osatzeko. Bestela esan, binaka antolatuak daude. Hots, binaka-binaka taxutzen dute errima eta binaka-binaka berritzen. Beraz distiko deitu ohi direnak dira. Lerro bakoitz guztiak hamar silabakoak dira; asko horrela, 5+5, moldatuak, baina ez guztiak; beraz zesura ez dagokio eskemari, nahiz batzuetan zesura duten lerroek; aldiz lerro bikoitzak bederatzikoak dira. Errima beti bezalakoa, silaba eta erdikoa. Hasi eta buka larderiaka ari zaio neskatxari bere jokabide txarragatik, hil nahi izateraino, zeren hiltzea gaitz omen da, baina gaitzago “maite ukhen eta ez maite izana”.

Neurtitz honen zati nagusiak ere bistan daude: Zu adina ez dut inor maite, baina zuk beti gibela ematen didazu (1-18). Batzuetan ene otoien poderioz etsitzen baduzu, orduan ere “zu beti lehiatu zira”, presaka (19-30). Gauaz zure etxean sartzen ausartzen banaiz, “hilpenan behar dut itzuri” (31-40). Ontasuna lagun ez duen zurea bezalako edertasuna ez da deuskai, laster zimeltzen da (41-54). Zugatik hiltzen banaiz, zu errudun, “gizon bat galdu dukezulakotz” (55-62).

V,1-18

Nik eztut ehor maite zu beizi
zuk zeren nahi nuzu ireizi?
Engoitik ordu zinue hontu
eta nizaz eduki kontu,
nahi ezpanuzu net hil-urhentu
nola bainuzu ia hurrentu;
ezi bihotza zu beti hala
ikusiz gibel zautzadala

A nadie quiero yo sino a ti,
¿por qué tú me quieres reprobar?
Sería hora de que entraras en juicio
y tuvieras interés por mí,
si no quieres acabar de matarme,
como me has acercado ya a la muerte;
pues mi corazón, viendo
que siempre me das la espalda,

hotzarriturik orai hil-hila
hoboro nitan eztabila.
Bana zuk nahi baduzu sarri
harzara piztu et´ iratzarri,
nonbait egizu Jainkoaren partez
ikus zitzadan zenbait artez:
bana zureki nahi nikezi
elizan nehor zuhaur bezi
et´ ikuslerik ageri elizan
lekutara zindiaurizan.

petrificado y muerto de frío
ya no camina dentro de mí.
Pero si tú quieres resucitarlo
de nuevo y reavivarlo,
haz, por Dios, que te vea,
un rato en algún lugar;
pero querría que no hubiera nadie
contigo, salvo tú misma,
y que acudieras a un lugar en el que
no hubiera ningún curioso.

V,19-30

Batzutan luzez, luzez otoituz
zure bihotz gogorra goithuz
norabait jitez hitz badidazu,
hur´ ere ger´ ezta dukazu.

Si a veces a fuerza de rogártelo
y tras vencer tu duro corazón
me prometes acudir a algún sitio,
luego ni eso cumples.

Nonbait bi-biak heltzen bagira
zu beti lehiatu zira;
orduan bi hitz zuri erraiteko
zur´ eskuari banatxeko,
bertarik nola samur-samurra,
belar hori zimur-zimurra,
utzi zitzadan manuz baitzausat
etxekiterago eniz ausat.

Si nos reunimos ambos en algún sitio,
tú siempre andas con prisa;
y si para decirte entonces
dos palabras te cojo de la mano,
como tú, al punto, me ordenas
muy molesta y con la frente
muy ceñuda que te suelte,
no me atrevo a sujetarte más.

V,31-40

Gauaz, epaiskaz zur´ etxen sartuz
em´ ibiliz, eme hatsartuz
eta haztatzez ganbara bitan
iraganik, beldur handitan,
net hats hanturik zur´ oh´ ondora
banatorra, zuk heiagora
egiten duzu, ni hautemanik,
et´ ordu hartan gaxoa nik
leihoti jauziz, ohoin´ iduri,
hilpenan behar dut itzuri.

Si, entrando de noche en tu casa
furtivamente, pisando suave,
respirando quedo, palpando
con las manos, me acerco a tu cama
cruzando dos habitaciones, muerto
de miedo y sin casi respirar,
tú al advertirme lanzas un grito
y en aquel momento yo, pobre de mí,
tengo que darme a la fuga, saltando
por las ventanas como un ladrón,
con dolores de muerte.

V,41-54

<p>Noiz ere bainaiz hauzaz orhitzen zin-zinez baniz hil-nahitzen: hiltzea gaitz da, gaitzago bana mait´ uken et´ ez mait´ izana. Harren gaurgoiti zerbait hongoaz urgatz nezazu Jaungoikoaz, ezi ezta deuskai edertartzuna lagun ezpadu hontartzuna. Ainziti ederrik gaitz dena duzu berhala nol´ ezne´ uluzu denean, edo sagarra harzu, haur ederra buru zakarzu edo anderauren begitartea pikot´ orbainez net bethea.</p>	<p>Siempre que me acuerdo de esto me vienen de verdad ganas de morir: es duro el morir, pero más duro amar y no ser amado. Por ello socórreme, por Dios, desde ya con algunos favores, porque de nada vale la hermosura si no tiene la bondad por compañera. Al contrario, la que a pesar de ser hermosa es mala, es al poco tiempo como la leche al llenarse de moscas, o la manzana de gusanos, o la cabeza del niño de costra, o el rostro de señora de cicatrices de viruela.</p>
---	---

V,55-62

<p>Beraz zirentzat xahu estakuruz hel zaskio sober´ aiduruz zugatik hiltzen ari denari eta hur´ otoi urrikari; ezpere hura hilen d´ eta zu harzaz-huts zirate hospazu, gizon bat galdu dukezulakotz. Zergatik? Maite zintielakotz.</p>	<p>Así pues, para que estés limpia de reproches, socorre al que, por excesiva atención contigo, está muriendo por ti, y ten, por favor, compasión de él; de lo contrario él morirá y tú serás famosa sólo por esto: por haber arruinado a un hombre. ¿Por qué? Por haberte querido.</p>
--	---

V,1-18. Je n'aime personne d'autre que vous. Pourquoi avez-vous la volonté de me repousser? Il serait temps que dès maintenant vous répariez ce tort et que vous ayez de la considération pour moi, si vous ne voulez pas m'achever complètement, comme vous m'avez déjà amené près de la mort. Car mon coeur, voyant que vous me tournez ainsi toujours le dos, est maintenant glacé et tout à fait mort; il ne marche plus. Mais si vous voulez le rappeler promptement à la vie et le reveiller, faites, au nom de Dieu, que je vous voie quelque part par quelque moyen. Mais je voudrais qu'il n'y eût avec vous per-

sonne d'autre et que vous vinsiez dans un endroit où l'on n'aperçût aucun spectateur.

V,19-30. Si parfois, à force d'interminables prières, je réussis à vaincre la dureté de votre coeur et si vous me promettez de venir quelque part, vous ne tenez même pas, par la suite, cette promesse.

Si nous nous joignons tous deux quelque part, vous êtes toujours pressée. Alors, si je vous saisis la main pour vous dire deux mots, comme, aussitôt, violemment courroucée et le front tout plissé, vous me donnez l'ordre de vous laisser, je n'ose pas insister.

V,31-40. Si, la nuit, à la dérobée, j'entre chez vous, en marchant doucement, en retenant doucement mon souffle, et si, en tâtonnant, après avoir passé deux fois votre chambre, plein de crainte, à bout de souffle, je viens près de votre lit, vous poussez de grands cris en m'apercevant, et alors, malheureux que je suis, il me faut sauter par la fenêtre, comme un voleur, et m'enfuir, la mort dans l'âme.

V,41-54. Quand je me rappelle tout cela, très sincèrement je désire mourir. La mort est un mal; mais c'est un plus grand mal que d'aimer et de ne pas être aimé. Donc, dorénavant, secourez-moi, au nom de Dieu, par quelques bontés. Car la beauté ne sert à rien si elle n'a pas la bonté pour compagne. La beauté unie à la méchanceté, c'est comme le lait quand il est plein de mouches, ou une pomme pleine de vers, ou un bel enfant lorsqu'il a la tête couverte de croûtes, ou le visage d'une demoiselle lorsqu'il est tout plein de cicatrice de variole.

V,55-62. Donc, pour être exempte de reproche, venez à celui qui, pour vous avoir trop attendue, est en train de mourir à cause de vous, et ayez, je vous en prie, pitié de lui. Sinon, il mourra, et vous, vous ne serez célèbre que pour avoir causé la perte d'un homme; et pour quelque raison? Parce qu'il vous aimait.

ARGITASUNAK

V,1.

. *estut*: -*st*- grafia gure z bizkarkaria adierazten duen -*st*-ren lekuan.

. *su beisi* (ahoska 'zu beizi'): ik. I,1

V,2.

- . *seren* (ahoska ‘zeren’): galderazkoa, azentuduna, guk ‘zergatik’ dioguna.
- . *nusu* (ahoska ‘nuzu’): ‘nauzu’, -a- galdua. Ik. IV,9.
- . *ireici*: -ci- grafia Oihenarten sistemako -si-ren lekuan.

V,3.

- . *sinuque* (ahoska ‘zinuke’): gure ‘zenuke’.
- . *ordu ... hontu*: guk “ontzeko ordu”.

V,4.

- . *eduki contu* (ordu zinuke): kontu edukitzeko ordu, alegia.

V,5.

- . *espanusu*: -[p]- grafia gure z bizkarkaria adierazten duen -sp-ren lekuan.
- . *net bil-vrhentu*: arras, erabat hilarazi. Lafonek: “achever de tuer” (“Notes...”, 69. or.)

V,6.

- . *nola bai(t)* -: gure perpaus ondoko ‘-n bezala’: alegia, “ia hurrentu nauzun bezala”. Hurrentu = hurbildu.

V,7.

- . *Eci* (ahoska ‘ezi’): < *ezik* = *ezen*. Juntagailu kausala. Ohar *ci* grafia; hitz hau maiz *esi* idazten da, Oihenarten sistemak gure z bizkarkaria adierazteko eskatzen duen moduan (352, 373; III,2; V,47; VII,2,7; XII,12; XIII,6,28), baina beste batzuetan *eci* (V,7; VIII,6; XII,3; XIII,7,19) (*ezi ez*-en idazkeraz, cf. 150).

V,8.

- . *guibel saustadala* (ahoska ‘gibel zauztadala’): ‘zauztat-’, hots, ‘zu neri zagoztat-’, guk -ki- sarturik ‘zagozKIt’ dioguna, baina poetak datibo atzizkia errepikatzen du, nahiz ‘zagozt’ aski izan (ikus, ‘zatozt’, IV,2).

V,10.

. *Hoboro nitan estabila*: bihotza, alegia. Ez dabil gehiago nigan, edo gelditu da. Hemen ere -*st*- grafia, espero zitekeen -*st*-ren lekuan.

V,11.

. *sarri*: gure *s* apikaria denez, *larri* behar luke Oihenarten idazkeran.

V,12.

. *Harsara piztu & irazarri* (ahoska ‘harzara piztu et´ iratzarri’). Sinalefa egin behar da ‘piztwet’. Horko & ikur horrek ‘et’ adierazten du eta ondoan apostrofoa behar luke (cf. 45). Francisque-Michelek, hain zuzen, *et´ irazarri* idazten du. Ohar, hemen ere, -*st*- grafia -*st*-ren lekuan, *piztu* adierazi nahi baita.

V,13-14.

. *eguisu ... / Icus sizadan* (ahoska ‘egizu ikus zitzadan’); konpletiboa. Ohar hitz amaierako -*s* apikaria, Oihenarten sistema erabat betetzekotan -*st* behar lukeena.

V,15-16.

. *surequi nahi niquesi / Elisan nehor* (ahoska ‘zureki ..nikezi elizan’): forma alokutiboa da ‘nikezi’; alegia, *nabi nuke, adizu!*. “(E)lizan”: hots, ez lizan; ‘nabi niquezi’-ren konpletiboa edo osagarri da. Bestalde hori edo *izan (ez) ledin* gauza bera dira, *hala biz* eta *hala izan bedi* diren bezala.

. *subaur besi* (ahoska ‘zuhaur bezi’): honexen lehen lerroan *beizi*, errimogatik.

V,17.

. *et´ ... agueri elisan*: aurreko ‘elisan’ bezalaxe, hor ere ez baita laguntzaile, ez baitu nori lagundu, ‘agueri’ izenondo delarik.

. *ikusleric*: *iku*stleric behar luke Oihenarten sisteman, gure *s* apikaria baita.

V,18.

. *sindiaurisan* (‘zindiaurizan’): Lafonek: “que vous vinssiez; forme d´éventuel

à suffixe relative du verbe *jaugin* ‘venir’” (“Notes...”, 69). Betetzen duen funtzioari buruz: ‘nahi nikezi’-ren beste konpletiboa da; alegia, ‘nahi nikezi elizan eta zindiaurizan’. Horregatik ez dira bi ‘elizan’ horiek guztiz berdinak funtzioz: hura konpletiboa esan dugu, hau erlatiboa: “que vous vinssiez dans un endroit où l’on n’aperçût aucun spectateur” (Lafon, “Notes...”, 9. or.); *-diau-* bi silaba dira, lerroa bederatzikoa izango bada.

V,20.

. *bihos*: dagoen bezala gure *bihoz* izango litzateke, baina errata dirudi, hitz hau 25 bat aldiz ageri baita liburuan eta honetan ez beste guztietan *bihoz* idazten baita, hots, gure *bihotz* –behin *bihots* (IX,4)–.

V,21.

. *hiz badidasu* (ahoska ‘hitz badidazu’): = hitz ematen badidazu, zeren euskara zaharreko **i(n)* erroitik sortua da adizki hori. Izan gogoan: “i(n)dazu ur!” klasikoa (< ‘da mihi bibere’).

V,22.

. *Hur ere*: emandako hitz hura ere, alegia. Hitzen arteko tarte horretan apostrofoa ipini behar da.

V,23.

. *Non bait*: bereiz (ik. IV,9).

. *bi-biac, helzen baguira* (ahoska ‘heltzen’): hemen *heldu* irangaitzak ez du ‘nora’ konplementurik; konplementu bakarra aditzondo *nonbait* da: ik. IV,9.

V,25.

. *Ordüan*: dieresiak *u* hori bokal silabagilea dela adierazten du: *u-a*.

. *suri'erraiteco*: apostrofo moduko bat ageri da jatorrizko testuan, bokal-eli-siorik ez badago ere; silaba batean irakur: *-ye-*.

V,26.

. *escuari*: *-sc-* ostera ere, apikaria izanik *-ʃc-* behar lukeelarik (hitz honen idazkeraz, cf. 46).

- . *banaxeco* (ahoska ‘banatxeko’): beste zenbaitetan bezala *x* idatziko zuen Oihenartek, hots, gure *tx*, baina moldiztegian letra gaineko puntua ‘galdu’ egingo zuten. ‘Etxeki’ partizipioaren orainaldiko forma sintetikoa da: *ni-hari*, alegia. Lafonek: “forme simple du verbe ‘etxeki’ (“Notes...”, 70. or.)

V,27.

- . *samur-samurra*: ‘zuzen-zuzena etorri dira’ esaten den bezala: ik. X,15. Hitz hasierako *s-* bietan, apikariari dagokion *ʃ*-ren lekuan (cf. *ʃamur-*, XVII, 67).

V,28.

- . *simur-simurra* (ahoska ‘zimur-zimurra’): gauza bera.

V,29.

- . *Vzi sizadan* (ahoska ‘utzi zitzadan’): euskara batuan ‘utz zaitzadan’, baina euskara zaharrean ‘utz’ eta ‘eraz’ ez dira agertzen (ik. X,6).
- . *manus* (ahoska ‘manuz’): ik. II,14
- . *baizausat* (ahoska ‘baitzauzat’). ‘Zu neri(bait)zagoz(ki)t’, alegia: ik. V, 8. Errimak aldarazi dio adizkera: han *zauztat-*, hemen *zauzat*.

V, 30.

- . *Exequiterago* (ahoska ‘etxekiterago’): *x* soila ostera ere *x*-ren lekuan. Ik. hortxe goian (V,26) ‘etxeki’ eta hemen ‘etxekite-ra’ -horretaRA ez naiz ausart, alegia-, konparaziozko atzizkia duela; beraz, gehiAGO exekitera ez naiz ausat edo ausart. Poliki Lafonek: “comparatif du latif du substantif verbal de *etxeki*” (“Notes...”, 70. or.), lehengo “bozen-ago”-ren (III,2) antzekoa.
- . *ausat*: *-s-* txikiaren lekuan *ʃ* behar luke, apikaria baita (cf. *Auʃartqui*, 550).

V,31.

- . *Gaiias*: dieresiak *-u-* bokala dela adierazten du: *gau-az*, ez *ga-baz*.
- . *epaiscas*: *-sc-* grafia apikariari dagokion *ʃc*-ren lekuan. Hiztegiñoan *Epaixca*.

- . *cur' exen* (ahoska 'zure etxen'). Hala dio testuak, baina bistan da *çur'* behar duela, Oihenarten *s*-ren lekuan inoiz agertzen den *ç* grafiarekin. Bestalde, *ex'en* behar lukeen *exen* izenak *x* soila inoiz gure *tx* afrikatuaren lekuan dagoela erakusten du (cf. 45). Zuberera klasikoak "*neure* etxean naiz" eta "*ene-nere* etxera dator" bereizten ditu.
- . *sartus*: hitz hasieran *s*-, apikariari dagokion *ʃ*-ren lekuan (cf. 283).

V,33.

- . *haztazes* (ahoska 'haztatzez'). 'Haztatuz' esperoko genuke aurreko bien ondoan.
- . *gambara bitan*: Lafonek: "...passé deux fois votre chambre..." ("Traduction...", 10. or.); Orpustanek: "ayant traversé deux chambres" ("Proverbes et...", 146, or.); Txillardegik: "gambara bitan iraganik" ("Atsotitzak eta...", 146, or.)

V,34.

- . *beldur handitan*: hori horrela dioenak, eta ez 'beldur handian bizi da', ez da harritzeko "beldur handitan iraganik" esatea eta hainbestez "beldur handitako umetxoa".

V,35.

- . *hatshanturic*: loturik -euskara batuan *hatsantu-*. Arnasa handiturik, estuturik; *hantu* < *handitu* (ik. *zaurtu* < *zauritu*; *hartu* < *haritu*). Hau Etxeparek, bai eta *anderehantu*: VII,10.

V,36.

- . *Banatorra*: lehen (IV,7) "bainabila" irakurri dugu.

V,38.

- . *gaxoa nic*: guk 'gaixo honek (ez nekien zer egin)' esaten duguna.

V,39.

- . *ohoin' iduri*: hau da, 'ohoin(a) iduri'. Iparraldean hala esan ohi da Hegoal-

dean “lapurraren antzera” esan ohi dena, ‘iduri’-k genitiboaren errejime-na ezarri gabe. Alegia, ‘saindu bat iduri egoten da elizan’.

V,41.

. *Nois ere bai-nais* (ahoska ‘noiz ere bainaiz’): marrarekin. Hemen ‘naiz’, ez ‘niz’, hurrengo lerroan bezala. Esapide hau ik. I,4-5.

V,42.

. *Sin sines*: bereiz.

. *banis hil-nahizen*: Mitxelenak “Ez dela etorri? *BAda* etorri” ez zuen komuntzat ematen; “etorri da” erantzun behar zela. Baina hemen dugu antzeko bat eta Larramendik Mendibururi eginiko kartan bi. “Hil-nahitu”: ez da egunoro aurkitzen.

V,43.

. *gaizago bana* (ahoska ‘gaitzago’): ‘ordea’-k izan ohi duen lekua hartu du hemen ‘bana’-k errimogatik.

V,44.

. *Mait’vken*: alegia, maitatu (inork inor), iragankorra.

. *et es mait’isana*: horrela testuan, baina agerikoa da apostrofoa ipini behar dela lehen tartean ere. ‘Ez maite izana’, alegia, maitatua ez izatea, iragan-gaitza.

V,45.

. *hongoas* (ahoska ‘hongoaz’). “C’est l’abstrait correspondant à l’adjectif *hon* <bon>” (Lafon, “Notes...”, 71. or.).

V,46.

. *iaungoicoas*: minuskulaz, testuan.

V,47.

. *Esi* (ahoska ‘ezi’). Ik. *Eci* hementxe gorago, 7.

- . *deuscái*: eta kontrakoa ‘ezdeus’: *trebea* eta *ezgaia*. Hor ere *-s-* txikia, apikariari dagokion *ʃ*-ren lekuan, lexemaren buruan dagoelako beharbada; cf. *deuʃcái* (592).

V,49.

- . *ederric*: ik. Etxepare II,106: “zu anderia ama zira *birjinarik* Ieinkoaren”. Partitibo hauek balio konzesiboa dute. Poliki itzultzen du Orpustanek: “tout en étant beau”, baina ez “beau”, baizik “belle”. Lafonek ez du itzultzen hori.

V,50.

- . *nol eʃneʹ ulusu*: lehenbiziko tartean testuan ageri ez den apostrofoa ipini behar da; *eʃne(a)* hitzean, bestalde, *-ʃ-* luzea *-s-* txikiaren lekuan dago, gainerako agerpen guztietan *esne-*, hau da, gure *ezne*, idazten baita (304, 455, 701; XIII,14; XXVI,17...). Apostrofoak, azkenik, *-a* artikuluaren elisioa adierazten du.

V,51.

- . *sagarra*: hitz hasierako *s-* txikia, apikariari dagokion *ʃ*-ren lekuan dagoela dirudi.

V,53.

- . *anderauren beguitartea*: alegia, andere aurpegia, lehena nominatibo mugagabea baita.

V,54.

- . *Picotʹ orbaines*: guk ‘bastanga postillez’ edo diogu.

V,55.

- . *sirenzat* (ahoska ‘zirentzat’): helburuzko balioa duen atzizkia, aurrean adizki laguntzailea, hemen laguntzaile ez dena: ik. V,16-17.
- . *chabu*: Oihenarten idazkeran *xabu* behar luke.
- . *estacurus*: *-st-* grafia, berriro ere, apikariari dagokion *ʃt*-ren lekuan. Cf., ber-

din, *stacuru* (VI,3); gure *s* nahiz gure *z* balio dezakeen *Stacuru* (III, 7); baina hiztegiñoan *Estacuru* edo *Itacuru*, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan.

V.56.

- . *Hel sasquio* (ahoska ‘hel zazkio’): *nor-nori* motako aditza da hemen ‘heldu’ eta euskara batuko –*ki*- bat eskas du ‘sasquio’ horrek: orain ‘zakizkio’.
- . *sober*’: *s*- hitz hasieran, apikariari dagokion *ʃ*-ren lekuan (hitz honen idazkeraz, cf. 307).

V.58.

- . *hur’otoi vrricari*: ezazu, alegia; edo erruki zakizkio. Dieresiak *i* hori bokala dela adierazten du.

V,59.

- . *Eʃpere* = ezperen, ostera. Hemen ere *ʃ* luzea ageri da, gure *z* bizkarkariari dagokion *s*- txikiaren lekuan; baina ikus *espere*-, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan (59; XV,9).

V.60.

- . *Harsas* (ahoska ‘harzaz’); edo hartaz: zarateke ospetsu, alegia.
- . *hospasu*: hemen, alderantziz, *s*- txikia ageri da *p* kontsonantearen aurrean, apikariari dagokion *ʃ*-ren lekuan, *hospa*- irakurri behar baita, ez *hozpa*-; cf., berdin, *hospatu* (XVII,1), baina hiztegiñoan *hospazea*, *hospasu*, Oihenarten sistemak eskatzen duen moduan.

V,61.

- . *Guisonbat*: loturik.

V.62.

- . *sintielacoz* (ahoska ‘zintielakotz’): zintuelako.

VI

Izenburuan “Maitena” ezartzen dio izena neskari eta gero seigarren bertsoan “nuen maitena” kendu diotela esaten. Hau bertso berria da: bi neurri ezberdinetako lau lerro bere baitan dituena. Bi lehenak hamabi silabakoak dira, 6 + 6, zesura erdian dutenak, eta beste biak zortzikoak. Errima bikote bakoitzak berea du, ezinbestean silaba eta erdikoa.

Hasieran neskari mintzo zaio poeta, baina hurrengo hiru bertsoetan bere alaben edertasuna diruaren truke saltzen duten gurasoen protesta gogorra egiten du; hurrengo hiruretan, jende asko entzule duen leku agirian bertsolari gisa ariko balitz bezala (“Ikus jende hunak!”) bere zori txarra deitoratzen du ozenki eta azken bertsoan bizitzea gorroto duela eta, herioa datorkion eskatzen. Ene gustoz, neurtitzik ederrenetakoa da.

MAITENAREN GAL-KEXUA

LAMENTO POR LA PÉRDIDA DE MAITENA (‘AMADA’)

VI,1.

Amets al’ egia d’ote nik enzuna
emaiten duzula zur’ edertarzuna
hon eztaritzotzunari
moien apur baten sari?

¿Será un sueño o será verdad
lo que he oído, que entregas
tu hermosura a quien no amas
en pago de una pequeña
cantidad?

VI,2.

Laur urte du zuri beti jarrikitez
higatzen naizela, bai zerbitzu egitez.
Esteiari gertatzea
d' auherretan higatzea.

Hace cuatro años que me
consumo de ir siempre
tras de ti y servirte;
consumirse en balde es
hacerse miserable.

VI,3.

Eztuzu zer uka zarel' ogenduru
ez zer har ait' amen nahia stakuru:
ezta maitezko gauzetan
haurren bortx' ahalik hetan.

No tienes por qué negar
que eres culpable,
ni tomar por pretexto la
voluntad de los padres.
En temas de amor no
tienen ellos facultad
de forzar a sus hijos.

VI,4.

Egundan' ez ailiz jaio gaxtagina
Edertza neskato *Onaren* zegina,
edo jai'-eta berhala
hil ailiz inhar bezala.

Ojalá nunca hubiera nacido
el criminal que hizo a
Belleza esclava de *Riqueza*,
o hubiera perecido recién
nacido como una chispa.

VI,5.

Onarzun-truku huts alab' ezkontzea
ezta hori ezkontze, bana da saltzea.
Haren erosle senarrak
zer merezi luke? Adarrak.

Casar a la hija sólo a
cambio de bienes, eso no
es casar, es vender;
su marido el comprador
¿qué merecería? Cuernos.

VI,6.

Ikus, jende hunak, ikus ene pena,
altxatzen darote nik nuen maitena;
hurren uste nuenean
haur dakusat urrunean

Ved, gentes buenas, ved
mi dolor; me usurpan
a la que yo más quería;
cuando la creía cerca
de mí, la veo lejos.

VI,7.

Gau-egun, goiz-arrats, edate-jatean
 ebilte-gelditze, jaikite-etzatean
 zuzaz dizut pensamendu
 neure penen luzamendu.

Día y noche, mañana y tarde,
 cuando bebo y como,
 ando y estoy quieto,
 me levanto y me acuesto,
 mi pensamiento está en ti
 prolongando mis penas.

VI,8.

Kexeri, deitore, nigar-herakiak
 hek ene baraskal, hek auhal-jakiak
 zipak ene lo-lehenak
 gau-korrongak hasperrenak

Llantos, lamentos,
 borbotones de lágrimas:
 éstos son mi comida, éstos
 mi cena; los sollozos son
 mi primer sueño y mis
 suspiros los ronquidos.

VI,9.

Behar dudan gero zuzaz net etsitu
 et´ esteiaritzat lurreean gelditu,
 betor betor herioa,
 bizi´ ene hastioa.

Puesto que debo desistir
 del todo de ti y quedar
 en la tierra como un
 miserable, que venga,
 que venga la muerte.
 La vida me es odiosa.

Complainte de la perte de la Maîtresse

VI,1. Est-ce rêve ou réalité, ce que j'ai entendu dire: que vous donnez votre beauté á quelqu'un que vous n'aimez pas, comme rançon d'un peu de richesse?

VI,2. Il y a quatre ans que je m'use á toujours vous suivre et vous servir. C'est devenir misérable que de s'user en vain.

VI,3. Il ne vous est pas possible de nier que vous êtes coupable, ni de prendre pour excuse la volonté de vos parents. Dans les choses de l'amour, on ne peut contraindre les enfants.

VI,4. Plût au ciel qu'il ne fût jamais né, le scélérat qui fit **Beauté** servante de **Richesse**, ou que, á peine né, il se fût éteint, comme une étincelle!

VI,5. Marier sa fille en la troquant contre des biens, ce n'est pas la marier, mais la vendre. Le mari qui l'achète, que mériterait-il? des cornes.

VI,6. Voyez, bonnes gens, voyez ma peine. On m'enlève celle que je chérissais. Alors que je la croyais près, je la vois loin.

VI,7. Nuit et jour, matin et soir, en buvant, en mangeant, en marchant, au repos, en me levant, en me couchant, je pense à vous, ce qui prolonge mes peins.

VI,8. Les plaints, les gémissements, les larmes coulant à gros bouillons, voilà ce qui assaisonne et mes diners et mes soupers; les sanglots sont les prémices de mes sommeils, et les soupirs mes ronflements nocturnes.

VI,9. Puisqu'il faut que je renonce complètement à vous, et que je reste sur terre pour y être misérable, que vienne, que vienne la mort! La vie m'est odieuse.

ARGITASUNAK

VI,1.

. *ote*: Francisque-Michelek *ot`e*, hau da, gure *othe*; ik. II,1. Ikusten denez, neurritz hau da Oihenartek Baionako alean "zuzendu" zuenetako bat, ugari baitira Francisque-Michelen edizioan aspirazio espiritua eransten duten zuzenketak.

. *Emaiten dusula* (ahoska 'duzula'): hori entzun omen du.

. *edertasuna*: hala dio testuak, baina atzizki bereko izenek erakusten digute zuzena '-tarsuna' dela. Beraz -rz- ahoskatu behar da (ikus *edertarsun-*: 572, 592; V,47; XI, 2).

. *Hon estarizozunari* (ahoska 'eztaritzotzunari'): on ez deritzozun edo maite ez duzun pertsonari, alegia.

. *apurbaten*: loturik. Francisque-Michelek *ap`ur*, hots, gure *aphur*.

VI,2.

. *vrte*: Francisque-Michelek *vrt`e*, hots, gure *urthe*.

. *iarriquites* (ahoska 'jarrikitez'); edo jarraikitzez.

- . *nai]ela*: bistan da *s* txikia behar duela *]* luzearen lekuan, gure z bizkarkaria adierazteko; besteetan, hain zuzen, *n(a)is*.
- . *Esteiari*: hemen, alderantziz, *st* grafia ageri da *]**t*-ren lekuan, txistukaria api-karia baita (hitz honen idazkeraz, cf. 195).
- . *guertazea*: Francisque-Michelek *guert`azea*, hots, *gerthatzea*.
- . *auherretan bigazea* (ahoska ‘higatzea’): hau da, alferrik ahitzea.

VI,3.

- . *Estusu ser vka* (ahoska ‘eztuzu zer uka’): = ukatu beharrik. Francisque-Michelek *vk`a*, hots, gure *ukha*.
- . *Es ser har* (‘ez zer har’): = ez eta zergatik har.
- . *stacuru* (ahoska ‘stakuru’): aitzakiatzat hartu beharrik ez duzu.
- . *Esta .../ ... hetan* (ahoska ‘ezta ... hetan’); edo ez dute.
- . *maite]co*: *]* luzea ostera ere *s* txikiaren lekuan, gure z bizkarkaria adierazteko.
- . *Haurren*: ‘borx’ (ahalik)’-en genitibo objektiboa. Hau da: haurrak bortxa-tzeko ahalik.
- . *borx*: *x* horrek gainean puntua duen *x*’ behar luke Oihenarten sisteman, hau da, gure *tx* (cf. 104).

VI,4.

- . *es-aylis iaio* (ahoska ‘ez ailiz jaio’): ‘ai, inoiz jaio ez balitz’; *lis* egiten du poetak, hau da, ‘liz’, ez ‘litz’ guk bezala. Ohar: marra; -*y* grekoa; eta *i*-ren bokaltasuna adierazten duen dieresia.
- . *onaren*: minuskulaz testuan, baina izen propiotzat har daiteke *Edertza*-ren pare.
- . *seguina* (ahoska ‘zegina’); edo zegiena, lehenaldiko forma sintetikoa: hots, egin zuena. ‘Gaxtagina’-ren aposizioa da. Hitz lauz honela litzateke: “Edertza Onaren neskato egin zuen gaxtagina”.
- . *iaiy`eta*: -*y* letra, gutxitan bezala.
- . *Hil aylis*: lehengoa bezala; “edo jaiotzekotan, ai bertantxe hil balitz!”.

VI,5.

- . *Onarsun-trucu* (ahoska ‘onartzun-truku’); edo ondasun truke.
- . *alau*: -*u*- kontsonantea ageri den kasu gutxietako bat; ikus *alaba* (16, 17, 18, 240, 484).
- . *esconze-* (ahoska ‘ezkontze-’): afrikatua eta bi lerrotan gainera, nahiz -*n*-ren ondoan egon.
- . *erosle senarrac*: *s* txikia bitan, / luzea behar zuenean, gure *s* apikaria baita bietan (*senar* hitzaren idazkeraz, cf. 63).

VI,6.

- . *Icus ... icus*: -*s* txikia hitz amaieran -/ luzearen lekuan, gure *s* apikaria adierazteko.
- . *gende*: *ge-* grafia.
- . *hounac*: -*ou-* grafia *u* bokala adierazteko (hitz honen idazkeraz, cf. 24)
- . *Alxazen darote* (ahoska ‘altxatzen’): ‘kentzen’ esan nahi du; hemen ere *x* puntudunaren lekuan dago *x* hori eta *tx* irakurri behar da; ‘darote’ ‘deraudate’ bezala da, ‘didate’, alegia.
- . *nic nuen maitena*: ohar *maitena*; izenburuan agertzen da neskaren izen hau; beraz, bere neska kendu diote eta horregatik “MAITENAREN GAL-KEXUA”, edo Maiteena galduaren kexua.
- . *Hurren*: hurbil zeukala uste eta urrun egon.
- . *vste*: -*st-* osteria ere -/t-ren lekuan (cf. 144).
- . *nuënean*: dieresia *u*-ren ondoko bokalaren gainean, *u* hori bokal silabagilea dela adierazteko, *u-e* dela, alegia.

VI,7.

- . *Gau-egun*: etab. Bost hitz konposatu hauetatik hirurek mugagabeen dituzte bi izenak eta beste biek lehen izena mugagabeen eta bigarrena kasu inesiboan. Gainera hirur lehenbizikoetatik biren izenak arruntak dira, besteak beste aditz-izenak.
- . *gueidze*: liburuaren hondarreko *FAVTES DE L’IMPRESSION* sailean zuzendua.

. *penaimendu*: okertzat jotzen da izen hau; *pensamendu* behar du. Francisque-Michelek *p`*, hots, gure *ph*.

VI,8.

. Bertso honek 'dira' isiltzen du hiru azken lerroetan. Lehen lerroko hiru subjektuak bilduak daude bi bider 'hek' erakusleagan bigarren lerroan, predikatua behin mugagabea ipinirik, behin mugaturik; aldiz bi azken lerroetan subjektua eta predikatua segidan esanak daude, predikatua mugatuak.

. *deitore*: Francisque-Michelek *deit`ore*, hau da, *deithore*.

. *Bara[s]cal*: hitz honen idazkeraz, cf. 67

. *Sipac*: Francisque-Michelek *Sip`ac*, hau da, *Ziphak*.

. *corrongac*: Francisque-Michelek *c`orrongac*, hau da, *khorrongak*.

VI,9.

. *dudan guero*: -ez gabe, ik. IV,10.

. *esteierizat*: cf. gorago, VI,2.

. *Betor betor*: Francisque-Michelek *Bet`or bet`or*, hau da, gure *bethor*.

. *Bici`*: *ci* grafia, Oihenarten sistemako *si*-ren lekuan (ik. 6). 'Bici(a)': ohar -a artikularen elisioa.

. *hastioa*: -*st*-ren lekuan dago ostera ere *st*- grafia, apikaria baita txistukaria, hots, gure *hastioa*, ez *haztioa*.

VII

Hona zazpi bertsoeko poesia, bertso bakoitza sei lerrokoa, lerro bakoitza zortzi silabakoa. Sei lerroek ohiko egiten ari zaigun silaba eta erdiko errima dute honela: A-B-A-B-C-C.

Lehen hiru bertsoetan ernegatuta azaltzen da neskaren tratu txarragatik: “hura ezta nizaz arrenkura”. Neurtitz erdian neskari hitz egiten hasten zaio, mirakulu baten berri emanez (hotzak beroa handitzen omen du), eta bertso iluntxo batean bere zoritxarraren eta neskaren onginahiaren arteko lehia kon-tatzen du: lehenak diotso ez dela inoiz neskaz jabetuko, besteak baietz. Nor ari den benetan eta hilgai ala bizigai naizen jakiteko ordua dut, esanez amaitzen du.

VII,1.

Aspaldi neure gogara
libertatez biz´ izanik,
orai dakusat harzara
neure buru´ atzamanik,
gotor eta gor izatez
galdu nahi naien batez.

Tras haber vivido hace tiempo
a mi antojo, en libertad,
ahora me veo de nuevo
capturado por alguien,
que me quiere arruinar
a fuerza de ser altiva y sorda.

VII,2.

Erran baderaukat ezi
oro harena nizala,
nehor ere hura bezi
onhetsirik eztudala,
bana horregatik hura
ezta nizaz arregura.

Si le digo
que soy enteramente suyo,
que a nadie quiero
como a ella,
no por eso se preocupa
de mí.

VII,3.

Alabaina nik eztakit
zerbitzatzez, ohoratzez
othe niroienez akit,
ene beti honlakatzez
edo berur' ene penez
nozpait kexa laiteenez.

Empero no sé
si no la hartaría
de tanto servir y festejar,
de tanto ser como soy,
o si algún día por mis cuidados
ella no se irritaría.

VII,4.

Maite', otoi, ikuskizu
mirakulu zaukezuna,
nitan hotzak hatzen dizu
oren oroz gortartzuna;
zu niganat hotzenago
ni zuganat gortzenago.

Querida, por favor, escucha algo
que debiera causarte pasmo:
en mí el frío aviva el calor
en todo momento;
cuanto más fría eres tú para mí
más ardiente soy yo para ti.

VII,5.

Urruntzen nitzauzunean
nizaz eztuzu orhitzerik,
ez, hurrentzen nizanean
zein ere den ikertzerik,
ez behin ere gogorik
niri hunki egitekorik.

Cuando me alejo de tí
no te acuerdas de mí,
ni cuando me acerco tienes tampoco
la más mínima atención,
ni jamás el deseo
de hacerme bien.

VII,6.

Ene ditxa gaitz' egieki;
ardura dut borogatzen
zure hontarzunareki
nitan gainen gudukatzen;
batak etzitukedala
baietz bertzeak diostala.

Mi suerte es en verdad mala;
a menudo la siento
pelear con tu bondad
acerca de mí:
la una diciendo que no te
poseeré, la otra que sí.

VII,7.

Zein ahal den egiati
zuk bezi ehork etziakizu,

Nadie sabe excepto tú
quién puede ser veraz,

bain´engoiti Jainkoagati
dakidan nik er´egizu,
ezi ordu dut jakinzu izan
hil ala bizigei nizan.

pero desde hoy haz, por Dios,
que lo sepa también yo,
pues es hora de que sepa
si soy candidato a morir o a
vivir.

VII,1. Après avoir longtemps vécu à mon gré, en liberté, je me vois maintenant capturé de nouveau, par un être qui veut me perdre en se montrant hautain et sourd.

VII,2. Je lui ai bien dit que je suis tout à elle, que je n'aime personne d'autre. Mais malgré cela elle ne se soucie pas de moi.

VII,3. Cependant je ne sais pas si je ne la laisserais pas à force de la servir, de l'honorer, d'avoir toujours cette attitude, où si elle-même ne s'irriterait pas quelque jour de mes peines.

VII,4. Mon aimée, voyez, je vous prie, cet effet qui doit vous étonner: en moi, le froid nourrit, à tout moment, la chaleur; plus envers moi vous devenez froide, plus envers vous je deviens ardent.

VII,5. Quand je m'éloigne de vous, vous ne pensez plus à moi. Quand je m'approche, vous n'avez jamais le moindre soin ni la moindre intention de me faire du bien.

VII,6. Mon sort est pénible, en vérité. J'éprouve de l'inquiétude à cause de votre fortune. On discute à mon sujet, l'un me disant que je ne peux pas vous avoir, l'autre que si.

VII,7. Il n'y a que vous qui savez ce qui peut en être réellement. Mais faites, pour l'amour de Dieu, que dès maintenant je le sache moi aussi. Car il est temps que je sache si je suis destiné à mourir ou à vivre.

ARGITASUNAK

VII,1.

. *neure gogara*: edo 'neure gogora'.

. *vic´isanic*: inoizko *v-* kontsonantea eta *-c(i)-* grafiak, Oihenarten sistemako *b-* eta *si-*ren lekuan (hitz honen idazkeraz, cf. 236).

- . *Oray*: -y grekoa hemen eta XXI,1; gainerako hogeitaka agerpenetan *orai*.
- . *harsara* (ahoska 'harzara'): ik. V,12.
- . *n'aien*: irakur *naien*, apostrofo gabe; < *nauen*.

VII,2.

- . *Erran baderaucat... / ... / Bana ...*: Lafonek eta Orpustanek 'bana' aurkariak zentzu hori izan dezan, aurreko perpaus berez baldintzazko dena, eta ez kontzesiboa, nahiago izan dute nagusi bilakatu: "Je lui ai bien dit... Mais..." ("Traduction...", 12, or.).
- . *beci*: -ci- grafia Oihenarten sistemako -si-ren lekuan (cf. 373).

VII,3.

- . *niroiènes*: *i*-ren ondoko bokalaren gaineko dieresiak *i* hori bokala dela adierazten du; **iro* erroa: ik. *diro*-ren forma alokutiboa, *sirosu*, I,6.; hemengo 'niroienez' euskara batuan '(nekatuko ote) nukeenetz'. Etxeparek: "...tentatzera ... / nontik engana niroiien bere arte guziaz" (I,71).
- . *honlacazes* (ahoska 'honlakatzez'). Ikus forma horren sorrera: *hon(e)la-* > *hon(e)laka-* > *hon(e)lakatu*, 'bestelakatu' bezala. Beraz, honelaka jardunez.
- . *laiteenes* (ahoska 'laiteenez'). Euskara batuan 'litekeenetz'. Errepara puntu-txo bat: poeta klasikoek eta Oihenartek berak (ik. II,1), Mogelenganaino, -tee- silaba bakarra egingo lukete, hemen ez bezala.

VII,4.

- . *Maite'otoi*: hots, 'maite(a) otoi', sinalefa eginaz.
- . *icusquisu*: -squ- grafia, Oihenarten sisteman -squ- behar lukeena, apikari baita. Ohar objektua singularra dela: '(hura) ikuskizu', alegia.
- . *saukesuna* (ahoska 'zaukezuna'). 'Zaukezu-' da adizkia eta '-na' erlatibo mugatua. 'Zaukeo' 'zaioke' den bezala 'zaukezu' 'zaizuke' da.
- . *hazen* (ahoska 'hatzen'): guk *hazten* diogu; ik. *bozen(ago)*, III,2.
- . *niganac*: errata, irakur *niganat*.
- . *hozen-ago*, / ... *gorzen-ago*: marrarekin (cf. 84).

VII,5.

- . *Vrrunzen* (ahoska ‘urruntzen’), nahiz eta aurrean *-n-* eduki.
- . *Es* (ahoska ‘ez’): hots, eztuzu orhitzerik..., *ez...* (*eta*) ikertze txikienik edo ardura apurrenik.
- . *hurrenzen* (ahoska ‘hurrentzen’): hor bertantxe *Vrrunzen* bezala.
- . *Sein ere den*: (ikertzerik) den txikiena ere.
- . *behin-ere*: marrarekin; beste bietan bereiz (678; IV,5).

VII,6.

- . Ez nator bat Lafonen (ik. “Traduction...”, 12. or.) eta Orpustanen (ik. “Proverbes et ...”. 149, or.) itzulpenekin, baldin ongi ulertzen baditut. Bigarren, hirugarren eta laugarren lerroek dute arazoa. Enetzat hau dio poetak: Maiz sumatzen dut neure fortuna gaixtoa neuri buruz zure ontasunarekin borrokatzen: batak ez zaituzkedala, besteak baietz.
- . *dixa*: *dix* a idatziko zuen Oihenartek, txitxikaria afrikatua baita (cf. 111).
- . *diostala*: dagoen bezala *dioztala* irakurri beharko litzateke, baina hitz honen tradizioa ikusita pentsa daiteke *-[t]-ren* lekuan dagoela ostera ere *-st-* grafia, txistukaria apikaria delarik, eta, hortaz, gure *diostala* dela; ikus, berdin, *siostela* (XXII, 3), baina *dioštana*, Oihenarten sistemak eskatzen duen bezala (233).

VII,7.

- . *Suc beci ehorc* (ahoska ‘zuk bezi ehork’): *-ci-* grafia berriro (cf. goraxeago, VII,2). Perifraasi hau edo bere antzeko ‘ehor zu beizi’ bestetan ere atera zaigu. Etxeparek bestelatsu dio hori bera, ‘ehor-’ isildurik. Ik. IX,36: “Ene mina sendo ez liro zuk baiezi bizian”, nahiz, egia esan, inplizitoki hor dagoen, zeren “ez liro”-ren subjektua ez baitaiteke “ehork” baizik izan; “zuk” inola ez.
- . *eziakisu* (ahoska ‘etziakizu’): (*ez*)*daki*-ren alokutiboa da.
- . *ordu dut ... isan* (ahoska ‘ordu dut ... izan’). Ikusi dugu honen gisako partizi-pioduna, ‘Ordu zinuke hontu’ (ik. V,4), baina konpletibozkoa ere bai: ‘Ordua da has ziteen’ (ik. II,12).
- . *iakinsu*: ‘jakinzu’ ahoskatu behar da hemen, nahiz eta atsotitz batean (670)

*iaquin*su, hau da, gure *jakinsu* dioen. Atzizki hau *-su* idazten du gehiengat Oihenartek, hau da, gure *-zu*: *beguisu* (696), *bisarsu* (193), *garbisu* (457), *harsu* (V,51), *hospasu* (V,60), *ho*spasu (hizteg.), *isarsu* (165), *lansu* (322), *nigarsu* (165) *-nahiz* behin *nigarzu*, gure *nigartzu* (IV,9)–, *odolsu* (414), *vlusu* (V,50), *sakarsu* (21; V,52), *sarpasu* (II,5). Edo *-i*su: *arat*su (XII,10; hizteg.), *a*sturutsu (331), *dohat*su (XXII,5; XXVI,8), *urgulutsu* (463). Francisque-Michelek erantsitako zatietan, hala ere, *-su*: *pun*su (XXVI,21), *vken*su (XXVI,7).

- . *Hil, ala vicigui* (ahoska ‘hil ala bizigui’). Alegia, ‘hilgei ala bizigui’. Ohar *vi-eta -ci-* grafiak, goraxeago bezala (VII,1; ik., halaber, 6).
- . *nisan* (ahoska ‘nizan’). Neurtitz honexen 3. bertsoan zehar-galderazko *-n* atzizkiari beste *-ez* erantsi dio; hemen ordea soil utzi du.

VIII

Hau ere orain agertzen zaigu lehenbiziko aldiz. Zazpi bertsoko neurtitza da, bertso bakoitza lau lerrokoa eta lerroak bederatzi silabakoak dira bi eta hamabikoak beste biak. Errima binaka: bi lehenak bat eta beste biak bestea. Hauek ez dute beti zesura, batzuetan bai. “Enuel” 7. bertsoan bi silabaz ahoskatu behar da.

Poetak neskaren “papera” beretzen du neurtitz honetan eta neska balitz bezala mintzatzen. Aurkitu uste du nork duen errua, mutilak berari kasurik ez eginarena: ez du mutilak, senitartekoek dute, ez mutilarenek, neskaren berarenek baizik. Maitasunaren erresuman agintzen duena ez da beldurra, baizik askatasuna; hori hala delarik, dio, ahaide-adiskideek utziko naute agian, baina zeruko Jaunak ez.

VIII,1.

Zenbat leihorra zabal baita,
ehon erakutsiko zaita
anderaurenik ez eta neskatorik
ni nizan bezain zorigaitzetakorik?

Por ancha que sea la tierra
¿se me mostrará en algún lugar
señorita o doncella
tan desdichada como yo?

VIII,2.

Maite dut eta naiz maitatu,
bana naiz hanbat desdixatu
ni maite nuen, nik maitenik dudana
ezt´ehon hauzu hurbiltzera nigana.

Quiero y soy querida,
pero soy tan desdichada
que al que me quiere,
al que más quiero
no se le permite acercárseme
en parte alguna.

VIII,3.

Nihauren askazi hurrenak
dira poxelatzen dutenak,
eta nutenak nihaur er´ asaldatzen
zergati baitut hura hanbat maitatzen

Mis parientes más próximos
son los que le impiden
y los que también a mí me acosan
porque le quiera tanto.

VIII,4.

Ezteia haur enganioa
jarriz geroz amorioa
lotsaz uste dutenean galerazi
et´ ehor gaizki tratatzez irabazi?

¿No es un error creer que,
una vez consolidado el amor,
por el miedo se le malogra
y que tratándole mal se le
conquista?

VIII,5.

Maitarien jaun erregeak
higu ditu bortxa-legeak
eta haren resuman libertatea
da gobernari eta nabusi alkatea

El rey señor de los amantes
aborrece las leyes coercitivas;
y en su reino la libertad
es el gobernador y el
supremo señor.

VIII,6.

Bana begit´ egin-ahala,
zu gibel-ber etzazkidala,
ene bihotz´, ezi zu bazaud´ eneki
ni bizi eta hil nahi nuzu zureki.

Pero hagan lo que les plazca,
con tal que no te me alejes,
corazón mio; porque si tú
estás conmigo, yo quiero
vivir y morir contigo.

VIII,7.

Eta hargatik utzi baniz
ahaid´-adiskidez, fida niz
zeruko jaunak hari gomendaturik
enuel´ utziko net deskonsolaturik

Y si por ello soy abandonada
de mis parientes y amigos,
confío que el señor del cielo
si a él me encomiendo, no me
dejará en total desamparo.

VIII,1. Si vaste que soit la terre, me montrera-t-on quelque part demoiselle ou servante aussi malheureuse que moi?

VIII,2. J'aime et je suis aimée. Mais, infortunée que je suis, celui qui m'aime et que je chéris n'a le droit de m'approcher nulle part.

VIII,3. Ce sont mes proches parents à moi qui l'empêchent, et qui m'attaquent moi aussi parce que je l'aime tant.

VIII,4. N'est-ce pas une erreur de croire, une fois que l'amour s'est établi, qu'on le fait perdre par la crainte et que l'on gagne quelqu'un en le traitant avec méchanceté?

VIII,5. Le souverain des amants hait les lois de la force. Dans son royaume, la liberté est gouverneur et magistrat suprême.

VIII,6. Mais qu'ils fassent ce qu'ils veulent, pourvu que vous ne vous détourniez pas de moi, mon aimé! Car si vous restez avec moi, je veux vivre et mourir avec vous.

VIII,7. Et si je suis, pour cette raison, abandonnée de mes parents et amis, j'ai la conviction que le Seigneur céleste, à qui je me suis recommandée, ne m'abandonnera pas en pleine détresse.

ARGITASUNAK

VIII,1.

. *Sembat leihorra sabal baita* (ahoska 'zenbat leihorra zabal baita'). Agian errazago egingo zaizu: "Leihorra zenbat zabal baita,...".

. *eracuzico* (ahoska 'erakutsiko'): z' idatziko zuen Oihenartek, z' hori gure *ts* baita, baina puntua galdu egingo zen moldiztegian.

. *saita* (ahoska 'zaita'): *zait* + galderazko *-a* (ik. I,1).

. *nescatoric*: *-sc-* grafia gure *s* apikariak eskatuko lukeen *-ſc-*ren lekuan (ik. 331).

. *Ni nisan besain ...*: Etxepareren lerroa dakar gogora: "Egundano izan daia ni bai ditxatakorik?"(XII,45).

. *sori gaizetacoric*: bereiz.

VIII,2.

. Bi lehen lerroetan 'nais' bana daukagu.

. *nais hambat desdixatu* (ahoska 'naiz hanbat desdixatu'): *x* hori ere *x* izango zen Oihenarten idazkeran, hau da, gure *tx* (ik. 111). Menderagailurik gabeko perpaus kontsekutibo bati ematen dio hasiera esaldi horrek.

. *nüen*: dieresiak *u* hori silabagilea dela adierazten du, *nu-en* bi silabakoa dela, alegia; 'nuen' edo 'nauen'; bestetan ikusia.

VIII,3.

. *ascaki hurrenac*: testuak *ascaki* dio, baina *-sc-* grafia *-[c-ren]* lekuan dagoela dirudi eta, hortaz, apikaria duen *-sk-* irakurri behar dela, ez *-zk-*; bestalde, *-ki-* dio testuak, baina *-s-* behar du (gure *-z-*). Hots, *askazi* irakurri behar da (ik. 299). 'Ahaide hurbilenak' esan nahi du.

. *nutenac*: edo 'nautenak'.

VIII,4.

. *Esteia* (ahoska 'ezteia' < ez deia?) < da+a. Gure 'ez al da'? Poetak galdetzen du ez al den enganioa, amorioa finkatuz gero, inork uste duenean (= jendeek uste izatea) beldurrez galaraz daitekeela amorio hori eta norbait gaizki tratatzez irabaz daitekeela?

. *Iarris* (ahoska 'jarriz'): hau da, ezarriz, sendotuz.

. *vste*: *-st-* hemen ere *-[t-ren]* lekuan (cf. 144).

. *gal eraci*: bereiz eta *ci* grafia, Oihenarten sistemako *si-*ren lekuan.

VIII,5.

. Bertso honetan mirestekoa da lerro bikote bakoitzak errima silaba eta erdikoa ez, bi silaba eta erdikoa izatea, poetak hoberentzat jotzen zuena.

. *Maitarien*: Francisque-Michelek *Mait`arien*, hau da, *Maitharien*.

. *Higu*: edo 'higuin'.

. *borxa*: *x* horrek gainean puntua duen *x* behar luke Oihenarten sisteman, hau da, gure *tx* (ik. 104).

- . *resuman*: -s- bokalar-tean] luzearen lekuan, gure s apikaria adierazteko.
- . *nabou*]i: -ou- grafia u bokala adierazteko; ik. *nabu*]i- (321), *nabussi* (XXVIII,1).

VIII,6.

- . *Beguit*': edo 'egin bezate'.
- . *Su guibel-ber ezaskidala* (ahoska 'zu gibel-ber etzazkidala'). Hau da, 'non zu ez zataizkidan gibel', 'non zuk ez didazun alde egiten'. 'Ber' hori menderagailu kontzesiboa da hemen.
- . *eci* (ahoska 'ezi'): 'ezen'-en kidea da, kausala; -ci grafiaz, cf. V,7.
- . *bici*: hemen b-, baina -ci (ik. 6).
- . *Ni ... hil nahi nusu* (ahoska 'nuzu'): 'hil nahi niz'-en alokutiboa.

VIII,7.

- . *vci banis / ... adiskides* (ahoska 'utzi baniz... adiskidez'): hots, aktiban esateko, uzten banaute ahaide-adiskideek. Ohar -*tc*, Oihenarten grafian -*zi* izango litzatekeena; eta *adiskides*, Oihenarten sisteman *adi*]kides behar lukeena, txistukaria apikari baita (ik. 82).
- . *Ahaid*', *adiskides*: e-ren elisioa, komaren gainetik.
- . *niz*: *nis* behar luke Oihenarten sisteman, igurzukaria baita txistukaria, ez afrikatua; hau da, gure 'niz', ez gure 'nitz'. Ikus huts bera, XIV,1.
- . *Ceruco*: Ce- grafia. Oihenarten Se-ren lekuan.
- . *Enuel*': gogoan izan bi silaba direla, ez hiru.
- . *desconsolaturic*: -s- txiki biak -] -ren lekuan, apikariak baitira.

IX

Bost bertso dituen neurtitz honen bertso bakoitzak bi lauko ditu, elkarren segidan eta elkarren bizkarrean ezarriak, bertsoa osatzen dutela. Beraz bakoitzak zortzi lerro. Laukoa hau da: 8-7-5-8 eta honi bestea, berdina, darraikio. Errima lauko bakoitzak berea du, noski; bi laukoetan hauek dute: lehenak eta laugarrenak batetik eta bigarrenak eta hirugarrenak bestetik. Beraz, A-B-B-A + C-D-D-C.

Neurtitz osoan barrena Blancari mintzo zaio eta beti hika, honek inoiz erantzun gabe. Hemen ere hiltzen ari dela dio, baina ez du osoro etsi, zeren neskatzaren mende omen baitago haren bizitza: baldin bere onetik pixka bat emanez sendatzen ez badu, haren kulpaz hila datekeela eta haren izena, *Blanca-Txuria*, ezizen bilakatuko dela mundu guztian; aldiz bere onetik pixka bat emanez senda badeza, berri on hori mundu guztiari aldarrikatuko diola.

XURIA DARITZANARI

A TXURIA (BLANCA)

IX,1.

Berritzen ar´iz, XURIA,
nitan egun guziez
noizten begiez
egin erautan zauria;
et´ene bihotz gaxoak
higanik maita-sari
hershailu ordari
zitin tragaza-xiloak.

Me estás renovando a diario,
TXURIA, la herida que antaño
me hiciste
con los ojos;
y mi pobre corazón
en pago de su amor recibe de ti
en lugar de vendas
agujero de flechas.

IX,2.

Beti joz-joz daritzana
inkudeak bezala
diraukedala?
Ez, ez, ahal aint´ engana;
eztun alzeiru, ez burdina
ez eta berun hotza
ene bihotza
ban´ aragiz dun egina.

¿Crees que a tus reiterados golpes
resistiré siempre
como un yunque?
No, no, podrías engañarte.
No es acero ni hierro
ni plomo frío
mi corazón,
sino hecho de carne.

IX,3.

Hiltzen nun; itzurbiderik,
ez deus salba nezanik
eztun, higanik
ahal nukenez berzerik.
Hobe duken ainik ere
honki egite´ engoiti
ezi ez jagoiti;
hel akit, berant bad´ ere.

Me muero, no existe
escapatoria ni nada
que pueda salvarme, excepto
lo que pueda conseguir de ti.
Más vale en todo caso hacer ya
el bien, desde hoy,
que nunca;
ayúdame, siquiera tarde.

IX,4.

Zerbait eur´ ontarzuneti
bihotz hunen pitzgarri
emadan sarri
begiratzeko hiltzeti;
ezpadidan, lur orotan
zeren hik hil banuken,
aipatu duken
hir´ izen´, izen gaixtotan.

Dame pronto algo de tu bondad
para incentivo de este corazón
y liberación de la muerte.
Si no me lo das,
como habrás querido matarme,
tu nombre será pronunciado
en toda la tierra
como apodo.

IX,5.

Sendotzen banun ainziti,
zeren nuken idoki
halaz osoki
sartzeraz geroz hobiti,
hire sendagaila hunen

Si por el contrario me curas,
yo por haberme tú sacado
así sano de la tumba, estando
a punto de ser sepultado,
proclamaré en voz alta la noticia

berria herri orori	-excelente noticia-
berri hon hori	de esta hazaña tuya
dinat goraki eranzunen	a todos los pueblos.

A celle qui s'appelle Blanche

IX,1. Tu renouvelles en moi, Blanche, tous les jours, la blessure que tu me fis avec tes yeux il y a quelque temps; et mon pauvre coeur reçoit de toi, en récompense de son amour, au lieu de pansements, des trous de flèches.

IX,2. Penses-tu que, malgré ces coups répétés, je pourrai toujours résister, comme un enclume? Non, non, j'espère que tu ne saurais te tromper. Il n'est ni acier, ni fer, ni plomb froid, mon coeur; c'est de chair qu'il est fait.

IX, 3. Je meurs. Il n'y a pas d'issue, il n'y a rien qui puisse me sauver, hormis ce que je pourrais recevoir de toi. Il vaut mieux faire le bien désormais, à l'avenir, que jamais. Viens à mon secours, bien qu'il soit tard.

IX,4. Donne-moi vite quelqu'un de tes trésors pour ranimer ce coeur, pour le préserver de la mort. Si tu ne le fais pas, comme tu m'auras tué, ton nom, sur toute la terre, sera célèbre comme surnom.

IX,5. Si tu me guéris, par contre, pour m'avoir ainsi tiré complètement de la tombe, alors que j'allais y entrer, je ferai connaître dans tous les pays cette guérison qui sera ton oeuvre, je proclamerai cette bonne nouvelle.

ARGITASUNAK

IX,1.

- . *Berrizen ar'is* (ahoska 'berritzen ar(i) iz').
- . *CHVRIA*: maiuskuletan testuan. Idazkera berria erabaki baino lehen idatzia delako edo izen propioa delako *CH*-grafia darabil bere sistemako *X*-ren lekuan.
- . *Noisten* (ahoska 'noizten'): hots, behinola.
- . *maita-sari*: *s*-grafia lexemaren hasieran gure *s* apikariari dagokion *ʃ*-ren lekuan (hitz honen idazkeraz, cf. 59).
- . *Herscailu*: *-s*-txikia hemen ere *-ʃ*-ren lekuan; hiztegiñoan, ordea, *Her**ʃ**cailu*, Oihenarten sistemari dagokion bezala.

- . *Sitin* (ahoska ‘zitin’): alegia, ‘ditu’-ren alokutibo femeninoa, ‘ditiñ’-en parekoa.
- . *tragasa-xiloac* (ahoska ‘tragaza-xiloak’): gezi-zuloak, alegia.

IX,2.

- . *darizana* (ahoska ‘daritzana’): hots, hik al deritzan? Ezagutzen dugu *-a* galde-atzizkia. Ik. I,1.
- . *Incudeac*: Francisque-Michelek *Inc`udeac*, hots, *Inkhudeak*.
- . *Diraukedala*: alegia, iraunen dukedala; aurreko ‘eritzi’ aditzaren perpaus osagarria.
- . *abal aint` engana*: ni na(d)inte / hi a(d)inte; euskara batuko ‘engaina hinteke’.
- . *Es-eta*: marrarekin.
- . *bihoza*: ez da ikusten zein den dieresaren egitekoa.

IX,3.

- . *izurbideric...* (ahoska ‘itzurbiderik...’); perpaus guzia irakur honela: “eztun itzurbiderik ez deus salba nezanik”.
- . *deus*: -s txikia hitz amaieran, -j-ren lekuan (ik. 45).
- . *ainic ere*: edonola, nolanahi ere.
- . *Eci es* (ahoska ‘ezi ez’). ‘Ezi’ konparagarria denean (ik. III,2) luza daiteke eta ‘ezi ez’ esan; adibidez “hobe gaur ezi ez bihar” edo lerroak dioena “hobe noizbait inoiz ez baino”. Hitz honen idazkeraz, cf. 150.
- . *Honqui eguite`*, *engoiti*: zazpi silaba; *-ki e-*, silaba batean; eta *-te(a) en-*, bi silaba, *-a* artikulua elidituta, ondoan koma badago ere.
- . *Hel aquit*: ‘nor-nori’-ko *heldu* ikusi dugu; ik. V,56.

IX,4.

- . *Bihots*: dagoen bezala ‘bihots’ irakurri beharko litzateke, baina *bihoz* idazke-ra dagokio, hau da, gure *bihotz*, ia beti horrela ageri baita (ik. V,20).
- . *sarri*: s- txikia hitz hasieran apikariari dagokion j-ren lekuan (ik. 429).
- . *Espadidan*: hots, ematen ezpadidan, zeren euskal erro *i(n) zaharrak ‘eman’

esan nahi baitu (ik. V,21). Hainbestez bertsoko ‘emadan’ eta ‘ezpadidan’ kontrarioak dira.

. *Ceren hic hil banuquen* (ahoska ‘zeren hik hil banuken’), edo ‘bainuken’. Lafonek: “forme à préfixe *bait-*” (“Notes...”, 74. or.). Hau esan nahi bide du: “zeren hik orduko ni hil nahi izango bainaun”. Ohar segidako bi adizkien aldien egokieraz: “n(a)u-ke-n / du-ke-n”. Idazkerari dagokionez, *Ceren* hemen eta XXIV,6-n; gainerako hogeitaka agerpenetan *seren*, sistemak eskatzen duen moduan (ik. hementxe, IX,5).

. *Hir isen’*: *Hir’ isen’* behar du, lehen tartean ere apostrofoa duela.

. *isen gaixtotan*: ik. *zuretan* hartzen, II, 12; *Jainkotan* jauretsak, XVIII,1

IX,5.

. *ainsiti* (ahoska ‘ainziti’); hots, frikaria.

. *Seren ...*: irakur ‘zeren nuken idoki... hobiti’, eta hori dateke protasia.

. *eransunen* (ahoska ‘eranzunen’): hots, entzunaraziren.

X

Oihenartek bere “L’art poétique basque”-n (ik. 30. or.) ezagutarazi zigun gure-gurea –“propre et particuliere a nos basques”- omen den “André Emilié andre gora”-ren pareko hamabost bertso eskaintzen dizkigu neurtitz honetan: alegia, “trois vers d’une même rime” dutenak, hirugarren lerroa libro utzirik.

Inor engana ez dadin, diodan bigarren bertsoa “Grasiana” eta “Gracias” ez dituela poetak berdin ahoskatu: lehenaren ‘-sia-’ silaba bat da, bigarrenaren ‘-sias’ aldiz bi. Bestetik 8. bertsoan “Ikuslen” Lafonek eta Orpustanek “ikus-ten” irakurri bide dute: “agréable à voir” eta “plaisant à voir” itzultzen dute.

- | | |
|---|---|
| X,1. HANBAT nago penatan
nik eztaikit nolatan
gau et’ egun gor batek
naduk’ arrenkuratan. | Me hallo sumido no sé cómo
en una terrible pena:
noche y día me tiene
acongojado una sorda. |
| X,2. Izena du Graziana
graziaz beth’ izana;
dihulatez neroske
harzaz maitatu izana. | Se llama Graziana,
llena de gracia,
compraría yo por un diner
ser querido por ella. |
| X,3. Ezta gupi, ez zehar, ez,
bana xuxen bizkarrez;
zehe batez laité izar
gerri hori meharrez. | No es jorobada, ni sesgada,
sino de espalda recta;
con un palmo se mediría
su cintura por lo estrecha. |
| X,4. Adats ikustekoa
aztaleranokoa; | Su cabellera digna de verse
le llega hasta los talones; |

- | | |
|--|---|
| leunez, baitare mehez
zetaren gainekoa. | en cuanto lisa y fina
es más que la seda misma. |
| X,5. Ederrenen bardina
(ezpadohat´ aitzina)
da begitartez eta
diskret oboro ezina. | Por su aspecto se empareja
(si es que no les aventaja)
con las más hermosas
y es discreta a más no poder. |
| X,6. Ahoño, mihi ozena,
hortzik den aratzena
begi bizi, so hutsaz
mait´ arazi diroena. | Una boquita, una lengua sonora,
dientes, más blancos no caben,
ojos vivos, que de solo mirar
pueden enamorar. |
| X,7. Lepo´ arrai miratzeko,
goxo besarkatzeko;
bolharr´ ask´ ilhunbean
argi zerbitzatzeko. | Su cuello es maravillosamente
brillante y suave al abrazo;
su pecho basta para
brindar luz en la oscuridad. |
| X,8. Oina kaizuz nolako?
ikuslen gogarako;
ukharaia, besoa
arhan-lil´ itxurako. | Su pie por su tamaño, de no creer,
del agrado de los mirones;
su puño y brazo
parecidos a la flor del ciruelo. |
| X,9. Esku eta zango biak
xuri bezain guriak;
erhi mehe gaineti
zilharstatu iduriak | Su mano y piernas
tan rollizas como blancas;
los dedos delgados como si
estuvieran bañados en plata. |
| X,10. Hanbatez beud´ erranak
agerriz dadutzanak;
eztazkit, ezterrazket
gordailuan daunzanak. | Con esto queden dichos
los encantos que saltan a la vista;
ni sé ni puedo decir
los que permanecen ocultos. |
| X,11. Elkoit dakit elkorra,
esker gabe, gotorra
del´ enetzat, bait´ are
harri bezain gogorra. | Sólo sé que para mí
es sorda, ingrata, altiva,
y además
dura como piedra. |

- | | |
|---|---|
| X,12. Erran draukat ardura
zer den en´ arrenkura
eta nola jabetzat
hartu dudan berura, | Le he dicho a menudo
cuál es mi desvelo
y cómo la he tomado
por dueño mio; |
| X,13. nola nitan botere
duen, handi hal´ ere,
eta berze maiterik
nol´ eztudan batere. | cómo tiene poder sobre mí,
y no pequeño,
y cómo no tengo
ningún otro amor. |
| X,14. Bana hura, hargati,
nizaz ez´ axolati
et´ enu itoiten berak
sartu nauen penati. | Pero con todo ella
no se preocupa de mí
y no me saca de la pena
en que ella misma me ha sumido. |
| X,15. Kausit ahal baneza
nonbait berhez-berheza
hunl´ ene penatzea
baka bide baileza. | Si pudiera encontrarla
totalmente sola en alguna parte,
ella de ese modo pagaría
de seguro mi sufrimiento. |

X,1. J'éprouve une grande peine, je ne sais comment, nuit et jour une sourde me cause du souci.

X,2. Elle s'appelle Gracieuse, car elle est pleine de grâce. J'achèterai à prix d'or le bonheur d'être aimé d'elle.

X,3. Elle n'est voûtée, ni contrefaite; non, elle a le dos droit. On mesurerait d'un empan sa taille, tant elle est mince.

X,4. Il faut voir sa chevelure, qui descend jusqu'à ses talons et qui est si lisse et si fine qu'elle surpasse la soie.

X,5. Elle est par son visage l'égale des plus belles (si elle ne les dépasse pas), et on ne peut plus discrète.

X,6. Une petite bouche à la langue sonore; des dents les plus nettes qui soient; des yeux vifs dont le seul regard suffit à inspirer l'amour.

X,7. Son cou est resplendissant et bien doux à embrasser. Sa poitrine suffit pour éclairer dans l'obscurité.

X,8. Son pied, comment est-il sous le rapport de la taille? Il est agréable à voir. Son poignet et son bras ressemblent à la fleur du prunier.

X,9. Ses deux mains et ses jambes sont aussi potelées que blanches; ses doigts fluets, par surcroît, ont l'air d'être argentés.

X,10. En voilà assez dit sur les trésors qu'elle tient à découvert. Je ne connais pas et je ne puis dire ceux qui restent cachés.

X,11. Je sais seulement qu'elle est vis-à-vis de moi sourde, ingrate et fière, et dure comme une pierre.

X,12. Je lui ai souvent dit qu'elle est mon souci, que je l'ai prise pour maître.

X,13. Qu'elle a du pouvoir sur moi, et beaucoup de pouvoir, et que je n'aime personne d'autre qu'elle.

X,14. Mais elle, malgré cela, ne se soucie pas de moi, et elle ne me tire pas de la peine où elle m'a mis elle-même.

X,15. Si je pouvais la rencontrer quelque part toute seule, elle paierait sans doute alors la peine qu'elle me cause.

ARGITASUNAK

X,1.

. *gorbatec*: lotuta.

X,2.

. *neroſque* (ahoska 'neroske'): forma sintetikoa, erosiko nuke. Liburuak dakarren "Dohainetan naduque" poetak kendu egin du, horren ordez "Dihulates neroſque" ezarri liburuaren azkeneko okerren zerrendan eta hura zuzenduxea, "neduque", XIII, 2-ra aldarazi.

X,3.

. *gupi*: leherkariaren aspirazioa adierazten duen espiritua bokalaren ondotik ipinia, ohiko apostrofoaren lekuan beharbada: *gupi(a)* (Cf OEH, s.v. *gubia*).

. *Sebe-bates*: marrarekin.

. *lait' isar*: euskara batuan 'liteke izar', edo neur.

X,4.

- . *icustecoa*: -st- grafia apikaria adierazten duen -ʃt-ren lekuan. Francisque-Michelek *ic`ustecoa*, hots, *ikhustekoa*.
- . *baitare*: horrelaxe dio; gero, ik. X,11, *bait`are*.

X,5.

- . *Espadohat` aizina* ('ezpadohat(e) aitzina'): hots, hura haiei dohate; esan nahi du, 'are ederragoa ez bada'.
- . *oboro esina* (ahoska 'oboro ezina'): guk 'ezin gehiago' ohi diogu.

X,6.

- . *Ahon`o*: n-ren gainean puntua dagoela ematen du; hemen bakarrik ageri da Oihenarten sisteman ñ sabaikaria adierazten duen grafia hori.
- . *arazena / ... visi* (ahoska 'aratzena... bizi'): afrikatua eta frikaria. Ohar *v*-kontsonantea (*bizi* hitzaren idazkeraz, cf. 6).
- . *Mait`arasi*: *t* kontsonantearen ondoan ` espiritu gisako bat ageri da; horrela bada, 'maitharazi' irakurri behar da; apostrofoa bada, berriz, 'mait`arazi' irakurri behar da, hots, 'mait(a) arazi'.
- . *diroena*: **iro* erro zaharrak (ik. I,6; VII,3) 'ahal izan' esan nahi du; beraz hori eta 'dezakeena' gauza bera da. Bestalde '-arazi'-k, espero bezala, -*i* gorde du, horrek eta 'utzi'-k ez baitute euskara zaharrean galtzen (ik. V,29).

X,7.

- . *Lepo`arrai*: hau da, 'lepo(a) arrai'.
- . *beʃarcezeco*: -ʃ- bakuna bokalarlean, besteetan -ʃʃ- ohi dena (ik. *beʃʃarca*, XXVI,6,19).
- . *Bolharr`*: -rr bikoitza eliditutako -a artikuluaurrean.
- . *ask`*: -sk- grafia, apikariari dagokion -ʃk-ren lekuan (cf. 74).

X,8.

- . *gogaraco*: ik. IV,10: 'gogartzera'; V,8: 'gogarako'; VII,1: 'gogara'...

. *Vkaraia*: dieresiak *i* hori bokala dela adierazten du.

. *Arhan-lil'-ixuraco*: bi marrarekin; uste izatekoa da Oihenartek *x* idatzi zuela, hots, gure *tx*.

X,9.

. *Silharstatu*: hots, gure *zilharstatu*.

X,10.

. *beud' erranac*: 'egon' aditzaren agintezko plurala da 'beude': hots, bego/beude.

. *Aguerri*s (ahoska 'agerriz'): guk 'ageriz' edo 'agerian' dioguna.

. *daduzanac* (ahoska 'dadutzanak'): alegia, hark dadutzanak edo daduzkanak; **edun*-ena bata eta *eduki*-rena bestea.

. *Estaskit* (ahoska 'etztazkit'); euskara batuan 'ez dakizkit'.

. *esterrasket* (ahoska 'ezterrazket'): edo 'ez derrazket'. 'Erran' aditzaren orainaldi sintetiko ahalerazkoa; alegia, ezin ditzaket esan.

. *Gordailuan*: *-ill-* grafia alboko sabaikaria adierazteko.

X,12.

. *Erran draucat*: hau da, 'nik hari'; euskara batuko 'diot'. Lau gauza esan omen dizkio neskari: "zer den..., eta nola..., nola..., nola...".

. *iabezat / Hartu* (ahoska 'jabetzat hartu'): lehen (II,12) '*-tan hartu*' esan du; hemen '*-tzat hartu*'.

. *berura*: hau da, 'hura bera', 'bera'.

X,13.

. *Düen*: dieresiak *u* hori silabagilea dela adierazten du; *du-en* dela, alegia.

X,14.

. *hargati*: kontzesiboa, ez kausala.

. *Nisas* (ahoska 'nizaz'). Ohar bide batez nola leku gutxian agertzen diren

‘enetzat’, ‘jabetzat’, atzizki bera bi zentzu ezberdinekin, eta ‘nitan’, ‘nizaz’, pertsona izenordain bera, beste bi kasu atzizki ezberdinekin.

. *itoiten*: ‘idoki’-ren aldaera da eta ‘atera’ esan nahi du.

. *pe`nati*: badirudi *pe*-ren ondoan espiritua dagoela; horrela bada, *phenati* irakurri behar da.

X,15.

. *berhes-berhesa* (ahoska ‘berhez-berheza’). Guziz berezirik, alegia, edo baka-
rrik. Hala esaten dute zubereraz, guk ez bezala: ‘arin-arina’ edo ‘zuzen-
-zuzena etorri da’, hitza mugaturik (ik. V,27).

. *baka ... bailesa* (ahoska ‘baka ... baileza’): “forme périphrastique d’éventuel à
préfixe *bait-* et sans suffixe *-ke*” (Lafon, Notes..., 75). Kita edo ordain
lezake, ni penatu izana, ‘ene penatzea’-ren ‘ene’ genitibo objektiboa baita.

XI

Hortxe bertan, ikus IX, azaldu zaigu neurtitz honen egitura berbera: 8-7-5-8 + 8-7-5-8. Honek lau bertso ditu. Gaia betikoa da, baina hemen zinkurin egitea ez zaio aski eta horrez gain arrazoi ederra ematen dio eta maitasun legea oroitarazten: alegia, maitatu izanak maitatzea zor du; bestela esan, maitalea higuintzea itsusi da edozeinengan, batez ere zu bezalako emakume ederrarengan.

BELTXARANARI

A LA MORENA

XI,1.

Nik hanbatetan errana
nahi eztuna sinhetsi,
aizel' onhetsi
nizaz anhitz, Beltxarana?
Bada dela hori egia
prest nun erakustera
et' egitera
mana nezana guzia.

¿Lo que tantas veces te he dicho,
a saber, que eres
muy querida por mí,
no lo quieres creer, Morena?
Pues estoy dispuesto a probarte
que es verdad
y a ejecutar
todo lo que me mandes.

XI,2.

Ezar nezan porogutan,
ordea hanbateki
ez isireki

Ponme a prueba,
pero entretanto
no te empecines en que

har den´ eztela burutan
Zer probetxu edertarzuna
da hire gorputzean
tink bihotzean
badatxen gogortarzuna?

lo que es no es;
¿De qué sirve
la belleza en tu cuerpo,
si en el corazón
tienes impresa la dureza?

XI,3.

Zor din maitatu izateak
ordainetan maitatze.
Zer? Al´ ahatze
zauzkin maiteri-legeak?
Aldiz dun maitariaren
mait´ orde hig´ ukena
eder eztena
hi bezalako ederraren.

El ser amado
conlleva la deuda de amar.
¿Qué? ¿Has olvidado
las leyes del amor?
En cambio, aborrecer al amante
en vez de amarle
es algo que no dice bien
en una hermosa como tú.

XI,4.

Halaz gaizkitze hunetan
nun alabain´ ezarri
dolu egingarri.
Huna, niagon hil minetan.
Ezpanun hant´ idokiten,
zordun izan bezala,
hik hil nunala
dinat hil aitorr´ utziten.

Sin embargo, con semejante maltrato
me has puesto
en estado lastimoso.
Mira, estoy con dolores de muerte.
Si no me sacas de ahí,
como es deber tuyo,
dejaré como confesión final
que me has matado tú.

A Brunette

XI,1. Tu ne veux pas croire ce que je t´ai dit tant de fois, que tu es adorée de moi, Brunette? Je suis donc prêt à montrer que c´est la vérité et à faire tout ce que tu m´ordonnes.

XI,2. Mets-moi à l´épreuve. Mais pendant ce temps ne t´obstine pas à considérer que ce qui est n´est pas. A quoi bon la beauté dans ton corps, si la dureté est enracinée en toi?

XI,3. L´amour dont on est l´objet crée en contre-partie une dette d´amour. Quoi? aurais-tu oublié les lois de l´amour? Par contre, haïr son amant au lieu de l´aimer, voilà qui n´est pas beau pour une belle comme toi.

XI,4. En me traitant d'une manière aussi cruelle, tu m'as pourtant mis dans un état pitoyable. Me voici en mal de mort. Si tu ne me tires pas de là, comme tu y es tenue, je laisserai en mourant cette déclaration que c'est toi qui m'as tué.

ARGITASUNAK

XI,1.

- . *BELXARANARI*: neurritzaren izenburuan eta berdintsu beheraxeago, *x* behar lukeen *x* soilak gure *tx* afrikatua adierazten du, beste zenbaitetan bezala (cf. 45).
- . *Nahi estuna?* (ahoska 'nahi eztuna'): hots, ez al dun nahi? Bestetako *-a* galde atzizkia: ik. IX,2.
- . *Aisel' onhetsi / Nisas*: irakur honela: 'nizaz onhetsi aiz(ela)'. Latinezko pasibaz esana, euskarazko beste honen ordeztu: nik onhetsi (h)audala.
- . *Mana nesana gusia* (ahoska 'mana nezana guzia'). Lafonek dioen bezala (Notes..., 76) "est pour nesanan: l'n final est tombé, comme dans la forme souletine de subjonctif *nezaña*, pour *nezañan*". Ik. 'nakidina', III,8.

XI,2.

- . *Esar nesan* (ahoska 'ezar nezan'): edo 'jar nazan', agintezkoa, noski.
- . *hambatequi*: hots, bien bitartean, hainbestez.
- . *Es, issirequi, / Har ... burutan* (ahoska 'ez isireki...'): hau ere agintezko per-pausa da, 'ez har burutan setaz'.
- . *Bihozean*: maiuskularekin lerro hasieran ez dagoen arren.
- . *badaxen*: hemen ere *x* soila, *x* behar lukeena, gure *tx* afrikatuaren lekuan dago (cf. 45). 'Etxeki'-ren orainaldia; hots, hiri zerbait badaxen, edo etxeki bazain.

XI,3.

- . *maitatu isateac, / ... maitaze* ('maitatu izateak ... maitatze'): pasibo-aktiboak dira.

- . *al' ahaze / Sausquin?* (ahoska 'al(a) ahatze zauzkin?'): guk egun 'ala ahantzi zaizkin?'
- . *Aldis dun* (ahoska 'aldiz dun'). "‘Maitariaren’ est le complément du groupe ‘mait’ orde hig’ ukena” (Lafon, “Notes...”, 76. or.), dena osorik ‘dun’-en subjektoa eta ‘eder estena’ predikatua delarik.
- . *ederraren*: hots, ‘ederrarentzat’, balio destinatiboa baitu maiz genitibo atzizkiak.

XI,4.

- . *alabain esarri*: kopian ez da ageri, baina apostrofoa ipini behar da hitzen arteko hutsunean.
- . *Dolu-eguin-garri*: bi marra daudela dirudi.
- . *Huna niagon*: guk komunzki ‘hona non nagoen’ esaten duguna, aurkezta-tzaile zentzua baitu ‘huna’-k.
- . *idokiten*: ik. aurreko neurtitzeko X,14-ean ‘itoi’-ri buruz esana.
- . *isan* (ahoska ‘izan’). Alegia, hi (h)aizan, (h)aizen.
- . *hil nunala*: bestek hil, alegia, ‘erail’ eta horrelakorik gabe.
- . *vziten*: ‘utziten’ ala ‘utziren’? Zentzuari begiratuz, hobeki dirudi ‘utziren’, baina errimarekin hobeki dator (-*iten* / -*iten*) eta inprimatua ere -*t*- dela gehiago dirudi -*r*- baino-. Francisque-Michelek ere *vziten*. Larresorok gauza bera uste du (“Atsotitzak eta...”, 165. or.).

XII

Bi neurtitz goragokoarekin, hamargarrenarekin, antz handia du, haren lehen zatiarekin, noski. Hemen ere emakume beraren edo besteren, ez dakigu noren, ez baitigu izenik ematen, soinaren edertasunak deskribatzen ditu xeheki. Dena du ederra; hasi begietatik eta oinetaraino. Bertsoak ere haiek bezalakoak dira: zazpi silabako lau lerrokoak eta hauen errima ere, han bezala, lehen-bigarren-laugarrenek dute.

- | | |
|---|---|
| XII,1. Aspaldian nabila
hor-hebe, laztan bila
et´ orai nahi-nola
batu naiz batekila. | Ando desde hace tiempo
buscando acá y allá una amante
y ahora he dado
con una, cual yo quería. |
| XII,2. Hur´ ezagutzen duten
oro haren bertuten
goresten eta bertzer
ari dir´ eranzuten. | Todos los que la conocen
ponderan sus cualidades
y las pregonan
a los demás. |
| XII,3. Haren eder izana
da hain gauza bekana,
ezi ezuela kiderik
baita jenden errana. | Su belleza
es tan singular
que la gente dice
que no tiene igual. |
| XII,4. Nol´ arrai miratzea
baitu eme mintzatzea,
gozo, gozo ere handi,
da hari behatzea. | Así como es brillante
su mirada, es dulce su hablar,
y también es grato,
muy grato, mirarla. |

- XII,5. Gorputza duelarik
luzekara, halarik
xuxen du et´ ezta lodi
ez mehe soberarik. Con ser su cuerpo
estirado, no obstante
ella es derecha, no gruesa,
ni excesivamente delgada.
- XII,6. Begi xiloak ditu
izar bigez garnitu,
begitarte hanti
zauka hanbat argitu. Las cuencas de sus ojos
las ha provisto de dos estrellas,
con ello el rostro
se le ha iluminado notablemente.
- XII,7. Buruko bilo hori
urhea bezain hori,
bana gordatzen du, eta
salhatze´ ezta zori. El cabello de su cabeza
es rubio como el oro,
pero lo oculta
y no es lícito revelarlo.
- XII,8. Kristalez du belarra,
sudurr´ oro zilarra,
mazelak xuri-gorri,
perla hutsez bidarra. Su frente es de cristal
y su nariz enteramente de plata;
las mejillas sonrosadas
y la barbilla de pura perla.
- XII,9. Ezpainak badiduri
dela koral-isuri,
hortzak, lepo, bulharra
elhurra bezain xuri. Su labio diríase
que es un chorro de coral;
los dientes, cuello y pecho
blancos como la nieve.
- XII,10. Oin tipiz herotsduna,
zango aratsu, xuguna,
eskua xuri nola
arraulze berri erruna. Su pie es famoso por su pequeñez,
su pierna carnosa y gentil,
la mano blanca
cual huevo recién puesto.
- XII,11. Horik nik hautemanik
eta gogoan emanik,
hanti nag´ orai haren
zaretan atzemanik. Al haber yo advertido esas cosas
y grabado en mi mente,
estoy ahora por ello
prendido en sus redes.
- XII,12. Nagoen han, nahi bada,
ezi sordex ezpada
haren presondegia
ene laketgia da Estéme allí, si preciso fuere,
porque si ella no está peor,
su prisión es para mí
un recinto de placer.

XII,1. Depuis longtemps je vais ça et là en quête de maîtresse, et maintenant, comme je le voulais, j'en ai rencontré une.

XII,2. Tous ceux qui la connaissent ne cessent d'exalter ses qualités et de les proclamer aux autres.

XII,3. Sa beauté est si rare que les gens disent qu'elle n'a pas d'égale.

XII,4. Comme son aspect est affable et sa parole douce, on éprouve aussi un grand, très grand plaisir à la regarder.

XII,5. Tout et étant assez grande, elle est cependant droite, et elle n'est pas trop grosse, ni trop mince.

XII,6. Ses orbites sont garnies de deux étoiles. Son visage en est illuminé d'autant.

XII,7. Sa chevelure est jaune comme l'or. Mais elle la cache, et il n'est pas permis de le révéler.

XII,8. Son oreille est de cristal, son nez est tout argent, ses joues sont roses, son menton n'est que perles.

XII,9. On dirait que sa lèvre est un ruissellement de corail. Ses dents, son cou, sa poitrine sont blancs comme la neige.

XII,10. Son pied est renommé pour sa petitesse, sa jambe charnue et bien faite, sa main brillante comme un oeuf fraîchement pondu.

XII,11. J'ai remarqué ces qualités et je les ai fixées dans mon esprit. C'est pourquoi je suis maintenant pris dans ses filets.

XII,12. Que j'y reste, si l'on veut bien! Car, si elle n'est jamais pire, la prison de ma belle est l'endroit où je me plais.

ARGITASUNAK

XII,1.

. *Hor, hebe*: tartean koma dutela. 'Hebe' edo heben, hemen.

. *lastan* (ahoska 'laztan'): hemen neska maitea, ez musua.

. *nahi-nola*: nahi bezala.

. *Batu*: Francisque-Michelek *Bat`u*, hau da, *Bathu*.

XII,2.

- . *bertuten*, / *Goresten ...* / *Ari dir*: ‘bertuten’ genitibo objektiboa da.
- . *berzer* / ... *eransuten* (ahoska ‘bertzer ... eranzuten’): hots, besteei entzunarazten: ik. IX,5.

XII,3.

- . *becana* (ahoska ‘bekana’): Francisque-Michelek *bec`ana*, hots, *bekhana*. Etxeparek ere ‘bekhan’: ik. IV,9.
- . *hain ...* / *Eci estüela*: bi mendeko perpaus ditugu hemen elkarri txertatuak: lehena, kontsekutiboa bere hiru elementuekin (“*hain* gauza bekana, *ezi ... baita* gendeen errana”) eta bigarrena “erran-” honen osagarria: “eztuela kiderik”. Lafonek bestela dio: “*eci* introduit la forme verbale à suffixe *-la...*” (“Notes...”, 77. or.). Ohar *ci* grafia (ik. V,7); *ü* dieresiduna hemen ez da silabagilea, *-twe-* irakurri behar baita, ohi ez bezala. *kideric*: Francisque-Michelek *k`ideric*, hau da, *khiderik*.
- . *genden*: *ge-* grafia etimologikoa, VI,6-n bezala.

XII,4.

- . Ikus nolako arrazoibidez baliatzen den poeta: nola A eta B baitu, C egitea ere gozo handi da. A arrai miratzea da; B eme mintzatzea; hainbestez C egitea, hau da, hari behatzea, gozo-gozo handi da.

XII,5.

- . Eta nolako gorputza omen duen: luzexka, baina zuzena, ez lodia, ez mehegia.
- . *düelaric*: dieresia, *u* bokal silabagilea dela adieraziz: *du-e*.
- . *soberaric*: *s-* hitz hasieran, Oihenarten sisteman *ʃ* behar zuena; hitz honen idazkeraz, cf. 307.

XII,6.

- . *Isar bigues* (ahoska ‘izar bigez’); hau da, bi izarrez.
- . *Sauca* (ahoska ‘zauka’): euskara batuan ‘zaio’.

XII,7.

- . *hori* / ... *hori*: ez da potoa, lehena mugatzaile soila baita.
- . *Salhaze*: hau da, ‘salhaze(a) ezta zori’. Ez da juxtu gure ‘inor salatzea’, baizik “ezkutatu nahi dena agertzea, ezagutaraztea, erakustea”.

XII,8.

- . *belarra*: belarria.
- . *Maselac*: matelak, masailak.
- . *bidarra*: kokotsa.

XII,9.

- . Mirestekoa da zein gogara jokutzen duen neurtitzean barrena izen mugatuez eta mugagabeez, azken hauetaz batez ere, predikatu direnean; bertso honetantxe, adibidez, “koral-isuri”.
- . *lepo*: Francisque-Michelek *lep`o*, hots, *lep`ho*.

XII,10.

- . *tipis* (ahoska ‘tipiz’): txikiaren txikiaz ospatsua dela esan nahi du.
- . *aratu*: bukaerako hiztegiñoak honela dio: ‘charnu’, aragitsu, mamitsu.
- . *berri erruna*: edo errun berria; hau da, arrautza ipini berria.

XII,11.

- . *hautemanic*, / ... *emanic*, / *Hanti*: bi lehenen atzizkiak kausa adierazten du eta hori dago jaso ‘hanti’-n, hau da, ‘horregatik, hori dela eta’.
- . *nag` ...* / ... *azemanic*: honec aldiz moduzko aditzondo baten balioa du: nola egon, alegia.

XII,12.

- . *Nagoen han*: edo egon nadila. Larramendiren *Corografia*-ko “Nagoan isillic” (300. or.) gogorazten digu.
- . *nahibada*: loturik; “est obscur” dio Lafonek (“Notes...”, 77.or.). Ez al da “si hace falta, si es preciso” esateko erabiltzen dena?

- . *Esi* (ahoska 'ezi'): oraintxe atera zaigu (3. bertsoan), *eci* idatzia.
- . *preſondeguia*: -f- bakuna bokalardean, mailegu delako, beharbada.
- . *laketguia*: 'laquet' eta 'laket', hitz horren lehen osagaia bietara idatzirik ikusi dugu 1. neurtitzean, lehen eta laugarren bertsoetan.

XIII

“Propre et particuliere a nos basques”, dela dioen estrofa edo bertso hau biziki maite bide du: hemen dugu berriz ere. Ez dut zer deskriba zeharo formaren aldetik, bitan esana baitago: zazpi silabako lau lerro, hirugarrenaz besteek errima berbera dutela: *-urik, -ala, -aitu* etab.

Bai ordea zer aitor, honek aurreko biak txikitxo uzten dituela tasun eta doaietan. Izpiritukoekin hasten da (“Spritu are hobetako”), baina haren izena JOANA (bere emaztea izango dena?) dela esan bezain laster gorputzekoetara aldatzen da. Zortzi edo hamar aipatu ondoan beldur da begiak sartzea ahaztuko ote zaion; baina ez, “kanbiatu da gueroz izarretara”, begia, alegia. Gero kokotsetik hasi eta bularrean, lepoan, ugatzean etab. barrena, bihotza ere isildu gabe. “Horik erran bezala” omen dira eta pozik izango omen litzateke haren zerbitzari. Zapuztuko balu ere, bere buruari egotziko omen lioke errua. Horra hor zergatik den “betheguinzarrea”. Atzizki hau “gorazarrea”-n dugun berbera da.

JOANAREN BETHEGINZARREA

LA PERFECCIÓN DE JOANA

XIII,1. BATEZ nago harturik
hura gogoan sarturik,
ezin hil, ezin biziz
nago net eiharturik.

Estoy cautivado por una,
la tengo metida en el corazón;
sin poder morir ni vivir,
estoy totalmente yerto.

XIII,2. Burutik oinzolala
berregin den bezala,

Por ser, como es, perfecta,
desde la cabeza hasta los pies,

- | | |
|---|--|
| dohainetan neduke
haren zerbitz´ ahala, | consideraría un regalo
poderla servir, |
| XIII,3. zeren baita hain haitu
eta zeren garhaitu
prestuz et´ ontarzunez
bertze nesk´ oro baitu, | porque es tan excepcional
y porque excede
en cordura y bondad
a todas las demás chicas, |
| XIII,4. zeren dena guzia
baita ber-zuhurtzia
eta jakitarzunez
orozaz gainti utzia. | porque toda ella es
la mismísima prudencia
y en punto a talento
la ponen todas por encima. |
| XIII,5. Minzatze ederretako,
spritu are hobetako,
adimenduz eranzun
nik ezin bezalako. | Es de hermoso lenguaje,
de agudeza aún superior,
de inteligencia tal
que yo no puedo expresar. |
| XIII,6. Kaizuz doi, ezi bara
sorzainak eskuetara
hur´ egitean hartuz,
jakin du zertan bara. | De estatura, la precisa,
pues al coger el Hacedor la vara
en las manos para hacerla,
supo dónde frenar. |
| XIII,7. Haren izena JOANA
ez´ ote gaizki emana?
ezi orai heldu dena
nola lizate ‘joana’? | Su nombre es Ioana.
¿No estará mal puesto?
Porque la que acaba de llegar
¿cómo puede ser ‘la que ha ido’? |
| XIII,8. Haren gorputz lerdena
da nik dudan maitena;
baitare gerri hersiz
orotako lehena. | Su esbelto cuerpo
es lo que más me gusta;
también su cintura, de todas
la primera por su delgadez. |
| XIII,9. Haren ahorpegia
zer, baderragu egia,
zer derrakegu dela
baizik izartegia? | Su rostro, a decir verdad,
¿qué otra cosa
diremos que es,
sino el firmamento? |

- XIII,10. Lehenik bekokia
moldeaz idokia,
iduri, iguzkiareki
argiz ihardukia. En primer lugar su frente,
sacada a molde,
diríase que compite
con el sol en esplendor.
- XIII,11. Gero ahutz-ara
potarentzat lardea;
ezt' igelsu, ezta zilar
bana kristal-ordea. Luego las dos mejillas,
reacias al beso,
no son de yeso ni de plata,
sino de una especie de cristal.
- XIII,12. Aldiz bi beharriak
xuri miragarriak,
saldoa maitariri
gorheritan jarriak. En cambio las dos orejas,
maravillosamente blancas,
se tornan como sordas
a la turba de amantes.
- XIII,13. Oi! zerik du sudurra!
ez egui' ez apurra:
xorhi, begi-hontgarri,
hala-hala muturra. ¡Ay, qué nariz la suya!
Ni es grande ni es pequeña;
linda, encantadora a los ojos,
ni más ni menos que su boca.
- XIII,14. Ezpainak arros' orri
gorriak bezain gorri;
hortzak aitzintzen xuriz
ezein ezne isurkorri. Sus labios son rojos
como rojos pétalos de rosas,
sus dientes aventajan en blancura
a cualquier chorro de leche.
- XIII,15. Zer? ahatz lakidita
haren begi polita?
al' ez aski goratuz
hutsik ote daidita? ¿Cómo? ¿Se me pueden olvidar
sus preciosos ojos?
O ¿cometeré acaso el desliz de
no ponderarlos suficientemente?
- XIII,16. Begi gureak-ara
zirudien bertara,
bana kanbiatu da
geroz izarretara. De cerca parecían
como nuestros ojos,
pero se han transformado
al punto en estrellas.
- XIII,17. Bidar-hori berhala
nola boli zotala;
lepoa perla biziz
orhatua bezala. La barbilla
como pedazo de marfil;
el cuello como amasado
con perlas vivas.

- XIII,18. Ugatz gogor, lar-xuri,
leunez baluz´ iduri,
mokoetan xartaturik
koralez bi mohuri. Los pechos duros de blanca piel
como terciopelo, de puro suaves;
injertadas en la punta
dos fresas de coral.
- XIII,19. Balin balu sabela,
garhi nerrake dela,
ezi segurtatzeko
eztu ezagun duela. De su vientre diría
que es menudo, si lo tuviera,
pues no parece tenerlo
como para asegurarlo.
- XIII,20. Zango xorhiki egina,
paieruz hob´ ezina;
besoa bertz´ ororen
patroinzat sor zedina. Su pierna de linda hechura,
insuperable aun con compás,
su brazo es el que se creó
como modelo de todos.
- XIII,21. Esku erri et´ ahurra
hain xuri zein elhurra;
oina doitzuz bezala
meharr´ eta laburra. Los dedos y palmas de sus manos
son tan blancas como la nieve;
el pie, como hecho a medida,
fino y pequeño.
- XIII,22. Buru ederreko adatsa
laxurik baderatza,
badaitso gerrirano
urh´ izpiz aberatsa. La cabellera de su esbelta cabeza
si la deja pender suelta,
le baja hasta la cintura,
rica en hebras de oro.
- XIII,23. Gainerakoz bihotza
al´ urrix´ al´ orotsa
duen, izterbegiak
porogatuz bihotsa. Por lo demás, si es hembra
o macho su corazón,
haga la prueba su enemigo
y dígalo.
- XIII,24. Horik erran bezala
zeren baitira hala,
dohainetan neduke
haren zerbitz´ ahala. Como todo eso es
tal como está dicho,
consideraría un regalo
poderla servir.
- XIII,25. Baletsa Jaungoikoari
har nenzan zerbitzari
hark er´, eta leriztan
hanbat on zein nik hari, Si pluguiera a Dios
que ella me tomara de criado
y que me apreciara tanto,
como yo a ella,

- | | |
|--|--|
| <p>XIII,26. orduan pausu nuke
eta nihaur neduke
handiago, baninz ezi
baroin, kont' edo duke.</p> | <p>entonces lo mío sería sosiego
y me creería superior
a ser barón,
conde o duque.</p> |
| <p>XIII,27. Banau er' iraiziko,
eztut ez gaitzetsiko,
baizik ogen guzia
nihaurtar' egotziko.</p> | <p>Aunque me rechace,
yo no la odiaré,
sino que toda la culpa
me la imputaré a mí mismo.</p> |
| <p>XIII,28. Ezi aspaldi du haren
merezi handiaren
ezagutza dudala
et' en' eskasgoaren.</p> | <p>Porque hace mucho tiempo
que estoy al tanto
de su gran mérito
y de mi pequeñez.</p> |
| <p>XIII,29. Alabader' orano
nahi dut zertarano
kortes den jakin, lehen
etsirik hartu bano,</p> | <p>A pesar de todo,
quiero aún saber
hasta qué punto es cortés,
antes de yo desesperar,</p> |
| <p>XIII,30. Zeren nol' ene maite
ukeiteak iraitse
baitu, hur' er' agian
luzean goga daite.</p> | <p>porque al igual que mi amor
tiene constancia,
a la larga quizás también
ella se conforme.</p> |

La perfection de Jeanne

XIII,1. Quelqu'un m'a pris et me tient; elle est entré dans mon esprit; je suis entre la vie et la mort; j'en suis tout desséché.

XIII,2. Comme elle est bien faite de la tête à la plante des pieds, je tiendrais pour une faveur de pouvoir la servir.

XIII,3. Parce qu'elle est si remarquable, parce qu'elle dépasse en sagesse et en bonté toutes les autres jeunes filles,

XIII,4. Parce qu'elle est toute entière la sagesse même, et que, pour ce qui est du savoir, on lui laisse la première place.

XIII,5. Elle a un beau langage, un esprit encore meilleur. Son intelligence est telle que je ne puis l'exprimer.

XIII,6. Elle est de taille bien proportionnée, car l'esprit qui préside à la naissance des enfants a pris l'aune dans ses mains en la faisant, et a su ainsi où s'arrêter⁸⁰.

XIII,7. Le nom de *Jeanne* ne lui a-t-il pas été mal donné? Car celle qui vient d'arriver, comment serait-elle celle qui est partie?

XIII,8. Son corps svelte est ce que j'aime le plus, ainsi que sa taille, la première de toutes par sa finesse.

XIII,9. Son visage, à quoi, si nous disons la vérité, à quoi pouvons-nous l'identifier, si ce n'est au firmament?

XIII,10. D'abord, son front a été fait au moule, et l'on dirait qu'il rivalise avec le soleil en éclat.

XIII,11. Puis ses joues, qui redoutent le baiser, ne sont ni de plâtre ni d'argent, mais d'une sorte de cristal.

XIII,12. Quant à ses deux oreilles, merveilles de blancheur, elles se montrent sourdes à la foule des amants.

XIII,13. Oh!, quel nez elle a! Ce n'est ni trop ni trop peu. Mignonne et agréable aux yeux, c'est bien ainsi qu'est sa bouche.

XIII,14. Ses lèvres sont rouges comme les rouges pétales des roses. Ses dents dépassent en blancheur n'importe quelle goutte de lait.

XIII,15. Quoi? oublierais-je ses jolis yeux? ou vais-je commettre la faute de ne pas les célébrer assez haut?

XIII,16. Ils avaient, comme les nôtres, leur aspect propre, mais ils se sont changés ensuite en étoiles.

XIII,17. Son menton ressemble à un bloc d'ivoire; son cou est comme pétri de perles vives.

XIII,18. Ses seins fermes, à la peau blanche, ressemblent, tant ils sont lisses, au velours; à leurs pointes sont greffés deux grains de corail.

XIII,19. De son ventre, je dirais qu'il est grêle, si elle en avait un, car, si l'on veut s'en assurer, on ne reconnaît pas qu'elle en a un.

XIII,20. Sa jambe est si mignonement faite qu'on n'aurait pu mieux faire au compas. Son bras est celui qui fut créé comme modèle de tous les autres.

⁸⁰ Estrofa hau autoreak ezabatua dago Baionako alean.

XIII,21. Les doigts et les paumes de ses mains sont aussi blancs que la neige. Son pied est mince et court, comme s'il avait été fait sur mesure.

XIII,22. La chevelure qui orne sa belle tête, si elle la laisse dénouée, lui descend jusqu'à la taille, trésor de délicats fils d'or.

XIII,23. Quant à savoir si son coeur est femelle ou mâle, que l'ennemi en fasse l'épreuve et le dise!

XIII,24. Comme tout cela est bien tel que je l'ai dit, je tiendrais pour une faveur de pouvoir la servir.

XIII,25. S'il plaisait à Dieu qu'elle me prît pour serviteur et qu'elle m'aimât autant que je l'aime.

XIII,26. Alors je connaîtrais le repos, et je me tiendrais pour plus grand que si j'étais baron, comte ou duc.

XIII,27. Même si elle me repousse, je ne la haïrai pas, mais je rejetterai toute la faute sur moi.

XIII,28. Car il y a longtemps que je connais ses grandes qualités et mon insuffisance.

XIII,29. Cependant je veux savoir encore jusqu'à quel point elle est courtoise, avant de désespérer.

XIII,30. Car, comme mon amour a de la constance, elle aussi, peut-être, à la longue, se décidera.

ARGITASUNAK

XIII,1.

. *BATES nago* (ahoska 'batez nago'): ez al zezakeen esan 'batek nago harturik', latinezko ablatibo agentearen pareko hori erabili ordez?

. *Nabo*: okerren azken zerrendan esaten zaigu hori zuzentzeko eta *Nago* ipintzeko.

. *eiharturic*: gipuzkeraz 'iharturik'.

XIII,2.

. *oinsolala* (ahoska 'oinzolala'): hau da, oin-zolara.

- . *Berreguin*: azken hiztegitxoan agertzen da: “leste, propre, bien fait”.
- . *Dobainetan neduque*: ik. X,2. Hemen *neduque* dio, ez *naduque*, han bezala.
- . *Haren*: genitibo objektiboa; euskaldun gehienok ‘hura’ esango genuke.

XIII,3.

- . *Seren* (ahoska ‘zeren’): hirutan agertzen da menderagailu hau bi lerrotan barrena: “zeren baita...”, “zeren garhaitu... baitu”, “zeren... baita”.
- . *haitu*: Lhandek zubererazko “haitü”-k aukerakoa esan nahi omen duela (“Notes...” 78.or.) eta Lafonek berak “remarquable” itzultzen du.
- . *Prestus* (ahoska ‘prestuz’): *-st-* grafia, *s* txikiarekin, *-ʃt-* ren lekuan, gure *s* apikaria baita. Izen ‘prestu’-ren kasu instrumentala da, baldin prestutasunez balio bezala.
- . *É’ ontarsunes* (ahoska ‘et(a) ontarzunez’): *É* ikurrak ‘et’ balio du eta haren ondoan apostrofoa dago (cf.45 eta V,12).

XIII,4.

- . *dena gusia* (ahoska ‘dena guzia’): den dena edo guzi guzia.
- . *ber-suburzia* (ahoska ‘ber-zuhurtzia’): irakur ‘zuhurtzia bera’.
- . *Iaquitarunes* (ahoska ‘jakitarzunez’): maiuskularekin, lerro hasieran ez badago ere.
- . *Orosas gainti vzia* (ahoska ‘orozaz gainti utzia’): alegia, ‘guziez gainetik utzia’ edo ‘guziek gainean uzten dutena’.

XIII,5.

- . *Minsaze ederretaco* (ahoska ‘minzatz(e) ederretako’): testuan *Minsaze’* ageri da, apostrofo eta guzti, baina hutsa da, bietako bat soberan baita, edo *-e* bokala edo apostrofoa. Hots, ‘hura minzatz(e) ederretako da’. Guk ‘ederreko’ esango genuke. Ik. V,34: ‘beldur handitan’, eta XIII,22.
- . *Spiritu are hobetaco*: honi buruz, ‘hobeko’-ren aldean gauza bera esan behar da.
- . *eransun* (ahoska ‘eranzun’): hots, entzunarazi, adierazi; ik. IX,5.

XIII,6.

- . *Caisus* (ahoska ‘kaizuz’): liburuaren bukaerako hiztegiñoak “Taille du corps” esan nahi duela dio.
- . *doi*: honi buruz beste hau dio: “*DOITZEA*, Ajuster, proportionner, de *doi*, juste, proportionné” omen dela.
- . *esi* (ahoska ‘ezi’): ik. XII,12. Irakur ezazu honela: “ezi sorzainak bara eskuetara hartuz...”.
- . *bara*: bi ‘bara’ horiek ez dira poto; bi gauza dira: izen arrunta eta ‘baratu’-ren aditzoina.
- . *escüetara*: *s* txikia gure *s* apikariari dagokion \int luzearen lekuan (ik.46); diere-*siak u* bokala dela adierazten du, baina hemen ez da silabagilea: *-kwe-*.

XIII,7.

- . *Es’ ote ...?*: zer dela-eta apostrofo hori? Ez ote dago azpian galderaren *-a*, *ez(a) ote ...*, alegia, gero sinalefa eginez ondoko bokalari lotzen zaiona, I,7-ko “*etzentoske*” hartan gertatua berbera?
- . *Eci* (ahoska ‘ezi’): aurreko bertsoan aurkitu dugu *esi* idatzia, bietan kausala izanik ere (cf. V,7).
- . *Ioana?*: maiuskularekin, lerroaren hasieran ez egon arren. *Ioana* edo *joana*, partizipio burutua forma mugatua. Hainbestez hemengo bi IOANA-k ere ez dute poto egiten.

XIII,8.

- . *herfjs* (ahoska ‘hersiz’): ik. *tipiz*, XII,10; hura bezala hau ere ‘hertsiaeren hertsiz’.

XIII,9.

- . *Ser ... / Ser* (ahoska ‘zer’): lehena esan gabe utziz ez zen ezer galtzen.
- . *Baicic*: *-ci-* grafia ostera ere (ik. 373).

XIII,10.

- . *Moldeas idoquia* (ahoska ‘moldeaz idokia’): ik. XI,4. Hau esan nahi bide du: bekokiak moldeaz aterea dirudiela eta eguzkiarekin lehian dabilela, nor ote bietan argiago.

. *Iharduquia*: maiuskula, lerroaren hasieran egon ez arren.

XIII,11.

. *Abuz-araldea*: azkeneko hiztegiñoan dioenez ‘masail parea’.

. *Potarenzat lardea*: hots, pot emateko lotsa duena.

. *Est' iguel'su ...*: hiru predikatuetatik azkena bakarrik mugatua.

XIII,12.

. *Churi miragarriac*: hau da, miragarriri txuriak. Ohar *ch* grafia, Oihenarten sistemako *x*-ren lekuan.

. *Saldoa maitariri*: hau da, maitari (edo maitale) saldoari. Francisque-Michelek *maita`riri*, hau da, *maithariri*.

. *Gorheritan iarriac*: hau da, gorrarena eginik.

XIII,13.

. *Oy, Ceric du sudurra!*: ohar *-y* grekoa; *Ce-* grafia, maiuskulaz; *s-* hitz hasieran, apikariari dagokion *ʃ-* luzearen lekuan.

. *egui*: ‘egi(a)’ edo (handi)egia. Lafonek honela dio: “Le suffixe *-egui* <trop> est employé ici comme indépendant” (“Notes...”, 79. or.)

. *Xorhi*: edo txairo, polit. Ik. *Xorbiki*, neurtitz honexen 20. bertsoan.

. *begui - hontgarri*: azkeneko hiztegiñoan “agréable aux yeux” dela esaten du.

. *Hala hala*: bereiz; berdin-berdina (du muturra, alegia). Etxeparek aditzondo gisa darabil: “Iangoikua ari duzu hala hala” (I,2).

. *muturra*: Francisque-Michelek *mut`urra*, hau da, *muthurra*.

XIII,14.

. *arros`orri / Gorriac*: hau da, orri gorriak dituzten arrosak. Dagoen bezala, ‘arroz(a)’ irakurri beharko litzateke, baina hitzaren tradizioa ikusita pen-tsa daiteke *-ʃ* luzearen lekuan dagoela *-s* txikia eta gure *s* apikaria adierazten duela.

. *aizinzen* (ahoska ‘aitzintzen’): ‘zaizkio’, alegia; aurreratzen, gailentzen. Dieresiak *i*-ren bokaltasuna ziurtatzen du, *ai-* diptongoak silaba bat osatzen duelarik.

- . *xuris* (ahoska ‘xuriz’): instrumental bera ik. ‘prestuz garhaitu’ (neurtitz hone-
xen 3. bertsoan).
- . *Esein esne iſſurcorri* (ahoska ‘ezein ezne isurkorri’): Lafonek esaldi horretaz
hau dio: “est au datif (indéfini), comme complement de “aizinzen””
(Lafon, “Notes...”, 79. or.). Beste hau isiltzen du, ordea: “ezein” ezezko
perpasean baizik ez duela erabili ohi Etxeparek (ik. “Ezein iaunek eztu
nahi...”, I,2). ‘Inor ez’, alegia, ez ‘edozein’, hemen bezala.

XIII,15.

- . *abaz laquidita?*: nor-nori, ahalera eta galderazko *-a*. *Ladin*-etik abiatu-
rik hau
dugu: *la-di-ki-t* (hura neri) edo *la-ki-di-t* metatesia eginez gero, eta gal-
dera baita, *-a*. Beraz *lakidita*. Euskara batuan, ordea, *-di-* galtzen baita eta
azkenean *-ke* ipintzen, *lekidake* sortzen zaigu. Ik. *naquidina* III,8.
- . *Al*, *es*: ‘al(a) ez’, *a*-ren elisioa, koma bera gaindituz.
- . *Hutſic othe daidita?*: ik. berbera II,1-ean.

XIII,16.

- . *gureac-ara*: Lafonek “vers très obscur” omen dela. *-ara* eta ‘antzeko, beza-
lako’ esanahi bertsuko omen direnez gero, “gure begiak bezala” esan nahi
bide du. Baina Lafon ez da lasai gelditzen (“Notes...”, 79. or.).
- . *kambiatu da / ... isarretara*: ‘ura ardo bihurtu’, eta ez ‘ardotara’ edo ‘ardo-
tan’, gomendatu du Euskaltzaindiak batasun zurrean. Beraz “izar kanbia-
tu da” hobe egun.

XIII,17.

- . *Bidar-hori*: marrarekin; bidarra, ‘hori’ mugatzailea baita; kokotsa. Ik. XII,7.
- . *Berhala / Nola*: hala nola.
- . *boli-sotala*: (ahoska ‘boli-zotala’): marrarekin; bolia ‘ivoire’ dela diosku poe-
tak azkenaldeko hiztegiñoan. Hortaz, ebur-zatia.
- . *visis*: *v-* kontsonantea; hitz honen idazkeraz, cf. 236.
- . *Orhatüa*: dieresiak *u* bokal silabagilea dela adierazten du: *tu-a*.

XIII,18.

- . *lar-churi*: larru, narru. Ohar *ch-* grafia Oihenarten ohiko *x-*ren lekuan: hitz hau *xuri* IX. neurtitzean (tit., 1), *xuri* XII.ean (24, 27, 30) eta bitara XIII. neurtitz honetan (*churi*: 35, 52; *xuri*: 42, 62).
- . *Leunes* (ahoska 'leunez'): ik. 'xuriz' (XIII,14)
- . *balous*: ile guria.
- . *chartaturic* (ahoska 'xartaturik'): askok 'txertaturik' diogu. Ohar *ch-* grafia hemen ere *x-*ren lekuan.
- . *Corales bi mohuri* (ahoska eta irakur, 'koralez(ko) bi mohuri edo bihi').

XIII,19.

- . *sabela* (ahoska 'sabela'): *s-* txikia hitz hasieran *ʃ-* luzearen lekuan: hitz honen idazkeraz, cf. 508.
- . *Garbi*: mehats, mehar.
- . *Eci* (ahoska 'ezi'): bestetan *esi* (ik. biak XIII, 6-7; eta V,7).
- . *ʃegurtazeco* (ahoska 'segurtatzeko'): seguru esateko, baieztatzeko.

XIII,20.

- . *chorhiqui* (ahoska 'xorhiki'): ik. xorhi, XIII,13. Ohar, ostera ere, *ch-* grafia.
- . *Paierus* (ahoska 'paieruz'): dieresiak *i* hori bokala dela erakusten du: 'pai-eruz', ez 'pa-je-ruz'; konpasez.
- . *ʃor sedina* (ahoska 'sor zedina'): azken *-a* artikulua da eta kenduz gero 'zedin' gelditzen da, hots 'sor zedin'. Hau gaurko 'sortu zen'-en parekoa da, zeren euskara zaharrean subjuntibo aoristikoa deritzana erabili ohi zuten, Lafonek "temps de récit" deitzen duena. Ik. XIV,1-ean bi bider.

XIII,21.

- . *Escu erri et' ahurra*: alegia, eskuko behatzak eta eskupea. Ohar *-sc-* grafia, gure *s* apikariari dagokion *-ʃc-*ren lekuan; *esku* hitzaren idazkeraz, ik. 46. Bestalde, hemen *erri*, baina bestetan *erhi* (179, 668; X,9).
- . *Hain ..., sein ...*: alegia, Y bezain X.
- . *doitus* (ahoska 'doituz'): ik. neurtitz honexen VI. bertsoa.
- . *Meharr*: bi bertso gorago 'garhi' esan du.

XIII,22.

- . *Buru ederreco*: lehen (neurtitz honexen 5. bertsoan) ‘minzatze ederretako’ esan du.
- . *baderaza* (ahoska ‘baderatza’). Lafonek: “*Baderaza* ne peut venir que du verbe *eratzan*, causatif de *etzan*” (“Notes...”, 79-80. or.).
- . *Badaït*ſo: ‘jaitsi’-ren *nor-nori* sintetikoa; guk egun ‘jaisten zaio’. Dieresiak *-ai-* ahoskera segurtatzen du.

XIII,23.

- . *Düen*: dieresiarekin, hots, *du-en*.
- . *Al’ vrrix’al’ orot*ſa: horrela testuan, baina bigarren apostrofoak *x* kontsonantearen ondo-ondoan behar du eta hirugarren tartean ere apostrofoa ipini behar da, kopian ikusten ez den arren, ‘al(a) urrix(a) al(a) orotsa’.
- . *isterbeguiac* (ahoska ‘izterbegiak’): edo ‘arerioak’, ‘etsaiak’.
- . *bihot*ſa: Lafonek: “impératif de *io-* “dire”; objet de référence de 3e pers. indéterminé” (“Notes...”, 80. or.). Ik. ‘siotsan’, III,4.

XIII,24.

- . *erran besala*, / ... *hala*: berez ez legoke ‘hala’ horren beharrik; aski litzateke “Horic zeren baitira erran besala”, eta ez “Horik erran bezala zeren baitira, hala...”. Hizkera erromanikoen kutsadura da hori: “como... así”, “tal... como”.
- . *Dohainetan neduque*: ik. XIII,2, ‘neduque’, eta X,II, ‘naduque’ eta gainera ondoko lerroa ere desberdina.

XIII,25.

- . *Balet*ſa: forma sintetikoa, noski. Lafonek: “de *etsi*, que signifie ici *plaire à* et est construit avec le datif” (“Notes...”, 80. or.).
- . *iaungoicoari*: minuskularekin.
- . *Har nensan ... / ... eta leri*ſtan (ahoska ‘nensan... eta leriztan’): perpaus baldintzazko ‘baletsa’-ren osagarriak dira beste biok. ‘Baletsa’ ‘etsi’-ren *hura hari bezala*, ‘leriztan’ ‘eritzi’-ren *hark neri* sintetikoa. Ohar zein ederki betea dagoen aldien egokiera: “baletsa-nensan-leriztan”. Hemen *-ſt-* grafia dugu, gure z bizkarkariari dagokion *-st-*ren lekuan.

- . *Har nensan serbizari*: hemen ez dio ‘zerbitzaritzat’.
- . *Harc er, ‘eta*: horrela testuan, baina *Harc er’, eta* behar du; moldiztegian ez bide zekiten zein zen zehazki apostrofoaren lekua.
- . *Hambat on sein nic hari* (ahoska ‘hanbat on zein nik hari’): bertso batzuk gorago, XIII,20, ‘hain... zein...’ irakurri dugu, hemen ez bezala.

XIII,26.

- . *Ordüan*: dieresiarekin, hots, *-du-an*.
- . *pausu*: bokalarteko *-s-* txikia *-j-* luzearen lekuan dagoela pentsa daiteke, hau da, gure ‘pausu’ dela, ez ‘pauzu’. (cf., berdin, XVII,63).
- . *nihaur neduque*: Lafonen ohar luzetik hauxe hartzen dugu: “Il emploie *nihaur* au lieu de *ene burua*. Il fait ainsi de *nihaur* (...) le patient d’une forme verbal à agent de 1re pers. du sg. et patient de 3e du sg. (...) Malgré tout, cette construction est exceptionnelle et irrégulière” (“Notes...”, 80. or.)
- . *neduque*: ik. hortxe goian XIII,23.
- . *banins eci* (ahoska ‘baninz ezi’): irakur ‘handiago ezi baninz’. Ohar *ci* grafia (cf, V,7). ‘Ezi’ hemen, lehen komunzki kausala edo osagarria bezala, konparatiboa da, izan ere.
- . *Cont’, edo Duke*: *e-*ren elisioa, komaren gainerik.

XIII,27.

- . *Banau er’ iraisico* (‘banau er(e) iraisiko’): ez da errealia, gurea maiz bezala, baizik ‘iraiz banaza ere’-ren parekoa.
- . *Baicic*: *-ci-* grafia; hitz honen idazkeraz, cf. 373.
- . *Nihaurtar’*: hots, neronengana.

XIII,28.

- . *casgoaren*: *-s-* txikiak ere *-j-* behar luke, gure apikaria adierazten baitu, hots, *eskas-*, ez *eskaz-* (cf. 503).

XIII,29:

- . *lehen / Etjiric hartu bano*. Irakur ezazu: etsirik hartu bano lehen.

XIII,30:

- . *ene maite / Vkeiteak*: hemen 'ene' ez da objektiboa, alegia; ez nau ni inork maite, baizik subjektiboa, nik maite dut norbait. 'Maite ukeiteak', ik. V,44.
- . *hur 'ere' aguian*: horrela testuan, lehen apostrofoaren lekua osterera ere oker eta are bigarrena soberan dela, *hur' ere aguian* baita, -e a- sinalefa eginaz, hori bai; edo, bestela, *hur' er' aguian*.
- . *goga daite*: alegia, norbait etor daite nahi izatera lehen nahi ez zuena; alegia, etsiko du agian. Ik. *goga*- VII,1; X,8.

XIV

Bertso molde berria dugu hemen, oraino ez agertua. Sei lerro, hiruko bi multzo berdinetan bilduak; alegia, hiru lehenak bezalakoxeak beste hirurak, eta errimak ere hiru motatakoak: A-A-B + C-C-B. Lehen zazpigarren neurtitzean “mirakulu” izendatu duen fenomeno berriz aipatuz hasten da: hotzak beroa handitzen. Bere bero horren lipar bat eretxeki ahal balio neskari, “sendo ninzatela zait iduri”. Lipar bat gora-behera iraitzi behar al nauzu? Mesedez!, urrikal zakizkie maitemindu gaixoei!

XIV,1.

NEGUAN elhurte batez
laztanak eskuta batez
sudurra zapaturik,
sudurrak min har etzezan
bana bertan sendi nezan
bihotza suharturik.

En invierno en plena nevada
al estrellar mi amada en mi cara
un manotazo de nieve,
mi nariz no sufrió daño,
pero al punto sentí
mi corazón abrasado.

XIV,2.

Elhurraz gaineti hotzik
bai karroinik, bai izotzik
badeia deus lurrean?
Elhurrak alabedere
naduka ni, hotz badere,
errerik bihotzean.

¿Existe en la tierra algo frío,
escarcha o hielo,
que lo sea más que la nieve?
Sin embargo la nieve, con ser fría,
me tiene a mí
ardiendo en mi corazón.

XIV,3.

Haur da lurreko legea,
gauz´ orok ber´ ekoiztea
bera iduri du egiten;
ban´ orai miragarritan
hotzak beroa du nitan,
urak sui´ eraikiten

Esta es la ley de la creación:
todas las cosas causan
un producto semejante a sí.
Pero ahora de forma milagrosa
el frío produce calor en mí
y el agua fuego.

XIV,4.

Bero huntarik lipar bat,
su huntarik huts inhar bat,
o laztan´, eretxekei
ahal banezazu zuri,
nintzatela zait iduri
sendo hainbertzereki.

Si una brizna de este calor,
si una chispa de este fuego
pudiera yo, querida,
contagiarte a ti,
se me antoja que quedaría yo
curado al momento.

XIV,5.

Beraz otoi, Jainkoagati,
lipar, inhar bategati
iraitz enezazula,
ban´ erakutsu maitari
gaizoak, bai urrikari
bai gupida tutzula.

Por tanto, te ruego que
por una brizna, por una chispa
no me rechaces, por Dios,
antes bien muestra que tienes
piedad y compasión
de los pobres enamorados.

XIV,6.

Egitez horla, sinhetsu,
eder bezain onbidetsu
izanez, aipatua
zirat´ ororen ahoetan
et´ amorosen gogoetan
zerurano altxatua.

Créeme que procediendo así
serás elogiada en boca de todos
por ser tan bella como virtuosa
y que serás exaltada
hasta el cielo
en la mente de los amantes.

XIV, 1. En hiver, un jour de neige, mon aimée en prit une poignée et m´en écrasa le nez. Mon nez n´eut pas de mal; mais aussitôt je sentis que mon coeur avait pris feu.

XIV,2. Rien de plus froid que la neige, soit glace, soit givre, existe-t-il sur la terre? La neige, cependant, si froide que elle soit, entretient le feu dans mon coeur.

XIV,3. C'est la loi de ce monde, que toute chose produit un effet qui lui est propre et qui lui ressemble. Mais maintenant, ô prodige!, le froid suscite en moi la chaleur, l'eau suscite le feu.

XIV,4. Si je pouvais, ô mon aimée, fixer en vous une bribe de cette chaleur, une étincelle de ce feu, il me semble que je serais aussitôt guéri.

XIV,5. Donc, je vous en prie, par Dieu, ne me repoussez pas pour une bribe, une étincelle. Mais montrez que vous avez pitié de pauvres amoureux et que vous les traitez avec ménagement.

XIV,6. Soyez sûre qu'en agissant ainsi vous serez célébrée par toutes les bouches pour être aussi bienveillante que belle, et que, dans les pensées des amoureux, vous serez exaltée jusqu'au ciel.

ARGITASUNAK

XIV,1.

- . *elhurte bates*: eta nahiz hurrengo lerroa *eskuta batez* izan, ez da pototzat jotzen, 'bat' artikulua aurreko izenarekin hitz bat egiten baitu.
- . *escutabatez*: loturik; -sc- grafia, apikariari dagokion -ʃc-ren lekuan (*esku* hitzaren idazkeraz, cf. 46); hitz amaierako -z gure -tz afrikatua izango litzateke Oihenarten sisteman, baina gure -z igurzkaria adierazten duen -s-ren lekuan itzuritako hutsa dela dirudi (cf. VIII,7).
- . *Sudurra ... / Sudurac*: bigarrean -r- bakuna -rr- azkarraren lekuan.
- . *min-har ezesan, / ... sendi nesan* (ahoska 'etzezan ... nezan'): ik. hortxe goian (XIII,20) esandakoa subjuntibo aoristikoari ('sor zedina') buruz. Ohar *min-har*, marrarekin; *sendi*, s- hitz hasieran, apikariari dagokion ʃ-ren lekuan (hitz honen idazkeraz, cf. 503).

XIV,2.

- . *Elhurras gaineti*: '-az gaineti' = '-a baino gehiago'.
- . *Badeia ...?*: 'ba al da?' Ik. besteak beste 'laquidita' XIII,15.

. *deus*: -s txikia hitz amaieran, apikariari legokiokeen -ʃ luzearen lekuan (cf. 45).

XIV,3.

. *Bera iduri*: hots, bera bezalakoa.

. ʃ*ui*´ *eraiquiten* (‘sui(a) eraikiten’): jaikiarazten, sorrarazten.

XIV,4.

. *liparbat*, / ... *inharbat*: loturik; Francisque-Michelek *lip`ar*, hots, *liphar*.

. *erexequi*: beste zenbaitetan bezala *x* soila ageri da gure *tx* afrikatua adierazten duen *x*´ grafiaren lekuan. Lehen ikusi ‘etxeki’ haren faktitiboa (V,26).

. *Ninzatela sait iduri* (irakurri: iduri zait nintzatela).

XIV,5:

. *otoi*: Francisque-Michelek *ot`oi*, hau da, *othoi*.

. *Lipar*: Francisque-Michelek *Lip`ar*, hots, *liphar*.

. *eracutʃu*: hots, erakutsazu.

. *vrricari*, / ... *gupida tuzula*: hots, ‘errukarri, erruki izan inork inor’. Francisque-Michelek *gup`ida*, hots, *guphida*.

XIV,6:

. *Eguites horla* (‘egitez horla’): edo ‘eginik horrela’.

. *sinhetʃu*: edo sinhetsazu. Hitz hasieran *s*- txikia apikariari dagokion ʃ-ren lekuan (cf. 389).

. *Sirat*´: hamar lerro goragoko ‘ninzate-’ren 2. pertsona.

. *Et´ amorosen*: hitz honen tradizioa ikusita, pentsatu behar da, -ʃ- luze bakenaren lekuan dagoela -s- txikia eta, hortaz, apikaria dela, hau da, ‘amorosen’ irakurri behar dela, ez ‘amorozen’. Bakuna izatea, berriz, mailegu izateari zor zaio beharbada.

. *alxatua*: hemen ere *x* soilak gure *tx* afrikatua adierazten du, beharbada Oihenartek bere sistemaren arabera *x*´ idatzia eta moldiztegian ‘soildua’ (ik. 563)

XV

Hona zortzi lerroko bertsoaren beste molde berria (ikus XIgarrena): silaba kopuruei bagagozkie, 9-8-9-8koak dira lau lehen lerroak eta errimak ere halakoxeak: A-B-A-B, trukaturaz alegia. Aldiz kidetasun hori ez da gertatzen beste lauetan, zeren lau lerroek silaben kopuru berdina izanik ere, 8-8-8-8, errima ez baita halakoa, baizik C-C-D-D.

Gaia? Hasieran egin zuela esperantza, hark eskaintzen zion maitasunaren ordaina eskuratuko zuela, baina alferrik: “harriz da zure gogoa, ezpada gogorragoa”. Baina kulparik handiena etsaiak, arerioak, omen du (ez da asko, errua bere gurasoek zutela esan digula). “Hari beldurrik ez izateko. Bera da beldur-ti eta koldar hutsa eta, ikus nazanerako, lasterrari emango dio. Izan bihotz eta jo ezazu goruaz buruan, hala beharko balitz”.

XV,1.

NI ZURETZEN has bezain sarri,
berhez nindizun bertarik
lehen hautatu maitagarri
nituen, nindutenetarik,
orai eta betiereko
zureki tink egoiteko
eta berhez neholatan
enankidizun gisatan.

En cuanto comencé a ser tuyo,
me aparté al punto de las que
antes había yo elegido
-y ellas a mi- por dignas de amor,
a fin de estar firmemente contigo
ahora y siempre,
de forma que no me pudiera apartar
nunca jamás.

XV,2.

Geroztik esparanzaz hazi
dut neure maitakaria;

Posteriormente he nutrido
mi amor con la esperanza,

egunez egun irabazi
ustez zutan ordaria,
ban´ ene zorigaitzetan
enaiz orano deusetan;
harriz da zure gogoa
ezpada gogorragoa.

creyendo conseguir en ti
la recompensa de un día a otro.
Pero para infortunio mío
no tengo nada todavía;
tu corazón es una piedra,
si no es algo más duro.

XV,3.

Horrenbat gogor izatera
zerk zaramatza gogatu?
Zur´ onhesteaz etsizera
nahi nauzua bortxatu?
Alaz berdin ni galdurik
eztadukazu baturik
non-nahi den nik bezanbat
berze zerbitza zaitzan bat.

¿Qué es lo que te lleva
a decidirte a ser tan dura?
¿Quieres forzarme
a que renuncie a amarte?
Tal vez tras perderme a mí,
no tengas por desgracia otro
a tu disposición que quiera
como yo servirte donde sea.

XV.4.

Ban´ etzar´ aski gaitz, daritzat,
gaizki horren egiteko,
galbidera maita saritzat
maite zaituen´ egozteko;
izterbegia minzaten
delakoz guzaz, kexatzen
hark zaitu, hanti datorra
zure niganat gogorra.

Pero no eres tan mala, me parece,
para cometer tamaña maldad; para,
en pago de su amor, precipitar
al abismo a quien te quiere;
por ser el enemigo
quien habla de nosotros,
te provoca él; de ahí procede
tu dureza para conmigo.

XV,5.

Zer ere zugati, nigati
bailedask´ izterbegiak,
gal zaitzadan eztu hargati
merezi ene maitegiak;
aitzitik haur da zuzena,
zeinek ere baitu ogena
berark dezan bak´ isuna
eta har ahalkeizuna.

Diga lo que diga el enemigo
de ti o de mí,
no por eso mi exceso de amor
se merece que yo te pierda.
Al revés, lo correcto es esto:
que el que tenga la culpa
pague la multa
y asuma la vergüenza.

XV,6.

Hark zer er´ ahal bailihotsa
badaidiel´ uste duzua?
Ene bihotza, haren lotsa
oran´ eztazaguzua?
Ikusi nahi baduzu
hain zail denez, zein poruzu,
zato, zato so gitera
banohako jaukitera.

¿Crees que podrá hacer
todo lo que diga?
Corazón mio, ¿no conoces
aún su miedo?
Si quieres ver
si es tan fornido como bocaza,
ven, ven a verlo;
voy a agredirle.

XV,7.

Jauki dizut et´ ihesari
dema, hara, laurherroan,
arauz zein eder lasterkari
den zuri erakuts-gogoan;
biz hala, hal´ ezpad´ ere,
etziren-ber zu batere
larde gaurgoitik oinaren
puntan bihotza duenaren.

Le he agredido y mira
cómo huye a zancadas;
seguramente con la intención de
mostrarte que es un diestro
corredor. Sea así, aunque no lo es,
con tal que tú en adelante
no tengas ningún miedo del que
tiene el corazón en la punta
del pié.

XV,8.

Beraz biho´, en´ artizarra!,
larderí´ oro kanpora;
erakutsu zutan den garra
eta zure bihotz gora;
izterbegia putxatuz
eta zinez mehatxatuz,
etx´ ezazu edo kuluaz
aski ezpada mehatxuaz.

Así pues, fuera de tí todo temor,
¡estrella mia de la mañana!
muestra el ardor que abrigas
y tu valeroso corazón;
arroja al enemigo con insultos
y con amenazas de verdad
o con la rueca,
si no basta con amenazas.

XV,9.

Hal´ egitez zur´ ene bano
eginen duzu gehiago,
zeren bainaiz bizi nizano
nihauren bano zureago;

Actuando así, harás
más para tí que para mí,
porque en tanto viva
soy más tuyo que mio.

hel zazkit gaurger´ otian
heltzekoz zure bizian,
ezpad´ en´ asperragati
ezpererik zureagati.

Ven donde mí en el acto, te ruego,
si alguna vez vas a venir,
si no para complacencia mia
siquiera para la tuya.

XV,1. Dés que j´ai commencé à vous appartenir, je me suis aussitôt écarté des personnes que j´avais auparavant choisies comme dignes d´être aimées et qui m´avaient choisi pour le même motif, afin d´être fermement attaché à vous maintenant et pour toujours, et de manière à ne m´écarter de vous en rien.

XV,2. Depuis, j´ai nourri mon amour d´espérance, croyant être, d´un jour à l´autre, payé de retour. Mais, pour mon malheur, j´en suis encore à rien: votre coeur est de pierre, s´il n´est pas plus dur.

XV,3. Qu´est-ce qui vous détermine à être si dure? Voulez-vous me forcer à renoncer à vous aimer? D´ailleurs, hélas!, après m´avoir perdu, vous n´êtes pas près de rencontrer, où que ce soit, un autre homme qui vous serve avec autant de soin que moi.

XV,4. Mais vous n´êtes pas assez méchante, je pense, pour commettre cette mauvaise action, pour jeter dans le chemin de la perdition, en récompense de son amour, celui qui vous aime. L´ennemi parle de nous; c´est cela qui vous irrite; de là vient votre dureté envers moi.

XV,5. Mais quoi que l´ennemi puisse raconter à propos de vous et de moi, je vous aime trop pour mériter de vous perdre à cause de cela. Au contraire, le droit consiste en ceci: c´est celui qui a tort qui doit payer l´amende et subir la honte.

XV,6. Croyez-vous qu´il fera tout ce qu´il pourrait dire? Mon coeur, ne connaissez-vous pas encore la peur qu´il éprouve? Si vous voulez voir s´il est aussi résistant que bruyant, venez, venez regarder: je vais attaquer.

XV,7. Je l´ai attaqué, et voilà qu´il se met à fuir à toutes jambes: sans doute dans l´intention de vous montrer comme il sait bien courir. Qu´il en soit ainsi ou non, il n´importe, pourvu que vous n´ayez désormais aucune crainte de celui qui a son coeur au bout de son pied.

XV,8. Donc, mon étoile du matin, bannissez toute crainte; montrez la flamme qui est en vous, montrez que vous avez le coeur haut. Chassez l´ennemi à force d´invectives et de menaces, ou à coups de quenouille si le menace ne suffit pas.

XV,9. En agissant ainsi, vous agirez dans votre intérêt plus que dans le mien, parce que, tant que je vivrai, j'appartiendrai à vous plus qu'à moi-même. Si vous devez venir à moi un jour, venez à moi dès maintenant, je vous en supplie, si ce n'est pour ma satisfaction, du moins pour la vôtre.

ARGITASUNAK

XV,1.

- . *SVREZEN* (ahoska 'zuretzen'): hots, 'zure(a) izaten'.
- . *haſ*: gutxitan bezala -ſ luzea ageri da hitz amaieran, sistemak eskatzen duen moduan, gehienetan haren lekuan -s txikia ageri baita. Besteetan baino hobeto zaintzen da neurtitz honetan s / ſ bereizketa.
- . *nindisun*: 'nintzen'-en zukako forma alokutiboa. Berez 'berhezi' ez esateko arrazoirik ez da. Entzun Lafon: "*Berhes* est employé ici avec la valeur d'un participe passé" ("Notes...", 81, or.)
- . *hautatu ... / Nituen, nindutenetaric*: irakur ezazu 'nituenetarik eta nindute-netarik'.
- . *maitagarri*: osa ezazu 'izateagatik' edo.
- . *egoiteco*: perpaus nagusi den 'berhez nindizun'-en helburua adierazten du.
- . *berhes ... / Enankidisun guiſatan* (ahoska 'berhez enankidizun gisatan'): honek, berriz, perpaus nagusi beraren helburua baino modua gehiago. Euskara batuan 'berhez ez nenkizukeen gisatan' esaten dugu.

XV,2.

- . *hasi* (ahoska 'hazi').
- . *maitacaria*: Francisque-Michelek *mait`acaria*, hau da, *maithakaria*.
- . *irabasi / Vſtes* (ahoska 'irabazi ustez'): horrela aurreko 'esperantzaz' izena zehazten da.
- . *Ban´, ene*: a-ren elisioa, komaren gainetik.
- . *sori gaizetan*: bereiz.

XV,3.

- . *Horrebat gogor*: berez ‘horren gogor’ hobeto.
- . *saramaza gogatu* (ahoska ‘zaramatza gogatu’): ik. XIII,30. Etxeparek ere baditu hau bezalako “enganatu darama” (II,74), “utzi darama” (II,76). Egungo egunean ‘gogatuz’ esango genuke: ‘gizenduz noa’, edo are ‘gizentzen noa’. Eta ‘eraman’-ekin: ‘asko jateak gizentzen, gizenduz, gizendu narama’. ‘Gogatu’, ik. ‘goga’ XIII, 30; ‘gogara’ XVII,1; ‘gogarako’ XV,8; ‘gogaratzera’, XIII,10.
- . *Sur’ onhesteas*: zu maitatzeaz, alegia, ‘zure’ genitibo objektiboa baita.
- . *Nahi nausua ...?* (ahoska ‘nahi nauzua?’): hots, nahi al nauzu, *-a* galdezko atzizkia baita, ik. XIV,2.
- . *borxatu*: beste zenbaitetan bezala *x* soila ageri da gure *tx* afrikatua adierazten duen *x* grafiaren lekuan (cf. 104).
- . *Estaducasu baturic* (ahoska ‘eztadukazu baturik’): ‘baturik eduki’, eskumenean, eskupidean eduki.
- . *Non-nahi-den*: bi marra.
- . *Berse serbiza saizanbat* (ahoska ‘berze zerbitza zaitzan bat’): ‘bat’ loturik. Irakur ‘zerbitza zaitzan berze bat’.

XV,4.

- . *ezar’* (ahoska ‘etzar(a)’): hau da, ez zara.
- . *Gaisqui* (ahoska ‘gaizki’): hemen izena da, beste batzuetan ‘ongi’ ere den bezala.
- . *sarizat*: *s-* txikia hitz hasieran, apikariari dagokion *ʃ-* luzearen lekuan (hitz honen idazkeraz, cf. 59).
- . *Maite saituen’* (ahoska ‘maite zaituen(a)’): hala dio, nahiz genitibo objektiboan ipin zezakeen: ‘zaituenaren’.
- . *Sure niganat gogorra*: edo ‘zure nirekiko gogortasuna’.

XV,5.

- . *Ser ere ... / Bailedask’*: ‘zer ere ... bait-’, ik. antzekoak I,4-5. ‘Bailedask(e)’ (ik. Hiztegiñoa): “*Erastea*, ou *edastea*; S. Discourir, faire quelque récit, ou

narration ...”. Beraz, ‘zer ere bailekar’ esango bagenu bezala. Ohar –s- txikia hemen ere -/]- luzearen lekuan, baina *era]ten*, sistemak eskatzen duen moduan (II,7).

- . *maiteguiac*: alegia, gehiegizko maitasunak. Lafonek (“Notes...”, 81, or.) bezala libroxeago itzuliz: “te amo demasiado para merecer perderte por esto”.
- . *Ceinec ere baitu*: ik. oraintxe esana, XV,5. Ohar *Ce-* grafia, sistemako *Se-* grafiaren lekuan.
- . *Berarc desan bak* (‘berark dezan bak(a)’): guk bestela esango genuke: ‘hau da legea, berak ordain *dezala*’.

XV,6.

- . *cer er* ... *bailioht]a*: ‘zer ere ...bait’, lehengoxea berriro: ik. XV,5. Ohar bide batez grafia diferentea: *Ser* eta *Cer*. ‘Bailioht]a’, entzun Lafon: “éventuel á préfixe *bait-*, sans suffixe *-ke*, de *-io* <dire>” (“Notes...”, 81. or.). Ik. lehenxeago (XV,5) ‘bailedask’ eta XIII,23, ‘bihot]a’. Baina Lafonek adizki horren aurreko ‘ahal’ isiltzen du.
- . *Badaidiel* (‘badaidiel(a)’): alegia, ‘hark daidi’. Ik. XIII,15 eta II,1.
- . *dusua?* (ahoska ‘duzua?’): ik. agertu zaigun azkena: XV,3.
- . *Ene bihoza*: bokatiboa da, ‘ene maitea!’ bezala.
- . *estasagusua?* (ahoska ‘eztazaguzua?’); hau da, ‘dazaguzu’ galderaz esana, bi lerro goragoko ‘duzua’ bezala.
- . *Iku]i*: -/]- bakuna bokalarlean, ohiko -/]- bikunaren lekuan.
- . *Hain ... sein ...*: ik. XIII,21.
- . *denes* (ahoska ‘denez’): ik. II,4. Zehar galderazko perpausaren –ez atzizkia. Beraz, ‘poruzu bezain zail denez ikusi nahi baduzu’ (denenz > *denez* > denz > den).
- . *so’guitera*: ausardia pixka batez testuak duen bien arteko apostrofoa kendu dugu, ‘so gite-’ forma lexikalizatua izanik ez baita sinalefa kasuetakoa bezalakoa, baizik *lo giten* bezalakoa (ik. 6). Ohar hitz hasierako *s-* txikia, apikariari dagokion /]- luzearen lekuan; ik. bietarako balioa duen *So-* maiuskuladuna (407; IV,4,5), baina /o- (599; X,6).

XV,7.

- . *Iauqui disut* (ahoska ‘dizut’): ‘nik hura dut’-en zutanozko forma alokutiboa, ‘nor-nork’ aditza baita. Ik. Etxepare III,31: “lehen gizona iaukirik”.
- . *ibe]ari / Dema*: Lafonek honela dio: “<Eman> avec le datif sg. s’emploie pour signifier <s’adonner à, se mettre à>... Le patient de 3e pers. du sg. est indéterminé” (“Notes...”, 82, or.). ‘Negarrari eman dio’ bezala. Ohar hemen ere -] - bakuna bokalaratean, ohiko -]] - bikunaren lekuan.
- . *laurherroan*: ik. II,8 ‘laurherroas’.
- . *Araus* (ahoska ‘arauz’): guk demaiogun zentzua desberdintzua.
- . *Eziren-ber* (ahoska ‘etziren-ber’): atzizki honek balio kontzesiboa ematen dio aurreko adizkiari: alegia, ‘zu ez izatekotan’.
- . *Larde ... / ... düenaren*: irakur ezazu ‘duenaren larde’. Ohi ez bezala ü dieresidunak ez du silaba osatzen: *dwe-* da hemen, ez *du-e*. Berdin *ensüerri* (II,6) eta *escüetara* (XIII,6).

XV,8.

- . *en’ artisarra* (ahoska ‘en(e) artizarra’). Bokatiboa da.
- . *Eracut]u* (ahoska ‘erakutsu’): ik. XIV,5.
- . *gorâ*: hau da ‘gora + -a’.
- . *puxatus / Eta ... mehaxatus / Ex’ esasu, edo kulüas*: bi partizipioek *eta-z* lotuek eta izenak kasu instrumentalean aditz (*exatu*)-ren esana betetzeko moduak dira.
- . *puxatus* (ahoska ‘putxatuz’, nahiz Txillardegik eta Orpustanek *puxatuz* irakurtzen duten): azken hiztegiñoak dioenez, “mal-traiter de parole”.
- . *Ex’ esasu* (ahoska, ‘etx(a) ezazu’): gaztelaniatik mailebaturiko aditza da ‘etxatu’. Ohar *mehaxatus ... Ex’ ... mehaxüas*, hiruretan *x* soila ageri da gure *tx* afrikatua adierazten duen *x*° grafiaren lekuan eta, hortaz, ‘mehatxatuz’, ‘etx(a)’ eta ‘mehatxuaz’ irakurri behar dira.
- . *kulüas, / ... mehaxüas*: dieresiak *u* bokala silabagilea dela adierazten du bietan: *lu-az* eta *txu-az*, hurrenez hurren. Ohar, zortzi silaba osatzeko, *-swe-* sinalefa dela lehenean, komaren gainetik (*esasu, edo*), eta berdin *-kyez-* bigarrean (*A]qui espada*).

XV,9.

- . *sur', ene bano, / Eguinen dusu guehiago* (ahoska 'zur(e) ene bano eginen duzu gehiago'): alegia, zuretzat enetzat bano gehiago egingo duzu.
- . *visi: v-* kontsonantea (cf. 236).
- . *Nihauren bano sureago*: alegia, neurea baino zurea gehiago.
- . *gaurguer', otian*: -o bokalaren elisioa hemen ere komaren beraren gaintetik.
- . *Helzecos* (ahoska 'heltzekoz'): baldintzazko balioa ematen dio aditz izenari -koz atzizkiak, gure -kotan-ek bezala.
- . *asperragati*: 'Satisfaction ou contentement' dela <asper>: ik. hiztegiñoa.
- . *Espereric* (ahoska 'ezpererik'): edo ezperen, ezperik.

XVI⁸¹

Bilduma guztiko lerro laburrenez oratua da olerki izengabeko hau: bost silaba ditu bakoitzak eta lau lerro bertsoak. Errima txandaka, lerro bakoitien artean eta bikoitien artean. Gaia ez dabil urrun lehengoetatik, amodioa. Prozesoa deskribatzen du: bere maitea bistan dagoenean, pozik da gure mutilla; izkutatzen bazaio, triste. Haren bila hasi, enara bezala jiraka, lurreratzean neska dagoen tokian eroriko delakoan; hala gertatzen bada, “baten lekutan neke biga itut”, nik zuri bihotza ematen eta zuk ihes egiten duzulako.

XVI,1. NAHIZ ezpegi gauaz ilhargi ni zure begi ederrek argi,	Aunque no hubiera luna de noche, a mí tus bellos ojos me iluminarían,
XVI,2. heien gordatzen ezpazin´ ari beti miratzen dagotenari.	si no te ocuparas en esconderlos de quien siempre los está mirando.
XVI,3. Zuk hori egiten bezanbatetan naiz eri etziten bihotz minetan,	Cuántas veces haces tú eso, caigo enfermo de pena del corazón,

⁸¹ Segidak hala eskatzen duelako ipini dugu XVI. zenbakia, baina hemendik aurrerako neur-tizetan ez da zenbakirik ageri jatorrizko testuan.

- | | |
|--|--|
| XVI,4. min´ iragaiten
zautan artean
nehorat joaiten
zauzkidanean. | hasta que
se me va el dolor,
cuando tú te vas de mí
a alguna parte. |
| XVI,5. Zerik inhara
naiteeno akit
noa horra-hara
nor´ ezpaitakit, | A modo de golandrina,
jiro hasta extenuarme
acá y allá
sin saber adónde, |
| XVI,6. ustez naiteen
hel erortera
zu zirateen
leku berera. | con la esperanza
de que me toque en suerte
caer en el mismo sitio
en que tú estás. |
| XVI,7. Halaz batzutan
batzen bazaitut,
baten lekutan
neke biga itut, | Si a veces
me encuentro así contigo,
en lugar de un dolor
tengo dos, |
| XVI,8. zeren nik zuri
emanik bahi
bihotz´, itzuri
baitzauzkit nahi. | porque al darte yo a ti
como prenda mi corazón,
lo que tú deseas
es huir de mí |
| XVI,9. Zurekin batu
et´ aise gabe
su naiz bilhatu
ta kisu labe. | Tras juntarme contigo
y no sin trabajo,
me he convertido en fuego
y en calera. |
| XVI,10. Laster hil dadin
su haur egizu,
ilhaunt enadin.
Ahal daidizu. | Haz que se apague pronto
este fuego, para que
no me convierta en cenizas.
Tú lo puedes! |
| XVI,11. Maita nezazu
halaz hil daite;
ezpaneazazu
hauts gertha naite. | Quiéreme,
así se apagará;
si no me quieres,
me convertiré en polvo. |

XVI,1. Même en la absence de clair de lune, la nuit, vos beaux yeux m'éclaireraient,

XVI,2. Si vous ne passiez votre temps à les cacher à celui qui ne cesse de les regarder.

XVI,3. Comme vous agissez ainsi, je me couche malade, le coeur en peine.

XVI,4. En attendant que le mal me passe, lorsque vous vous en allez loin de moi quelque part.

XVI,5. Alors, comme une hirondelle, je vais çà et là, sans savoir où, jusqu'à ce que je sois à bout de forces.

XVI,6. Dans l'espoir que j'arriverai à tomber à l'endroit même où vous pouvez être.

XVI,7. Si je vous joins ainsi parfois, au lieu d'une peine j'en ai deux.

XVI,8. Parce que je vous ai donné mon coeur comme gage et que vous voulez m'échapper.

XVI,9. Après vous avoir jointe, et non sans peine, j'ai été changé en feu et en four à chaud.

XVI,10. Faites que ce feu s'éteigne vite, pour que je ne sois pas réduit en cendres. Vous le pouvez.

XVI,11. Aimez-moi; ainsi, il s'éteindra. Si vous ne le faites, je deviendrai cendres.

ARGITASUNAK

XVI,1.

. *NAHIS espegui / ... ilhargui* (ahoska 'nahiz ezpegi ... ilhargi'): Lafonek ("Notes...", 82. or.): "construction doublement remarquable et très rare" omen da; batetik <nahiz> kontzesiboa agintezko adizkiarekin eta bestetik ezezko perpausean dagoelako. Lehena ez Etxeparek ez Leizarragak ez omen darabilte horrelakorik; Oihenartek bi. Bizkaiera zaharrez 'zebegi' bezalakoak ba omen dira haatik. Bigarrena ezagutzen duen bakarra omen da. Guk honen beste bi aipa ditzakegu: bat Iturriagaren letra San Inazioaren martxakoa: "naiz betor Luzifer deabrua". Bestea zaharragoa, Ziburuko Etxeberriren *Manual*-ekoa; "Nahiz biz hala lizela..." (1405,

1er.). “Ilargia egin” esapidea darama eta, aditza esan bezala, agintezko modu sintetikoan: begi. Ez beza egin, alegia.

- . *Gaiias*: dieresiak *u* bokala dela adierazten du: *gau-az*, ez *ga-baz*.
- . *Ni sure begui / Ederrec argui*: perpaus hau aditz gabea da; halere lau lerrotxoak batera hartuz bistan da zer esan nahi duen: “Nahiz gauaz ilargirik egin ez, ni zure begiek argituko nindukete, baldin...”.

XVI,2.

- . *Heien gordazen* (ahoska ‘heien gordatzen’): izenordaina genitibo objektibotan dago. Dieresiak *i*-ren bokaltasuna adierazten du.
- . *Espasin ari* (ahoska ‘ezpazin(a) ari’): jatorrizko testuan hutsik ageri da hitzen arteko tartea, baina agerikoa da apostrofoari dagokion lekua dela. Francisque-Michelenean, hain zuzen, bada apostrofoa. Baldintzazko perpaus honen aditzaren denbora irrealak (‘ezpazina ari’) bortxatu gaitu aurreko bertso txoan isilpean den aditzarekin denboraren konkordantzia gordetzera (‘argituko nindukete’).
- . *Dagotenari*: hots, dagokienari; begiei, alegia.

XVI,3.

- . *eguiten*: ‘duzun’ suposatu behar da eta ‘egiten duzun *bezanbatetan*’, ‘egiten duzun *oro*’ itzuli.
- . *eri eziten* (ahoska ‘eri etziten’): hau da, minki etzaten.

XVI,4.

- . *Sautan*: hura niri.
- . *Sauskidanean*: ‘zauzkid(anean)’, zu niri.

XVI,5.

- . *Seric* (ahoska ‘zerik’): moduzko lokailua (ik. XX,23).
- . Irakur ezazu honela: ‘horra-hara noa, ezpaitakit nora, inhara bezala, akit naitteeno’.
- . *horra, hara*: komarekin.

XVI,6.

- . Hitzen ordena aldatuz hauxe dio poetak: “zu zirateen leku berera erortera hel naiteen ustez”; hots, “zu zaudekeen lekuan eroriko naizelakoan”. Perpaus honetan ‘ni hel naite’ ‘ni etor naite’-ren pareko dateke. Etxeparek honen antzeko perpaus batean (4,19) pertsona datiboan ezarri zuen, ez nominatiboan Oihenartek bezala: “Alhor hartan hel badakit ereitera hazia”. Honek dio: “Hazia heldu zait ereitera” eta Oihenartek : “Ni hel naite erortera”.

XVI,7.

- . *Bazen basaitut* (ahoska ‘batzen bazaitut’): ‘nor-nork’ konplementuko aditza da ‘batu’ hemen, IV,6 bezala. Ik. aldiz I,5; III,8.
- . *itut*: ik. 1.

XVI,8.

- . *Emanic bahi / Bihoz*: ez dio ‘bahi bezala’, ez eta ‘bahitzat’; ik. lehen gauza bera ‘hartu’-rekin, XIII, 25.
- . *izuri / Baizauskit nahi* (ahoska ‘itzuri baitzauskit nahi’): bertso batzuk gorago (XVI,4) adizki hori bera atera zaigu: ‘zauzkidanean’.

XVI,9.

- . *Surekin batu* (ahoska ‘zurekin batu’): hemen ‘-rekin’, lehen ez bezala (XVI,7): ‘norbait batu’ eta ‘norbaitekin batu’, eta zentzu berbera.
- . *aise*: -s- txikia, -j- luzearen lekuan (cf. *aije*, 155).
- . *Su nais bilhatu*: eta ez ‘sutan’.
- . *Ta*: ‘eta’-ren forma apokopatua da hau, iparraldeko autore zaharren lanetan aurkitu izan dudana bakarra, eta ‘metri causa’ esana, dudarik gabe.
- . *kiŋu*: -j- bakuna bokalarlean, mailegu delako beharbada.

XVI,10.

- . *Ahal daidisu* (ahoska ‘ahal daidizu’): hots, egiten ahal duzu. *-idi-dela eta, ik. II,1; XV,6.

XVI,11.

. *Espanesasu* (ahoska 'ezpaneazazu'): Alegia, maita.

XVII

JOANA

- . *eguin bihoa*: ik. XV,3 (“gogatu zaramatza”) eta Etxepareren “enganatu doa”, I,157, honen antzekoa.

XX,11.

- . *Basedin ... /... / Iar* (ahoska ‘bazedin ... jar’): jar zedin; subj. aorist. iragan-gaitza; ik. XX,3 bertsoa.
- . *senti baizesan* (ahoska ‘senti baitzezan’): *s-* hitz hasieran, apikariari dagokion *f-* luzearen lekuan (ik. 503). ‘Senti (bait)zezan’, subj. aorist. Iragankorra, nahiz eta ez den perpaus nagusia; ik. honen XX,8. bertsoa.

XX,12.

- . *sesano ... / Vrhent-beta* (ahoska ‘zezano ... urhent beta’): ‘Urhent-beta zezan(o)’ = beta zuen(o), subjunt. aorist. iragankorra: XX,11. ‘Urhent-beta’: konpara hori eta ‘net hil-urhentu’ (V,1): “pleinement achevé” bata eta “m’achever complètement” bestea, Lafonen itzuliak (ik. “Traduction...”, 9. eta 29. or.).

. *ainic-eta*: guk komunzki ‘harik eta’. ‘Ainik-eta ... –no’: noiz arterainoko denbora adierazten duen perpausa da hau.

Ahoska eta irakur honela: ‘geroz, ainik-eta hil bederatzurruna urhent-beta zezano ..., iragaiten zituen’ ...

XX,13.

. *Erdi-mugan*: erditzeko, haur izateko mugan.

. *Ioan zedin* (ahoska ‘joan zedin’): ik. ‘bazedin ... jar’ bi bertso gorago.

. *gaues*, / ... *gaues* (ahoska ‘gabez ... gauez’): lehenaren –u- grafia kontsonantea da, gerora beti *v* idatziko dena eta guk –b- transkribitzen duguna; bigarrenarena, berriz, bokala.

. *Sazan* (ahoska ‘zatzan’): ‘etzan zen’-en edo ‘etzaten zen’-en forma sintetikoa; ik. XX,2.

. *Arsto-idiequi*: maiuskula; –st- grafia –ft- ren lekuan (hitz honen idazkeraz, ik. 326)

XX,14.

. *Iefus*: ik. XIX,14.

. *iaio sequion* (ahoska ‘jaio zekion’): ‘hari jaio zen’; hobeki, ‘hari jaio zedin’, subj. aorist. iragangaitza baita (ik. ‘ioan zedin’, XX,13).

XX,15.

. *ieusten*: jaisten; –st- grafia, ostera ere, –ft- ren lekuan (cf. *ieuts*, 202).

. *bergoretan*: goialdeetan.

. *Bu*: ‘*edin’-en agintekera ‘bedi’ den bezala, ‘*ezan’-ena ‘beza’ da; halaber ‘izan’-ena ‘biz’ eta ‘*edun’-ena ‘bu’. Alde txiki batekin: bi lehenek laguntzaile izan behar dute beti, inoiz ez bere eskuko, eta beste biek juxtu alderantziz.

XX,16.

. *Nekoxetan*: ik. azkeneko hiztegiñoa = txabola, borda; x soila *x*^o-ren lekuan, gure –tx- adierazteko.

. *Iesufen*: ik. XIX,14.

. *Ioan sitesen* (ahoska ‘joan zitezen’): ‘joan zedin’ hura, ‘joan zitezen’ haiek; subj. aorist. iragangaitza: ik. XX,13.

XX,17.

. *Seinec ... / Seinec ... / ... / Seinec*: honek, horrek, hark.

. *escuan*: -sc- grafia -fc-ren lekuan (hitz honen idazkeraz, ik. 46).

. *soina*: s- hitz hasieran f-ren lekuan (*foin-*, 99, 126, 160; XVII,46).

. *matoina*: gazta berri sikatu gabea.

. *Gois-ascari / ... anhoa*: gosari puska; -sc- grafia hemen ere -fc-ren lekuan (ik. *ascari-*, 67).

XX,18.

. *Aguer siten* (ahoska ‘ager ziten’): subj. aorist. iragangaitza, ‘ager ziten’ edo ‘ioan sitesen’ (XX,16).

. *Iaur-guehien* (ahoska ‘jaur-gehien’): jaun nagusi, noble. Ikus Leizarragak Erreginari egin kartan nola dioen: “Bearnoco Andre guehien”.

XX,19.

. *goistirir* (ahoska ‘goiztirir(a)’): ekialdera, sortaldera.

. *isarbati*: lotuta.

. (*Cenagati / Berri*) (ahoska ‘zenagati berri’): berri zelako. Parentesiak jatorrizko testuan eta *Ce-* grafia, sistemak eskatuko lukcen *Se-*ren lekuan.

. *ardietfiric*: jada bertso honek markatua daukan sinalefaz gain bestea behar du: ardyetsirik, lau silabaz ahoskatua.

XX,20.

. *Non dugu-otfes*: marrarekin.

. *iarri siren* (ahoska ‘jarri ziren’): zergatik hemen subjunt. aorist. ez, edo ‘iar ziten’ edo ‘iar zitezen’ gorago bezala (ik. XX,18)? Errimagatik, dudarik gabe.

XX,21.

- . *Ierusalem*: -s- etimologikoa, Oihenarten sistemako -f-ren lekuan.
- . *Herodefequi*: hemen -f- bai, baina bakuna, kanpoko izena izaki.
- . *Churpail sequien* (ahoska ‘xurpail zekien’): *ch-* grafia ohiko *x*-ren lekuan; subjunkt. aorist. iragangaitza = xurpail zitzaien.
- . Oharra: sarritxo uzten da markatu gabe apostrofoa; bertso honetako azken lerroan ere bai? Hots, *aipu* < *aipua ensutearequi*? Ala hori ez, baizik sinalefaz, ‘enzutyareki’, baliatu ote da?

XX,22.

- . ‘Erregueren xurpailtzea’ eta merkatoriarena noiz gertatzen diren: horretan datza konparazioa. Honena “orduz bide-zelhataria zaparretik oldartzetan”. Perpaus guttiz ausarta!, hau esan beharrean: eta “Bide-zelhataria zaparretik oldartzeko orduz”.

XX,23.

- . *seric* (ahoska ‘zerik’): hemen moduzko lokailua da (ik. XVI,5).
- . *icarazen*: Francisque- Michelek *ic`arazen*, hau da, *ikharatzen*.
- . *lazen* (ahoska ‘latzen’): ik. ‘pizeco’ XX,2.
- . *Daxeconean* (ahoska ‘datxekonean’): *x* ageri da hemen ere *x*^{*}-ren lekuan, gure -*tx-* adierazteko (ik. 53). Hura hari etxeki zaio.

XX,24.

- . *aleguia* (ahoska ‘alegia’): ez du hegoaldeko euskalkietan duen ñabardura, baizik gazteleraz ‘como si’-k duena, planttak egiten dituenarena. Hemen ‘joan lehia’ balu bezala.
- . *Guticia*: -*ci-* grafia etimologikoa, Oihenarten sistemako -*si-*ren lekuan.
- . *Iesufi*: ik. XIX,14.
- . *izul litesen* (ahoska ‘itzul litezen’): ‘itzul litezen egin zezen otoi’, aldien egoerak agintzen duenez; ik. (ledin vs. zedin) XX,3.
- . *Eguin sesen* (ahoska ‘egin zezen’): egin ziezaien.
- . Irakur honela: egin zezen otoi hangaintik itzul litezen berri ekartera.

XX,25.

- . *biz-emanic*: marrarekin.
- . *Héc*: azentuarekin (ik. XVII,102).
- . *despedizeco*: -s- txikia, apikariari dagokion -f- luzearen lekuan.
- . *Erdu siten* (ahoska ‘erdu ziten’): XX,18 bertsoa.

XX,26.

- . *Iesus haurra baturic*: hots, Jesus batu, topatu. ‘Jesus’ hitzaren idazkeraz, ik. XIX,14.
- . *iar sasquion* (ahoska ‘jar zazkion’): < zakizkion, gure zekizkion, subj. aorist. iragangaitza baita: ik. XX,14. Gainera ‘zazkyon’ bi silabaz ahoskatu du poetak.

XX,27.

- . *Eskeni*: -s- berriz ere -f- ren lekuan.
- . *Herodesi* / *Bat-ihesi*: hots, “Konturatu gabe ihesi zidan” irakurtzen dugu OEH-n; beraz, Herodesi batzeari ihesi egin. *Herodesi*: bokalaratean -f- bakun etimologikoa. Eta *ihesi*: -s- txiki bakuna bokalarteko ohiko -ff- edo -ss- ren lekuan (ik. 293).

XX,28:

- . *seguitela* (ahoska ‘zegitela’): forma sintetikoa = egin zezatela
- . *sunzala*: dagoen bezala ‘zuntzala’, baina erne!, oker dago-eta; ik. FAUTES DE L’IMPRESSION, 76. ork. dioena: “page 63. l.4. pour *Sunzala*, lisez *saunzala*”. Horren arabera, ‘zatzala’ hura (ik. 20-26), ‘zauntzala’ haiek.
- . *maniia*: dieresiarekin, hots, *ma-nu-a*.

XXI

Simeon zaharrak Jerusalemgo elizan sartzean behin, besoetan Jesus haurra zeraman ama Mariarekin topo egin eta bi hitz horiekin hasten den errezu-kan-tua esan omen zuen: “Nunc dimittis”, literalki “Orain uzten duzu”, gerkeraz bezalaxe: “Nyn ápolyeis”: utz nazazu edo utz nazakezu orain, alegia. Sei lerroko hiru bertsoan egin du poetak itzulpena; lerroak 8-8-7 + 8-8-7 silaba-koak dira eta errima bi lehen zortzikoek bata, bigarren bi zortzikoek bestea eta bi zazpikoek azkena. Hemen ere badira bi hitz ikusi batera diruditen baino silaba bat gutxiago dutenak, launa, alegia: “begyekila” eta “*Israel*tarren”; azpi-marraturiko letrek silaba bat osatzen baitute.

NUNC DIMITTIS etc.

SIMEONEN KANTA

EL CÁNTICO DE SIMEÓN

XXI,1:

JAUN´, orai zure hitzara
duzkizu bere gogara
bakez zure motila,
zeren zur´ oldez sendatu
behar nauena, miratu
dut neure begiekila,

Señor, ahora puedes dejar
en paz a tu siervo
a su gusto, según tu palabra,
porque al que por tu voluntad
me va a salvar
he visto con mis propios ojos,

XXI,2:

zein apaindu baitzendumen
argitzat herri bilduen

al que preparaste para ser
luz ante la faz

begitart´ aitzinean,
jenter gorde´ agertzeko
eta glori´ emaiteko
israeltarren artean.

de los pueblos congregados,
para revelar a las gentes
lo escondido y darle gloria
entre los habitantes de Israel.

XXI,3:

Glori´ Aitari, Semeari
eta Gogo sainduari
eman bekie batetan,
hala nola hatsarreti
baitzen orai eta beti
mente mentekoetan.

Sea dada la gloria al Padre,
al Hijo y al Espiritu Santo
juntamente,
como era desde el principio
ahora y siempre
por los siglos de los siglos.

Nunc dimittis, etc., Chant de Siméon

XXI,1. Seigneur, maintenant, selon votre parole et selon son désir, vous congédiez en paix votre serviteur, car j´ai contemplé de mes yeux celui qui doit me guerir par votre volonté.

XXI,2. Celui que vous aviez préparé pour être la lumière, à la face des peuples assemblés, afin de révéler aux païens ce qui était caché et de donner la gloire parmi les gens d´Israël.

XXI,3. Que la gloire soit donnée à la fois au Père, au Fils et au Saint Esprit, de même qu´elle l´était dès le commencement, maintenant et toujours, dans les siècles des siècles.

ARGITASUNAK

XXI,2.

. IAVN´ Oray: -y grafia diptongoan.

. *Dusquisu* (ahoska ‘duzkizu’): adizki honetaz hau dio Lafonek: “forme simple de *utzi*; le suffixe pluralisateur *-ki* ne s´explique pas. On attendrai *duzasu* (ort. mod. *dutzazu*” (“Notes”, 87. or.). Gauza bertsua esan zigun beste adizki *icusquisu* batez (VII,4): hark ere *-ki-* zeukala. Bi hutsegite gramatikal, beraz, Oihenartek. Ez ote da bietan *-ke-* suposatu behar *-ki-* ordez? Hartara *duzkezu* gure *utz dezakezu* izango litzateke. Latinez

“dimittis” da, egia, indikatibo oraina, baina ‘ahal’ balioa eman ohi diote exegetek: ik. W. Bauer-en LEXICON: “Mayest thou let die”. Bestalde ez ahantz erro bereko beste adizki bat atera zitzaigula: *ezinsusquet* (II,9); ‘-que-’ dio, ez ‘qui-’ honek ere. Ala norbaitek nahiago izan dezakeen bezala, -ki- ‘espletiboa’ ote da, herriaren ‘zuk daramaKIzu, zuk dakarKIzu’ etab. bezalakoa?

- . *sendatu*: s- hitz hasieran, apikariari dagokion f- luzearen lekuan (ik. 143).
- . *naiüena*: dieresiak u hori bokala dela adierazten du, ez kontsonantea; *nau-e-na*, alegia, ez *na-be-na*.

XXI,2.

- . *apaindu*: Francisque-Michelek *ap`aindu*, hau da, *aphaindu*.
- . *bilduën*: dieresia u-ren ondoko bokalaren gainean, bi silaba direla adierazteko; *bil-du-en*, alegia.
- . *Genter*: Ge- grafia etimologikoa.
- . *Israeltarren artean*: irakur -r(a)el- edo -t(e)an-, silaba bakarrez.

XXI,3.

- . *aitari, semeari / Eta gogo sainduari*: izen guztiak minuskulaz eta s- hitz hasieran bitan f- luzearen lekuan (‘seme’ hitzaren idazkeraz, ik. 424; ‘saindu’ hitza, berriz, *saindu*, 662; *saindu*, XXI,3; XXII,4; eta *Saindu*, 665).
- . Irakur: Glo-ryai-tari edo bestela Se-myari.
- . *bequie*: irakur bi silabaz: *bekye*.

XXII

Kristo hil zen gurutzeari eginiko elizako himno hotsandikoa da. Zur batek personifikatzen du gurutzea (“Agur, o zur kurutzea”) eta honek han hil zen Kristo, han gertatu zen “Kurutze-misterioaz”. Hau handiesten da zazpi bertsotan barrena, Jainkoak bere garaite itzaltsua han erdietsi zuelako: “Jainko jauna gugatila / Regnatu da zuretila”.

Zortzi lerrokoa da bertso bakoitza eta bi-binaka egiten dute errima (ik. XVII-XVIII). Oihenart bestetan ere bai, baina hemen batez ere artista agertzen zaigu itzulpena egiten. Hau bikaina da eta nekez egingo luke bestek horren antzekorik.

VEXILLA REGIS⁸², etc.

XXII,1:

ORAI gerlako bandera du Alferitzak ahurrera; orai nabaritu doa kurutze misterioa, zeinetan aragiaren egileak gaitz igaren bait´, egonik hedaturik, oin-eskuak itzaturik;	Ahora el portaestandarte ha empuñado la bandera de la guerra; ahora se hace patente el misterio de la cruz, en la que el creador de la carne ha padecido, permaneciendo torturado, clavado de pies y manos;
---	--

⁸² Hots, “Erregeren bandera”.

XXII,2:

zeintan gaizk´itzatekirik
eta zauriz juhiekirik,
lanza-zihite garratzaz,
punta-zorrotz, aho-latzaz,
xahu gentzantzat kozuti,
ikuz gentzan bekatuti,
egon baita zariola
ez ur ban´ur-ar´odola.

en ella ha estado bárbaramente
traspasado y cubierto de heridas,
por la cruel punta de lanza
de afilado extremo
y de terrible filo,
para limpiarnos de la mancha,
para lavarnos del pecado, manando
no agua, sino su sangre como agua.

XXII,3:

Orai dira gertatuak
Dabid errege prestuak
hitz neurtutan gauz´ emanak,
kantatotez zerratzanak,
herriz herri zebilela
eta guzier zioستela:
“Jainko Jauna gugatila
regnatu da zuretila”.

Ahora han acontecido los hechos
que el sabio rey David
anunció en verso
y cantó a viva voz,
mientras iba de un país a otro
y a todos predicaba:
“El Señor Dios ha reinado
por el leño por nosotros”.

XXII,4:

Zuhatzetan d´ederrena
zur haur nonti bait´ ethena;
argi da, da distiatu
et´ errege-granaztatu;
zuhatz motaz hob´ ezina
et´ ongi hauta zedina,
honein saindu lohadarri
lot et´ eretxekigarri.

Entre los árboles el mejor es aquél
del que se cortó este leño;
es luminoso, es brillante
y adornado con la real púrpura;
árbol inmejorable por su especie
y acertadamente elegido,
digno de ser unido y atado
a miembros tan santos.

XXII,5:

Dohatsua zeinetarik,
zeinen beso bietarik
urkaturik egon baita
sekuru ororen garhaita;
gorputza balanza nola

Venturoso aquél del cual
—de cuyos dos brazos—
ha estado colgada
la victoria de todos los tiempos;
mientras pendía de él

dilindaka zegokola,
ifernuak zedukana
altxaturik beragana.

el cuerpo como una balanza,
elevando y atrayendo hacia sí
lo que el infierno guardaba.

XXII,6:

Agur, o zur kurutzea,
zeintan baitatz´ en´ ustea!
orai, pasion´ aroan
Jauna dutenak gogoan
justotarik justoago
egizkik et´ aitzinago
gaizkigiler utztez pena,
gaizki eginez zor utena.

Salve, oh cruz de madera,
en la que estriba mi esperanza;
ahora en tiempo de la Pasión
hazles a quienes recuerdan al Señor
de justos más justos
y a los pecadores quítales
más la pena,
que debían por sus malas obras.

XXII,7:

Hiri, Jainko hirurkuna,
guziek gehien uguna,
gog´ orok bide bezala
elhesari demaiala;
gu hiharen herioaz
kurutze-misterioaz
salbatu gaitualakoz,
xuxen gaitzak sekulakoz.

A ti, Dios trino, a quien
todos tenemos por el supremo,
que todos los corazones
te rindan alabanza,
como es justo y, porque a nosotros
nos has salvado por tu propia muerte
con el misterio de la cruz,
justifícanos por siempre.

Vexilla regis, etc.

XXII,1. Voici que le porte-drapeau a pris dans sa main l'étendard de la guerre. Voici que paraît le mystère de la croix sur laquelle le créateur de la chair a souffert et est resté, torturé, pieds et mains cloués;

XXII,2. Sur laquelle, cruellement troué et criblé de blessures par le terrible fer de lance à la pointe aiguë et au tranchant redoutable, il est resté pour nous purifier de la souillure et nous laver du péché, en versant non point de l'eau, mais son sang, comme si c'eût été de l'eau.

XXII,3. Maintenant sont arrivées les choses que David, le roi sage, avait mises en vers et qu'il chantait à pleine voix en allant de pays en pays et disant à tous: "Le Seigneur Dieu, pour nous, a régné par le bois".

XXII,4. Il est le plus beau des arbres, ce bois qui a servi à son supplice, il brille, il est devenu resplendissant et orné de la pourpre royale. C'est l'arbre le meilleur de tous par son espèce, et qui fut bien choisi comme digne d'être lié et attaché à des membres si sacrés.

XXII,5. Heureux celui aux deux bras de qui a été pendue la victoire du monde entier, car tandis que son corps y était suspendu comme une balance, il a enlevé ce que l'enfer détenait et l'a fait venir à lui!

XXII,6. Salut, ô croix de bois, où réside mon espérance. Maintenant, à l'époque de la Passion, rends ceux qui pensent au Seigneur, de justes qu'ils étaient, plus justes encore, et continue à remettre à ceux qui ont fait le mal leur peine, ce qu'ils doivent te payer pour leurs méfaits.

XXII,7. Qu'à toi, Dieu en trois personnes, que nous mettons tous au dessus de tout, chaque esprit donne les louanges qui lui sont dues! Puisque, par ta propre mort et par le mystère de la Croix, tu nous as sauvés, rends-nous droits pour toujours.

ARGITASUNAK

XXII,1.

- . *Du ... ahurrera*: irakur 'ahurrera du' = eskuratu du. 'Ahur', eskuaren barneko aldea.
- . *nabaritu doa*: ik. XV,3; 20,9.
- . *igaren, / Bait*: 'igaren bait(u)', igaran, iragan baitu. Jatorrizko testuan ez dago komarik *Bait*-en ondoan.
- . *Oin-escüac*: -sc- grafia, apikariari dagokion -fc-ren lekuan (ik. 46); dieresiak *u* silabagilea dela adierazten du, hau da, diptongorik ez dela; *es-ku-ak* dela, alegia.

XXII,2.

- . *Izatequiric, / Eta ... iubiequiric*: ik. azkeneko hiztegiñoa edo ADIGARRIA.
- . *guenzanzat ... / ... guenzan* (ahoska 'gentzantzat ... gentzan'): biak gure 'gintzan', biak helburuzkoak; bata -*tzat* atzizkia duela, bestea gabe.
- . *vr-ar'* (ur-ar(a))): ik. XIII,16: 'gureak-ara' (cf. 38).

XXII,3.

- . *guertatiüac* / ... *prestüac*: ohi bezala, dieresiak diptongo ez baina bi silaba ditugula adierazten du; *-tu-ak*, alegia, ez *-twak*.
- . *David*: *-u-* kontsonantea.
- . *Erregue*: maiuskularekin jatorrizko testuan.
- . *Hiz neurtutan*: ‘hiz neurtu’, hemendik sortu zuen poetak “neurtitz”.
- . *Cantalotjes*: kantari baten hotsez, birikak bete.
- . *serrazanac*: erran zituenak.
- . *siostela* (ahoska ‘ziostela’): garbi ez bada ere, badirudi *-st-* idazten dela, apikariari dagokion *-st-*ren lekuan (ik. VII,6). Hark haiei esaten ziela, alegia.
- . *Regnatu*: grafia etimologikoa.

XXII,4.

- . *nonti*: aurrekaria isilik gorde du: ‘da (hura) nonti...’.
- . *Et’ Erregue-granastatu* (ahoska ‘Et(a) errege-granaztatu’): ‘Errege’ maiuskulaz. Bestalde, *-st-* grafia beharbada *-st-*ren lekuan, hau da, gure *-zt-*; *st* / *st* nahasketa honetaz, cf. 88 (ik., halaber, *Silharstatu*, X,9; *vrrestatu*, XXIV,2; *sarifta*, 59, baina *sarista*, 491; *heriofstatu*, XXVI,10).
- . *hauta sedina*: ‘hauta sedin-’, subjunt. aorist., pasiboa: ik. XX,13.
- . *Honein saindu lohadarri*: komunzki ordena aldatzen da: ‘honein lohadar sainduri’; *s-* hitz hasieran, *f-*ren lekuan (ik. XXI,3).
- . *Lot et’ erexequi-garri* (ahoska ‘lot et(a) eretxekigarri’): marra eta *x* soila *x^o*-ren lekuan, gure *-tx-* adierazteko (ik. 53). Bestalde, ‘-garri’ atzizkia lehenari, ‘lot’-i, ez dio erantsi.

XXII,5.

- . Hemen ere bi erlatiboen aurrekaria falta (?) da; alegia, ‘Dohatsua (hura) zeinetarik, zeinen...’.
- . *Securu* < saeculu(m)>: mendea, denbora. Orpustanek itzulpen hori hobesten du eta ez Lafonen “du monde entier” (“Traduction française...”, 31. or., 5. bertsoa).
- . *Ifernüac*: dieresiarekin, hots, *nu-ak*, ez *-nwak*.

- . *Alxaturic* (ahoska ‘altxaturik’): x soila hemen ere x^o-ren lekuan, gure -tx- adierazteko (ik. 563).

XXII,6.

- . ô: azentu zirkunflexua.
- . *sur curuzea*: hitz konposatua, ‘zur mailua’ (zurezko mailua) bezala.
- . *Seïntan*: badirudi dieresia dela *i*-ren gainean, zeregin berezirik ez badu ere.
- . *paßion*: -ff- bikunaren balioa duen -ß- grafia.
- . *vztec* (ahoska ‘utztek’): ‘uztek haiei’, ‘uztazu niri’ bezala.
- . *sor vtена*: ‘zor autena’, ‘zor diatena’-ren orde. Lafonek: “C’est la construction irrégulière connu sous le nom de <solécisme de la côte>” (“Notes...”, 89).

XXII,7.

- . *guehien*: nagusi, handientsu; Leizarragak Erreginari “Bearnoco Andre *Guehien*” bezala.
- . *vguna*: hauguna
- . *Elhesari*: goresmen, laudorio; ik. azkeneko hiztegiñoa edo ADIGARRIA. Hemen -f- bakuna elkarketa gunean baita, bigarren lexemaren hasieran.
- . *damaïala*: alegia, ‘eman diezaala’; dieresiak *i* hori diptongoaren bokal erdia dela adierazten du.
- . *seculacos*: s- hitz hasieran, berriz ere, f- luzearen lekuan⁸³.

⁸³ Pariseko alean hemen amaitzen dira neurtitzak eta hauen segidan dator “Neurtitz hautako hitz bekanen adigarria” izenburupeko hiztegiñoa. Guk hemen sartu ditugu, hiztegiñoaren aurrean, Baionako aletik hartuta Francisque-Michelek argitaratu zituen beste neurtitz eta neurtitz-zatiak.

*Baionako liburutegiko alean
baizik agertzen ez diren Neurtitzak
(eta Francisque-Michelen
argitalpenean argitara eman
direnak⁸⁴).*

*Poesías que únicamente
figuran en el ejemplar de la
Biblioteca de Bayona (y que
fueron publicadas en la
edición de Francisque-Michel).*

*Poésies qui ne figurent que
dans l'exemplaire de la Bibliothèque
de Bayonne (et qui ont été publiées
dans l'édition de Francisque-Michel)*

XXIII⁸⁵

Bistan denez, gorde zaigun lehen bertsoa trenkatua dago, aurrean zenbat galdu dituen ere ez dakigula. Osorik dauden biek erakusten digute eskema hau dutela: 9-8-9-8-8-8.

⁸⁴ “Autres pièces et fragments” izenburupean.

⁸⁵ Francisque-Michelen edizioan ez da zenbakirik ageri neurtitz honen buruan, baina ondoko neurtitzetan *II, III, IV...* zenbakiak ageri dira. Guk, aurrekoen segida gordetzarren, *XXIII, XXIV, XXV...* zenbakiekin jarraitzea hobetsi dugu. Neurtitz hauetan ere Lafonen itzulpena emango dugu, ez Francisque-Michelek bere argitalpenean eman zuena.

XXIII,1.

.....
.....

ondoan narakarzuno; gero zail edireiten zitut eske gehiago nauzuno eta jartzen zautz erranez, eztezakezul' eman, ez.	en tanto me atraes tras de ti; luego te encuentro reacia mientras más te solicito y te pones a decirme que no me lo puedes conceder.
--	--

XXIII,2.

Enganatuko bide zira gaurger', orano bezala, baduz' uste zure begira egonen ahal nizala, hautuagorik zu bano deiez ondotik dautano.	Te engañarás de seguro si piensas que en adelante yo podré estar esperándote como hasta ahora, mientras tengo a mejores clamándome por detrás.
--	---

XXIII,3.

Orai jagoiti minzatzekoz minza gaitezen garbiki; zuk nigatik deus egitekoz egin ezazu gaiziki; ezpaduzu egin gogorik, nik er' ez luzatzekorik.	Esta vez, caso de seguir hablando, hablemos de verdad, y caso de hacer tú algo por mí, hazlo inmediatamente; si no tienes ganas, tampoco yo de prolongarlo.
---	--

XXIII,1. (Le début de la strophe manque)

..... pendant que vous m'entraînez derrière vous. Ensuite je vous trouve résistante à mesure que je vous demande d'avantage, et vous vous mettez à me dire que vous ne pouvez vraiment pas me l'accorder.

XXIII,2. Vous vous tromperez sans doute si vous croyez qu'à l'avenir je pourrai, comme je l'ai fait jusqu'à présent, rester à vous attendre pendant que de plus distinguées que vous m'invitent à les suivre.

XXIII,3. Maintenant, si nous devons continuer à nous parler, parlons nettement. Si vous devez faire quelque chose pour moi, faites-le promptement. Si vous n'avez pas l'intention de la faire, moi non plus je n'ai pas l'intention d'attendre plus longtemps.

ARGITASUNAK

XXIII,1.

. *Eske guehiago nausuno*: zenbat eta nik gehiago eska; *-sk-* grafia *-fk-* grafiaren lekuan (ik. 264).

XXIII,2.

. *Hautüagoric*: dieresiarekin, *tu-a*, ez *-twa-*.

. *Deies*: *i* bokala dela adierazten du dieresiak, *dei-ez*, ez *de-jez*.

. Hots, zu baino neska hobeak atzetik bila dabilzkidanean.

XXIII,3.

. *deus*: *-s* txikia hitz amaieran, maiz bezala, *-f* luzearen lekuan (ik. 45).

. *Nic'*: apostrofoa ageri da, zereginik gabe, 'nik' hitzaren ondoan.

XXIV (II)

Honaino gutxitan bezalako heiagora garratzak entzuten ditugu ondorengo neurtitzean; “kaskarraldi hutsa da honela gauzkana. Biona, noski; elkarrekikoa, noski, eta biok ari gara kaltetan ateratzen. Ni gori, zu gor”. Konponbidea ipini behar diotela beren egoerari; mutila prest dago barkazioa eskatzeko, errua berea bada, baina neskak ater dezala mutilari hainbeste kalte egitea. Zenbait lerrok (25-28) seigarren neurtitzekoan (VI,8) antza dute.

Sei bertso ditu neurtitzak eta bertso bakoitzak zortzi eta zazpi silabako zortzi lerro, bi laukotan erdibituak eta txandaka tolestatuak. Eskema hau da, beraz: A8-B7-A8-B7 + C8-D7-C8-D7.

XXIV,1:

Argitzean, eguerditan,
arratsean natzano,
gaua goizak ordaritan
biharamunt dazano,
zuri huts et´ ez bertzeri
darraik´ ene gogoia,
zuzaz nolabait´ er´ eri,
nahiz izan sendoa.

Mañana, mediodía y noche
mientras reposo, hasta que la mañana
haya reemplazado la noche
y traído el siguiente día,
mi pensamiento te sigue sólo a ti
y no a otra, queriendo ser curado
por ti, pues por ti está
en cierto modo enfermo.

XXIV,2:

Ile urreztatu horiek
nadukate harturik,
begi leinhuru goriek
lasto legez garturik.

Esos cabellos dorados
me tienen cautivo
y los ojos radiantes encendidos
ardiendo como paja.

Eta zuk eginez baizen
zenbait-ere hongoa,
hoboro bizi al naizen
da gauz' ezinezkoa.

Y a no ser que me haga
algunos favores,
es imposible que pueda yo
vivir más tiempo.

XXIV,3:

Nik gortharzun, zuk gortharzun
derakuskegu elkarri;
biek bardin bermetarzun
dugu hetan ezarri,
eta goaz ia haraitzina
ene zorigaitzean,
zein ondoti, zein aitzina,
zu ihesi, ni batzean.

Yo ardor, tú sordera:
eso nos mostramos mutuamente;
ambos hemos puesto
igual terquedad en ellos
y marchamos adelante
para desgracia mia
una detrás, otro delante,
tú huyendo, yo al alcance.

XXIV,4:

Nik nigarrak, zinkuriak
ene bizilagunak;
zuk zuriak belzuriak,
poru, handitarzunak.
Hezaz oradrano iraitzi
ikusirik nuzula,
orai onhestea gaitzi
dakit dakidizula.

Llantos y suspiros
son mis compañeros;
los tuyos a tu vez ceños,
gritos y grandezas.
Viendo que hasta ahora
me has rechazado con ellos,
comprendo que ahora
te resulte repugnante amarme.

XXIV,5:

Otoi, otoi ene minak
gaurgoitik epa itzazu;
oranoko gaizki eginak
askitan edutzazu;
enezazula gal gorrez,
kalte jin lakidizu,
bana galde nauzun horrez
ukenduru negizu.

Por favor, desde hoy
pon fin a mis dolores;
los males causados hasta ahora
tenlos por suficientes;
no me arruines por tu sordera,
te podría derivar un daño,
sino hazme poseedor
de eso que te pido.

XXIV,6:

Edo nitan bad´ ogena
 eta den huts eginik,
 erakustazu zuzena,
 zeren hura jakinik,
 bertarik nuzu ikusiko
 hutsaz urrikiturik,
 zur´ aurkian belhauriko
 sabel lurreraturik.

O si la culpa es mia
 y hay alguna falta cometida,
 muéstrame lo que es recto,
 porque al saberlo
 me verás al punto
 arrepentido de la falta,
 de rodillas ante ti
 y postrado en tierra.

XXIV,1. Au lever du jour, à midi, le soir, quand je suis couché, jusqu'à ce que le matin ait remplacé la nuit et amené le jour suivant, c'est vous seule, et personne d'autre, que mon esprit poursuit, car c'est par vous, qui l'avez rendu malade, qu'il veut aussi être guéri.

XXIV,2. Vos cheveux dorés me tiennent captif; les ardents rayons de vos yeux m'ont enflammé comme de la paille. Et, sauf si vous m'accordez quelques faveurs, il est impossible que je puisse vivre plus longtemps.

XXIV,3. Je me montre ardent, et vous sourde: telle est notre attitude mutuelle. Nous y avons mis tous deux une égale opiniâtreté, et nous continuons à aller, pour mon malheur, l'un derrière, l'autre en avant, vous me fuyant, moi sur vos traces.

XXIV,4. Moi, j'ai les larmes et les sanglots comme compagnons d'existence. Les vôtres sont les mines sombres, les hauts cris, les grands airs. En voyant que jusqu'ici vous m'avez repoussé par ces moyens, je sais maintenant qu'il vous déplaira d'accepter.

XXIV,5. Je vous en prie instamment, mettez fin désormais à mes souffrances. Tenez pour suffisant le mal que vous m'avez fait jusqu'ici. Ne causez pas ma perte à force d'être sourde: cela vous porterait préjudice. Mais donnez-moi la possession de ce que je vous demande.

XXIV,6. Ou bien, si le tort est de mon côté et si j'ai commis des fautes, montrez-moi où est le droit, car, dès que je le saurai, vous me verrez, me repentant de ma faute, agenouillé devant vous, et prosterné.

ARGITASUNAK

XXIV,1.

- . *Gaïa*: dieresiak *u* hori bokala dela adierazten du; *gau-a*, ez *ga-ba*.
- . *Biharamunt daçano*: ç grafia, Oihenarten sistemako *s*-ren lekuan. ‘Biharamuntu’ aditz iragankor bezala darabil: goizak gaua biharamuntzen du, alegia, hark honen ordaina hartzen du.
- . *darraic*: (‘*darraic(a)*’): hura hari. Baina hemen datiboa ‘zuri’ agertzen da: ‘zuri... *darraic(a)*’. Lafon: “Le pronom est traité ici comme un substantif ordinaire, non personnel” (ik. “Notes...”, 89, or.). Lafonek ez dio, baina bistan da horretarako bide ematen diola hurbilagoko “ez bertzeri”-k, alegia, 3. pertsonako datiboak.
- . *nola bait*: bereiz.
- . *isanfendoa*: loturik, hutsa.

XXIV,2.

- . *vrrestatu*: -ft- grafia -st-*ren* lekuan dago seguruenik (ik. XXII,4).
- . *leinhuru*: distiratsu.
- . *leguez*: -z hitz amaieran, Oihenarten sisteman -s behar lukeena; ez da, bada, *legetz* irakurri behar, *legez* baizik.
- . *Eta, suc eguines*: irakur horrela: ‘ezinezko gauza da ni hoboro bizitzea, zuk eginez baizen’, etab.
- . *Cembait... / ... bici*: *ce* eta *ci* grafiak, *se* eta *si*-ren lekuan (ik. 6).
- . *gauc’ esinescoa*: Oihenarten sisteman *gaus(a)* *esinescoa* litzateke, baina -a gal-duta gero txistukaria *e*-ren aurrean gertatzen da eta hortik *c’_e* grafia.

XXIV,3.

- . *gortharsun ... gortharsun*: bi hitz dira. Lehena ‘gortharzun’ < gori (r biguna); bigarrena ‘gorrtharzun’ < gogor (rr gogorra)⁸⁶. Lafonek honela dio: “On

⁸⁶ Bestetan bezala hemen ere grafia bereizgarria erabili izan balu, r azkarra adierazteko -rr bikuna erabiliz silaba amaieran (ik. 618 eta 631), *gortharsun* idatziko zuen lehena eta *gorrtharsun* bigarrena.

lit dans l'exemplaire original: *Nic gortharsun, suc gorrtarsun*. Ce dernier mot est dérivé de *gogor* (avec *r* forte) <sourde>; *gortharsun* de *gori* <ardent> (avec *r* douce): "Notes...", 90. or., 17. Baina VII,4 bertsoan biok irakurtzen ditugu: 'gortarsuna' eta 'gorzen-ago'. Orpustanek berriz ez dio ezer. Larresorok ere ez, biak 'gortharzun' idatzi bakarrik.

- . *vermetarsun*: *v*- kontsonantea.
- . *sori gaizean*: bereiz.
- . *ni bazean* (ahoska 'ni batzean'): ni urratsean. (Ala *hazean* da?)

XXIV,4.

- . *Nic nigarrac...*: ikus VI,8 pasartea.
- . *vici-lagunac*: marrarekin; *v*- kontsonantea eta *-ci* grafia.
- . *Poru*: hots handia.
- . *onbestea*: *-st*- grafia, *-ft*-ren lekuan (ik. II,3).
- . Bertsoaren bigarren erdia irakur honela: 'ikusirik oradrano hezaz iraitzi nuzula (ba)dakit orai onestea gaitzi dakidizula'.

XXIV,5.

- . *epa*: 'epatu', buru eman, burutu, azkendu.
- . *iin laquidisu*: etor lekizuke; ik. 'laquidita' XIII,15.
- . *Vkenduru*: edukitzaile.
- . *neguisu*: agintera sintet., 'egin nazazu'.

XXIV,6.

- . *Eta den*: eta baldin bada.
- . *Ceren*: *ce*- grafia, *se*-ren lekuan.
- . *Cur aurkian*: apostrofoa falta da bi hitzen artean. *Cu*- grafia, bestalde, *Çu*-ordezkatuz⁸⁷ eta hau, bere aldetik, Oihenarten sistemako *Su*-ren lekuan.
- . *Sabel-lurreraturic*: marra.

⁸⁷ Moldiztegi askotan ez zuten sartu berri samarra zen Ç letra-tipo maiuskulakorik. Horren lekuan edo C maiuskula edo ç minuskula erabiltzen zuten maiz.

XXV (III)

Poetak bere maiteari 'eder' izenondoa ezarri dio izen maila konparatibotan, *eder-ago*. Gazteleraz "más hermosa"-k ez du ongi ematen pertsona izentzat; gehienez ere "la más hermosa" izan beharko luke, baina hori superlatiboa da, ez konparatiboa, ez eta bestea baino hobea, egia esan. Olerki hau ere aise ulertzen da eta ez du behar argitasun handirik. Hemen ere badira lerro batzuk aurreko neurtitzen baten -3.-4.en batez ere- oihartzuna direnak.

Bost bertsoz osatua da neurtitz hau eta bertso bakoitzaren lehen lau lerroak 9-8-9-8-ko laukoa dira eta bi azkenek zortzina silabako errepika egiten dute, bost bertsoen bukaeran ageri dena.

EDERRAGOARI

A UNA MAS BELLA

XXV,1.

Zurekin ezagutze hartzen
hasiz gero, Ederragoa!,
sendi dizut nitan eihartzen
berzetrako amorioa,
orai eta sekulakoz
zure nizatealakoz.

Desde que empecé a conocerte,
Ederragoa!,
he sentido marchitarse en mí
el amor para con las demás,
porque ahora soy tuyo
y seré por siempre tuyo.

XXV,2.

Ban´ alaz!, hanbat dizut hugu

Pero, ¡ay! me es muy odioso

zurekin minzatu ezina,
zeren jagoitik ezpaitugu
bi hitzen erran aizina,
orai eta sekulakoz
zure nizatealakoz.

no poder hablar contigo,
pues no tenemos nunca
ocasión de decirnos dos palabras,
porque ahora soy tuyo
y seré por siempre tuyo.

XXV,3:

Mirets ziniro bazeneki
gau et´ egun, zein ardua,
nahiz batzarre egin zureki
jin nizan zur´ okolura,
orai eta, etab.

Te asombrarías si supieras
cuán a menudo he ido
noche y día alrededor de tu casa
queriendo juntarme contigo,
porque ahora soy tuyo
y seré por siempre tuyo.

XXV,4:

Zurekin izatera haizu
ezpanaiz ere gorpitzez,
alabadere banarraizu
bethi gogoz et´ orhitzez
orai eta, etab.

Si bien no me es permitido
estar contigo corporalmente,
no obstante te persigo siempre
con el pensamiento y la memoria,
porque ahora soy tuyo
y seré por siempre tuyo.

XXV,5:

Maite banuzu berzez goiti,
nik zu zaitudan bezala,
zukanik hon ardietsi engoiti
pens´ ezazu ordu dudala.
orai eta sekulakoz, etab.

Si me amas más que a los otros,
como te amo yo a ti,
piensa que es hora ya de que
obtenga yo de ti favores
porque ahora soy tuyo
y seré por siempre tuyo.

XXV,6:

Zuk niri uko badagidazu
nik zuri galde bezanbat,
eridenik eztadukazu
nik nola maita zitzan bat

Si tú me niegas tanto
cuanto yo te pido,
es imposible que encuentres
a uno que te ame tanto como yo,

orai eta sekulakoz, etab.

porque ahora soy tuyo
y seré por siempre tuyo.

A celle qui est plus belle

XXV,1. Depuis que j'ai commencé à vous connaître, j'ai senti en moi se flétrir l'amour que j'avais pour d'autres, parce que suis maintenant et serai pour toujours à vous.

XXV,2. Mais hélas! Il m'est très odieux de ne pouvoir vous parler parce que nous n'avons jamais l'occasion de nous dire deux paroles; parce que je suis maintenant et serai pour toujours à vous.

XXV,3. Vous vous étonneriez si vous saviez combien souvent, jour et nuit, dans l'intention de vous rencontrer, je suis venu aux abords de votre maison; parce que je suis maintenant, etc.

XXV,4. Bien qu'il ne me soit pas permis d'être avec vous de corps, je ne cesse pourtant de vous suivre en pensée et par le souvenir; parce que je suis maintenant, etc.

XXV,5. Si vous m'aimez, comme je vous aime, plus que les autres, pensez qu'il est temps que j'obtienne désormais de vous des faveurs; parce que je suis maintenant, etc.

XXV,6. Si vous me refusez tout ce que je vous demande, vous n'êtes pas près de trouver quelqu'un qui vous aime comme moi; parce que je suis maintenant, etc.

ARGITASUNAK

XXV,1.

. *ederragoa*: minuskularekin.

. *Sendi disut*: zutano forma, 'sentitu dut, adizu'.

. *Bersetratco*: hutsa, *bersetraco*.

. *seculacos*: s- hitz hasieran f- luzearen lekuan (cf. XXII,7).

XXV,2.

. *hugu*: egungo 'higuin'.

XXV,3.

- . *siniro*: bestetan ere agertu den **iro* erro zaharraren forma, egungo ‘zenezake’-ren baliokidea: ik. I,6; VII,3. Irakur honela bertso osoa: “Mirets ziniro bazeneki zein ardura jin nizan gau eta egun zur’ okolura, batzarre egin nahiz zureki”.
- . *bacenequi* / ... *cein*: ce- grafia.
- . *çur*: ç- grafia, s-ren lekuan.

XXV,5.

- . *Cuganic*: Ç ordezkatzan duen C grafia, Oihenarten sistemako S-ren lekuan (ik. XXIV,6).
- . *Pens*: s txikia, apikariari dagokion f-ren lekuan (ik. I,4).
- . Irakur honela: ‘pensa ezazu ordu dudala engoiti zukanik erdietsi on’: hots, on erdiestea edo erdiesteko.
- . *seculacoz*: s-, ikus hementxe, XXV,1; -z hitz amaieran –s behar zuelarik.

XXV,6.

- . *Eridenic estaducasu*: hor ditugu *eduki* forma personalean ezezka eta bere konplementu beste aditz izen bat, *eriden-*, atzizki partitiboarekin; egun zenbait tokitako herria aditz izenaren ordezkari partizipio burutuaz baliatzen da: adibidez, “ez dauka etortzerik”, “egiterik ez daukak”.
- . *sizanbat*: loturik.
- . *seculacoz*: ik. XX,5.

XXVI (IV)

Oihenarten neurtitzik famatuenetakoa da eta gaiari dagokionez orainoko batere ez bezalakoa. Gertari bat kontatzen du, grazia falta ez duena. Lau emakume garban ari ziren eta beroagatik egarriak hiltzen zeudela, haietako bi baratzez-baratze atera ziren ur edo egarri asegarri bila eta pikondo zoragarri bat aurkitu, zein losintxaz bete baitzuten eta beren aurreko mantelak bikoz. Garban gelditu ziren beste bi garbarietatik bat aspertu eta aurreko biengana abiatu zen. Laugarrenak ere, bakarrik gelditzean, ez zuen asko iraun lanean eta nora joan ez jakinik, kaska-kaska jo zuen auzoko etxean. Hara non ateratzen zaion mutiko gazte polit bat, ikusi batera neska zirudiena eta are garbariak neskatzat hartu zuena. Horra istorioaren elementuak; hemendik aurrera poetaren testua den denean irakurtzea onena.

Hogeita sei bertso ditu, lau lerro bertso bakoitzak eta lau lerroek zortzina silaba. Errima gorago aipatu dugun “Andr´ Emil´ andre gora”-k bezala; hots, lerro guztiek dute, salbu hirugarrenak.

LAUR KARBARIEN ERESIA HISTORIA DE LAS CUATRO CARDADORAS

XXVI,1:

Ora-gauan laur karbari
karban hanxe ziren ari;
egarriz bortx´ egon-eta
nehork ez hek urrikari.

Una noche de carda cuatro cardadoras
se ocupaban en ello;
y aunque muertas de sed
nadie les compadeci6.

XXVI,2:

Noizbait hala dioite elgarri:
“Aho hoi en hezagarri
nonbait zerbait ezpadugu,
galdu behar gara sarri”.

Dicen unas a otras: “Si para
refrescar nuestras bocas no damos
pronto con algo donde sea,
en breve nos habremos consumido”.

XXVI,3:

Hori erranik, hauk doazala
hetarik biga berhala
baratzez baratze, xori
ihiztariak bezala.

Dicho esto, he aquí que marchan
al punto dos de ellas
de huerta en huerta
como los cazadores de pájaros.

XXVI,4:

Ezt´ izan ehon hesirik
hanbat goraki hersirik,
non eztituzten gaintitu
oillarrasiki jauzirik.

No ha habido en ninguna parte
valla cerrada hasta tal altura,
que no superaran ellas
saltando gallardamente.

XXVI,5:

Joanez joanez azkenean
unhe-hurran zirenean,
sagardoi baten barnera
sar ziten oren honean.

Al fin cuando a fuerza de andar
estaban casi extenuadas,
entraron por fortuna
dentro de un vergel.

XXVI,6:

Han pikotze bat baturik
frutaz oro kargaturik,
pot eta besarkaz lotu
zauzko belhaunak gurturik.

Al encontrar allí una higuera
totalmente cargada de fruta,
la colmaron de besos y abrazos
y doblaron las rodillas, diciendo:

XXVI,7:

”O zuhatz orsto-zabala!
(dioitela) luzez izala
horl´ ukensu, horl´ ekoizle
orai izana bezala!

“¡Oh árbol de amplias hojas,
ojalá seas durante mucho tiempo
tan copioso, tan fértil
como lo eres ahora!

XXVI,8:

Zuhatzetan hi lehena
aiz, hoben´ et´ ederrena;
dohatsu hir´ orsto-adarrak!
dohatsu hir´ ekoizpena!

Tú eres de los árboles el primero,
el mejor y el más hermoso;
¡dichosas tus hojas y ramas,
dichosos tus frutos!

XXVI,9:

Etzen ez deitatzekoa
noizten fruktu bizizkoa
Eb´ amasok jan zezana,
bana bai, o hi!, pikoa!

Porque no merecía llamarse
fruto de vida el que una vez
comió nuestra antepasada Eva;
pero tú sí, ¡oh higuera!

XXVI,10:

zeren hartarik alhatu
zelakoz, zen herioztatu
Eba, baita haren leinu
oro min beraz kozatu.

Porque Eva por comerlo
se convirtió en mortal
y también todo su linaje
se contagió del mismo mal.

XXVI,11:

Aldiz, pikoa, higanik,
hil hurrenean izanik
zitiheguk guk biziak
osagarri hik emanik”.

Al contrario nosotras, tras haber
estado a punto de muerte, de tí
tendremos la vida, oh higuera,
por habernos dado la salud”.

XXVI,12:

Hanbateki bata jauzten
adarretar´ eta hausten
ari d´ aldaken, bertzea
zuhatzaren iharrausten.

Tras esto la una
salta a las ramas
y rompe ramos;
la otra sacude el árbol.

XXVI,13:

Bild´ uken duten bezala
biek jasan ezin-ahala,
herena karbategiti
hetara haur datorrala.

Tan pronto hubieron recogido
cuanto las dos podían llevar,
he aquí que la tercera viene
donde ellas de la cardería.

XXVI,14:

Laurdenak ezpaitzakien
ber´ egonik zer zaidien,
sorgin et´ ohoinen lotsak
auzora laster zegien.

Como la cuarta al quedar sola
no sabía qué hacer, echó a correr
por miedo de brujas y ladrones
a casa del vecino.

XXVI,15:

Hango atea baratx jorik
morroin bat han-berekorik
ager zekion, begitartez
anderauren gisakorik.

Golpeando suavemente la puerta
apareciósele un muchacho de allí,
cuyo rostro parecía
el de una joven muchacha.

XXVI,16:

Ustez zen anderaurena,
ager zezon bere pena,
bai et´ eska hur edo arno
apur baten ahamena.

Creyendo que lo era en efecto,
le declaró su apuro
y le pidió asimismo un trago
de agua o de vino.

XXVI,17:

Hark zer zen gauz´ ikasirik
barnera sar erazirik,
eznez erregala zezan
bere zurati erautsirik.

Él al enterarse del asunto
le hizo entrar en casa
y le obsequió con leche
sacada de su propio cántaro.

XXVI,18:

Hanti-landan er´ urzeki
zezan gogo handireki
karbategira, bait´ egin
karb´ aldi bat han hareki

Al salir de allí la acompañó
de buena gana a la cardería;
e incluso cardó
allí un rato con ella.

XXVI,19:

Gero bertzen urrundani
jin-herotsa hautemanik,
berhez ziten, brist elgarri
pot eta besark´ emanik.

Luego al sentir de lejos
el ruido de las otras que venían,
se despidieron de prisa ambos
dándose besos y abrazos.

XXVI,20:

Arte hartan hauk direla
jauziz jauzi nol' igela
bertze hirurak, alzoak
pikoz bethe dakhaztela.

Entretanto he aquí que,
saltando como ranas,
traen las otras tres
sus delantales llenos de higos.

XXVI,21:

Laurdena punsu jarririk
herenak han ber' utzirik
kexa zedin (alegia)
egon zela galetsirik.

La cuarta poniendo mala cara
se quejaba pretextando que
la tercera la había dejado sola
y había estado desamparada.

XXVI,22:

Herenak zinhardetsana:
"Eztinat nik ogen, bana
hihaurk, falta hirea dun
eneki jin ez izana"

La tercera replicó:
"No es mia la culpa, sino tuya;
es culpa tuya
el no haber venido conmigo".

XXVI,23:

Morroina beh' aurkintzetan
baitzauten, aldarte hetan
zer egin ziroen oldar bat
egon zedin pensaketan.

El muchacho que les observaba
de cerca, estuvo pensativo un rato
viendo qué podía hacer
en aquellas circunstancias.

XXVI,24:

Ger' oharturik gazt-ara,
hizkatzetik eskukara
jin zaitezkiela, joan zedin
gordailuti hek beitarra.

Luego advirtiendo que
siendo jóvenes podían pasar
de las palabras a los hechos,
fué a ellas desde el escondite.

XXVI,25:

Han jarririk ararteko
bilhakaiden baketzeko,

Allí erigiéndose en mediador
para pacificar a las litigantes,

igor zezan arno bilha
pikoekin ezkontzeko.

mandó en busca de vino
para acompañarlo con higos.

XXVI,26:

Noizbait bakeak eginik
arno´ ere orduko jinik,
uxtia zedin pikoekin
garhaitu gab´ utzikinik.

Por fin, hechas las paces y
llegado también el vino a tiempo,
se zamparon todos los higos
sin dejar ninguna sobra.

Histoire des quatre broyeuses de lin

XXVI,1. La nuit où l'on triturait le lin, quatre broyeuses travaillaient là à la broie; elles avaient forcément soif, et personne n'avaient pitié d'elles.

XXVI,2. Si, à un moment, se disent-elles entre elles, nous ne trouvons pas quelque part de quoi humecter nos bouches, nous sommes bientôt nécessairement perdues.

XXVI,3. Cela dit, voici que deux d'entre elles s'en vont aussitôt de jardin en jardin, comme des chasseurs d'oiseaux.

XXVI,4. Il n'y a eu nulle part de haie si élevée qu'elles n'aient franchie en sautant gaillardement.

XXVI,5. A la fin, au moment où, à force de marcher, elles étaient presque exténuées, elles eurent la chance de pénétrer dans un verger.

XXVI,6. Elles y ont trouvé un figuier tout chargé de fruits, et elles se sont mises à le baiser et à l'étreindre, genoux fléchis.

XXVI,7. "O arbre aux larges feuilles, disent-elles, puisses-tu être longtemps aussi riche, aussi fécond que tu l'es maintenant!"

XXVI,8. "Tu es le premier des arbres, le meilleur et le plus beau. Heureuses tes feuilles et tes branches! Heureux tes fruits!"

XXVI,9. "Car il ne faut pas appeler fruit de vie celui que notre aïeule Eve mangea autrefois, mais bien toi, ô figue!"

XXVI,10. "Car pour s'être nourrie de ce fruit, Eve devint mortelle, et de plus toute sa lignée fut contaminée par le même mal.

XXVI,11. "De toi, par contre, ô figue, alors que nous étions tout près de la mort, nous tiendrons la vie, car tu nous auras donné de quoi guérir".

XXVI,12. Là-dessus, l'une saute dans les branches et casse des rameaux, l'autre secoue l'arbre.

XXVI,13. Quand elles ont ramassé tout ce qu'elles peuvent porter à elles deux, voici que la troisième arrive de la pièce où l'on broyait.

XXVI,14. Comme la quatrième, restée seule, ne savait que faire, craignant les sorciers et les voleurs, elle courut chez le voisin.

XXVI,15. Elle frappa doucement à la porte, et elle vit apparaître un jeune homme de la maison même, dont le visage ressemblait à celui d'une demoiselle.

XXVI,16. Croyant que c'était une demoiselle, elle lui révéla sa peine, et lui demanda de l'eau ou une petite gorgée de vin.

XXVI,17. Quand il eut appris ce qui en était, il la fit entrer dans la maison et la régala de lait puisé à sa propre cruche.

XXVI,18. En sortant de là, il la reconduisit aussi très volontiers à la pièce où l'on broyait, et il y broya un moment avec elle.

XXVI,19. Puis, comme ils avaient entendu, de loin, le bruit que faisaient les autres, qui revenaient, ils se séparèrent, après avoir échangé rapidement des baisers et des étreintes.

XXVI,20. Pendant ce temps voici que, un bond après l'autre, à la façon des grenouilles, arrivent les trois autres, leurs tabliers pleins de figues.

XXVI,21. Prenant un air boudeur, la quatrième, que la troisième avait laissée là toute seule, se fâcha (ou plutôt fit semblant), en disant qu'elle était resté toute désemparée.

XXVI,22. La troisième répondit: "Ce n'est pas ma faute, mais la tienne; c'est toi qui as eu le tort de ne pas venir avec moi".

XXVI,23. Le jeune homme, qui les écoutait dans les parages, réfléchit un instant à ce qu'il pouvait faire dans ces circonstances.

XXVI,24. Puis, ayant remarqué qu'elles pouvaient, à la façon des jeunes, en venir des paroles aux mains, il sortit de sa cachette et alla les trouver.

XXVI,25. Là il s'interposa, et, afin de réconcilier celles qui se querellaient, il envoya chercher du vin pour le marier aux figues.

XXVI,26. Enfin, la paix étant faite, et le vin aussi étant arrivé à point, on l'acheva avec les figues, sans laisser de restes.

ARGITASUNAK

XXVI,1.

- . *Ora gavan* (ahoska ‘ora gauan’): marrarik gabe. Harritzekoa da *-v-* grafia, hitz barruan *-u-* idazten baitzen, bokala nahiz kontsonante izan; hemen bokala da (ik. II,18; III,1; V,31; XVI,1; XX,12, 13; XXIV,1). Jatorrizko testuko bi lehen hitz horiek Lafoni zer esan handia eman diote; orrialde osoan zehar ari da horretaz zer izango hausnarrean (ik. “Notes...”, 91. or.). Azkenik honekin gelditzen da: : “**Ora-gau** peut signifier ‘nuit où l’on pétrit...’”. Orpustan ere bai: “La nuit du broyage (de lin)...” (“Proverbes et ...”, 173. or.).
- . *hanche*: *-ch-* grafia ohiko *-x-*ren lekuan (ik. XX,14).
- . *borx*’ (ahoska ‘bortx(a)’): *x* soila hemen ere *x^o*-ren lekuan, gure *-tx-* adierazteko (ik. 104).

XXVI,2.

- . *ala*: *h-*rik gabe.
- . *cerbait*: *ce-* grafia, Oihenarten sistemako *se-*ren lekuan.
- . *sarri*: *s-* hitz hasieran, apikariari dagokion *f-*ren lekuan.

XXVI,3.

- . *hauc* (ahoska ‘hauk’): ik. ‘hauk direla’ (XXVI,20). Izan ere, izenorde erakuslea bezala singular nahiz plural izan daiteke; ik. ‘haur ni huna’, XXII,10; ‘haur datorrala’, XXVI,13.

XXVI,4.

- . *Oillarrafisiqui* (ahoska ‘oillarrasiki’): horrela dio azken aditzondoak jatorrizko testuan. Azkuek “gaillardement” itzultzen duela dio Lafonek eta berak onartzen, baina “la formation du mot n’est pas clair” dio. Orpustanek, ordea, “en sautant comme des volailles”, aditzondoaren jatorria ‘oillar-’ (“Proverbes et ...”, 173, or.) omen delako. J. Corominas ez dator bat etimo horrekin; esaten du datorrela “del fr. *gaillard* ou oc. ant. *galhart*, ‘vigoroso, valiente’, de origen incierto”.

XXVI,5.

- . *Vnbe-hurran*: hots, unhatzeko zorian.
- . *Sagardoibaten*: loturik.
